CUPRA *FORMENTOR*

JARRABIDEEN ESKULIBURUA

CUPRA

Eskerrik asko zure konfiantzarengatik

Zure CUPRA berriarekin, teknologia aurreratuena eta kalitate handiko ekipamendua duen ibilgailuaz gozatuko duzu.

Jarraibideen eskuliburu hau arretaz irakurtzea gomendatzen dizugu, ibilgailua hobeto ezagutzeko eta egunero gidatzean haren funtzio guztiei etekina ateratzeko.

Gidatzeari buruzko informazioaz gain, ibilgailuaren funtzionamendu eta kontserbaziorako aholkuak ere aurkituko dituzu eskuliburuan, segurtasuna areagotu eta ibilgailuak balioa galtzen ez duela bermatzeko. Horrez gain, aholku praktiko oso baliotsuak eta iradokizunak emango dizkizugu, ibilgailua modu eraginkorrean eta ingurumena zainduz gidatu dezazun.

Gozatu zure ibilgailuarekin, eta bidaia ona izan.

CUPRA

⚠ ADI

Kontuan izan gidarikidearen aurreko airbagari buruzko segurtasun-ohar garrantzitsuak
››› 63. orrialdea, *Haurrentzako eserlekuak jartzea eta erabiltzea.*

Aurkibidea

Jarraibideen eskuliburu honi buruz . 4

Ibilgailuko koadro orokorrak 6
Aurrealdeko kanpoko ikuspegia 6
Atzeko kanpoko ikuspegia 7
Barruko bista 8
Koadro orokorra (bolantea ezkerraldean dela) 9
Koadro orokorra (bolantea eskuinaldean dela) 11

Gidariarentzako informazioa 13
Kontrol-argiak 13
Tresnen koadroa 16
Tresnen koadroaren erabilera 32
Maneiua eta bistaratzea infotainment sistema 34

Segurtasuna 41
Gidatze segurua 41
Ibilgailuko bidaiarien posizio zuzena 42
Segurtasun-uhalak 45
PreCrash sistema 51
Airbag-sistema 52
Haurrak segurtasunez garraiatzea 61
Larrialdietan 72

Goi-tentsioko bateria 76
Segurtasun-jarraibideak 76
Goi-tentsioko bateria kontserbatzea 78
Goi-tentsioko bateria kargatzea 79
Karga-doikuntzak infotainment sisteman 85
Karga-kablea 86

Ireki eta ixtea 91
Ibilgailuaren giltzak 91
Keyless Access sistema 94
Ixte-sistema zentralizatua 96
Lapurreten aurkako alarma 101
Ateak 102
Maletategiko atea 104
Leihatiletarako aginteak 109
Beirazko sabaia 111

Bolantea 114
Funtzio anitzeko bolantea 114

Eserlekuak eta buru-euskarriak 116
Aurreko eserlekuak 116
Atzeko eserlekuak 117
Buru-euskarriak 118
Eserlekuen funtzioak 121

Argiak 124
Ibilgailuaren argiak 124
Barruko argiak 130

Ikuspena 133
Haizetako-garbigailuaren eta luneta-garbigailuaren sistemak 133
Atzerako ispiluak 135
Eguzkitarako babesa 138

Klimatizazioa 140
Berotze, aireztatze eta hozte-sistema 140
Berogailu independentea (berogailu gehigarria) 149
Klimatizazio estatikoa 152

Gidatzea 155
Gidatzeko jarraibideak 155
Motorra martxan jarri eta gelditu 160
Propultsio elektrikoaren bidezko gidatzea . . . 165
Funtzionamendu-modua hautatzea 167
Start-Stop sistema 169
Eskuzko aldagailua 171
DSG aldagailu automatikoa 172
Aldapetan gidatzea 178
Direkzioa 179
Gidatze-profilak (Drive Profile) 180
Balazta-sistema 182
Balaztatzeko laguntza-sistemak 184

Gidariarentzako laguntza-sistemak . 189
Oharpen orokorrak 189
Gidatzen laguntzeko sentsoreak eta kamerak 190
Abiadura-erregulagailua 194
Abiadura-mugagailua 195
Abiaduraren kontrol moldatzailea (ACC Adaptive Cruise Control) 197
Abiaduraren erregulazio prediktiboa 203
Larrialdi-balaztatzeari laguntzeko sistema (Front Assist) 205
Errei-irteeraren abisu-sistema (Lane Assist) . 209
Gidatze-laguntzailea (Travel Assist) 212
Larrialdietarako laguntzailea (Emergency Assist) 217
Errei-aldaketarako laguntzailea (Side Assist) . 218

Aparkatzea eta maniobratzea 222
Ibilgailua aparkatzea 222
Geratze-balazta elektronikoa 223
Aparkatzeko sistemen inguruko argibide orokorrak 226
Plus aparkatzeko laguntza 227
Atzeko aparkatze-laguntza 231
Aparkatzen laguntzeko sistema (Park Assist) . 232
Atzera martxarako laguntzailea (Rear View Camera) 239

Ikuspen periferikoko sistema (Top View Camera) ... 242
Desaparkatzeko laguntzailea (RCTA) ... 245
Ateak irekitzeko laguntzailea (Exit Assist) ... 246

Ekipamendu praktikoa ... 248
Objektu-ontzia ... 248
Korronte-harguneak ... 250

Datu-igorpena ... 253
CUPRA CONNECT ... 253
Pribatutasun-modua ... 257
WLAN sarbide-puntua ... 258
Full Link ... 260
Kable bidezko konexioak eta haririk gabekoak ... 264

Infotainment sistema ... 265
Lehen urratsak ... 265
Koadro orokorra eta aginteak ... 269
Erabileraren gaineko jarraibide orokorrak ... 270
Ahots bidezko erabilera ... 275
Irratia modua ... 278
Media modua ... 282
Nabigazioa ... 286
Telefono interfazea ... 294

Objektuak garraiatzea ... 301
Ekipajea eta karga kokatzea ... 301
Maletategia ... 302
Maletategiko ekipamendua ... 304
Sabaiko ekipajea eramatekoa ... 307
Atoiarekin gidatzea ... 309

Erregaia eta ihes-gasak araztea ... 321
Erregaia hartzea ... 321
Erregai-motak ... 323
AdBlue® ... 325
Motorraren kudeaketa eta ihes-gasak arazteko sistema ... 327

Bestelako egoerak ... 330
Ibilgailu barruko tresnak ... 330
Eskuilak aldatzea ... 330
Abiatzen laguntzea ... 332
Nola eraman ibilgailua atoian ... 334
Fusibleak ... 338
Lanparen aldaketa ... 342

Maila egiaztatzea eta hornitzea ... 343
Motorraren hobia ... 343
Likido eta bitarteko operatiboak ... 346
Hozte-sistema ... 346
Freno-likidoa ... 350
Beirak garbitzeko likidoaren tanga ... 351
Motorreko olioa ... 352
12 volteko bateria ... 355
Energiaren kudeaketa ... 360

Gurpilak eta pneumatikoak ... 363
Gurpilen eta pneumatikoen inguruko informazio garrantzitsua ... 363
Gurpil bat aldatzea ... 370
Pneumatikoen presioaren kontrol-sistema ... 375
Pneumatikoen konponketa ... 377

Mantentze-lanak ... 381
Zerbitzua ... 381
Zerbitzu gehigarrien eskaintzak ... 383
Ibilgailua mantentzea eta garbitzea ... 384
Osagarriak, ordezko piezak eta konponketalanak ... 389

Erabiltzailearentzako informazioa ... 392
Bermea ... 392
Kontrol-unitateek memorizatutako informazioa ... 392
Ibilgailuaren antenak ... 393
Materialen eta birziklatzearen inguruko informazioa ... 393
Ekipo erradioelektrikoak ... 394

Datu teknikoak ... 399
Datu teknikoei buruzko argibideak ... 399

Aurkibide alfabetikoa ... 405

Jarraibideen eskuliburu honi buruz

Jarraibideen eskuliburu hau CUPRA modeloaren aldaera eta bertsio guztietarako baliozkoa da. Ekipamendu eta eredu guztiak deskribatzen dira hemen, aukerako ekipamenduak edo ereduaren aldaerak diren zehaztu gabe. Hori dela eta, baliteke zure ibilgailuak ez dituen edo herrialde batzuetan soilik eskuragarri dauden ekipamenduak deskribatzea. Kontsultatu zure ibilgailuaren ekipamendua harekin batera emandako dokumentazioan, eta, horri buruzko informazio zehatzagoa nahi baduzu, joan CUPRA zerbitzu espezializatura edo SEAT zerbitzu ofizialera.

Jarraibideen eskuliburu honetan emandako datu guztiak bat datoz erredakzioaren itxieran eskuragarri zegoen informazioarekin. Ibilgailua etengabe garatzen ari denez, baliteke eskuliburu honetan jasotzen diren datuekin alderatuta desberdintasunak izatea. Hori dela eta, ezin da erreklamaziorik aurkeztu datuak, irudiak eta deskribapenak bat ez badatoz.

Beste norbaiti ibilgailua saltzen edo uzten badiozu, ziurtatu ibilgailuaren barruko dokumentazio osoa beti ibilgailuan dagoela. Horrez gain, CUPRAk infotainment sistema fabrikako doikuntzetara berrezartzea gomendatzen du, datu pertsonal guztiak ezabatzeko.

Baliteke **irudiak** zure ibilgailuaren xehetasunekin bat ez etortzea. Adierazpen estandartzat hartu behar da.

Eskuliburu honetako **norabideen adierazpenak** (ezkerra, eskuina, aurrera, atzera) ibilgailuaren abiatze-norabideari dagozkio, aurkakoa adierazi ezean.

Jarraibideen eskuliburu hau **bolantea ezkerrean duten ibilgailuentzat** idatzi da. Bolantea eskuinean duten ibilgailuetan, aginteen kokapena, neurri batean, irudietan edo testuetan azaldutakoaren desberdina da.

Ibilgailuaren aldaketa teknikoak edo edizioa itxi ondoren sortu diren segurtasunerako gai kritikoak ibilgailuaren barruko dokumentazioari erantsitako gehigarri batean jasoko dira.

® **Marka erregistratuak** ® ikurrarekin seinaleztatuta daude. Ikur hori ez agertzeak ez du esan nahi terminoa erregistratu ez denik.

Eskuliburu honetan, honako hauen bidez eskuratu ahal izango duzu informazioa:

- Eskuliburuaren egitura orokorra atalka biltzen dituen gaikako aurkibidea.
- Aurkibide bisuala, non “funtsezko” informazioa zein orrialdetan aurkituko duzun grafikoki adierazten den; dagokion ataletan sakonduko da informazio horretan.
- Aurkibide alfabetikoa, termino eta sinonimo ugarirekin, informazioa bilatzea errazteko.

⚠ ADI

Aurretik ikur hau duten testuek segurtasunari buruzko informazioa dute, eta istripu edo lesio arriskuez ohartarazten dute.

KONTUZ

Aurretik ikur hau duten testuek ibilgailuan gerta daitezkeen kalteen inguruan arreta deitzen dute.

Ingurumenari buruzko oharra

Aurretik ikur hau duten testuek ingurumenaren babesari buruzko informazioa dute.

Oharra

Aurretik ikur hau duten testuek informazio osagarria dute

Jarraibideen eskuliburu digitala

CUPRAren webgune ofizialean eskuliburuaren bertsio digitala ikusi ahalko duzu:

1. irudia CUPRA ren webgunea

- eskaneatu QR kodea.
- **EDO** sartu honako helbide hau web-arakatzailean:

https://www.cupraofficial.com/owners/your-cupra/cupra-cars-manuals.html

eta aukeratu zure ibilgailua.

Holandako merkaturako balio du

CUPRA Zerbitzu espezializatuek soilik CUPRA ibilgailuak konpon ditzakete eta berma-zerbitzuak eman.

Ibilgailuko koadro orokorrak

Aurrealdeko kanpoko ikuspegia



Gidatzen laguntzeko sentsoreak ››› 189. orrialdea

1. Funtzio anitzeko aurreko kamera
2. “Top View Camera” atzeraispiluetako kamerak
3. “Top View Camera” aurrealdeko kamera
4. Aurreko radarra
5. Aparkatzen laguntzeko sentsoreak
6. Lagundutako aparkatze-sentsorea

Ⓐ **Maila-kontrola**

Olioa ››› 352. orrialdea

Freno-likidoa ››› 350. orrialdea

Bateria ››› 355. orrialdea

Ⓑ **Motorraren kapota**

Desblokeatzeko palanka ››› 345. orrialdea

Irekitzea/Ixtea ››› 345. orrialdea

Ⓒ **Ibilgailuko atoia**

Atoian abiaraztea ››› 335. orrialdea

Atoiaren zirgiloa ››› 336. orrialdea

Ⓓ **Karga-hargunea** (ibilgailu hibridoak)

Karga-prozesuaren adierazlea ››› 82. orrialdea

Larrialdietako desblokeatzea ››› 84. orrialdea

Atzeko kanpoko ikuspegia



Gidatzen laguntzeko sentsoreak ››› 189. orrialdea

1. Atzealdea ikusteko kamera
2. Aparkatzen laguntzeko sentsoreak
3. Atzeko radarrak
4. Lagundutako aparkatze-sentsorea

Ⓐ **Maletategiko atea**

Kanpotik irekitzea ››› 105. orrialdea

Larrialdietako irekitzea ››› 109. orrialdea

Ⓑ **Ibilgailuko atoia**

Atoi bidezko abioa ››› 335. orrialdea

Atoiaren zirgiloa ››› 337. orrialdea

Ⓒ **Irekiera eta itxiera**

Ateak ››› 102. orrialdea

Ixte-sistema zentralizatua ››› 96. orrialdea

Larrialdietako blokeoa ››› 103. orrialdea

Ⓓ **Erregai-andela**

Edukiera ››› 399. orrialdea

Tapoia irekitzea/ixtea ››› 322. orrialdea

Ⓔ **Zer egin gurpila zulatuz gero**

Zuloak konpontzeko kita ››› 377. orrialdea

Gurpil-aldaketa ››› 370. orrialdea

Barruko bista



1. Beso-euskarriak ››› 122. orrialdea
2. Isofix aingurak ››› 64. orrialdea
3. Segurtasun-uhalak ››› 46. orrialdea
4. Beirazko sabaia ››› 111. orrialdea
5. Barruko ispilua ››› 136. orrialdea
6. Eserlekuen doikuntza ››› 116. orrialdea
7. Larrialdi-abioa ››› 164. orrialdea
8. DSG aldagailu automatikoa ››› 172. orrialdea

   Eskuzko aldagailua ››› 171. orrialdea
9. Connectivity Box / Wireless Charger ››› 298. orrialdea
10. Gordetegia ››› 248. orrialdea
11. Gidarikidearen airbaga ››› 55. orrialdea
12. Gidarikidearen aurreko airbaga deskonektatzea ››› 56. orrialdea

Koadro orokorra (bolantea ezkerraldean dela)



① Beira-jasogailu elektrikoak ››› **109. orrialdea**

② Kanpoko ispiluak doitzea ››› **137. orrialdea**

③ Argietarako eta beiretako lausoa kentzeko agintea ››› **124. orrialdea**

④ Keinukarien eta argi luzearen palanka ››› **126. orrialdea**

⑤ Funtzio anitzeko bolantearen aginte-panelak ››› **114. orrialdea**

⑥ Digital Cockpit ››› **17. orrialdea**

Kontrol-argiak ››› **13. orrialdea**

⑦ Haizetako-garbigailua eta atzeko kristalaren garbigailua ››› **133. orrialdea**

⑧ Infotainment sistema ››› **34. orrialdea**, ››› **265. orrialdea**

⑨ Kapota irekitzeko palanka ››› **345. orrialdea**

⑩ Fusibleak ››› **338. orrialdea**

⑪ Bolantearen doikuntza ››› **115. orrialdea**

⑫ Klaxona eta gidariaren airbaga dituen bolantea ››› **55. orrialdea** / Tiptronic-erako espekak ››› **174. orrialdea**

⑬ Larrialdi-argi keinukariak ››› **72. orrialdea**

⑭ Abio-sakagailua ››› **160. orrialdea** edo ESCa deskonektatzea ››› **186. orrialdea**.

⑮ Auto Hold ››› **224. orrialdea**

⑯ Geratze-balazta elektronikoa ››› **223. orrialdea**

⑰ Ixte-sistema zentralizatua ››› 96. orrialdea

Koadro orokorra (bolantea eskuinaldean dela)



① Infotainment sistema ››› 34. orrialdea, ››› 265. orrialdea

② Keinukarien eta argi luzearen palanka ››› 126. orrialdea

③ Funtzio anitzeko bolantearen aginte-panelak ››› 114. orrialdea

④ Digital Cockpit ››› 17. orrialdea

Kontrol-argiak ››› 13. orrialdea

⑤ Haizetako-garbigailua eta atzeko kristalaren garbigailua ››› 133. orrialdea

⑥ Argietarako eta beiretako lausoa kentzeko agintea ››› 124. orrialdea

⑦ Kanpoko ispiluak doitzea ››› 137. orrialdea

⑧ Beira-jasogailu elektrikoak ››› 109. orrialdea

⑨ Larrialdi-argi keinukariak ››› 72. orrialdea

⑩ Kapota irekitzeko palanka ››› 345. orrialdea

⑪ Abio-sakagailua ››› 160. orrialdea edo ESCa deskonektatzea ››› 186. orrialdea.

⑫ Geratze-balazta elektronikoa ››› 223. orrialdea

⑬ Auto Hold ››› 224. orrialdea

⑭ Ixte-sistema zentralizatua ››› 96. orrialdea

⑮ Bolantearen doikuntza ››› 115. orrialdea

⑯ Klaxona eta gidariaren airbaga dituen bolantea ››› 55. orrialdea / Triptronic-erako espekak ››› 174. orrialdea

⑰ Fusibleak ››› 338. orrialdea

Gidariarentzako informazioa

Kontrol-argiak

Kontrol-argiak eta abisu-argiak

Oharpen- eta kontrol-argiak banaka edo modu konbinatuan piztu daitezke, eta ohartarazteko, irregulartasunen bat dagoela adierazteko edo funtzio jakin batzuk aktibatu direla jakinarazteko balio dute. Batzuk piztu egiten dira pizgailua konektatzean, eta denbora jakin batean itzali behar dira.

Modeloaren arabera, tresnen koadroko pantailan testu-mezu gehigarriak bistara litezke, bai informaziokoak, bai ekintzaren bat egiteko eskatuz.

Ibilgailuaren ekipamenduaren arabera, gerta daiteke, kontrol-argi bat piztu ordez, sinboloren bat ikustea tresnen koadroko pantailan.

››› **124. orrialdea**, ***Argiak*** kapituluan azaltzen dira argien agintean pizten diren kontrol-argiak.

⚠ ADI

Ez badira kontrol-argiak eta abisu-argiak kontuan hartzen, matxurak gerta litezke ibilgailuan, eta geldi gera daiteke trafiko erdian, edo istripuak eta zauri larriak eragin daitezke.

- **Egin kasu beti abisu-argiei eta testu-mezuei.**
- **Posible eta seguru denean, geldiarazi ibilgailua.**

Ikurra	Esanahia
	STOP Ez jarraitu gidatzen! Erdiko abisu-argia ››› **26. orrialdea**
	Segurtasun-uhala lotzea ››› **46. orrialdea**
	Geratze-balazta elektronikoa konektatuta ››› **223. orrialdea**
	STOP Ez jarraitu gidatzen! Matxura balazta-sisteman ››› **184. orrialdea**
	STOP Ez jarraitu gidatzen! Freno-likidoaren maila baxua ››› **350. orrialdea**

Ikurra	Esanahia
	Hartu ibilgailuaren kontrola eta egon prest balaztatzeko! ››› **197. orrialdea**
	STOP Ez jarraitu gidatzen! Matxura motorreko likido hozgarriaren sisteman ››› **21. orrialdea**
	STOP Ez jarraitu gidatzen! Matxura goi-tentsioko sistemako likido hozgarriaren sisteman ››› **22. orrialdea**
	Motorreko olioaren presioa ››› **355. orrialdea**
	STOP Ez jarraitu gidatzen! Anomalia direkzioan ››› **179. orrialdea**
	STOP Ez jarraitu gidatzen! Errorea goi-tentsioko sisteman ››› **83. orrialdea**
	STOP Ez jarraitu gidatzen! Anomalia propultsio-sistema elektrikoan ››› **166. orrialdea**

Ikurra	Esanahia
	Ez jarraitu gidatzen! 12 volteko bateria ››› **359. orrialdea**
	Ez jarraitu gidatzen! Matxura alternadorean ››› **359. orrialdea**
	Talka-oharpena ››› **206. orrialdea**
	Hartu berehala direkzioaren kontrola ››› **216. orrialdea**
	AdBlue-maila® baxuegia, **EDO** matxura SCR sisteman ››› **326. orrialdea**, ››› **326. orrialdea**
	Erdiko abisu-argia ››› **26. orrialdea**
	Anomalia airbag-sisteman edo uhalen aurretenkagailuetan ››› **54. orrialdea**
OFF	Gidarikidearen aurreko airbaga deskonektatuta ››› **55. orrialdea**
ON	Gidarikidearen aurreko airbaga konektatuta ››› **55. orrialdea**
	Anomalia geratze-balazta elektronikoan ››› **224. orrialdea**

Ikurra	Esanahia
	Egiaztatu balazta-pastillak ››› **184. orrialdea**
	Pizten da: matxura Egonkortasun-kontrol elektronikoan (ESC) ››› **188. orrialdea**
	Dir-dir egiten du: Egonkortasun-kontrol elektronikoa (ESC) edo Trakzio-kontrola (TCS) erregulatzen ››› **188. orrialdea**
OFF	TCS eskuz desaktibatuta, ESC "Sport" moduan edo ESC eskuz desaktibatuta ››› **187. orrialdea**
ABS	Anomalia ABS sisteman ››› **187. orrialdea**
	Errei-aldaketa lagundua ez erabilgarri ››› **216. orrialdea** Travel Assist ez dago erabilgarri ››› **216. orrialdea**
	Anomalia dago ibilgailuko argiztapenean ››› **124. orrialdea**
	Anomalia isurpenak kontrolatzeko sisteman ››› **328. orrialdea**
	Partikulen iragazkia buxatuta ››› **328. orrialdea**
	Diesel motorra aurretiko berotzea; **EDO** anomalia diesel motorraren kudeaketan ››› **329. orrialdea**

Ikurra	Esanahia
EPC	Anomalia gasolinazko motorraren kudeaketan ››› **328. orrialdea**
	Atzeko lainotako argia piztuta ››› **124. orrialdea**
	Erregai-tanga ia hutsik ››› **20. orrialdea**
	Motorreko olioaren maila ››› **355. orrialdea**
	Gasolioan, ura dago. ››› **20. orrialdea**
	Anomalia direkzioan ››› **180. orrialdea**
	Matxura pneumatikoak kontrolatzeko sisteman ››› **377. orrialdea** Ez jarraitu gidatzen! Pneumatikoen presio baxua ››› **376. orrialdea**
	Propultsio elektrikoaren sistemako akatsa ››› **166. orrialdea**
	Matxura motorraren soinu elektronikoan ››› **167. orrialdea**
	Front Assist ez erabilgarri ››› **208. orrialdea**
OFF	Advertencia de colisión desactivada ››› **208. orrialdea**

Ikurra	Esanahia
	Matxura abiadura-erregulagailuan (GRA) ››› **195. orrialdea**
LIM	Abiadura-mugagailua ez dago erabilgarri ››› **197. orrialdea**
	Anomalia aldagailuan ››› **177. orrialdea**, ››› **177. orrialdea**
	Gurutzaldi-kontrol egokitzailea (ACC) ez dago erabilgarri ››› **202. orrialdea**
SOS	Emergency Assist ez erabilgarri ››› **218. orrialdea**
	Errei-irteeraren abisu-laguntzailea (Lane Assist) ez erabilgarri ››› **212. orrialdea**
	Larrialdietarako laguntzailea (Emergency Assist) erregulatzen ››› **217. orrialdea**
	Errei-irteeraren abisu-laguntzailea (Lane Assist) erregulatzen ari da ››› **211. orrialdea**
	Ateak irekitzeko laguntzailea (Exit Assist) ez erabilgarri ››› **192. orrialdea**
	Errei-aldaketarako laguntzailea (Side Assist) ez erabilgarri ››› **192. orrialdea**

Ikurra	Esanahia
	Desaparkatzeko laguntzailea (RCTA) ez erabilgarri ››› **192. orrialdea**
	12 volteko bateria / elikadura ››› **359. orrialdea**
	Muga motorreko erregimenari ››› **20. orrialdea**
	AdBlue-maila® baxua, **EDO** matxura SCR sisteman ››› **326. orrialdea**, ››› **326. orrialdea**
	Keinukariak ››› **124. orrialdea**
A	Auto Hold aktibo (berdez pizten da), edo, Auto Hold etenaldian (zuriz pizten da) ››› **225. orrialdea**
	Atoiaren keinukariak ››› **124. orrialdea**
	Abiadura-erregulagailua (GRA) ››› **194. orrialdea**
LIM	Abiadura-mugagailua aktibo dago ››› **196. orrialdea**
	Errei-irteeraren abisu-laguntzailea (Lane Assist) aktibo dago. ››› **211. orrialdea**
	Zapaldu balazta-pedala ››› **177. orrialdea**
	Travel Assist aktibatuta ››› **213. orrialdea**

Ikurra	Esanahia
	Gurutzaldi-kontrol egokitzailea (ACC) erregulatzen, ez da ibilgailurik atzeman aurrean ››› **199. orrialdea**
	Gurutzaldi-kontrol egokitzailea (ACC) erregulatzen, ibilgailua bat atzeman da aurrean ››› **199. orrialdea**
	Ibilgailua karga-prozesuan ››› **81. orrialdea**
	Argi luzeak piztuta edo argi-keinuak aktibatuta ››› **124. orrialdea**
LIM	Abiadura-mugagailua ez dago aktibo ››› **196. orrialdea**
A	Start-Stop sistema aktibo ››› **169. orrialdea**
	Start-Stop sistema ez erabilgarri ››› **169. orrialdea**
	Jaisteko laguntzailea (HDC) ››› **178. orrialdea**
	Kanpoko tenperatura +4 °C-tik (+39 °F) beherakoa ››› **24. orrialdea**
A	Argi luzearen laguntzailea aktibo dago ››› **128. orrialdea**
	Hartu direkzioaren kontrola ››› **216. orrialdea**

Ikurra	Esanahia
	Front Assist conectándose ››› **207. orrialdea**
	Distantziari buruzko oharpena ››› **206. orrialdea**
	Modu elektrikoan gidatzea ez erabilgarri ››› **168. orrialdea**
	Barneko dokumentazio-informazioarako bidaltze-oharra ››› **26. orrialdea**
	Kendu oina azeleragailutik ››› **30. orrialdea**
	Zerbitzu-tarteen adierazlea ››› **32. orrialdea**

Tresnen koadroa

Gaiaren aurkezpena

Motorra martxan jarri ondoren, 12 volteko bateria erabat deskargatuta dagoela edo aldatu berria dela, gerta liteke sistemaren zenbait doikuntza (esaterako, ordua, data, pertsonalizatutako erosotasun-doikuntzak eta programazioak) desdoitzea edo ezabatzea. Egiaztatu eta zuzendu desdoitze horiek bateria nahiko kargatu ondoren.

⚠ ADI

Arreta-galtze batek istripua eragin dezake, eta horrek lesioen arriskua areagotzen du.

- **Ez erabili tresnen koadroaren aginteak gidatzen ari zaren bitartean.**
- **Istripu bat eragiteko eta lesioak sortzeko arriskua murrizteko, ibilgailua geldirik dagoenean bakarrik doitu tresnen koadroko pantailako jarraibideak eta infotainment sistemaren pantailako jarraibideak.**

Tresnen koadro digitala (Digital Cockpit)



2. irudia Digital Cockpit tresnen taulan (ikuspegi klasikoa).

① **Kontrol- eta oharpen-argiak** ››› 13. orrialdea.

② **Bira-kontagailua**. Martxan dagoen motorraren minutuko birak ››› 19. orrialdea.

③ **Sartutako martxa edo hautatze-agintearen posizioa.**

④ **Pantailako oharrak** ››› 23. orrialdea.

⑤ **Abiadura-neurgailua**

⑥ **Abiadura-adierazle digitala**

⑦ **Informazio-profilak** ››› 18. orrialdea.



3. irudia Ibilgailu hibridoak: Digital Cockpit tresnen taulan (ikuspegi klasikoa).

① **Kontrol- eta oharpen-argiak** ››› 13. orrialdea.

② **Bira-kontagailua eta Powermeter**. Martxan dagoen motorraren minutuko birak ››› 22. orrialdea.

③ **Sartutako martxa edo hautatze-agintearen posizioa.**

④ Pantailako oharrak ››› 23. orrialdea.

⑤ **Abiadura-neurgailua**

⑥ **Abiadura-adierazle digitala**

⑦ **Informazio-profilak** ››› 18. orrialdea.

Digital Cockpit-a bereizmen handiko koloreko TFT pantaila duen tresnen koadro digitala da. 5 ikuspen ditu, eta horiek funtzio anitzeko bolanteko VIEW teklaren bidez eskuragarriak dira.

Informazio-profil desberdinak hautatuta, tresna zirkular klasikoak ez diren beste jarraibide osagarri batzuk ikus daitezke, esaterako, nabigazioaren datuak, multimedia-datuak edo bidaiaren inguruko datuak.

Hauek dira 6 ikuspegiak:

- Klasikoa
- Dynamic
- Asistentes
- Navegación
- Night
- CUPRA

Ikuspegi guztietan, informazio erakusgai izango da pantailan, honako hauei buruz: audioa, telefonoa, bidaiaren inguruko datuak, ibilgailuaren egoera, nabigazioa[1] eta gidatze-laguntzaileak[1].

Informazio-profilak

Funtzio anitzeko bolanteko ▭ / ▭ teklen bidez Digital Cockpit-eko datu desberdinetatik nabiga daiteke.

Ezkerraldean, ibilgailuaren egoerari, bidaia-datuei eta laguntzaileei buruzko informazioa agertuko da.

Eskuinaldean hauei buruzko informazioa agertuko da: audioa, telefonoa, iparrorratza, nabigazio maniobrak eta G indarren neurgailua.

[1] Bertsioaren arabera.

Digital Cockpit-eko **erdialdean** dagoen ikuspenaren arabera, honi buruzko informazioa erakutsiko da:

- *Clásica ikuspena eta Dynamic ikuspena:* Hasierako datuak, data, egindako distantzia eta autonomia. Funtzio anitzeko bolantearen eskuineko gurpiltxoa biratuz: nabigazio-mapa, trafiko-seinaleak, bidaia-datuak (OK gainean sakatuz, memoria desberdinen artean aldatzen da) .
- *Asistentes ikuspena:* Horretan sartzen da tekla edo VIEW tekla sakatuz, funtzio anitzeko bolantean. Funtzio anitzeko bolantearen eskuineko gurpiltxoa biratuz laguntzaileen zerrendan sartzen da; sakatu OK nahi den laguntzailea aktibatzeko/desaktibatzeko.
- *Navegación ikuspena:* Funtzio anitzeko bolanteko OK tekla sakatuz eta, ondoren, gurpiltxoa biratuz, mapa handitu edo murritz daiteke. Berriro OK tekla sakatzen bada, mapa eskala automatikora itzultzen da.
- *Night ikuspena:* Abiadura formatu digitalean erakusten da.
- *CUPRA ikuspena:* Biraketa-hodia erakusten da erdian.

Ikuspegi Klasikoa

Minutuko biraketa-orratzak eta abiadura-neurgailua luzera osoan agertzen dira funtzio anitzeko bolanteko VIEW tekla luze sakatuz, erdialdean dagoen menua edozein dela ere >>> **2. irudia** , >>> **3. irudia**.

Berriro VIEW tekla luze sakatzen bada, aurreko ikuspenera itzultzen da.

Edo tresnen koadroan × **Cerrar** aukera bilatuz, funtzio anitzeko bolantearen eskuineko gurpiltxoarekin, eta, ondoren, OK sakatuz.

Digital Cockpit-eko abiadura-neurgailuaren erdialdean ager daitekeen informazioa

- Audio
- Teléfono
- Iparrorratza
- Nabigazio-jarraibideak (funtzio anitzeko bolanteko eskuineko gezia sakatuz azken helmugak erakusten dira)
- G indarren neurgailua.
- × > OK (clásica ikuspena ixtea).

Digital Cockpit-eko bira-kontagailuaren erdialdean ager daitekeen informazioa

- Kontsumoa eta kontsumoaren batez bestekoa. Funtzio anitzeko bolantearen ezkerreko gezia sakatuz, bidaia-datuen memorien artean aldatuko da.
- Autonomia (erregai-tangaren maila).
- Olio lubrifikatzailearen eta likido hozgarriaren tenperatura
- Batez besteko abiadura. Funtzio anitzeko bolantearen ezkerreko gezia sakatuz, bidaia-datuen memorien artean aldatuko da.
- Bidaiaren beste datu batzuk: ibilitako km eta gidatze-denbora. Funtzio anitzeko bolantearen ezkerreko gezia sakatuz, bidaia-datuen memorien artean aldatuko da.
- Asistentes.
- Potentzia eta indar momentua.
- × > OK (clásica ikuspena ixtea).

CUPRA ikuspegia

Funtzio anitzeko bolantean dagoen eskuineko gurpiltxoa biratuz, bira-kontagailuko erdialdean agertzen den informazioa honako hau da:

- Abiadura eta martxak.
- Kronometroa.

Bira-kontagailuaren esferako kanpoaldean agertzen den informazioa honako hau da:

- Eskuinaldea: G indarren neurgailua.
- Ezkerraldea: potentzia eta indar momentua.

Bira-kontagailua

Bira-kontagailua motorreko minutuko bira-erregimena adierazten du.

Bira-kontagailuak, martxen argibideekin batera, aukera ematen dizu zure ibilgailuaren motorra bira-erregimen egokian erabiltzeko.

Bira-kontagailuaren zonalde gorriaren hasierak edozein martxaren gehienezko erregimena adierazten du errodajearen ondoren eta motorra beroarekin. Zonalde gorrira iritsi aurre-

tik, gomendatzen da hautatze-agintea **D** posizioan jartzea, edo oina azeleragailutik kentzea ››› ⓘ.

Gomendagarriena da bira-erregimen handirik ez erabiltzea eta martxen argibideetako gomendioen bidez orientatzea. Begiratu informazio gehigarria hemen: ››› **155. orrialdea, *Martxa egokia hautatu***.

Erregimen-muga[1)]

kontrol-argia pizten bada, automatikoki motorra mugatuko da tresnen koadroan erakutsitako erregimenera. Horrela, motorreko osagaiak babestuta daude, hotzean abiarazteko kasutan edo gainberotze baten kontra, adibidez.

Motorrak zerbitzuaren ohiko tenperatura hartzen duenean eta gidariak azeleragailua zapaltzeari uzten dionean, orduan desagertuko da erregimen-muga.

Erregimen-mugaren jatorria motorraren kudeaketaren anomalia bat bada, kontrol-argia ere piztuko da. Ziurtatu adierazitako bira-keta-erregimena gainditzen ez dela (adibidez, martxa jaitsiz). Joan zaitez berehala tailer espezializatu batera arazoa konpon dezaten.

Dirdiren bidezko adierazlea[1)2)]

Dirdiren bidezko adierazleak biraketa-mugara heldu dela ohartarazten dio gidariari.

Dirdiren bidezko adierazlea bira-kontagailuko goiko aldean agertzen da, gune berdeak, horiak eta gorriak erakutsiz.

Biraketak mugara hurbiltzean, dirdiren bidezko adierazleak dir-dir egiten du. Garaiz aldatu hurrengo martxa luzeagora.

KONTUZ

- **Motorra ez kaltetzeko, bira-kontagailuaren orratza zonalde gorrian denbora labur batez besterik ezingo da mantendu.**
- **Motorra hotza badago, ez erabili biren erregimen handirik, ez zapaldu gogor azeleragailua eta ez eragin motorrari esfortzu handiegirik.**

Ingurumenari buruzko oharra

Goiko martxak azkar aldatzen badira, kontsumoa, isurpenak eta zarata-maila murriztuko da.

Erregai-mailaren adierazlea



4. irudia Ikuspegiaren arabera, posizio desberdinetan dagoen erregai-mailaren adierazlea.

Kontrol-argiak

Horiz argiztatzen da. Erregai-tanga ia hutsik. Erregai-erreserbaren mailara iritsi da ››› ⚠. Hartu erregaia aukera duzunean.

Horiz argiztatzen da. Gasolioan, ura dago. Itzali motorra eta eskatu laguntza espezializatutako langileei.

Adierazleak pizgailua konektatuta dagoenean bakarrik funtzionatuko du.

Erregai-mailaren autonomia tresnen koadroko pantailan erakutsiko da.

Zure ibilgailuko erregai-tangaren edukiera zein den jakin nahi baduzu, kontsulta dezakezu hemen: ››› **399. orrialdea**.

---

1) Bertsioen arabera.

2) Tresnen koadroko CUPRA ikuspenean soilik.

⚠ ADI

Baxuegia den erregai-mailarekin zirkulatzen bada, ibilgailua geldirik gera liteke trafikoaren erdian, eta istripuak eta lesio larriak sor daitezke.

- **Erregai-tangaren maila baxuagoa bada, erregaia motorrera gaizki irits liteke, bereziki maldak igotzean edo jaistean.**
- **Direkzioak eta gidariari laguntzeko sistemak eta balaztak ez dute funtzionatuko motorra gaizki badabil edo itzaltzen bada erregai nahikoa ez duelako edo haren elikadura irregularra ez delako.**
- **CUPRAk deposituko edukieraren laurdena inguru geratzen denean depositua betetzeko gomendatzen du, ibilgailua geldirik gera ez dadin erregairik ez edukitzeagatik.**

KONTUZ

Ez hustu inoiz erabat erregai-tanga. Erregaiaren elikadura irregularra bada, akatsak eragin daitezke errekuntzan eta erre gabeko erregaia ihes-sistemara irits liteke. Katalizatzailea edo partikulen iragazkia kaltetu daitezke!

Oharra

Erregai-mailaren adierazlearen ondoan kokatutako gezi txikiak (erregai-hornigailuaren sinboloaren ondoan) erregai-tangaren estalkia duen ibilgailuaren alderantz begiratuko du.

Bateria-mailaren adierazlea

✓ Baliogarria ibilgailu hibridoetarako

5. irudia Tresnen koadro digitala: bateria-mailaren adierazlea.

Erregai-mailaren adierazlean, bateriaren sinboloaren ondoan dagoen gezi txikiak adierazten du ibilgailuaren zein aldetan dagoen kargatapa.

KONTUZ

- **Ez gidatu inoiz depositua erabat hutsik dagoela. Egoera jakin batzuetan, baliteke goi-tentsioko baterian gordetako energia ez izatea nahikoa gertuen dagoen zerbitzugunera iristeko.**
- **Kanpoko tenperatura oso baxua denean eta, beraz, goi-tentsioko bateria oso hotz dagoenean, barne-errekuntzako motorra abiarazteko zailtasunak sor daitezke, eta modu elektrikoan gidatzeko autonomia txikitu daiteke.**

Likido hozgarriaren tenperaturaren adierazlea

Dagokion menuan, likido hozgarriaren tenperatura ikustea hauta daiteke ››› **17. orrialdea**.

Kontrol-argiak eta abisu-argiak

Matxura motorreko hozte-sisteman

Kontrol-argiak dir-dir egiten du.

Motorreko likido hozgarria

Kontrol-argia gorriz pizten da.

Motorraren likido hozgarriaren tenperatura altuegia da edo motorraren likido hozgarriaren maila baxuegia da.

- **Ez jarraitu gidatzen!** Posible eta seguru denean, geldiarazi ibilgailua.
- Itzali motorra eta utz ezazu hozten.
- Egiaztatu likido hozgarriaren maila likido hozgarriaren espantsio-ontzian ››› **348. orrialdea**.

Oharpen-argia ez bada itzaltzen motorraren likido hozgarriaren maila behar bezalakoa izan arren, ez jarraitu ibiltzen ezta motorra funtzionamendua utzi. Eskatu laguntza espezializatutako langileei.

Kontrol-argiak eta oharpen-argiak (erabilgarri ibilgailu hibridoetan)



Matxura goi-tentsioko hozte-zirkuituan

Kontrol-argi gorriek dir-dir egiten dute.

Motorreko likido hozgarria

Kontrol-argia gorriz pizten da.

Motorreko edo goi-tentsioko sistemako likido hozgarriaren maila baxuegia da, motorreko edo goi-tentsioko sistemako hozgarriaren tenperatura altuegia da.

- **Ez jarraitu gidatzen!** Posible eta seguru denean, geldiarazi ibilgailua.
- Itzali motorra eta utz ezazu hozten.
- Egiaztatu likido hozgarriaren maila likido hozgarriaren espantsio-ontzian ››› 348. orrialdea.
- Egiaztatu goi-tentsioko hozte-zirkuituko likido hozgarriaren maila ››› 348. orrialdea. Maila baxuegia bada, **EZ gehitu likido hozgarririk**. Eskatu berehala langile espezializatuen laguntza.

Oharpen-argia ez bada itzaltzen motorraren likido hozgarriaren maila behar bezalakoa izan arren, ez jarraitu ibiltzen ezta motorra funtzionamendua utzi. Eskatu laguntza espezializatutako langileei.

KONTUZ

- **Motorraren bizitza baliagarri luzea lortzeko, komeni da biraketa-erregimen handiak saihestea, azeleragailua sakon zapaltzea eta motorrari esfortzu handiak ezartzea lehen 15 minutuetan, motorra hotz dagoen bitartean. Motorra bero egon arteko fasea kanpo-tenperaturaren araberakoa ere izango da. Kasu horretan, erabili motorreko olia orientazio gisa ››› 25. orrialdea.**
- **Faro osagarriak edo bestelako osagarriak muntatzen badira aire-sarreren aurrean, likido hozgarriaren gaitasuna gutxituko da. Motorrari esfortzu handiak eragiten zaizkionez eta kanpoko tenperatura altua denez, gehiegi berotzeko arriskua dago.**
- **Aurrealdeko hegala gidatzen ari den bitartean aire hozgarria behar bezala banatzeko ere baliagarria da. Espoilerra kaltetuta egonez gero, efektu hozgarriak okerrera egingo du eta motorra gehiegi berotzeko arriskua dago. Eskatu laguntza espezializatutako langileei.**

Powermeter (sistema-ezaugarrien adierazlea)

✓ Baliogarria ibilgailu hibridoetarako



6. irudia Tresnen koadro digitala: Powermeter (ikuspegi klasikoa)



7. irudia Tresnen koadro digitala: Powermeter (Cupra ikuspegia)

Behealdeko ezkerrean, bira-kontagailuak koloreen arabera bereizitako bi eremu erakusten ditu:

Berdea *Charge:* Energia berreskuratzeko zonaldea.

Urdina *Power %:* Trakzio elektrikoko eremua. Erabilitako potentziaren ehunekoa eta unean erabilgarri dagoen gehieneko potentzia-kopurua adierazten ditu.

Powermeterrek propultsio elektrikoaren erabilera-mailari buruzko informazioa ematen du. Powermeterreko barrak uneko erabilera-maila erakusten du.

Ertz koloredun finago batek propultsioa unean zenbateraino balia daitekeen adierazten du. Hautatutako gidatze-programaren eta potentzia elektrikoaren uneko eskuragarritasunaren arabera, hainbat koloretako mugak alda daitezke.

Powermeterren honako adierazpen hauek ikus daitezke: ››› **6. irudia**, ››› **7. irudia**.

Ⓐ Ibilgailua energia elektrikoa berreskuratzen ari da.

Ⓑ e-Mode gidatze elektrikoa.

Ⓒ Errekuntzako motorra funtzionatzen ari da. Boost funtzioan, ibilgailuak, denboratarte labur batean, motor elektrikoaren eta errekuntza-motorraren potentzia maximoan zirkulatzen du.

Seinaleak pantailan

Tresnen koadroan ager daitezkeen jarraibideak

Tresnen koadroan, ibilgailuaren ekipamenduaren arabera gainjarritako informazioa ikus daiteke.

- Ateak, motorreko kapota eta maletategiaren atea irekita
- Oharpen- eta informazio-mezuak
- Kilometro-kontagailua
- Ordua ››› **31. orrialdea**
- Irratiaren eta nabigazio-sistemaren jarraibideak
- Telefonoaren jarraibideak
- Kanpoko tenperatura
- Iparrorratzaren adierazpena
- Hautatze-agintearen posizioak
- Martxari buruzko gomendioa
- Autonomia konbinatua (ibilgailu hibridoak)
- Bidaiaren datuen adierazpena (funtzio anitzeko adierazlea) eta hainbat doikuntza egiteko menuak ››› **25. orrialdea**
- Zerbitzu-tarteen adierazlea ››› **31. orrialdea**
- Abiadura-abisua
- Abiadura-abisua neguko pneumatikoetarako
- Start- Stop sistemaren egoeraren seinalea ››› **169. orrialdea**
- Trafiko-seinaleak detektatzeko sistemak aurkitutako seinaleak eta baimendutako gehieneko abiadura gainditu delako abisua ››› **27. orrialdea**
- Zilindroak kudeatze aktiboaren (ACT®) seinalea ››› **156. orrialdea**
- Behe-kontsumoko gidatzea eco
- Gidariarentzako laguntza-sistemen argibideak

Ateak, motorreko kapota eta maletategiaren atea irekita

Ibilgailua desblokeatu ondoren eta ibiltzen ari den bitartean, tresnen koadroko pantailan adieraziko da ea ateren bat, motorreko kapota

edo maletategiaren atea irekita dauden eta, hala dagokionean, soinu-seinale batekin ere adieraziko da.

Hautatze-agintearen posizioak

Hautatze-agintearen une honetako posizioa adieraziko da agintearen ondoan nahiz tresnen koadroko pantailan. Agintea **D/S** posizioan dagoenean, baita Tiptronic posizioan ere, hala dagokionean, tresnen koadroko pantailan adieraziko da uneoro engranatzen den martxa.

Kanpoko tenperaturaren adierazlea

Kanpoko tenperatura +4 °C (+39 °F) ingurutik beherakoa bada, kanpoko tenperaturaren adierazlean "izotz-kristalaren sinboloa " ere pizten da ❄. Sinbolo hori piztuta geratzen da kanpoko tenperaturak +6 °C (+43 °F) ››› ⚠ gainditu arte.

Egoera hauetan, adierazitako kanpoko tenperatura benetakoa baino handiagoa izan daiteke, motorrak igorritako beroaren ondorioz:

- Ibilgailua geldirik badago.
- Oso astiro ibiltzen denean.

Martxari buruzko gomendioa

Tresnen koadroko pantailan, erregaia aurrezteko aukeratu beharko litzatekeen martxaren gomendio bat ikus daiteke gidatzean. ››› **155. orrialdea**.

Kilometro-kontagailua

kilometro-kontagailu totalak ibilgailuak egindako ibilbide osoaren kilometroak erregistratzen ditu.

Autonomia konbinaturen adierazlea (ibilgailu hibridoak)

Erakutsitako balioa gidatzeko estiloaren arabera kalkulatu eta eguneratzen da. Beraz, autonomia alda daiteke, baita erregai-tanga beteta dagoenean eta goi-tentsioko bateria erabat kargatuta dagoenean ere.

Konfort-sistema kontsumitzaileak, esate baterako, klimatizazioa edo eserlekuetako berokuntza, murrizten edo deskonektatzen badira, autonomia handitu daiteke.

Abiadura-abisua neguko pneumatikoetarako

Doitutako gehieneko abiadura gainditzen bada, tresnen koadroko pantailan adieraziko da.

Infotainment sisteman, abiadura-abisurako doikuntzak egin daitezke ››› **38. orrialdea**.

Behe-kontsumoko gidatzea

Ekipamenduaren arabera, martxan zehar, tresnen-koadroko pantailan agertzen da seinalea ibilgailua kontsumo baxuko egoeran dagoenean, zilindroak kudeatze aktiboagatik (ACT®) ››› **156. orrialdea**.

⚠ ADI

Nahiz eta kanpoko tenperatura izozte-puntua baino altuagoa izan, errepideetan eta zubietan izotza egon liteke.

- **"Izotzaren sinboloak" adierazten du izozte-arriskua egon daitekeela.**
- **Kanpoan +4 °C-tik (+39 °F) gorako tenperatura badago, izotza ere egon liteke, "izotz-kristalaren sinboloa" pizten ez bada ere.**
- **Kanpoko tenperaturaren sentsorearen neurketa orientagarria da.**

Oharra

- **Hainbat tresnen koadro daude; horregatik, bertsioak eta pantailaren jarraibideak desberdinak izan daitezke. Informazio- edo oharpen-mezurik erakusten ez duten pantailei dagokienez, arazoak kontrol-argien bidez adierazten dira soilik.**
- **Tresnen koadroko pantailako zenbait jarraibide ezkutatuta gera daitezke, bat-batean gertatu den zerbaiten eraginez, adibidez, sarrerako dei bat.**
- **Ekipamenduaren arabera, infotainment sisteman ere, zenbait doiketa eta jarraibide egin edo erakuts daiteke.**
- **Ohar bat baino gehiago egonez gero, dagozkion sinboloak ondoz ondo piztuko dira zenbait segundoz. Sinboloak piztuta egongo dira kausa desagertu arte.**

• Pizgailua konektatzean dauden arazoen inguruko oharrak erakusten badira, ziur aski ezingo da doikuntzarik egin, ezta informazioa deskribatutako moduan erakutsi ere. Horrelakoetan, jo tailer espezializatu batera eta eskatu arazoak konpontzeko.

Bidaiako datuen seinalea

Bidaiaren inguruko datuen adierazleak bidaiaren datu eta kontsumo-balio desberdinak erakusten ditu.

Argibide batetik bestera aldatzea

• Biratu funtzio anitzeko bolantearen eskuinaldean dagoen gurpil txikia ››› 33. orrialdea.

Memoria aldatzea

• Ikuspenaren arabera, hautatu **Datos de viaje** eta sakatu ezkerreko gezia edo **OK** tekla funtzio anitzeko bolantean.

– **Desde la salida:** Martxa 2 ordu baino gehiagoz eteten bada, memoria ezabatuko da.

– **Desde el repostaje:** Bidaiaren inguruko datuak eta bildutako kontsumo-balioak ikustea eta memorizatzea. Erregaia hartzean, memoria ezabatuko da.

– **Cálculo total:** Memoria horrek bidaiaren datuak jasotzen ditu, gehienez 19 ordu eta 59 minutu edo 99 ordu eta 59 minutu, edo gehienez 1999,9 km edo 9999,9 km. Gehienezko balio horietako bat gainditzen denean (tresnen koadroaren bertsioaren arabera desberdina da), memoria ezabatu egingo da.

Bidaiaren inguruko datuen memoriak ezabatzea

• Aukeratu borratu nahi duzun memoria.

• Eduki sakatuta funtzio anitzeko bolanteko **OK** tekla 2 segundo inguruz.

Jarraibideak aukeratzea

Tresnen koadroan eskuz hautatzen da, funtzio anitzeko bolanteko teklaren bidez. Hodiaren edukiera ikusteko, biratu eskuineko gurpiltxoa gorantz/beherantz.

– **Consumo actual:** Uneko kontsumoa, gidatzen ari den bitartean, l/100 km-tan adierazten da; motorra martxan dagoela eta ibilgailua geldirik, l/h-tan.

– **Consumo medio:** Erregaiaren batez besteko kontsumoa 300 metro inguru egin ondoren erakusten da.

– **Duración del viaje:** Pizgailua konektatu zenetik igarotako orduak (h) eta minutuak (min) adierazten ditu.

– **Autonomía:** Gidatze-estilo berari eusten bazaio egin daitekeen gutxi gorabeherako distantzia da, kilometrotan neurtuta.

– **Autonomía AdBlue o :** Gidatze-estilo berari eusten bazaio, AdBlue®-ren deposituaren uneko mailarekin oraindik egin daitekeen gutxi gorabeherako distantzia, km-tan. Seinalea 2.400 kilometrotatik beherako autonomiatik aurrera agertuko da eta ezin da desaktibatu.[1)]

– **Recorrido:** Kilometrotan egindako distantzia pizgailua konektatu ondoren.

– **Velocidad media:** Batez besteko abiadura 100 metro inguru egin ondoren erakusten da.

– **Boost/Torque:** Errekuntzako motorraren potentzia eta indar-momentua adierazten ditu (ez du modu elektrikorik adierazten).

– **FAS:** Laguntzaileak adierazte murriztua.

Olioaren tenperatura adieraztea

Motorrak zerbitzu-tenperatura lortzen du, gidatze-baldintza arruntetan, olioaren tenperatura **80°C** (176°F) eta **120°C** (248°F) artean dagoenean. Motorrari esfortzu handia eskatzen bazaio eta kanpoko tenperatura handia bada, motorraren olioaren tenperatura ere igo daiteke. Horrek ez dakar inolako eragozpenik, baldin eta pantailan edo kontrol-argirik ikusten ez badira ››› 355. orrialdea.

---

1) Ez dago eskuragarri herrialde guztietan.

Oharpen- eta informazio-mezuak

Pizgailua konektatutakoan edo ibilgailua ibiltzen ari den bitartean, egiaztatu ibilgailuaren zenbait funtzio edo osagarriren egoera. Anomaliak tresna-koadroko pantailan agertzen dira, ohartarazpen-sinbolo gorri eta horien forman, ››› 13. orrialdea mezuekin batera, eta, kasuaren arabera, baita seinale akustiko batekin ere. Mezuen eta sinboloen irudia desberdina izan daiteke tresnen koadroaren bertsioaren arabera.

Dauden arazoak eskuz ere kontsultatu daitezke. Horretarako, **Estado del vehículo** ››› 32. orrialdea menua ireki behar da.

1 lehentasuna duen ohartarazpena (gorriz)

Sinboloak dir-dir egingo du edo piztu egingo da (oharpeneko soinu-seinaleekin batera). **Ez jarraitu gidatzen!** Arriskua! Egiaztatu zer funtziok egin duen huts eta ezabatu kausa. Hala dagokionean, eskatu laguntza espezializatutako langileei.

2 lehentasuna duen ohartarazpena (horiz)

Sinboloak dir-dir egingo du edo piztu egingo da (oharpeneko soinu-seinaleekin batera). Funtzionamenduaren akatsen edo likido operatiboen ezaren eraginez, ibilgailuan kalte eragin daitezke eta hura matxuratu daiteke. Egiaztatu ahalik eta lasterren zein funtziok egin duen huts. Hala dagokionean, eskatu laguntza espezializatutako langileei.

Jarraibideen eskuliburuko informazioaren erreferentzia

Jarraibideen eskuliburuan dagoen abisuaren inguruko informazio gehiago aurkituko duzu.

Informazio-mezua

Eman ibilgailuaren prozesuei buruzko informazioa.

Oharrak eta informazioa atzitzea

Dauden anomaliak ere infotainment sisteman kontsulta daitezke:

- Sakatu ⊞ > **Datos vehículo** > **Estado vehículo** ››› 37. orrialdea.

Neke-detekzioa (etenaldirako gomendioa)

8. irudia Tresnen koadroko pantailan: nekea atzemateko sinboloa.

Nekea antzemateko sistemak gidariari jakinarazten dio gidatzen ari denean nekatuta dagoela, bolantearen aurrean duen bere portaeragatik.

Funtzionamendua eta erabilera

Nekearen atzemateak gidariaren gidatze-jarrera zehazten du, bidaia bati ekiten zaionean, eta, orduan, nekeari buruzko kalkulu bat egiten du. Hura uneko gidatze-jarrerarekin etengabe konparatzen da. Sistemak antzematen badu gidaria nekatuta dagoela, akustikoki soinu batekin eta optikoki sinbolo batekin abisatuko du tresnen koadroko pantailan ››› 8. irudia, testu-mezu osagarri batekin lotuta. Tresnen koadroko pantailaren mezua 5 segundoz in-

guru adieraziko da eta, hala badagokio, berriz errepikatuko da. Sistemak adierazitako azken mezua memorizatuko du.

Tresnen koadroko pantailako abisua honela ezkuta daiteke:

- Sakatu funtzio anitzeko bolanteko OK tekla.

Funtzionatzeko baldintzak

Gidatze-jarrera honako abiadura hauen artean bakarrik kalkulatuko da: gutxi gorabehera, 65 km/h (40 mph) eta 200 km/h (125 mph).

Aktibatzea eta desaktibatzea

Neke-detekzioa aktiba edo desaktiba daiteke infotainment sisteman > **Asistentes** > **Alertas al conductor** funtzio-botoiaren bidez.

Pizgailua konektatzean, beti konektatzen da neke-detekzioaren sistema >>> **38. orrialdea**.

Funtzionamenduaren murriztapenak

Nekearen atzemateak sistemari datxezkion zenbait muga du. Honako baldintza hauek nekearen atzematea mugatzea edo ez funtzionatzea eragin dezakete:

- 60 km/h (40 mph) baino abiadura txikiagoetan.
- 200 km/h-tik gorako abiadurak (125 mph).
- Kurbadun ibilbideak.
- Errepide-lanak dauden tarteetan.
- Egoera txarrean dauden errepideetan.
- Baldintza klimatologiko txarrak daudenean.
- Kirol gisako gidatze-estiloa.
- Gidariak arreta erabat galtzea.

Nekearen atzematea berrezarriko da ibilgailua 15 minutuz baino gehiago gelditzen bada, pizgailua deskonektatzen bada edo gidariak uhala askatu eta atea irekitzen badu.

Denbora luzez motel gidatuz gero (60 km/h, 40 mph baino gutxiago) sistemak nekearen kalkulua berrezarriko du automatikoki. Azkarrago gidatuz gero, gidatze-jarrera berriz kalkulatuko da.

⚠ ADI

Nekea antzemateko sistemak dakarren teknologia adimentsuak ezin ditu lege fisikoek ezarritako mugak gainditu eta sistemaren mugen barruan soilik funtzionatzen du. Nekearen atzemateak emandako erosotasun handiago horrek ez du inolako arriskurik eragin beharko. Bidaia luzeak eginez gero, atsedena hartu maiz eta denbora luzez.

- **Gidariak gaitasun osoz gidatzeko erantzukizuna izango du beti.**
- **Ez gidatu inoiz nekatuta bazaude.**
- **Sistemak ez du gidariaren nekea atzemango inguruabar guztietan. Kontsultatu informazioa** **>>> 27. orrialdea, *Funtzionatzeko baldintzak*** **atalean.**
- **Zenbait egoeratan, sistemak oker interpreta dezake gidariak nahita egindako gidatze-maniobra bat, eta gidariaren neketzat jo.**
- **Ez da inolako abisurik egingo mikro logura deiturikoa gertatuz gero!**
- **Begiratu tresnen koadroaren seinaleak eta jardun eskatu bezala.**

ⓘ Oharra

- **Nekearen atzemateko sistema autopistetan eta ondo zolatutako bideetan gidatzeko bakarrik garatu da.**
- **Sistemak matxuraren bat izatekotan, joan tailer espezializatu batera, ikuska dezaten.**

Trafiko-seinaleak atzemateko sistema[1)]

9. irudia Tresnen koadroko pantailan: atzemandako seinaleen adibideak.

1) Ez dago eskuragarri merkatu guztietan.

Trafiko-seinaleak atzemateko sistemak trafiko-seinale estandarrak erregistratzen ditu barruko atzerako ispiluaren oinarrian dagoen kamera baten bidez, eta abiadura-mugei, aurreratzeko debekuei eta ezagutzen dituen arrisku-seinaleei buruzko informazioa eskaintzen du.

Bere mugekin, sistemak panel osagarri bat ere erakusten du, adibidez, aldi baterako debekuak adierazteko. Seinalerik gabeko ibilbideetan ere, sistemak agintzen duten abiadura-mugak erakuts ditzake, horiek egotekotan.

Trafiko-seinaleei antzemateko sistema aktibatuta dago beti pizgailua konektatzean.

Trafiko-seinaleak atzemateko sistemak ez du herrialde guztietan funtzionatzen. Hori kontuan hartu atzerrira joaten zarenean.

Pantailan bistaratzea

Alemanian, autobietan eta ibilgailuetarako bideetan, sistemak, abiadura-mugez eta aurreratze-debekuez gain, debeku-amaieraren seinaleak adierazten ditu. Gainerako herrialde guztietan, horren ordez, une horretan baliagarria den abiadura-muga adierazten da.

Sistemak atzemandako trafiko-seinaleak tresnen koadroko pantailan erakusten dira ››› 9. irudia eta, ibilgailuan muntatu den nabigazio-sistemaren arabera, baita infotainment sisteman ere.

Arriskuaz ohartarazteko seinaleak ez dira infotainment sisteman erakusten.

Trafiko-seinaleak atzemateko sistemaren mezuak:

`No hay señales de tráfico disponibles`

- Sistema hasieratze-fasean dago.
- **EDO**: kamerak ez du aurkitu inolako nahitaezko edo debeku-seinalerik.

`Error: Detección de las señales de tráfico`

- Matxura bat dago sisteman. Joan tailer espezializatu batera sistema aztertzera.

`Advertencia de velocidad no disponible en este momento`

- Trafiko-seinaleak atzemateko sistemaren abiadura-abisuaren funtzioa matxuratuta dago. Joan tailer espezializatu batera eta sistema aztertzeko eskatu.

`Detecc. de las señales de tráfico: ¡Limpie el parabrisas!`

- Haizetakoa zikin dago kameraren zonaldean edo horren ikuspena murriztuta dago faktore meteorologikoen ondorioz. Garbitu haizetakoa.

`Detección de señales de tráfico: Limitada en este momento`

- Ez dago datu-transmisiorik nabigazio-sisteman. Egiaztatu nabigazio-sistemak egungo mapak dituela.
- **EDO**: ibilgailua nabigazio-sistemaren mapan ez dagoen eskualde batean dago.

`No hay datos disponibles`

- Trafiko-seinaleak atzemateko sistemak ez du funtzionatzen une honetan zirkulatzen ari zaren herrialdean.

Trafiko-seinaleak bistaratzea

Kameraren, infotainment sistemaren eta ibilgailuaren uneko datuen informazioa berrikusi eta ebaluatu ondoren, sistemak indarrean dauden bi trafiko-seinale, gehienez, eta panel osagarri bat erakusten ditu ››› 9. irudia:

- **Lehen postua**: Gidariarentzat unean baliozkoa den seinalea pantailaren ezkerraldean agertzen da, adibidez, 130 km/h-tik (80 mph) gorako abiaduran zirkulatzeko debekua.
- **Bigarren postua**: Bigarrenik, beste trafiko-seinale bat ager daiteke, arrisku-seinale bat, adibidez.
- **Panel osagarria:** Haizetako-garbigailua ibilgailua ibitzen ari den bitartean funtzionatzen ari bada, euriaren panel osagarriaren seinalea lehenengo adieraziko da ezkerraldean, une horretan agintzen duena delako. Mugekin bakarrik balio duen seinale bat erakuts daiteke, adibidez, ordu jakin batzuetan aurreratzeko debekua.

Arrisku-seinaleak ezin dira herrialde guztietan ikusi, eta, horrela bada, sistemak ezin ditu arrisku-seinale guztiak atzeman.

Abiadura-abisua

Sistemak atzematen badu une horretan baimentzen den abiadura gainditu dela, soinu-abisu bat eman dezake “gong” batekin, baita modu optiko baten bidez ere, tresnen koadroko pantailan mezu bat adieraziz.

Abiadura-oharpena doi edo guztiz desaktiba daiteke infotainment sisteman, menu honetan: **> Asistentes > Avisos al conductor > Detección de señales de tráfico** ››› 38. orrialdea. Abiadura-oharpena doi daiteke baimendutako abiaduraren gainetiko 0,5 edo 10 km/h-ko (0, 3 edo 5 mph) baliora.

Atoirako modua

Fabrikatik muntatutako atoirako krokadura eta elektrikoki konektatutako atoi bat duten ibilgailuetan, aktibatu edo desaktiba daiteke atoiarekin zirkulatzen duten ibilgailuetarako trafiko-seinale zehatzak bistaratzeko funtzioa, esaterako, abiadura-mugak edo aurreratze-debekuak.

Aktibazioa edo desaktibazioa infotainment sisteman gauzatzen da, **> Asistentes > Avisos al conductor > Detec. señales de tráfico > Considerar remolque** ››› 38. orrialdea funtzio-botoiaren bidez.

Atoi-modurako, indarreko abiadura-mugen argibidea atoi-motara edo lege-xedapenetara egokitu daiteke. Doikuntza 10 km/h-ko (5 mph) urratsetan gauzatzen da, 60 eta 130 km/h-ko (40 y 80 mph) tarte baten barnean. Dagokion herrialdean atoiarekin zirkulatzeko baimendutako abiadura baino handiagora egokitzen bada, sistemak automatikoki erakusten ditu ohiko abiadura-mugak, adibidez, Alemanian 80 km/h (50 mph).

Atoirako abiadura-abisua desaktibatzen bada, sistemak abiadura-mugak adieraziko ditu, atoia eramango ez balu bezala.

Sartzeko debekuaren seinalea

Trafiko-seinaleak antzemateko sistemak hotsez eta bisualki ohartarazten du tresnen koadroan, noranzko bakarreko bide batean debekatuta dagoen sarrera-seinale bat edo autobide edo autobia baterako sarrera bat gainditzen denean.

Funtzionamendu mugatua

Trafiko-seinaleak atzemateko sistemak zenbait muga du. Honako kasu hauek eragin dezakete sistemak mugekin funtzionatzea edo ez funtzionatzea:

- Gaizki ikusten den egoeretan, adibidez, elurra, euria, lainoa edo ur biziko lainobera egonez gero.
- Itsutuz gero, adibidez, aurkako norabideko trafikoaren edo eguzkiko erradiazioaren eraginez.
- Abiadura handiz zirkulatuz gero.
- Kamera estalita edo zikina egonez gero.
- Trafiko-seinaleak partzialki edo erabat estalita egonez gero, adibidez, zuhaitzek, elurrak, zikinkeriak edo bestelako ibilgailuek estalita.
- Araudia betetzen ez duten trafiko-seinaleen kasuan.
- Kaltetuta edo okertuta dauden trafiko-seinaleen kasuan.
- Seinale-arkupetan kokatutako mezu aldakorreko seinaleak egonez gero (LED edo bestelako argiztapen-unitateen bidezko trafiko-seinaleen argibide aldakorra).
- Nabigazio-sisteman eguneratuta ez dauden mapak erabiliz gero.
- Trafiko-seinaleak irudikatzen dituzten ibilgailuetan erantsitako itsasgarrien kasuan, adibidez, kamioietako abiadura-mugak.

⚠ ADI

Trafiko-seinaleak atzemateko sistema barne hartutako teknologiak ezin ditu lege fisikoek ezarritako mugak gainditu eta sistemaren mugen barruan bakarrik funtzionatuko du. Trafiko-seinaleak atzemateko sistemak ematen duen erosotasun handi horrek ezin luke inolako arriskurik eragin behar. Sistema horrek ezin du gidariaren arreta ordezkatu.

- **Egokitu gidatze-abiadura eta -estiloa klimatologia, ikuspen, errepide eta trafikoaren baldintzetara.**

- Ikuspen txarraren, iluntasunaren, elurraren, euriaren eta lainoaren eraginez, gerta daiteke sistemak trafiko-seinaleak ez adieraztea edo oker adieraztea.
- Kameraren ikuspen-eremua zikina, estalita edo kaltetuta badago, sistemaren funtzionamendua kaltetu daiteke.

⚠ ADI

Baliteke gidatzeko gomendioak eta trafiko-seinaleak atzemateko sistemak adierazitako trafiko-seinaleak benetako egoerarekin bat ez etortzea.

- Sistemak ezin ditu trafiko-seinale guztiak zuzen igarri edo erakutsi.
- Galtzadako trafiko-seinaleak eta zirkulazio-arauak nabigazio-sistemako gomendio eta jarraibideen gainetik daude.

Oharra

Sistemaren funtzionamenduan eraginik ez izateko, honako alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

- Garbitu aldian-aldian kameraren ikus-eremua eta garbi mantendu, elurrik eta izotzik gabe.
- Ez estali kameraren ikus-eremua.
- Aldatu kaltetutako edo desgastatutako beirak garbitzeko eskuilak modu egokian beti, kameraren ikus-eremuan zerrendak saihesteko.
- Egiaztatu haizetakoa ez dagoela kameraren ikus-eremuaren zonaldean kaltetuta.
- Mapa zaharrak nabigazio-sisteman erabiliz gero, trafiko-seinaleak oker erakuts daitezke.
- Nabigazio-sistemaren ibilbidearen puntuak dituen nabigazio-moduan, trafiko-seinaleak atzemateko sistema mugekin bakarrik egongo da erabilgarri.

Gidatze ekoefizienterako laguntza

10. irudia Gidatze ekoefizienterako laguntza adieraztea (irudikapen eskematikoa).

Gidatze ekoefizienterako laguntzak laguntzen dizu aurreikusiz eta energia gutxi kontsumituz gidatzen, tresnen koadro digitaleko gainjarritako oharren bidez, egoeraren arabera.

Bidegurutze batera, biribilgune batera edo abiadura mugatuta duen bide-zati batera, adibidez, hurbiltzen zarenean, sinboloa erakusten da gorabehera batekin batera, tresnen koadro digitalean ››› **10. irudia**.

Jarraibideari jarraitu eta oina azeleragailutik altxatu bezain laster, ibilgailuak, hautatutako gidatze-profilaren eta gorabeherara dagoen distantziaren arabera, balaztatze-energiaren berreskurapena eta abiadura egokituko ditu.

Ekoefizientziaz gidatzeko laguntzak infotainment sistemak dituen ibilbideko datuak eta laguntza-sistema batzuen sentsoreak erabiltzen ditu. Helmugarako gida aktiborik ez badago, biderik probableena erabiliko da.

Laguntza sistemak esku-hartzea deusezta dezakezu une oro azeleragailua zapalduz.

Ekoefizientziaz gidatzeko laguntza aktiba eta desaktiba daiteke infotainment sisteman, laguntza-sistemen doikuntzetan. ››› **38. orrialdea**.

Ekoefizientziaz gidatzeko laguntza aldi baterako desaktibatu egiten da, baldin eta:

- Martxen hautagailua **S** posizioan badago.
- **Performance** edo **CUPRA** gidatze-profila erabiltzen da.
- Gurutzaldi-kontrol egokitzailea (ACC) eta abiadura-erregulagailua (GRA) aktibatuta ibiltzen bada.

Baldintza horiek betetzen ez direnean, laguntza, aktibatuta badago laguntza-sistemen doikuntzetan, aktibatzen da berriz.

Ekoefizientziaz gidatzeko laguntza ekipamenduaren arabera erabilgarri dago, baina ez herrialde guztietan.

⚠ ADI

Sistema horrek ezin du gidariaren arreta ordezkatu.

- **Beti egokitu gidatze-abiadura eta -modua, ikuspen-, klimatologia-, galtzada- eta trafiko-baldintzen arabera.**
- **Gidatze ekoefizienterako aholkuen gainetik lehentasuna daukate galtzadako trafiko-seinaleek eta zirkulazio-arauek.**

Oharra

- **Sinboloen itxura zertxobait alda daiteke, ekipamenduaren eta modeloaren arabera. Sistema eguneratuz, sinboloak alda edo zabal daitezke.**
- **Sistema aktibo dagoenean, gidatze ekoefizienterako laguntzak ere berreskurapena areagotu dezake, inolako oharrik erakutsi gabe. Hori gerta daiteke, adibidez, ibilgailu bat aurretik doanean azeleragailuaren pedala askatzen bada. Kasu horretan, energia-berreskuratzea aurreko ibilgailura egokitzen da, inolako oharrik erakutsi gabe.**

Ordua eta data

Infotainment sisteman ordua doitzea

- Sakatu ⊞ > ⚙ **Ajustes** ››› 34. orrialdea.
- Hautatu **Fecha y hora** menuaren aukera.

Zerbitzua menua

Zerbitzu-menuan hainbat doikuntza egin daitezke ekipamenduaren arabera.

Zerbitzu-menua irekitzea

- **Vista clásica** ikuspeneko **`Datos iniciales`** pantailan, sakatu funtzio anitzeko bolanteko **`OK`** tekla 5 segundo inguruz eta aska ezazu.
- Ondoren, **`Lista de configuración`** menua agertuko da; hor **`Menú servicio`** edo **`Selección de vista`** aukeren artean hauta daiteke, tresnen koadrorako ikuspegiak aktibatzeko edo desaktibatzeko.

Zerbitzu-tarteen adierazlea berrabiaraztea

Aukeratu **`Servicio`** menua eta jarraitu tresnen koadroko pantailako jarraibideei.

Olio-zerbitzua berrabiaraztea

Aukeratu menu hau: **`Restabl. Servicio de aceite`** eta jarraitu jarraibideei tresnen koadroko pantailan.

Motorreko letra bereizleak (LDM)

Hartu **`Letras distintivas del motor`** menua. Motorreko letra bereizleak tresnen koadroko pantailan adieraziko dira, behean ezkerraldean.

Hurrengo Zerbitzua

Hurrengo berrikuspena tailerrean noizko aurreikusten den zehazten da.

Zerbitzu-tarteak

Zerbitzu-tarteen oharra tresnen koadroko pantailan eta infotainment sisteman agertzen da.

Hainbat tresnen koadro eta Infotainment sistema daude; horregatik, bertsioak eta pantailaren jarraibideak desberdinak izan daitezke.

CUPRAn bereizten da motorreko olio-aldaketa duten zerbitzuen (adibidez, Olioa aldatzeko zerbitzua) eta motorreko olio-aldaketarik gabeko zerbitzuen (adibidez, Ikuskapena) artean.

Zerbitzua denboraren edo kilometroen arabera duten ibilgailuetan, dagoeneko, aurretik finkatuta daude zerbitzu-tarteak.

Iraupen luzeko Zerbitzua duten ibilgailuetan, tarteak banaka zehazten dira. Teknikaren aurrerapenari esker, mantentze-lanak asko murriztu dira. Ibilgailuak behar duenean baino ez da behar aldatu olioa. Aldaketa hori kalkulatzeko (gehienez 2 urte), ibilgailuaren erabilera

eta gidatze-estiloa hartzen dira kontuan. Dagokion zerbitzurako kalkulatutako data baino 20 egun lehenago agertuko da aurreabisua lehenengo aldiz. Adierazitako gainerako kilometroak beti 100 kilometrora biribiltzen dira, eta denbora egun osotan emango da. Uneko zerbitzuaren mezua ezin da kontsultatu azken zerbitzu egin zenetik 500 kilometro egin arte. Ordura arte, adierazlean, marratxoak besterik ez dira agertuko.

Ikuskapen-oroigarria

Laster zerbitzu edo ikuskapen bat egin beharko balitz, **Zerbitzu-oroigarri bat** agertuko da pizgailua konektatzean.

Adierazitako zifra oraindik egin daitezkeen kilometroak dira edo hurrengo zerbitzua egin arte falta den denbora.

Ikuskapenaren data

Zerbitzu bat edo **ikuskapen bat egiteko garaia** denean, pizgailua konektatzean seinale akustiko bat entzungo da eta, segundo batzuez, tresnen koadroko pantailan ager daiteke giltzaren (lanabesa) sinboloa ✂, baita hauetako mezuren bat ere:

- **¡Servicio ahora!**
- **Solicite que se realice la inspección**
- **¡Servicio de aceite necesario!**
- **¡Servicio de aceite e inspección necesarios!**

Zerbitzu-jakinarazpen bat kontsultatzea

Pizgailua konektatuta, motorra itzalita eta ibilgailua geldirik, uneko zerbitzu-jakinarazpena kontsulta daiteke:

Uneko zerbitzuaren data begiratzea infotainment sisteman:

- Sakatu **Ajustes**.
- Hautatu **Conexión de datos** menuaren aukera zerbitzuei buruzko informazioa erakusteko .

Data begiratzea tresnen koadro digitalean:

- Zerbitzuaren data **Servicio** ››› 31. orrialdea menuaren bidez baino ezin da begiratu.

Zerbitzu-tarteen adierazlea zeroan jartzea

CUPRA kontzesionario espezializatu batean edo SEAT sareko edozein kontzesionariotan egin **ez** bada zerbitzua, adierazlea honela berrabiaraz daiteke:

- Zerbitzu-tarteen adierazlea **Servicio** ››› 31. orrialdea menuaren bidez baino ezin da berrabiarazi.

Ez berrabiarazi adierazlea zerbitzu-tarteen artean; bestela, adierazpenak ez dira zuzenak izango.

Olio-aldaketaren zerbitzua eskuz berrabiarazten bada, zerbitzu-tarteen adierazlea zerbitzu-tarte finko batera aldatuko da, eta **olio-aldaketa malguko Zerbitzua** duten ibilgailuetan ere bai.

Oharra

- **Zerbitzu-mezua desagertuko da segundo batzuk igaro ondoren, motorra martxan jartzean edo funtzio anitzeko bolanteko OK tekla sakatzean.**
- **Iraupen luzeko zerbitzua duten ibilgailuetan, bateriaren borneak denbora luzez askatuta egon badira, ezingo da hurrengo zerbitzuaren data kalkulatu. Horregatik, zerbitzuaren jarraibideek okerreko kalkuluak adierazi ditzakete. Kasu horretan, baimendutako gehieneko mantentze-tarteak kontuan hartu beharko lirateke** **››› 381. orrialdea.**
- **Adierazlea eskuz jartzen bada zeron, zerbitzu-tarte finkoak dituzten ibilgailuetan bezala adieraziko da hurrengo zerbitzu-tartea. Horregatik gomendatzen dizugu baimendutako CUPRA zerbitzu bat arduratzea zerbitzu-tarteen adierazlea zeron jartzeaz.**

Tresnen koadroaren erabilera

Gaiaren aurkezpena

Pizgailua konektatuta dagoela, pantailaren funtzioak kontsulta daitezke menuetan barrena nabigatzen.

Funtzio anitzeko bolantea duten ibilgailuetan, funtzio anitzeko adierazlea bolantearen teklekin bakarrik erabil daiteke.

Menuaren zenbait aukera ibilgailua geldirik dagoenean bakarrik kontsulta daitezke.

Tresnen koadroaren menuak

Eskuragarri dauden menuen kopurua eta informazioaren jarraibideak ibilgailuaren sistema elektronikoaren eta ekipamenduaren arabera-koak izango dira.

- Ibilgailuaren egoera ››› 26. orrialdea.
- Bidaia-datuak ››› 25. orrialdea.
- Asistentes.
  - Front Assist On/Off ››› 205. orrialdea
  - ACC (bakarrik ikustea) ››› 197. orrialdea
  - Lane Assist On/Off ››› 209. orrialdea
  - Side Assist On/Off ››› 218. orrialdea
- Navegación.
- Audio.
- Teléfono.

⚠ ADI

Gidariak arreta galduz gero, istripu bat eta lesioak eragin ditzake.

- **Ez erabili inoiz tresnen koadroko pantaila ibilgailua ibiltzen ari den bitartean.**

ⓘ KONTUZ

12 volteko bateria kargatu edo aldatu ondoren, egiaztatu sistemaren doikuntzak. Korrontearen elikadurak eten eginez gero, sistemaren doikuntzak aldatu edo ezaba daitezke.

Funtzio anitzeko bolantearen bidez erabiltzea



11. irudia Funtzio anitzeko bolantearen eskuinaldea: tresnen koadroko (bertsioen arabera) menuak eta argibideak erabiltzeko teklak.

1 lehentasuna ››› 26. orrialdea duen ohartarazpen bat dagoen bitartean, ezin izango da menu batean ere sartu. Ohartarazpen batzuk baiezta eta ezkuta daitezke funtzio anitzeko bolanteko OK teklarekin ››› 11. irudia.

Aukeratu menu edo informazio-argibide bat

- Konektatu pizgailua.
- Mezurik edo ibilgailu baten piktograma erakusten badira, sakatu OK ››› 11. irudia tekla; beharrezkoa bada, behin baino gehiagotan.
- Menuen artean aldatzeko, erabili ▭ edo ▭ teklak.
- Erakusten den menua edo argibidea irekitzeko, sakatu OK tekla, edo itxaron segundo batzuk menua edo argibidea automatikoki ireki arte.

Menuetan doikuntzak egitea

- Bistaratzen ari den menuan, biratu eskuineko gurpil txikia, funtzio anitzeko bolantean, nahi den menu-aukera markatu arte. Aukera esparru baten barruan agertuko da.
- Sakatu OK tekla nahi diren aldaketak egiteko. Marka batek adieraziko du dena delako funtzioa edo sistema aktibatuta daudela.

Menuen aukerara itzultzea

- Sakatu ▭ edo ▭ tekla.

Maneiua eta bistaratzea infotainment sisteman

Gaiaren aurkezpena

Infotainment sistemak ibilgailuaren funtzio eta sistema garrantzitsuak biltzen ditu aginte zentraleko unitate bakar batean. Esaterako, klimatizagailua, menuen doikuntzak, irrati ekipamendua edo nabigazio-sistema.

Eskuragarri dauden menuen kopurua eta aukera desberdinen izena ibilgailuaren elektronikaren eta ekipamenduaren araberakoak izango dira.

Erabilerari buruzko informazio orokorra

Infotainment sistemaren erabilerari buruzko informazio orokorra, baita kontuan hartu beharreko ohartarazpen- eta segurtasun-adierazpenei buruzkoa ere, honako honetan dago: ››› 265. orrialdea.

Nola mugitu menu desberdinetan eta nola aukeratu menuak

- Konektatu pizgailua.
- Itzalita badago, konektatu Infotainment sistema.
- Menuak ukipen-pantailan zuzenean aukeratzen dira, testuen, ikonoen edo teklen bidez.

Laukitxoa markatuta dagoenean ✓, funtzioa aktibatuta dago.

Menu-tekla ❮ sakatuz, beti aktibatuko da aktibatuta zegoen azken menua.

Doikuntza-menuetan egindako aldaketak automatikoki memorizatzen dira, menuak itxi ondoren

Korritze-barra: Menu eta funtzio batzuek, pantailan une hartan erakusten direnen gainetik edo azpitik, eduki gehiago erakusten dituzte; adibidez, doikuntzen zerrenda luzeak. Sakatu korritze-barraren gainean eta eraman gorantz edo beherantz.

Tutoriala

Infotainment sistema konektatzen duzun lehen aldian, sistemaren tutorial bat irekiko da eta hor funtzio nagusiak eta erabiltzeko modua labur deskribatzen dira.

Laguntza

Infotainment sistema erabiltzeko aholkuak eta informazio gehiago aurkituko dituzu **Ayuda** menuan.

⚠ ADI

Arreta-galtze batek istripua eragin dezake, eta horrek lesioen arriskua areagotzen du. Infotainment sistema erabiltzeak trafikoari adi ez egotea eragin dezake.

ⓘ Oharra

Motorra martxan jarri ondoren, sakontasunez deskargatutako edo aldatu berriko 12 volteko bateriarekin, baliteke sistemaren doikuntza batzuk, hala nola ordua, data, konfort-doikuntza pertsonalizatuak eta programazioak, eta erabiltzaile-kontuak desdoitu edo ezabatu izana. Egiaztatu eta zuzendu desdoitze horiek bateria nahiko kargatuta dagoenean.

Funtzio-botoien azalpena



12. irudia Irudikapen eskematikoa: Balizko funtzio-botoien Ikuspegi orokorra pantailan.

Pantailako goialdea

Honako informazio hau beti dago ikusgai, infotainment sistema itzalita ere ››› **12. irudia**:

Ⓐ **Ordua**, **Sarrerako deia**, edota, **aurreklimatizazioa piztea/itzaltzea**.

Ⓑ **Climabar** ››› **147. orrialdea**.

Ⓒ **Status bar**. Sistemaren egoerari buruzko informazio-barra, hala nola: telefono-estaldura, telefono-kargaren egoera, Qi kargagailuaren egoera, erabiltzailearen pribatutasun-modua, sistemaren jakinarazpenak, sarrera-deiak eta dei-telefonogunerako sarbidea.

Pantailako behealdea

Ⓓ Menu nagusia bistaratzeko modua:

▥: 2 pantailatan banatutako 6 funtzio nagusiak dituen menu nagusia (3 + 3, funtzioaren gainean sakatuta mantenduz, erabiltzaileak egokitu ditzake).
⊞: menu nagusia mosaiko moduan (infotainment sistemaren funtzio guztiak).

Ⓔ Infotainment sistemaren funtzioetarako sarbide zuzenak (gehienez 5 funtzio). Ikonoaren gainean klik eginez, funtzio edo testuinguru horietara jo daiteke.

Ⓕ Ibilgailuaren laguntzaileetara eta doikuntzetara sarbide zuzena ››› **38. orrialdea**.

Hasierako konfiguraziorako laguntzailea

13. irudia Irudikapen eskematikoa: Hasierako konfiguraziorako laguntzailea.

Hasierako konfiguraziorako laguntzaileak infotainment sistema konfiguratzen, lehenengo aldiz sartzen zarenean, lagunduko dizu.

Infotainment sistema konektatzen duzun bakoitzean konfigurazioko hasierako pantaila ››› **13. irudia** agertuko da, parametro guztiak konfiguratu ez badituzu ("✓"markarekin) edo **No mostrar otra vez** funtzio-tekla sakatu ez baduzu.

Funtzio-botoiak:

Ⓐ Sakatu eguna eta ordua konfiguratzeko.

Ⓑ Sakatu une hartan ondoen jasotzen duten irrati-kateak bilatzeko eta memorian gordetzeko.

Ⓒ Sakatu Online[1] Media-ren doikuntzetara joateko.

Ⓓ Sakatu, zure mugikorra infotainment sistemari lotzeko.

Ⓔ Sakatu etxeko helbidea hautatzeko, uneko kokapenaren bitartez edo helbidea eskuz sartuz.

No mostrar otra vez Infotainment sistema konfiguratzeko ahalmena desaktibatzen du. Hasierako konfigurazioa egin nahi baduzu, sartu beharko duzu **Ayuda** bidez.

Iniciar Hasierako konfiguraziorako laguntzailea abiarazten du.

Finalizar Sakatu konfigurazioa amaitzeko, behin doikuntza bat edo gehiago aplikatuta, laguntzailearen menu nagusian.

⊗ Itxi konfiguraziorako laguntzailea.

[1] Ez dago eskuragarri merkatu guztietan.

Ibilgailuari buruzko informazioa

14. irudia Irudikapen eskematikoa: Ibilgailuaren informazioa eta egoera

Menu nagusiko **Datos** gainean sakatuz, **Información del vehículo** menua zabalduko da, honako azpimenu hauek dituela:

- **Datos de viaje:** Batez besteko kontsumoa, batez besteko abiadura, egindako distantzia, bidaiaren iraupena eta autonomia erakusten dira. 3 memoria ditu: “Irteeratik”, “Kalkulua guztira” eta “Erregaia hartu den momentutik”.
- **Estado del vehículo:** Matxuren abisuak, gorabeherak, pneumatikoen presioa memorizatzea edo hurrengo ikuskapen-zerbitzuaren informazioa erakusten dira.
- **e-Info:** Autonomia elektrikoa eta energia-fluxua erakusten dira.

Ibilgailuaren laguntzaileak eta doikuntzak

15. irudia Irudikapen eskematikoa: Ibilgailuaren laguntzaileak eta doikuntzak.

>>> **15. irudia** Ⓐ gainean sakatuz, edota, menu nagusian **Ajustes del vehículo** gainean, laguntzaile- eta doikuntza-menua irekitzen da. Jarraian, Ⓑ ezkerraldean menuren baten gainean sakatuta, hautatutako doikuntza- edo laguntzaile-menua agertzen da pantailan.

Laguntzaileen eta doikuntzen kopurua bertsioaren eta delako herrialdearen araberakoa da.

Asistentes

- **Aparkatzea**
  - Geratze-balazta automatikoki aktibatzea >>> **223. orrialdea**.
  - Aparkatzeko laguntzailea >>> **227. orrialdea**.
  - Desaparkatzeko laguntzailea >>> **245. orrialdea**.
- **Smart Assistants**
  - ESC aktibatzea / desaktibatzea, egonkortze-sistemak eta frenatzeko laguntza >>> **184. orrialdea**.
  - Start-Stop sistema aktibatzea / desaktibatzea >>> **169. orrialdea**
  - Abiaduraren kontrol moldatzailea (ACC) >>> **197. orrialdea**.
  - Errei-irteeratik abisu-sistema (Lane Assist) >>> **209. orrialdea**.
  - Larrialdi-balaztatzeari laguntzeko sistema (Front Assist) >>> **205. orrialdea**.
  - Gidatze-laguntzailea (Travel Assist) >>> **212. orrialdea**
  - Larrialdietarako laguntzailea (Emergency Assist) >>> **217. orrialdea**
  - Maldak jaisteko laguntzailea (HDC) >>> **178. orrialdea**.
  - Abiadura erregulatze prediktiboa >>> **203. orrialdea**.
- **Gidariarentzako abisuak**
  - Neke-detekzioa >>> **26. orrialdea**.
  - Trafiko-seinaleak antzematea >>> **27. orrialdea**.
  - Errei-aldaketarako laguntzailea (Side Assist) >>> **218. orrialdea**.
  - Gidatze ekoefizienterako laguntzailea >>> **30. orrialdea**.

Drive Profile >>> **180. orrialdea**

Bateria-kudeatzailea >>> **85. orrialdea**

Giro-argia >>> **130. orrialdea**

Doikuntzak

- Tresnen koadroa ››› 23. orrialdea.
- Argiak ››› 130. orrialdea.
- Atzeraispiluak ››› 135. orrialdea.
- Ixtea ››› 91. orrialdea.
- Argiak ››› 124. orrialdea.
- Leihoak ››› 135. orrialdea.
- Pneumatikoak ››› 375. orrialdea.
- Haizetako-garbigailua ››› 133. orrialdea
- Propultsio elektrikoa (PHEV ibilgailu hibridoak)
- Eserlekuak ››› 116. orrialdea

Irteera menua

16. irudia Irudikapen eskematikoa: irteera menua.

Irteera-menuan funtzio batzuetarako doikuntzak egin ditzakezu ibilgailua utzi aurretik. Motorraren pizgailuan deskonektatzen duzunean, irteera menua agertzen da infotainment sisteman:

Erakutsitako sarrerak ekipamenduaren araberakoak dira, eta, hala badagokio, baldintza jakin batzuekin baino ez daude eskuragarri. Doitu daitezkeen funtzioen artean hauek daude, adibidez:

- Leihatilak ixtea
- Bidaiari-lekua zaintzea
- Irteera-argia

Ezkutatzea

Ibilgailutik irtetean, irteera menua automatikoki ezkutatzen da. Ekipamenduaren arabera, denbora jakin bat igaro ondoren ere ezkutatzen da.

- Eskuz ezkutatzeko irteera menua, sakatu ✕.

Segurtasuna

Gidatze segurua

Segurtasunak lehentasuna du!

⚠ ADI

- **Kapitulu honek ibilgailua erabiltzeari buruzko informazio interesgarriak ditu, gidariarentzat zein beste bidaiarientzat. Ibilgailuaren barruko dokumentazioaren beste kapituluetan, hainbat informazio garrantzitsu agertzen dira. Gidariak eta beste bidaiariek ere informazio horren berri izan behar lukete beren segurtasunerako.**
- **Ziurtatu ibilgailuaren barruko dokumentazio osoa beti ibilgailuan dagoela. Azken hura bereziki garrantzitsua da ibilgailua beste pertsona bati uzten edo saltzen badiozu.**

Abian jarri aurretik

Gomendatzen dizugu, bai zure segurtasunarengatik eta bai zurekin doazenen segurtasunarengatik, honako alderdi hauek kontuan hartzea abiatu lehen:

- Ziurtatu pizgailua eta keinukariak behar bezala daudela.
- Kontrolatu pneumatikoen puzte-presioa.
- Ziurtatu kristal guztiek ikuspen egokia ematen dutela.
- Ziurtatu ekipajea ondo eutsita dagoela ››› **301. orrialdea**.
- Ziurtatu ez dagoela pedalen funtzionamendua oztopatzen duen objekturik.
- Doitu atzerako ispilua, aurreko eserlekua eta buru-euskarria zure neurrira.
- Ziurtatu atzeko eserlekuetako bidaiariek buru-euskarria erabiltzeko moduan dutela ››› **118. orrialdea**.
- Zurekin doazenei esan buru-euskarria beren altueraren arabera erregula dezatela.
- Babestu haurrak berentzako egokia den eserleku batekin eta segurtasun-uhala behar bezala jarrita ››› **61. orrialdea**.
- Eseri behar bezala. Esan zurekin doazenei ere behar bezala esertzeko ››› **42. orrialdea**.
- Ipini ondo segurtasun-uhala. Esan zurekin doazenei ere segurtasun-uhala behar bezala lot dezatela ››› **45. orrialdea**.

Segurtasunean eragina duten faktoreak

Zu, gidari gisa, zeure eta zurekin doazenen segurtasunaren arduraduna zara.

- Egon beti trafikoari adi eta ez galdu arreta zurekin doazenekin edo telefono-deiekin.
- Ez gidatu zure ahalmenak behar bezala ez daudenean (adibidez, botikak, alkohola, drogen eraginez).
- Bete zirkulazio-arauak eta errespetatu abiadura-mugak.
- Egokitu beti abiadura bidearen ezaugarrietara, baita eguraldira eta trafikoaren inguruabarretara ere.
- Bidaia luzeetan, gelditu beti maiz atsedena hartzeko, gutxienez bi orduz behin.
- Ahal den guztietan, ez gidatu nekatuta edo tentsioan zaudenean.

⚠ ADI

Alkohola, droga, sendagai edo narkotikoen eraginpean gidatzean istripu larriak sorraraz daitezke, are bizitza galtzeko arriskuarekin.

- **Alkoholak, drogek, sendagaiek edo narkotikoek modu nabarian aztora ditzakete pertzepzioa, erreakzio-denbora eta gidatzen den bitartean segurtasuna eta, horren ondorioz, ibilgailuaren kontrola galtzea gerta daiteke.**

Segurtasun-ekipamenduak

Ez jarri arriskuan ez zure segurtasuna, ezta zurekin doazena ere. Istripua izanez gero, segurtasun-ekipoek murriztu dezakete lesioak pai-

ratzeko arriskua. Honako puntu hauek zure CUPRAren segurtasun-ekipoen zati bat hartzen dute barne[1]:

- Plaza guztietan optimizatutako segurtasun-uhalak.
- Aurretenkagailuak gidariaren, gidarikidearen eta atzeko alboko tokien segurtasun-uhaletan.
- Indar-mugagailuak gidariaren, gidarikidearen eta atzeko alboko tokien segurtasun-uhaletan.
- Abisu-argi gorria, eta, hala badagokio, segurtasun-uhalen egoera adieraztea.
- Aurrealdeko airbagak gidariarentzat eta gidarikidearentzat.
- Alboetako airbagak gidariarentzat eta gidarikidearentzat.
- Atzealdeko plazetarako atzeko airbagak .
- Bururako airbagak ibilgailuaren bi alboetan.
- Erdiko airbaga gidariaren eta gidarikidearen artean.
- Belaunetarako airbaga.
- Airbagaren kontrol-argi horia.
- Sabaiko kontsolan dagoen kontrol-argi horia PASSENGER AIR BAG OFF.
- Sabaiko kontsolan dagoen kontrol-argi horia PASSENGER AIR BAG ON.
- Kontrol- eta sentsore-unitateak.
- Altuera erregula dezaketen optimizatutako buru-euskarriak[2].
- Direkzio-zutabe erregulagarria.
- Haurrentzako eserlekuetako ISOFIX/i-Size euste-puntuak.
- Haurrentzako eserlekuetako goiko finkapen-uhalerako (Top Tether) finkapen-puntuak.

Istripua izanez gero zu eta beste bidaiariak ahalik eta modurik hoberenean babestea da aurretik aipatutako segurtasun-ekipoen helburua. Segurtasun-sistema horiek alferrikakoak izango dira zuretzat eta beste bidaiarientzat, ez bazarete behar bezala esertzen edo ez badituzue aipatutako sistemak zuzen erabiltzen.

Segurtasunak guztioi eragiten digu.

Ibilgailuko bidaiarien posizio zuzena

Posizio zuzena eserlekuan



17. irudia Gidariaren eta bolantearen arteko distantzia zuzenak, gutxienez, 25 cm-koa izan behar du (10 hazbete).

[1] Bertsio/merkatuaren arabera.

[2] Buru-euskarriak integratuta dituzten aurreko eserlekuek ez dute erregulaziorik behar.



18. irudia Uhalaren banda eta buru-euskarria ongi jarrita.

Hona hemen eserlekuan hartu behar diren posizio zuzenak gidariarentzat nahiz beste bidaiarientzat.

Beren osaera fisikoa dela eta, eserlekuan posizio zuzena hartu ezin dutenek tailer espezializatu batera jo behar dute egon daitezkeen gailu bereziei buruz galdetzera. Posizio zuzena hartzen bada bakarrik lortuko da segurtasun-uhalaren eta airbagen babes optimoa. CUPRAk gomendatzen du zerbitzu teknikora jotzea.

Zure segurtasuna dela-eta, eta indarrez frenatu edo maniobratuz gero edo istripua izanez gero lesioak saihesteko, CUPRAk honako posizio hauek gomendatzen ditu:

Ibilgailuko bidaiari guztientzat balio du:

- Doitu buru-euskarria, goiko ertza ahal den neurrian buruaren goiko aldearen parean gera dadin, eta inolaz ere begietatik behera[1]. Mantendu garondoa buru-euskarritik ahalik eta gertuen ››› **18. irudia**.
- Altuera gutxiko pertsonek buru-euskarria guztiz jaitsi beharko dute[1], nahiz eta beren burua goiko ertzetik behera geratu.
- Oso altuak direnek buru-euskarria guztiz igo beharko dute[1].
- Ibilgailua ibiltzen ari den bitartean, mantendu beti oinak oinazpikoan.
- Doitu eta lotu behar bezala segurtasun-uhala ››› **45. orrialdea**.

Gidariak, halaber, honako hau bete behar du:

- Ipini eserlekuaren bizkarraldea ia bertikal; hartara, bizkarra guztiz bermatuko da han.
- Doitu bolantea, bularrezurretik, gutxienez, 25 cm-ra (10 hazbete) gera dadin ››› **17. irudia** eta bi eskuekin bi alboetatik eutsi ahal izateko kanpoaldetik, besoak zertxobait tolestuta daudela.
- Bolanteak beti toraxaren norabidera begiratu beharko du eta inoiz ez aurpegirantz.
- Doitu eserlekua luzetara, pedalak guztiz zapaldu ahal izateko, belaunak zertxobait tolestuta, eta belaunetako zonaldearen eta tresnen taularen artean, gutxienez, 10 cm-ko distantzia gera dadin (4 hazbete) ››› **18. irudia**.
- Doitu eserlekuaren altuera, bolantearen punturik altuenera irits dadin.
- Mantendu beti oinak oinazpikoaren zonaldean, ibilgailua une oro kontrolpean mantentzeko.

Gidarikideak, halaber, honako hau bete behar du:

- Ipini eserlekuaren bizkarraldea ia bertikal; hartara, bizkarra guztiz bermatuko da han.
- Mugitu eserlekua atzerantz, ahal duzun adina (gutxienez, 25 cm toraxaren eta tresnen taularen artean). Distantzia hau 25 cm baino txikiagoa bada, airbag-sistemak ezin zaitu ondo babestu.

Plaza-kopurua:

Ibilgailuak **5** plaza ditu: 2 aurrealdean, eta 3 atzealdean. Plaza guztiek segurtasun-uhal bana dute.

Egiaztatu dokumentazio ofizialean zure ibilgailuak homologatuta duen bidaiari-kopurua.

[1] Buru-euskarri erregulagarria duten eserlekuetan.

⚠ ADI

Ibilgailuan oker eserita joanez gero, lesio larriak pairatu edo hil egin zaitezke indarrez frenatu edo maniobratuz gero, talka egiten edo istripua izaten bada eta airbagak irekitzen badira.

- **Abiatu baino lehen, bidaiari guztiek zuzen eseri beharko dute beti eta hala joan behar dute ibilbide osoan zehar. Hori ere segurtasun-uhala ipintzeari aplikatu behar zaio.**
- **Garraiatu, gehienez, ibilgailuak segurtasun-uhalarekin dituen plaza adina pertsona.**
- **Haurrak garraiatzeko, erabili beti homologatua eta haien pisurako eta altuerarako egokia den euste-sistema** **››› 61. orrialdea.**
- **Ibilgailua ibiltzen ari den bitartean, mantendu beti oinak oinazpikoan. Ez jarri inoiz, adibidez, jesarlekuaren edo tresnen koadroaren gainean, eta ez atera inoiz leihatilatik. Bestela, airbagak eta segurtasun-uhalak inolako babesik ez emateaz gain, lesioak pairatzeko arriskua ere areagotuko duzu, istripua izanez gero.**

Arriskuak oker eserita joateagatik

Ez baduzu segurtasun-uhala ipini edo gaizki ipini baduzu, lesio larriak pairatzeko edo hiltzeko arriskua areagotuko duzu. Segurtasun-uhalek babesik egokiena bermatuko dute bakarrik behar bezala ipinita badaude. Oker eserita, segurtasun-uhalaren babes-funtzioa nabarmen murrizten da eta, ondorioz, lesio larriak edo hiltzeko modukoak ere paira daitezke. Lesio larriak edo hiltzeko modukoak pairatzeko arriskua nabarmen areagotzen da airbag bat irekitzean, horrek behar bezala eserita ez dagoen ibilgailuko bidaiari bat jotzen badu. Gidaria ibilgailuan garraiatzen dituen pertsona guztien arduraduna da, bereziki haurrena.

Hona hemen, adibide moduan, ibilgailuko bidaiarientzat arriskutsuak izan daitezkeen hainbat okerreko posizio.

Ibilgailua mugitzen ari denean:

- Ez jarri inoiz zutik ibilgailuan.
- Ez jarri inoiz zutik eserlekuetan.
- Ez jarri inoiz belaunika eserlekuetan.
- Ez okertu inoiz gehiegi eserlekuaren bizkarraldea atzerantz.
- Ez bermatu inoiz tresnen taulan.
- Ez jarri etzanda inoiz atzeko eserlekuan.
- Ez joan inoiz eserita eserlekuaren aurreko aldean.
- Ez eseri inoiz zeharka.
- Ez bermatu inoiz leihatilatik kanpo.
- Ez atera oinak inoiz leihatilatik.
- Ez jarri inoiz oinak tresnen taulan.
- Ez jarri inoiz oinak eserlekuaren bigungarrian edo eserlekuaren bizkarraldearen gainean.
- Ez bidaiatu inoiz oinazpikoaren zonaldean.
- Ez eseri inoiz beso-euskarriaren gainean.
- Ez bidaiatu inoiz eserlekuan eserita eta segurtasun-uhala jarrita izan gabe.
- Ez joan inoiz maletategian.

⚠ ADI

Ibilgailuan oker eserita joanez gero, lesio larriak edo hiltzeko modukoak paira ditzakezu, istripua gertatzen bada eta indarrez frenatu edo maniobratzen bada.

- **Bidaiari guztiek joan behar dute beti zuzen eserita ibilgailua ibiltzen ari den bitartean eta beti segurtasun-uhala behar bezala ipinita eraman behar dute.**
- **Behar bezala eserita ez doazen, segurtasun-uhala ipinita ez duten edo airbagekiko distantzia nahikoa ez duten ibilgailuko bidaiariek lesio larriak edo hiltzeko modukoak pairatzeko arriskua dute, bereziki airbagak irekitzen badira eta jotzen badituzte.**

Segurtasun-uhalak

Gaiaren aurkezpena

19. irudia Segurtasun-uhala behar bezala lotuta daramaten gidariak ez dira jaurtiko bat-batean frenatuz gero.

Ondo jarritako segurtasun-uhalek bidaiariak behar bezalako posizioan mantentzen dituzte. Horrez gain, kontrolik gabeko mugimenduak saihesten laguntzen dute, horiek zauri larriak eragin baititzakete eta, halaber, ibilgailutik kanpo jaurtitzeko arriskua murrizten dute, istripua izanez gero.

Segurtasun-uhalak behar bezala jarrita daramatzaten ibilgailuko bidaiariek neurri handian lortuko dute segurtasun-uhalek energia zinetikoa xurga dezaten. Horrez gain, aurrealdeko egiturak eta zure ibilgailuaren segurtasun pasiboko bestelako osagaiek (adibidez, airbag-sistema) bermatuko dute askatutako energia zinetikoa xurgatzea. Horrela, askatzen ari den energia zinetikoa murrizten da eta, aldi berean, zauriak eragiteko arriskua. Horregatik, segurtasun-uhalak jarri behar dira ibilgailua martxan jarri baino lehen, ibilbide motza bakarrik egiteko bada ere.

Ziurtatu, halaber, beste bidaiari guztiek segurtasun-uhala lotu dutela. Zirkulazio-istripuei buruzko estatistikek adierazi dute segurtasun-uhala behar bezala eramateak lesio larriak pairatzeko arriskua nabarmen murrizten duela eta istripua izanez gero bizirik irauteko aukera nabarmen handitzen duela. Ondo jarritako segurtasun-uhalek, halaber, airbagen efektu babeslea handitzen dute istripua izanez gero ateratzen badira. Horregatik, herrialde gehienetan, derrigorrezkoa da segurtasun-uhalak erabiltzea.

Zure ibilgailuak airbagak eduki arren, derrigorrezkoa da segurtasun-uhalak ondo jarrita eramatea. Aurreko airbagak, adibidez, aurrealdeko talka eginez gero bakarrik ateratzen dira. Honako kasu hauetan ez dira aterako: aurrealdeko edo alboko talka arina eta atzeko talka izanez gero, irauliz gero edo kontrol-unitatean aurretik finkatutako airbaga irekitzeko balioa gainditzen ez bada.

Segurtasun-neurri garrantzitsuak segurtasun-uhalak erabiltzeko

- Eraman beti segurtasun-uhala atal honetan deskribatzen den bezala jarrita.
- Ziurtatu segurtasun-uhalak une oro jar daitezkeela eta ez daudela hondatuta.

⚠ ADI

- **Ez baduzu segurtasun-uhala ipini edo gaizki ipini baduzu, lesio larriak edo hiltzeko modukoak pairatzeko arriskua areagotuko duzu. Segurtasun-uhalek gehienezko babesa ematen dute behar bezala erabiltzen badira.**
- **Bi pertsonek ez lukete segurtasun-uhal bera aldi berean erabili beharko (ezta haurrak badira ere).**
- **Ez kendu inoiz segurtasun-uhala ibilgailua ibitzen ari den bitartean, heriotza-arriskua baitago.**
- **Uhalaren banda ez da objektu gogorren edo hauskorren gainetik pasatu behar (betaurrekoak, boligrafoa, etab.), istripua izanez gero zauriak eragin ditzake eta.**
- **Uhalaren bandak ez du trabatuta egon behar; ez du hondatuta egon behar, ezta mutur zorrotzekin kontaktuan egon behar ere.**
- **Ez eraman inoiz segurtasun-uhala besoaren azpian edo bestelako okerreko posizioan.**
- **Jantzi lodiek eta lotu gabekoek (adibidez, beroki bat kirol-jertse baten gainean) segurtasun-uhalak behar bezala lotzea zailtzen dute; beraz, babesteko gaitasuna murrizten dute.**
- **Itxigailua paperarekin edo antzekoekin trabatzea saihestu behar da, horrelakoetan ezingo baita ixteko mihia lotu.**
- **Ez aldatu inoiz uhalaren bandaren posizioa uhalerako pintzen, euste-zirgiloen edo antzeko objektuen bidez.**

- **Ehunetan, loturetan, biltzeko gailu automatikoan edo itxieran kalteak dituzten uhalek zauri larriak eragin ditzakete, istripua izanez gero. Horregatik, egiaztatu maiz segurtasun-uhalen egoera.**
- **Istripu bat izan ondoren, joan tailer espezializatu batera, egin duten esfortzuaren ondoren gehiegi askatu diren segurtasun-uhalak aldatzeko. Agian aldatu ere egin behar dira, ageriko kalteak ez egon arren. Horrez gain, uhalaren euste-puntuak egiaztatu behar dira.**
- **Ez saiatu inoiz zu zeu segurtasun-uhalak konpontzen. Segurtasun-uhalak ez dira inoiz desmuntatu edo aldatu behar.**
- **Uhala beti garbi mantendu beharko da, oso zikina baldin badago hura biltzeko gailu automatikoaren funtzionamendua kaltetu baititeke.**

Uhalak lotuta daudela adieraztea

Gorri jartzen da
Gidariak edo harekin doan baten batek ez du segurtasun-uhala lotu.

Kontrol-argia segurtasun-uhala lotzea gogorarazteko pizten da.

Ibilgailua martxan jarri baino lehen:

- Ipini ondo segurtasun-uhala.
- Esan zurekin doazenei segurtasun-uhala ondo ipintzeko, ibiltzen hasi baino lehen.
- Babestu haurrak, haurraren altuera eta adinera egokitutako eserleku berezi bat erabiliz ››› 61. orrialdea.

Abiatzean, gutxi gorabehera 25 km/h-ko (15 mph) abiadura gainditzen bada, gidariak edo gidarikideak segurtasun-uhalak lotuta eraman gabe, edo horiek martxan zehar askatzen badute, seinale akustiko bat entzungo da segundo batzuetan. Horrez gain, oharpen-argiak dir-dir egingo du tresnen koadroko pantailan.

Pizgailua konektatuta, kontrol-argia itzali egingo da bidaiari guztiek segurtasun-uhala lotzen dutenean.

Atzeko plazetako segurtasun-uhalak lotu behar direla adieraztea



20. irudia Tresnen koadroa: atzeko eserlekuetako segurtasun-uhalen egoeraren adierazpena.

Modeloaren bertsioaren arabera, pizgailua konektatzean, uhalen egoeraren adierazleak ››› 20. irudia tresna-koadroko pantailan jakinarazten dio gidariari atzeko eserlekuetako bidaiariek dagokien segurtasun-uhala lotuta daramaten.

Adierazten du dagokion plaza ez dagoela okupatuta.

Adierazten du plaza okupatuta dagoela eta bidaiariak bere segurtasun-uhala lotuta duela.

Atzeko plazetako bidaiari batek segurtasun-uhala askatzen badu ibilaldian zehar, sinboloa gehienez 60 segundoz piztuko da. Gutxi gorabehera 25 km/h-tik gora (15 mph) ibiltzen bada, soinu-seinale bat ere entzungo da, segundo batzuez.

Ibiltzen ari zaren bitartean, segurtasun-uhal bat lotzen edo askatzen bada atzeko plazetako batean, segurtasun-uhalaren egoera adierazi ko da 30 bat segundoz.

Aurrez aurreko istripuak eta lege fisikoak

21. irudia Segurtasun-uhala lotuta ez daraman gidaria aurrerantz proiektatu daiteke.

22. irudia Segurtasun-uhala lotuta ez daraman atzeko eserlekuko bidaiaria aurrerantz proiektatuko da segurtasun-uhala jarrita daraman gidariaren gainean.

Erraz azaldu daiteke lege fisikoek nola jarduten duten aurrealdeko istripu bat izanez gero: ibilgailu bat mugitzen hasten denean, bai ibilgailuan bai bertako bidaiarengan, energia bat sortzen da, “energia zinetikoa”izenekoa.

“Energia zinetikoaren” magnitudea, batez ere, ibilgailuaren abiaduraren, pisuaren eta bidaiarien araberakoa da. Horiek zenbat eta handiagoak izan, orduan eta handiagoa izango da “xurgatu” behar den energia istripua izanez gero.

Hala ere, faktorerik garrantzitsuena ibilgailuaren abiadura da. Adibidez, abiadura bikoizten bada eta 25 km/h-tik (15 mph) 50 km/h-ra (30 mph) igarotzen bada, dagokion energia zinetikoa lau bider handiagoa izango da.

Gure adibidearen ibilgailuko bidaiariek segurtasun-uhala lotu gabe daramatenez, talka eginez gero, bidaiarien energia zinetiko guztia aipatutako talkak bakarrik xurgatuko du.

Nahiz eta 30 km/h (19 mph) eta 50 km/h (30 mph) arteko abiaduran zirkulatu, istripua izanez gero, gorputzean eragiten duten indarrek tona bat erraz asko gainditu dezakete (1.000 kg). Zure gorputzean eragiten duten indarrak handitzen dira zirkulatzeko abiadura handitu ahala.

Segurtasun-uhalak lotu ez dituzten ibilgailuko bidaiariak ez dira ibilgailuari “lotuta” joango. Aurrealdeko talka izanez gero, pertsona horiek mugituko dira ibilgailuak talka egin baino lehen zeraman abiadura berarekin. Adibide hori ez da aplikagarria aurrealdeko talketarako bakarrik, baizik eta mota orotako istripuetarako.

Abiadura gutxi eramaten bada ere, talka eginez gero, eskuak bermatzearekin bakarrik aurre egiteko modukoak ez diren indarrek eragingo dute gure gorputzean. Aurrealdeko talka eginez gero segurtasun-uhala lotuta ez duten ibilgailuko bidaiariak aurrera jaurtiko dira kontrolik gabe eta, adibidez, bolantearekin, tresnen taularekin edo haizetakoarekin hartuko dute kolpea ››› **21. irudia**.

Horrez gain, atzeko eserlekuetako bidaiariek segurtasun-uhala nahitaez lotu behar dute, bestela, istripua izanez gero kontrolik gabe bidaiari-lekuan zehar jaurtiko baitira. Atzeko eserlekuko bidaiari batek ez badu segurtasun-uhala lotuta eramaten, bere burua ez ezik, aurreko eserlekuetako bidaiariak ere jarriko ditu arriskuan ››› **22. irudia**.

Segurtasun-uhala lotzea eta kentzea



23. irudia Segurtasun-uhalaren mihia itxigailuan sartzea.



24. irudia Segurtasun-uhala ixteko mihia askatzea.

Behar bezala ipini diren segurtasun-uhalek, bat-batean frenatuz edo istripua izanez gero, babesik handiena eman dezakeen posizioan mantentzen dituzte bidaiariak ››› ⚠.

Uhala lotzea

Lotu segurtasun-uhala bidaia bakoitzaren aurretik.

- Doitu behar bezala aurreko eserlekua eta buru-euskarria ››› **42. orrialdea**.
- Ahokatu atzealdeko eserlekuaren bizkarraldea posizio bertikalean ››› ⚠.
- Tira egin uhalaren mihitik eta ipini banda bularrean eta pelbisaren zonaldean modu uniformean. **Ez** tolestu uhala hura egiterakoan ››› ⚠.
- Ahokatu mihia dagokion eserlekuaren itxigailuan ››› **23. irudia**.
- Tira egin uhaletik mihia itxigailuan ondo sartu dugula egiaztatzeko.

Segurtasun-uhala kentzea

Kendu segurtasun-uhala ibilgailua geldirik dagoenean bakarrik ››› ⚠.

- Sakatu itxigailuko tekla gorria ››› **24. irudia**. Mihia jaurti egingo da itxigailutik.
- Heldu uhalari eskuarekin banda errazago biltzeko, uhala ez tolesteko eta estaldura ez kaltetzeko.

⚠ ADI

- **Segurtasun-uhalak babesik hoberena eskainiko du baldin eta bizkarraldea bertikal badago eta segurtasun-uhala altueraren arabera behar bezala ipinita badago bakarrik.**
- **Ibilgailua ibitzen ari den bitartean segurtasun-uhala kentzen bada, lesio larriak edo hiltzeko modukoak eragin daitezke istripua izan edo bat-batean frenatuz gero.**
- **Segurtasun-uhala berak edo askatutako segurtasun-uhalak lesio larriak eragin ditzake,uhala gorputzaren atal zurrunetik bigunetara mugitzen bada (adibidez, sabela).**

Uhalaren banda ondo jartzea



25. irudia Uhalaren banda eta buru-euskarria ongi jarrita, aurretik eta albotik ikusita.

26. irudia Segurtasun-uhalaren banda ipintzea haurdun dauden emakumeei.

Uhalaren banda behar bezala ipinita dagoenean bakarrik eskaintzen dute segurtasun-uhalek babesik hoberena istripua izanez gero, eta lesio larriak edo hiltzeko modukoa pairatzeko arriskua murrizten dute. Horrez gain, banda behar bezala ipinita badago, uhalak bidaiariak posizio hoberenean mantenduko ditu airbagak babesik handiena eman ahal izan dezan. Horregatik, segurtasun-uhala beti ipini behar da eta banda behar bezala jarri dela ziurtatu behar da.

Eserlekuan behar bezala ez esertzeak lesio larriak edo hiltzeko modukoak eragin ditzake ››› **42. orrialdea, *Ibilgailuko bidaiarien posizio zuzena*.**

- Sorbaldaren banda beti sorbaldaren erdialdetik pasatu behar da; inoiz ez lepoaren gainetik, besoaren gainetik edo besoaren azpitik, edo bizkarraren atzetik.
- Sabel aldeko segurtasun-uhalaren banda beti pelbisaren zonaldetik pasatu behar da eta inoiz ez sabelaren gainean.
- Ipini uhala beti tolestu gabe eta gorputzari ondo estututa. Beharrezkoa izanez gero, tira egin zertxobait uhalaren bandatik.

Haurdun dauden emakumeei dagokienez, segurtasun-uhala modu uniformean pasatu behar da bularretik eta pelbisaren zonaldetik ahalik eta beheren, banda tolestu gabe, sabelean presiorik ez eragiteko; horrez gain, haurdunaldi osoan erabili beharko da ››› **26. irudia**.

Uhalaren bandaren ibilbidea altuerara egokitzea

Uhalaren bandaren ibilbidea aurreko eserlekuen altuera doituz egoki daiteke.

⚠ ADI

Segurtasun-uhalaren banda oker ipini bada lesio larriak edo hiltzeko modukoak eragin ditzake istripua izanez gero.

- **Sorbaldaren banda sorbaldaren erdialdetik pasatu behar da eta sekulan ez besoaren azpitik edo lepoaren gainetik.**
- **Segurtasun-uhala laua geratuko da eta gorputzaren goiko parteari estutuko zaio.**
- **Sabel aldeko segurtasun-uhalaren banda beti pelbisaren zonaldetik pasatu behar da eta inoiz sabelaren gainean. Segurtasun-uhala laua geratuko da eta pelbisari estutuko zaio. Beharrezkoa izanez gero, tira egin zertxobait uhalaren bandatik.**
- **Haurdun dauden emakumeei dagokienez, segurtasun-uhalaren sabelerako bandak pelbisaren zonaldearen aurrealdean pasatu behar du, ahalik eta beheren, tolestu gabe bermatuta eta sabela "inguratuz" ››› 26. irudia.**
- **Ez tolestu uhalaren banda jarrita daramazun bitartean.**
- **Uhala behar bezala ipini ondoren, ez urrundu gorputzetik eskuarekin.**
- **Ez pasatu uhalaren banda objektu zurrunen edo hauskorren gainetik, adibidez, betaurrekoen, boligrafoen edo giltzen gainetik.**
- **Ez aldatu inoiz bandaren ibilbidea uhalerako pintzen, euste-zirgiloen edo antzekoen bidez.**

ⓘ Oharra

Beren osaera fisikoa dela eta zenbait pertsonak uhalaren bandaren posizio optimoa lortu ezin badute, tailer espezializatu batera jo behar dute egon daitezkeen gailu bereziei buruz galdetzera, uhalaren eta airbagaren babesik hoberena lortu ahal izateko. CUPRAk gomendatzen du zerbitzu teknikora jotzea.

Uhalaren biribilkagailu automatikoa, aurretenkagailua eta indar-mugatzailea

Ibilgailuaren segurtasun-uhalak ibilgailuaren segurtasun-sistemaren parte dira ››› 42. orrialdea. Sistema honek hurrengo funtzio garrantzitsuak ditu:

Uhalaren biribilkagailu automatikoa

Gidariaren eta gidarikidearen eserlekuetako segurtasun-uhalek, bai eta atzeko alboetako eserlekuetakoek ere (ekipamenduaren arabera, baita atzeko erdikoak ere), biribilkagailu automatiko bat dute sorbaldako bandan. Gailu honek erabateko mugimendu-askatasuna bermatzen du, sorbaldako bandatik poliki edo martxa normalean zehar tiratzen bada. Haatik, biribilkagailuak segurtasun-uhala blokeatzen du azkar ateratzen bada, bortizki frenatzen bada, ibilbide menditsuetan, bihurguneetan eta azeleratzen bada.

Martxa kritikoko egoeretan, adibidez, larrialdi-balaztatzearen kasuan edo gainbiratzearen eta azpibiratzearen kasuan, bidaiari babes proaktiboak aurreko segurtasun-uhalak tenka ditzake automatikoki, jarrita badaude[1]. Istripuren bat gertatzen ez bada edo egoera kritikoa igarotzen denean, bi uhalak lasaitzen dira berriro. Bidaiari-babesa proaktiboa funtzionatzeko prest dago berriro ››› 51. orrialdea.

Uhalaren aurretenkagailua

Aurreko eserlekuetako segurtasun-uhalek eta, ekipamenduaren arabera, atzeko alboetako eserlekuetakoek aurretenkagailuak dituzte.

Aurretenkagailuak sentsoreen bidez aktibatzen dira aurreko, alboko eta atzeko talka larrien kasuan (ibilgailu hibridoetan ere aktibatzen dira iraultzen badira), eta segurtasun-uhalak irteeraren kontrako noranzkoan tenkatzen dituzte.

Segurtasun-uhala ahul badago, aurretenkagailuak tenkatuko du. Horrela, bidaiariak aurrerantz eta talkaren norabidean egin dezakeen mugimendua moteldu daiteke.

Uhalen aurretenkagailuek airbag-sistemarekin batera funtzionatzen dute. Aurretenkagailuak eta airbag baten bat, talka-motaren arabera, aldi berean aktibatzen dira.

Aktibatzean, hauts fin bat bota liteke. Hori guztiz normala da eta ez du esan nahi ibilgailuan suterik egon denik.

Uhalaren tenkatze itzulgarria (bidaiarien babes proaktiboa)

Martxa-egoera jakin batzuetan segurtasun-uhalen tenkatze itzulgarria gerta daiteke ››› 51. orrialdea. Adibidez:

- indarrez frenatuz gero
- gehiegi edo gutxiegi biratuz gero
- talka arinak gertatuz gero

Uhalaren indar-mugagailua

Ekipamenduaren edo herrialdearen arabera, istripua gertatuz gero, segurtasun-uhalaren indar-mugatzaileak murriztu egiten du gorputzean eragiten duen indarra.

Oharra

- **Zenbait martxa-egoeren ondoren, uhalen aurretenkagailu itzulgarriak etengabe tenkatuta gera daitezke[1]. Kasu horretan, uhala lasaitzeko, eskuz kendu beharko da, ibilgailua geldituta dagoela, eta behar bezala jarri.**
- **Ibilgailua edo sistemaren osagairen batzuk desmuntatzen badira, horren inguruko segurtasun-arauak erreparatu beharko dira nahitaez. Tailer espezializatuek araudi horiek ezagutzen dituzte.**

Uhalaren aurretenkagailuak mantentzea eta deuseztatzea

Aurretenkagailuak ibilgailuko eserlekuek dituzten segurtasun-uhalen parte dira. Tenkatze-uhaletan lanak egiten direnean edo sistemaren osagaiak desmuntatzen edo muntatzen direnean bestelako konponketa lanak direla eta, segurtasun-uhalak kaltetu daitezke. Horren eraginez, istripua izanez gero, aurretenkagailuek behar bezala ez funtzionatzea edo ez aktibatzea gerta daiteke.

---

[1] PreCrash Sistema badauka soilik.

Segurtasun-uhalen babesteko funtzioa ez trabatzeko eta desmuntatutako osagaiek zauririk ez eragiteko edo ingurumena ez kaltetzeko, araudiak errespetatu beharko dira, eta horiek tailer espezializatuetan ezagutzen dituzte.

⚠ ADI

Segurtasun-uhalak, biribilkagailu automatikoak eta aurretenkagailuak desegoki erabiltzeak eta etxeko konponketek lesio larriak edo hilgarriak jasateko arriskua areagotu dezakete. Baliteke aurretenkagailuak ez aktibatzea, behar luketen arren, edo ustekabean aktibatzea.

- **Ez ezazu inoiz segurtasun-uhalen eta zure aurretenkagailuen osagairik konpondu, doitu, muntatu eta desmuntatu. Eskatu beti tailer espezializatu batean lan guztiak egin ditzaten.**
- **Segurtasun-uhala eta aurretenkagailuak eta horien biribilkagailu automatikoak ezin dira konpondu eta ordeztu egin behar dira.**

Ingurumenari buruzko oharra

Airbagaren moduluek eta uhalaren aurretenkagailuek perkloratoa izan dezakete.

Kontuan eduki horiek deuseztatzeari buruzko lege-xedapenak.

PreCrash sistema

Funtzionamendua

PreCrash sistema laguntza-sistema bat da, eta horrek arrisku egoeretan ibilgailuan doazenak babesteko neurri batzuk aktibatzen ditu, baina ezin du talkarik saihestu.

Inolako gidatze-profil berezirik hautatu ez denean eta funtzionamenduan inolako anomaliarik ez dagoenean soilik funtzionatuko du guztiz.

Oinarrizko funtzioak

Dena delako herrialdeko xedapen legalen eta ibilgailuaren ekipamenduaren arabera, egoera kritikoetan (adibidez, larrialdiko egoera batean frenatzea edo gidariak ibilgailuaren kontrola galtzea), honako funtzio hauek aktiba daitezke, bakoitza bere aldetik edo batera, 30 km/h (20 mph) inguruko abiaduratik aurrera.

- Lotuta eramaten diren aurreko segurtasun-uhalen tenkatze itzulgarria.
- Larrialdi-argi keinukariak aktibatzea.
- Leihatilak automatikoki ixtea zirrikitu bat bakarrik geratu arte eta, ekipamenduaren arabera, beirazko sabaia.
- Irauliz gero, eta ekipamenduaren arabera, segurtasun-uhaletako aurretenkagailuak aktibatzea.

Martxa-egoeraren larritasunaren arabera, uhalak banaka tenka daitezke, edo biak batera.

Larrialdi-balaztatzeari laguntzeko sistemaz (Front Assist) gain

Front Assist ››› 205. orrialdea duten ibilgailuetan, sistema horren mugen artean, aurreko ibilgailuarekin talka egiteko arriskuari buruzko informazioa ebaluatzen da. Atzeko talka egiteko probabilitate handia badago, edo Front Assist sistema aktibatzean, PreCrash sistemaren funtzioak ere aktiba daitezke.

Larrialdietarako laguntzaile-sistemaz (Emergency Assist) gain

Larrialdietarako laguntzailea duten ibilgailuetan, sistema horren mugen barruan, gidariaren egoerari buruzko informazioa aztertzen da. Jarduerarik eza antzemanez gero, PreCrash-eko sistema hauek aktiba daitezke:

- Gidariaren uhalaren tenkatze itzulgarria.
- Leihatilak automatikoki ixtea zirrikitu bat bakarrik geratu arte eta, ekipamenduaren arabera, beirazko sabaia.

PreCash sistema aktibatzea

PreCash sistema partzialki desaktiba daiteke trakzio- edo egonkortasun-kontrola desaktibatuz, ekipamenduaren arabera. Ibilgailuaren segurtasun-kontrol horiek aktibo daudenean (automatikoki, pizte-sistema konektatzen den bakoitzean), sistema erabat aktibatuta dago.

Doiketa gidatze-profila hautatzean

Gidatze-profileko hautapena duten ibilgailuetan, PreCrash sistema dagokion profileko ibilgailuaren konfigurazio berezira egokitzen da >>> 180. orrialdea.

Funtzionamendu mugatua

PreCash sistema ez dago erabilgarri, edo modu mugatuan bakarrik, egoera hauetan:

- TCS eta/edo ESC deskonektatuta daudenean.
- Atzera martxan zirkulatzen denean.
- Airbag-kontrol unitateak behar bezala funtzionatzen ez duenean.
- Sisteman bertan, ESCn edo Front Assisten matxura bat dagoenean.

Arazoak konpontzea

PreCrash sistema behar bezala ez badabil, tresnen koadroko pantailan modu iraunkorrean erakusten da honako mezu hau **`Sistema no disponible`** edo **`Sistema con función limitada`**. Jo CUPRA Zerbitzu espezializatu batera edo SEAT Zerbitzu ofizial batera, eta eskatu sistema aztertzeko.

⚠ ADI

PreCash sistemak ezin ditu lege fisikoek ezarritako mugak eta sistemaren mugen artean bakarrik funtzionatzen du. Hura erabiltzeak ez du inolaz ere segurtasuna arriskuan jartzea justifikatzen. Sistema horrek ezin du ez gidariaren arreta ordezkatu, ezta talka bat saihestu ere.

- **Egokitu beti abiadura eta aurreko ibilgailuarekiko segurtasun-tartea, ikuspen-baldintzen, baldintza meteorologikoen, galtzadaren eta trafikoaren arabera.**
- **Sistemak ez ditu beti objektuak hautematen.**
- **Sistemak ezin du erreakzionatu pertsonak edo animaliak direla eta, ezta zeharka gurutzatzen diren edo gaizki ikusten diren objektuak direla eta.**
- **Objektu metalikoek (adibidez babeserako hesiak) edo bide publikoaren bestelako elementuek, edo eguraldi txarrak haren funtzionamendua kaltetu dezakete, eta, horrekin batera, talka egiteko arriskua atzemateko gaitasuna.**
- **Egin kasu beti pizten diren abisu-argiei, baita tresnen koadroan adierazten diren mezuei ere.**

⚠ ADI

Gidariak arreta galduz gero, istripu bat eta lesioak eragin ditzake.

- **Ez doitu inoiz infotainment sistema ibilgailua ibitzen ari den bitartean.**

Airbag-sistema

Zergatik da garrantzitsua segurtasun-uhala jarrita eramatea eta behar bezalako posizioa hartzea?

Airbagak irekitzean, babesik hoberena lortu ahal izateko, segurtasun-uhala beti ondo jarrita eta posizio zuzenean eserita joan behar da.

Airbag-sistemak ez du inoiz segurtasun-uhala ordezkatuko baizik eta ibilgailuaren segurtasun pasiboa osatzen du. Ez ahaztu airbag-sistemak ibilgailuko bidaiariak behar bezala babestuko dituela bakarrik segurtasun-uhalak zuzen jarrita badituzte eta buru-euskarriak ondo doituta baldin badaude. Segurtasun-uhalak ondo jarrita eraman behar dira beti, eta segurtasun-uhala baldintzarik gabe erabiltzea legezko ezarpentzat ez ezik, segurtasunaren aldeko ekarpentzat ere hartu behar da >>> 45. orrialdea, *Segurtasun-uhalak*.

Airbagak segundo-milaren batean puzten da; beraz, une horretan irekitzen bada eta ez bazaude zuzen eserita, heriotza eragin dieza-

zuke. Horregatik, ibilgailuko bidaiari guztiek ondo eserita joan behar dute nahitaez bidaia osoan zehar.

Istripu bat gertatu baino lehen bat-batean frenatuz gero, eragin dezake ibilgailuko bidaiari bat aurrerantz jaurtitzea, airbaga irekitzen den zonaldera, segurtasun-uhala lotuta ez eramategatik. Horrelakoetan, airbagak zauri larriak edo hiltzeko modukoak eragin diezazkioke irekitzean. Jakina, hori ere haurren kasuari aplikatzen zaio.

Mantendu beti ahalik eta distantzia handiena zure gorputzaren eta aurrealdeko airbagaren artean. Horrela, istripua izanez gero, aurrealdeko airbagak zabaldu daitezke trabarik gabe eta ahalik eta babesik handiena eman.

Hauek dira airbagak irekitzeko esku hartzen duten faktore garrantzitsuenak: istripu mota, talkaren angelua eta ibilgailuaren abiadura.

Talka egitean sortzen den eta kontrol-unitateak erregistratzen duen abiadura-moteltzea erabakigarria da airbagak aktibatzeko. Ibilgailuaren abiadura kontrol-unitatean aurretik finkatutako erreferentzia-balioetatik behera moteltzen bada talka egitean, aurrealdeko, alboetako eta bururako airbagak ez dira irekiko. Kontuan izan istripua izandako ibilgailuan begibistako kalteak, itxuraz handiak badira ere, ez direla airbagak aktibatu behar izan zirelako seinale erabakigarririk.

⚠ ADI

Segurtasun-uhala gaizki jarrita eramateak, baita esertzean posizio okerra izateak ere, lesio larriak edo baita hilgarriak ere eragin ditzakete

- **Ibilgailuko bidaiari guztiek, baita haurrek ere, lesio larriak edo hiltzeko modukoak izan ditzakete airbaga irekitzen bada. 12 urtetik beherakoek atzeko eserlekuetan joan beharko lukete beti. Ez utzi haurrei ibilgailuan bidaiatzen babestu gabe edo horien pisuari egokitzen ez zaion babes batekin.**
- **Airbaga irekitzean lesioak izateko arriskua murrizteko, segurtasun-uhala ondo jarrita eraman beti** **››› 45. orrialdea.**

Airbag-sistemaren deskribapena

Airbag-sistemak, segurtasun-uhalekin batera, bidaiarientzako babes osagarria ematen du.

Airbag-sistema honako modulu hauetaz osatuta dago (ibilgailuaren ekipamenduaren arabera):

- Kontrol elektronikoaren unitatea
- Aurrealdeko airbagak gidariarentzat eta gidarikidearentzat
- Belaunetako airbaga gidariarentzat
- Alboetako airbagak
- Gidariarentzako erdiko airbaga
- Bururako airbagak
- Airbagaren kontrol-argia tresnen koadroan **››› 54. orrialdea**
- Gidarikidearen aurreko airbagaren giltza-kommutadorea
- Gidarikidearen aurreko airbaga deskonektatzeko/konektatzeko kontrol-argia.

Airbag-sistemaren funtzionamendua modu elektronikoan kontrolatzen da. Pizgailua konektatzen den bakoitzean, airbagaren kontrol-argia argiztatzen da zenbait segundoz (autodiagnosia).

Sistemak arazoren bat izango du kontrol-argiak honako hau egiten badu:

- ez da pizten pizgailua konektatzean **››› 54. orrialdea**,
- pizgailua konektatu ondoren, ez da itzaltzen 4 segundo ondoren,
- pizgailua konektatu ondoren, itzali eta berriro pizten da,
- argiztatzen da edo dir-dir egiten du ibilgailua ibitzen ari den bitartean.

Airbag-sistema ez da irekiko honako hauek gertatzen badira:

- pizgailua deskonektatuta dago,
- aurrealdeko talka arina gertatu bada,
- alboko talka arina gertatu bada,
- atzeko talka gertatu bada,

- ibilgailua iraultzen denean, kontrol-unitateak neurtutako ezaugarri dinamikoak txikiegiak badira,
- inpaktu-abiadura kontrol-unitatean aurrez programatutako erreferentziazko balioa baino txikiagoa bada.

⚠ ADI

- **Segurtasun-uhalek eta airbag-sistemak ahalik eta babes-ahalmen handiena gara-tzeko, bidaiariek behar bezala eserita egon behar dute** ››› 42. orrialdea.
- **Airbag-sistema matxuratuta baldin badago, tailer espezializatu batek arduratu beharko du hura aztertzeaz. Bestela, airbagak behar bezala ez irekitzeko arriskua dago istripua izanez gero, baita guztiz ez irekitzeko arriskua ere.**

Airbaga aktibatzea

Airbagak segundo-milaren batean puzten dira abiadura handiz, babes osagarria emateko, istripua gertatuz gero. Airbaga puzten ari den bitartean, hauts fina atera daiteke. Hori normala da eta ez du esan nahi ibilgailuan suterik egon denik.

Airbag-sistema funtzionatzeko prest egongo da pizgailua aktibatuta badago bakarrik.

Istripuetako kasu berezietan, hainbat airbag batera aktiba daitezke.

Aurrealdeko eta alboko talka arinak eta atzealdeko talkak gertatuz gero (ibilgailua irauli delako), airbagak **ez dira aktibatuko**.

Irauliz gero, ibilgailu hibrido entxufagarriaren bertsioan bakarrik aktibatuko dira airbagak.

Aktibatzeko faktoreak

Ezin dira orokortu egoera bakoitzean airbag-sistema aktibatzea eragiten duten baldintzak. Zenbait faktore garrantzitsuak dira, esaterako, ibilgailuak jotzen duen objektuaren ezaugarriak (gogorra/biguna), inpaktuaren angelua eta ibilgailuaren abiadura.

Airbagak aktibatzeko, erabakigarria da abiadura-moteltzearen ibilbidea.

Kontrol-unitateak talkaren ibilbidea aztertzen du eta dagokion atzikipen-sistema aktibatzen du.

Talka egin denean, horrek eragindako eta neurtutako ibilgailuaren abiadura-moteltzea kontrol-unitatean aurretik zehaztutako erreferentziazko balioetatik behera badago, airbagak ez dira aktibatuko, ibilgailua istripuaren eraginez erabat desitxuratu bada ere.

Aurrealdeko talka larrien kasuan, honako airbag hauek aktibatuko dira:

- Gidariaren aurrealdeko airbaga.
- Gidarikidearen aurreko airbaga.
- Gidariaren belaunetako airbaga.
- Bururako airbagak.

Alboetako talka larriak gertatuz gero, airbag hauetako batzuk (edo guztiak) aktiba daitezke (talka-larritasunaren arabera):

- Bururako airbaga istripua gertatu den albo berean.
- Aurrealdeko alboko airbaga istripua izan den albo berean.
- Atzealdeko alboko airbaga istripua izan den albo berean.
- Erdiko airbaga.

Airbaga aktibatzea ekarri duen istripu bat gertatuz gero:

- bidaiari-lekuaren argiak piztuko dira (barneko argiztapenerako kommutadorea atearen kontaktu-posizioan badago);
- aldi bereko keinukariak konektatuko dira;
- ate guztiak desblokeatuko dira;
- motorrari ez zaio erregairik hornituko;
- ibilgailu hibridoetan goi-tentsioko sistema desaktibatuko da;
- larrialdietarako deia egingo da.

Airbag-sistemaren kontrol-argiak

Tresnen koadroan argiztatzen da
Matxura airbag-sisteman eta uhalen aurretenkagailuetan. Joan berehala tailer espezializatu batera sistema aztertzera.

OFF **Sabaiko kontsolan pizten da**
Gidarikidearen aurreko airbaga desaktibatuta. Begiratu ea airbagak desaktibatuta egon behar duen.

ON **Sabaiko kontsolan pizten da**
Gidarikidearen aurreko airbaga aktibatuta. Kontrol-argia automatikoki itzaltzen da pizgailua aktibatu eta 60 segundora.

Pizgailua konektatzen denean, abisu- eta kontrol-argi batzuk argiztatu egiten dira zenbait segundoz, funtzioaren kontrol bat egiten den bitartean. Segundo batzuen buruan, itzali egiten dira.

Airbag- eta uhalen aurretenkagailu-sistemaren kontrol-argia piztuta badago edo dir-dir egiten badu, esan nahi du arazo bat dagoela airbag- eta uhalen aurretenkagailu-sistemaren ››› ⚠. Joan berehala tailer espezializatu batera sistema aztertzera.

Gidarikidearen airbaga desaktibatu baduzu, OFF abisu-argia piztuta egongo da sabaiko kontsolan, airbaga desaktibatuta dagoela gogoratzeko. Gidarikidearen aurrealdeko airbaga desaktibatuta egon arren, abisu-argia oraindik **ez badago piztuta**, edo argiztatuta badago tresnen koadroaren kontrol-argiarekin batera, horrek esan nahi du arazo bat dagoela airbag-sisteman ››› ⚠. Kontrol-argiak dir-dir egiten badu, horrek esan nahi du matxura bat dagoela airbaga deskonektatzeko sisteman ››› ⚠. Joan berehala tailer espezializatu batera sistema aztertzera.

⚠ ADI

Airbagen eta uhalen aurretenkagailuen sistema matxura izanez gero, horiek irekitzeko zailtasunak izan ditzakete, guztiz ez ireki edo ustekabean ireki daitezke.

- **Ibilgailuaren bidaiariek lesio larriak edo hiltzeko modukoak pairatzeko arriskua dute. Aztertu sistema berehala tailer espezializatu batean.**
- **Ez jarri haurrentzako eserleku bat gidarikidearen eserlekuan edo kendu aurretik jarritako haurrentzako eserlekua! Gidarikidearen aurrealdeko airbaga ireki daiteke istripua izanez gero, matxuratuta egon arren.**

KONTUZ

Kontuan izan beti pizten diren kontrol-argiak eta dagozkien deskribapenak eta jarraibideak, ibilgailuari edo bidaiariei kalterik ez eragiteko.

Aurrealdeko airbagak



27. irudia Gidariaren airbaga bolantean.

28. irudia Gidarikidearen airbaga tresnen taulan.

Gidariaren aurreko airbaga bolantean dago eta gidarikidearena, berriz, tresnen koadroan. “AIRBAG” hitzarekin adierazten da haien kokapena.

Airbagen estalkiak ireki egiten dira eta bolanteari eta tresnen taulari lotuta gelditzen dira gidariaren eta gidarikidearen airbagak irekitzen direnean, hurrenez hurren ››› **27. irudia** , ››› **28. irudia**.

Aurreko airbagen sistemak, segurtasun-uhalekin batera, gidariaren eta gidarikidearen burua eta bularraldea babesteko beste sistema osagarri bat eskaintzen du aurrez aurreko talka larrietan ››› ⚠.

Gainera, aurrealdeko talka batzuetan, aktibatzen dira bururako airbagak ibilgailuaren bi alboetan.

Haren diseinu bereziari esker, gasa kontrolpean irteten da bidaiariak poltsari egindako presioaren ondorioz. Beraz, burua eta bularraldea airbagarekin babesten dira. Istripuaren ondoren, ikusten uzteko beharrezkoa den adina hustu egiten da poltsa.

⚠ ADI

- **Aurrealdeko eserlekuetako bidaiarien eta airbagen jardute-arearen artean ez da ez pertsonarik, ez animaliarik, ez objekturik egon behar.**
- **Airbagek istripu bat gertatuz gero bakarrik babesten dute, eta, irekitzen badira, aldatu egin beharko dira.**

- **Halaber, airbagen moduluen estalkietan, ez da bestelako osagarririk ipini beharko, esaterako, edalontziak eramatekoa edo telefonoetarako euskarriak.**

Gidarikidearen aurreko airbaga aktibatzea eta desaktibatzea[1)]

29. irudia Giltza duen kommutadorea gidarikidearen airbaga aktibatzeko eta desaktibatzeko.

30. irudia Sabaiko kontsolan: gidarikidearen airbaga desaktibatu izana adierazten duen kontrol-argia.

Desaktibatu gidarikidearen airbaga aparteko kasu batean, hau da, baldin eta haurrentzako eserleku bat gidarikidearen eserlekuan erabili behar bada eta haurra martxaren aurkako norabidean eserita badago.

CUPRAk gomendatzen du haurrentzako eserlekua atzeko eserlekuan muntatzea, gidarikidearen airbaga desaktibatu behar ez izateko.

Gidarikidearen airbaga **desaktibatuta** dagoenean, horrek esan nahi du gidarikidearen aurrealdeko airbaga bakarrik dagoela deskonektatuta. Ibilgailuaren gainerako airbagek konektatuta jarraitzen dute.

1) Ez dago eskuragarri merkatu guztietan.

Gidarikidearen aurreko airbaga desaktibatzea eta aktibatzea

- Deskonektatu motorraren pizgailua.
- Ireki gidarikidearen aldeko atea.
- Ibilgailuaren giltzako ezpata txikia atera.
- Sartu giltzaren ezpata txikia gidarikidearen airbaga deskonektatzeko kommutadorean dagoen zirrikituan ››› **29. irudia**. Giltzaren luzeraren 3/4 inguru sartu behar da, topera iritsi arte.
- Biratu pixkanaka giltza OFF (desaktibatu) edo a ON (aktibatu) posiziora aldatzeko. Zailtasunik baduzu, ziurtatu giltza bukaeraraino sartu duzula.
- Itxi gidariaren gidarikidearen aldeko atea.
- Airbaga desaktibatzean eta pizgailua konektatuta dagoela, egiaztatu OFF kontrol-argia piztuta geratzen dela ››› **30. irudia**.
- Airbaga berriro aktibatzean, egiaztatu, pizgailua konektatuta, OFF kontrol-argia piztuta geratzen ez dela, eta ON kontrol-argia 60 segundoz piztuta geratu eta geroago itzaltzen dela.

⚠ ADI

- **Ibilgailuaren gidaria airbaga deskonektatuta edo konektatuta egotearen arduraduna da.**
- **Deskonektatu airbaga pizgailua deskonektatuta dagoenean bakarrik! Bestela, matxura bat eragin dezake airbaga desaktibatzeko sisteman.**
- **Ez utzi inolaz ere giltza airbaga desaktibatzeko kommutadorearen barruan, kaltetu litekeelako, edo gidatuz gero airbaga aktibatu edo desaktibatu litzatekeelako.**
- **Edozein arrazoi dela eta, airbag bat desaktibatzen bada, ahalik eta lasterren aktibatu behar duzu berriz; hartara, bere babes-funtzioa bete ahalko du.**

Erdiko airbaga



31. irudia Gidari-eserlekuko bizkarraldearen barruko bigungarrian: erdiko airbaga.

32. irudia Erdiko airbaga guztiz puztuta (hedatze-zonaldea).

Erdiko airbaga aurreko lekuetarako muntatuta dago, eta gidari-eserlekuko bizkarraldearen barruko bigungarrian dago.

"AIRBAG" letren bidez adierazten da non dagoen erdiko airbaga ››› **31. irudia**.

Irekitzean, markatutako gunea hartzen du erdiko airbagak (hedatze-zonaldea) ››› **32. irudia**. Horregatik, zonalde horretan inoiz ez ipini eta ez finkatu objekturik ››› ⚠.

Ibilgailuak alboko talka egiten badu edo iraultzen bada, erdiko airbaga irekiko da, eta, horrela, ibilgailuko bidaiariek lesioak izateko arriskua murrizten du.

⚠ ADI

Irekitzean, airbaga segundo-milarenetan puzten da abiadura handian.

- **Mantendu beti libre erdiko airbageko hedatze-zonaldea.**
- **Ez finkatu inoiz objekturik erdiko airbageko estalkian, ezta haren hedatze-zonaldean ere.**
- **Ez utzi beste pertsona, animalia edo objektu batzuk jartzen aurreko eserlekuetako bidaiarien eta airbageko hedapen-zonaldearen artean. Ziurtatu hori betetzen dela ibilgailuko bidaiari guztien kasuan, haurrak barne.**
- **Ez erabili sekula ibilgailu honetako eserlekuetarako berariaz baimendutakoez aparteko tapiza edo zorrorik. Bestela, aktibatzen bada, erdiko airbaga ezingo da ireki.**

⚠ ADI

Gidariaren eta gidarikidearen eserlekuak behar bezala ez erabiltzeak erdiko airbaga ondo funtzionatze egokia eragotzi dezake eta lesio larriak sorraraz ditzake.

- **Ez desmuntatu inoiz aurreko eserlekuak ibilgailutik, eta ez aldatu inoiz beraien osagaiak.**
- **Bizkarraldeko alboak indar handi baten eraginpean badaude, baliteke erdiko airbaga behar bezala ez irekitzea, inola ere ez irekitzea edo ustekabean irekitzea.**
- **Eskatu berehala tailer espezializatu bati eserlekuetako jatorrizko tapizatuetan edo erdiko airbag-moduluaren zonaldeko josturan sortutako kalteak konpontzeko.**

Alboetako airbagak

33. irudia Alboko airbaga gidariaren eta gidarikidearen eserlekuetan.



34. irudia Alboko airbagak erabat puztuta ibilgailuaren ezkerraldean.

Alboetako airbagak aurrealdeko eserlekuetako bizkarraldeetan eta atzealdeko eserlekuko alboetan daude, ibilgailuaren konfigurazioaren arabera ››› **33. irudia**, ››› **34. irudia**.

Haien kokapena “AIRBAG” hitzarekin adierazten da eserlekuen bizkarraldearen goiko aldean edo beheko estalduretan, AIRBAG hitza erliebean dutela.

Alboko airbag-sistemak, segurtasun-uhalekin batera, babes osagarria eskaintzen du gorputzaren goiko parteetarako alboko talka larrietan ››› ⚠.

Alboko talken kasuan, lesioen arriskua murrizten dute alboetako airbagek talkan kalte handiena hartuko lukeen gorputzaren atalean. Segurtasun-uhalek ematen duten ohiko babesaz gain, bidaiariak lotuta ere mantentzen dituzte alboko talka gertatuz gero; airbag horiek beren babes-efektu handiena ematen dute, hala.

⚠ ADI

- **Bidaiariek ez badituzte segurtasun-uhalak lotzen, edo aurrerantz okertzen badira ibilgailua ibitzen ari den bitartean edo ez badaude zuzen eserita eta istripu bat gertatzen bada, zauriak izateko arrisku handiagoa izango dute, airbag-sistema irekitzen bada.**
- **Alboetako airbagek babesik hoberena eman ahal izateko, posizio egokia mantendu behar da nahitaez, segurtasun-uhala ondo jarrita, ibilgailua ibiltzen ari den bitartean.**
- **Alboko talka batean, alboetako airbagek ez dute funtzionatuko sentsoreek ez badute behar bezala neurtzen ate barruan gertatutako presio-igoera airea zuloak dituzten zonaldeen edo atearen paneleko irekiguneen bidez ateratzen denean.**

- **Ez gidatu inoiz ateetako paneletako batzuk desmuntatu badira eta ez badaude behar bezala doituta.**
- **Kanpoko plazetako bidaiarien eta airbagen jardute-arearen artean ez da ez pertsonarik, ez animaliarik ezta objekturik egon behar. Alboetako airbagen funtzionamendua ez trabatzeko, ateetan ez da inolako osagarririk finkatu behar, esaterako, edalontziak eramatekoa.**
- **Arroparako gakoetan, arropa arina bakarrik zintzilikatu behar da. Zintzilikatutako jantzien patriketan ez da objektu zorrotzik edo astunik egon behar.**
- **Bizkarraldeetako alboetan ez da indar handirik eragin behar, adibidez, kolpe gogorrak edo oinkadak; bestela, sistema hondatu egin daiteke. Horrelakoetan, alboetako airbagak ez dira irekiko.**
- **Alboetako airbaga dakarten eserlekuetan, ez da inoiz zure ibilgailurako espresuki homologatu ez den zorrorik erabili behar. Airepoltsa bizkarraldearen albotik ateraz zabaltzen da, eta, homologatu gabeko zorroak erabiliko balira, alboko airbagaren babesfuntzioa nabarmen murriztuko litzateke.**
- **Jatorrizko tapizeriaren edo alboko airbagmoduluaren areako josturaren kalteak berehala konpondu behar dira tailer espezializatu batean.**
- **Airbagek istripu bat gertatuz gero bakarrik babesten dute, eta, irekitzen badira, aldatu egin beharko dira.**

- **Alboetako airbagetan egin beharreko lan guztiak, baita konponketak egin behar direlako horien osagaietako bat muntatzeko eta desmuntatzeko lanak ere (adibidez, aurreko eserlekua desmuntatzea), tailer espezializatu batean soilik egin behar dira. Bestela, akats bat sor daiteke airbagen funtzionamenduan.**

Bururako airbagak



35. irudia Bururako airbagen kokapena.

Bururako airbagak bidaiari-lekuaren bi aldeetara daude, ateen gainean ››› **35. irudia**, eta “AIRBAG” hitzarekin adierazten da haien kokapena.

Bururako airbag-sistemak, segurtasun-uhalekin batera, babes osagarria ematen du ibilgailuko bidaiarien gorputzaren goiko ataletarako, ibilgailuak alboko talka egiten badu larriki edo iraultzen bada ››› ⚠.

Irekitzean, markatutako gunea hartzen du bururako airbagak (hedatze-zonaldea) ››› **35. irudia**. Horregatik, sekula ez dira objektuak zonalde horretan ipini edo finkatu behar ››› ⚠.

Alboarekin talka eginez gero, inpaktua izan den ibilgailuaren aldeko bururako airbaga soilik irekiko da.

Bururako airbagei esker, aurreko eta atzeko alboko eserlekuetako bidaiariek inpaktuak zuzenean eragindako gorputz-ataletan lesioak izateko arriskua murrizten da.

⚠ ADI

- **Bururako airbagek babesik hoberena eman ahal izateko, posizio egokia mantendu behar da nahitaez eta segurtasun-uhala ondo jarrita eraman behar da, ibilgailua ibiltzen ari den bitartean.**
- **Segurtasun-arrazoiak direla eta, bururako airbagak nahitaez deskonektatu behar da bidaiari-lekua bereizten duen manpara duten ibilgailuetan. Jo ezazu zure zerbitzu teknikora deskonexio hori egiteko.**
- **Ibilgailuko bidaiarien eta bururako airbagen jardute-arearen artean ez da pertsonarik, animaliarik edo objekturik jarri behar, airbagak guztiz puztea eta beren babesfuntzioa behar bezala betetzea trabatu dezakete. Horregatik, leihatiletan ez da zure ibilgailurako espresuki homologatu ez den inolako errezel txikirik jarri behar.**
- **Arroparako esekitokietan, arropa arina bakarrik zintzilikatu behar da. Zintzilikatutako jantzien patriketan ez da objektu zorrotzik edo astunik egon behar. Horrez gain, jantziak zintzilikatzeko ez dira arroparako pertxak erabili behar.**
- **Airbagek istripu bat gertatuz gero bakarrik babesten dute, eta, irekitzen badira, aldatu egin beharko dira.**
- **Bururako airbagetan egin beharreko lan guztiak, baita konponketak egin behar direlako horien osagaietako bat muntatzeko eta desmuntatzeko lanak ere (adibidez, sabaiaren estalkia desmuntatzea), tailer espezializatu batean soilik egin behar dira. Bestela, akats bat sor daiteke airbagen funtzionamenduan.**
- **Alboetako eta bururako airbagak aurreko ateen barruan dauden sentsoreekin kudeatzen dira. Alboetako eta bururako airbagek zuzen funtzionatzea ez oztopatzeko, ez dira ez ateak ez horien panelak aldatu behar (adibidez, ondoren bozgorailu batzuk muntatuta). Aurreko atean kalteak eragiten badira, sistemak zuzen funtzionatzea oztopa daiteke. Aurreko atean egin beharreko lan guztiak tailer espezializatu batean egin behar dira.**

Belaunetarako airbaga

36. irudia Gidariaren aldean: belaunentzako airbagaren kokapena.

37. irudia Gidariaren aldean: belaunetako airbagaren akzio-eremua.

Belaunetarako airbaga gidariaren aldean dago, tresnen taularen azpialdean ››› **36. irudia**. "AIRBAG" hitzarekin adierazten da haien kokapena.

Zabaltzen denean airbagak estaltzen du laukian sartutako eremua (ekintza-eremua) ››› 37. irudia. Inoiz ez utzi edo finkatu objekturik zonalde horretan.

⚠ ADI

- **Belaunetarako airbaga gidariaren belaunen aurrean zabalduko da. Mantendu beti belaunetarako airbagaren jardute-eremua trabarik gabe.**
- **Ez ipini inoiz objekturik belaunetarako airbagaren estalkian edo jardute-eremuan.**
- **Doitu gidariaren eserlekua, belaunen eta airbag horren lekuaren artean gutxienez 10 cm-ko (4 hazbeteko) tartea egon dadin. Zure gorpuzkera fisikoa dela eta, ezin badira baldintza horiek bete, jarri harremanetan berehala tailer espezializatu batekin.**

Haurrak segurtasunez garraiatzea

Aurkezpena

Segurtasun-arrazoiak direla-eta, eta istripuei buruzko estatistikek adierazten duten bezala, gomendatzen dizugu 12 urtetik beherakoak atzeko eserlekuetan joatea. Adinaren, altuearen eta pisuaren arabera, horiek atzeko eserlekuan joango dira, haurrentzako eserleku batean edo ibilgailuaren segurtasun-uhalek babestuta. Segurtasun-arrazoiak direla-eta, eserleku hori atzeko eserlekuan muntatuko da, gidarikidearen atzean edo erdialdeko plazan.

Istripuetan jarduten duten lege fisikoek haurrei ere eragiten diete ››› 47. orrialdea. Helduek ez bezala, haurrek ez dute ez giharrak ez hezurren egitura guztiz garatuta. Horregatik, zauritzeko arrisku handiago dute.

Lesioak pairatzeko arriskua murrizteko, haurrak berentzat bereziki diseinatutako eserlekuetan bakarrik eraman daitezke.

Gomendatzen dizugu zure ibilgailurako Jatorrizko Osagarrien Programaren haurrentzako euste-sistemak erabiltzea. Han, adin guztietarako sistemak ageri dira, “Peke” izenarekin (ez da herrialde guztietarako) (ikusi www.cupraofficial.com).

Aipatutako sistemak bereziki diseinatu eta homologatu ziren eta ECE-R44 araudia betetzen dute.

CUPRAk gomendatzen du webgunean agertzen diren haurrentzako eserlekuak finkatzea honako deskribapen honen arabera:

- Haurrentzako eserlekuak martxaren aurkako norabidean (0+ taldea): ISOFIX eta oinarria (ROMER BABY SAFE PLUS SHR II + ISOFIX BASE / PEKE G0 I-SIZE + I-SIZE BASE).
- Haurrentzako eserlekuak martxaren norabidera begira (1+ taldea): ISOFIX eta Top Tether (ROMER DUO PLUS + TOP TETHER / PEKE G1 TRIFIX I-SIZE).
- Haurrentzako eserlekuak martxaren noranzkora begira (2 taldea): segurtasun-uhala eta ISOFIX (ROMER BRITAX KIDFIX2 S).
- Haurrentzako eserlekuak martxaren noranzkora begira (3. taldea): segurtasun-uhala (TAKATA MAXI).

Haurrentzako eserlekuak muntatu eta erabili nahi badira, kontuan hartu beharko dira dagozkion xedapen legalak eta haurrentzako eserlekuaren fabrikatzailearen muntatze-jarraibideak. Irakurri eta kontuan izan beti ››› 63. orrialdea.

Gomendatzen dizugu ibilgailuan, ibilgailuaren barruko dokumentazioarekin batera, haurrentzako eserlekuaren fabrikatzailearen jarraibideei buruzko eskuliburua beti eramatea.

Haurrentzako eserlekuen talde-kako sailkapena

38. irudia Haurrentzako eserlekuen adibideak.

Homologatutako eta haurrentzako eserleku egokiak erabili behar dira bakarrik.

Eserleku horietarako, ECE-R44 edo ECE-R129 arauak agintzen du. ECE-Rren esanahia: Europako ekonomia batzordeko araua.

Haurrentzako eserlekuak pisu-taldearen arabera

Haurrentzako eserlekuak 5 taldetan sailkatzen dira:

Taldea	Haurraren pisua
0. taldea	10 kg-raino
0.+ taldea	13 kg-raino
1. taldea	9-18 kg
2. taldea	15-25 kg
3. taldea	22-36 kg

ECE-R44 edo ECE-R129 arauaren arabera homologatutako haurrentzako eserlekuek eserlekuan bertan ECE-R44 edo ECE-R129 bereizgarria daramate (E letra larria zirkulu batean eta, behean, kontrol-zenbakia).

Haurrentzako eserlekuak muntatu eta erabili nahi badira, kontuan hartu beharko dira dagozkion xedapen legalak eta haurrentzako eserlekuaren fabrikatzailearen muntatze-jarraibideak.

Gomendatzen dizugu ibilgailuan, ibilgailuaren barruko dokumentazioarekin batera, haurrentzako eserlekuaren fabrikatzailearen jarraibideei buruzko eskuliburua eramatea beti.

CUPRAk gomendatzen du **Jatorrizko Osagarrien Katalogo**ko haurrentzako eserlekuak erabiltzea. Eserleku horiek hautatu eta probatu dira gure ibilgailuetan erabiltzeko. Gure kontzesionarioetan, zure modelorako eta adin-talderako eserleku egokia eskuratu ahal izango duzu.

Haurrentzako eserlekuak homologazio mailen arabera

Haurrentzako eserlekuak honela sailka daitezke: homologazio unibertsala, erdi unibertsala, ibilgailu baterako zehatza (denak ECE-R44 araudiaren arabera) edo i-Size (ECE-R129 araudiaren arabera).

- **Unibertsala**: unibertsal mailarekin homologatutako haurrentzako eserlekuak ibilgailu guztietan munta daitezke. Ez da modeloen inolako zerrendarik kontsultatu behar. ISOFIXerako homologazio unibertsalaren kasuan, haurrentzako eserlekuak goiko finkapen-uhal bat ere badarama (Top Tether).
- **Erdi unibertsala**: homologazio erdi unibertsalak, homologazio unibertsalak ezarritako baldintza estandarrez gain, haurrentzako eserlekua finkatzeko segurtasun-gailu batzuk eskatzen ditu eta horiek zenbait test osagarri behar dituzte. Homologazio erdi unibertsala daramaten haurrentzako eserlekuek zerrenda bat daramate, non zehazten baitute zein ibilgailutan munta daitezkeen.
- **Ibilgailu baterako zehatza**: ibilgailu baterako homologazio zehatzak haurrentzako eserlekuaren test dinamiko bat behar du ibilgailu modelo bakoitzerako. Homologazio zehatza daramaten haurrentzako eserlekuek zerrenda bat daramate, non zehazten baitute zein ibilgailutan muntatu daitezkeen.
- **i-Size**: i-Size homologazioa duten haurrentzako eserlekuek ECE-R 129 araudian agindutako baldintzak bete behar dituzte, muntaiari

eta segurtasunari dagokienez. Haurrentzako eserlekuen fabrikatzaileek adierazi ahal izango dizute zein eserlekuk duen ibilgailu horretarako i-Size homologazioa.

Haurrentzako eserlekuak jartzea eta erabiltzea

39. irudia Airbagaren itsasgarria: gidarikidearen aldeko eguzki-babesean.

40. irudia Airbagaren itsasgarria: gidarikidearen ateko atzeko markoan.

Haurrentzako eserlekuak jartzeari buruzko oharrak

Haurrentzako eserlekua jartzean, kontuan izan haurrentzako eserleku guztietarako balio duten honako ohar orokor hauek, finkatze-sistema edozein izanik ere.

- Irakurri eta bete haurrentzako eserlekuaren fabrikatzailearen argibideak.
- Jarri haurrentzako eserlekua gidarikidearen atzeko eserlekuan, haurra espaloiaren aldetik irten ahal izateko ibilgailutik.
- Zehaztu segurtasun-uhalaren altuera, haurrentzako eserlekura era naturalean doitzeko, okertu gabe. Haurrentzako eserlekua martxaren norabidearen kontra jarrita badago, uhalaren altuera erregulatzeko posizio baxuena erabili behar da.
- Atzeko lekuetan eserlekuak zuzen erabiltzeko, haurtxoaren eserlekua ukitzen ez duten arte doitu behar dira atzeko eserlekuaren bizkarraldeak, martxaren aurkako noranzkoan badago. Martxaren norabide bereko euste-sistemen kasuan, aurreko bizkarraldea doitu beharra dago haurraren oinak ukitzen ez dituen arte.
- Haurrentzako eserlekua atzeko eserlekuetan finkatu nahi izanez gero, doitu edo desmuntatu buru-euskarria, haurtxoaren eserlekua ukitu ez dezan.
- Haurrentzako eserleku erdiunibertsalean, segurtasun-uhala eta oinarria dira autoan finkatzeko sistema; horrelakoetan, ez duzu atzealdeko erdiko eserlekuan muntatu behar, lurreraino dagoen distantzia beste eserlekuetan baino laburragoa baita eta oinarriak ezingo baitio eserlekuari egonkor eutsi.
- Haurrentzako eserlekua gidarikidearen eserlekuan jartzeko, eserlekua ahalik eta gehien eraman behar da atzera eta posizio altuenean jarri behar da. Gainera, eserlekuaren bizkarraldea posizio bertikalean[1] jarri behar da.

[1] Herrialde bakoitzean indarrean dagoen legeria eta haurrentzako eserlekuak erabiltzeko eta muntatzeko fabrikatzaileak emandako arauak bete behar dira.

Gidarikidearen aurreko airbagari buruzko argibide garrantzitsuak

Gidarikidearen aldeko eguzki-babesean edo gidarikidearen aldeko atearen atzeko markoan, gidarikidearen airbagari buruzko informazio garrantzitsua duen itsasgarria dago ››› 39. irudia.

Kontuan hartu hurrengo kapituluetako segurtasunari buruzko jarraibideak:

- Gidarikidearen airbagarekiko segurtasun-tartea ››› 52. orrialdea.
- Gidarikidearen eta gidarikidearen airbagaren arteko objektuak ››› 56. orrialdeko ⚠ (*Aurrealdeko airbagak*).

Gidarikidearen aldeko aurrealdeko airbaga aktibatuta badago, haur batentzat, oso arriskutsua da han esertzea, hura martxaren aurka begira joaten bada; izan ere, airbagak eserlekua gogor jo dezake eta lesioak edo heriotza eragin diezazkioke. 12 urtetik beherakoek atzeko eserlekuetan joan beharko lukete beti.

Horregatik, gomendatzen dizugu, arren, haurrak atzeko eserlekuetan joan daitezen. Ibilgailuaren lekurik seguruena da. Giltzaren etengailuarekin, gidarikidearen airbaga desaktiba daiteke ››› 56. orrialdea. Haurrek beren altuerari eta adinari egokitutako eserleku batean joan behar dute ››› 62. orrialdea.

⚠ ADI

- **Haurrentzako eserleku bat gidarikidearen eserlekuan muntatzen bada, areagotuko egingo da istripua izanez gero haurrak lesio larriak edo hiltzeko modukoak pairatzeko arriskua.**
- **Gidarikidearen airbaga irekitzen bada, haurrentzako eserlekuaren aurka jo dezake eta haurra atearen, sabaiaren edo eserlekuaren bizkarraldearen aurka jaurti dezake bortizki.**
- **Ez muntatu inoiz haurrentzako eserleku bat gidarikidearen eserlekuan eta martxaren aurkako norabidean, baldin eta aurretik aurrealdeko airbaga desaktibatu ez bada, hiltzeko arriskua baitago. Hala ere, beharrezkoa bada, gidarikidearen aurreko airbaga desaktibatu beharko da ››› 56. orrialdea. Gidarikidearen eserlekuaren altuera erregulatu baldin badaiteke, jarri ahalik eta atzeren eta altuen. Eserleku finko bat badaukazu, ez jarri inongo haurren euste-sistemarik.**
- **Airbaga deskonektatzeko giltzaren etengailua ez duten bertsioetan, zerbitzu tekniko batera joan behar da aipatutako deskonexioa egitera. Ez ahaztu airbaga berriz konektatzea heldu batek gidarikidearen eserlekuan eseri nahi duenean.**
- **Ez utzi inoiz haurrei modu seguruan lotu gabe joaten, zutik jartzen ibilgailua martxan dagoen bitartean edo eserlekuan belauniko jartzen. Istripua izanez gero, haurra ibilgailuaren barruan barna jaurtiko litzateke; beraz, bai haurrak eta bai ibilgailuaren gainontzeko bidaiariek zauri larriak edo hiltzeko modukoak paira litzakete.**
- **Ez utzi inoiz haur bat bakarrik haurrentzako eserlekuan edo ibilgailuan.**
- **1,50 metrotik beherako altuera duten haurrek ez dituzte ibilgailuaren segurtasun-uhalak erabili behar haurrentzako eserleku batean eserita joan gabe; izan ere, bat-batean frenatu edo istripua izanez gero, sabelaren eta lepoaren aldean zauriak jasan ditzakete.**
- **Haurrentzako eserleku bat atzeko plazetan muntatzen duzunean, gomendatzen da haurrentzako ateen segurua aktibatzea ››› 104. orrialdea.**

Finkapen-sistemak

Herrialdearen arabera, finkapen-sistema desberdinak erabiltzen dira haurrentzako eserlekuak modu seguruan muntatzeko.

Finkapen-sistemaren sinopsia

- **ISOFIX**: ISOFIX finkapen-sistema normalizatua da, eta, hari esker, haurrentzako eserlekuak azkar eta modu seguruan finka daitezke ibilgailuan. ISOFIX finkapenak lotura zurruna ezartzen du haurrentzako eserlekuaren eta karrozeriaren artean.

Haurrentzako eserlekuak bi finkapen-estribu zurrun ditu (konektore izenekoak). Konektore horiek atzeko eserlekuaren banketaren eta

bizkarraldearen artean dauden ISOFIX zirgiloetan ahokatzen dira (alboetako plazetan). ISOFIX finkapen-sistemak Europan batez ere erabiltzen dira ››› 65. orrialdea. Gerta daiteke ISOFIX finkapena goiko finkapen-uhal batekin (Top Tether) edo oinarri batekin osatu behar izatea.

- **Hiru euste-puntu dituen segurtasun-uhal automatikoa**. Ahal den guztietan, hobe da haurrentzako eserlekuak ISOFIX sistemarekin finkatzea, hiru euste-puntu dituen segurtasun-uhalarekin baino ››› 70. orrialdea.

Finkagailu osagarriak:

- **Top Tether**: goiko finkapen-uhala atzeko eserlekuaren bizkarraldearen gainean ipintzen da eta, gako baten bidez, euste-puntu batean finkatzen da. Euste-puntuak atzeko eserlekuaren bizkarraldeko atzealdean egoten dira, maletategiaren aldetik ››› 69. orrialdea. Top Tether uhala finkatzeko zirgiloak aingura baten ikurrarekin adierazita daude.

- **Oinarria**: haurrentzako eserleku batzuk ibilgailuaren lurrean bermatzen dira oinarri baten bitartez. Oinarriari esker, inpaktua izanez gero, haurrentzako eserlekua aurrerantz iraultzea saihestu daiteke. Oinarria duten haurrentzako eserlekuak gidarikidearen eserlekuan bakarrik erabili beharko dira eta atzeko eserlekuaren alboko plazetan ››› ⚠. Gainera, mota horretako aulkiak muntatzen badira, horiek muntatzeko baimenduta dauden ibilgailuen zerrendara jo behar da; haurren euste-sistemari buruzko jarraibideetan eskuragarri dago.

Haurrentzako eserlekua finkatzeko gomendatutako sistemak

CUPRAk gomendatzen du haurrentzako eserlekua honela finkatzea:

- **Martxaren aurkako noranzkoan orientatutako umetxoak eramateko aulkiak edo haurrentzako eserlekuak**: ISOFIX eta oinarria edo i-Size.

- **Haurrentzako eserlekuak martxaren noranzkoan orientatuta**: ISOFIX eta Top Tether.

⚠ ADI

Oinarria oker erabiltzen bada, lesio larriak edo hiltzeko modukoak eragin daitezke.

- **Ziurtatu oinarria zuzen eta segurtasunez instalatuta dagoela.**

- **Haurrentzako eserlekuko oinarriak haurraren pisuari eusten dionean, euskarri-hankak ez du koloka geratu behar, ezta objektuekin osatuta egon ere. Era berean, ziurtatu haurrentzako eserlekuko oinarria ibilgailuko eserleku-gainazalean bermatuta geratzen dela etengabe. Haurren aulkitxoko hankak ez du haurrentzako eserlekuko oinarria altxatu behar ibilgailuko eserleku-gainazaletik.**

ISOFIX edo i-Size sistemarekin haurrentzako eserlekua finkatzea

ISOFIX edo i-Size finkatze-puntuen seinaleztapena ekipamenduaren eta dagokion herrialdearen araberakoa izango da.

Ibilgailuko ISOFIX edo i-Size sistemen bateragarritasuna ezagutzeko, ikus taula hauek:

Ibilgailuaren ISOFIX posizioak

Pisu-taldea	Tamaina-klasea[a)]	Gailua	Aurreko bidaiariaren eserlekua		Atzeko alboko eserlekua	Atzeko erdiko eserlekua
			airbaga aktibatuta	airbaga desaktibatuta		
Kapazua	F	ISO/L1	X	X	X	X
	G	ISO/L2	X	X	X	X
0 taldea 10 kg bitartean	E	ISO/R1	X	IL	IL	X
0+ taldea 13 kg bitartean	E	ISO/R1	X	IL	IL	X
	D	ISO/R2	X	IL	IL	X
	C	SO/R3	X	IL	IL	X
I taldea 9 eta 18 kg bitartean	D	ISO/R2	X	IL	IL	X
	C	ISO/R3	X	IL	IL	X
	B	ISO/F2	X	IL, IUF	IL, IUF	X
	B1	ISO/F2X	X	IL, IUF	IL, IUF	X
	A	ISO/F3	X	IL, IUF	IL, IUF	X
II taldea 15 eta 25 kg bitartean	B2/B3	ISO/B2/B3[b)]	X	IL	IL	X

Pisu-taldea	Tamaina-klasea[a)]	Gailua	Aurreko bidaiariaren eserlekua		Atzeko alboko eserlekua	Atzeko erdiko eserlekua
			airbaga aktibatuta	airbaga desaktibatuta		
III taldea 22 eta 36 kg bitartean	B2/B3	ISO/B2/B3[b)]	X	IL	IL	X

IUF: Egokia masa-talde horretarako homologatuta dauden aurrerantz jarritako ISOFIX unibertsaletarako.

IL: Egokia haurrentzako eserlekuen zenbait euste-sistematarako (SRI) ISOFIX, zeinak ibilgailu berezien, murriztuen edo erdiunibertsalen kategorietakoak izan daitezkeen. Kontuan izan haurrentzako eserlekuen fabrikatzaileak emandako ibilgailuen zerrenda.

X: ISOFIX posizioa ez da egokia pisu-talde edo tamaina horretako ISOFIX haurren euste-sistemetarako.

[a)] Tamainaren araberako motaren adierazpena haurrentzako eserlekuetarako baimendutako gorputzeko pisuarekin dator bat. Homologazio unibertsala edo erdiunibertsala duten haurrentzako eserlekuetan, tamainaren araberako mota ECE delakoaren homologazio-etiketarekin adierazten da. Tamainaren araberako motaren adierazpena dagokion haurrentzako eserlekuan agertzen da.

[b)] Hura aurreko eserlekuetan jartzeko, buru-sostengua kendu eta bizkarraldearen angelua ireki behar da.

Ibilgailuaren i-Size posizioak

Aurreko bidaiariaren eserlekua		Atzeko alboko eserlekua	Atzeko erdiko eserlekua
airbaga aktibatuta	airbaga desaktibatuta		
X	i-U	i-U	X

i-U: Homologazio unibertsala duten haurrentzako i-Size euste-sistemetarako posizio egokia, martxaren noranzkoan edo martxaren kontrako noranzkoan.

X: Haurrentzako i-Size euste-sistemetarako posizio ez egokia.

ISOFIX edo i-Size sistemarekin haurrentzako eserlekua finkatzea



41. irudia Atzealdeko eserlekua: trokelatutako artekak ISOFIX/i-Size sistemaren finkatze-uztaietara heltzeko.

42. irudia Gidarikidearen eserlekua: i-Size sistemaren finkatze-uztaien kokapena.

43. irudia Atzealdeko eserlekuak: ISOFIX sistema duten haurrentzako eserlekuak ipintzea.

Nahitaez izan behar dira kontuan haurrentzako eserlekuaren fabrikatzailearen jarraibideak.

ISOFIX edo i-Size finkatze-puntuen kokapena adierazita dago ››› **41. irudia** , ››› **42. irudia** [1] sinbolo batekin. Zenbait ibilgailutan, uztai horiek eserlekuaren armazoian daude finkatuta eta beste batzuetan, atzeko zoruan.

- Aurretik, ireki eskuz trokelaketa, markatutako arteken atzean, euste-uztaietara heldu ahal izateko ››› **41. irudia**.
- Lotu haurrentzako eserlekua ISOFIX edo i-Size euste-uztaietan, entzuteko moduan ahokatu arte ››› **43. irudia**. Haurrentzako eserlekuak Top Tether finkapena badu, lotu dagokion uztaira ››› **69. orrialdea**. Jarraitu haurrentzako eserlekuaren fabrikatzailearen jarraibideak.
- Tira egin haurraren eserlekuaren bi aldeetatik, behar bezala finkatu dela ziurtatzeko.

Zerbitzu teknikoetan eros daitezke ISOFIX edo i-Size eta Top Tether finkatze-sistema dituzten haurrentzako eserlekuak.

⚠ ADI

Euste-uztaiak soil-soilik diseinatu dira ISOFIX edo i-Size eta Top Tether sistema duten eserlekuetarako.

- **Ez finkatu inoiz euste-uztaietan ISOFIX edo i-Size, Top Tether sistema ez daramaten haurrentzako eserlekurik, ezta segurtasun-uhalik edo bestelako objekturik ere; bestela, zauriak eta heriotza pairatzeko arriskua egongo da.**
- **Ziurtatu haurrentzako eserlekua ondo finkatuta geratzen dela ISOFIX edo i-Size eta Top Tether uztaietara.**

[1] Ez dago eskuragarri merkatu guztietan.

Top Tether eusteko lokarriak



44. irudia Atzeko eserlekuak: Top Tether uhalaren arabera doitu eta muntatzea.



45. irudia Gidarikidearen eserlekua: Top Tether uhalaren funtzioa doitu eta muntatzea.



46. irudia Atzeko eserlekuetako atzealdea: Top Tether uhalerako euste-euskarria.



47. irudia Gidarikidearen eserlekuko bizkarraldearen atzealdea: Top Tether uhalerako euste-euskarria (ez dago eskuragarri merkatu guztietan).

Top Tether sistema duten haurrentzako aulkitxoek uhal gehigarri bat dute ibilgailuan euste-puntu bati lotzeko. Euste-euskarri hori atzeko eta gidarikidearen eserlekuetako bizkarraldearen atzealdean dago[1] (sinboloarekin identifikatuta) eta eusteko gaitasun handiagoa dauka.

Sistema honen helburua da aurrez aurreko talka batean haurrentzako eserlekuaren aurreranzko mugimendua murriztea, horrela ibilgailuaren barruko edozein elementuren aurka talka egitean haurraren buruan sor litezkeen lesioen arriskua gutxitzeko.

Top Tether atzerantz begira jarritako eserlekuetan erabiltzea

Egun, oso gutxi dira martxaren aurka munta daitezkeen eta Top Tetherra duten haurrentzako eserlekuak. Irakurri arretaz fabrikatzailearen jarraibideak eta aintzat hartu Top Tether lokarria nola instalatu jakiteko.

Eusteko lokarria finkatzea

- Haurrentzako eserlekuaren Top Tether-i eusteko lokarria zabaldu, fabrikatzailearen jarraibideei jarraituz.
- Jarri lokarria buru-euskarriaren azpitik (aulkiaren beraren jarraibideen arabera, altxa edo kendu buru-euskarria, beharrezkoa bada) ››› **44. irudia** , ››› **45. irudia**.

[1] Ez dago eskuragarri merkatu guztietan.

- Irristatu uhala eta finkatu behar bezala bizkarraldearen atzealdeko euste-euskarrian ››› 46. irudia , ››› 47. irudia.
- Tenkatu lokarria fabrikatzailearen jarraibideei jarraituz.

Eusteko lokarria askatzea

- Destenkatu lokarria fabrikatzailearen jarraibideei jarraituz.
- Sakatu itxigailua eta askatu euste-euskarritik.

⚠ ADI

Segurtasun-eserlekuak oker instalatzen badira, talka gertatuz gero, handitu egiten da lesioa pairatzeko arriskua.

- **Ez lotu inoiz eusteko lokarria ekipajeen konpartimentua euste-gako bati.**
- **Ez lotu edo finkatu inoiz ekipajea edo bestelako artikuluak beheko euste-sistematan (ISOFIX) edo goikoetan (Top Tether).**

⚠ ADI

Haurrentzako euste-sistemetako euste-puntuak diseinatuta daude behar bezala doituta dauden haurrentzako euste-sistemetako zamei eusteko. Ez dira inola ere erabili behar helduentzako segurtasun-uhalak, arnesak edo beste objektu edo ekipo batzuk finkatzeko ibilgailuan.

Haurrentzako eserlekua segurtasun-uhalarekin finkatzea

Ibilgailuan homologazio unibertsaleko (U) kategoriako haurrentzako eserleku bat ibilgailuan kokatu nahi baduzu, egiaztatu behar da eserleku hori ibilgailu horretarako homologatuta dagoela.

Haurrentzako eserlekuaren ECE homologazio-etiketa laranjan aurkituko duzu beharrezko informazioa.

Taula honetan, jartzeko zenbait aukera aurkituko dituzu.

Pisu-taldea	Aurreko bidaiariaren eserlekua[a)]		Atzeko alboko eserlekua	Atzeko erdiko eserlekua[b)]
	Airbaga aktibatuta	Airbaga desaktibatuta[c)]		
0 taldea 10 kg bitartean	X	U	U	U
0+ taldea 13 kg bitartean	X	U	U	U
I taldea 9 eta 18 kg bitartean	X	U	U	U
II taldea 15 eta 25 kg bitartean	X	UF	UF	UF
III taldea 22 eta 36 kg bitartean	X	UF	UF	UF

X: Ezin dira erabili konfigurazio horretako eserlekuak muntatzeko.

U: Pisu talde horretan euste-sistema unibertsalekin erabiltzeko egokia.

UF: Kategoria unibertsaleko eserlekuei eusteko sistemetarako egokia, masa horietarako homologatuta aurrerantz begira joateko.

a) Herrialde bakoitzean indarrean dagoen legeria eta haurrentzako eserlekuak erabiltzeko eta muntatzeko fabrikatzaileak emandako arauak bete behar dira.

b) Finkatzeko sistema gisa autoaren segurtasun-uhala eta oinarria dituzten eserleku erdi-unibertsalen kasuan, ez dira atzeko erdiko plazan erabiliko.

c) Altura doitzerik **ez** duten eserlekuak ahalik eta atzeren jarri behar dira. Altura **doitu dezaketen** eserlekuak ahalik eta atzeren eta altuen jarri behar dira.

Haurrentzako eserlekua segurtasun-uhala-rekin finkatzea



48. irudia Atzeko eserlekuetan:haurrentzako eserlekua muntatzea,

- Jarri segurtasun-uhala eta pasatu haurrentzako eserlekuan barrena haurrentzako eserlekuaren fabrikatzailearen argibideei jarraituz.
- Ahal dela ez utzi segurtasun-uhala okertuta.
- Sartu uhalaren mihia eserlekuari dagokion itxigailuan nola sartu den entzun arte.

⚠ ADI

Haurrek beren adinari, pisuari eta altuerari egokitutako euste-sistema batek babestuta joan beharko dute.

- **Irakurri eta kontuan hartu, nolanahi ere, haurrentzako eserlekuak erabiltzeko segurtasun-informazioa eta -aholkuak** **››› 63. orrialdea.**

Larrialdietan

Larrialdi-argi keinukariak

49. irudia Tresnen taula: larrialdi-argi keinukarien kommutadorea.

Arriskurik balego, larrialdi-argi keinukariek gainerako gidariek ibilgailuan arreta ipin dezaten balio dute.

Zure ibilgailua geldirik geratzen bada:

1. Aparkatu ibilgailua ibilgailuen zirkulaziotik distantzia jakin batera.
2. Sakatu kommutadorea larrialdi-argi keinukariak pizteko ››› ⚠.
3. Konektatu geratze-balazta elektronikoa.
4. Itzal ezazu motorra.
5. Sartu lehen martxa, eskuzko aldagailua duten ibilgailuetan, edo sakatu aparkatze-blokeoaren **P** botoia, aldagailu automatikoa duen ibilgailu bat bada.
6. Bete itzazu herrialde bakoitzeko lege-xedapenak (txaleko islatzailea, ohartarazpen-triangeluak, argi-baliza, etab.).
7. Eraman beti gainean giltza ibilgailutik irtetean.

Larrialdi-argi keinukariak konektatuta daudenean, ibilgailuko keinukari guztiek aldi berean egiten duten dir-dir. Hau da, hala keinukarietako ohar-argiek ⬅ ➡ nola kommutadorearen ohar-argiak ⚠ aldi berean egiten dute dir-dir. Aldi bereko larrialdi-argi keinukariek pizgailua deskonektatuta dagoenean ere funtzionatuko dute.

Larrialdietarako keinukariak konektatuta, norabide-aldaketa edo errei-aldaketa bat adierazi daiteke atoian eramatean, keinukarien palanka aktibatuz adibidez. Larrialdi-argi keinukariak desaktibatuta daude denbora honetan zehar.

Larrialdi-balaztatzearen abisua

Modu bortitz eta jarraian balaztatzen baduzu gutxi gorabehera 80km/h-tik gorako abiaduran (50 mph), balazten argiek hainbat bider egiten dute dir-dir segundoko, atzetik datozen ibilgailuei abisua emateko. Balaztatzen jarraitzen baduzu, larrialdi-argi keinukariak piztu egiten dira automatikoki ibilgailua gelditzen denean. Horiek deskonektatu egiten dira automatikoki ibilgailuak martxa hartzen duenean berriro.

⚠ ADI

- **Bidean geldirik dagoen ibilgailu batek istripua sortzeko arrisku handia eragiten du. Erabili beti larrialdiko keinukariak eta aurretiazko seinaleztapen-triangelua edo baliza argitsua (herrialdearen arabera) zure ibilgailuaren posizioa adierazteko, hirugarrenentzako arriskurik izan ez dadin.**
- **Ez utzi sekula ibilgailuaren barnean inor, bereziki haurrak edo laguntza behar dezakeen beste pertsonak. Hori bereziki garrantzitsua da ateak blokeatuta daudenean. Ibilgailuan giltzaperaturiko pertsonek tenperatura oso altuak edo baxuak paira ditzakete.**
- **Katalizatzailean izan daitekeen tenperatura handien ondorioz, ibilgailua ez duzu sekula aparkatu behar material oso sukoiekin kontaktuan egon daitekeen zonalde batean, esate baterako, belar lehorra edo isuritako gasolina duen zonalde batean; bestela, sutea izateko arriskua dago.**

Oharra

- **Larrialdi-argi keinukariak denbora luzez piztuta daudenean, ibilgailuko 12 volteko bateria deskargatu egiten da (pizgailua deskonektatuta izanda ere).**
- **Kontuan hartu larrialdi-argi keinukariak erabiltzeko legezko aginduak.**

Istripua edo sutea gertatuz gero izan beharreko portaera

Nola jokatu sutea edo istripuaren kasuan

Zure eta zurekin doazenen segurtasunagatik, kontuan hartu puntu hauek adierazitako hurrenkeran ››› ⚠:

- Itzali motorra.
- Ahal bada, konektatu larrialdiko keinukariak ››› 72. orrialdea.
- Bete itzazu herrialde bakoitzeko lege-xedapenak (txaleko islatzailea, ohartarazpen-triangeluak, argi-baliza, etab.).
- Hala badagokio, urrundu egon daitezkeen pertsonak arrisku-eremutik eta eman lehen sorospenak.
- Abisatu larrialdi-zerbitzuei.
- Itxaron istripua gertatu den lekutik behar besteko distantziara larrialdi-zerbitzuak iritsi arte.
- Sutea gertatuz gero, ez saiatu sua zure kabuz itzaltzen, eta ez egon ibilgailutik gertu.

⚠ ADI

Zure segurtasunerako, begiratu egiaztatze-zerrenda garrantzitsu hau, bestela, istripu eta lesio larriak gerta litezkeelako.

- **Jarraitu beti egiaztatze-zerrendako operazioak, eta kontuan hartu beti balio orokorreko segurtasun-neurriak.**

⚠ ADI

Sutea gertatuz gero, leherketa bat gerta daiteke eta osasunarentzat kaltegarriak diren substantziak atera daitezke, lesio larriak eragin ditzaketenak.

- **Ez egon inoiz su hartu duen ibilgailutik hurbil.**

Larrialdietarako dei-zerbitzua

50. irudia Sabaiko-kontsolan: ahots-zerbitzuetarako aginteak.

51. irudia Larrialdi-deirako botoia.

Ekipamenduaren arabera, sabaiko kontsolan larrialdietarako dei-sistema bat egon daiteke.

ℹ, 🔧 eta SOS ››› **50. irudia** teklak sakatuz, honako zerbitzu hauek gauzatu ahal dira:

- informaziorako deia
- laguntzarako deia
- larrialdietarako dei-zerbitzua.

Fabrikan muntatutako kontrol-unitate batek beharrezko konexioa ezarriko du.

Ahots-zerbitzua aktibatzen denean, telefono bidezko solaskide batekin ezartzen da konexioa.

Kontrol-argia

Agintean kontrol-argi bat dago ››› **50. irudia** (gezia). Honako egoera hauek adierazten ditu:

- **Itzalita:** eCall zerbitzua ez dago erabilgarri.
- **Argi gorriak dir-dir egiten du 20 segundo inguruz, pizgailua konektatu eta gero:** eCall zerbitzua desaktibatuta dago.
- **Gorriz pizten da:** sisteman akatsa. eCall zerbitzua erabilgarri dago baina mugatuta. CUPRAk tailer espezializatu batera joatea gomendatzen du.
- **Argi berdea piztuta:** eCall zerbitzua erabilgarri dago. Sistemak arazorik gabe funtzionatzen du.
- **Argi berdeak dir-dir egiten du:** Ahots aktiboko konexio bat dago.

SOS Larrialdi-deiaren zerbitzua[1)]

Larrialdi-dei automatikoa pizgailua konektatuta badago aktibatzen da soilik.

Airbagak zabaltzen badira edo, hala badagokio, gerrikoen aurretenkagailuak jaurtitzen badira, automatikoki konexio bat ezartzen da larrialdiak koordinatzeko zentroarekin. Larrialdi-dei automatikoa **ezin** da eten SOS ››› **51. irudia** 1 tekla sakatuz.

Larrialdiak koordinatzeko zentroaren galderei erantzuten ez bazaie, dagozkion laguntza-neurriak jarriko dira abian.

Telefono-solaskideak zirkulatzen ari den herrialdeko hizkuntza erabiltzen du.

Aktibatu eskuz larrialdi-deia

- Sakatu labur SOS teklaren estalkia eta ireki estalkia ››› **51. irudia**.
- Mantendu sakatuta larrialdiko-deiaren tekla segundo batzuez ››› **51. irudia** 1. Larrialdi-deia aktibatzen da eta larrialdiak koordinatzeko zentroarekin ahots-konexioa ezartzen da.

Larrialdi-deiaren tekla nahigabe sakatzen baduzu, eten deia berehala:

- Sakatu berriro larrialdi-deiaren tekla, kontrol-argia berdez piztuta egon arte.

Integratutako bateria

Integratutako bateriak bermatzen du larrialdi-dei sistemak (eCall) denbora batez erabilgarri jarraitzea, nahiz eta 12 volteko bateria deskonektatu edo matxuratu den.

Integratutako bateria deskargatzen edo matxuratzen bada, tresnen koadroko pantailan horren inguruko abisua agertuko da. Joan tailer espezializatu batera eta eskatu bateria ordeztea.

EDR datu-transferentzia ››› 392. orrialdea

Larrialdi-dei bat egiten denean, legez agindutako datuak bidaltzen dira larrialdiak koordinatzeko zentrora, beharrezko laguntza-neurriak zehaztu daitezen.

[1)] Herrialde batzuetan soilik dago erabilgarri.

Bolantearen kokapenari buruzko datuak etengabe gainidazten dira. Horrela, ibilgailuari ezin zaio etengabeko jarraipenik egin.

Larrialdi-deiarekin lotutako datuak larrialdietarako dei-sistemak (eCall) ondo funtzionatzen duela bermatzeko baino ez dira prozesatzen. Sistemak automatikoki ezabatuko ditu deiarekin lotutako datuak, deia aktibatu eta ordu batzuetara.

Besteak beste, datu hauek bidaltzen dira:

- Ibilgailuak larrialdi-deia aktibatzen den unean duen posizioa.
- Ibilgailuaren identifikazio-zenbakia (VIN).
- Ibilgailu mota eta propultsio mota.
- Aktibazio mota (automatikoa edo eskuzkoa).
- Dei mota.
- Larrialdi-deia aktibatu zen unean ibilgailua nora zihoan.
- Talka egin den unea.
- Zenbatetsitako bidaiari-kopurua ibilgailuan.

Zein egoeratan larrialdietarako dei-zerbitzua mugatuta egon daiteke.

- Larrialdietarako deia telefono mugikorreko eta GPSko estaldura gutxi edo batere ez duen zonalde batean egiten bada, adibidez, tunelak, oso altuak diren eraikinen artean sartutako zonaldeak, garajeak, lurpeko pasabideak, mendiak eta haranak.
- Larrialdietarako deia egiteko beharrezko ibilgailuaren osagaiak kaltetuta badaude edo energia elektriko nahikoa jasotzen ez badute.
- Herrialde batzuetan, baliteke larrialdi-deiaren zerbitzua erabilgarri ez egotea, eta ibilgailuaren kokapenaren, kontrol-argiko LED argien, eta dei-mota desberdinen funtzionamenduaren arabera, portaera espezifikoa izan dezake.

Laguntza-deia[1)]

Laguntzarako deiaren bidez zuzenean eska daiteke laguntza espezializatua matxura gertatuz gero.

Ahots-deiarekin batera, ibilgailuaren zenbait datu transmititzen dira, adibidez, uneko kokapena.

Informazio-deia[1)]

Informazio-deiaren bidez SEAT. S.A.ko bezeroarentzako arreta-zerbitzura deitzen da.

Oharra

- **Laguntza- eta informazio-deiek zure telefono-kontsumoan kostu gehigarria izan dezakete.**
- **Larrialdi-deiaren (eCall) sistemaren funtzionamendua, legez derrigorrezkoa dena, mugatua gera daiteke, gero infotainment sistema bat muntatzen bada.**

---

1) Herrialde batzuetan soilik dago erabilgarri.

Goi-tentsioko bateria

Segurtasun-jarraibideak

Aurkezpena

Erabilgarri ibilgailu hibridoetarako

⚠ ADI

Ibilgailuaren goi-tentsioko sarea eta goi-tentsioko bateria elementu arriskutsuak dira, eta erredurak eta beste lesio batzuk eragin ditzakete, baita deskarga elektriko hilgarria ere.

- Goi-tentsioko bateria erabat kargatuta dagoela eta bere osagai guztiak tentsiopean daudela pentsatu behar da beti. Hori ere horrela izan daiteke pizgailua deskonektatuta egonda.
- Ez ukitu inoiz goi-tentsioko kableak, goi-tentsioko bateria edo beraren poloak, eta ez utzi inoiz bitxiekin edo bestelako objektu metalikoekin kontaktuan egon, bereziki goi-tentsioko kableak, goi-tentsioko bateria edo beraren poloak hondatuta badaude.
- Ez egin inoiz zuk zeuk inolako lanik goi-tentsioko sarean, goi-tentsioko kableetan edo goi-tentsioko baterian.
- Ez ireki eta ez konpondu inoiz goi-tentsioko sareko osagaiak eta piezak, ezta egin ere mantentze-lanak horietan, eta ez bereizi horiek sare horretatik.
- Inoiz ez kaltetu, ez aldatu eta ez desmuntatu goi-tentsioko kable laranjak, ezta goi-tentsioko saretik bereizi ere.
- Ez ireki, aldatu edo desmuntatu inoiz goi-tentsioko bateriaren estalkia.
- Goi-tentsioko sistemako lanak, bai eta sistema horrek zeharka eragin diezaiekeen sistemetakoak ere, dagozkien kualifikazioa eta prestakuntza duten langile espezializatuek baino ez dituzte egin behar.
- Goi-tentsioko kableen eta goi-tentsioko osagaien inguruan egiten diren lanak, deformatzen duten edo txirbilak askatzen dituzten lanabes zorrotzekin edo bero-iturriekin (aire beroa, itsaspen termikoa edo soldadura-lanak, adibidez), tentsioa aldez aurretik deskonektatu ondoren baino ezin dira egin. Goi-tentsio deskonektatzea dagozkien kualifikazioa eta prestakuntza duten langile espezializatuek baino ez dute egin behar.
- Goi-tentsioko sisteman eta goi-tentsioko baterian egindako lan guztietan, CUPRAren estandarrak eta jarraibideak errespetatu behar dira.
- Goi-tentsioko bateriatik igorritako edo ihes egindako gasak toxikoak edo sukoiak izan daitezke.
- Ibilgailuan edo goi-tentsioko baterian gertatutako kalteen ondorioz, gas toxikoak irten daitezke, berehala edo beranduago. Igorritako gasek sute bat ere eragin dezakete. Ez arnastu inoiz gasak.
- Ez ukitu inoiz goi-tentsioko bateriatik isuritako likidoak, eta ez sartu igorritako gasekin kontaktuan; bereziki, kaltetutako bateria bat bada.
- Sute bat gertatzen bada, utzi arrisku-eremua eta deitu suhiltzaileei.
- Jakinarazi beti suhiltzaileei eta erreskateko zerbitzuei ibilgailuak goi-tentsioko bateria bat daramala.

⚠ ADI

Arazoak funtzionamenduan, istripuak eta lesioak eragin ditzakete goi-tentsioko sisteman eta goi-tentsioko osagaietan egindako lan desegokiek.

- Goi-tentsioko sistemako lanak dagokien baimena duten zerbitzu espezializatu baimenduek baino ez dituzte egin behar.

ⓘ KONTUZ

Ibilgailuak oztopo batekin istripua izan edo talka egin ondoren, goi-tentsioko bateria egiaztatu behar dute dagozkien kualifikazioa eta prestakuntza duten langile espezializatuek.

KONTUZ

Ibilgailuaren 12 V-ko bateriari borneak kendu bazaizkio, edo bateria hori deskargatu edo ordeztu bada, litekeena da errekuntza-motorra ez deskonektatzea, printzipioz automatikoki, martxa hasi ondoren. Egoera hori hainbat egunez luzatzen bada, joan zaitez tailer espezializatu kualifikatu batera. Horretarako, CUPRAren bazkideenetara joatea gomendatzen du CUPRAk.

Goi-tentsiorako ohartarazpen-errotuluak

Erabilgarri ibilgailu hibridoetarako



52. irudia Ohartarazpen-errotuluak.

53. irudia Ohartarazpen-errotuluak goi-tentsioko baterian.

Ohartarazpen-errotuluak ibilgailuan

Ibilgailuaren atal hauek identifikatuta egon daitezke iruditutako ohartarazpen-errotuluekin ››› **52. irudia**, ››› **53. irudia**:

- Tentsio elektrikoa jasaten duten goi-tentsioko osagaien atzealdeko estalkiak eta tapak.
- Goi-tentsioko osagai guztiak, goi-tentsioko bateria barne.
- Aurreko kapotaren azpian.

››› **52. irudia** A eta B ohartarazpen-errotuluek tentsio elektriko handia adierazten dute..

Goi-tentsioko sistemaren zatiak asko berotu daitezke eta ez dira ukitu behar ››› **52. irudia** C.

››› **53. irudia**

1. Tentsio handi batek lesio larriak eragin ditzake, baita heriotza ere. Ez ukitu inoiz bateriaren poloak atzamarrekin, tresnekin, bitxiekin edo beste objektu metaliko batzuekin.
2. Goi-tentsioko bateriak likido eta solido arriskutsuak ditu. Gasak igorriz gero, erredura larriak eta itsutasuna eragin daitezke. Goi-tentsioko baterian lan egiten den bitartean, begietarako babesa eta babesteko arropa egokiak eraman behar dira beti, bateriako likidoa larruazalarekin eta begiekin kontakturik ez izateko. Bateriako likidoa larruazalarekin edo begiekin kontaktuan jartzen bada, kaltetutako eremuak txorro-

tako ur garbian busti behar dira gutxienez 15 minutuz eta, ondoren, berehala mediku batengana jo behar da.

③ Goi-tentsioko bateria suak har dezake. Goi-tentsioko bateria ez da inoiz suaren, txinparten edo zuzeneko sugarren eragin-pean jarri behar. Goi-tentsioko bateria kontu handiz erabili behar da beti, kalteak eta likidoak ateratzea saihesteko.

④ Goi-tentsioko bateria haurren irismenetik urrun mantendu behar da beti.

⑤ Informazio eta ohartarazpen gehiago aur-kituko dituzu erabilera-argibideetan eta tailerreko dokumentazioan.

⑥ Goi-tentsioko bateria modu desegokian manipulatzeak lesio larriak, baita heriotza ere, eragin ditzake. Ez desmuntatu inoiz goi-tentsioko bateria, eta ez kendu bere estalkia.

⑦ Goi-tentsioko baterian mantentze-lanak egiteko ardura dagozkien kualifikazioa eta prestakuntza duten langile espezializatuei baino ez zaie eman behar. Ez egin inoiz al-daketak goi-tentsioko baterian. Goi-tentsi-oko bateria irekia ez da sartu behar kon-taktuan urarekin edo beste likido batzue-kin. Likidoek zirkuitu laburrak, deskarga elektrikoak eta erredurak eragin ditzakete.

Goi-tentsioko bateria kontserbatzea

Kontserbaziorako jarraibideak

Erabilgarri ibilgailu hibridoetarako

Goi-tentsioko bateriaren fidagarritasuna eta gaitasuna

Printzipioz, litiozko ion-bateria zahartze- eta higatze-prozesu baten mende dago horren balio-bizitzan zehar, bere ezaugarri fisiko eta kimikoengatik. Epe luzera egoera fidagar-ria mantentzea eta bateriaren gaitasun era-bilgarri edo autonomia handia lortzea dakar-tza funtsez goi-tentsioko bateria behar be-zala maneiatzeak. Beraz, oso garrantzitsua da goi-tentsioko bateria kontserbatze-jarraibide hauek errespetatzea. Kontserbazio-jarraibide horiek funtsezkoak dira ibilgailuaren balioa modu iraunkorrean mantentzeko.

Ikus itzazu, halaber, goi-tentsioko bateriari aplikagarriak diren CUPRAren bermeko baldin-tzak.

Kontserbazio-jarraibideak

CUPRAk kontserbazio-jarraibide hauek go-mendatzen ditu:

- Ahal dela, kargatu goi-tentsioko bateria tres-nen koadroan karga baxuko egoera batager-tzen denean, edo autonomia elektrikoa baxua denean ››› **21. orrialdea**.
- Komeni da goi-tentsioko bateria ez kargatzea ibilbide labur bat modu elektriko hutsean egin denean.
- Ahal den neurrian, saihestu goi-tentsioko ba-teria erabat deskargatzea, adibidez, aparkatze-denbora luzean egotea karga-egoera baxua delarik. Karga-egoerak ez du % 20 tik jaitsi be-har denboraldi luzeetan ››› ⓘ.
- Goi-tentsioko bateria % 100 ean kargatu de-nean, hasi berehala martxa, ahal den neurrian.

Ibilgailuaren aparkatze-aldiak

- Izozte-kasuetan, ez aparkatu ibilgailua hain-bat orduz % 40 tik beherako karga-egoeran ››› ⓘ.
- Ibilgailua gelditzeko denbora luzeak planifi-katuz gero, gutxienez % 30 eko karga-egoe-ran aparkatu, adibidez, aireportuan bidaia egin aurretik.
- Ez utzi ibilgailua 24 ordu baino gehiagoz -30 °C-tik beherako edo 60 °C-tik gorako kanpo-tenperaturetan.
- Erosotasuna eta errendimendua hobetzeko, erabili egoki klimatizazio independentea (eki-pamenduaren arabera), batez ere -15 °C-tik baino tenperatura baxuagoetan››› **152. or-rialdea**.

KONTUZ

Goi-tentsioko bateria ez da korronte estatikoaren iturri gisa erabili behar. Bestela, goi-tentsioko baterian kalte konponezinak eragin litezke.

KONTUZ

Ibilgailua luzaroan aparkatuta uzten bada goi-tentsioko bateria deskargatuta, baliteke bateria hori ezin kargatzea edo ibilgailua ezin abiaraztea. Epe luzera goi-tentsioko baterian kalte konponezinak eragin litezke.

- **Kargatu goi-tentsioko bateria tarte erregularretan.**

Goi-tentsioko bateria kargatzea

Gaiaren aurkezpena

Erabilgarri ibilgailu hibridoetarako

Egiaztatu gidatzeko modua desaktibatuta dagoela eta kablea eta karga-azpiegitura egoera onean daudela.

Karga-motak

Ibilgailuarentzat karga-mota hauek daude:

- *Korronte alternoko (KA) karga kargagune publiko batean edo etxeko batean (3 Moduko Karga)* ››› **80. orrialdea**:

Potentzia handian kargatzen da. Lor daitekeen gehieneko karga-potentzia karga-estazioaren, erabilitako karga-kablearen eta ibilgailuko kargagailuaren ezaugarrien araberakoa da.

- *Korronte alternoko (KA) karga etxeko kargahargune batean (2 Moduko Karga)* ››› **80. orrialdea**:

Etxebizitzaren instalazio elektrikoa berrikusi beharko da eta ondo funtzionatu beharko du ››› ⚠. Karga-denbora luzeagoa aurreikusi behar da, adibidez, gauean.

- *Korronte zuzeneko (KZ) karga karga azkarreko estazio batean (4 Moduko Karga):*

Korronte zuzeneko karga **ez da bateragarria** ibilgailu honetan.

Korronte-deribazioen aurkako babesa

Ibilgailuak korronte zuzeneko (KZ) deribazioetatik babesteko gailu bat du. Horrela, saihesten da kargatzean sor daitezkeen korronte-deribazioak etxeko instalazio elektrikora iristea, karga-kablearen bidez.

ADI

Bateria ez bada zuzen kargatzen, segurtasun-neurriak ez badira kontuan hartzen edo goi-tentsioko bateria modu desegokian erabiltzen bada, zirkuitu laburrak, deskarga elektrikoak, leherketak, suteak, erredurak, lesio larriak eta heriotza gerta daitezke.

- **Errespetatu beti eragiketetan ezarritako ordena, deskarga elektriko bat eta lesio larriak izateko arriskua saihesteko, karga-akumulagailuaren hondar-energiaren ondorioz.**
- **Kontuan izan segurtasunari eta ibilgailuan datorren karga-kablearen erabilerari buruzko adierazpenak** ››› **86. orrialdea**.
- **Karga egiteko, erabili modu egokian instalatuta eta aztertuta dauden, edo kaltetuta ez dauden korronte harguneak eta zuzen ibiltzen diren instalazio elektrikoak. Eskatu korronte-harguneen eta instalazio elektrikoaren azterketa erregulartasunez behar bezala prestatuta dauden teknikariei.**
- **Ez kargatu inoiz lehertzeko arriskua dagoen tokietan. Karga-kablearen osagaiek txinpartak eragin ditzakete, eta lurrun sukoiak handitu edo leherketak.**
- **Babestu beti konektoreak hezetasuna, ura eta beste likido batzuk zuzenean sar ez daitezen.**
- **Karga-prozesuan, segurtasun-arrazoiak direla eta, ez egin beste lanik ibilgailuan.**

- **Sare elektrikorako konektorea deskonektatu aurretik, amaitu beti karga-prozesua. Bestela, karga kablea eta instalazio elektrikoa kaltetu daitezke.**

Oharra

- **Goi-tentsioko bateria korronte alternoarekin (KA) kargatzeko, CUPRAk etxeko kargagune bat edo beste motatakoa erabiltzea eta karga-potentziarik handienarekin kargatzea gomendatzen du. Kargatzeko modu hauek etxeko korronte hargune baten karga baino eraginkorragoak dira.**
- **Kontuan izan ibilgailuaren karga-potentziari buruzko datu teknikoak. Eskatu informazio gehiago CUPRA kontzesionario espezializatu batean edo SEAT sareko edozein kontzesionariotan.**
- **Goi-tentsioko bateria dagokion herrialdeko baldintzak, eta gutxienez, arau hauetako bat, betetzen dituzten karga-estazioetan bakarrik karga daiteke:**
  - **IEC 61851 eta IEC 62196 (Europa)**
- **Tenperatura oso baxuak edo oso altuak badaude, agian goi-tentsioko bateria modu mugatuan bakarrik kargatu ahalko da.**

Kargatze-azpiegitura bateragarriak identifikatzea

Erabilgarri ibilgailu hibridoetarako



54. irudia Korronte alternoa (KA) eta 2 motako konektorea identifikatzea.



55. irudia Korronte zuzena (KZ) eta ibilgailuaren CCS konektorea identifikatzea

Ibilgailuen eta kargatze-azpiegituren arteko bateragarritasuna

EN 17186 arauaren arabera, adierazle hauek azpiegiturako karga-konektoreak ibilgailurako egokiak diren adierazten dute ››› ⚠.

Adierazleak ››› 54. irudia

A Ibilgailuan

B Kargagunean

Adierazleak ››› 55. irudia

C 500 volterainoko tentsioa

D 1000 volterainoko tentsioa.

Adierazleak leku hauetan daude: ibilgailuko karga-hargunean, tokiko kargatze-azpiegituraren osagaietan (kargagunea, korronte-hargunea) eta karga-kablean. Adierazleak IEC 62196 arauaren arabera normalizatutako karga-konexio estandarrei dagozkie.

⚠ ADI

Ziurtatu gabeko instalazio elektrikoetan ibilgailua kargatzeak kalte eta lesio larriak eragin ditzake.

- **Adierazlerik ez badago edo kargatze-azpiegitura ezagutzen ez bada, lehenik eta behin instalazio elektrikoetan aditu bati galdetu behar zaio.**

Korronte alternoarekin (KA) kargatzea

Erabilgarri ibilgailu hibridoetarako



56. irudia Bateria kargatzeko estalkiaren atzean, ezkerreko aurrealdean: Karga-hargunea.

>>> **56. irudia**

① Karga-prozesuaren adierazlea.

② Karga-hargunea.

Ibilgailuan instalatutako bateria-kargagailuak sare publikoko korronte alternoa korronte zuzen bihurtzen du.

KA-ko karga-estazioa edo korronte-harguneko kablea: Ibilgailuko goi-tentsioko bateria korronte alternoarekin (KA) karga daiteke dagokion karga-hargunearen bidez. ②.

Karga-kablea konektatzea

- Lehenik eta behin, karga-kablea korronte-hargunean konektatu behar da, edo etxeko karga-estazioan edo estazio-karga publikoan. Ondoren, erabat zabaldu behar da.
- *Etxeko korronte-harguneetarako karga-kablea*: Babesteko gailuak autoegiaztapena egiten du >>> **88. orrialdea**.
- Ibilgailua desblokeatuta, bateriako karga-estalkian presioa eginez, hori irekitzen da >>> **56. irudia**.
- Entxufatu karga-konektore arteza karga-hargunean. Egiaztatu karga-konektorea erabat entxufatuta dagoela.

Konektorea automatikoki blokeatzen da.

Karga-harguneko LED argia (karga-prozesuaren adierazlea) pizten da ①. Tresnen koadroko pantailan pizten da kontrol-argia.

Infotainment sisteman, nahi diren doikuntzak egin daitezke kargarako >>> **85. orrialdea**.

Karga-prozesuaren hasiera automatikoa

Karga programatua aktibatuta ez badago, karga-prozesua berehala hasiko da. Kargatzeko kanpoko azpiegiturak aktibo egon beharko du.

Karga-estazio publiko gehienetan, kautotzea beharrezkoa da prozesua hasteko. Kautotzea behar bezala egin dela egiaztatzea garrantzitsua da; bestela, sistemak gaizki funtziona dezake.

Kargatzen ari den bitartean

Tresnen koadroan kontrol-argi berdeak dir-dir egiten du.

Karga-harguneko karga-prozesuaren adierazle berdeak dir-dir egiten du ①. Karga-konektorea blokeatuta dago.

Karga-prozesuaren adierazle gorria pizten bada, matxura dago >>> **82. orrialdea**.

Karga-prozesua moztea

Karga-prozesua moztu ahal da:

- Desblokeatu ibilgailua.
- Sakatu karga-prozesua bukatzeko funtzio-botoia. Karga-harguneko karga-prozesuaren adierazlea zurian pizten da ①.
- Desblokeatu ibilgailua karga-konektorea desblokeatzeko.

Kargatzeko prozesua berriz hasieratzeko, kargatze-prozesua hasieratzeko funtzio-botoia sakatu behar da.

Karga ondoren

Goi-tentsioko bateria erabat kargatu denean, karga-harguneko karga-prozesuaren adierazle berdea piztuko da.

- Desblokeatu ibilgailua.
- Kendu karga-konektorea karga-hargunetik 30 segundoko epean.
- Deskonektatu kargatzeko kablea korronte-horniduratik eta jarri babes-txanoa.
- Itxi karga-estalkia ahokatzen dela entzun arte.

Lehen karga eta denbora luzearen ondoko karga

Goi-tentsioko bateria berria bada edo denbora luzez kargatu ez bada, bateriaren gehieneko karga-egoera hainbat karga-prozesuren ondoren bakarrik lor daiteke. Hori arrazoi teknikoengatik gertatzen da, eta ez da ibilgailuaren funtzionamendu txarra.

Ibilgailua ez bada denbora luzez erabiltzen, goi-tentsioko bateria gehienez lau hilabete igaro ondoren kargatu behar da.

Oharra

Kargatzeko kablea kargatu ondoren konektatuta uzten baduzu, ibilgailuko kontsumitzaile elektrikoek ez dute goi-tentsioko bateria deskargatuko.

Karga-prozesuaren adierazlea

Erabilgarri ibilgailu hibridoetarako



57. irudia Bateriako karga-hargunearen taparen atzean: karga-prozesuaren adierazlea.



58. irudia Bateriako karga-hargunearen taparen barrualdean: karga-prozesuaren adierazleari buruzko informazioa eranskailuan.

Karga-hargunean LED argi batek ››› **57. irudia** (gezia) karga-prozesuaren egoera erakusten du.

Bateriako karga-estalkian itsatsitako etiketa batek LED argien esanahiari buruzko informazioa ematen du ››› **58. irudia**.

Karga-prozesuaren adierazpenak:

LED argi berdea ››› 58. irudia

① *Etengabe piztuta dago:* Karga ondo egin da.

② *Dir-dir egiten du:* Goi-tentsioko bateria kargatzen ari da.

③ *Dir-dir egiten du pultsu laburrekin:* Programatutako karga aktibatuta dago. Karga-prozesua oraindik ez da hasi.

LED argi horia ››› **58. irudia**

④ *Dir-dir egiten du:* **P** aparkatze-blokeoa ez da aktibatu.

⑤ *Etengabe piztuta dago:* Ez da sare elektrikorik detektatu Korronte-hornidura eta sarea berrikusteko eskatu behar da. Eskatu laguntza profesional bati.

LED argi gorria ››› **58. irudia**

⑥ *Dir-dir egiten du:* Errorea karga-sisteman. Karga-prozesua ezin da hasi edo eten egin da.
Etengabe piztuta dago: Karga-konektorea ez da blokeatu. Kendu entxufetik karga-konektorea eta berriz entxufatu karga-hargunean (ziurtatu behar bezala sartu dela). Arazoak bere horretan jarraitzen badu, berraztertu kablearen bateragarritasuna edo eskatu laguntza profesional bati.

Karga-harguneko argiztapena

Iluntasunean, karga-harguneko alboko argiak (LED argi zuria) ibilgailuan orientazioa erraztu dezake:

Piztuta

- Ibilgailua desblokeatua izan da.
- **EDO**: Karga-konektorea karga-hargunetik kendua da.

Itzalita

- Ibilgailua desblokeatu edo blokeatu ondoren, argia automatikoki itzaltzen da denbora-tarte baten ondoren.

Arazoak konpontzea

Erabilgarri ibilgailu hibridoetarako

Errorea goi-tentsioko sisteman

Oharpen-argi gorria pizten da. Horren inguruko mezu bat agertuko da.

Matxura bat dago goi-tentsioko sisteman. Goi-tentsioko osagaiak kaltetuta egon daitezke ››› ⚠.

Ezin da kargatu goi-tentsioko bateria.

- **Ezinbestekoa da ibilgailua aparkatzea leku seguru batean**. Aparkatu ibilgailua aire zabalean, ahal bezain laster eta seguru denean.
- Itzali propultsio-sistema.
- Eskatu laguntza profesional bati.

Propultsioa: Matxura! Aparkatu ibilgailua leku seguru batean

Mezu hau tresnen koadroan agertzen bada eta erre- edo gas-usaina dagoela atzematen baduzu edo kea sortzen bada, kontuan izan eta jarraitu hurrengo urratsak:

- **Ez jarraitu gidatzen!** Gelditu ibilgailua berehala, trafikoaren egoera kontuan hartuz.
- Horretarako, aukeratu toki seguru bat aire zabalean, eraikin edo ibilgailu, markesina, aparkaleku itxiak edo antzeko tokietatik urrun.
- Deskonektatu motorraren pizgailua.
- Ibilgailutik atera baino lehen, ziurtatu ibilgetuta dagoela (geratze-balazta, aparkatze-blokeoa **P**).
- Utzi kontaktu-giltza tresnen taulan edo ikusgarria den toki batean.
- Ziurtatu ez dagoela pertsona edo animaliarik ibilgailuaren barruan.
- Abisatu larrialdi-zerbitzuei.

⚠ ADI

Goi-tentsioko bateriako geletan sute-arriskua badago, baliteke gas toxikoak sortzea edo goi-tentsioko osagaiak tentsiopean egotea. Erredurak edo lesio larriak izateko edo deskarga elektriko hilgarria jasotzeko arriskua dago.

eta Sute-arriskua!

Oharpen-argia gorrian pizten da eta testu-mezu batekin batera agertzen da tresnen koadroan, abisu akustiko jarraitu batekin.

Goi-tentsioko bateriaren tenperatura altuegia da .

Tresnen koadroan mezu hau agertzen bada, ››› kontuan hartu eta honako urrats hauei jarraitu:

- **Ez jarraitu gidatzen!** Gelditu ibilgailua berehala, trafikoaren egoera kontuan hartuz.
- Horretarako, aukeratu toki seguru bat aire zabalean, eraikin, ibilgailu, markesina, aparkaleku estaliak edo antzeko tokietatik urrun.
- Ibilgailutik atera baino lehen, ziurtatu ibilgetuta dagoela (geratze-balazta, aparkatze-blokeoa **P**).
- Pizgailua deskonektatu, eta utzi kontaktu-giltza tresnen taulan edo ikusgarria den toki batean.
- Irten ibilgailutik eta ziurtatu ibilgailuan beste pertsonarik eta animaliarik ez dagoela.
- Ziurtatu arriskuko gunetik alde egin duzula ibilgailuko beste bidaiari guztiekin batera, eta guztiak zirkulaziotik salbu zaudetela (adibidez, bazter-babesaren atzean).
- Abisatu larrialdi-zerbitzuei.

Mezua ezkutatzen bada, oharpen-argiak ikusgai jarraituko du.

Abisu akustikoa tailer kualifikatu batek baino ezin du itzali. CUPRAk kontzesionario ofizial batera jotzea gomendatzen du.

ADI

Goi-tentsioko baterian sute-arriskua badago, gas pozoitsuek ihes egin dezakete edo goi-tentsioko bateriaren osagaiak askatu. Lesio larriak, erredurak edo deskarga elektriko hilgarriak izateko arriskua dago.

- **Ibilgailua ahalik eta azkarren segurtasunez aparkatu ››› 73. orrialdea, *Istripua edo sutea gertatuz gero izan beharreko portaera*.**
- **Irten ibilgailutik eta gorde ibilgailuarekiko distantzia egokia.**
- **Deitu suhiltzaileen zerbitzura berehala.**

Karga-prozesua ez dago erabilgarri edo eten egin da

Karga-hargunearen ondoko prozesu-adierazlea gorriz pizten da.

Tailer espezializatu batera joan aurretik, irtenbide hauek proba ditzakezu:

- Entxufatu berriro karga-kablea.
- Egiaztatu nahi den karga-konfigurazioa daukazula: “berehalakoa” edo “programatuta”.
- Egiaztatu karga-konektorea ondo entxufatuta dagoela.
- Egiaztatu karga-estazioan irregulartasunen bat adierazten den edo, ekipamenduaren arabera, karga-kablea babesteko gailuan.

Ezin baduzu irregulartasuna konpondu, joan berehala tailer espezializatu batera.

ADI

Goi-tentsioko osagaiak, bateria eta goi-tentsioko kableak barne, tentsiopean egon daitezke eta kalteak izan ditzakete. Goi-tentsioko sistema arriskutsua da, eta erredurak, beste lesio batzuk eta deskarga elektriko hilgarria eragin ditzake.

- **Ez ukitu goi-tentsioko osagaiak!**

Karga-konektorearen larrialdietako desblokeatzea.

Erabilgarri ibilgailu hibridoetarako



59. irudia Ezkerraldeko hegatsaren eta motorreko kapotaren bandaren artean Karga-konektoreko larrialdietako desblokeatze-heldulekua.

Karga-konektorea desblokeatzea

Aurrebaldintzak:

- Karga-konektorea ondo entxufatu da.
- Ibilgailua desblokeatuta dago.
- Karga-prozesua bukatu da edo eten egin da ››› 79. orrialdea.

Aurretizako baldintza horiek betetzen badira eta, hala ere, karga-konektorea deskonektatzea ezinezkoa bada, larrialdiko desblokeoa erabili behar da, ››› ⚠

Karga-konektorea larrialdiko eskuzko desblokeatzea

Larrialdiko eskuzko desblokeorako heldulekua motorreko hobiaren ezkerraldean dago, karga-hargunearen gainean ››› 59. irudia.

- Moztu korronte-hornidura karga-estazioan edo karga-hargunean.
- Ireki motor-kapota eta finkatu eusteko hagatxoarekin.
- Tira egiozu heldulekuari ››› 59. irudia.
- Deskonektatu berehala karga-konektorea.

⚠ ADI

Karga-konektorea ustekabean blokeatuta egoten bada, matxura ibilgailuan edo karga-gunean egon daiteke.

Eskuzko larrialdietako desblokeatzeak tentsiopean dauden kontaktuak irisgarri egin ditzake. Kasu horretan, karga-harguneko kontaktuak ukituz gero, erredurak, beste lesio batzuk eta deskarga elektriko hilgarri bat gerta daitezke.

- **Ez ukitu inoiz karga-harguneko edo karga-konektoreko kontaktuak.**

Oharra

Karga-konektorearen larrialdiko desblokeoa matxura dagoenean baino ezin da erabili.

Oharra

Karga-konektorearen larrialdiko desblokeoa erabili ondoren, profesional batek berehala berrikusi behar du karga-hargunea.

Karga-doikuntzak infotainment sisteman

Gestor de Batería menua

✓ Baliogarria ibilgailu hibridoetarako

Gestor de Batería menuak irteera-orduak konfiguratzeko edo hautatzeko aukera ematen du, goi-tentsioko bateriaren programatutako kargatzerako eta ibilgailuaren berokuntza eta hozte elektrikorako.

`Gestor de Batería` menua irekitzea

- Konektatu pizgailua.
- Piztu infotainment sistema.
- Hautatu **Gestor de Batería** menu nagusian.

Berehalako kargarako doikuntzak egin daitezke (hurrengo karga-prozesua).

- Murriztu karga-korrontea, adibidez, beste kontsumitzaile handi batzuek aldi berean funtzionatzen dutenean instalazio elektrikoaren linea berean. Karga-potentzia murriztu egiten da eta kargatze-denbora luzatu.
- Doitu nahi den tenperatura klimatizazio independenterako ››› 152. orrialdea.

`Ajuste de la hora de salida` menua

Programatutako (irteera-denborak) kargarako egin daitezke doikuntzak ››› 86. orrialdea.

- Zehaztu nahi den unea goi-tentsioko bateria kargatzeko eta bidaiari-lekua klimatizatzeko.

Climatización independiente extendida menua

- Doitu nahi den tenperatura klimatizazio independenterako ››› 152. orrialdea.
- *Eserlekuak eta haizetakoa berotzea irteerarako:* hautatu eserlekuak Infotainment sisteman edo aktibatu haizetakoaren berogailua. Klimatizazio estatiko batean zehar, funtzio aktiboak piztuko dira (berehala pizteagatik edo irteera bat programatzeagatik), klimatizagailuak hori beharrezkotzat jotzen badu (hotzbaldintzak).

Ibilgailua sarera konektatuta zein deskonektatuta funtzionatzen du klimatizagailuak. Goi-tentsioko bateria elikatze-iturri gisa erabili nahi baduzu, egin doikuntza egokia **Ajustes** menuan.

`Ajustes de carga` menua

Kargatze-prozesurako doikuntza orokorrak egin daitezke.

- *Bateriaren beheko karga-muga (goi-tentsioko bateriaren nahi den gutxieneko karga-maila):* gutxieneko autonomia bat berma daiteke funtzio horrekin. Ibilgailua karga-estazio batera edo korronte-hargune batera konektatu ondoren kargatzen da zuzenean. Funtzioa erabilgarri dago irteera-ordu bat aktibatu bada ››› 86. orrialdea.
- *Goi-tentsioko bateriaren bidezko klimatizazioa:* Ibilgailua kanpoko sare batera konektatuta ez badago eta aukera hori gaituta badago, nabarmen murritz daiteke ibilgailuaren autonomia elektrikoa!

Irteera-ordua doitzea

✓ Baliogarria ibilgailu hibridoetarako

Karga programatuari esker, ibilgailua karga-hargunera konektatzean, bateriaren karga programa eta atzera daiteke, nahi den bateria-mailara iristeko ordu jakin batean.

Irteera-orduak bistaratzea

- Hautatu **Gestor de Batería** Infotainment sistemaren menu nagusian.
- Hautatu irteera-orduen ikuspen orokorra irekitzeko.

Irteera-ordua doitzea

Irteera-ordua nahi bezala doitzeko, ukitu dagokion funtzio-botoia edo markatu laukitxoa ✓.

- **Irteera-ordua:** Ordua, asteko eguna edo doitu irteera-ordu bakarra edo astekoa.
- **Klimatizazioa:** bidaiari-lekua berotzen edo hozten da irteera-orduan ››› 152. orrialdea.
- **Tarifa baxua edo gauekoa:** kargarako lehenetsitako denbora-tarte bat ezar daiteke.

Irteera-ordua aktibatzea

Aktibatu irteera-ordua laukitxoa markatuz irteera-orduen ikuspegi orokorrean.

Seinaleak:

Irteera-ordu batean aktibatutako karga.

Irteera-ordu batean aktibatutako klimatizazioa.

Irteera-ordua aldian-aldian erabiltzen da.

Karga-kablea

Aurkezpena

Erabilgarri ibilgailu hibridoetarako

Ibilgailuarekin batera ematen den karga-kable mota emate-bolumenaren eta herrialde bakoitzaren zehaztapen tekniko espezifikoen (adibidez, korronte-harguneetarako karga-konektorearen konexioak) araberakoa da.

CUPRAk emandako karga-kablea **soilik** erabiltzea gomendatzen du.

Karga-kableari buruzko oharrak

- Kontuz tratatzea.
- Erabat biribiltzea eta zabaltzea.
- Ez bihurritzea eta ez tolestea ertz zorrotzen gainean.

- Ez zapaltzea eta ibilgailua gainetik ez pasatzea.
- Beti deskonektatzea konektoretik tira eginez.
- Umeek ezin dute karga-kablea erabili.
- Animaliak karga-kabletik urrun edukitzea.
- Erabili ondoren, modu seguruan eta bihurritu gabe gordetzea.

Karga-konektoreei eta karga-kableko babes-gailuari buruzko informazioa

- Karga-konektoreko kontaktuak ez ukitzea.
- Eguzki-argi bizitik babestea (kanpoko tenperaturak ez dira 50 °C-tik edo 122 °F-etik gorakoak izango).
- Ez uztea erortzen.
- Likidoetan (adibidez, euri-uretan) murgiltzetik babestea.
- Erabili eta gero, babes-txanoak ipintzea beti.

Karga-kablea garbitzea

Garbitu karga-kablearen gainazala oihal lehor edo apur bat heze batekin ››› ⚠, ››› ⓘ.

⚠ ADI

Aseguratu gabeko edo gaizki aseguratutako objektuek lesio larriak eragin ditzakete batbatean maniobratzean edo frenatzean, edo istripua gertatzen bada.

- **Gorde modu seguruan karga-kablea maletategian.**
- **Horretarako, erabili kablearekin batera ematen den zorro antolatzailea.**

⚠ ADI

Kaltetutako edo manipulatutako karga-kable bat erabiltzeak lesio larriak eta deskarga elektriko hilgarriak eragin ditzake.

- **Erabili aurretik, egiaztatu konektoreek eta karga-kableak ez dutela kalterik, adibidez, arrailak.**
- **Ez desmuntatu inoiz karga-kablea eta haren osagaiak.**
- **Ez erabili inoiz kaltetutako edo manipulatutako karga-kablerik.**
- **Karga-kableak behar bezala funtzionatzen ez badu, jo CUPRA kontzesionario espezializatu batera edo edozein SEATen kontzesionariotara azter dezaten.**

⚠ ADI

Korronte-harguneetarako karga-kablea korronte-hargune batera zuzenean konektatu behar da beti. Bestela, suteek eragindako lesioak gerta litezke, eta karga-kablea edo etxebizitzako instalazio elektrikoa kalte liteke.

- **Ez konektatu inoiz karga-kablea luzagarri, kable-danbor, erregleta edo egokigailu batera, adibidez, Lander egokigailu edo tenporizadore batera.**

⚠ ADI

Goi-tentsioko sistema arriskutsua da, eta erredurak, beste lesio batzuk eta deskarga elektriko hilgarria eragin ditzake.

- **Garbitu karga-kablea entxufatuta ez dagoenean bakarrik.**

ⓘ KONTUZ

Atzerrira bidaiatu aurretik, informa zaitez beharrezkoa izango den karga-kableaz, eta gehienez zer karga-korronte onartzen duen. Ahal baduzu, erabili dagokion herrialdeak hornitzen duen karga-kablea.

ⓘ KONTUZ

Baliteke karga-kablean, ekipo elektriko gisa, aldizkako azterketak egin behar izatea. Horretarako, proba-egokigailu bat behar da.

KONTUZ

Karga-kablea kalte daiteke behar bezala garbitzen ez bada.

- **Ura bakarrik erabili behar da, eta inoiz ez garbiketa-produktu gehigarriak.**
- **Kontaktuetan ura sartzea saihestu behar da.**

Ingurumenari buruzko oharra

Karga-kableak ingurumena errespetatuz bota behar dira, eta ez dira etxeko zaborretara bota behar.

Oharra

Erabilitako segurtasun-zirkuituko gehieneko karga-gaitasuna kontuan izan behar da. Karga-kablea beste kontsumitzaile batzuekin batera zirkuitu bereko korronte-hargune batera entxufatuta badago, zirkuituko fusibleek salto egin lezakete.

Korronte alternoa (KA) duten karga-estazioetarako karga-kablea

Erabilgarri ibilgailu hibridoetarako



60. irudia Korronte alternoa (KA) duten karga-estazioetarako karga-kablea.

Gehieneko karga-korrontea 16 edo 32 anperekoa da, eta ibilgailuaren ekipamenduaren eta emandako karga-kablearen araberakoa ›››.

ADI

Goi-tentsioko bateria karga-kable desegokiarekin kargatzeak zirkuitu laburrak, lesio larriak eta deskarga elektriko hilgarriak eragin ditzake.

ADI

Karga-kablea ez da luzagarri gisa erabili behar. Karga-prozesuan eragina izan liteke.

KONTUZ

Karga-estazioa erabiltzeko, kontuan hartu behar dira fabrikatzailearen erabilera-argibideak eta adierazpenak.

Oharra

Ezin da kargatu 16 A-tarako karga-kablearen bidez 32 A jasaten duten zenbait karga-estaziotan. Karga-estazioaren ekipamenduaren araberakoa da.

- **Ibilgailua kargatu aurretik, informatu eskuragarri dagoen karga-teknologiari buruz.**

Korronte-harguneetarako karga-kablea

Erabilgarri ibilgailu hibridoetarako



61. irudia Korronte-harguneetarako karga-kablea.



62. irudia Korronte-harguneetarako karga-kablean: Kontrol-argiak babes-gailuan.

>>> **62. irudia**:

① Konektorearen eta korronte-horniduraren kontrol-argia.

② Elikadura-gailuaren kontrol-argia

③ Ibilgailuaren kontrol-argia

④ Matxuraren oharpen-argia

Karga-kableari buruzko informazioa

Karga-kablea erabili aurretik, kontuan izan bertan eta babes-gailuaren atzeko aldean agertzen diren oharpenak.

Babes-gailua

Babes-gailu elektronikoak >>> **62. irudia** karga-konektorea korronterik gabe uzten du ibilgailuko karga-hargunean entxufatzen den arte.

Autoegiaztatzea

Karga-kablea korronte-hargunean entxufatzen denean, babes-gailuak automatikoki autoegiaztatzea egiten du. Egiaztapen horretan, ohartarazpen- eta kontrol-argi guztiak labur pizten dira, eta bata bestearen atzetik itzaltzen dira. Bukatzean, une horretako egoera operatiboa erakutsiko da.

Funtzionamendu adierazleak

Kontrol-argi berde bat edo batzuk >>> **62. irudia** ①, ② edo ③ pizten dira.

Adierazpena >>> 62. irudia	Esanahia
① piztuta	Karga-klabea sare elektrikora konektatuta dago
①, ② piztuta, ③ dir-dir egiten du astiro>>> **89. orrialdea**	Goi-tentsioko bateria kargatzen ari da.
①, ② y ③ piztuta	Karga-prozesua amaitu da. Goi-tentsioko bateria kargatu egin da.

Karga-korrontea doitzea

Karga-kableak karga-korrontea mugatzen du, eskuragarri dagoen korronte-horniduraren arabera.

Tokiko korronte-hornidurak ez badu uzten gehieneko karga-korrontea kargatzen, karga-korrontea murriztu egin daiteke, infotainment sistemaren karga-doikuntzetako ekipamenduaren arabera. >>> **86. orrialdea**.

Tenperatura kontrolatzea

Karga-kablearen tenperatura-kontrola aktibatzen da karga-kablea gehiegi berotzen denean, adibidez, tenperatura altuetako edo eguzki-argi biziko eraginpeko maletategi batean gorde delako.

Adierazpena >>> 62. irudia	Esanahia
①, ④ dir-dir egiten dute	Etxebizitzarako konektorea asko berotu da.
②, ④ dir-dir egiten dute	Babes-gailua asko berotu da.

Karga-prozesuak korronte txikiagoarekin jarraitzen badu, funtzionamendu-adierazleaz gain, ohartarazpen-argi gorriak >>> **62. irudia** ④ dir-dir egiten du.

- Deskonektatu karga-kablea sare elektrikotik eta utzi hozten.
- Berriz ere karga-korrontea deskonektatzen edo murrizten bada eta arrazoia kanpoko bero-iturri baten eraginpean egotea ez dela ematen badu, erreparatu zein kontrol-argi berdek egiten duen dir-dir >>> **62. irudia**. Karga-kablea egiaztatzeko, joan CUPRA kontzesionario espezializatu batera edo SEAT sareko edo-

zein kontzesionariotara. Azpiegituraren konexioa egiaztatzeko, joan instalazio elektrikoetan espezializatutako establezimendu batera.

Matxura-adierazleak

Oharpen-argi ④ gorriak dir-dir egiten badu, edo pizten bada, baina kontrol-argi bat ››› 62. irudia ①, ② edo ③ funtzionamendu-adierazlea modu iraunkorrean piztuta egon gabe, matxura bat dago.

Adierazpena ››› 62. irudia	Esanahia
① dir-dir egiten du, ④ piztuta edo dir-dir egiten du	Akatsa korronte-horniduran.
② dir-dir egiten du, ④ piztuta edo dir-dir egiten du	Akatsa babes-gailuan.
③ dir-dir egiten du, ④ piztuta edo dir-dir egiten du	Akatsa ibilgailuan.

Karga-prozesua eten edo deuseztatzen da.

- Babes-gailuen atzeko aldean dauden oharrak ikustea.
- Matxurak jarraitzen badu, laguntza eskatu behar zaio profesional bati.

Oharra

Karga-prozesuan, sarean beste konexioren bat badago edo ibilgailua goi-tentsioko kableen ondoan badago, kasu batzuetan eziezkoa da korronte-hargune batean kargatzea. Sarerako konexio gehigarriak:

- **12 volteko bateriako kargagailu baten konexioa.**
- **Kontaktua sarera konektatuta dagoen lantresna batekin, adibidez, jasogailuarekin.**

Ireki eta ixtea

Ibilgailuaren giltzak

Ibilgailuaren giltza



63. irudia Ibilgailuaren giltza.

64. irudia Erdiko kontsola: ibilgailuaren giltzarako ahokalekua

① Ibilgailua desblokeatzea

② Ibilgailua blokeatzea

③ Maletategiko atea bakarrik desblokeatzea. Sakatu tekla ibilgailuaren keinukari guztiek laburki dir-dir egin arte.
2 minutu dituzu maletategiko atea irekitzeko. Denbora hori igaro ostean, berriro blokeatuko da. Horrez gain, giltzaren argiak dir-dir egiten du.

④ Kontrol-argia

⑤ Alarma-botoia. Sakatu larrialdietan bakarrik! Botoia sakatu ondoren, ibilgailuaren bozinak joko du eta keinukariak laburki argiztatuko dira. Berriro sakatuta deskonektatuko da.

Ibilgailuaren giltzarekin, ibilgailua urrutitik blokeatu eta desblokea daiteke ››› **98. orrialdea**.

Pila duen igorlea ibilgailuaren giltza barruan dago. Hargailua ibilgailuaren bidaiari-lekuan dago. Pila berria duen ibilgailuaren giltzaren irismen-eremua ibilgailuaren inguruko hainbat metrotakoa da.

Ezin bada ibilgailua giltzaz ireki edo itxi, berriz sinkronizatu ››› **93. orrialdea** edo haren pila ››› **93. orrialdea** aldatu beharko da..

Ibilgailuaren hainbat giltza erabil daitezke.

Ibilgailuaren giltzako kontrol-argiak

Ibilgailuaren giltzan botoi bat labur sakatzen denean, kontrol-argiak behin egingo du dir-dir ④ ››› **63. irudia** labur, baina, denbora luzez sakatzen bada, hainbat alditan egingo du dir-dir, adibidez, erosotasun-irekiera erabiltzean.

Ibilgailuaren giltzako kontrol-argia pizten ez bada botoia sakatzean, giltzaren pila aldatu beharko da ››› **93. orrialdea**.

Giltzarako ahokalekua

Bertsioaren arabera, giltzarako ahokaleku bat dago abio-sakagailutik gertu ››› **64. irudia**.
Adi! Ez nahastu larrialdiko abiorako kokalekuarekin ››› **164. orrialdea**.

Ordezko giltza

Ordezko giltza bat edo ibilgailuaren beste giltzak lortzeko ibilgailuaren xasis-zenbakia behar da.

Ibilgailuaren giltza bakoitzak mikrotxip bat du eta hark ibilgailuaren ibilgetzaile automatikoaren datuekin kodifikatuta egon behar du. Ibilgailuaren giltza batek ez du funtzionatuko ez badu mikrotxipik edo kodifikatu gabe badago. Hori ere aplikagarria da ibilgailurako bereziki fresatutako giltzei dagokienez.

Ibilgailuaren giltzak edo ordezko giltza berriak CUPRA Zerbitzu espezializatu batean, SEAT Zerbitzu Ofizial batean, tailer espezializatu batean edo giltza horiek egiteko baimendutako eta gaitutako zerbitzuetan eskuratu daitezke.

Giltza berriak edo ordezkoak erabili baino lehen, sinkronizatu egin behar dira ››› 93. orrialdea.

⚠ ADI

- Ez utzi inoiz haurrak edo babesgabeko pertsonak bakarrik ibilgailuaren barruan; izan ere, larrialdiren bat gertatuz gero, ezin izango lirateke ibilgailutik atera edo beren buruez baliatu.
- Hirugarrenek giltzak modu arduragabean erabiltzen badituzte, ekipamendu elektrikoren bat aktiba dezakete (beira-jasogailua, esaterako), eta horrek istripu arriskua dakar. Ibilgailuaren ateak giltzaz blokeatuta gera daitezke urrutiko agintea erabiliz, eta, larrialdiren bat gertatzekotan, laguntzea oztopatu.
- Ez utzi inoiz giltzak ibilgailuaren barruan. Hirugarrenek ibilgailua baimenik gabe erabiltzen badute kalteak eragin ditzakete eta ibilgailuaren lapurreta erraztu. Hori dela eta, eraman beti gainean giltza ibilgailutik irtetean.

KONTUZ

Ibilgailuaren giltza guztiek osagai elektronikoak dituzte. Babestu kalterik eta kolpe gogorrik jaso ez dezaten, eta babestu hezetasunetik.

Oharra

- Sakatu ibilgailuaren giltzako botoia dagokion funtzioa benetan beharrezkoa denean bakarrik. Behar ez denean botoia sakatuz gero, ibilgailua nahigabe desblokeatu edo alarmak jo dezake. Hori ere aplikagarria da jarduera-eremutik kanpo zaudela uste izan arren.
- Ibilgailuaren giltzaren funtzionamendua aldi baterako kaltetu daiteke, ibilgailutik gertu dauden eta frekuentzia-tarte berean lan egiten duten irrati-igorgailuak gainjartzeagatik, adibidez, irratiak edo telefono mugikorrak.
- Ibilgailuaren giltzaren eta ibilgailuaren arteko oztopoek, meteorologia-baldintza txarrek eta pila deskargatu samar egoteak era nabarmenean murrizten dute urrutiko agintearen irismena.
- Ibilgailuaren giltzako botoiak edo ixte sistema zentralizatuko botoietako bat ››› 98. orrialdea sakatzen badira behin eta berriro denbora labur batez, ixte-sistema zentralizatua denbora laburrez deskonektatuko da gehiegi ez kargatzeko. Orduan, ibilgailua desblokeatuta egongo da. Blokeatu beharrezkoa izanez gero.
- Zure zerbitzu teknikoak urrutiko agintea duten beste giltza batzuk eman diezazkizuke, eta horiek establezimendu berean sinkronizatu behar dira.

Giltzaren ezpata txikia ateratzea



65. irudia Ibilgailuaren giltza: ezpata txikia ateratzea

Ibilgailuaren giltzak ezpata txiki bat darama barruan, gidari-atearen larrialdiko blokeatze-/desblokeatze-kasuan hura erabiltzeko ››› 103. orrialdea.

- Sakatu ››› 65. irudia ① botoia zirgiloa irtenarazteko, giltzari gisa, eta ezpata txikia atera ahal izateko ②. Zirgiloa leunki sakatuz gero, tinko geratuko da giltzatako moduan.
- Sakatu ››› 65. irudia ① botoia blokeatzeko. Mantendu sakatuta ① botoia eta, aldi berean, tira egin zirgilotik geziaren noranzkoan ››› 65. irudia ② ezpata txikia guztiz ateratzeko.

Pila aldatzea



66. irudia Ibilgailuaren giltza: pilarako konpartimentuaren tapa irekitzea

67. irudia Ibilgailuaren giltza: pila ateratzea.

CUPRAk pila tailer espezializatu batean aldatzeko gomendatzen dizu.

Pila ibilgailuaren giltzako atzealdean dago, tapa baten azpian.

Pila aldatzea

- Ibilgailuaren giltzako ezpata txikia atera ››› 93. orrialdea.
- Sartu ezpata txikia artekan››› 66. irudia, presioa egin geziaren noranzkoan ① eta atera tapa palanka eginez ②.
- Atera pila konpartimentutik objektu fin egoki bat erabiliz ››› 67. irudia.
- Ipini eta ahokatu pila berria pilarako konpartimentuan ›››.
- Ipini tapa eta egin bultza ibilgailuaren giltzaren karkasan, ahokatu arte.

⚠ ADI

20 mm-ko diametroko pila bat edo bestelako botoi formako pila bat irensteak lesio larriak eragin ditzake, baita heriotza ere, denbora laburrean.

- **Mantendu ibilgailuaren giltza eta pilak dituzten giltzatakoak haurren irismenetik kanpo.**
- **Norbaitek agian pila bat irentsi duenaren susmoa baduzu, zoaz berehala sendagilearengana.**

KONTUZ

- **Pila behar bezala aldatzen ez bada, ibilgailuaren giltza hondatu egin daiteke.**
- **Pila desegokiak erabiltzen badira, ibilgailuaren giltza hondatu egin daiteke. Hori dela eta, agortutako pila potentzial-diferentzia, tamaina eta zehaztapen beretako pila berri batekin aldatu beti.**
- **Pila muntatzean, polaritatea egokia dela egiaztatu.**

Ingurumenari buruzko oharra

Agortutako pilak ingurumena errespetatuz deuseztatu.

Ibilgailuaren giltza sinkronizatzea

Maiz sakatzen baduzu botoia ekintza-eremutik at, baliteke ibilgailuaren giltzarekin jadanik ibilgailua blokeatu edo desblokeatzeko aukerarik ez izatea Kasu horretan, ibilgailuaren giltza berriro sinkronizatu beharko da, jarraian adierazten den moduan:

- Jarri ibilgailuaren ondoan.
- Sakatu labur bi aldiz jarraian ibilgailuaren giltzako tekla.

EDO:

- Atera larrialdiko giltza ››› 91. orrialdea.
- Sakatu giltzako tekla.
- Desblokeatu ibilgailua larrialdiko giltzarekin.

- Ireki gidariaren aldeko atea. Ibilgailuak lapurretaren aurkako alarma badu, berehala egingo piztuko da ››› 101. orrialdea.
- Konektatu pizgailua. *Kontuan hartu*: pizgailua konektatzeko, utzi ibilgailuaren giltza erdiko beso-euskarriaren erdiko tiraderako hondoan, Kessy logotik ahalik eta hurbilen. ((•)).

Honela sinkronizazioa amaituko da.

Keyless Access sistema

Desblokeatzea eta blokeatzea Keyless Access sistemarekin



68. irudia Keyless Access: hurbiltasun-zonaldeak.



69. irudia Atearen heldulekua: azalera sentsoredunak.

››› 69. irudia

Ⓐ Desblokeatzeko sentsore-azalera ateko heldulekuaren beheko aldean.

Ⓑ Blokeatzeko sentsore-azalera heldulekuaren kanpo aldean.

Ekipamenduaren arabera, ibilgailuak eduki dezake Keyless Access sistema. Giltzarik gabeko ixte- eta abio-sistema bat da eta harekin ibilgailua desblokeatu eta blokea daiteke haren giltza aktiboki erabili gabe. Horretarako, ibilgailuan sartzen saiatzean, nahikoa da dagokion antzemate-zonaldean ibilgailuko giltza baliogarri bat egotea.

Keyless Access sistema konfiguratzea

Keyless Access sistemaren jokaera infotainment sistemako **Ajustes del vehículo** menuan doi daiteke ››› 38. orrialdea.

Keyless Access funtzioa desaktibatuz gero, haren funtzionamendua mugatuko da.

Ibilgailua desblokeatzea

- Ukitu sentsorearen gainazala Ⓐ heldulekuaren barrualdean. Keinukari guztiek kliskatzen dute *bi aldiz*.

Irekiera selektiboa ekipatzen bada, sentsorearen gainazala birritan ukituz gero, ibilgailu osoa desblokeatzen da.

Ibilgailua denbora luzez desblokeatzen ez bada, funtzioa desaktibatuko da. Funtzioa berriz ere aktibo egongo da ibilgailua urrutiko agintearekin desblokeatzen den hurrengo aldian.

Ibilgailua blokeatzea

- Aparkatu ibilgailua.
- Ukitu sentsorearen gainazala ››› 69. irudia Ⓑ ateko heldulekuaren kanpoaldean. Keinukari guziek dir-dir egiten dute behin.

Ibilgailua ondo blokeatu dela egiaztatu ahal izateko, desblokeatzeko funtzioa desaktibatuta geratzen da 2 segundoz gutxi gorabehera.

Maletategiko atea desblokeatzea

Ibilgailua blokeatuta dagoenean, maletategiko atea automatikoki desblokeatzen da, ibilgailuaren hurbiltasun-eremuan giltza bat baldin badago. Maletategiko atea blokeatzen da berriz hori ixtean.

Keyless Access sistema aldi baterako desaktibatzea

“Keyless Access” sistemaren desblokeatze-funtzioa aldi baterako desaktiba daiteke:

- Ipini martxa-hautagailua **P** posizioan; bestela, ibilgailua ezingo da blokeatu.
- Blokeatu ibilgailua horren giltzako teklaren bidez.
- 5 segundo igaro baino lehenago, ukitu behin ateko heldulekuaren kanpoaldean dagoen sentsorea ››› 69. irudia Ⓑ. Hori egitean, ez heldu heldulekuari. Keyless Access sistema aldi baterako desaktibatuta geratzen da.
- Egiaztatu desaktibatu dela, ateko heldulekutik tira eginez, gutxienez 10 segundo igaro ondoren. Ezin izango da atea ireki.

Hurrengoan, ibilgailua elektronikoki baino ezin izango da desblokeatu ibilgailuaren giltzarekin. Hurrengo desblokeatzearen ostean Keyless Access sistema berriz egongo da aktibatuta ››› ⓘ.

Keyless Access sistema modu iraunkorrean desaktibatzea

Keyless Access sistema modu iraunkorrean ere desaktiba daiteke infotainment sisteman ››› ⓘ.

Erosotasun-funtzioak

Erosotasun-funtzioarekin ixteko leihatila elektriko guztiak eta beirazko sabaia, segundo batzuez eduki hatza ateko heldulekuaren ››› 69. irudia Ⓑ blokeoaren azalera sentsoredunaren gainean, leihatilak eta sabaia itxita geratu arte.

Ateko heldulekuaren azalera sentsoreduna ukitzean, **ateak irekiko dira** infotainment sisteman aktibatu diren doikuntzen arabera, > **`Vehículo`** > **`Exterior`** > **`Cierre centralizado`** funtzio-botoia erabiliz.

KONTUZ

Keyless Access sistema desaktibatuta dagoenean, maletategiko ateko sentsoreak kontrolatutako irekiera eta itxiera ere desaktibatuta daude, nahiz eta funtzioa “aktibo” agertu ibilgailuaren menuan

Oharra

- **Atzerako ispiluetarako infotainment sisteman doituta dagoen funtzioaren arabera, kanpoko atzerako ispiluak zabaldu egingo dira eta orientazio-argiak piztuko dira ibilgailua desblokeatzean, gidariaren eta gidarikidearen ateetako heldulekuan dagoen azalera sentsoredunaren bidez.**
- **Ibilgailua aldagailu automatikoz hornituta badago, ibilgailua soilik blokeatu ahal izango da aparkatze-blokeoaren botoia sakatuz P.**
- **Zure ibilgailuaren segurtasuna hobetze aldera, sistemako urrutiko agintea posizio-sentsore batekin dago hornituta. Urrutiko aginte horrek denbora-tarte jakin batean zehar mugimendurik hautematen ez badu, sistemak ulertuko du ez dagoela ibilgailua irekitzeko asmorik (esate baterako, mahai gainean, gauez), eta horrenbestez, desaktibatuta geratuko da.**

Arazoak konpontzea

Keyless Access sistema ez dabil

Sentsore-azaleren funtzionamendua mugatua izan daiteke zikinkeria handia badute.

- Garbitu sentsore-azalerak.

Keinukari guztiek dir-dir egiten dute lau aldiz

Erabilitako azken giltzak oraindik ere ibilgailuaren barruan dago.

- Kendu giltza eta blokeatu ibilgailua.

Sentsore-azalerak automatikoki desaktibatzea

Sentsore-azalerak hurrengo kasuetan desaktibatzen dira:

- Ibilgailua denbora luzean ez bada desblokeatzen edo blokeatzen.
- Sentsore-azaleraren bat modu ezohikoan aktibatzen bada.

Sentsore-azalerak berriro aktibatzeko:

- Desblokeatu ibilgailua ibilgailuko giltzaren tekla bidez.

KONTUZ

Ateetako heldulekuen sentsore-azalerak aktibatu egin daitezke presio handiko ur-zurrusta bat edo lurrun-zurrusta bat jasotzean, hurbiltasun-eremuan ibilgailuaren giltza baliozko bat egotekotan. Leihatilaren bat gutxienez irekita egonik, heldulekuetako bateko sentsore-azalak modu iraunkorrean aktibatzen badira, leihatila guztiak itxiko dira. Ur- edo lurrun-zorrotada heldulekuetako baten azalera sentsoreetatik labur aldenduz gero eta haietara begira berriro jarriz gero, leihatila guztiak ireki ahal izango lirateke.

Oharra

Tresnen koadroko pantailan `Sistema Keyless averiado` mezua erakusten bada, Keyless Access sistemaren funtzionamenduan anomaliak gerta daitezke. Joan tailer espezializatu batera.

Oharra

Ibilgailuaren barruan horren giltzarik ez badago edo sistemak ez badu antzematen, ohar bat agertuko da tresnen-koadroko pantailan. Hori gerta liteke irrati-maiztasuneko beste seinale batek giltzaren seinalea interferitzen badu edo giltza objekturen batekin tapatuta badago, esate baterako, metalezko maleta batekin.

Ixte-sistema zentralizatua

Gaiaren aurkezpena

Ixte-sistema zentralizatuak behar bezala funtzionatzen du maletategiko atea eta gainontzeko ate guztiak guztiz itxita daudenean. Gidariaren atea irekita baldin badago, ibilgailua ezin izango da ibilgailuaren giltzarekin blokeatu.

ADI

Ixte-sistema zentralizatuaren erabilera desegokiak lesio larriak sor ditzake.

- **ixte-sistema zentralizatuak ate guztiak blokeatzen ditu. Barnetik blokeaturiko ibilgailu batek, baimena ez duten pertsonek ateak kanpotik ireki ditzatela eta ibilgailura sartzea ekidin dezake. Hala ere, larrialdi edo istripu kasuetan, blokeaturiko ateek ibilgailura sartu eta bertan daudenei laguntzea oztopatzen dute.**
- **Ez utzi inoiz haurrak edo babesgabeko pertsonak ibilgailuaren barruan. Ixte-sistema zentralizatuaren botoiak ate guztiak barrutik blokeatzeko aukera ematen du. Horrekin, ibilgailuan doazen pertsonak giltzapeturik geratuko dira. Ibilgailuan giltzaperaturiko pertsonek tenperatura oso altuak edo baxuak paira ditzakete.**
- **Urtaroaren arabera, itxita dagoen ibilgailu batean oso tenperatura altuak edo baxuak sor daitezke eta horiek lesio larriak eta gaixotasunak eta heriotza ere eragin ditzakete, bereziki haur txikiengan.**
- **Inoiz ez utzi inor bakarrik blokeaturiko ibilgailu baten. Larrialdirik balego baliteke pertsona horiek beren kabuz ibilgailutik ezin irtetea edo laguntzarik jaso ahal ez izatea.**

Deskribapena

Ixte-sistema zentralizatuak ate guztiak, maletategiko atea eta erregai-tangaren tapa blokeatu eta desblokeatzeko aukera ematen du, era zentralizatuan:

Ibilgailu hibridoak: erregai-andelako tapa ez da desblokeatzen ixte-sistema zentralizatuarekin ››› 322. orrialdea.

- Kanpoaldetik, ibilgailuko giltzarekin ››› 98. orrialdea.
- Kanpoaldetik, Keyless Access sistemarekin ››› 94. orrialdea.
- Barrualdetik, ixte-sistema zentralizatuko botoiarekin ››› 98. orrialdea.

Oharkabeko irekieraren ondoriozko auto-blokeatze-sistema

Lapurreten aurkako segurtasun-sistema bat da, eta ibilgailua deskuidu batengatik irekita uztea saihesten du. Ibilgailua automatikoki blokeatuko da, desblokeatu eta 45 igaro ostean, ez bada aterik eta maletategiko atea irekitzen.

Blokeo automatikoa (Auto Lock)

Gutxi gorabehera 15 km/h-ko (9 mph) abiaduratik aurrera, ibilgailua automatikoki blokeatzen da. Erregai-tangaren tapa desblokeatuta geratzen da, ibilgailutik jaitsi gabe depositua bete ahal izateko.

Ibilgailu hibridoak: erregai-andelako tapak blokeatuta jarraitzen du ››› 322. orrialdea.

Ibilgailua blokeatuta dagoelarik, ixte-sistema zentralizatuko 🔒 tekla horia pizten da.

Desblokeatze automatikoa (Auto Lock)

Baldintza hauetakoren bat betetzen bada, ate guztiak eta maletategiko atea automatikoki desblokeatzen dira:

- Aparkatzeko balazta elektronikoa konektatuta dago, eta pizgailua deskonektatuta.
- **EDO**: ateko barruko heldulekutik tira egin da. Baliozkoa da 15 km/h (9 mph) baino gutxiagoko abiaduran ibiltzen bada.
- **EDO**: istripua gertatuz gero, airbagen bat zabaldu da ››› 100. orrialdea.

Desblokeatze automatikoak aukera ematen die hirugarren pertsonei ibilgailuan sartzeko, behar izanez gero laguntza emateko.

Keinukariak

Keinukariek dir-dir egingo dute bitan, desblokeatzean, eta behin, blokeatzean.

Ez badu dir-dir egiten, horrek esan nahi du ate bat, atzeko atea edo kapota ez dagoela itxita.

Ibilgailua nahi gabe ixtea

Honako kasu hauetan ez da itxiko giltza ibilgailuan utzi baduzu:

- Gidariaren atea irekita badago, ibilgailua ez da blokeatuko ixte-sistemako kommutadorea erabiltzean ››› 98. orrialdea.

Blokeatu zure ibilgailua urrutiko kontroleko giltzarekin ate guztiak eta atzeko atea itxita daudenean. Horrela, ibilgailua nahi gabe ixtea saihestuko duzu.

Ixte-sistema zentralizatuaren doikuntzak

Infotainment sisteman ixte zentralizatuaren doikuntzak egin daitezke.

Ate-desblokeatze selektiboa

- Sakatu funtzio-botoi hau 🚗 > **`Vehículo`** > **`Exterior`** > **`Cierre cent.`** > **`Ateak desblokeatzea`**.

Ateak desblokeatzean, ate **guztiak** edo **gidariaren atea** desblokeatzea erabaki ahal duzu. Aukera guztietan, erregai-tangaren estalkia ere desblokeatuko da.

Conductor doikuntzarekin, urruneko kontrolaren giltzako 🔓 tekla behin sakatuz, gidariaren atea soilik desblokeatzen da. Aipatutako tekla bitan sakatzen baduzu, gainontzeko ateak eta atzeko atea desblokeatuko dira.

🔒 tekla sakatuz ate guztiak blokeatzen dira. Aldi berean, baieztapen-seinale bat entzungo da.

Oharra

- **Ez utzi objektu baliotsurik ibilgailuaren barruan. Itxita egon arren, ibilgailua ez da kutxa gotor bat!**
- **Blokeoaren ondoren, gidariaren ateko atalasean dagoen LED argiak 30 segundo inguruz piztuta egoteak ixte-sistema zentralizatuaren funtzionamenduan edo lapurreten aurkako alarman anomalia bat dagoela adierazten du. Mesedez, matxura konpondu CUPRA Zerbitzu espezializatu batean, SEAT Zerbitzu Ofizial batean edo tailer espezializatu batean.**
- **Lapurreten aurkako alarmak bidaiari-lekua zuzen zainduko du baldin eta leihatilak eta sabaia itxi badira bakarrik.**

Giltzarekin desblokeatzea eta blokeatzea



70. irudia Urrutiko kontroleko giltza: teklak.

- Blokeatzea: sakatu 🔒 >>> **70. irudia** botoia.
- "Safe" segurtasun-sistema erabili gabe blokeatzea ibilgailua: sakatu bigarren aldiz 🔒 botoia hurrengo bi segundoan.
- Desblokeatzea: sakatu 🔓 botoia.
- Maletategiko atea desblokeatzea: sakatuta eduki 🚗 botoia segundo batez gutxienez.

Ibilgailua desblokeatzen bada eta ez bada inolako aterik edo atzeko atea irekitzen 45 segundoko epean, ibilgailua automatikoki blokeatuko da berriz. Funtzio horri esker, ibilgailua ez da betiko desblokeatuta geratuko nahi gabe. Horrek ez du balio 🚗 tekla sakatuta mantentzen bada gutxienez segundo batez.

Desblokeatze selektiboaren sistema

Desblokeatze selektiboaren sistemari esker, gidariaren atea eta erregai-tangaren estalkia bakarrik desblokea daitezke. Ibilgailuaren gainontzeko zatiak blokeatuta egongo dira.

Gidariaren atea eta andeleko tapa desblokeatzea:

- Sakatu behin urrutiko kontrol bidezko giltzaren 🔓 tekla, edo biratu giltza behin irekiera-noranzkoan.

Ate guztiak, maletategiko atea eta andeleko tapa desblokeatzea:

- 5 segundoko epean, sakatu bi aldiz urrutiko kontrol bidezko giltzaren 🔓 tekla, edo biratu giltza bi aldiz 5 segundoko epean irekiera-noranzkoan.

Gidariaren atea soilik irekitzean, "Safe" segurtasun-sistema eta lapurreten aurkako alarma desaktibatuko dira berehala.

Infotainment sistema duten ibilgailuetan, segurtasunaren ixte-sistema zentralizatua zuzenean doi dezakezu >>> **96. orrialdea**.

⚠ ADI

Kontuan izan segurtasun-oharpenak
>>> **99. orrialdea**, ***Safe segurtasun-sistema***.

ⓘ Oharra

- **Sakatu urrutiko kontrolaren giltza ibilgailua ikusten duzunean bakarrik.**
- **Urrutiko kontroleko giltzaren beste funtzio batzuk >>> 109. orrialdea, Leihatilak ireki eta ixtea.**

Barrutik desblokeatzea eta blokeatzea

71. irudia Erdiko kontsolan: ixte-sistema zentralizatuaren kommutadorea

- Blokeatzea: sakatu 🔒 >>> **71. irudia** botoia.
- Desblokeatzea: sakatu 🔓 >>> **71. irudia** botoia berriz.

Zure ibilgailua blokeatzen bada ixte-sistema zentralizatuaren etengailuarekin, honako hau kontuan hartu beharko da:

- Ezin dira ateak eta maletategiko atea ireki *kanpoaldetik* (segurtasun-arrazoiak direla-eta, adibidez, semaforo baten aurrean geratzea).
- Ixte-sistema zentralizatuaren agintearen argi-diodoa argiztatuko da ate guztiak itxi eta blokeatu direnean.
- Ateak barrutik ireki daitezke bakoitza bere aldetik, atea irekitzeko palankatik tira eginez.
- Erregai-tangaren estalkiak desblokeatuta egoten jarraitzen du.

Ibilgailu hibridoak: erregai-tangaren estalkiak desblokeatuta egoten jarraitzen du ››› 322. orrialdea.

- Horrez gain, istripu batean airbagak irekiz gero, barrutik blokeatutako ateak automatikoki desblokeatuko dira, kanpoaldetik ibilgailuaren barrualdean lagundu ahal izateko.

⚠ ADI

- **Ixte-sistema zentralizatuaren kommutadoreak kontaktua deskonektatuta ere funtzionatzen du, "Safe" segurtasun-sistema aktibatuta dagoenean izan ezik.**
- **Ixte-sistema zentralizatuko kommutadoreak ez du funtzionatuko ibilgailua kanpoaldetik blokeatzen bada segurtasun-sistema konektatuta dagoela.**
- **Ateak blokeatuta badaude, zaila izango da kanpotik laguntzea larrialdia izanez geroz. Ez utzi inoiz inor ibilgailuaren barruan, batez ere umeak.**

Oharra

Zure ibilgailua automatikoki blokeatuko da 15 km/h (9 mph) abiadurara iristean (Auto Lock) ››› 96. orrialdea. Ibilgailua berriz desblokea dezakezu ixte-sistema zentralizatuaren kommutadorearen 🔒 teklarekin.

"Safe" segurtasun-sistema

Ekipamenduaren arabera, ibilgailuak "Safe" segurtasun-sistema eduki ahal du.

Ibilgailua blokeatuta dagoenean, "Safe" segurtasun-sistemak ateetako heldulekuen funtzionamendua bertan behera uzten du, eta, horrela, hirugarrenek ibilgailura sartzeko saiakerak egitea zailtzen du. Ateak dagoeneko ezingo dira barnetik ireki ››› ⚠.

Desaktibatu "Safe" sistema

"Safe" segurtasun-sistema honela desaktiba daiteke:

- Sakatu berriro ibilgailuaren giltzako 🔒 tekla **2 segundoan**.
- Ukitu berriro ateko heldulekuaren kanpoaldeko sentsore-azalera **2 segundoan** ››› 94. orrialdea.
- Konektatu pizgailua.
- **EDO**: desaktibatu bidaiari-lekuaren zaintza-sistema eta atoien aurkako sistema ››› 101. orrialdea.

Ekipamenduaren arabera, ibilgailua blokeatu baino lehenago, desaktibatu behinik-behin bidaiari-lekuaren zaintza-sistema eta atoien aurkako sistema, infotainment sistemako **Ajustes del vehículo** menuan ››› 101. orrialdea.

Tresnen koadroan "Safe" segurtasun-sistema aktibo dagoela adierazten duen ohar bat ager daiteke.

"Safe" segurtasun-sistema desaktibatuta dagoenean, honako hau kontuan izan behar da:

- Ibilgailua barrutik desblokeatu eta ireki daiteke atearen heldulekuaren bitartez.
- Lapurreten aurkako alarma aktibaturik dago ››› 101. orrialdea.
- Bidaiari-lekuaren zaintza-sistema eta atoien aurkako sistema desaktibaturik daude ››› 101. orrialdea.

"Safe" sistemaren egoera

Atearen atalasean diodoak egiten duen keinadaren maiztasunak prozesua berresten du berehala. Hasieran, diodoa labur aritzen da keinuka, sekuentzia azkar batean; ondoren, itzali egiten da 30 segundoz, gutxi gorabehera, eta, azkenik, motel jarraitzen du keinuka.

⚠ ADI

"Safe" segurtasun-sistema zabarkeriaz edo behar bezalako arretarik gabe erabiltzen bada, lesio larriak sor daitezke.

- **Ez utzi inoiz inor ibilgailuaren barruan giltzaz blokeatzen duzunean. "Safe" segurtasun-sistema aktibatuta dagoenean, ateak ezin dira ireki barrutik!**

Oharra

Gidariaren atea ibilgailuaren giltzarekin eskuz desblokeatzen bada, ate hori soilik desblokeatzen da, ez eta ibilgailu guztia. Pizgailua konektatzean, ate guztien "Safe" segurtasun-sistema desaktibatuko da (ateak blokeatuta jarraitu arren) eta ixte-sistema zentralizatuaren tekla aktibatuko da.

Arazoak konpontzea

Kontrol-argia piztuta mantentzen da

Gidariaren aldeko ateko diodo argitsu gorriak (LED) dir-dir egiten du tarte laburretan, eta, ondoren, piztuta geratzen da. Matxura bat dago ixteko sisteman.

- Joan tailer espezializatu batera. CUPRAk CUPRA kontzesionario batera joatea gomendatzen du kasu horretan.

Keinukariek ez dut dir-dir egiten

Ibilgailua blokeatzean keinukariek ez badute dir-dir egiten berrespen gisa:

- Ateetako bat edo maletategiko atea ez daude itxita, **edo**
- Motorreko kapota ez dago itxita.

Ibilgailu automatikoki blokeatzen da

Hurrengo baldintzetako bat betetzen bada, ibilgailua automatikoki blokeatzen da 45 segundo inguru ondoren.

- Ibilgailua desblokeatu da, baina ez da ireki.
- Pizgailua ez da konektatu.
- Maletategiko atea ez da ireki.
- Ibilgailua desblokeatu da sarrailako bonbinaren bidez.
- Ibilgailua blokeatu da bidaiari-lekuko botoiarekin.

Zer gertatzen da ibilgailua bigarren giltza batekin blokeatzen bada?

Ibilgailuaren barruan dagoen giltza blokeatuta geratzen da motorra abiarazteko, bigarren giltza batekin ibilgailua kanpotik blokeatzen denean. Ibilgailuaren barruan dagoen giltza prestatzeko motorra abiarazteko, sakatu haren 🔒 tekla.

Ibilgailua blokeatzea, airbag bat ireki ondoren

Airbagaren bat irekitzen bada istripu baten ondorioz, ibilgailua guztiz desblokeatuko da. Kalteen irismenaren arabera, ibilgailua berriro blokea daiteke istripuaren ondoren, jarraian deskribatzen den bezala:

- Deskonektatu motorraren pizgailua.
- Ireki gidariaren aldeko atea eta itxi berriro.
- Blokeatu ibilgailua.

Oharra

12 volteko bateriak karga txikia badu edo deskargatuta badago, edo ibilgailuaren giltzaren botoi-pila ia agortuta edo agortuta badago, baliteke ibilgailua ezin desblokeatzea edo blokeatzea Keyless Access sistemarekin. Ibilgailua eskuz desblokea eta blokea daiteke **>>> 103. orrialdea.**

Oharra

Ibilgailuaren barruan balio duen ibilgailu-giltzarik ez badago edo sistemak giltza hori detektatzen ez badu, horri buruzko ohar bat agertuko da tresnen koadroan. Hori gerta liteke irrati-maiztasuneko beste seinale batek giltzaren seinalea interferitzen badu edo giltza objekturen batekin tapatuta badago, esate baterako, metalezko maleta batekin.

Lapurreten aurkako alarma

Deskribapena

Ekipamenduaren arabera, ibilgailuak lapurreten aurkako sistema izan dezake.

Lapurreten aurkako alarmak ateak, motorreko kapota eta maletategiko atea zaintzen ditu.

Lapurreten aurkako alarma automatikoki aktibatzen da ibilgailua blokeatzean.

Ibilgailua ez bada elektronikoki irekitzen giltza baliodun batekin, alarma pizten da eta seinale akustikoak eta argi-seinaleak igortzen ditu 5 minutu gehienez.

Zein kasutan pizten da lapurreten aurkako alarma?

- Ibilgailuaren giltzarekin mekanikoki desblokeatutako ate bat irekitzen bada, 15 segundo daude pizgailua konektatzeko alarma piztu aurretik (merkatuen arabera, itxaroteko 15 segundoak desagertu egiten dira eta alarma berehala aktibatzen da atea irekitzean).
- Motorreko kapota irekitzen bada.
- Maletategiko atea irekitzen bada.
- Ibilgailuaren giltza baliogabea erabiltzen bada.
- Ibilgailuaren barruan mugimenduak badaude (bidaiari-lekuko zaintza duten ibilgailuetan ››› **101. orrialdea**).
- Ibilgailua altxatzen edo atoian eramaten bada (atoiaren aurkako sistema duten ibilgailuetan ››› **101. orrialdea**).
- Ibilgailua transbordadore batean edo trenbidez garraiatzen bada (atoiaren aurkako sistema edo bidaiari-lekuko zaintza duten ibilgailuetan) ››› **101. orrialdea**).
- 12 volteko bateriari borneak kentzen bazaizkio.
- Luneta apurtzen bada.
- Lapurreten aurkako alarmarekin konektatutako atoia askatzen bada.

Alarma deskonektatzea

- Desblokeatu ibilgailua, horren giltzako desblokeatze-teklaren bidez.
- Heldu atearen heldulekuari.
- Konektatu pizgailua. *Kontuan izan*: pizgailua konektatzeko, utzi ibilgailuaren giltza larrialdiko-abioa egiteko aurreikusitako eremuan.

Oharra

• 28 egun igaro ondoren, lekukoa itzali egingo da ibilgailua denbora luzez aparkatuta uztean bateria agortu ez dadin. Alarma-sistemak aktibatuta jarraitzen du.

• Zaintzapeko beste zonalde batera sartuz gero (esate baterako, ate bat ireki ondoren maletategia irekitzen bada), soinu-seinalea itzali ostean, berriro piztuko da alarma.

• Lapurreten aurkako alarma ez da aktibatzen ibilgailua ixte-sistema zentralizatuaren botoiarekin barnetik blokeatzen bada.

• Gidariaren atea giltzarekin mekanikoki desblokeatzen bada, ate hori soilik desblokeatuko da, ez eta ibilgailu guztia. Pizgailua soilik konektatzean geratuko dira ate guztiak segurtagailurik gabe, baina ez desblokeatuta, eta ixte-sistema zentralizatuaren sakagailua aktibatu egingo da.

• Ibilgailuaren zaintza ez da desaktibatzen bateria-borneak kenduta edo hondatuta egon arren, baldin eta alarma aktibatuta badago.

Bidaiari-lekuaren zaintza eta atoien aurkako sistema

Bidaiari-lekuan mugimenduak detektatzen badira, ibilgailua blokeatuta dagoela, bidaiari-lekuaren zaintzak alarma pizten du.

Ibilgailua igotzen ari dela antzematen bada, atoiaren aurkako sistemak alarma pizten du.

Bidaiari-lekuaren zaintza eta atoien aurkako sistema konektatzea

- Blokeatu ibilgailua. Lapurreten aurkako alarma aktibatuta dagoenean, bidaiari-lekuaren zaitza eta atoiaren aurkako sistema ere aktibatuta daude.

Ekipamenduaren arabera, banaketa-sare bat erabiltzeak bidaiari-lekuaren zaintzaren funtzionamendua murriztu dezake.

Bidaiari-lekuaren zaintza eta atoien aurkako sistema aldi baterako deskonektatzea

- Ireki ibilgailua giltzarekin, mekanikoki edo urrutiko agintearen tekla sakatuz. Atea irekitzen denetik pizgailua pizten den arte igarotzen den denborak ez du 15 segundotik gorakoa izan behar; bestela, alarma piztuko da.
- Sakatu bi aldiz urrutiko ginteko tekla. Bidaiari-lekuaren zaintza eta atoien aurkako sistema desaktibatuko dira. Alarma-sistemak aktibatuta jarraitzen du.

Infotainment sistemaren bidez deskonektatzea

- Sakatu > **Vehículo** > **Exterior** > **Cierre centralizado** > **Vigilancia del habitáculo** funtzio-botoia.

Bidaiari-lekuaren zaintza eta atoien aurkako sistema desaktibatuta egongo dira ibilgailua blokeatzen den hurrengo aldira arte.

Bidaiari-lekuaren zaintza eta atoien aurkako sistema irteerako menuan ere deskonekta daitezke. Horretarako, pizgailuak deskonektatuta egon behar du ››› 160. orrialdea.

Alarma faltsuak saihesteko, desaktibatu bidaiari-lekuaren zaintza eta atoien aurkako sistema ondorengo egoeretan:

- Ibilgailuaren barruan pertsonak edo animaliak geratzen direnean.
- Ibilgailua beste garraiobide batean kargatu, garraiatu edo atoian eraman behar denean.
- Ibilgailua garbiketa-tunel batean utzi behar denean edo bi altuerako garaje-plaza batean aparkatu behar denean.

Bidaiari-lekua zaintzaren alarma faltsuen arriskua

Bidaiari-lekuaren zaintzak behar bezala funtzionatuko du ibilgailua erabat itxita baldin badago soilik. Kontuan eduki legezko xedapenak. Honako egoera hauetan, alarma faltsu bat gerta daiteke:

- Leihatila bat edo batzuk partzialki edo erabat irekita dauden.
- Sabaia panoramikoa/deflektorea partzialki edo erabat irekita daude.
- Ibilgailuan objektu arinak uzten badira, adibidez, paperak edo zintzilikariak barruko atzerako ispiluan.
- Ibilgailuaren barruan utzitako telefono mugikor baten bibrazio-funtzioa aktibatzen bada.

Oharra

- **Ezin dira betirako desaktibatu bidaiari-lekuaren zaintza eta atoien aurkako sistema.**
- **Lapurreten aurkako alarma aktibatzen denean ateren bat edo maletategiko atea oraindik irekita badago, alarma aktibatuko da soilik. Ate guztiak eta maletategiko atea itxi ondoren baino ez dira aktibatuko bidaiari-lekuaren zaintza eta atoien aurkako sistema.**
- **Bidaiari-lekuaren zaintza eta atoien aurkako sistema deskonektatzen direnean, "Safe" ››› 99. orrialdea segurtasun-sistema ere desaktibatzen da.**

Ateak

Aurkezpena

Ateak eta maletategiko atea eskuz blokeatu eta partzialki desblokea daitezke, adibidez, giltza edo ixte-sistema zentralizatua hondatzen bada.

ADI

Larrialdietako irekitzeak edo ixteak arreta jarri gabe egiten badira, lesio larriak eragin daitezke.

- **Zure ibilgailua kanpotik blokeatzen bada, ateak eta leihatilak ezingo dira barrutik ireki.**
- **Ez utzi inoiz haurrak edo babesgabeko pertsonak ibilgailuaren barruan. Larrialdiaren bat gertatuz gero, ezingo lirateke ibilgailutik atera edo beren buruez baliatu.**
- **Urtaroaren arabera, itxita dagoen ibilgailu batean oso tenperatura altuak edo baxuak sor daitezke eta horiek lesio larriak eta gaixotasunak eta heriotza ere eragin ditzakete, bereziki haur txikiengan.**

⚠ ADI

Ateen eta atzeko atearen mugimendua arriskutsua da eta lesioak eragin ditzake.

- **Ireki edo itxi ateak eta atzeko atea beren ibilbidean inor ez badago bakarrik.**

ⓘ KONTUZ

Larrialdietako itxiera edo irekiera bat egindakoan, desmuntatu kontu handiz eta muntatu berriz zuzen ibilgailuaren osagaiak, kalterik ez eragiteko.

Gidariaren ateko larrialdiko blokeatzea eta desblokeatzea



72. irudia Gidariaren aldeko ateko heldulekua: ixteko zilindroa.

Ixte-sistema zentralizatuak funtzionatzeari uzten badio, gidariaren atea desblokeatu eta blokeatu ahal izango da giltza ateko sarrailan sartuz.

Gidariaren atea eskuz blokeatzean, oro har, ate guztiak blokeatuko dira. Eskuz blokeatzen denean, gidariaren atea bakarrik desblokeatuko da. Kontuan izan lapurreten aurkako alarma-sistemari dagozkion jarraibideak ››› **101. orrialdea**.

- Atera ibilgailuaren giltzako ezpata txikia ››› **92. orrialdea**.
- Sartu ezpata txikia ixteko zilindroan, eta ibilgailua desblokeatu edo blokeatu.

Zehaztasunak

- Lapurreten aurkako alarma aktibatuta egoten da desblokeatutako ibilgailuetan. Hala ere, alarmak ez du jotzen ››› **101. orrialdea**.
- Gidariaren atea irekitzen denean, 15 segundo dituzu motorra pizteko. Denbora hori igarota, alarmak joko du.
- Konektatu pizgailua. Ibilgetzaile elektronikoak giltza baliozkoa dela egiaztatuko du eta lapurreten aurkako alarma desaktibatuko du.

ⓘ Oharra

Lapurreten aurkako alarma ez da aktibatuko ibilgailua ezpata txikiarekin eskuz blokeatzean ››› **96. orrialdea**.

Ixte-zilindrorik gabeko ateetako larrialdietako blokeoa

73. irudia Atearen larrialdietako blokeoa.

Ixte-sistema zentralizatua matxuratzen bada, ixteko zilindrorik ez duten ateak banan-banan blokeatu behar dira.

Gidarikidearen ateko eta atzeko ateen aurrealdean aurkituko dugu larrialdietako blokeoa. Atea irekita badago bakarrik ikusten da.

- Hala badagokio, kendu gomazko juntura 🔒 ateko aurrealdetik ››› **73. irudia**.
- Sartu giltza barruan dagoen zirrikituan eta biratu eskuinera (eskuineko atea) edo ezkerrera (ezkerreko atea) toperaino.
- Jarri berriz estalkia.

Atea itxi ondoren ezingo da kanpotik ireki. Atea desblokeatu eta, aldi berean, barrutik ireki daiteke irekitzeko palankatik behin tira eginez.

Haurrentzako segurtagailua

74. irudia Ezker ateko haurrentzako segurtagailua.

Haurrentzako segurtagailuak barnetik atzeko ateak ireki daitezela ekiditen du. Ibilgailua martxan den bitartean adin txikikoek nahigabean ate bat ireki dezatela ekiditea da haren helburua.

Funtzio hori ibilgailua ireki eta ixteko sistema elektronikoez apartekoa da. Atzeko ateetan soilik du eragina. Mekanikoki soilik aktiba edo desaktiba daiteke, jarraian deskribatzen den moduan:

Haurrentzako segurtagailua aktibatzea

- Desblokeatu ibilgailua, eta, zer ateri jarri nahi diozun segurua, hura ireki.
- Atea irekita dagoela, biratu arteka ibilgailuaren giltzarekin ordulariaren noranzkoan, ezker ateetarako ››› **74. irudia** eta ordulariaren aurkako noranzkoan, eskuin ateetarako.

Haurrentzako segurtagailua aktibatuta dagoenean, atea kanpotik baino ezin da ireki.

Haurrentzako segurtagailua desaktibatzea

- Desblokeatu ibilgailua, eta, zer ateri kendu nahi diozun segurua, hura ireki.
- Atea irekita dagoela, biratu arteka ibilgailuaren giltzarekin ordulariaren aurkako noranzkoan, ezker ateetarako ››› **74. irudia** eta ordulariaren noranzkoan, eskuin ateetarako

Maletategiko atea

Gaiaren aurkezpena

Maletategiko atea desblokeatu eta blokeatu egiten da ateekin batera.

Keyless Access giltzarik gabeko ixte- eta abio-sistema duten ibilgailuetan, maletategiko atea irekitzean automatikoki desblokeatzen da ››› **94. orrialdea**.

⚠ ADI

Maletategiko atea desegoki edo kontrolik gabe blokeatu, ireki edo ixteak istripu eta lesio larriak eragin ditzake.

- **Ez itxi maletategiko atea luneta gainean eskuarekin presioa eginez. Luneta hautsi egin daiteke, lesioak izateko arriskuarekin.**
- **Maletategiko atea itxi ondoren, ziurtatu blokeatuta geratu dela, izan ere, bestela ustekabean ireki daiteke ibilbidean zehar.**
- **Ez sekula itxi maletategiko atea arreta ipini gabe edo kontrolik gabe, izan ere, lesio larriak sorraraz ditzakezu zuregan edo hirugarrenengan. Ziurtatu beti maletategiko atearen ibilbidea inork ez dezala oztopatu.**
- **Ez sekula bidaiatu maletategiko atea erdi irekita edo irekita dagoela, izan ere, autoaren barnera, ihes-gasa sar liteke. Intoxikazio-arriskua!**
- **Ez ireki inoiz maletategiko atea bertan karga finkatuta eramaten baduzu, adibidez, bizikletak. Baliteke atea bere kabuz ixtea pisu gehigarriagatik. Hala badagokio, eutsi ateari edo kendu karga aldez aurretik.**
- **Ez utzi sekula ibilgailua zaintzarik gabe eta ez utzi haurrak barnean edo haren alboan jolas daitezen, batez ere maletategiko atea irekita baldin badago. Haurrak maletategian sartu, maletategiko atea itxi eta irten ezinda gera daitezke. Itxitako ibilgailu bat izugarri berotu edo hoztu daiteke, urteko sasoiaren arabera, eta, horren ondorioz, lesio larriak, gaixotasunak edota heriotza bera ere gerta daitezke.**

KONTUZ

- **Maletategiko atea ireki edo itxi aurretik, ziurtatu ireki edo ixteko behar adina espazio dagoela, esate baterako, atoi bat daramanean krokatuta edo garaje batean sartuta baldin badago.**
- **Ez erabili inoiz luneta-garbigailua edo atzeko espilerra karga finkatzeko edo heltzeko. Horrek luneta-garbigailua edo espilerra haustea eragin lezake.**

Oharra

Maletategiko atea itxi baino lehen, ziurtatu giltza barruan ahaztu ez duzula.

Maletategiko atea irekitzea eta ixtea



75. irudia Maletategiko atea: kanpotik irekitzea.

Maletategiko atea irekitzeko sistemaren funtzionamendua elektrikoa da.

Maletategiko atea blokeatzeko edo desblokeatzeko, sakatu ibilgailuaren giltzaren edo tekla.

Ireki eta ixtea

- *Irekitzea:* egin presio txiki bat heldulekuan. Automatikoki irekiko da. ››› **75. irudia**.
- *Ixtea*: barruko estaldurako heldulekuetako batetik eutsi maletategiko atea, eta itxi beherantz mugituz.

EDO: sakatu maletategiko atean dagoen tekla ››› **76. irudia**.

Ateak blokeatuta badaude, maletategiko atea ere blokeatzen da.

Maletategiko atea irekita edo gaizki itxita badago, abisua ikusiko da tresnen koadroko pantailan.

Maletategiko atea automatikoki blokeatzen da ibilgailua abian dagoen bitartean.

Kanpoko tenperatura izozte-puntuaren inguruan dagoenean, irekitzeko mekanismoak ezin du beti automatikoki altxatu zati batean irekita dagoen maletategiko atea. Altxatu maletategiko atea eskuarekin.

Oharra

Atea desblokeatu eta minutu gutxi barru irekitzen ez bada, atea automatikoki blokeatzen da berriro.

Irekitze eta ixte elektrikoak dituen atzeko maletategiko atea



76. irudia Maletategiko atea: maletategiko atea ixteko tekla.

77. irudia Gidariaren atean: maletategiko atea ireki eta ixteko tekla.

Maletategiko atea irekitzea

- Desblokeatu ibilgailua eta sakatu labur maletategiko ateko heldulekuan. Keyless Access duten ibilgailuetan maletategiko ateko heldulekua saka dezakezu zuzenean. Maletategiko atea desblokeatu egiten da ibilgailutik hurbil baimendutako giltza bat hautematen bada.
- **EDO:** tira egin gorantz gidariaren ateko teklatik ››› **77. irudia**. Teklak pizgailua deskonektatuta dagoenean ere funtzionatzen du.
- **EDO:** eduki sakatuta ibilgailuko giltzaren tekla segundo 1 inguru. Ibilgailua blokeatuta badago, maletategiko atea soilik desblokeatzen da (ateak blokeatuta mantentzen dira).
- **EDO:** Keyless Access eta sentsoreen bidezko kontrolatutako irekitze-sistema dituzten ibilgailuetan, maletategiko atea ireki daiteke oin bat mugituz sentsoreen zonaldean, atzeko kolpeleungailuaren azpian (Easy Open ››› **107. orrialdea**). Maletategiko atea automatikoki irekitzen da.

Maletategiko atea ixtea

- Sakatu labur maletategiko ateko tekla ››› **76. irudia**, ››› **104. orrialdeko** ⚠ (***Gaiaren aurkezpena***).
- **EDO:** tira egin gorantz gidariaren ateko teklatik ››› **77. irudia** (pizgailua konektatuta soilik).
- **EDO:** Keyless Access duten ibilgailuetan, eduki sakatuta ibilgailuko giltzaren tekla maletategiko atea itxita egon arte, edo mugitu oin bat sentsoreen zonaldean, atzeko kolpeleungailuaren azpian (Easy Open ››› **107. orrialdea**). Ibilgailuko giltzak Keyless Access sistemako detektatze-zonaldean egon behar du, ibilgailuaren atzealdean eta kanpoaldean.
- **EDO:** mugitu maletategiko atea eskuarekin ixteko norabidean automatikoki ixten den arte.
- Maletategiko atea automatikoki jaisten da azken posizioraino eta automatikoki ixten da orain ere ››› **104. orrialdeko** ⚠ (***Gaiaren aurkezpena***).

Irekiera edo itxiera etetea

Behin hasita maletategiko atearen irekitzea eta ixtea, eten ahal dira tekletako bat sakatuz.

tekletako bat berriro sakatzen baduzu, maletategiko atea mugituko da berriz irteera-norabidean.

Irekiera edo itxiera automatikoan zehar maletategiko ateak erresistentzia edo oztoporen bat topatzen badu, irekiera- edo itxiera-prozesua eten egingo da berehala. Itxiera-prozesuaren kasuan, maletategia berriro irekitzen da pixka bat.

- Egiaztatu maletategia zergatik ezin izan den ireki edo itxi.
- Saiatu maletategia berriro ireki edo ixten.
- Beharrezkoa bada, maletategia eskuarekin ireki edo itxi daiteke indar asko eginez.

Berezitasunak, atoi bat eramaten bada

Fabrikan muntatutako atoi-gailua atoi bati elektrikoki konektatuta badago ››› **309. orrialdea**, maletategiko ate elektrikoa bertan jarritako teklen bidez bakarrik ireki edo itxi daiteke, eta Easy Open funtzioaren bidez.

Soinu-seinaleak

Maletategiko atea ireki edo ixteko prozesu osoan zehar, soinu-seinaleak entzuten dira. *Salbuespena:* maletategiko atea eskuz irekitzen denean heldulekuaren bidez edo Easy Open funtzioaren bidez oina mugituz, edo ixten denean bertan jarritako ››› **76. irudia** teklaren bidez.

Irekiera-angelua aldatu eta memorizatzea

Ibilgailuaren atzean edo gainean dagoen espazioa maletategiko atearen ibilbide-zonaldea baino murritzagoa bada, maletategiaren irekiera-angelua aldatu egin daiteke.

Irekiera-angelu berri bat memorizatzeko, maletategiko ateak erdiraino irekita egon behar du gutxienez.

- Eten irekiera-prozesua nahi duzun posizioan.
- Sakatu maletategiko ateko ››› **76. irudia** tekla gutxienez 3 segundoz.

Irekiera-angelua memorizatuko da. Memorizazioa adierazteko, larrialdi-argi keinukariek dir-dir egiten dute eta soinu-seinale bat entzuten da.

Irekiera-angelua berrezarri eta memorizatzea

Maletategiko atea berriro erabat ireki dadin, irekiera-angelua berrezarri eta berriro memorizatu behar da.

- Desblokeatu maletategiko atea eta ireki memorizatutako altueraraino.
- Ireki maletategiko atea eskuarekin, tope egin arte. Horretarako, indar asko egin beharko duzu.
- Sakatu maletategiko ateko ››› **76. irudia** tekla gutxienez 3 segundoz.
- Fabrikan programatutako irekiera-angelua berrezarri eta memorizatu egiten da. Memorizazioa adierazteko, larrialdi-argi keinukariek dir-dir egiten dute eta soinu-seinale bat entzuten da.

Gainberotzearen aurkako babes automatikoa

Sistemari behin eta berriz eragiten bazaio oso modu jarraituan, automatikoki deskonektatu egiten da gainberotze bat gerta dadin ekiditeko.

Sistema berriro hozten denean, funtzioa berriro erabiltzeko prest izango da. Ordura arte, maletategiko atea eskuarekin soilik ireki eta itxi daiteke, indar dezente eginez.

Maletategiko atea irekita dagoela, ibilgailuko bateriari borneak askatu bazaizkio ››› **357. orrialdea** edo dagokion fusiblea erre bada ››› **340. orrialdea**, sistema berrabiarazi beharko da. Horretarako, maletategia erabat itxi beharko da behin.

Larrialdietako desblokeatzea

››› **109. orrialdea**.

⚠ ADI

Maletategiko atean elur asko pilatzen bada edo gainean zama handia muntatzen bada, litekeena da maletategia ezin irekitzea, edo ireki eta gero bera bakarrik jaistea pisu gehigarriaren eraginez, eta, hala lesio larriak sorrarazi.

- **Ez ireki sekula maletategiko atea haren gainean elur asko pilatzen denean edo gainean zama garraiatzen duzunean (esate baterako, ekipajea eramateko gailua).**
- **Maletategia ireki aurretik, kendu elurra edo zama.**

Maletategiko atea sentsoreek kontrolatutako irekitze- eta ixte-sistemarekin (Easy Open)

78. irudia Maletategiko atea sentsoreen bidez kontrolatutako irekitze-sistemarekin (Easy Open).



79. irudia Beheko sentsorea hautemateko zonaldea

Ibilgailurako balio duen giltza bat atzeko atearen inguruan badago, hura desblokeatu eta ireki edo itxi daiteke oin bat atzeko kolpe-leungailuaren azpian kokatutako sentsoreen zonaldean barrena mugituz.

- Deskonektatu motorraren pizgailua.
- Kokatu atzeko kolpe-leungailuaren aurrean, erdialdean.
- Mugimendu azkar batekin, ipini oin bat eta hankaren beheko aldea kolpe-leungailutik ahalik eta gertuen. Hankaren behealdeak goiko sentsorearen gunera hurbildu behar du, eta oinak beheko sentsorearen gunera ››› **78. irudia** ①.
- Kendu azkar oina eta hankaren behealdea sentsoreen guneetatik ››› **78. irudia** ②. Maletategiko atea automatikoki irekitzen da.
- Maletategia irekitzen ez bada, errepikatu prozedura segundo batzuen buruan. Seguruenik ez zara iritsi beheko sentsoreko detektatzegunera ››› **79. irudia**.

Irekitzearen antzeko beste mugimendu bat eginez oinarekin, maletategia itxi egingo da (baldin eta, maletategitik hurbil dagoen zonaldean, ibilgailuaren giltza baliozko bat baldin badago).

Ixtean, maletategia blokeatu egiten da automatikoki, baldin eta aldez aurretik ibilgailua blokeatu egin bada eta barnean ez badago baliozko giltzarik.

Maletategia mugitzen ari den bitartean (irekitzen edo ixten), geldiarazi egin daiteke, oinarekin antzeko beste mugimendu bat eginez (baldin eta, maletategitik hurbil dagoen zonaldean, ibilgailuaren giltza baliozko bat baldin badago).

Ondorengo egoeretan Easy Open funtzioa ez dago erabilgarri edo modu mugatuan bakarrik (adibideak):

- Atzeko kolpe-leungailua oso zikin baldin badago.
- Atzeko kolpe-leungailua gatza duen urez bustita badago, adibidez, gatza isuri den errepideetan zirkulatzen denean.
- Ibilgailuari gerora atoi-gailu bat ipini baldin bazaio.

Prezipitazio handiak izanez gero, baliteke Easy Open funtzioak berandutzea pixka bat atzeko atea irekitzea edo automatikoki desaktibatzea, maletategiko atea ustekabean ireki ez dadin, adibidez, ura erortzean.

Easy Open funtzioa konekta eta deskonekta daiteke modu iraunkorrean infotainment sisteman 🕮 > **Vehículo** > **Exterior** > **Cierre centralizado** teklaren bidez.

⚠ ADI

Maletategiko atetik gertu balio duen giltza bat aurkitzen bada, baliteke, kasu batzuetan, Easy Open funtzioa ustekabean aktibatzea eta maletategiko atea irekitzea, adibidez, atzeko kolpe-leungailuaren azpian eskobatzean, presio handiko ur edo lurrun zorrotada bat eremu horretara zuzentzean edo eremu horretan mantentze- edo konponketa-lanak egitean. Nahigabe irekitzen bada, maletategiak bere ibilbidean dauden pertsonengan kalteak eragin ditzake, kalte materialak eragiteaz gain.

- **Hori dela eta, beti ziurtatu behar da maletategitik hurbil dagoen zonaldean zaintzarik gabeko giltza baliozkorik ez dagoela.**
- **Mantentze- edo konponketa-lanak egin aurretik, desaktibatu beti Easy Open funtzioa infotainment sisteman.**
- **Ibilgailua garbitu aurretik, desaktibatu beti Easy Open funtzioa infotainment sisteman.**

- **Bizikleta-euskarri bat muntatu edo atoi bat lotu aurretik>>> 309. orrialdea, desaktibatu beti Easy Open funtzioa infotainment sistema.**

Maletategiko atearen larrialdietako desblokeatzea

80. irudia Maletategiaren xehetasuna: larrialdietako desblokeatzea.

Maletategiko atea barrutik desblokea daiteke larrialdietan (esaterako, 12 volteko bateria deskargatuta badago).

Maletategiko estalduran zirrikitu bat dago, larrialdietako irekitzearen mekanismoari eragitea ahalbidetzen duena.

Maletategiaren atea desblokeatzea maletategiaren barrutik

- Giltzako ezpata txikia erabiliz, apurtu aurrez trokelatutako xafla eta atera ezazu hori maletategiko barrualderantz.
- Sartu giltzaren ezpata txikia zuloan eta mugitu giltza geziaren norabidean, sarraila desblokeatu arte >>> **80. irudia**.

Leihatiletarako aginteak

Leihatilak ireki eta ixtea



81. irudia Gidariaren atearen xehetasuna: leihatiletarako aginteak.

- Leihatila irekitzea: sakatu botoia
- Leihatila ixtea: tira egin botoitik

Gidariaren ateko botoiak

1. Ezkerreko aurreko atearen leihatila
2. Eskuineko aurreko atearen leihatila
3. Ezkerreko atzeko atearen leihatila
4. Eskuineko atzeko atearen leihatila
5. Atzeko ateetako beira-jasogailuen botoiak desaktibatzeko segurtasun-agintea

Gidariaren atean dauden aginteetatik, aurrealdeko nahiz atzealdeko leihatilei eragin dakieke. Gainerako ateek aparteko aginte bana dute dagokion leihatilarako.

Itxi erabat leihatilak ibilgailua aparkatuta edo zure ikuspegitik kanpo uzten duzun bakoitzean >>> ⚠.

Pizgailua deskonektatu ondoren, oraindik ere leihatilei eragin diezaiekezu 10 minutuz, baldin eta gidariaren eta gidarikidearen ateak irekitzen ez badira eta pizgailutik giltza ateratzen ez bada (ekipamenduaren arabera).

Segurtasun-agintea

Gidariaren ateko >>> **81. irudia** 5 segurtasun-agintearen bidez, atzeko ateetako beira-jasogailuetako teklak desaktiba daitezke.

Segurtasun-agintea sakatu gabe: atzeko ateetako teklak aktibatuta daude.

Segurtasun-agintea sakatuta: atzeko ateetako teklak desaktibatuta daude.

Segurtasun-agintearen sinboloa kolore horian piztuko da, baldin eta atzeko ateetako teklak desaktibatuta badaude.

Erosotasun-irekitze eta -ixtea

Leihatilak kanpotik ireki eta itxi daitezke ibilgailuaren giltzarekin:

Erosotasun-irekitzea:

- Eduki sakatuta urruneko kontrol bidezko giltzaren tekla, leihatila guztiak eta beirazko sabaia nahi den posiziora heldu arte. .
- **EDO:** Lehendabizi, desblokeatu ibilgailua urrutiko kontrol bidezko giltzaren teklarekin eta, jarraian, eduki giltza gidariaren ateko itxituran, leihatila guztiak eta beirazko sabaia nahi den posiziora heldu arte.

Erosotasun-ixtea:

- Eduki sakatuta urruneko kontrol bidezko giltzaren tekla, leihatila guztiak eta beirazko sabaia itxita egon arte ››› ⚠.
- **EDO:** Mantendu giltza gidariaren ateko sarrailan itxiera-posizioan, leihatila guztiak eta beirazko sabaia ixten diren arte.
- **EDO:** Keyless Access (ixtea bakarrik) sistemaren bidez: Eduki hatz bat segundo batzuetan ateko heldulekuaren blokeo-azalera sentsoredunaren gainean ››› **83. irudia** (gezia), leihoak eta sabaia itxi daitezen. Azalera sentsoreduna ukitzeari uzten badiozu, ixteko funtzioa eten egiten da.

Erosotasun-itxierarekin lehenik leihatilak eta jarraian sabai lerrakor panoramikoa irekiko dira.

Infotainment sisteman doikuntza desberdinak egin daitezke > **Vehículo** > **Exterior** > **Ventanas** > **Apertura de confort** funtzio-botoiaren bitartez.

Igoera eta jaitsiera automatikoa

Igoera eta jaitsiera automatikoaren bidez leihatilak guztiz ireki eta itxi daitezke. Horretarako ez da beharrezkoa beira-jasogailuari dagokion tekla sakatuta mantentzea.

Igoera automatikoaren funtzioarentzako: tira egin dagokion leihatilaren teklatik gorantz, bigarren mailaraino.

Jaitsiera automatikoaren funtzioarentzako: sakatu dagokion leihatilaren tekla beherantz, bigarren mailaraino.

Gelditu martxa automatikoa: sakatu berriro dagokion leihatilaren tekla, edo tira egin tekla horretatik.

Automatikoki igo eta jaisteko funtzioa berrezarri

12 volteko bateriak gainezka egiten badu edo deskargatzen bada leihatilak erabat itxi gabe, beira-jasogailuak automatikoki jaitsi eta igotzeko funtzioa desaktibatzen da eta berrezarri egin behar da:

- Konektatu pizgailua.
- Itxi ate eta leihatila guztiak.
- Tiratu dagokion leihatilako teklatik gorantz eta mantendu posizio horretan segundo batzuetan.
- Askatu tekla, tiratu berriz gorantz eta mantendu posizio horretan. Horrela, automatikoki jaitsi eta igotzeko funtzioa berrezarriko da.

Funtzioa leihatila bakar batentzat berrezarri daiteke, edo aldi berean leihatila guztientzat.

⚠ ADI

Gogoan izan segurtasun-oharrak ››› 102. orrialdeko ⚠ (*Aurkezpena*).

- **Beira-jasogailu elektrikoak modu desegokian erabiltzean, lesioak sorraraz daitezke.**
- **Ez sekula itxi leihatilak arreta ipini gabe edo kontrolik gabe, izan ere, lesio larriak sorraraz ditzakezu zuregan edo hirugarrenengan. Horregatik, ziurtatu beti leihatilaren ibilbidea inork ez dezala oztopatu.**
- **Pizgailua konektatzen bada, ekipamendu elektrikoak abiatzea gerta daiteke, eta ubelduak izateko arriskua sortu, esate baterako, beira-jasogailu elektrikoekin.**
- **Ibilgailuaren ateak giltzaz blokeatuta gera daitezke urrutiko agintea erabiliz, eta, larrialdiren bat gertatzekotan, laguntzea oztopatu.**
- **Hori dela eta, eraman beti gainean giltza ibilgailutik irtetean.**
- **Beira-jasogailuak pizgailua deskonektatzean eta aurreko ateetako bat irekitzean soilik desaktibatzen dira.**

- **Beharrezkoa denean, desaktibatu atzeko beira-jasogailuak segurtasun-agintearekin. Egiaz desaktibatu egin direla ziurtatu.**
- **Segurtasun-arrazoiak direla medio, ibilgailua hartatik gutxi gorabehera 2 metroko distantziara zaudenean soilik ireki eta itxi beharko zenuke urrutiko kontroleko giltzarekin. Ixteko teklari eragitean, leihatilen mugimenduari erreparatu behar zaio beti, inork istripu bat izan ez dezan. Tekla askatzean, ixteko prozesua eten egiten da berehala.**

Oharra

Leihatila bat zailtasunez igotzen bada edo ixten saiatzean oztoporen bat topatzen bada, ireki egingo da berehala >>> 111. orrialdea. **Kasu horretan, egiaztatu leihatilak zergatik ezin izan diren itxi, berriro saiatu aurretik.**

Leihatilen giltzapetzearen aurkako funtzioa

Giltzapetzearen aurkako funtzioak leihatila elektrikoak ixtean lesioak izateko arriskua murrizten du.

Leihatila batek ixtean erresistentzia edo oztoporen bat topatzen badu, berehala irekiko da berriro >>> ⚠.

- Begiratu leihatila zergatik ez den ixten.
- Saiatu berriro leihatila ixten.
- Ixteko prozesua berriro eteten bada, giltzapetzearen aurkako funtzioak ez du funtzionatuko segundo batzuetan.
- Leihatilak itxi ezinik jarraitzen badu, dagokion posizioan etengo da. Segundo gutxi batzuk igaro baino lehen teklatik tiratzen bada, leihatila itxiko da **giltzapetzearen aurkako funtziorik gabe** >>> ⚠.

Leihatilak ixtea giltzapetzearen aurkako funtziorik gabe

- Segundo gutxi batzuk igaro baino lehen, saiatu leihatila berriro ixten teklatik tiratzen, hori askatu gabe. **Giltzapetzearen aurkako funtzioa desaktibatuta geratuko da!**
- Ixteko prozesuak segundo batzuk baino gehiago irauten badu, giltzapetzearen aurkako funtzioa berriro aktibatzen da. Leihatila berriro geldituko da erresistentziaren bat edo oztoporen bat aurkitzen badu, eta automatikoki irekiko da berriro.
- Leihatila oraindik ezin bada ireki, joan zaitez tailer espezializatu batera.

⚠ ADI

Gogoan izan segurtasun-oharrak >>> 110. orrialdeko ⚠ (*Leihatilak ireki eta ixtea*).

- **Giltzapetzearen aurkako funtzioak ez du eragozten hatzak edo gorputzeko beste atal batzuk leihatilako markoaren aurka harrapaturik geratu eta lesioak gertatzea.**

Oharra

Giltzapetzearen aurkako funtziok ere funtzionatzen du leihatilak ibilgailuaren giltzaren bidez erosotasun-funtzioarekin ixten direnean.

Beirazko sabaia

Gaiaren aurkezpena

Beirazko sabaia beirazko bi elementuz dago osatua. Atzeko elementua finkoa da eta ezin da ireki. Halaber, eguzki-babeserako errezel txiki bat ere badu.

Beirazko sabaiak pizgailua konektatuta dagoenean funtzionatzen du. Pizgailua deskonektatu ondoren, beirazko sabaia hainbat minutuz ireki edo itxi ahal izango da oraindik, baldin eta gidariaren edo gidarikidearen atea irekitzen ez bada.

⚠ ADI

Beirazko sabaia zabarkeriaz edo behar bezalako arreta ipini gabe erabiltzen bada, lesio larriak sor daitezke.

- **Ireki edo itxi beirazko sabaia eta eguzki-babeserako errezel txikia horien funtzionamendu-zonaldean inor ez dagoenean soilik.**
- **Ibilgailutik irtetean, ez utzi sekula ibilgailuaren giltza barruan.**

- **Ez sekula utzi ibilgailuaren barrualdean haurrik edo laguntza behar izan dezakeen inor, bereziki ibilgailuaren giltza eskuratu badezakete. Zaintzarik gabe giltza erabiliko balute, ibilgailua blokeatu, motorra martxan ipini, pizgailua konektatu edo beirazko sabaia ireki dezakete.**
- **Pizgailua deskonektatu ondoren, beirazko sabaia denbora-tarte labur batez ireki edo itxi ahal izango da oraindik, baldin eta gidariaren edo gidarikidearen atea irekitzen ez bada.**

KONTUZ

- **Kalteak ekiditeko, neguko tenperaturak izanez gero, kendu ibilgailuaren sabaian egon daitekeen izotza edo elurra, beirazko sabaia ireki edo haren posizio deflektorea doitu aurretik.**
- **Ibilgailua utzi aurretik edo euria izanez gero, itxi beti beirazko sabaia. Beirazko sabaia irekita edo posizio deflektorean dagoenean, bidaiari-lekuan ura sartzen da eta sistema elektrikoa nabarmen kaltetu daiteke. Horren ondorioz, ibilgailuan kalteak sorraraz daitezke.**

Oharra

- **Kendu aldian behin, eskuz edo xurgagailu batekin, orbelak eta beirazko sabaiaren gidarietan sartzen diren bestelako objektu solteak.**
- **Beirazko sabaiak behar bezala funtzionatzen ez badu, giltzapetzearen aurkako funtzioak ere ez du ongi funtzionatuko. Joan tailer espezializatu batera.**

Beirazko sabaiaren funtzionamendua



82. irudia Sabaiaren barruko estalduran: beirazko sabaiaren tekla.

Eremu funtzionala bi modutan erabil daiteke: irristatuz eta presioa eginez.

- **Irristatzea:** Sabaia erabat edo partzialki irekitzen edo ixten da.
- **Presioa egitea:** Sabaia erabat edo partzialki igotzen, irekitzen edo ixten da. Egin presioa berriro, mugimendu automatikoa gelditzeko.

Beirazko sabaia igotzea, irekitzea edo ixtea

Beirazko sabaia irekitzea:

- Mugimendu automatikoa: irristatu hatza atzerantz eremu funtzionalaren gainean
>>> **82. irudia** (A).
- Eskuzko mugimendua: irristatu hatza atzerantz eremu funtzionalaren gainean eta eduki ezazu horrela.

Beirazko sabaia ixtea:

- Mugimendu automatikoa: irristatu hatza aurrerantz eremu funtzionalaren gainean (A).
- Eskuzko mugimendua: irristatu hatza aurrerantz eremu funtzionalaren gainean eta eduki ezazu horrela.

Beirazko sabaia igotzea (beirazko sabaia igo daiteke soilik itxita badago):

- Mugimendu automatikoa: egin presioa labur eremu funtzionalaren erdialdean (B)

Beirazko sabaia ixtea igota dagoela:

- Mugimendu automatikoa: irristatu hatza aurrerantz eremu funtzionalaren gainean (A).
- **Edo** egin presioa labur eremu funtzionalaren erdialdean (B).

Irekitze- edo ixte-mugimendu automatikoa etetea:

- Egin presioa berriro eremu funtzionalaren gainean Ⓐ.

Beirazko sabaia ireki edo ixteko erosotasun-funtzioa



83. irudia Ateko heldulekua: azalera sentsoreduna

Beirazko sabaia erosotasun-funtzioarekin ireki edo itxi daiteke, leihatilak bezalaxe.

Ateko sarrailarekin

- Mantendu giltza gidariaren ateko sarrailan, irekiera- edo itxiera-posizioan, sabaia posizio deflektorean ireki edo ixteko. Askatu giltza, eragiketa eteteko.

Urrutiko agintearen bidez

- Mantendu sakatuta blokeatze- edo desblokeatze-tekla sabaia ireki edo ixteko. Sakatzen ari zaren tekla askatzen baduzu, irekiera- edo itxiera-funtzioa eten egiten da.

Keyless Access sistemaren bidez (soilik itxiera)

Eduki hatz bat segundo batzuk blokeo-azalera sentsoredunaren gainean ››› **83. irudia** (gezia), ateko heldulekuan, sabaia itxi dadin. Azalera sentsoreduna ukitzeari uzten badiozu, ixteko funtzioa eten egiten da.

Sabai panoramiko lerrakorraren giltzapetzearen aurkako funtzioa

Giltzapetzearen aurkako funtzioari esker, murriztu egin daiteke beirazko sabaia ixtean kolpeak izateko arriskua ››› ⚠. Beirazko sabaiak ixtean erresistentzia edo oztoporen bat topatzen badu, berehala irekitzen da berriro.

- Begiratu sabaia zergatik ez den itxi.
- Saiatu berriro sabaia ixten.
- Sabaia ezin bada itxi oztoporen bat edo erresistentziaren bat topatu delako, dagokion posizioan gelditu eta, ondoren, ireki egingo da. Funtzio automatikoaren kasuan, litekeena da berriro ixten saiatzea.
- Sabaia itxi ezinik badago oraindik, itxi ezazu giltzapetzearen aurkako funtzioa aktibatu gabe dagoela.

Itxi beirazko sabaia giltzapetzearen aurkako funtzioa aktibatuta egon gabe

- Giltzapetzearen aurkako funtzioa aktibatzen denetik 5 segundo inguru igaro aurretik, irristatu atzamarra aurrerantz ››› **82. irudia** Ⓐ eremu funtzionalaren gainean, eta eduki presioa eginda sabaia erabat itxi arte.
- **Sabaia ixten da giltzapetzearen aurkako funtzioak esku hartu gabe!**
- Sabaia oraindik ezin bada itxi, joan zaitez tailer espezializatu batera.

⚠ ADI

Beirazko sabaia giltzapetzearen aurkako funtzioa aktibatuta egon gabe ixtean, lesio larriak sorraraz daitezke.

- **Itxi sabaia beti zuhurtziaz.**
- **Ez du inoiz inork egon behar sabaiaren ibilbidearen eremuan, bereziki giltzapetzearen aurkako funtziorik gabe ixten denean.**
- **Giltzapetzearen aurkako funtzioak ez du eragozten hatzak edo gorputzeko beste atal batzuk sabaiaren markoaren aurka harrapaturik geratu eta lesioak gertatzea.**

Bolantea

Funtzio anitzeko bolantea

Funtzioak



84. irudia Aginteak bolantean.



85. irudia Aginteak bolantean.

Bolanteak funtzio anitzeko moduluak ditu, eta horietatik posible da audio-, telefono-, nabigazio, ahotsaren bidezko kontrol- eta gidatzeko laguntzaileen funtzioak kontrolatzea, gidatzeari arreta galarazi gabe.

Botoi erabilgarriak bertsioaren arabera

①	*Biratzea:* Bolumena igo/jaitsi. *Sakatzea:* Bolumena isildu.
②	*Biratzea:* Tresnen koadroaren menuan bilatzea. Navegación moduan, biratzea tresnen koadro digitalean mapa handitzeko/murrizteko *Sakatzea:* Tresnen koadroan nabarmendutako aukera hautatzea.
⏮ ⏭	*Radio:* Aurreko/ondorengo irratikatea bilatzea. *Media:* Sakatze laburra: aurreko/ondorengo pista; sakatze luzea: aurrera/atzera egin arin.
	Telefono menua aktibatzea (deiari erantzutea, deia amaitzea).
	Media eta radio iturrien artean aldatzea.
	Tresnen koadroko menua aldatzea (aurrekoa/ondorengoa).
	Ahots bidezko kontrola aktibatzea/desaktibatzea.
VIEW	Tresnen koadroko ikuspenak aldatzea ››› **17. orrialdea**
	Bolanteko berogailua aktibatzea edo desaktibatzea ››› **147. orrialdea**
0/1	ACCa konektatzea edo deskonektatzea ››› **197. orrialdea** / Abiadura-erregulagailua ››› **194. orrialdea** / Abiadura-mugagailua ››› **195. orrialdea** / Travel Assist ››› **212. orrialdea**.
SET	ACC / Travel Assist / Abiadura-mugagailua aktibatzea.
RES	Programatutako abiadura berrezartzea.

– +	+: Programatutako abiadura handitzea. –: Programatutako abiadura murriztea.
	Travel Assist / ACC hautatzea.
	Ireki gidatzeko laguntzaileen menua tresnen koadroan.
	ACCren distantzia programatua aldatzen du.

Satelite-botoiak	
	Gidatze-profilak hautatzea ››› **181. orrialdea**
START ENGINE STOP	Motorra martxan jarri eta gelditu ››› **160. orrialdea**

Bolantearen posizioa doitzea



86. irudia Direkzio-zutabearen ezker-alboko behealdean dagoen palanka.

Doitu bolantea bidaiatu aurretik eta soilik ibilgailua geldi dagoenean.

- Tira egin ››› **86. irudia** ① palankatik behera; mugitu bolantea nahi duzun lekura, eta berriro igo palanka itxi arte.

⚠ ADI

Bolantearen posizioa doitzeko sistema oker erabiliz eta bolantea oker doituz gero, lesio larriak edo hiltzeko modukoak paira daitezke.

- **Direkzioa-zutabea doitu ondoren, bultzatu tinko ››› 86. irudia ① palanka gorantz, bolanteak posizioa nahi gabe alda ez dezan ibiltzen ari garen bitartean.**

- **Ez doitu inoiz bolantea ibiltzen ari zaren bitartean. Ibiltzen ari zaren bitartean, bolantea doitu behar duzula atzematen baduzu, gelditu modu seguruan eta behar bezala doitu.**
- **Doitutako bolanteak beti toraxera begiratu behar du eta inoiz ez aurpegira, gidariaren aurrealdeko airbagaren babesa ez mugatzeko istripua izanez gero.**
- **Gidatzen ari zaren bitartean, heldu bolanteari beti bi eskuekin kanpoaldetik (9etako eta 3etako posizioa) lesioak murrizteko, gidariaren aurrealdeko airbaga irekiz gero.**
- **Ez heldu bolanteari 12etako posizioan edo beste modu batez, adibidez, erdialdetik. Gidariaren airbaga irekiz gero, lesio larriak paira ditzakezu besoetan, eskuetan eta buruan.**

Eserlekuak eta buru-euskarriak

Aurreko eserlekuak

Gaiaren aurkezpena

⚠ ADI

Irakurri eta kontuan hartu beti kapituluko informazioa eta segurtasun-aholkuak ››› 42. orrialdea, *Ibilgailuko bidaiarien posizio zuzena*.

⚠ ADI

Eserlekuak modu desegokian doitzen badira, litekeena da istripu eta lesio larriak gertatzea.

- Doitu eserlekuak soilik ibilgailua geldi dagoenean, bestela ibilgailua martxan den bitartean mugitu egin daitezke ustekabean, eta ibilgailuaren kontrola gal daiteke. Gainera, doikuntza egitean gorputz-jarrera desegokia hartzen da.
- Doitu aurreko eserlekuak modu bertikalean, luzetara eta inklinazioan soilik horiek doitzeko zonaldean inor ez dagoenean.
- Ez utzi eserlekuak doitzeko zonaldean objekturen batek doikuntza hori eragotzi dezala.
- Eserlekuak doitu eta blokeatzeko zonaldeek ez dute zikin egon behar.

⚠ ADI

Eserlekuetarako tapizak eta zorroak modu desegokian erabiltzen badira, eserlekuaren doikuntza elektrikoa nahigabe aktibatu daiteke eta ibilgailua martxan den bitartean haiek mugitzea gerta daiteke. Horren ondorioz ibilgailuaren kontrola galdu eta istripuak eta lesioak izatea gerta daiteke. Halaber, aurreko eserlekuetako osagai elektrikoetan kalte materialak gerta daitezke.

- Ez finkatu edo ipini inoiz eserlekuetarako tapizak edo zorroak horien aginte elektrikoetan.
- Ez erabili sekula ibilgailu honetako eserlekuetarako berariaz baimendutakoez aparteko tapiza edo zorrorik.

ⓘ KONTUZ

Ertz zorrotzak dituzten objektuek eserlekuak kaltetu ditzakete.

- Ez ukitu eserlekuak objektu zorrotzekin. Objektu zorrotzek, hala nola kremailerek, jantzietako errematxeek edo gerrikoek, gainazalak kaltetu ditzakete. Irekita dauden belkro itxiturek ere kalteak eragin ditzakete.

Aurreko eserlekuak eskuz doitzea



87. irudia Aurreko eserlekuak: eserlekua eskuz doitzea.

1. Tiratu palankatik eserlekua aurrerantz edo atzerantz arrastaka eramateko. Palanka askatzean eserlekua ahokatu egin behar da!
2. Mugitu palanka gorantz edo beherantz eserlekuaren altuera doitzeko; behar izanez gero, behin baino gehiagotan.
3. Eserlekuaren bizkarraldean indarrik egin gabe, biratu gurpila bizkarraldea doitzeko.
4. Gerrialdeko euskarria doitzeko, mugitu palanka nahi den posiziora.

Aurreko eserlekuak elektrikoki doitzea



88. irudia Gidariaren eserlekua: eserlekua elektrikoki doitzea.

Ⓐ Gerrialdeko euskarria doitzea: sakatu tekla nahi duzun posiziora iritsi arte.

Ⓑ Eserlekua aurrera/atzera: sakatu tekla aurrera/atzera.
Eserlekua gora/behera: sakatu teklaren atzealdea gora edo behera. Kuxinaren inklinazioa doitzeko, sakatu teklaren aurreko aldea gora/behera.

Ⓒ Bizkarraldea etzan edo jaso: sakatu tekla aurrera edo atzera.

Pizgailua deskonektatzean, posizioa automatikoki gordeko da CUPRA Connecteko erabiltzaile aktiboan.

⚠ ADI

Aurreko eserleku elektrikoak zabarkeriaz edo behar adina arreta ipini gabe erabiltzen bada, lesio larriak sor daitezke.

- **Aurreko eserlekuak pizgailua deskonektatuta dagoenean ere doitu daitezke elektrikoki. Ez utzi sekula ibilgailuaren barnean haurrik edo laguntza behar dezakeen beste pertsonarik.**
- **Larrialdi kasuan, doikuntza elektrikoa beste aginte bat sakatuz eten daiteke.**

KONTUZ

Eserlekuetako osagai elektrikoak ez kaltetzeko, ez zaitez jarri belauniko hor edo ez jarri aulkia eta bizkarraldea puntu bakar batean kontzentratutako gehiegizko kargen pean.

Oharra

- **Ibilgailuaren bateriak karga gutxi baldin badu, litekeena da eserlekua elektrikoki doitu ezin izatea.**
- **Eserlekuak elektrikoki doitzen diren bitartean motorra abiarazten bada, hura eten egingo da.**

Oharra

Erabiltzaile-aldaketa prozesuan, ohar bat agertuko da infotainment sistemaren pantailan eserlekua gordetako posiziora mugitzen ari den bitartean. Mugimendu hori geldi daiteke pantailako gelditzeko botoia sakatuz.

Atzeko eserlekuak

Atzeko eserlekuaren bizkarraldea jaistea eta altxatzea



89. irudia Atzeko eserlekua: segurtasun-uhala eusteko pintza.



90. irudia Atzeko eserlekuaren: bizkarraldea tolestea

Atzeko eserlekuaren bizkarraldea zatituta dago eta zati bakoitza modu bereizian tolestu daiteke maletategia handitzeko.

Bizkarraldea tolestea

- Ipini alboko segurtasun-uhalak estaldurako pintzan ››› **89. irudia**.
- Jaitsi guztiz atzeko buru-euskarriak ››› **119. orrialdea**.
- Sakatu desblokeatzeko tekla aurrerantz ››› **90. irudia** ① eta, aldi berean, tolestu bizkarraldea. Atzeko bizkarraldea desblokeatuta dago ② teklan marka gorri bat agertzen denean.

Bizkarraldea altxatu

- Altxatu eta ahokatu bizkarraldea behar bezala blokeoetan. Behar bezala ahokatu bada, ez duzu ikusiko ② teklako marka gorria.

⚠ ADI

Atzeko eserlekuaren bizkarraldea kontrolik gabe edo arretarik ipini gabe tolestu edo altxatzen bada, lesio larriak sorraraz daitezke.

- **Ez tolestu edo altxatu inoiz eserlekuaren bizkarraldea sekula ibilgailua martxan den bitartean.**
- **Atzeko eserlekuaren bizkarraldea altxatzean, saiatu segurtasun-uhala ez zanpatzen edo kaltetzen.**
- **Atzeko eserlekuaren bizkarraldea tolestu eta altxatzean, mantendu beti eskuak, hatzak, oinak eta gorputzeko gainerako atalak haren ibilbidetik kanpo.**
- **Atzeko plazetako segurtasun-uhalek beharrezkoa den babesa eman dezaten, atzeko eserlekuaren bizkarraldeko zati guztiek behar bezala ahokatuta egon beharko dute beti. Hori bereziki garrantzitsua da atzeko erdiko plazaren kasuan. Pertsona bat bizkarraldea behar bezala ahokatuta ez duen plaza batean eserita baldin badago, bizkarraldearekin batera, aurrerantz jaurtiko da frenatu edo maniobra bortitza egiten bada edo istripu bat gertatzen bada.**
- **② teklako marka gorri batek atzeko bizkarraldea ez dagoela ahokatuta adierazten du. Egiaztatu, beti, marka gorririk ez dela ikusten bizkarraldea bertikal dagoenean.**
- **Atzeko eserlekuaren bizkarraldea tolestuta dagoenean edo behar bezala ahokatuta ez dagoenean, debekatuta dago inork plaza horietan bidaiatzea (ezta haur bat ere).**

ⓘ KONTUZ

Atzeko eserlekuaren bizkarraldea kontrolik gabe edo arretarik ipini gabe tolestu edo altxatzen bada, kalteak eragin daitezke ibilgailuan eta beste objektu batzuetan.

- **Atzeko eserlekuako bizkarraldeak tolestu aurretik, doitu beti aurreko eserlekuak atzeko bizkarraldearen buru-euskarriek nahiz barrubigunak haien aurka talka ez egiteko moduan.**

Buru-euskarriak

Gaiaren aurkezpena

Jarraian buru-euskarriak doitu eta desmuntatzeko aukerak deskribatzen dira. Ziurtatu beti eserlekuak doituta daudela behar bezala ››› **42. orrialdea**.

Plaza guztietan daude buru-euskarriak. Atzeko erdiko buru-euskarria atzeko eserlekuen erdian bakarrik aurreikusita dago. Hori dela eta, ez muntatu beste ezein plazatan.

Buru-euskarriaren doikuntza zuzena[1)]

Doitu buru-euskarria, goiko ertza buruaren goiko aldearen parean gera dadin, baina sekula ez begietatik behera. Mantendu buruaren atzealdea beti buru-euskarritik ahalik eta gertuen.

Buru-euskarriaren doikuntza altuera gutxiko pertsonen kasuan[1)]

Jaitsi buru-euskarria tope egin arte, nahiz eta burua goiko ertzaren azpitik geratu. Posizio baxuenean, agian, espazio txiki bat gera daiteke eserlekuaren buru-euskarriaren eta bizkarraldearen artean.

Buru-euskarriaren doikuntza altuera handiko pertsonen kasuan[1)]

Igo buru-euskarria toperaino.

⚠ ADI

Buru-euskarria desmuntatuta edo oker doituta dagoen bitartean ibilgailua martxan bada, lesio larriak edo hiltzeko modukoak izateko arriskua areagotu egiten da, istripua gertatzen bada eta indarrez frenatu edo maniobratzen bada.

- **Bidaiatu beti buru-euskarria behar bezala muntatu eta doituta.**
- **Istripuetan lesio zerbikalak izateko arriskua murrizteko, doitu buru-euskarria behar bezala zure altueraren arabera, kontuan hartuz haren goiko ertza buruaren goiko aldearen parean gera dadin, baina sekula ez begietatik behera. Mantendu buruaren atzealdea buru-euskarritik ahalik eta gertuen eta erdialdean.**
- **Ez doitu sekula buru-euskarria ibilgailua martxan den bitartean.**
- **Atzeko eserlekuetako bidaiariek inola ere ez dute buru-euskarriak ez erabilera posizioan daudela bidaiatuko.**

ⓘ KONTUZ

Buru-euskarria desmuntatu eta muntatzean, sabaiaren barneko gaineztatzearen, aurreko eserlekuko bizkarraldearen edo ibilgailuko beste atal batzuen aurka talka egin dezatela saihestu. Bestela, kalteak sorraraz daitezke.

Buru-euskarriak doitzea



91. irudia Aurreko eserlekua: buru-euskarria doitzea.



92. irudia Atzeko buru-euskarria: buru-euskarria erregulatzea.

[1)] Buru-euskarri erregulagarria duten eserlekuetan.

Buru-euskarriaren altuera doitzea

- Eutsi bi eskuekin buru-euskarriari, bi aldeetatik, eta gorantz egin tira, nahi duzun tokian ahokatu arte. Jaisteko, egin ekintza bera, alboko botoia sakatuz ① ››› **91. irudia** , ››› **92. irudia**.
- Buru-euskarria behar bezala ahokatu behar da posizio batean.

buru-euskarriak muntatzea eta desmuntatzea



93. irudia Aurreko buru-euskarria: desmuntatzea.



94. irudia Atzeko buru-euskarria: desmuntatzea.

Aurreko buru-euskarriak desmuntatzea

- Beharrezkoa balitz, jaitsi buru-euskarria.
- Desblokeatzeko, bilatu bizkarraldearen atzealdean dagoen jangunea markatutako aldetik, eta sakatu geziaren noranzkoan ››› **93. irudia** ①.
- Atera buru-euskarria geziaren noranzkoan ②.

Aurreko buru-euskarriak muntatzea

- Ipini buru-euskarria posizio zuzenean dagozkion bizkarraldearen gidarien gainetik eta sartu haietan.
- Zapaldu buru-euskarria beherantz barrak ahokatzen diren arte.
- Doitu buru-euskarriak eserlekuan posizio egokiari buruzko argibideak jarraituz.

Atzeko buru-euskarriak desmuntatzea

Buru-euskarria desmuntatzeko, dagokion eserlekuaren bizkarraldea aurreratu egin behar da.

- Desblokeatu bizkarraldea ››› **117. orrialdea**.
- Egin gorantz tira buru-euskarriari, topera iritsi arte.
- Sakatu ››› **94. irudia** ① tekla, aldi berean segurtagailuaren zuloa sakatuz ② gehienez 5 mm-ko zabalera duen bihurkin lau batekin eta atera buru-euskarria.
- Jarri bizkarraldea bere lekuan, ondo ahokatu dela hauteman arte ››› **118. orrialdeko** ⚠ (***Atzeko eserlekuaren bizkarraldea jaistea eta altxatzea***).

Atzeko buru-euskarriak muntatzea

Kanpoko buru-euskarriak muntatzeko, dagokion eserlekuaren bizkarraldea aurreratu behar da.

- Desblokeatu bizkarraldea ››› **117. orrialdea**.
- Sartu buru-euskarrien barrak bere lekuan, ondo ahokatu dela hauteman arte. Buru-euskarria ezin da, berez, bizkarraldetik atera.
- Jarri bizkarraldea bere lekuan, ondo ahokatu dela hauteman arte ››› **118. orrialdeko** ⚠ (***Atzeko eserlekuaren bizkarraldea jaistea eta altxatzea***).

⚠ ADI

Atzeko buru-sostenguak haurrentzako eserlekua jartzea beharrezkoa den kasuetan bakarrik desmuntatu. Haurrentzako eserlekua kendutakoan, buru-sostengua berriz muntatu.

Eserlekuen funtzioak

Memoria-funtzioa



95. irudia Gidariaren eserlekuaren kanpoaldean, albo batean: memoria-teklak.

Memoria-teklak

Memoria-teklekin gidariaren eserlekurako eta kanpoko atzerako ispiluetarako doikuntzak gorde eta aktibatu daitezke.

Egindako doikuntzak lineako zerbitzuko erabiltzailearen profilean ere gordeko dira[1].

Gorde gidariaren eserlekuko eta kanpoko atzerako ispiluen doikuntzak aurrera martxarako

- Konektatu geratze-balazta elektronikoa.
- Ipini aldagailua posizio neutralean.
- Konektatu pizgailua.
- Doitu gidariaren eserlekua eta kanpoko atzerako ispiluak.
- Sakatu **SET** tekla segundo 1 baino gehiagoz ››› **95. irudia**.
- Sakatu, 10 segundo igaro aurretik, doikuntzak gordetzeko erabiliko den memoria-tekla. Soinu-seinale batek gorde egin direla berretsiko du.

Gidarikidearen kanpoko atzerako ispiluaren doikuntzak gordetzea atzera martxarako

- Konektatu geratze-balazta elektronikoa.
- Ipini aldagailua posizio neutralean.
- Konektatu pizgailua.
- Sakatu nahi duzun memoria-tekla.
- Sartu atzera martxa.
- Doitu gidarikidearen kanpoko atzerako ispilua, adibidez, espaloiko ertza ongi ikusteko moduan.
- Atzerako ispilurako posizio doitua automatikoki gordetzen da eta ibilgailua desblokeatzeko erabili duzun giltzara esleitzen da.

Doikuntzak aktibatzea

- Ibilgailua geldirik dagoela eta pizgailua konektatuta, sakatu dagokion memoria-tekla gordetze-posiziora iritsi arte.
- **EDO:** pizgailua deskonektatuta dagoela eta gidariaren atea irekita, sakatu une batez dagokion tekla.

Gidarikidearen atzerako ispiluak automatikoki uzten du atzerako martxarako gordetako posizioa ibilgailua gutxienez 15 km/h-ko (10 mph) abiaduran aurrera mugitzen denean edo posizio-agintea biratzen denean **R** posiziotik beste batera ››› **137. orrialdea**.

Abiatu eserlekuen posizioen memoria

Esate baterako, gidariaren eserlekua aldatu egin bada, posizioen memoriaren sistema berrabiatu egin behar da.

Berrabiatzean posizioen memoriadun eserlekuaren memoria eta esleipen guztiak ezabatu egingo dira. Jarraian, memoria-teklak berriz programa daitezke.

- Ireki gidariaren atea eta ez igo ibilgailura.
- Manipulatu eserlekuaren doikuntzak kanpotik.
- Inklinatu bizkarraldea osorik aurrerantz.
- Askatu agintea inklinazioa doitzeko eta eragin berriro soinu-seinale bat entzuten den arte.

[1] Ez dago eskuragarri merkatu guztietan.

⚠ ADI

Doitu memoriaren funtzioa soilik ibilgailua geldituta dagoenean.

Oharra

Gidariaren atea irekitzen bada 10 minutu inguru baino gehiago igaro ondoren ibilgailua desblokeatu zenetik, gidariaren eserlekua eta kanpoko atzerako ispiluak ez dira automatikoki doitzen.

Aurreko erdiko beso-euskarria

96. irudia Aurreko erdiko beso-euskarria.

Beso-euskarria *altxatzeko* egin tira gorantz geziaren noranzkoan ››› **96. irudia**, goraino edo urratsez urrats, nahi den irekiaren arabera.

Beso-euskarria *jaisteko* egin tira lehendabizi bertatik gorantz tope egin arte. Ondoren, jaitsi.

Beso-euskarria luzetara doitzeko, mugi ezazu erabat aurrerantz ››› **96. irudia** edo guztiz atzerantz dagokion geziaren noranzkoan.

⚠ ADI

Aurreko erdiko beso-euskarriak gidariaren besoen mugimendua muga dezake, eta horrek istripuak eta lesio larriak eragin ditzake.

- **Erdiko beso-euskarriko objektu-ontziak itxita eraman martxan zehar.**
- **Inoiz ez utzi inor erdiko beso-euskarrien gainean bidaiatzea, ezta haur bat ere. Posizio hori ez da zuzena eta lesio larriak eragin ditzake.**

Atzeko erdiko beso-euskarria

97. irudia Atzeko erdiko beso-euskarria tolesgarria (irudikapen eskematikoa).

Atzeko erdiko plazako bizkarraldean beso-euskarri tolesgarri bat egon daiteke.

- Beso-euskarria *jaisteko*, tira egin begiztatik geziaren noranzkoan ››› **97. irudia**.
- Beso-euskarria *altxatzeko*, bultzatu gorantz geziaren aurkako norabidean eta ahokatu eserlekuaren bizkarraldearen tope egiten duen arte.

Erdiko beso-euskarria jaitsita dagoenean, ez utzi inor atzeko eserlekuaren erdiko plazan bidaiatzen.

⚠ ADI

Ibilgailua martxan den bitartean lesioak gertatzeko arriskua murrizte aldera, atzeko erdiko beso-euskarriak altxatuta egon beharko du beti.

- **Erdiko beso-euskarria jaitsita dagoenean, ez utzi inor atzeko eserlekuaren erdiko plazan bidaiatzen, ezta haur bat ere. Lesio larriak jasan ditzake posizio desegokian eserita joateagatik.**

Atzeko eserlekuaren bizkarraldea tolestea maletategitik



98. irudia Maletategian: atzeko bizkarraldea desblokeatzeko palankak.

- Jaitsi buru-euskarria erabat.
- Ireki maletategiko atea.
- Tira egin bizkarraldetik distantzia batean dagoen ezkerraldeko ››› **98. irudia** ① edo ② eskuinaldeko palankatik, geziaren noranzkoan. Atzeko bizkarraldean desblokeatutako zatia automatikoki tolesten da aurrerantz.
- Beharrezkoa balitz, itxi maletategia.

Atzeko bizkarraldea desblokeatuta dago teklan marka gorria ikusten denean ››› **90. irudia** ② .

Argiak

Ibilgailuaren argiak

Kontrol-argiak

Argi horia pizten da
Matxura osoa edo partziala dago kanpoko argietan.

Argi horia pizten da
Atzeko lainotako argia piztuta.

Argi berdea pizten da
Ezker edo eskuineko keinukaria.
Kontrol-argiak abiadura bikoitzean egiten du dir-dir keinukari bat matxuratu egiten denean.

Larrialdiko keinukariak piztuta ››› **72. orrialdea**.

Argi berdea pizten da
Atoiaren keinukariak

Argi urdina pizten da Argi luzeak piztuta edo argi-keinuak aktibatuta ››› **126. orrialdea**.

Argi urdina pizten da
Argi luzearen laguntzailea (Light Assist) konektatuta dago ››› **127. orrialdea**.

Argietarako eta ikusgaitasunerako teklak

99. irudia Tresnen taula: argien agintea.

MODE botoiaren gainean sakatuz, hautatu ahal izango duzu hauen artean (dagokion kontrol-argia pizten da):

Argi laburrak piztea.

AUTO Argi laburraren kontrol automatikoa eta egunez gidatzeko argiarena.

Posizio-argiak piztea Gidatze-argien konexio automatikoa AUTO 10 km/h (6 mph) ingurutik aurrerako abiaduran aktibatzen da.

– Argi itzaliak. Gidatze-argien konexio automatikoa AUTO 10 km/h (6 mph) ingurutik aurrerako abiaduran aktibatzen da edo 100 m (0,062 mi) egindakoan.

Horrez gain, argi-funtzio hauek aktiba daitezke, dagokion sinboloaren gainean sakatuta.

Funtzioa aktibatzean, dagokion sinboloa argituko da. Desaktibatzeko, berriz sakatu beharko da sinboloaren gainean.

FRONT Lainotako faroak piztea edo itzaltzea.

REAR Lainotako argi seinalea piztea edo itzaltzea. Gainera, tresnen koadroan kontrol-argia pizten da.

MAX Haizetakoaren lausoa kentzeko funtzioa konektatzea edo deskonektatzea ››› **143. orrialdea**.

REAR Luneta termikoa konektatzea edo deskonektatzea ››› **143. orrialdea**.

Gidaria da ibilgailuak beti faroak eta argiak behar bezala doituta eramatearen arduraduna.

Posizio-argia

Posizio-argia piztuta dagoenean, posizio-argiak pizten dira bi faroetan, atzeko talde optikoen eremu jakin batzuetan, matrikula-argian eta tresnen taulako teklen argian. Argi laburraren konexio automatikoa 10 km/h (6 mph) inguruko abiaduratik aurrera aktibatzen da.

Argi laburraren kontrol automatikoa AUTO

Argi laburraren konexio automatikoa konektatuta dagoenean, ibilgailuaren argiak eta tresnen eta aginteen argiztapena honako baldintza hauetan pizten eta itzaltzen dira:

- Argi-sentsoreak iluntasuna hauteman du.
- Haizetako-garbigailua aspalditik konektatuta dago.

Argiak piztuta daudenean, kontrol-argia argituko da horiz.

Argi laburraren konexio automatikoa funtzio osagarri bat baino ez da, eta ezin ditu beti behar bezain zehatz identifikatu gidatzean agertzen diren egoera guztiak.

Dagokion ekipamendua izanez gero, infotainment sistemaren ibilgailuaren doikuntza-menuan argi laburraren konexio automatikoaren unea doi daiteke ››› **38. orrialdea**.

Concerning argiaren funtzioa (bihurgune-argia)

Cornering *argia* argi laburrari gaineratutako funtzio bat da, abiadura motelean bihurgune itxi bat hartzean galtzadako albo-argiztapena hobetzekoa.

Argi laburra konektatuta dagoenean, bihurgune estatikoko argi bat pizten da 40 km/h (25 mph) baino abiadura txikiagoan zirkulatzen denean edo bihurgune oso itxietan.

- Bolantea biratzen bada edo keinukaria ipintzen bada, dagokion lainotako faroa piztu egiten da pixkanaka. Biraketa egin eta gero, *cornering* argia itzali egiten da pixkanaka.
- Atzera martxa ipintzen bada, bi lainotako faroak piztu egiten dira aldi berean.

Eguneko argiak

Eguneko argiek ikuspen handiagoa izan dezakete egunez zirkulatzen denean, eta automatikoki pizten dira pizgailua konektatzean (argitasuna detektatzen bada).

Autopistako argia

Autopistako argia erabilgarri dago LED High faroak dituzten ibilgailuetan.

Funtzioa konektatu eta deskonektatzen da infotainment sisteman dagokion menuaren bidez.

- **Aktibazioa:** 110 km/h-ko (68 mph) abiadura gainditzean 10 segundo baino gehiagoz, argi laburraren sorta altxatzen da pixka bat gidariaren ikuspen-distantzia handitzeko.
- **Desaktibazioa:** 100 km/h-tik (62 mph) behera murriztean ibilgailuaren abiadura, argi laburraren sorta berehala itzultzen da bere ohiko posiziora.

Argiak itzali ez direla ohartarazteko soinu-seinaleak

Pizgailua konektatuta ez badago eta gidariaren atea irekita baldin badago, zenbait ohartarazpen-seinale entzungo dira honako kasu hauetan: horrek argia itzali egin behar duzula oroitaraziko dizu.

- Aparkaldiko argia piztuta dagoenean ››› **126. orrialdea**.
- edo kontrol-argia piztuta dagoenean.

Irteerako argia konektatuta dagoela (“Coming Home funtzioa”), ibilgailua uztean ez da hots-ohartarazpenik entzungo argiak oraindik piztuta daudela jakinarazteko.

⚠ ADI

Bidea ez badago behar bezala argiztatuta eta handik doazen beste erabiltzaile batzuek ibilgailua ikusten ez badute edo nekez ikusten badute, istripuak gerta daitezke.

- **Argi laburraren kontrol automatikoak (AUTO) argi laburra pizten du argi-baldintzak aldatu egiten badira soilik, baina ez, adibidez, lainoa dagoenean.**

⚠ ADI

Posizio-argiak edo eguneko argiak behar bezala ikusteko edo beste ibilgailu batzuetako gidariek zu ikusteko adina argi ez dutenean.

- **Piztu beti argi laburra gauez, euria bada edo ikuspena ona ez bada.**
- **Bidea eguraldiaren erruz edo argiztapen-baldintzak direla medio behar bezala argiztatuta ez badago, ez da eguneko argiekin zirkulatu behar.**

⚠ ADI

Faroak altuegi erregulatuta baldin badaude eta modu desegokian erabiltzen baldin badira, bideko beste erabiltzaile batzuk nahasi edo itsutu ditzakezu. Horrek istripua eragin dezake, ondorio larriekin.

- **Ziurtatu beti faroak behar bezala doituta daudela.**

Oharra

- **Herrialde bakoitzean, horri buruz xedatutako legeei erreparatu beharko zaie ibilgailuaren argiak erabiltzeko.**
- **Argi laburrak pizgailua konektatuta dagoenean soilik funtzionatzen du. Pizgailua deskonektatzen denean, automatikoki konektatzen da posizio-argia.**
- **Lainotako atzeko argiak atzetik datozen ibilgailuak itsutu ditzake. Erabili lainotako atzeko argia ikuspena oso urria denean soilik.**
- **Argiak itzalita daudenean edo AUTO edo posizioan eta eguraldi txarrerako argiak pizten direnean, argi laburrak ere pizten dira, giro-argitasuna edozein dela ere.**

Keinukarien eta argi luzeen palanka



100. irudia Keinukarien eta argi luzeen palanka (bertsioen arabera).

Mugitu palanka nahi duzun posizioraino:

1. Eskuineko keinukaria edo eskuineko aparkaldiko argia (pizgailua deskonektatuta).
2. Ezkerreko keinukaria edo ezkerreko aparkaldiko argia (pizgailua deskonektatuta).
3. Argi luzea piztea. kontrol-argia pizten da tresnen koadroan.
4. Argi-keinua pizten da palankatik tiratzen den bitartean. kontrol-argia pizten da tresnen koadroan.

Ipini palanka pausa-posizioan, dagokion funtzioa deskonektatzeko.

Erosotasun-keinukariak

Pizgailua konektatuta dagoelarik, mugitu palanka gorantz edo beherantz erresistentzia topatzen duzun arte, eta, orduan, askatu palanka. Keinukariak hiru aldiz egingo du dir-dir.

Erosotasun-keinukaria lehenago deskonektatzeko, mugitu berehala palanka kontrako norabidean, erresistentzia eskaintzen duen punturaino, eta askatu.

Erosotasun-keinukariak aktiba eta desaktiba daitezke infotainment sisteman, ibilgailu-doikuntzen menuan ››› 38. orrialdea.

Aparkaldiko argia

Aparkaldiko argiak pizgailua deskonektatuta dagoenean soilik funtzionatzen du. Argi hori piztuta badago, soinu-seinale batek joko du gidariaren atea irekita dagoen bitartean.

- Deskonektatu motorraren pizgailua.
- Mugitu gorantz edo beherantz keinukarien palanka.

Aparkaldiko argia konektatuta dagoenean, aurreko posizio-argia eta atzeko argiaren zati bat piztu egiten dira ibilgailuari dagokion aldean.

Aparkaldiko argia bi aldetara

- Deskonektatu motorraren pizgailua.
- Sakatu botoia hautatzeko.
- Blokeatu ibilgailua kanpotik.

Hori egitean, bi faroetako posizio-argia soilik pizten da, baita atzeko argiak ere partzialki.

⚠ ADI

Keinukariak modu desegokian erabiltzen badira, erabiltzen ez badira edo haiek desaktibatzea ahazten baldin bada, nahasmena sor daiteke bideko erabiltzaileengan. Horrek istripua eragin dezake, ondorio larriekin.

- **Erreiz aldatu, aurreratu edo biratzeko maniobrak egin behar dituzun aldiro abisatu, keinukaria behar adina denboraz aktibatuta.**
- **Erreiz aldatzeko, aurreratzeko edo biratzeko maniobra amaitu bezain laster, deskonektatu keinukaria.**

⚠ ADI

Argi luzea behar bezala erabiltzen ez bada, istripu eta lesio larriak sorraraz daitezke; izan ere, argi luzeak beste gidari batzuk nahasi eta itsutu ditzake.

ⓘ Oharra

- **Keinukariak itzali gabe pizgailua deskonektatzen baduzu, soinu-seinale bat entzungo da gidariaren atea irekita dagoen bitartean. Keinukariak itzaltzea gogorarazten du xede, aparkaldiko argia piztuta utzi nahi duzunean izan ezik.**
- **Erosotasun-keinukariak piztuta badaude (hiru dir-dir) eta bestaldeko erosotasun-keinukaria aktibatzen baldin bada, aktibo zegoen aldeak dir-dir egiteari uzten dio, eta, hautatutako aldean, behin bakarrik egingo du dir-dir.**
- **Keinukariak pizgailua konektatuta dagoenean soilik funtzionatzen du. Larrialdi-keinukariek pizgailua deskonektatuta dagoenean ere funtzionatuko dute.**
- **Argi luzea argi laburra konektatuta dagoenean soilik pitz daiteke.**
- **Atoiaren keinukari batek huts egiten badu, kontrol-argiak dir-dir egiteari uzten dio (atoiaren keinukariak) ibilgailuan keinukariak abiadura bikoitzean dir-dir egin beharrean.**
- **Hotz denean edo hezetasuna dagoenean, litekeena da faroak, atzealdeko argiak edo keinukariak barnetik lausotuta geratzea. Fenomeno hori normala da eta ez du inolako eraginik ibilgailuaren argiztapen-sistemaren balio-bizitzan.**
- **Ezkerraldeko edo eskuinaldeko keinukaria konektatuta uzten baduzu, pizgailua deskonektatzean, aparkaldiko argia ez da automatikoki aktibatzen.**

Argi luzearen laguntzailea (Light Assist)

Argi luzearen laguntzaileak automatikoki saihesten du kontrako noranzkoan edo aurretik noranzko berean doazen ibilgailuak itsutzea.

Gainera, argi luzearen laguntzaileak argitutako eremuak detektatzen ditu eta argi luzea deskonektatzen du herrietatik pasatzean, adibidez.

Laguntzaileak, bere mugen barruan, automatikoki konektatzen edo deskonektatzen du argi luzea, ingurumen-baldintzen, zirkulazioaren eta abiaduraren arabera ››› ⚠.

Argi luzearen laguntzaile aurreratua (Matrix LED)

Argi luzearen laguntzaile aurreratuak ahalik eta argi gehien ematen die errepideari eta errepide-ertzei. Aldi berean, aurretik edo kontrako noranzkoan doazen ibilgailuak itsutzea saihesten du.

Sistemak kamera bat erabiltzen du errepidearen beste erabiltzaile batzuk detektatzeko, eta argiaren banaketaren barruko zenbait eremu modu espezifikoan desaktibatzen ditu. Sistemak ezin badu saihestu beste bide-erabiltzaile batzuk itsutzea, argi luzea erabat itzaliko da.

Argi luzearen laguntzaile aurreratuak, normalean, argiztatutako eremuak detektatzen ditu, hala nola hiriak, eta horietan zehar gidatzen den bitartean, argi luzea desaktibatzen du.

Sistemaren mugen barruan, laguntzaileak automatikoki pizten edo itzaltzen du argi luzea, ingurumen-baldintzen, trafikoaren eta erabiltzen ari den abiaduraren arabera.

Argi luzearen laguntzaile aurreratua Infotainment sistemako ibilgailuaren konfigurazioan aktiba edo desaktiba daiteke.

Argi luzearen laguntzailea edo argi luzearen laguntzaile aurreratua (Matrix LED) konektatzea

- Konektatu pizgailua eta hautatu AUTO modua argien agintean ››› 99. irudia.
- Oinarrizko posiziotik, sakatu aurrerantz keinukarien eta argi luzeen palanka ››› 100. irudia ③.

Argi luzearen laguntzailea konektatuta dagoenean kontrol-argia pizten da tresnen koadroko pantailan. Argi luzea aktibo dagoenean, argi luzearen kontrol-argi urdina pizten da tresnen koadroko pantailan.

Argi luzearen laguntzailea edo argi luzearen laguntzaile aurreratua (Matrix LED) deskonektatzea

- Deskonektatu AUTO modua argien agintean ››› 99. irudia.
- **EDO:** argi luzearen laguntzailea konektatuta badago, tira egin keinukarien eta argi luzearen palankatik atzerantz ››› 100. irudia ④.
- **EDO:** errepide-argiaren laguntzailea konektatuta badago, baina errepide-argia **ez** dago aktibatuta, egin presioa aurrerantz keinukari- eta argi luze-palankan, eskuz pizteko errepide-argia. Egin tira atzerantz keinukari- eta argi luze-palankatik, errepide-argia, hala badagokio, eskuz itzaltzeko.
- **EDO:** deskonektatu motorraren pizgailua.

Sistemaren mugak

Hurrengo kasuetan argi luzea eskuz deskonektatu behar da, izan ere, argi luzearen laguntzaileak ez du garaiz deskonektatuko edo ez du inola ere deskonektatuko:

- Behar bezala argiztaturik ez dauden bideetan, non kartel oso dirdiratsuak dauden.
- Argiztapen eskasa duten bideetako erabiltzaileak, adibidez, oinezkoak edo txirrindularik, daudenean.
- Bihurgune itxietan, aurkako noranzkoan datozen ibilgailuak partzialki estalita geratzen direnean edo aldapa edo malda handietan.
- Aurkako noranzkoan ibilgailuak dituzten eta babes-hesia zentral batez banaturik dauden bideetan, gidariak ondo ikus dezakeenean hesiaren gainetik, adibidez, kamio baten gidariak.
- Lainoa, elurra eta euri mardula ari badu.
- Hautsezko edo areazko zurrunbiloak egonez gero.
- Haizetakoa matxuraturik dagoenean kameraren ikuseremuan.
- Kameraren ikuseremua lausotua, zikin edo eranskailuez, elurrez edo izotzez estalita dagoenean.
- Kamera matxuratuta badago edo korronte-elikadura eten egin bada.

⚠ ADI

Argi luzearen laguntzailearen erosotasun-prestazioek ez zaituzte arriskuak hartzera eraman behar. Sistemak ezin du gidariaren arreta ordezkatu.

- **Argi luzea beti zuk kontrolatu behar duzu eta hura argiztapen-, ikuspen- eta trafiko-baldintzen arabera egokitu behar duzu.**
- **Litekeena da argi luzearen erreguladoreak gidatzerakoan sor daitezkeen egoera guztiak behar bezala ez hautematea eta une jakin batzuetan muga batzuekin funtzionatzea.**
- **Kameraren ikus-eremua zikina, estalita edo kaltetuta badago, horrek eragina izan dezake argi luzearen doitzailearen funtzionamenduan. Gauza bera gertatzen da ibilgailuaren argiztapen-instalazioa aldatzen denean, esate baterako, faro gehigarriak instalatzen direnean.**

ⓘ KONTUZ

Sistemaren funtzionaltasunean ez eragiteko, hartu kontuan honako puntu hauek:

- **Garbitu maiz kameraren ikus-eremua, eta elurrik eta izotzik gabe mantendu.**
- **Ez estali kameraren ikus-eremua.**
- **Egiaztatu kameraren ikus-eremuan haizetakoa ez dagoela kaltetuta.**

Oharra

- **Argi-keinua eskuz konekta eta deskonekta daiteke edozein unetan, keinukarien eta argi luzearen palankarekin** >>> 126. orrialdea.
- **Kameraren eragin-eremuan argia irradiatzen duten objektuak badaude, adibidez, nabigazio-sistema eramangarri bat, argi luzearen laguntzailearen funtzionamendua kalte daiteke.**

“Coming home” eta “Leaving home” funtzioa (kanpoko orientazio-argiztapena)

“Coming home” eta “Leaving home” argiek ibilgailutik gertuen dagoen ingurunea argiztatu egiten dute, ilunpetan ibilgailura igotzean eta ibilgailutik jaistean.

Argi hori automatikoki kontrolatzen da, argi-sentsore baten bidez.

“Coming home” argia piztea

- Desblokeatu ibilgailua (argi laburraren konexio automatikoa AUTO konektatuta badago eta argi-sentsoreak iluntasuna hauteman badu).

“Coming home” argia itzaltzea

- Automatikoki itzaltzen da argiak itzaltzeko atzerapen-denbora igaro ostean.
- **EDO**: blokeatu ibilgailua.
- **EDO**: sakatu argi-agintea behar adina aldiz, harik eta tresnen koadroan doikuntza erakusten den arte OFF.
- **EDO**: konektatu pizgailua.

“Leaving home” argia piztea

- Deskonektatu motorraren pizgailua.

“Leaving home” argia pizten da gidatzeko argiaren AUTO konexio automatikoa konektatuta badago eta argi-sentsoreak iluntasuna hauteman badu.

Argiak itzaltzeko atzerapena ibilgailuaren azken atea edo maletategiko atea ixten denean hasten da.

“Leaving home” argia itzaltzea

- Automatikoki itzaltzen da argiak itzaltzeko atzerapena doitzeko denbora igaro ostean.
- **EDO**: automatikoki itzaltzen da, funtzioa aktibatu eta 30 segundo ingurura ibilgailuko ateren bat edo maletategiko atea oraindik irekita badaude.
- **EDO**: sakatu argi-agintea behar adina aldiz, harik eta tresnen koadroan doikuntza erakusten den arte OFF.
- **EDO**: konektatu pizgailua.

“Coming home” eta “Leaving home” doitzea

Ibilgailuaren doikuntza-menuan, infotainment sisteman, argiak itzaltze-atzerapenaren iraupena doi daiteke, baita funtzioa aktibatu eta desaktibatu ere >>> 38. orrialdea.

Faroen irismen-erregulazio dinamikoa

Faroen irismena automatikoki egokitzen da ibilgailuaren kargaren egoerara pizten direnean.

ADI

Argien irismen-erregulazio dinamikoa matxuratzen bada edo behar bezala funtzionatzen ez badu, faroek beste bide-erabiltzaileak itsutu eta distraitu ditzakete. Horrek istripuak eragin litzake, eta lesio larriak gertatzea.

- **Joan berehala tailer espezializatu batera eta eskatu argien irismenaren erregulazioa berrikusteko.**

Atzerrian gidatzea

Argi laburraren argi-izpiak asimetrikoa dira: igarotzen den errepidearen aldea intentsitate gehiagoz argiztatzen da.

Eskuinetik gidatzen den herrialde batean fabrikatutako auto bat ezkerretik gidatzen den herrialde batera eramaten denean (edo alderant-

ziz), normalean, faroetako tuliparen zati bat estali behar izaten da maskara itsaskor batzuekin edo faroen erregulazioa aldatu behar izaten da beste gidariak ez itsutzeko.

Kasu horietarako, araudiak argiaren banaketako puntu jakin batzuetan bete beharreko argi-balio batzuk zehazten ditu. “Argi turista” izenarekin ezagutzen da hori.

Faroek duten argiaren banaketari esker, “argi turista” erabiltzeko zehaztu diren balioak bete egiten dira, maskara itsasgarrien edo doitzeko aldaketen beharrik gabe.

Oharra

“Argi turista” aldi baterako soilik dago baimendua. Pertsona batek zirkulatzeko beste modu bat duen herrialde batean egonaldi luzea igarotzeko asmoa baldin badu, baimendutako zerbitzu tekniko batera joan beharko da faroak aldatzera.

Barruko argiak

Tresnen koadroaren, pantailen eta aginteen argiztapena

Infotainment sistemako ibilgailu-doikuntzetako menuan n doi daitezke tresnen eta aginteen argiztapen-intentsitatea ››› 38. orrialdea.

Doitutako intentsitatea automatikoki egokitzen da ibilgailuaren ingurumen-argitasunaren aldaketetara.

Argi laburraren konexio automatikoa **AUTO**konektatuta dagoenean, sentsore batek automatikoki pizten edo itzaltzen du argi laburra, bai eta tresnen eta aginteen argiztapena ere, giro-argiaren arabera.

Kasu batzuetan, adibidez, tunel bat zeharkatzean argi laburraren konexio automatikoa **AUTO** konektatuta egon gabe, tresnen koadroaren argiztapena itzali egiten da. Funtzio horrek honako hau du helburu: gidariari argi laburrak piztu behar dituela gogorarazteko keinu bat ematea. Zure ibilgailuak tresnen koadro digitala badauka, tresnen koadroan **Encienda las luces** oharra agertuko da.

Barruko eta irakurtzeko argiak

101. irudia Sabaiaren estalkiaren xehetasuna: bidaiari-lekuaren aurreko argiak.

Barruko argiak piztu edo itzaltzea.

OFF Atearen kontaktu bidezko konexioa. Barruko argiak automatikoki pizten dira ibilgailua desblokeatzean, ate bat irekitzean edo pizgailua deskonektatzean. Argia ate guztiak itzali eta segundo batzuen ondoren, ibilgailua ixtean eta pizgailua konektatzean itzaltzen da.

Irakurketa-argia

Irakurtzeko argia ukimenezkoa da, lente bakoitza bakarka piztu eta itzaltzen da, dagokion erdiko gunean sakatuz. Gainera, argiaren intentsitatea erregula daiteke egindako presioaren arabera.

Bi lenteak batera piztu nahi bada, sinboloa hau sakatu behar da: ››› 101. irudia.

Gordetegiaren eta maletategiaren argiztapena

Gidarikidearen aldeko gordetegia eta maletategia ireki eta ixtean, dagokion argia piztu eta itzali egingo da automatikoki.

Oinetako argiak

Taularen azpialdeko oinetako argiak (gidaria eta gidarikidea) piztu egingo dira ateak irekita daudenean eta, gidatzen den bitartean, horien intentsitatea gutxitu egingo da. Intentsitate hori infotainment sistemaren menuaren bidez doitu ahal izango da, **> Iluminación ambiental** ››› 38. orrialdea funtzio-botoia erabiliz.

Oharra

Irakurketa-argiak itzaltzen dira ibilgailua ixtean eta blokeatzean edo minutu batzuen buruan kontaktua kentzen den unetik. Horrela, ibilgailuaren bateria agortzea ekiditen da.

Giro-argia

102. irudia Irudikapen eskematikoa: Giro-argia.

Girotze-argiak argiztapena ematen du bidaiarilekuko hainbat gunetan.

Aurrez definitutako **Giro-argiaren** bertsioak daude ››› **102. irudia**.

Argiztapenaren intentsitatea doitu ahal da funtzio-botoi honen bidez ☼:

`Drive profile` Ibilgailuaren barrualdea argiztatzen du, aukeratutako gidatze-profilaren arabera.

`Individual` Eremu bakoitzean giro-argiaren intentsitatea doitzeko, eta kolorea aldatzeko aurrealdeko ateetako panelean eta tresnen taularen linean argiztapena duten bertsioetan.

`Off` Giro-argia itzaltzen du.

Giro-argiaren funtzio osagarriak

- **Ate irekiaren abisua:** Aurreko atearen lerroan, ibilgailua 10 km/h-ra iristen bada eta aurreko bi ateetako bat behar bezala itxita ez badago.
- **Blokeatutako atzealdeko leihoen abisua:** Dagokion aurrealdeko atearen linean irudikapena, atzealdeko leihatiletako beira-jasogailuetako etengailuak manipulatzean, horiek blokeatuta badaude ››› **109. orrialdea** segurtasun-botoiaren bidez, eta ibilgailua blokeatuta badago (Auto Lock).
- **Larrialdi-argi keinukarien irudikapena:** Animazioa giro-argi osoan, larrialdi-argi keinukarien funtzioa aktibo dagoen bitartean.
- **Azelerazioaren irudikapena:** Animazioa giro-argi osoan, azelerazio-uneetan. Funtzio hori Cupra profilean baino ez da irudikatzen, baldin eta giro-argiaren eta gidatze-profilen (Drive profile) arteko lotura aktibatuta badago.

Funtzio horiek giro-argian irudikatzea aktibatu eta desaktibatu daiteke, bai banaka bai batera, infotainment sisteman: 🚗 > **`Iluminación ambiental`** > ⚙ **`Ajustes`**.

Ikuspena

Haizetako-garbigailuaren eta luneta-garbigailuaren sistemak

Beira-garbigailuaren palanka



103. irudia Haizetako-garbigailuaren eta luneta-garbigailuaren erabilera.

Mugitu palanka nahi duzun posizioraino:

OFF (0) Haizetako-garbigailua deskonektatuta.

INT (1) Txandakako ekorketa haizetako-garbigailurako edo euri-sentsorea aktibatzen da. Haizetakoaren aldizkako ekorketa zer abiaduratan dabilen arabera egiten da. Zenbat eta azkarrago ibili, orduan eta sarriago garbituko ditu kristalak.

LOW (2) Ekorketa mantsoa.

HIGH (3) Ekorketa bizkorra.

1x (4) Ekorketa laburra. Palanka denbora gehiagoz sakatzen bada, ekorketa bizkortzen da.

(5) Palankatik tiraka, haizetako-ureztagailuaren garbiketa automatikoa konektatzen da Climatronic-ak airearen birzirkulazioa 30 segundo inguruz konektatzen du, kristalak garbitzeko likidoaren usaina bidaiari-lekuan sar ez dadin.

(6) Lunetarako tartekako ekorketa konektatzen da. Luneta-garbigailuak 6 segundo inguruko tarteetan funtzionatzen du.

(7) Palanka sakatuta mantenduz, luneta-garbigailuaren ekorketa automatikoa konektatzen da.

(A) Ekorketa-tarteen iraupena (euri- eta argi-sentsorerik gabeko ibilgailuak) edo euri-sentsorearen sentikortasuna doitzeko agintea.

ADI

Kristalak garbitzeko likidoari izotz-aurkako nahikoa gehitzen ez bazaio, likido hori kristalaren gainean izoztu daiteke eta ikuspena zaildu dezake.

- **Ez erabili haizetako-garbigailuaren sistema neguko tenperaturekin, berokuntza- eta aireztapen-sistemarekin haizetakoa aldez aurretik berotu gabe. Haizetako-garbigailuaren likidoa haizetakoaren gainean hoztu daiteke eta aurreko ikuspena zaildu.**

ADI

Gastatutako edo zikin dauden beirak garbitzeko eskuilak erabiltzen badira, ikuspena murrizten dute eta istripuak eta lesio larriak gertatzeko arriskua areagotzen dute.

- **Eskuilak ordeztu, egoera txarrean edo higatuta badaude eta kristalak behar beste garbitzen ez badituzte** >>> 331. orrialdea.

KONTUZ

Abiatzeari ekin aurretik eta pizgailua konektatu aurretik, egiaztatu honako hau beiran, beirak garbitzeko eskuiletan eta beirak garbitzeko motorrean kalteak saihesteko:

- **Beira-garbigailuaren palanka garbitzeko beheko posizioan dago.**
- **Beira-garbigailuan eta beiretan egon daiteken elurra eta izotza kendu ditu.**
- **Kontuz askatu ditu beirak garbitzeko izoztutako eskuilak. CUPRAk, hori egiteko, izotzaren aurkako aerosol bat erabiltzea gomendatzen du.**

KONTUZ

Ez konektatu beira-garbigailua beira lehor badago. Beirak garbitzeko eskuilak lehorrean ekortzeak kalte egin diezaioke beirari.

Oharra

- **Ibilgailua beira-garbigailua konektatuta dagoela gelditzen denean, beheko ekorketa-maila berean jarriko da martxan aldi baterako,**
- **Ibilgailua geldituta dagoela gidariaren edo gidarikidearen aldeko atea irekitzen bada, haizetako-garbigailuak abiapuntura itzuliko dira eta deskonektatu egingo dira. Atea ixten bada edo beirak garbitzeko palanka segundo gutxi batzuetan mugitzen bada, haizetako-garbigailuak berriz konektatzen dira.**
- **Neguan, haizetako-garbigailuen zerbitzu-posizioa baliagarria izan daiteke beira garbitzeko eskuilak haizetakotik hobeto altxatzeko ibilgailua aparkatuta uzterakoan** **>>> 331. orrialdea.**

Haizetako-garbigailuaren funtzioak

Luneta-garbigailuaren ekorketa automatikoa

Luneta-garbigailua automatikoki konektatzen da, haizetako-garbigailua aktibatuta dagoela, atzera martxa sartzen denean. Atzerako martxa sartzean, luneta-garbigailuaren konexio automatikoa infotainment sisteman aktibatu eta desaktibatu daiteke, ibilgailuaren doikuntzen menuan >>> **38. orrialdea**.

Oharra

Haizetako-garbigailua aktibatu ostean, 5 segundo inguru barru egingo da hurrengo ekorketa, baldin eta ibilgailuak martxan jarraitzen badu ("jario-sistema"). 10 segundo baino denbora-epe laburrago batean, "jario-funtzioaren" ostean beira-garbigailuaren funtzioa aktibatzen bada berriz ere, beste garbiketa-ziklo bat hasiko da azken ekorketa egin gabe. "Jario-funtzioa" berriz ere izateko, pizgailua desaktibatu eta berriro aktibatu beharko duzu.

Oharra

Beirak-garbigailuak beiran oztoporen bat topatzen badu, hura garbitzen saiatuko da. Oztopoak beira-garbigailuaren funtzionamendua blokeatzen jarraitzen badu, gelditu egingo da. Kendu oztopoa eta konektatu berriro beira-garbigailua.

Euri- eta argi-sentsorea



104. irudia Haizetako-garbigailuko palanka: euri-sentsorea doitzea Ⓐ.



105. irudia Euriaren sentsorearen azalera sentsiblea.

Euriaren sentsorea aktibatuta dagoenean bere kabuz kontrolatzen ditu haizetako-garbigailuaren denbora-tarteak euri-kantitatearen arabera >>> ⚠.

Egin presioa palankari nahi den posiziora ››› 104. irudia.

⓪ Euriaren sentsorea desaktibatuta.

① Euriaren sentsorea aktibatuta; ekorketa automatikoa beharrezkoa bada.

Ⓐ Euri-sentsorearen sentikortasuna doitzea:
– Agintea eskumarantz doitzea: sentikortasun-maila altua.
– Agintea ezkerrerantz doitzea: sentikortasun-maila baxua.

Pizgailua deskonektatu eta berriro konektatu ondoren, euri-sentsorea aktibatuta geratzen da eta berriro funtzionatzen du haizetako-garbigailua ››› 104. irudia ① posizioan dagoenean eta 16 km/h-ko (10 mph) abiaduran zirkulatzen denean.

Euri- eta argi-sentsorearen ezohiko funtzionamendua

Hauek dira, besteak beste, euriaren sentsorearen *azalera sentsiblearen zonaldean* ››› 105. irudia anomalia eta interpretazio akastunen balizko arrazoiak:

- **Eskuila kaltetuak**: kaltetutako eskuiletan urgeruza fin bat baldin badago aktibatzeko denbora luzatu egin daiteke, garbiketarako tarteak murriztu egin daitezke edo ekorketa azkar eta jarraituan eragin dezake.
- **Insektuak**: intsektuak daudenean haizetako-garbigailua aktibatzea gerta daiteke.
- **Gatza kaleetan**: neguan kaleetan botatzen den gatzaren ondorioz, ekorketa oso luzea gerta daiteke, haizetakoa ia lehor dagoela.
- **Zikinkeria**: hauts lehorrak, argizariak, kristalen gaineztatzeak (loto efektua) edo detergenteen hondarrek (garbiketa-tunela) euri-sentsorearen eraginkortasuna murriztea edo erreakzio berantiarragoa izatea, motelagoa izatea edo ez funtzionatzea eragin dezakete. Garbitu maiztasunez euri-sentsorearen azalera sentikorra ››› 105. irudia (gezia) eta egiaztatu eskuiletan egon daitezkeen kalteak.
- **Arrakala haizetakoan**: harri baten inpaktuak ekortze ziklo bakarra eragiten du euri-sentsorea konektatuta badago. Ondoren, euriaren sentsoreak azalera sentsiblearen murrizketa hauteman eta doitu egiten da. Harriaren inpaktuaren tamainaren arabera sentsorearen portaera aldakorra izan daiteke.

⚠ ADI

Litekeena da euriaren sentsoreak euria behar bezala ez hautematea eta haizetako-garbigailua ez aktibatzea.

- **Beharrezkoa bada, konektatu haizetako-garbigailua eskuz urak haizetakoan ikuspena zailtzen duenean.**

ⓘ Oharra

- **Argizariak eta gaineztatzeak kentzeko beiretarako alkoholdun detergenteak erabiltzea gomendatzen da.**
- **Ez ezazu pegatinarik jarri haizetakoan euri-sentsorearen aurrean. Horretan, aldaketak edo akatsak sor daitezke.**

Atzerako ispiluak

Segurtasun-jarraibide orokorrak

Kanpoko atzerako ispiluen eta barruko atzerako ispiluaren bidez, gidariak atzetik doazen ibilgailuak ikus ditzake, eta euren bolate aurreko portaera horien arabera egokitu.

Segurtasunez gidatzeko, garrantzitsua da gidariak kanpoko atzerako ispiluak eta barruko atzerako ispilua behar bezala doitzea martxa hasi aurretik.

Kanpoko atzerako ispilutik eta barruko atzerako ispilutik begiratzean, ezin da ikusi ibilgailuaren atzeko eta alboetako eremu osoa. Ikusmen-eremutik kanpo geratzen diren eremu horiei angelu itsua deitzen zaie. Angelu itsuan bidean dauden beste erabiltzaile batzuk eta objektuak egon daitezke.

⚠ ADI

Kanpoko atzerako ispiluak eta barruko atzerako ispilua doitzeak gidariak arreta galtzea suposa dezake. Horrek istripuak eragin ditzake eta lesio larriak.

- **Doitu kanpoko atzerako ispiluak eta barruko atzerako ispilua, ibilgailua geldirik dagoenean bakarrik.**
- **Aparkatzean, erreiaz aldatzean, aurreratzean edo biratzean, begiratu arretaz beti inguruari, angelu itsuan ere bidean dauden beste erabiltzaile batzuk edo objektuak egon baitaitezke.**
- **Ziurtatu beti atzerako ispiluak ondo doituta daudela eta izotzak, elurrak, lausoak edo objekturen batek atzerako ikuspena murrizten ez duela.**

⚠ ADI

Atzetik doazen ibilgailuen distantzia zehaztasunez kalkulatzen ez bada, istripu eta lesio larriak gerta daitezke.

- **Ispilu kurboek (ganbilek edo esferikoek) ikus-eremua handitzen dute eta objektuak txikiagoak eta urrunago ikusten dira horietan.**
- **Ispilu kurboek ez dute uzten zehatz kalkulatzen atzetik zirkulatzen duten ibilgailuen distantzia, eta, beraz, horiek erabiltzen badira erreiz aldatzean, istripu eta lesio larriak eragin ditzakete.**
- **Ahal den neurrian, erabili barruko atzerako ispilua atzetik datozen ibilgailuekiko edo beste objektuekiko distantzia zehatz kalkulatzeko.**
- **Ziurtatu beti ikuspen nahikoa duzula atzerantz.**

⚠ ADI

Atzerako ispilu anti-itsutzaile automatikoek likido elektrolitikoa dute, eta, ispilua hautsiz gero, likido elektrolitikoa irteteko aukera dago.

- **Irteten bada, likido elektrolitikoak azala, begiak eta arnasketa-organoak sumindu ditzake, batez ere, asma edo antzeko gaixotasunak dituzten pertsonen kasuan. Arnastu berehala aire fresko nahikoa eta irten ibilgailutik edo, hori ezinezkoa bada, ireki leihatila eta ate guztiak.**
- **Likido elektrolitikoa begiekin edo larruazalarekin kontaktuan sartuko balitz, eragin uretan berehala eragindako eremua, 15 minutuz gutxienez, eta joan mediku batengana.**
- **Likidoak oinetakoak edo jantziak ukitzen baditu, garbitu berehala ur ugarirekin, gutxienez 15 minutuz. Oinetakoak edo jantzia berriro erabili aurretik, garbitu itzazu ondo.**
- **Likido elektrolitikoa irentsiko bazenu, garbitu ahoa berehala ur askorekin, gutxienez 15 minutuz. Ez eragin gorakoa mediku batek aholkatzen ez badu. Joan berehala medikuarengana.**

ⓘ KONTUZ

Atzerako ispilu anti-itsutzaile automatiko bat hautsiz gero, litekeena da likido elektrolitikoa irtetea. Likido horrek plastikoaren azalerak erasotzen ditu. Horregatik, garbitu lehenbailehen belaki heze batekin, esaterako.

Barruko ispilua

Anti-itsutzaile funtzio automatikoz hornitutako barnealdeko atzerako ispilua

Pizgailua konektatuta dagoenean, atzerako ispiluko sentsoreek argiaren eragina neurtzen dute, atzetik eta aurretik.

Barruko atzerako ispilua automatikoki iluntzen da neurtutako balioen arabera.

Argiaren intzidentzia sentsoreetan oztopatzen edo eteten denean, adibidez, eguzki-babesaren errezel txiki batengatik edo zintzilikatzen diren objektuengatik, barruko atzerako ispilu anti-itsutzaile automatikoak ez du funtzionatzen edo ez du behar bezala egiten. Era berean, haizetakoan edo ibarruko atzerako ispilu anti-itsutzaile automatikotik gertu finkatutako nabigazio-gailu eramangarriak erabiltzeak eragina izan dezake sentsoreen funtzionamenduan ››› ⚠.

Funtzio anti-itsutzaile automatikoa zenbait egoeratan desaktibatzen da, adibidez, atzera martxa ibiltzen denean.

⚠ ADI

Nabigazio-gailu eramangarrien pantailako argiak akatsak eragin ditzake barruko atzerako ispilu anti-itsutzaile automatikoaren funtzionamenduan, eta istripua eta lesio larriak eragin.

- **Funtzio anti-itsutzaile automatikoaren funtzionamendu anomaloaren ondorioz, baliteke ezinezkoa izatea barneko atzerako ispilua erabiltzea atzetik datozen ibilgailuekiko edo beste objektuekiko distantzia zehazki kalkulatzeko.**

Kanpoko ispiluak doitzea



106. irudia Gidariaren aldeko atearen xehetasuna: kanpoko atzerako ispiluen agintea.

Biratu agintea dagokion posiziora.

L / R Agintea nahi duzun posiziora mugituz, doitu gidariaren aldeko atzerako ispiluak (**L**, ezkerra) eta gidarikidearen aldekoak (**R**, eskuina), nahi duzun norabidean.

Ekipamenduaren arabera, atzerako ispiluak berotu egiten dira kanpoko tenperaturaren arabera.

Atzerako ispiluak tolestea ››› ⚠.

0 Kanpoko atzerako ispilua ezin da doitu eta funtzio guztiak desaktibatuta daude.

Kanpoko atzerako ispiluen funtzioak aktibatzea

Kanpoko atzerako ispiluen honako funtzio hauek aktiba eta desaktiba daitezke infotainment sisteman, ibilgailu-doikuntzen menuan ››› 38. orrialdea.

Kanpoko atzerako ispiluen doikuntza sinkronizatua

Atzerako ispiluen doikuntza sinkronizatuak, aldi berean, eskuineko kanpoko atzerako ispilua doitzen du ezkerrekoa doitzen denean.

- Biratu agintea **L** posizioraino[1].
- Doitu kanpoko ezker atzerako ispilua. Eskuineko atzerako ispilua aldi berean doituko da (modu sinkronizatuan).
- Beharrezko izanez gero, zuzendu eskuinaldeko atzerako ispiluaren doikuntza: biratu agintea **R** posizioraino[1].

Plegatu kanpoko atzerako ispiluak ibilgailua ixtean

Ibilgailua kanpotik blokeatzen edo desblokeatzen denean, kanpoko atzerako ispiluak automatikoki tolestu edo zabaldu daitezke ekipamenduaren arabera. Horretarako, aginte birakariak , **L**, **R**, edo **0** posizioan egon behar du.

Kanpoko atzerako ispilu elektrikoen aginte birakaria toleste-posizioan badago, kanpoko atzerako ispiluak tolestuta egongo dira.

Memoria-funtzioa

Memoria teklen bidez ››› 121. orrialdea kanpoko atzerako ispiluetarako doikuntzak gorde eta aktiba daitezke.

Egindako doikuntzak lineako zerbitzuko[2] erabiltzailearen profilean ere gordeko dira.

Gidarikidearen kanpoko atzerako ispilurako doikuntza, atzerako martxarako, memorian gordetzea

- Konektatu pizgailua.
- Infotainment sisteman, hautatu > **Vehículo** > **Exterior** > **Retrovisores** ››› 38. orrialdea.

---

[1] Bolantea eskuinean duten ibilgailuetan, erregulazioa simetrikoa da

[2] Ez dago eskuragarri merkatu guztietan.

- Hautatu agintean posizioa R[1].
- Sartu atzera martxa.
- Doitu gidarikidearen kanpoko atzerako ispilua espaloiko ertza ongi ikusteko moduan, adibidez.
- Kendu atzera martxa.
- Atzerako ispilurako posizio doitua memorian gordetzen da.

Gidarikidearen kanpoko atzerako ispiluaren doikuntzak aktibatzea atzera martxarako

- Biratu kanpoko atzerako ispiluetako agintea R posiziora[1].
- Engranatu atzera martxa pizgailua konektatuta dagoenean. Eskuineko kanpoko atzerako ispilua gordetako posizioan kokatuko da.

Gidarikidearen kanpoko atzerako ispiluak atzerako martxarako gordetako posizioa uzten du, ibilgailua 15 km/h (9 mph) inguruko abiaduran aurrera badoa edo agintea R posiziotik beste batera biratzen bada.

⚠ ADI

Kanpoko atzerako ispiluak ardurarik gabe tolestu eta zabaltzeak lesioak eragin ditzake.

- **Tolestu edo zabaldu kanpoko atzerako ispilua, ez badago inor atzerako ispiluaren ibilbidean.**
- **Atzerako ispilua mugitzerakoan kontuz ibili ispiluaren eta euskarriaren artean hatzak ez harrapatzeko.**

KONTUZ

- **Ibilgailua garbiketa-tunel automatikoan garbitzen baduzu, kanpoko atzerako ispiluak tolestu beharko dituzu, kalte ez daitezen.**
- **Elektrikoki tolestu ahal diren kanpoko atzerako ispiluak ez dira eskuz eragin behar, elektrikoki soilik, izan ere, horien eragingailu elektrikoa kaltetu daiteke.**

Ingurumenari buruzko oharra

Ez utzi piztuta kanpoko atzerako ispiluen berokuntza behar baino denbora gehiago. Bestela, beharrezkoa ez den energia kontsumoa eragingo du.

Oharra

Doikuntza elektrikoak huts egiten badu, ispiluetako bi azalerak eskuz doitu ahalko dira, ertzaren gainean sakatuz.

Eguzkitarako babesa

Eguzki-babesa



107. irudia Eguzki-babesa.

Gidariarentzako eta gidarikidearentzako eguzki-babesak doitzeko aukerak

- Eguzki-babesa jaitsi, haizetakorantz.
- Eguzki-babesa finkapenetik atera eta >>> **107. irudia** (1) aterantz biratu daiteke,
- Baskulatu eguzki-babesa aterantz, atzerantz luzetara.

Eguzki-babesean kortesiazko ispilu bat dago, tapa batek estalita. Tapa lerratzean (2) argi bat pizten da.

Argia kortesiazko ispiluaren tapa ixtean edo eguzki-babesa igotzean itzaltzen da.

[1] Bolantea eskuinean duten ibilgailuetan, erregulazioa simetrikoa da

⚠ ADI

Jaitsitako eguzki-babesek ikuspena murriztu dezakete.

- Ipini beti eguzki-babesak berriro beren finkapenean dagoeneko behar ez dituzunean.

Oharra

Eguzki-babesaren gainean dagoen argia automatikoki itzaltzen da baldintza jakin batzuetan zenbait minutu igarota. Horrela, ibilgailuaren bateria agortzea ekiditen da.

Klimatizazioa

Berotze, aireztatze eta hozte-sistema

Aurkezpena

3 eremuko **Climatronic**: berotzen, aireztatzen, hozten eta hezetasuna kentzen du bidaiari-lekuan, hori klimatizaziorako 3 eremu bereizitzat (gidariarena, gidarikidearena eta atzekoa) harturik.

Klimatizazioa pizteko hainbat modu daude:

- Sakatu klimatizazioa menuan ››› **143. orrialdea**.
- **EDO:** Sakatu klimatizazio menuan ››› **143. orrialdea** edo argi-agintean ››› **124. orrialdea**.
- **EDO:** Aldatu nahi duzun tenperatura.
- **EDO:** Sakatu AUTO

Funtzio eta menu-fitxa batzuk ekipamenduaren araberakoak dira.

Aire girotuaren modu ekonomikoa

Aire girotua konektatuta badago, baliteke konpresoreak erregaiaren (errekuntza-motorrak) edo elektrikoaren (hibridoa modu elektrikoan) kontsumo gehigarria izatea.

Klimatizagailuaren errendimendu optimoa lortzen da leihatilak eta beirazko sabaia itxita. Halere, bidaiari-lekua gehiegi berotu bada eguzkitan egon delako, lehenago hoztuko da leihatilak eta beirazko sabaia irekita uzten badira denbora pixka batez.

Klimatizagailua ahots-komandoekin maneiatzea

Klimatizagailuaren hainbat funtzio maneiatu ahal dira, ekipamenduaren arabera, ahots bidez ››› **275. orrialdea**.

Bidaiariak detektatzeko funtzioa[1)]

Aurreko bidaiaria eta atzeko eremua antzemateko funtzioarekin, horko klimatizazioa murrizten da bertan okupaziorik antzematen ez denean, ibilgailuaren energia-kontsumoa murriztеko helburuarekin.

Pizgailua konektatuta dagoela, ibilgailuak jakingo du pertsona bat dagoen eserita.

Klimatizazio-murrizketa adierazten da:

- *Zona de pasajero delantero*: gidarikidearen tenperatura-doikuntzan, hor **ECO** erakutsiko da aukeratutako tenperaturaren ordez.
- *Atzeko eremua:* Atzeko tenperatura-doikuntzan, hor ECO erakutsiko da hautatutako tenperaturaren ordez. Gainera, klimatizazio-murrizketa hori atzean dagoen agintean ere adieraziko da.

Lortutako klimatizazio-ehunekoaren funtzioa

Helburu den erosotasun-tenperaturara iristeko zenbat falta den ehunekoetan erakusten du.

Behin iritsita, pantailan % 100 agertuko da. Adierazle bat dago gidariaren zonalderako, eta beste bat gidarikidearen zonalderako.

Hauts eta polenaren iragazkia

Karbono aktibodun hauts eta polen iragazkiaren kartutxoak bidaiari-lekuan sartutako airearen zikinkeria murrizten du.

Hauts eta polenaren iragazkia maiz aldatu behar da, klimatizagailuaren ahalmenean ez eragiteko.

Ibilgailua zikinkeria asko dagoen ingurune batean erabiltzeagatik iragazkiaren errendimendua gutxiagotzen bada, aurreikusitako momentura arte itxaron gabe, iragazkia aldatu egin beharko da.

Aire-difusoreak

Bidaiari-lekua berotu, hoztu eta aireztatu ahal izateko, aire-difusoreek irekita egon behar dute.

Beste aire-difusore osagarri batzuk ere badaude, ezin direnak doitu, tresnen taulan bertan, oinazpikoan eta bidaiari-lekuaren atzealdean.

---

1) Erabilgarri ibilgailu hibridoetarako.

ADI

Ibilgailuaren leiho guztietatik ikuspen egokirik egon ezean, ondorio larriko istripu bat izateko aukera areagotu egingo da.

- Kanporako ikuspen egokia mantentzeko, ziurtatu leihoetan ez dagoela izotz zein elurrik, ezta lurrunik ere.
- Ikuspen ona dagoenean soilik jarri martxan.
- Ziurtatu beti klimatizagailua eta luneta termikoa behar bezala erabiltzen dituzula, kanpoan gertatzen dena ongi ikusi ahal izateko.
- Denboraldi luze batean inoiz ez utzi airearen birzirkulazioa erabiltzeari. Hozte-sistema deskonektatuta eta airearen birzirkulazioa aktibatuta badago, baliteke kristalak berehala lurruntzea, eta, hala, ikuspena asko murriztea.
- Beharrik ez dagoenean deskonektatu airearen birzirkulazioaren modua.

KONTUZ

Difusoreetatik ateratzen den aireak elikagaiak, sendagaiak eta beroarekin edo hotzarekin hondatu daitezkeen objektuak hondatu ditzake.

- Ez utzi elikagaiak, sendagaiak edo hotzarekin edo beroarekin hondatu daitezkeen objektuak aire-difusoreen aurrean.

Oharra

- Hozte-sistema deskonektatuta badago, kanpotik sartutako aireak ez du hezetasunik galduko. Kristalak ez lurruntzeko, CUPRAk hozte-sistema konektatuta uztea gomendatzen du. Horretarako, sakatu A/C funtzio-teklaren gainean. Ikonoa argitu beharko da.
- Gehieneko bero-potentzia eta kristalen desizozte azkarrena motorrak bere funtzionamenduaren ohiko tenperatura hartutakoan lortzen da.
- Berotze edo hozte sistemaren errendimenduari kalterik ez egiteko eta kristalak ez lurruntzeko, haizetakoaren aurreko airearen sarrera ezingo da izotzarekin, elurrarekin edota hostoekin itxita egon.
- Difusoreetatik irteten den eta bidaiari-leku osoan barrena ibiltzen den airea ibilgailutik kanporatzen da maletategian helburu horretarako dauden zirrikituetatik. Hori dela eta, ez oztopatu zirrikitu horiek objektuekin.
- Gomendagarria da aire egokitua gutxienez hilabetean behin konektatzea, sistemaren junturak labainarazteko eta isuriak agertzea saihesteko. Hozteko potentzia gutxitzen dela ohartzen bazara, joan zerbitzu tekniko batera sistema egiaztatzeko.
- Motorraren muturreko esfortzua behar denean, konpresorea aldi baterako deskonektatuko da.

Climatronic-aren aginteak

108. irudia Irudikapen eskematikoa: klimatizazio-funtzioak.

Ⓐ Climabar

Infotainment sisteman (deskonektatua badago ere) pantailaren goialdean dagoen barra finkoa ››› **108. irudia** Ⓐ eta hor honako klimatizazio-funtzio hauek daude:

CLIMA Sakatuz Climatización menuan sartzen da ››› **143. orrialdea**.

Eserleku-berogailuaren azpimenurako sarbidea ››› **145. orrialdea**.

Tenperatura Hatza ezkerretik eskuinera edo alderantziz zenbakien gainean irristatuz, nahi den tenperatura doitzen da dagokion tokian, Zenbaki berberen gainean sakatuta, tenperaturak doitzeko azpimenua atzitzen da.

EDO: ① eta ② (urdina / gorria) ukipen-eremuen bidez, Klimatizagailuaren tenperaturak doi daitezke ››› **108. irudia**.

Airearen birzirkulazioa konektatzea/deskonektatzea ››› **144. orrialdea**.

Tenperatura-doikuntzaren azpimenua

⊕/⊖ Sakatu aurreko gidariaren edo bidaiariaren aldean nahi den tenperatura doitzeko. Hatza barra gainera ere eraman dezakezu doikuntza burutzeko.

SYNC Gidariaren aldeko tenperatura gainerako eremuekin sinkronizatzen du.

Klimatizazio-menua



109. irudia Irudikapen eskematikoa: Klimatizazio-menua.

Ekipamenduaren arabera, Klimatizazio-menuan azpimenu hauek daude:

Delante azpimenua

Aurreko aldea klimatizatzeko azpimenua, zeinak honako funtzio hauek dituen:

Climatronic konektatzea/deskonektatzea ››› **109. irudia** Ⓐ.

Difusoreak Aire-difusoreetan dauden gezietan sakatuz, airearen banaketa hautatzen da honako eremu hauetako baterantz edo batzuetarantz: oinetarantz, gorputzaren goiko alderantz edo haizetakorantz. Geziek irudikatzen duten koloreak ez du airearen tenperatura adierazten, inguruneko baldintzen arabera eskatutako tenperatura baizik.

Haizagailuaren abiadura eskuz doitzea, ⊕ edo ⊖ sakatuz.

Doitu eskuz bolantearen berokuntza, hiru berokuntza-maila dituena. Sakatu funtzio-botoia behin eta berriro nahi den mailara heldu arte. Deskonektatzeko, sakatu behin baino gehiagotan, LED argi bat ere ez piztuta geratu arte ››› **147. orrialdea**.

MAX Climatronic-en antzigarra/lausoa kentzeko funtzioak izotzetik eta kondentsaziotik askatzen du haizetakoa. Aireak hezetasuna galtzen du eta haizagailua maila altu batean doitzen da.
Funtzio hori aktibo dagoenean, atzeko klimatizazioa desaktibatuta dago.

Motorra martxan dagoela, luneta termikoa konekta edo deskonektatzen du. Gehienez ere 10 minuturen buruan automatikoki deskonektatzen da. Beirak bere gardentasuna eskuratu bezain pronto deskonektatu beharko da. Korronte gutxiago kontsumituz gero, erregai gutxiago ere kontsumituko da.
Bateria hondatzea saihesteko, funtzioa aldi baterako deskonekta daiteke automatikoki, eta berriro konekta daiteke funtzionamendu-baldintza arruntetara itzulitakoan.

A/C Hozketa eta lausoa kentzeko sistema konektatzea/deskonektatzea.

AUTO Modu horretan, sistemak automatikoki erregulatzen ditu barruko tenperatura, haizagailuaren abiadura eta airearen

banaketa, konfort termiko egokia lortzeko. AUTO modua desaktibatuko da haizagailuaren abiadura, airearen banaketa, haizetako lauso-kentzea edo airearen birzirkulazioa eskuz aldatzen direnean.
AUTO moduko haizagailuaren abiadura Climaprofile-an doi daiteke *(txikia, ertaina edo handia)* segidako sakatze batzuen bidez AUTO funtzio-teklan. Doikuntza-azpimenuan ere Climaprofile doi daiteke.

Detrás azpimenua

Atzeko aldea klimatizatzeko azpimenua, zeinak honako funtzio hauek dituen:

- Climatronic konektatzea/deskonektatzea.
- Ikonoa argituta badago ezin da tenperatura doitu atzealdetik.
- ⊕/⊖ Sakatu atzeko eremuko tenperatura doitzeko.

iClimate azpimenua

Hainbat funtzionalitate adimendun edo automatiko, ekipamenduaren arabera, dituen azpimenua:

- Eskuak berotzea: automatikoki eta denbora jakin batez klimatizagailua doitzen du bolantearen eremua berotzeko.
- Oinak hoztea: automatikoki eta denbora jakin batez klimatizagailua doitzen du oinetako eremua hozteko.
- Beirako lausoa kentzea: automatikoki eta denbora jakin batez klimatizagailua doitzen du beirako lausoa kentzeko.
- Oinak berotzea: automatikoki eta denbora jakin batez klimatizagailua doitzen du oinetako eremua berotzeko.
- Fresh Air: automatikoki eta denbora jakin batez klimatizagailua doitzen du bidaiari-lekua egurasteko.
- Hozte lasterra: automatikoki eta denbora jakin batez klimatizagailua hozten du bidaiari-lekua egurasteko.

AirCare Clima azpimenua

Klimatizazio-sistemak kutsatzaile alergenoak murriztu ditzakeen iragazki bat du.

Air Care funtzioa aktibatuta dagoenean, birzirkulazio-modua piztuta dago eta automatikoki eta etengabe erregulatzen da, lausotze-arriskua detektatzen ez den bitartean.

- gainean sakatuz, AirCare funtzioa aktiba/desaktibatzen da.
- ℹ gainean sakatuz, AirCare sistemaren funtzioari buruzko informazioa eskuratzen da.

Ajustes azpimenua

Azpimenu horretan hurrengo doikuntza hauek daude:

- Airearen birzirkulazio automatikoa: airearen birzirkulazio automatikoa konektatzeko eta deskonektatzeko ››› 144. orrialdea.
- Climaprofile: Haizagailuaren abiadura doitzeko (*txikia, ertaina edo handia*) funtzionatzeko AUTO moduan dagoen bitartean.
- Eserleku berogarri adimenduna gainean sakatuz, gidari eta gidarikidearentzako eserleku berogarri adimenduen funtzioa aktibatzen/desaktibatzen da ››› 145. orrialdea.

Atzeko aginteak



110. irudia Erdiko kontsolaren atzeko aldean: atzeko eserlekuetarako aginteak.

Tenperatura doitzea

- Sakatu ① eta ② ››› 110. irudia teklak atzealdeko tenperatura doitzeko.

Airearen birzirkulazioa

Airearen birzirkulazioa moduan bidaiari-lekuan kanpotik airea sartzea saihesten da.

Kanpoko tenperatura oso altua bada, airearen eskuzko birzirkulazioa hautatu beharko litzateke epe labur batez, bidaiari-lekua lehenago freskatzeko.

Segurtasun arrazoiengatik, airearen birzirkulazioa deskonektatzen da MAX sakatzen denean edo sentsore batek ibilgailuko beirak lausotu daitezkeela detektatzen duenean.

Konektatu eta deskonektatu airearen eskuzko birzirkulazioa

- Sakatu tekla eskuzko aire-birzirkulazioa konektatzeko edo deskonektatzeko.

Climatronic-en airearen birzirkulazioaren modu automatikoa.

Airearen birzirkulazio automatiko modua irekita, aire freskoa sar daiteke bidaiari-lekura. Sistemak kanpoko airean substantzia kaltegarri asko daudela detektatzen duenean, airearen birzirkulazioa automatikoki aktibatzen da. Ezpurutasun-maila ohikora itzultzen denean, birzirkulazio modua deskonektatzen da.

Sistemak ezin du kiratsa detektatu.

- Aire-birzirkulatze automatikoa klimatizagailuaren doikuntzen menuan aktibatzen eta desaktibatzen da. **A** bat erakutsiko da Climabar-reko birzirkulazioaren ikonoaren ondoan, funtzioa aktibo dagoela adieraziz ››› 147. orrialdea.

⚠ ADI

Erabilitako aireak gidariaren nekea eta kontzentrazio-galera areagotzen ditu, horrek ondorio larridun istripu bat sorraraz dezake.

- **Inoiz ez utzi haizagailua denbora luzez deskonektatuta eta ez erabili birzirkulazioaren modua denboraldi luze batean, bidaiari-lekuko airea ez baita berriztatuko.**

ⓘ KONTUZ

Klimatizagailua duten ibilgailuetan, ez erre airearen birzirkulazioa konektatuta dagoenean. Kea hozte-sistemaren lurrungailuan eta iragazki konbinatuan sar daiteke, eta usain desatseginak sorraraz ditzake modu iraunkorrean.

ⓘ Oharra

Kanpoko tenperatura oso altua denean, airearen birzirkulazioa laburki konektatzen bada, bidaiari-lekua azkarrago hoztuko da.

Eserlekuetako berogailua

Aurrealdeko eserlekuak elektrikoki berotu daitezke hiru mailatan.

Eserlekuetako berogailua erabiltzea

Climabar ››› 108. irudia Ⓐ ikonoaren gainean sakatuz, eserlekuetako berogailuaren menua zabaltzen da.

- Sakatu ezkerreko edo eskuineko eserlekuaren funtzio-botoia eserlekuetako berogailua potentzia handienean konektatzeko.
- Sakatu ezkerreko edo eskuineko eserlekuaren funtzio-botoia behin eta berriz, nahi duzun maila doitu arte.
- Eserlekuko berogailua deskonektatzeko, sakatu behin eta berriro dagokion eserlekuaren funtzio-botoia, LED bat ere piztuta geratzen ez den arte.
- Eserlekuko berogailuaren maila ere doi daiteke **bi** hatzez presioa eginez ukimen-eremuan ››› 108. irudia ① edo ② (ezkerreko edo eskuineko eserlekua).

Pizgailua hurrengo 10 minutu inguruan pizten bada, gidariaren eserlekuko berogailua automatikoki konektatuko da azken aldiz doitu zen mailan.

Eserleku berogarri adimenduna

Funtzio adimendun horrek gidariaren eta gidarikidearen eserlekuen berogailua modu autonomoan aktibatu eta erregulatzen du, erosotasun handiagoa emateko.

Gidariaren eta gidarikidearen eserlekuen berogailua erregulatzea modu independentean egiten da bata bestearengandik, erosotasun guztiz pertsonalizatua lortzeko.

Eserleku berogarri adimendunaren funtzioan sartzeko, aldez aurretik Personalización de CUPRA CONNECT zerbitzua aktibatu behar da ››› 254. orrialdea.

- Funtzioa aktibatzeko/desaktibatzeko, jo ezazu **Ajustes > Uso del asiento calefactable inteligente del conductor/copiloto** azpimenura.

Eserleku berogarri adimendunaren funtzioak erabilera-ohiturak ikasteko denbora-tarte bat eskatzen du. Ikaste-prozesuaren hasieraren berri ematen da eserlekuko berogailuaren azpimenuan, infotainment sistemako pantailan. Prozesu horretan zehar, **APRENDIENDO** egoera erakutsiko da, haren eboluzioa ere erakutsiko da aurrerapen-barraren bidez.

Ohiturak behar bezala ikasteko, eserlekuaren berogailuaren 3. maila (maximoa) erabili behar da.

Ikaskuntza-aldian, eserlekuaren berogailua ingurumen-tenperatura desberdinetan erabiltzea gomendatzen da, eserlekuko berogailu autonomoaren funtzionamendu optimoa lortzeko.

Ez da ikasiko eserlekuko berogailua erabiltzen, baldin eta erabilera hori klimatizazio estatiko batean eserlekuko berogailua erabili eta berehala egin bada[1].

Ikaskuntza-aldia amaitu ondoren, tenperatura-maila modu autonomoan aktibatzen eta erregulatzen da, **AUTO** egoera erakutsiz eserlekuko berogailuaren azpimenuan.

Erregulazio autonomoan (**AUTO**) sistemak emandako tenperatura optimizatzeko, eskuz doitu eserlekuen hiru berogailu-mailak, eta funtzioa optimizatu egingo da. Optimizazio-prozesua erakutsiko da infotainment sistemaren pantailako eserlekuen azpimenuan (**Optimizando**).

Prozesua berrezartzeko eta ikaskuntza-aldia hasteko, jo ezazu **Ajustes > Restablecer perfil del conductor / copiloto** azpimenura.

Honako kasu hauetan ez litzateke eserlekuen berogailua konektatu behar

Hurrengo baldintzetako bat gertatzen denean, ez konektatu eserlekuko berogailua:

- Eserlekuan minaren edo tenperaturaren pertzepzio mugatua duen pertsona bat dago.
- Eserlekua hutsik badago.
- Eserlekuari zorro babesle bat jarri bazaio.
- Eserlekuaren gainean haurrentzako eserlekua jarri bazaio.
- Eserlekuaren banketa heze edo bustita badago.
- Kanpoko tenperatura edo bidaiari-lekua +25°C-tik (77°F) gorakoa da.

⚠ ADI

Sendagaien eraginez, paralisien edo gaixotasun kronikoen ondorioz (diabetesa, adibidez) mina edo tenperatura hautematen ez duten pertsonek, edo haiek gutxi sentitzen dituztenek, eta haurrek bizkarra, gluteoak edo hankak erre ditzakete eserlekuetako berogailuarekin.

- **Minaren eta tenperaturaren pertzepzio mugatua duten pertsonek ez lukete inoiz erabili behar eserlekuaren berogailua.**
- **Gailuaren tenperaturaren kontrolean arazorik hautemanez gero, eraman tailer espezializatu batera, aztertu dezaten.**

⚠ ADI

Kuxinaren ehuna bustita badago, eserlekuaren berogailuaren funtzionamendua eragotzi ahal izango du, eta erretzeko arriskua areagotu.

- **Egiaztatu banketa lehor dagoela eserlekuaren berogailua erabiltzen hasi aurretik.**
- **Ez eseri eserlekuan arropa hezea edo bustia jantzita duzula.**
- **Ez utzi objektu edo arropa hezerik edo bustirik eserlekuan.**
- **Ez isuri likidorik eserlekuan.**

[1] Erabilgarri bakarrik ibilgailu hibridoetarako (klimatizazio estatikoa zabalduta).

KONTUZ

- **Eserlekuaren berogailuaren elementuak ez hondatzeko, ez jarri belauniko haurrak eserlekuaren gainean, edo ez egin gehiegizko presiorik banketako edo bizkarraldeko puntu bakar batean.**
- **Likidoek, objektu zorrotzek eta material isolatzaileek (zorroek edo haurrentzako eserlekuek, esaterako) eserlekuaren berogailua hondatu dezakete.**
- **Usainik sumatuz gero, berehala desaktibatu eserlekuaren berogailua eta eraman aztertzera tailer espezializatu batera.**
- **Eserlekuaren jatorrizko tapizeen ordez beste material bat jarri bada, eserlekuaren berogailua gehiegi berotu daiteke, edo haren funtzionamendua mugatu.**

Ingurumenari buruzko oharra

Eserlekuko berogailua behar adina denbora baino ez eduki piztuta. Bestela, beharrezkoa ez den energia kontsumoa eragingo du.

Oharra

Eserleku berogarri adimendunaren funtzio-rako, kontuan hartu honako hau:

- **Ikaste-prozesua egokia izan ez bada, sistemak hori berrasieratu ahalko du.**
- **Erregistratutako erabiltzaile bakoitzeko, gidariaren eserlekuaren ikaskuntza independente bat beharrezkoa izango da.**
- **Gidarikidearen eserlekuaren ikaskuntza eta erregistratutako erabiltzaile aktiboarena independenteak dira.**
- **Ibilgailu hibridoetan, kontsumitzaile elektrikoak dituen klimatizazio estatikoaren funtzioaren erabilerak** **>>> 152. orrialdea** **funtzioaren ikaskuntza-aldian eragin dezake.**

Bolanteko berogailua

Tresnen koadroko pantailan eta klimatizazio-menuan erakutsiko da aukeratutako bolanteko berogailuaren maila.

Bolanteko berogailua doitzea funtzio anitzeko bolanteko teklaren bidez

- *Sakatze laburra (segundo 1 baino gutxiago):*

Berogailua maila gorenean konektatuko da. Sakatu bolanteko tekla behin eta berriro nahi duzun mailara doitzeko. Bolanteko berogailua deskonektatzeko, bolanteko tekla behin eta berriz sakatu, tresnen koadroan bolante berotuaren OFF ikonoa erakutsi arte.

- *Sakatze luzea (segundo 1 baino gehiago):*

Berogailua zuzenean deskonektatzen da funtzionatzen ari den mailatik. Berriz ere sakatze luze bat eginez gero, zuzenean konektatzen da deskonektatu aurretik gordetako azken mailan.

Infotainment sistemaren bidez bolanteko berogailua doitzea

- Climatización menuan, sakatu bolanteko berogailuaren funtzio-botoia. Berogailua maila gorenean konektatuko da.
- Sakatu funtzio-botoia behin eta berriro nahi duzun mailara doitzeko.
- Bolanteko berogailua deskonektatzeko, sakatu behin eta berriro funtzio-botoia, LED bat ere piztuta geratzen ez den arte.

Deskonexio automatikoa

Bolantearen berogailua automatikoki deskonektatuko da, baldintza hauetakoren bat betetzen denean:

- Energia elektrikoaren kontsumoa handiegia bada.
- Bolantearen berokuntza-sistema hondatuta badago.
- Pizgailua deskonektatzen bada.

Aireztapen estatikoa

Aireztapen estatikoaren funtzioarekin, autoaren bidaiari-lekua airezta daiteke.

Aireztapen estatikorako behar den potentzia ibilgailuaren 12 V-ko bateriak emango du.

CUPRA CONNECT App mugikorraren edo MyCUPRA webgunearen bidez kontrolatuko da aireztapen-funtzioa.

Aireztapen estatikoaren konexioa

Funtzioa piztuko da:

- App mugikorrean edo MyCUPRA webgunean berehalako pizte-/itzaltze-botoiaren bidez, aireztapen estatikoaren funtzioa berehala piztuko da.
- Irteera-orduaren programazioaren bitartez.

12 V-ko bateriaren maila baxua izanez gero, aireztapen estatikoa ez da piztuko.

Aireztapen estatikoaren deskonexioa

Aireztapen estatikoa honako egoera hauetan itzaliko da:

- Erabiltzaileak aplikazioan edo MyCUPRA web atarian aukeratu duen funtzionamendu-denbora, berehalako pizte-/itzaltze-modurako, amaitu denean
- App mugikorrean edo MyCUPRA webgunean berehalako pizte-/itzaltze-botoiaren bidez, berehala itzaliko da aireztapen estatikoaren funtzioa.
- Programatutako irteera-ordua iritsi denean.

Aireztapen estatikoaren gehieneko funtzionamendu-aldia 60 minutukoa da.

Bidaiaren irteerako/hasierako programazioa

Aireztapen estatikoa programatutako ordu baterako aktibatzea soilik da baliagarria aireztapen-prozesu bakar baterako. Irteera-ordua berriro programatu behar da aireztapen-prozesu bakoitzerako.

Irteera-ordua programatu aurretik, autoaren data eta ordua behar bezala doituta dauden egiaztatu behar da.

Autoak automatikoki kalkulatzen du aireztapen estatikoak behar duen funtzionamendu-denbora, irteera-orduaren programazio eta inguruneko baldintzen arabera.

KONTUZ

Airearen irteera-fluxuak kaltetu ditzake beroarekiko edo hotzarekiko sentikorrak diren elikagaiak, sendagaiak eta beste objektu batzuk.

- **Ez jarri janaririk, botikarik edo tenperaturarekiko sentikorrak diren bestelako artikulurik aireztatze-hodien aurrean.**

Oharra

Aireztapen estatikoak aldi luze batean behin eta berriro funtzionatzen badu, 12 V-ko bateria-maila jaitsiko da. Bateria maila berreskuratzeko, bidaia luzea egitea gomendatzen da.

Arazoak konpontzea

Hozte-sistema ezin da aktibatu edo modu mugatuan dabil

Hozketa ez badabil, hurrengo arrazoiengatik izan daiteke:

- Motorra ez dago piztuta.
- Haizagailua deskonektatuta dago.
- Klimatizagailuaren fusiblea erre da.
- Kanpoko tenperatura 0°C (+32°F) ingurutik beherakoa da.
- Klimatizagailuaren konpresorea aldi batez deskonektatu da motorraren hozgarria gehiegi berotu delako.
- Ibilgailuak bestelako matxura bat du. Eraman klimatizagailua aztertzera tailer espezializatu batera

Tenperatura-unitatea aldatzea (Climatronic)

Infotinment sistemaren pantailan, tenperatura Celsius graduetatik Fahrenheitera alda daiteke ⚙ > **Ajustes** > **Unidades** funtzio-botoia erabiliz.

Ura edo lurruna ibilgailuaren azpian

Kanpoko hezetasuna eta tenperatura altuegiak direnean, **ur kondentsatua** hozte-sistemaren lurrungailuaren bitartez tantak eror daitezke eta ur-putzua utzi ibilgailuaren azpian. Normala da eta horrek ez du esan nahi ihesik dagoenik!

Kanpoko hezetasuna altua denean eta giro-tenperatura baxua, baliteke kondentsazio-ura lurruntzea klimatizazio independentea abian dagoenean. Honako kasuan, posible da ibilgailuaren azpitik lurruna ateratzea. Horrek ez du esan nahi ibilgailuak kalterik duenik.

Oharra

Abian jarri ondoren, klimatizagailuan metatutako hezetasun aztarnak haizetakoa lurrundu dezake. Konektatu desizozte funtzioa haizetakoa ahalik eta bizkorren lausoa kentzeko.

Berogailu independentea (berogailu gehigarria)

Gaiaren aurkezpena

Berogailu independenteak ibilgailuko tangatik datorren erregaia erabiltzen du eta ibilgailua martxan edo geldirik dagoela erabil daiteke.

Infotainment sistemako berogailu independentearen menuaren, CUPRA CONNECT App mugikorraren, MyCUPRA webgunean edo urrutiko agintearen bidez kontrola daiteke berokuntza independentea.

Neguan, berogailu independentea konektatuta, haizetakoari lausoa kendu ahal izango zaio eta izotza zein elurra kendu (geruza fina bada) abiatu aurretik.

Kanpoko tenperatura oso altua bada, bidaiarilekua motorra itzalita aireztatu daiteke berogailu independentea baliatuta.

Berokuntza osagarriak gehienez 60 minutuz funtzionatzen du.

ADI

Berogailu independentetik ateratzen diren gasek karbono monoxidoa daukate, kolorerik eta usainik ez duen gas toxikoa. Karbono monoxidoak konortea galtzea eta heriotza eragin ditzake.

- **Inoiz ez konektatu berogailu independentea eta ez utzi piztuta barruti itxietan edo aireztatze sistemarik ez duten lekuetan.**
- **Berogailu independentea inoiz ez programatu itxita edota airerik gabeko esparru batean piztu dadin.**

ADI

Berogailu independentearen osagaiak gehiegi berotuko dira eta sutea eragin dezakete.

- **Gelditu ibilgailua ihes-sistemaren osagai bat ere ez dadin kontaktuan egon ibilgailuaren azpian egon daitezkeen material sukoiekin, esaterako, belar lehorra.**

KONTUZ

Ez utzi elikagaiak, sendagaiak edo hotzarekin edo beroarekin hondatu daitezkeen objektuak aire-difusoreen aurrean. Difusoreetatik ateratzen den aireak elikagaiak, sendagaiak eta beroarekin edo hotzarekin hondatu daitezkeen objektuak hondatu ditzake.

Berogailu independentea konektatzea eta deskonektatzea

Konexioa

Berogailu independentea honela konekta daiteke:

- Sakatu MyCUPRA webguneko edo Appeko berehalako pizte-/itzaltze-botoia.
- Sakatu berehalako pizte-/itzaltze-botoia infotainment sisteman (ibilgailu itzalita).
- Sakatu tekla irrati-maiztasunaren bidezko urrutiko agintean ››› **150. orrialdea**.
- Automatikoki programatuz irteera-ordu bat, infotainment sistemaren berogailu independentearen menuan, MyCUPRA aplikazioan edo web atarian ››› **151. orrialdea**.

Deskonexioa

Berogailu independentea honela deskonekta daiteke:

- MyCUPRA webguneko edo Appeko berehalako pizte-/itzaltze-botoiaren bidez, berehala itzaliko da berogailu osagarriaren funtzioa.
- Sakatu berehalako pizte-/itzaltze-ikonoa infotainment sisteman (ibilgailua itzalita).
- Sakatu OFF tekla irrati-maiztasunaren bidezko urrutiko agintean ››› **150. orrialdea**.
- Automatikoki, programatutako irteera-ordura behin iritsita edo programatutako funtzionamendu-denbora behin igarota.

- Automatikoki ⛽ kontrol-argia pizten denean (erregai-mailaren adierazlea).
- Automatikoki 12 volteko bateriaren karga gehiegi murrizten denean ››› 355. orrialdea.

Berezitasuna

Behin deskonektatuta, berogailu independenteak denbora batez funtzionatzen jarraituko du sisteman geratu den erregaia erretzeko eta ihes-hodiko gasak kanporatzeko.

Irrati-maiztasun bidezko urrutiko agintea



111. irudia Berogailu independentea: irrati-maiztasuneko urrutiko agintea.

››› 111. irudia

- Berogailu independentea konektatzea
- OFF Berogailu independentea deskonektatzea
- ① Kontrol-argia

Urrutiko agintearen botoiak behar ez direnean sakatzen badira, nahi gabe berogailu independentea konektatu ahal izango da, ekintza eremutik kanpo dagoenean edo kontrol-argiak dir-dir egiten duenean.

Berogailu independentea konektatu edo deskonektatzeko, beharrezkoa da teklaren gainean sakatze luze bat egitea (gutxi gorabehera 1 segundo).

Irrati-maiztasuneko urrutiko agintearen kontrol-argia

Teklak sakatzen direnean, urrutiko agintearen kontrol-argiak ① datu desberdin batzuk ematen dizkio erabiltzaileari:

Piztuta dago 2 segundo inguru

- *Berdez:* Berogailu independentea konektatu da teklarekin.
- *Gorriz:* Berogailu independentea deskonektatu da OFF teklarekin.

Dir-dir egiten du astiro 2 segundo inguru

- *Berdez:* Ez da konexio-seinalerik jaso. Urrutiko agintea helmen-erradiotik kanpo dago. Murriztu ibilgailuaren distantzia.
- *Gorriz:* Ez da deskonexio-seinalerik jaso. Urrutiko agintea helmen-erradiotik kanpo dago. Murriztu ibilgailuaren distantzia.

Dir-dir egiten du azkar 2 segundo inguru

- *Berdez:* Berogailu independentea blokeatuta dago. Kausa posibleak: erregai-andela ia hutsik dago, 12 volteko bateriaren tentsioa baxuegia da edo matxuraren bat dago.

Piztuta dago 2 segundo inguru

- *Laranjaz (ondoren berdez edo gorriz):* Urrutiko agintearen pilak amaitzear daude. Halere, ez da konexio edota deskonexio seinalerik jaso.
- *Laranjaz (ondoren dir-dir egiten du berdez edo gorriz):* Urrutiko agintearen pilak amaitzear daude. Ez da konexio edota deskonexio seinalerik jaso.

Dir-dir egiten du 5 segundo inguru

- *Laranjaz:* Urrutiko agintearen pila amaituta dago. Ez da konexio edota deskonexio seinalerik jaso.

Irrati-maiztasun bidezko urrutiko agintearen pila aldatzea

Urrutiko aginteko kontrol-argiaren teklak ① sakatzean 5 segundo inguru laranjaz dir-dir egiten badu edo pizten ez bada, aginteko pila ordeztu beharko da.

Pila urrutiko agintearen atzeko aldean dago, tapa baten beste aldean.

- Tapa irekitzeko, altxatu azpiko aldetik eta irristatu behera.
- Kendu pila.

- Jarri pila berri bat. Hori egitean, kontuan izan polaritatea eta erabili mota bereko pila ››› ⓘ.
- Jarri pilaren tapa goiko aldeko erlaitzak jarriz eta azpiko aldea sakatuz.

Helmen-erradioa

Hargailua bidaiari-lekuan dago. Irrati-maiztasuneko urrutiko agintearen gehieneko irismen erradioa, pila berriarekin, ehunka metrokoa da. Urrutiko agintea eta ibilgailuaren arteko oztopoek, meteorologia baldintza txarrek eta pilaren etengabeko deskargak era nabarmenean murrizten dute urrutiko agintearen irismena.

⚠ ADI

20 mm-ko diametroko pila bat edo bestelako botoi formako pila bat irensteak lesio larriak eragin ditzake, baita heriotza ere, denbora laburrean.

- **Gorde haurrengandik urrun irrati-maiztasuneko urrutiko agintea eta pilak dituzten giltzetakoak, baita ordezko pilak, botoi formako pilak eta 20 mm baino gehiagoko diametroak dituztenak ere.**
- **Norbaitek agian pila bat irentsi duenaren susmoa baduzu, zoaz berehala sendagilearengana.**

ⓘ KONTUZ

- **Irrati-maiztasuneko urrutiko aginteak osagarri elektronikoak ditu. Hori dela eta, ekidin bustitzea, eta kolpeak eta eguzki-erradiazio zuzena jasotzea.**
- **Pila desegokiak erabiltzeak irrati-maiztasuneko urrutiko agintea kaltetu dezake. Hori dela eta, intentsitate, tamaina eta zehaztapen bereko pilengatik aldatu agortutakoa.**

Ingurumenari buruzko oharra

- **Agortutako pilak ingurumena errespetatuz deuseztatu.**
- **Urrutiko agintearen pilak perkloratoa izan dezake. Kontuan eduki hauek deuseztatzeari buruzko legezko xedapenak.**
- **Urrutiko agintea nahi gabe pizteko aukera saihestu behar da. Horrela, berogailu independentea nahi gabe konektatzea ekidingo da.**

Berogailu independentea programatzea

Berokuntza independentea programatutako ordu baterako aktibatzea soilik da baliagarria klimatizazio-prozesu bakar baterako. Irteera-ordua berriro programatu behar da klimatizazio-prozesu bakoitzerako.

Irteera-ordua programatu aurretik, ibilgailuaren eguna eta ordua behar bezala doituta dauden egiaztatu behar da.

Irteera-orduaren programazioaren bidez ibilgailuak automatikoki kalkulatzen du, ingurunearen baldintzen arabera, funtzionatzeko behar den denbora.

⚠ ADI

Berogailu independentea inoiz ez programatu itxita edota airerik gabeko esparru batean piztu dadin. Berogailu independentetik ateratzen diren gasek karbono monoxidoa daukate, kolorerik eta usainik ez duen gas toxikoa. Karbono monoxidoak konortea galtzea eta heriotza eragin ditzake.

Erabilera-argibideak

Berogailu independentearen ihes-sistema, ibilgailuaren azpian kokatua, ezingo da elurrarekin, lokatzarekin edota beste ezerekin estalita geratu. Ihes-gasek askatasunez irteteko gai izan behar dute. Berogailu independenteak eragindako ihes-gasak ibilgailuaren azpian kokatutako ihes-hoditik ateratzen dira.

Bidaiari-lekua berotzean, giro-tenperaturaren arabera, aire beroa, difusoreen bidez, lehenik haizetakora eta ondoren gainontzeko bidaiari-lekura zuzentzen da. Difusoreak bideratuz leihatiletara, adibidez, airearen banaketan eragin daiteke.

Zer kasutan ez den konektatzen berogailu independentea

- Berogailu independenteak argi laburrak beste energia behar du gutxi gorabehera. 12 volteko bateriaren karga-egoera gehiegi jaisten bada, berogailu independentea automatikoki deskonektatzen da edo ezin da konektatu. Hala, motorra abiaraztean, arazoak saihesten dira.
- Berogailua martxan jarri nahi den bakoitzean aktibatu behar da. Era beran, irteera ordua ere aldiro aktibatu behar da.
- Kontrol-argia (erregai-mailaren adierazlea) piztuko da.

Oharra

- **Berogailu independentea konektatua dagoenean, hark eragiten dituen soinuak entzuten dira.**
- **Kanpoko hezetasuna altua eta giro-tenperatura baxua denean, baliteke, berogailu independentea martxan dagoenean berotze- eta aireztatze-sistemetatik etorritako ur kondentsatua lurruntzea. Honako kasuan, posible da ibilgailuaren azpitik lurruna ateratzea. Honek ez du ibilgailuan arazorik dagoela esan nahi.**
- **Ibilgailua inklinatuta badago, adibidez, malda batean aparkatu bada, baliteke berogailu independentearen funtzionamendua mugatzea erregai-andeleko maila baxua bada (erreserbaren mailatik gora).**
- **Berogailu independentea denbora luzez hainbat aldiz erabiltzen bada, 12 volteko bateria deskargatu egiten da. Bateria berriz kargatu dadin, noizean behin, ibilgailuarekin hainbat kilometro egin beharko dira. Orientagarri gisa: ibilbideak berogailua konektatua egon den antzeko denbora iraun behar du.**
- **+5°C-tik (+41°F) beherako tenperatura dagoenean, baliteke motorra abiaraztean berogailu independentea automatikoki konektatzea. Denbora jakin baten ostean berogailu independentea berriz deskonektatzen da.**

Klimatizazio estatikoa

Gaiaren aurkezpena

✓ Baliogarria ibilgailu hibridoetarako.

Klimatizazio estatikoaren bidez, ibilgailua aparkatuta dagoela, bidaiari-lekua hoztu, aireztatu eta berotu daiteke. Neguan, haizetakoaren lausoa ken daiteke eta izotz eta elur librerik utzi (geruza fin bat bada).

Klimatizazio estatikoa korronte-hargune baten bidez edo ibilgailuko goi-tentsioko bateriaren bidez elikatzen da. Klimatizazio estatikoa infotainment sisteman programatu eta kontrola daiteke, CUPRA CONNECT app mugikorraren bidez eta MyCUPRA web atarian.

Interneten aplikazioari, beraren erabilgarritasunari eta hori erabiltzeko beharrezko betekizunei buruzko informazioa kontsulta dezakezu, baita terminal bateragarriei buruzkoa ere. ››› 253. orrialdea.

KONTUZ

Ez utzi elikagaiak, sendagaiak edo hotzarekin edo beroarekin hondatu daitezkeen objektuak aire-difusoreen aurrean. Difusoreetatik ateratzen den aireak elikagaiak, sendagaiak eta beroarekin edo hotzarekin hondatu daitezkeen objektuak hondatu ditzake.

Oharra

Klimatizazio estatikoa erabiltzen bada kargakablea konektatuta egon gabe, ibilgailuaren autonomia murriztu egiten da. Kanpoko muturreko tenperaturetan, baliteke klimatizazio estatikoaren bero- edo hotz-potentzia nahikoa ez izatea nahi den tenperaturara iristeko.

Klimatizazio estatikoa erabiltzea

✓ Baliogarria ibilgailu hibridoetarako.

Klimatizazio estatikoak goi-tentsioko bateria behar bezala kargatuta badago funtzionatzen du soilik.

Klimatizazio estatikoak karga-konektorea entxufatu gabe funtziona dezake. Karga-konektorea entxufatuta ez dagoenean, klimatizazio estatikoak goi-tentsioko bateriari esker funtzionatzen du.

- Ireki ezazu **Gestor de Batería** menua.
- Hautatu ⚙ **Ajustes** menua.
- Konektatu **Activar la alimentación de la batería de alto voltaje si es necesario** funtzioa.

Nahi den tenperatura doitzea

- Ireki infotainment sistemako **Gestor de Batería** menua.
- Doitu nahi den tenperatura honen bidez: ⊕ y ⊖

Klimatizazio estatikoa konektatzea

Honela konektatzeko daiteke:

- Sakatu berehalako piztearen ikonoa infotainment sisteman (ibilgailua itzalita). Berehalako klimatizazioan zehar, ibilgailua gehienez 30 minutuz klimatizatuko da.
- Sakatu App mugikorreko edo MyCUPRA webguneko berehalako pizte-/itzaltze-botoia.
- Automatikoki irteera-ordu bat programatuz App mugikorrean, MyCUPRA web atarian edo infotainment sistemako **Gestor de Batería** >>> 153. orrialdea menuan.

Klimatizazio estatikoa deskonektatzea

Honela deskonektatzeko daiteke:

- Sakatu berehalako pizte-/itzaltze-botoia MyCUPRA webgunean edo App mugikorrean.
- Sakatu berehalako pizte-/itzaltze-ikonoa infotainment sisteman (ibilgailua itzalita). Botoi horren bidez piztu bada soilik deskonektatu ahal da klimatizazio estatikoa.
- Sakatu **Climatización** menuko klimatizazioa deskonektatzeko botoia infotainment sisteman (ibilgailua itzalita).
- Automatikoki, programatutako irteera-ordutik minutu batzuk igarotakoan.
- Automatikoki, ibilgailuaren goi-tentsioko bateriaren karga-maila asko jaitsi bada.

Oharra

- **Klimatizazio estatikoa konektatuta dagoenean, haren funtzionamenduak sortutako zaratak entzuten dira.**
- **Kanpoko hezetasuna altua denean eta giro-tenperatura baxua, baliteke, klimatizazio estatikoa martxan dagoela, klimatizazio-sistematik datorren ur kondentsatua lurruntzea. Honako kasuan, posible da ibilgailuaren azpitik lurruna ateratzea. Honek ez du ibilgailuan arazorik dagoela esan nahi.**

Klimatizazio estatikoa programatzea

✓ Baliogarria ibilgailu hibridoetarako.

Klimatizazio estatikoa infotainment sisteman programa daiteke aurreikusitako irteera-ordu baterako. Bidaiari-lekuan nahi den tenperatura programa dezakezu, ibilgailua irteera-ordurako.

Nahi den tenperaturatik abiatuta, irteera-orduan tenperatura horretara iristeko klimatizazio estatikoa noiz konektatu behar den kalkulatzen du ibilgailuak.

Irten aurretik, ibilgailua klimatizatzea

- Ireki ezazu **Gestor de Batería** menua.
- Ezarri planifikatutako irteera-ordua.
- Piztu **climatización** eta **carga** funtzioak, beharren arabera.

Aldi berean **climatización** eta **carga** funtzio biak piztuta badaude, goi-tentsioko bateria kargatuko da lehendabizi, eta gero, ibilgailua klimatizatuko da. Irteera-ordua bi funtzioetako bat aktibatu denean baino aktiba daiteke.

Karga-konektorea entxufatuta dagoela, aurreikusitako irteera-ordua baino 30 minutu lehenago hasiko da klimatizatzen ibilgailua. Aurreikusitako irteera-orduaren ondoren zirkulatzeko prestasuna ezartzen ez bada, ibilgailua beste 15 minutuz klimatizatuko da.

Karga-konektorea entxufatuta ez badago, klimatizatzeko denbora 10 minutura murriztuko da. Ibilgailua zirkulatzeko prest ez badago, funtzionamendu-denbora 5 minutuz luzatuko da.

Klimatizazio estatikoa automatikoki deskonektatzen da.

Hedatutako klimatizazio estatikoa

Gestor de Batería menuan, klimatizazio hedatua gehitu ahal da; horri esker, ibilgailua klimatizatzen bada (berehala pizteagatik edo irteera bat programatzeagatik), konfort-sistemaren kontsumitzaileak, adibidez, eserlekuaren berokuntza, bolanteko berogailua edo luneta termikoa, automatikoki piztu daitezke, Climatronic-ek hori beharrezkotzat jotzen badu (hotz-baldintzetan).

Klimatizazioaren berehalako piztearen kasuan, konforterako kontsumitzaile elektrikoak ere aktibatuko dira.

Konfort-sistemaren kontsumitzaileak ekipamenduaren araberakoak dira.

- Ireki ezazu **Gestor de Batería** menua.
- Klimatizazio estatikoaz gain, piztuta egon behar diren konfort-kontsumitzaileen eserleku-ikonoetan ukitu. Lehenesten da gidariaren eserleku-ikonoa beti aktibatuta egotea (gidariaren eserleku-ikonoak barne hartzen ditu konfort-, eserlekuko berogailu- eta bolanteko berogailu-kontsumitzaileak).
- Irteera-ordua baino lehen lunetaren berogailua pizteko, aktibatu **Calefacción automática de luneta** funtzioa.

Konfort-sistemaren kontsumitzaileetarako itxaronaldia irteera-ordua baino 10 minutu lehenagokoa da, gutxi gorabehera.

Luneta termikoa berehala aktibatzea

CUPRA CONNECT app mugikorraren edo MyCUPRA web atariaren bidez, luneta termikoa aktibatu/desaktibatu daiteke, klimatizazio estatikoa aktibatuta dagoen ala ez kontuan hartu gabe.

Desblokeatu ondoren, ibilgailua klimatizatzea

- Ireki infotainment sistemako **Gestor de Batería** menua.
- Sakatu ⚙ **Ajustes**.
- Aktibatu **Al desbloquear el vehículo** funtzioa.

Programazioa baieztatu

Pizgailua deskonektatzean, infotainment sisteman aktibatutako hurrengo tenporizadorea eta doitutako funtzioak agertzen dira.

Gidatzea

Gidatzeko jarraibideak

Pedalak

- Ziurtatu pedalak, lozagia eta azeleragailua ondo zapaldu ditzakezula beti arazorik gabe.
- Ziurtatu pedalak beren jatorrizko posiziora itzul daitezkeela inolako arazorik gabe.
- Ziurtatu alfonbrak behar bezala finkatuta daudela; hartara, ez dira mugituko ibiltzen ari zaren bitartean ezta oztopatu ere pedalen funtzionamendua ››› ⚠.

Pedalak estaltzen ez dituzten eta ez mugitzeko finka daitezkeen alfonbrak bakarrik erabil daitezke. Alfonbra egokiak establezimendu espezializatu batean erosi ahal izango dituzu. Alfonbretarako finkapen-elementuak muntatu dira oinazpikoaren zonaldean.

Oinetako egokiak eramatea

Eraman oinari ondo eusten dioten eta pedalak erabiltzean sentikortasuna kentzen ez duten oinetakoak.

⚠ ADI

- **Ezin badira pedalak askatasunez erabili gidatzen ari zaren bitartean, egoera kritikoak sor daitezke.**
- **Ez jarri inoiz alfonbrarik edo lurra estaltzeko bestelako edozein elementu dagoeneko instalatuta daudenen gainean, pedalen area txikitzen baitute eta horiek erabiltzea oztopatu baitezakete, eta, hala, istripua edukitzeko arriskua sortu.**
- **Ez jarri inoiz objekturik gidariaren oinazpikoan. Pedaletako arearaino mugitu litezke eta horiek erabiltzea oztopatu.**

Martxa egokia hautatu

Ekipamenduaren arabera, tresnen koadroaren pantailan gomendio bat agertzen da kontsumoa hobetzeko komenigarria litzatekeen martxarekin.

Aldagailu automatikoa duten ibilgailuetan, Tiptronic moduan baino ez da erakusten ››› 174. orrialdea.

Martxa egokia engranatua badago, ez da gomendiorik agertuko. Une horretan engranatua dagoen martxa adieraziko da.

Adierazpena	Esanahia
3	Martxa optimoa.
4 ▶ 5	Martxa handiago batera aldatzea gomendatzen da.
2 ▶ 1	Martxa txikiago batera aldatzea gomendatzen da.

Partikula-iragazkiaren “garbiketa”ri buruzko informazioa

Ihes-sistemak detektatzen duenean partikula-iragazkia saturatzetik gertu dagoela, sistema horren autogarbiketa funtzioak funtzio horretarako martxa optimoa gomendatzen du ››› 327. orrialdea.

⚠ ADI

Martxari buruzko gomendioa funtzio laguntzaile bat da, eta ezin du inoiz ere gidariaren arreta ordeztu.

- **Gidariaren esku dago inguruabarren arabera martxa egokia aukeratzeko erantzukizuna.**

Ingurumenari buruzko oharra

Martxa egokiena hautatuz gero, erregaia aurreztu daiteke.

Oharra

Gomendatutako martxaren seinalea itzaltzen da tiptronic posiziotik ateratzean.

Gidatze ekonomikoa eta inguru-menari dagokionez zuzena

Erregaiaren kontsumoa, kutsadura eta motorraren, balazten eta pneumatikoen desgastea zure gidatze-estiloaren araberakoak dira. Kontsumoa %10 eta %15 artean murriztu daiteke gidatze mota eraginkor batekin. Ondoren, zenbait aholku praktiko emango dizugu ingurumena kontserbatzearen alde egin, eta, aldi berean, behar baino gehiago gastatzea saihestu ahal izateko.

Zilindroen kudeaketa aktiboa (ACT®)

Ibilgailuaren ekipamenduaren arabera, zilindroen kudeaketa aktiboak (ACT®) motorreko zilindro batzuk desaktiba ditzake, martxa-egoerak potentzia handia eskatzen ez badu. Aktibo dagoen zilindro-kopurua ikus daiteke tresnen koadroan ››› **17. orrialdea**.

Gidatzearen bitarteko aurreikuspena

Zuhurtziaz gidatzen baduzu, gutxiago frenatu beharko duzu eta, horrenbestez, abiadura handiagoa lortzeko gutxiago azeleratu. Aprobetxatu ibilgailuaren inertzia ahal den guztietan **engranatutako martxa** batekin. Horrela lortzen dugun frenatzearen efektuak balaztak eta pneumatikoak babesten ditu, eta gutxiago desgastatu; isurpenak eta erregai-kontsumoa zerora murrizten dira.

Martxa aldatzea energia aurreztuz

Erregaia aurrezteko modu eraginkorra da *aldez aurretik* aldatzea martxa luzeago batera.

Eskuzko aldagailua: aldatu lehen martxatik bigarrenera ahalik eta lasterren. Martxa zuzena aukeratzeak erregaia aurrezten laguntzen du. Aukeratu ahal den martxarik luzeena, martxaren egoerari egokituta (motorrak funtzionatzen jarraitu behar du erregulartasun ziklikoarekin).

Aldagailu automatikoa: azeleratu poliki-poliki eta “Kick-down” posiziora heldu gabe.

Saihestu azeleragailua guztiz zapaltzea

Saihestu, ahal den neurrian, zure ibilgailuaren gehienezko abiadurara iristea. Erregaiaren kontsumoa, gas kaltegarrien isurpenak eta kutsadura akustikoa biderkatu egingo dira, abiadura bizkortzen duzun heinean. Abiadura gutxiagorekin gidatuz gero, erregaia aurrezten da.

Ralentia murriztea

Start-Stop sistema duten ibilgailuetan, ralentia automatikoki murrizten da. Start-Stop sistema duten ibilgailuetan, motorra itzaltzea merezi du, adibidez, trenbideen igarobideetan eta gorriz denbora luze ematen duten semaforoetan. Motor bat zerbitzuko tenperaturara iritsi denean, eta zilindradaren arabera, 5 segundo baino gehiago itzalita edukitzeak erregai gehiago aurrezten du berriro martxan jartzeko behar dena baino.

Ralentian, motorrak denbora asko behar du berotzeko. Berotze-fasean, desgastea eta gas kutsatzaileen emisioa bereziki nabariak dira. Horregatik ibilgailua abiarazi bezain laster, martxan jarri beharko litzateke. Martxan jartzean, saihestu bira-erregimen handia.

Ohiko mantentze-lanak

Modu erregularrean egindako mantentze-lanak erregaia aurrezteko baldintza bat dira, abiatu ere egin baino lehen. Zure ibilgailuaren mantentze-lanek gidatzean segurtasun handiago ekartzeaz eta ibilgailuaren balioa mantentzeaz gain, **erregaia gutxiago kontsumitzea** ere eragiten dute. Motorra egoera txarrean egonez gero, erregaiaren kontsumoa %10 handiagoa ere izan daiteke.

Saihestu ibilbide motzak

Motorrak eta katalizatzaileak beren **zerbitzu-tenperatura** egokira iritsi behar dute gas kutsatzaileen kontsumoa eta isurpenak eraginkortasunez murriztu ahal izateko.

Motorrak, hotz dagoenean, erregaiaren kantitate izugarri handia kontsumitzen du. 4 kilometro inguruko ibilbide bat beharrezkoa da motorra berotzeko eta haren kontsumoa normalizatzeko.

Kontrolatu pneumatikoen presioa

Ziurtatu beti pneumatikoek presio egokia daukatela ››› 365. orrialdea erregaia aurreztеko. Presioa bar erdi gutxiago bada, erregaiaren kontsumoa %5 handiagoa izan daiteke. Gainera, pneumatikoek presio nahikoa ez edukitzeak pneumatikoen higadura handitzea dakar, errodadurarekiko erresistentzia areagotzen baita, eta martxa-portaerak okerrera egiten du.

Ez gidatu urte osoa neguko pneumatikoekin, horrek erregai-kontsumoa % 10eraino igotzea eragiten baitu.

Saihestu behar ez den zama garraiatzea

Garraiatzen den **zamaren** alferrikako kilo bakoitzeko erregaiaren kontsumoak gora egiten duenez, gomendatzen da behar ez den zamarik ez eramatea.

Ekipaje-tokiak ibilgailuaren **erresistentzia aerodinamikoa** handitzen duenez, desmuntatu behar zenuke behar ez duzunean. Horrela, 100-120 km/h-ko (62-75 mph) abiaduran, erregaiaren % 12 aurreztuko duzu.

Energia elektrikoa aurreztea

Motorrak alternadorea bultzatzen du eta, horrekin, elektrizitatea sortzen da. Horrek esan nahi du kontsumo elektrikoak gora eginez gero erregaiaren kontsumoa handitu egiten dela! Beraz, deskonektatu behar ez dituzun gailu elektrikoak. Besteak beste, honako gailu hauek asko gastatzen dute: abiadura handiko haizagailua, berogailua, luneta edo eserlekuen berogailua.

Hibrido entxufagarriaren propultsioa: frenatu garaiz eta era uniformean berreskurapen energetikoa aprobetxatzeko.

Oharra

- **Start-Stop sistema badu, ez deskonektatzea gomendatzen da.**
- **Gomendagarria da leihatilak ixtea 60 km/h-ko (37 mph) abiaduran gidatzen bada.**
- **Ez gidatu oina lozagia gainean jarriz, horren presioak diskoak irrist egitea eragin dezakeelako, gehiago gastatuko duelako eta lozagia-diskoa matxura dezakeelako.**
- **Ez izan ibilgailua malda batean lozagiak lan egiten duen bitartean, erabili balazta. Kontsumoa txikiagoa izango da eta lozagia-diskoa kaltetu ahal izatea saihestuko du.**
- **Erabili motor-balazta jaitsieretan, maldara hobekien moldatzen den martxa sartuz. Kontsumoa "zero" izango da eta balaztek ez dute sufrituko.**

Ibili ibilgailua kargatuta dagoela

Ibilgailua kargatuta dagoela abiadura-propietate egokiak lortzeko, izan kontuan hurrengo hau:

- Ipini ekipaje guztia modu seguru batean ››› 301. orrialdea.
- Azeleratu kontu eta arreta handiz.
- Balaztatze eta maniobra bortitzak saihestu.
- Balaztatu ohi baino lehenago.
- Hala badagokio, kontuan izan sabaian ekipajea eramateko sistemari buruzko informazioa ››› 307. orrialdea.

ADI

Kargaren desplazamendu batek ibilgailuaren egonkortasuna eta segurtasuna larriki mehatxatu ditzake, balaztatze-tartea luzatu sakoneko balaztatzean edo larrialdiko balaztatzean, eta istripu eta lesio larriak eragin ditzake.

- **Finkatu karga ondo, hori ez mugitzeko.**
- **Finkatu objektu astunak dagozkion lotura-uhal edo eusteko lokarriekin.**
- **Ahokatu ondo atzeko eserlekuaren bizkarraldeak.**

Maletategiko atea irekita dagoela zirkulatzea

Maletategiko atea irekita dagoela zirkulatzea oso arriskutsua da. Finkatu ondo maletategiko objektu guztiak eta irekita dagoen maletategiko atea, eta hartu beharrezko neurriak.

Maletategiko atea irekita dagoela zirkulatzeak areagotu egiten du ibilgailuaren erresistentzia aerodinamikoa eta, horrekin batera, erregai-kontsumoa. Horregatik, maletategiko atea irekita dagoela ez zirkulatzea gomendatzen da.

⚠ ADI

Maletategiko atea desblokeatuta edo irekita dagoela gidatzeak lesio larriak eragin ditzake.

- **Gidatu beti maletategiko atea itxita dagoela.**
- **Ipini objektu guztiak maletategian modu seguruan. Bestela, objektu solteak maletategitik atera eta atzetik doazen bide-erabiltzaileei min eman diezaiekete.**
- **Gidatu beti kontu handiarekin eta oso modu zuhurrean.**
- **Saihestu balaztatze eta maniobra bortitzak, irekita dagoen maletategiko atea kontrolik gabe mugitu baitaiteke.**
- **Maletategitik irteten diren objektuak garraiatzen dituzunean, horiek seinalatu behar dituzu beste bide-erabiltzaileei jakinarazteko. Kontuan eduki legezko xedapenak.**
- **Ez erabili inoiz maletategiko atea maletategitik irteten diren objektuak eusteko edo immobilizatzeko.**
- **Maletategiko atean ekipajea eramatekoa badaramazu, desmuntatu kargarekin batera, maletategiko atea irekita zirkulatu behar duzunean.**

KONTUZ

Maletategiko atea irekita dagoela, ibilgailuaren altuera aldatzen da eta, batzuetan luzera ere bai.

Oharra

Herrialdearen arabera, debekatuta egon daiteke maletategiko atea irekita dagoela zirkulatzea; bete itzazu dagokion herrialdeko lege-xedapenak.

Urez estalitako galtzadetatik igarotzea

Ibilgailuari kalterik ez egiteko, urez estalitako galtzadak zeharkatzerakoan, kontuan hartu honako hau:

- Urak **ez** du inolaz ere karrozeriaren beheko ertza gainditu behar.
- Zirkulatu oinezkoen abiaduran.
- Ez gelditu inoiz ibilgailua uretan, ez gidatu atzera martxan, ezta motorra gelditu ere.
- Kontrako noranzkoan zirkulatzen duten ibilgailuek olatuak eratzen dituzte, eta olatu horiek ibilgailuaren beraren ur-maila igo dezakete, baina ezin da ura modu seguruan zeharkatu.

⚠ ADI

Urez estalitako eremuetatik gidatu ondoren, balaztek eraginkortasuna gal dezakete, balazten diskoak edo pastillak bustita badaude **››› 182. orrialdea.**

Oharra

- **Ur-eremuak zeharkatzean ibilgailuaren osagaiak larriki kaltetu daitezke, adibidez, motorra, errodaje-trena edo sistema elektrikoa.**
- **Saihestu edozein ibilbide-mota ur gazitik (korrosioa)** **››› 384. orrialdea.**
- **Ur-eremuetatik igarotzen zaren guztietan, Start-Stop sistema deskonektatu beharko duzu** **››› 169. orrialdea.**

Errodajea

Kontuan izan osagai berrien errodajea egiteko jarraibideak.

Motorraren errodajea

Lehenengo 1.500 kilometroetan (1.000 milia) motor berri bati errodaje-aldi bat ezarri behar zaio. Funtzionamenduaren lehenengo orduetan, motorreko barne-frikzioa askoz handiagoa da, pieza mugikor guztiak elkarrekin ahokatzen diren arte.

Lehenengo 1.500 kilometroetan (1.000 milia) gidatzeko moduak eragina izango du etorkizuneko motorraren funtzionamenduan. Gerora ere, neurrizko erregimen batean gidatu behar da (bereziki, motorra oraindik hotz dagoenean); hartara, motorra gutxiago desgastatuko da eta haren balio-bizitza luzeagoa izango da. Ez gidatu inoiz erregimen txikiegi batean. Murriztu beti martxa motorrak "modu irregularrean" funtzionatzen duenean . **1.000 kilometroetaraino (600 milia), kontuan hartu:**

- Ez zapaldu azeleragailua hondoraino.
- Ez behartu motorra gehieneko erregimenaren 2/3 baino gehiago.
- Ez gidatu atoiarekin.

1.000 eta 1.500 kilometro artean (600 eta 1000 milia artean), handitu potentzia *poliki-poliki*, gehieneko abiadura eta erregimen handia lortu arte.

Pastilla eta pneumatiko berrien errodajea

- Hagunak ordeztea eta pneumatiko berriak ››› 364. orrialdea.
- Balaztei buruzko informazioa ››› 182. orrialdea.

Ingurumenari buruzko oharra

Motorrari errodaje egokia egiten badiozu, balio-bizitza luzeagoa izango du eta motorreko olio gutxiago kontsumituko du.

Trakzio osoa (4Drive)

Trakzio osoa duten ibilgailuetan, bultzada-indarra lau gurpiletatik dator.

Oharpen orokorrak

Trakzio osoa duten ibilgailuetan, trakzioaren indarra lau gurpiletan banatzen da. Hura automatikoki gertatzen da gidatze-moduaren arabera, baita galtzadaren baldintzen arabera ere. Ikus ››› 184. orrialdea ere.

Lau gurpiletako trakzio-sistemak motorraren potentzia handiarekin batera jarduten du. Trakzio osoak ibilgailuari aparteko prestazioak eta martxarako ezaugarri bikainak ematen dizkio, bai gidatzeko ohiko baldintzetan, bai muturreko baldintzetan (izotza eta elurra) . Arrazoi horregatik, hain zuzen ere, beti segurtasunari buruzko honako oharpen hauek hartu behar dira kontuan ››› ⚠.

Neguko pneumatikoak

Trakzio osoari esker, ibilgailuaren aurrerako trakzioa ona da neguan, baita fabrikako pneumatikoak eramaten badira ere. Hala ere, neguan neguko edo urtaro guztietarako pneumatikoak erabiltzea gomendatzen dizugu lau gurpiletan, ibilgailuak balaztatzean duen portaera are gehiago hobetzeko.

Elurretako kateak

Elurretarako kateak trakzio osoa duten ibilgailuetan ere jarri behar dira, horiek erabiltzea nahitaezkoa denean ››› 369. orrialdea.

Pneumatikoak aldatzea

Trakzio osoa duten ibilgailuetan, tamaina bereko gurpilak soilik ipini behar dira. Halaber, gurpil-arteken sakonerak berdina izan beharko luke pneumatiko guztietan ››› 364. orrialdea.

Lur orotarako ibilgailu bat al dut?

Zure CUPRA ez da lur orotarako ibilgailu bat: karrozeriatik lurrerainoko distantzia ez da nahikoa halakoa izateko. Horregatik, saihestu zolatu gabeko bideetan gidatzea.

⚠ ADI

- **Gidatze-estiloa galtzadaren egoerara eta trafikoko egoerara egokitu behar litzateke beti, baita trakzio osoa duen ibilgailu bat gidatzen bada ere. Segurtasun handiagoa izateak ez du esan nahi zure burua arriskuan jarri behar duzula. Istripu-arriskua!**
- **Pneumatikoen atxikidurak mugatu egin dezake zure ibilgailuaren frenatzeko gaitasuna. Horrenbestez, zure ibilgailuaren jarrera eta bi gurpiletarako trakzioa duten ibilgailuen jarrera oso antzekoa da. Horregatik, atxikipena lur-zoru lauan edo labaingarrian ona izan arren, ez duzu azkarregi gidatu behar. Istripu-arriskua!**

- **Galtzada bustita badago, kontuan izan behar duzu azkarregi zirkulatuz gero, aurreko gurpilek "flotatu" ere egin dezaketela (aquaplaning). Kasu horretan -eta aurreko trakzioa duten ibilgailuetan ez bezala-, aguaplaninga hastearekin batera motorreko birek ez dute bat-batean gora egiten. Horregatik, gomendatzen dizugu, hura gertatu arren, abiadura galtzadaren baldintzetara egokitzea. Istripu-arriskua!**

Atzerrirako bidaiak

Ibilgailua herrialde jakin baterako fabrikatu da, eta herrialde horretan ibilgailua egiteko unean indarrean zeuden homologazio-xedapenak betetzen ditu.

Ibilgailua aldi baterako edo denbora laburrez atzerrian erabili behar baduzu, kontuan izan dagozkion argibideak.

Herrialde batzuetan, ibilgailuak betetzen ez dituen segurtasun-arauak eta xedapen bereziak daude indarrean. Atzerrira bidaia bat egin aurretik, CUPRAk bere kontzesionario batean helmugako herrialdean indarrean dauden lege-xedapenei buruz informatzea gomendatzen du.

Ibilgailua beste herrialde batean salduko baduzu edo beste herrialde batean denboraldi luze batez erabiliko baduzu, izan kontuan kasuan kasuko herrialdean indarrean dauden lege-xedapenak.

Zenbait kasutan, gero ekipamendu jakin batzuk muntatu edo desmuntatu beharko dira, bai eta funtzio jakin batzuk desaktibatu ere. Era berean, zerbitzu-multzoei eta -motei ere eragin diezaieke. Hori bereziki gerta daiteke ibilgailua beste eskualde klimatiko batean denboraldi luze batez erabiliko denean.

Munduan dauden maiztasun-bandak kontuan hartuta, baliteke fabrikan muntatutako infotainment sistemak beste herrialde batean ez funtzionatzea.

Gasolinazko ibilgailuetan, kontuan izan behar da berunik gabeko gasolina eduki daitekeela ibilbide osoan. Eskuratu berunik gabeko gasolina duten zerbitzuguneen sareari buruzko informazioa.

Dauden arau tekniko desberdinak direla eta, baliteke beste herrialde batzuetan goi tentsioko bateria kargatzea ezinezkoa izatea kargazutoinetan, edo karga-kable egoki batekin soilik kargatzea. Eskatu informazio gehiago CUPRA kontzesionario espezializatu batean edo SEAT sareko edozein kontzesionariotan.

KONTUZ

- **CUPRA ez da lan faltagatik edo ordezko pieza originalen erabilgarritasun eskasagatik ibilgailuan gertatutako kalteen erantzule izango.**
- **CUPRA ez da erantzule izango ibilgailuak beste herrialde eta kontinente batzuetan indarrean dauden legezko baldintzak betetzen ez baditu edo neurri batean bakarrik betetzen baditu.**

Motorra martxan jarri eta gelditu

Pizgailua konektatu eta deskonektatzea



112. irudia Abio-sakagailua.

Motorra abio-sakagailuarekin (Press & Drive) jartzen da martxan. Horretarako, beharrezkoa da bidaiari-lekuan giltza baliogarri bat egotea.

START ENGINE STOP botoia erdiko kontsolaren behealdean dago, edo, bertsioaren arabera, funtzio anitzeko bolantean.

Gidariaren atea irekiz **ibilgailutik ateratzerakoan**, direkzio-zutabearen blokeatze elektronikoa aktibatuko da pizgailua deskonektatuta badago.

Pizgailua konektatu eta deskonektatzea

Pizgailua konektatu baino ez baduzu nahi (motorra abiarazi gabe), sakatu labur eta behin abio-sakagailua ez balazta-pedala, ez enbrage-pedala **zapaldu gabe** ››› **162. orrialdea**.

Sakagailuaren testuak START ENGINE STOP dir-dir egiten du, bihotzaren taupadak simulatuz, sistema pizgailua konektatzeko eta deskonektatzeko prest dagoenean [1].

Pizgailuaren deskonexio automatikoa

Ibilgailuak motorra gelditu ondoren gidaririk ez dagoela detektatzen duenean, denbora jakin bat igaro ondoren pizgailua deskonektatzen da automatikoki. Une horretan argi laburrak piztuta badaude, posizio-argiak beste 30 minutu inguruz egongo dira piztuta. Posizio argiak itzal daitezke ibilgailua blokeatuz ››› **98. orrialdea**, edo eskuz ››› **124. orrialdea**.

Pizgailuaren deskonexio automatikoa Start-Stop sistema duten ibilgailuetan

Ibilgailuaren pizgailua automatikoki deskonektatuko da ibilgailua geldirik dagoenean eta motorraren itzaltze automatikoa aktiboa dagoenean baldin eta:

- gidariaren segurtasun-uhala lotua ez badago,
- gidariak pedalik zapaltzen ez badu,
- gidariaren aldeko atea zabaltzen bada.

Pizgailua automatikoki deskonektatu ondoren, argi laburrak piztuta badaude, posizio-argiak beste 30 minutu inguruz egongo dira piztuta (bateriak karga nahikoa badu). Gidariak ibilgailua blokeatzen badu edo eskuz argia itzaltzen badu, posizio-argia itzali egingo da.

Ibilgailutik irtetean pizgailua deskonektatzea, propultsio hibridoaren bitartez

E-MODE funtzionamendu-moduan, pizgailua deskonektatzen ez denean martxa amaitu ondoren eta ibilgailutik irten eta gero, denboratarte baten buruan ibilgailua automatikoki deskonektatuko da, 12 volteko bateria deskarga ez dadin.

Funtzioa “My Beat”[1]

Erosotasun-giltza duten ibilgailuetan “My Beat” funtzioa dago. Funtzio horrek ibilgailuaren abio-sistemaren argibide osagarria ematen du.

Ibilgailuan sartzean, ››› **112. irudia** abio-sakagailuak dir-dir egiten du arreta pizteko.

Pizgailua konektatu/deskonektatuz, abio-sakagailuaren argiak dir-dir egingo du.

Pizgailua deskonektatuta dagoelarik, segundo batzuk igarota, abio-sakagailua itzali egingo da.

Motorra martxan dagoelarik, abio-sakagailuaren argiztapena finko geratuko da, motorra martxan dagoela adieraziz. Erabiltzaileak abio-sakagailua erabiliz motorra martxan jartzen duenetik keinuka ari zen argiztapena finko geratu arte igarotako denbora motorizazio bakoitzaren ezaugarrien araberakoa izango da. Abio-sakagailuaren bidez motorra gelditzean, horrek dir-dir egingo du berriz.

Start-Stop sistema duten ibilgailuetan, “My Beat” funtzioak informazio gehigarria ere eskaintzen du:

- Motorra Stop fasean dagoen bitartean gelditzen denean, abio-sakagailuaren argiztapena finko geratuko da, motorra geldirik badago ere, Start-Stop sistema aktibo dagoelako.
- Motorra Start-Stop ››› **169. orrialdea** sistemaren bidez berriro martxan jarri ezin denean eta eskuz abiarazi behar denean, abio-sakagailuak dir-dir egingo du, egoera hori adieraziz.

---

[1] Baliogarria abio-sakagailua erdiko kontsolan duten bertsioetarako.

⚠ ADI

Pizgailua konektatzean, ez zapaldu balaztapedala, ezta enbragekoa ere, bestela motorra berehala martxan jar bailiteke.

⚠ ADI

Ibilgailuaren giltzak zabarkeriaz edo behar adina arreta ipini gabe erabiltzen badira, istripuak eragin daitezke eta lesio larriak sortu.

- **Ibilgailutik irtetean, ez utzi ibilgailuaren giltzarik barruan. Bestela, ume batek edo baimenik gabeko pertsona batek ibilgailua blokea dezake, motorra martxan jarri edo pizgailua konektatu, eta, hala, ekipamendu elektrikoren bati eragin.**

Oharra

- **Ibilgailutik irten baino lehen, pizgailua deskonektatu, beti, eta tresnen koadroko pantailaren argibideak kontuan hartu.**
- **Ibilgailua denbora luzez motorra geldirik badago pizgailua konektatua dagoen bitartean, gerta daiteke ibilgailuaren bateria deskargatzea eta motorra martxan jarri ahal ez izatea.**
- **Dieseleko ibilgailuetan, itxaron ➿ kontrol-argia itzali arte motorra martxan jartzeko.**
- **STOP fasean zehar START ENGINE STOP sakatzen baduzu, pizgailua deskonektatzen da eta sakagailuak dir-dir egiten du[1].**

- **Tresnen koadroko pantailan jarraibide hau agertzen bada: "Sistema Start- Stop desactivado: Arrancar el motor manualmente", START ENGINE STOP sakagailuak dir-dir egingo du[1].**

Motorra martxan jartzea

- *Eskuzko aldagailua duten ibilgailuak:* jarri aldagailuaren palanka loka-puntuan, zapaldu lozagiaren pedala eta horrela mantendu harik eta motorra martxan jarri arte.
- *Aldagailu automatikoa duten ibilgailuak:* zapaldu balaztatze-pedala eta horrela mantendu harik eta motorra martxan jarri arte.

- Sakatu abio-sakagailua ››› **112. irudia** azeleragailua zapaldu gabe. Motorra martxan jartzeko, baliozko giltza bat izan behar da ibilgailuan. Motorra abiarazi ondoren, sakagailuaren argia START ENGINE STOP finko geratzen da, motorra piztuta dagoela adieraziz[1].
- Motorra abian jartzen denean, askatu abio-sakagailua.
- Motorra abian jartzen ez bada, eten ezazu saiakera eta minutu 1 inguru igarota errepika ezazu. Behar izanez gero, erabili larrialdiko abioa ››› **164. orrialdea**.

Ibilgailuak diesela erabiltzen badu eta tenperaturak baxuak badira, baliteke motorrak abiatzeko denbora gehiago behar izatea. Beroketan zehar, ➿ kontrol-argia piztuta geratzen da. Gailu elektrikoek ez dute konektatuta egon behar motorra berotzen den bitartean, bateria alferrik deskargatzen delako.

Beroketaren iraunaldia hozgarriaren eta kanpoko tenperaturaren araberakoa da. Motorra zerbitzuko tenperaturan dagoenean, edo kanpoko tenperatura +8 ° C-tik gorakoa denean, ➿ kontrol-argia segundo 1 inguru piztuta egongo da. Horrek esan nahi du ia berehala motorra martxan jarri ahal izango duzula.

Diesel motorra martxan jartzea tanga hutsik egon eta gero.

Diesel ibilgailu bateko erregai-tanga erabat hustu bazen, baliteke erregaia hartu ondoren, martxan jartzeko normalean baino denbora gehiago behar izatea, baita minutu bat ere. Izan ere, erregai-sistemak, lehenik, airea atera behar du.

⚠ ADI

Ez mantendu motorra piztuta esparru itxietan, intoxikazio-arriskua baitago.

- **Motorretik ateratzen diren gasetako bat karbono monoxidoa da, kolorerik eta usainik ez duen gas toxikoa. Arnastuz gero, konortea galdu eta hil egin gaitezke.**

[1] Baliogarria abio-sakagailua erdiko kontsolan duten bertsioetarako.

⚠ ADI

Ez zaitez ibilgailutik atera motorra martxan dagoen bitartean, batez ere martxaren bat engranatuta badago. Ibilgailua bat-batean martxan jar daiteke, edo kalteak, sute bat edo lesio larriak eragingo dituen gauza arraroren bat gerta daiteke.

⚠ ADI

Ez erabili inoiz hotzean abiarazteko aerosolik, lehertu egin litezkeelako edo motorraren erregimena bat-batean areagotu litekeelako, eta lesioak eragiteko arriskua egon liteke.

KONTUZ

- **Abio-motorra edo motorra kaltetuak suerta daitezke motorra itzali eta berehala martxan jartzen saiatzen bada.**
- **Motorra hotz dagoenean, saihestu biraketa-erregimen altuak, ez zapaldu guztiz azeleragailua eta ez jarri motorra esfortzu handien pean, kalte zenezake eta.**

Ingurumenari buruzko oharra

Ez berotu motorra ibilgailua geldirik dagoela funtzionaraziz. Abiatu berehala leun gidatuz. Hala, motorrak zerbitzu-tenperatua lehenago lortuko du eta gasen emisioak murriztuko dira.

Oharra

Motorra martxan jartzerakoan, kontsumitzaile elektriko nagusiak aldi baterako deskonektatuko dira.

- **Motorra hotzean martxan jartzen denean, zarata une batez handitzea gerta daiteke. Hori normala da eta ez du garrantzirik.**
- **Kanpoko tenperatura +5°C (+41°F) baino gutxiago denean, motorra diesel bada, ibilgailuaren azpian kea sor daiteke erregaiarekin funtzionatzen duen berogailu osagarria konektatuta badago.**

Motorra itzaltzea

- Gelditu ibilgailua erabat ››› ⚠.
- *Eskuzko aldagailua duten ibilgailuak:* zapaldu enbragea guztiz edo askatu enbrage-pedala.
- *Aldagailu automatikoa duten ibilgailuak:* Aktibatu aparkatze-blokeo **P** botoia sakatuz
- Konektatu geratze-balazta elektronikoa.
- Egin presioa arinki abio-sakagailuan ››› **112. irudia**.

Garbiketa-tunelaren funtzioa (ibilgailu hibridoetan)

Pizgailua, **N** martxa aktibatuta dagoela, deskonektatzen denean, ibilgailuak hurrengo 30 minutuan zirkulatu ahal izango du. Denbora hori igarota, ibilgailua geldirik badago, aparkatze-blokeoa **P** automatikoki aktibatuko da.

Hori baino minutu bat lehenago, tresna-koadroko pantailan, dagokion ohartarazpen-mezua agertuko da.

⚠ ADI

Ez ezazu inoiz motorra itzali ibilgailua mugitzen ari den bitartean. Horrek ibilgailuaren kontrola galtzea, istripuak eta lesio larriak ekar ditzake.

- **Airbagek eta segurtasun-uhalen aurretenkagailuek ez dute funtzionatuko pizgailua deskonektatuta dagoenean.**
- **Motorra itzalirik dagoela, serbofrenoak ez du funtzionatzen. Horregatik, motorra itzalirik dagoela, balazta-pedala indar gehiagoz zapaldu behar da ibilgailua gelditzeko.**
- **Motorra itzalirik dagoela, lagundutako direkzioak ez du funtzionatzen. Motorra itzalita dagoenean, indar handiagoa behar da bolantea biratzeko.**
- **Pizgailua deskonektatzen bada, direkzio-zutabearen blokeatzea aktiba daiteke eta ezingo litzateke ibilgailua kontrolatu.**

⚠ ADI

Ibilgailutik irtetean, eraman, beti, giltza gainean. Hori oso garrantzitsua da haurrak ibilgailuan badaude, motorra martxan jarri edo ekipamendu elektrikoak aktiba bailitzakete (esaterako, beira-jasogailua), eta horrek istripu-arriskua dakar.

KONTUZ

- **Gelditu egiten bada eta Start-Stop sistemak motorra itzaltzen badu, pizgailuak konektatuta jarraitzen du. Ibilgailutik atera aurretik, ziurtatu pizgailua deskonektatuta dagoela, bestela, bateria deskargatu egingo baita.**
- **Denbora luzez motorra erregimen altuan egon bada, gerta daiteke motorra gainberotzea itzaltzean. Motorra ez hondatzeko, itzali aurretik utzi bi minutuz funtzionatzen lokapuntuan dagoela.**

Oharra

Motorra gelditu ostean eta pizgailua deskonektatuta dagoelarik, posiblea da erradiadorearen haizagailua funtzionatzen jarraitzea gehienez 10 minutuz. Halaber, posible da berriz piztea, likido hozgarriaren tenperatura igotzen bada motorraren hobiaren azpian pilatutako beroa dela eta, edo hori are gehiago berotzea denbora luzez eguzki-erradiazioaren eraginpean jartzeagatik.

Ibilgetzaile elektronikoa

Ibilgetzaile elektronikoak motorra baimenik gabeko giltza batekin martxan jartzea, eta horren ondorioz, ibilgailua mugitzen hastea, eragozten laguntzen du.

Ibilgailuaren giltzak txip integratu bat dauka, eta txip horrek automatikoki desaktibatzen du ibilgetzaile elektronikoa, baldin eta bidaiari-lekuaren barruan balio duen giltza bat badago.

Ibilgetzaile elektronikoa automatikoki aktibatzen da, giltza balioduna ibilgailuan ez dagoenean,

Horregatik, behar bezala kodetutako CUPRA Jatorrizko giltza batekin baino ezin da abiarazi motorra. Giltza mota hauek CUPRA kontzesionario espezializatu batean edo SEAT sareko edozein kontzesionariotan eskuratu daitezke.

KONTUZ

Ibilgailuaren funtzionamendu zuzena CUPRAren jatorrizko giltzekin bakarrik bermatuta dago.

Larrialdi-abioaren funtzioa



113. irudia Erdiko kontsolan: larrialdi-abioa.

Bidaiari-lekuan baliozko giltzarik hautematen ez bada, larrialdi-abioa egin beharko da. Tresnen koadroko pantailan, horren inguruko argibidea agertuko da. Hori gerta daiteke ibilgailuaren giltzaren pila oso gastatuta dagoenean.

- Abio-sakagailua sakatu eta berehala, jarri giltza erdiko kontsolako edari-euskarrian ››› **113. irudia**, ahalik eta gertuen *Kessy* logotik.
- Pizgailua automatikoki konektatuko da eta motorra martxan jarriko da.

Gidariarentzako argibideak tresnen koadroko pantailan

Pise el embrague

- Argibide hori eskuzko abiadura-aldagailua duten ibilgailuetan agertuko da gidariak lozagiaren pedala zapaltzen badu motorra martxan jartzean. Motorra lozagiaren pedala zapaltzen bada bakarrik jarri ahal izango da martxan.

Pise el freno

- Gidariak, motorra martxan jartzean, balaztaren pedala zapaltzen ez duenean agertuko da ohar hori.

Para engranar una marcha pise el freno

- Argibide hori motorra martxan jartzean edo gelditzean agertuko da abiadura-aldagailu automatikoaren hautatze-agintea **D** edo **R** posizioetan ez badago eta balazta-pedala zapalduta ez badago. Motorra posizio horietan soilik abiarazi eta geldi daiteke.

Colocar P; el vehículo puede desplazarse; las puertas pueden cerrarse únicamente en P

- Gidariarentzako argibide hori segurtasun-arrazoiengatik agertuko da, abisurako soinu-seinale batekin batera, motorra itzali ondoren aparkatze-blokeatze **P** botoia sakatu ez bada. Sakatu **P** botoia, bestela, ibilgailua mugi liteke.

Encendido conectado

- Gidariarentzako argibide hori burrunba-soinu batekin batera agertuko da, gidariaren aldeko atea zabaltzen denean pizgailua piztuta badago.

Propultsio elektrikoaren bidezko gidatzea

Propultsio-sistema hibridoa piztea

✓ Baliogarria ibilgailu hibridoetarako

Propultsio hibridoari eragitean, ibilgailuaren propultsio-sistema aktibatuko da. Propultsio-sistema piztuta, propultsio elektrikoa aktibatuta dago. Errekuntzako motorra automatikoki jarriko da martxan goi-tentsioko bateriaren karga-maila nahikoa ez denean, propultsio elektrikoarekin zirkulatzeko, edo propultsio-potentzia handia behar denean.

Propultsio elektrikoaren bidezko gidatzera sartzeko infotainment sisteman:

- > **Bateria-kudeatzailea.**

Propultsio-sistema pizteko baldintzak

Propultsio-sistema baldintza hauek betetzen badira pitz daiteke:

- Goi-tentsioko bateriak karga-maila nahikoa du.
- Ez dago inolako karga-kablerik entxufatuta.
- Goi-tentsioko bateriaren tenperatura funtzionamendu-tartearen barruan dago.
- Ibilgailuan kontaktu-giltza baliogarri bat dago.

Propultsio-sistema piztea

- Sakatu behin pizte- eta abio-botoia. Pizgailua konektatuta dago.
- Zapaldu balazta-pedala eta eutsi zapaldurik.
- Jarri martxak hautatzeko agintea **N** posizioan edo aktibatu aparkatzeko blokeoa **P**.
- Sakatu pizgailuaren botoia eta abiarazi

>>> **112. irudia**, tresnen koadroan READY kontrol-argia piztu arte. Ez ezazu azeleratu. Askatu pizgailuaren botoia eta abiarazi READY kontrol-argia pizten denean tresnen koadroan. Potentzia-adierazlean agertzen den marka aldatzen da OFF posiziotik **0** posiziora.

- READY kontrol-argia pizten ez bada, baliogabetu eta errepikatu eragiketa.
- Ibilgailua kontaktu-giltzaz blokeatu bada, pizte- eta abio-botoia desaktibatuta egongo da. Ibilgailuan bazaude eta motorra abiarazi behar baduzu, desblokeatu lehenik ibilgailua edo erabili larrialdi-abioa >>> **164. orrialdea**.

Oharra

Propultsio-sistema piztean, klik bat entzungo duzu. Hori guztiz normala da eta ez da arazo baten seinalea.

Propultsio-sistema hautematea

Propultsio elektrikoarekin, motorrak ez du zarata hautemangarririk egiten, ez propultsio-sistema piztean, ez martxan dagoen bitartean. Beraz, motorraren zaratarengatik ezin da antzeman ibilgailuaren propultsio-sistema piztuta dagoenik. Horren ordez, ibilgailua zirkulatzeko prest dagoela identifika daiteke ezaugarri hauengatik:

- Tresnen koadroko potentzia-adierazlean agertzen da **0 ››› 22. orrialdea** seinalea.
- Tresnen koadroan dagoen adierazpen-argia piztuta dago, ibilgailuaren kanpoko argiak piztuta dauden ala ez kontuan hartu gabe.
- Tresnen koadroan **READY** kontrol-argia pizten da.
- Seinale akustiko bat entzungo da.

Propultsio-sistema piztea kanpoko tenperaturak oso baxuak direla

Kanpoko tenperatura oso baxua denean (-27 °C (-16 °F) inguru edo hortik beherakoak), goi-tentsioko bateria izoztu daiteke, eta ez ibili. Kasu horietan ezin da piztu propultsio-sistema.

Goi-tentsioko bateriaren tenperatura behar beste igotzen den bezain laster, propultsio-sistema berriz pitz daiteke.

Propultsio-sistema, kanpoko tenperatura oso baxuetan ere, piztuko dela ziurtatzeko, ibilgailua hotzetik babestutako leku batean uztea gomendatzen du CUPRAk.

Martxa edo sutea gertatuz gero izan beharreko portaera

Beharrezkoa denean bakarrik funtzionatzen du errekuntza-motorrak. Ibilgailua modu normalean geldituta dagoela, errekuntza-motorra itzalita dago, eta ibilgailuaren sistema elektrikoen elikadura goi-tentsioko bateriaren kontura izaten da. Tresnen koadroko bira-kontagailua **0 ››› 22. orrialdea** posizioan geratzen da.

Errekuntza-motorra martxa-baldintzen arabera itzaltzea normala da eta nahita egiten da erregaia aurrezteko. Orokorrean, direkzio lagunduak eta balaztatzen laguntzeko sistemek aktibatuta egoten jarraitzen dute. Kasu bakanetan, sistemak errekuntzako motorra funtzionamenduan egotea eska dezake, baita ibilgailua geldirik dagoenean ere.

Buxadurei dagokienez, errekuntza-motorra ibilgailuaren geldialdietan konekta daiteke, goi-tentsioko bateria berriro kargatu dadin, *abiarazteko* eta *geldiarazteko* hurrengo faseetarako.

Ibilgailuaren soinua

✓ Baliogarria ibilgailu hibridoetarako

Propultsio elektrikoak errekuntza-motor batek baino askoz zarata gutxiago eragiten du. Kanpotik entzumenaren bidez hobeto hauteman ahal izateko ibilgailua, zenbait herrialdetako bertsioetan artifiziala den ibilgailuaren soinu bat sortzen da. Abiadura handiagoan, pneumatikoek eta haizeak sortutako zaratak areagotzen direnean, ibilgailuaren soinua automatikoki desagertzen da.

⚠ ADI

Gidatze elektrikoan zehar, baliteke bide publikoko beste erabiltzaile batzuek askoz gutxiago hautematea ibilgailua entzumenaren bidez. Hori aplikagarria da bereziki zirkulaziorako mugatuta dauden eremuetan, maniobratzean edo atzera martxan ibiltzean. Istripu-arriskua!

Arazoak konpontzea

✓ Baliogarria ibilgailu hibridoetarako

Propultsioa: ¡Anomalía! Estacionar el vehículo de forma segura

Oharpen-argi gorria pizten da.

Propultsio-sisteman anomalia bat dago. Ibilgailuak jada ez du propultsiorik. Ahal den bezain laster, aparkatu ibilgailua leku seguru batean. Eskatu profesional baten laguntza.

Propultsioa: ¡Anomalía! La propulsión eléctrica no funciona correctamente, acuda al taller

Oharpen-argi horia pizten da.

Propultsio-sisteman anomalia bat dago. Joan zaitez abiadura txikian tailer espezializatu batera matxura konpon dezaten.

Propultsioa: ¡Atención! La potencia está limitada. Consulte el manual

Oharpen-argi horia pizten da.

Prestazioak mugatuta daude. Baliteke goi-tentsioko bateria ez egotea nahiko kargaturik edo funtzionamendu-tenperaturaren mugara heldu izana, adibidez, kanpoko tenperaturak oso hotzak direnean.

Ibilgailuaren soinua: ¡Anomalía! Los peatones no pueden oír el vehículo. Acudir al taller

Oharpen-argi horia pizten da.

Ibilgailuaren soinuan anomalia bat dago. Kontu handiz gidatu; izan ere, baliteke bide publikoko beste erabiltzaile batzuek ibilgailu elektrikoa ezin entzutea. Joan zaitez berehala tailer espezializatu batera arazoa konpon dezaten.

Funtzionamendu-modua hautatzea

Funtzionamendu-modua hautatzea

✓ Baliogarria ibilgailu hibridoetarako

Ibilgailuak hainbat funtzionamendu-modu desberdin ditu, gidatzen duzun bitartean ibilgailua egoera bakoitzera ahalik eta ondoen egokitu ahal izateko. Propultsio-sistema piztu ondoren, eta horretarako behar diren funtzionamendu-baldintza guztiak betetzen badira, lehenik eta behin beti aktibatzen da **E-MODE** funtzionamendu-modua, modu elektrikoan gidatzeko.

Funtzionamendu-modua hautatzea

- Piztu propultsio-sistema.
- Sartu **Gestor de batería** menuan, infotainment sisteman (> **Gestor de batería** ››› 85. orrialdea).
- Sakatu **E-Mode** edo **Hybrid** funtzio-botoia infotainment sisteman. Funtzionamenduari buruzko informazio gehiago aurkituko duzu hemen: ⓘ.

E-MODE (modu elektrikoan gidatzea)[1)]

E-MODE funtzionamendu-moduan, ibilgailua, funtsean, modu elektrikoan soilik mugitzen da. Ahal den neurrian, ibilgailuaren errekuntza-motorra ez da erabiltzen.

E-MODE modua aktibatu ahal izateko, baldintza hauek guztiak bete behar dira:

- Goi-tentsioko bateriak karga-maila nahikoa du.
- Ibilgailuaren abiadura 130 km/h-tik (80 mph) beherakoa da.
- Goi-tentsioko bateriaren tenperatura -10°C baino altuagoa da.

E-MODE moduan gidatzean beharrezko baldintzak betetzeari uzten bazaio, modu elektrikoan gidatzea bertan behera geratuko da errekuntza-motorra martxan jartzearen bidez. Kasu horretan, tresnen koadroko pantailan adierazlea pizten da.

E-MODE moduan kick-down bat gauzatzean, errekuntza-motorra martxan jartzen da. Hala ere, E-MODE moduak aktibatuta jarraituko du.

Hibridoa (bateriako karga erabiltzea)[1)]

Horixe da erregai gehiago aurreztea ahalbidetzen duen funtzionamendu-modua.

---

1) Agertzen den sinboloa funtzionamendu-modu aktiboaren eta goi-tentsioko bateriaren karga-mailaren arabera aldatzen da.

Funtzionamendu-moduaren kontrol-unitatea bateriaren karga ahalik eta gehien aprobetxatzen saiatzen da. Horretarako, helbideratzea aktibo dagoela, nabigazio-datuetara ere sar daitezke.

Funtzionamendu-modu horretan, motor elektrikoak eta errekuntza-motorrak propultsiolana banatzen dute beren artean.

Hibridoa funtzionamendu-moduan, bateria-kargaren energia ezin hobeto aprobetxatzen da. Ibilbide-gidaritza aktibatuta badago, baliteke ibilgailuak goi-tentsioko bateria errekuntza-motorraren bidez modu autonomoan birkargatzea.

Bateria-karga eskuz kontrolatzea

Bateriaren karga eskuz kontrola daiteke soilik **Híbrido** funtzionamendu-moduan. Pizgailua deskonektatu arte edo Híbrido modura edo E-MODE modura aldatu arte baino ez da baliogarria erabiltzaileak hautatutako aukera.

Sakatu ⚙ funtzio-botoia eta kontrolatu bateriako karga ❮ , = eta ❯ sinboloen bidez:

❯ Sinbolo hau sakatzean, karga-maila teoriko altuago bat hautatzen da. Ibilgailua goi-tentsioko bateriaren karga-maila teoriko hori lortzen saiatzen da martxan dagoen bitartean. Ibilgailua errekuntza-motorrak propultsatzen du. Errekuntzako motorrak potentzia nahikoa “sobera” badu, hura goi-tentsioko bateria kargatzeko erabiliko da.

Hori aukeratzen bada, erregai-kontsumoa areagotuko da. CUPRAk, beraz, goi-tentsioko bateria kargatzea gomendatzen du, ahal den guztietan, karga-hargunearen bidez ››› 79. orrialdea.

= Martxan zehar, goi-tentsioko bateriaren karga-maila uneko mailatik gertu mantentzen da. Supituan azeleratzen bada edo ibilgailuaren abiadura handitzen bada, errekuntza-motorra martxan jarriko da. Gidariaren azelerazio-eskariak eta ibilgailuaren abiadurak ahalbidetzen duten bezain laster, ibilgailua berriz ere modu elektrikora aldatuko da.

❮ Sinbolo hau sakatzean, karga-maila teoriko baxuago bat hautatzen da. Hautatutako karga teorikoaren gainetik bakarrik erabiltzen du ibilgailuak bateria-karga. Gainerakoa martxaren amaierara arte gordeko da.

Intelligent Hybrid Appak erabiltzaileari eskaintzen dio, “klik” bakar baten bidez, energia elektrikoa gorde ahal izatea etxera iritsi arte (kargagunea). Aukera hori aukeratu ezean, energia elektrikoaren maximoa kontsumituko da hautatutako helmugara iritsi arte. Erabiltzaileak ibilbide aktiborik ez badu, ibilbide iragarle bat eta BMA modua, widgetetik bertatik klik bakar baten bidez, aktibatzea eskainiko du funtzioak.

Funtzionamendu-modu aktiboa erakustea

Une bakoitzean aktibo dagoen funtzionamendu-modua tresnen koadroko pantailan agertzen da, adibidez ⟲.

⚠ ADI

Gidatzean beste funtzionamendu-modu batera aldatzeak trafikoaren baldintzekiko arreta galarazi ahal dizu eta istripuak eragin ditzake.

ⓘ Oharra

Tresnen koadroko pantailan, une bakoitzean aktibo dagoen funtzionamendu-moduari buruzko informazioa erakusten da, baita goi-tentsioko bateriaren karga-mailari buruzkoa ere.

Arazoak konpontzea

✓ Baliogarria ibilgailu hibridoetarako

E-MODE funtzionatzeko modua ez dago erabilgarri

Kontrol-argia zuriz piztuko da.

E-MODE (modu elektrikoan gidatzea) funtzionatzeko modua ezin da erabili aldi baterako, baldintza bat edo batzuk betetzen ez baitira.

- Bete baldintzak E-MODE funtzionatzeko modua erabiltzeko.

Start-Stop sistema

Deskribapena eta funtzionamendua

Ez erabilgarri PHEV ibilgailu hibridoetarako

Start-Stop sistemak erregaia aurrezten eta CO_2 isurpenak murrizten laguntzen dizu.

Gelditze/abiarazte moduan, motorra automatikoki itzaliko da ibilgailua gelditzen bada edo gelditzeko fasean badago. Pizgailuak konektatuta jarraitzen du. Beharrezkoa denean, motorra berriz jarriko da martxan automatikoki.

Egoera horretan START ENGINE STOP sakagailua argiztatuta geratzen da.[1)]

Pizgailua konektatzean, Start-Stop sistema automatikoki aktibatzen da.

Kontrol-argiak

Ⓐ Start-Stop sistema erabilgarri dago, motorra automatikoki itzaltzeko funtzioa aktibo dago.

Ⓐ Start-Stop sistema ez dago erabilgarri, edo deskonektatu da.

Motorra gelditzea eta martxan jartzea

Eskuzko aldagailua duten ibilgailuak:

- Ibilgailua gelditzean edo geldituta dagoenean, jarri loka-puntua eta askatu lozagiaren pedala. Motorra gelditu egingo da. Pantailan Ⓐ kontrol-argia agertuko da. Motorra guztiz geldi aurretik itzal daiteke (gutxi gorabehera 7 km/h).
- Lozagiaren pedala zapaltzen duzunean, motorra berriro abiaraziko da. Argia itzali egingo da.

Aldagailu automatikoa duten ibilgailuak:

- Balaztatu gelditu arte eta mantendu oina balaztatze-pedalaren gainean, edo aktibatu Auto Hold sistema, ibilgailuak balaztatuta jarrai dezan. Motorra gelditu egingo da. Pantailan Ⓐ kontrol-argia agertuko da. Motorra ibilgailua guztiz gelditu baino lehen itzal daiteke (gutxi gorabehera 7 edo 2 km/h, ibilgailuaren abiadura-kaxaren arabera).
- Oina balaztaren pedaletik kentzen duzunean, motorra berriz abiaraziko da. Argia itzali egingo da. Auto Hold sistema aktibatuta, motorra ez da abiaraziko oina balaztaren pedaletik kentzen baduzu. Azeleragailuaren pedala zapaltzean abiaraziko da.

Gelditze-/abiarazte-modurako oinarrizko betekizunak

- Gidariaren ateak itxita egon behar du.
- Gidariak segurtasun-uhala ipinita eduki behar du.
- Kapotak itxita egon behar du.
- Motorra zerbitzu-tenperaturara iritsi da.
- Atzera martxa ez dago engranatuta.
- Ibilgailua ez dago aldapa handi batean.

Motorra ez da itzaltzen, zenbait arrazoirengatik.

Ibilgailua gelditu baino lehen, sistemak egiaztatuko du hainbat baldintza betetzen direla. Motorra **ez** da itzaliko, adibidez, honako egoera hauetan:

- Motorra oraindik ez da iritsi gelditze/abiarazte modurako tenperaturara.
- Ez da iritsi klimatizagailuan hautatutako tenperaturara.
- Barruko tenperatura oso altua/baxua da.
- Desizozteko MAX funtzio-tekla aktibatuta dago.
- Aparkatzeko laguntza konektatuta dago.
- Bateria oso deskargatuta dago.
- Bolantea gehiegi biratu da, edo biratzen ari da.
- Lausotzeko arriskua dago.

---

1) Baliogarria abio-sakagailua erdiko kontsolan duten bertsioetarako.

- Atzera martxa engranatu ondoren.
- Malda oso handia bada.
- Auto-ilara batean, bosgarren geldialdia egin ondoren, motorra ez da gehiago geldituko.
- ESC desaktibatuta dago.
- Larrialdiko balaztada baten ondoren edo itsaspena galdu ondoren.
- Atoi bat lotuta daramanean.
- Partikula-iragazkia leheneratzen den bitartean.

Tresnen koadroko pantailan ikusten da , baita gidariarentzako informazioaren sisteman ere START STOP.

Motorra bera bakarrik abiaraziko da

Sistemaren modu arrunta geldituta, egoera hauetan eten daiteke. Motorra berriz jarriko da martxan gidariak esku hartu gabe.

- Klimatizagailuan hautatutako tenperatura ez da barruko tenperatura.
- Desizozte-funtzioaren tekla aktibatuta WAX.
- Balazta behin eta berriro zapaldu da etengabe.
- Bateria oso deskargatuta dago.
- Kontsumo elektriko handia.
- Ibilgailua aurrerantz edo atzerantz mugitzen da, motorra itzalita duela.
- ESC desaktibatuta.
- Azeleragailuaren pedala (aldagailu automatikoa) edo lozagia (eskuzko aldagailu) zapaltzen da.
- Bolantea biratzen da pixka bat.
- Aire girotua aktibatzen denean.

Aldagailu automatikoari buruzko informazio osagarria

Hautatze-agintea **D**, **N** eta **S** posizioetan dagoela geldituko da motorra, baita Tiptronic moduan ere. Aparkatze-blokeatze **P** botoia aktibatuta, motorra itzalita egongo da oina balaztatik kentzen duzunean ere.

Motorra berriz martxan jartzeko, azeleragailua zapaldu beharko duzu, edo beste martxa-sorta bat engranatu eta balazta askatu beharko duzu.

Hautatze-agintea **R** posizioan jartzen baduzu, motorra berriro martxan jarriko da.

Adaptive Cruise Control (ACC) sistema duten ibilgailuei buruzko informazio osagarria

ACC duten ibilgailuetan, motorra berriz abiaraziko da zenbait inguruabarretan, radarraren sentsoreak hautematen badu aurreko ibilgailua ibiltzen hasi dela berriro.

⚠ ADI

- **Ez gelditu motorra inoiz ibilgailua guztiz gelditu baino lehen. Frenoen eta direkzioaren funtzionamendua ez dira guztiz bermatuko. Indar handiagoa behar litzateke bolantea maniobratzeko edo frenatzeko. Istripuren bat edo lesioak izan zenitzake.**
- **Lesioak saihesteko, ziurtatu Start-Stop sistema deskonektatuta dagoela motorreko konpartimentuan lanak egiten direnean** **››› 171. orrialdea.**

KONTUZ

Start-Stop sistema deskonektatu beharko da urez betetako eremuetako ibia igarotzen diren bakoitzean **››› 158. orrialdea.**

Oharra

- **Aldagailu automatikoa duten ibilgailuetan, zuk zeuk kontrola dezakezu ea motorrak gelditu behar duen ala ez, aplikatutako frenatze-indarra murriztuz edo handituz. Frenoa emeki bakarrik zapaltzen baduzu, adibidez, maiz gelditu eta abiarazi behar baduzu autoilaretan, motorra ez da geldituko ibilgailua geldirik dagoen bitartean. Frenoa indarrez zapaldu bezain laster, motorra gelditu egingo da.**
- **Geldirik egonda, balaztatze-pedala zapalduta mantendu behar duzu, mugi ez dadin.**

- **Eskuzko aldagailuarekin motorra "geldi-tzen" bada, berriz abiaraz dezakezu lozagia-ren pedala une horretan zapalduz.**
- **Atzerako martxa sartu ondoren, martxen hautagailua D, N edo S posizioan jartzen bada, 10 km/h-ko (6 mph) abiadura hartu beharko duzu aurrerantz, sistemak motorra geratzeko baldintzak eduki ditzan.**

Start-Stop sistema eskuz desko-nektatzea eta konektatzea.

Ez erabilgarri PHEV ibilgailu hibridoetarako

114. irudia Infotainment sistemako pantailan: Start-Stop sistema konektatuta. A Ikuspegia menu nagusian. B Ikuspegia, infotainment sistema itzalita.

Sistema erabili nahi ez baduzu, eskuz desko-nekta dezakezu:

- Infotainment sisteman, hautatu > **Asis-tentes > Smart Assistants**.

Ⓐ sinboloa laranja kolorekoa denean >>> **114. irudia** sistema aktibatuta dago eta geratu eta abiatu egingo du. Ⓐ sinboloa zuri kolorekoa denean, sistema deskonektatuta dago.

Oharra

Sistema motorra borondatez itzaltzen den bakoitzean konektatzen da.

Arazoak konpontzea

Ez erabilgarri PHEV ibilgailu hibridoetarako

Gidariarentzako argibideak tresnen koa-droko pantailan

Sistema Start-Stop desactivado. Ar-ranque el motor manualmente

- Argibide hori bistaratzen bada, Start-Stop sistemak **ezin** du motorra berriro abian jarri.

Hori gertatzeko bi arrazoi daude: gidariaren atea ireki bada edo gidariak segurtasun-uhala askatu duen.

Sistema Start-Stop: ¡Anomalía! Función no disponible

- Start-Stop sisteman anomalia bat dago. Joan espezializatutako tailer batera matxura konpontzera.

Eskuzko aldagailua

Martxak aldatzea



115. irudia 6 martxako eskuzko aldagailu baten eskema.

Aldagailu-palankan martxen posizioak adieraz-ten dira >>> **115. irudia**.

- Zapaldu lozagia eta eutsi oinari barruraino.
- Jarri abiadura-palanka nahi duzun posizioan.
- Askatu lozagia.

Engranatu atzera martxa

Engranatu atzera martxa soilik ibilgailua geldi dagoenean.

- Zapaldu lozagia eta eutsi oinari barruraino.
- Aldagailu-palanka loka-puntuan dagoela, egiozu presioa beherantz, ezkerretara mugi ezazu amaieraraino eta, ondoren, aurrerantz, atzerako martxa hautatzeko ››› 115. irudia Ⓡ.
- Askatu lozagia.

Martxa laburragoetara aldatu

Ibiltzen ari zaren bitartean, martxa laburrago batera, progresiboki aldatu behar da beti, hau da, hurrengo martxa laburragora eta motor-erregimena oso handia ez denean ››› ⚠. Abiadura gutxitzen baduzu martxa bat edo gehiago saltatuz abiadura handian edo motor-erregimen handietan, lozagia eta aldagailua kaltetu daitezke, lozagia zapalduta badago ere ››› ⓘ.

⚠ ADI

Motorra martxan badago, martxa bat engranatu eta lozagia-pedala askatu bezain pronto mugituko da ibilgailua. Geratze-balazta konektatuta egonda ere, hala gertatuko da.

- **Ez ezazu inoiz atzera martxa engranatu ibilgailua martxan dagoen bitartean.**

⚠ ADI

Abiadura gutxitzen bada modu desegokian martxa laburregia aukeratuz, ibilgailuaren kontrola gal daiteke eta istripu eta lesio larriak izan.

ⓘ KONTUZ

Abiadura handian edo motor-erregimen handietan gidatzean martxa laburregia engranatzen bada, kalte handiak sor daitezke lozagian eta aldagailuan. Lozagia-pedala zapalduta dagonean eta enbragatzen ez denean ere gerta daiteke hori.

ⓘ KONTUZ

Kontuan izan honako hau, kalterik eta higadura goiztiarrik ez sortzeko:

- **Ibitzen ari zaren bitartean ez ezazu eskua abiadura-palankaren gainean utzi. Eskuak egiten duen presioa aldagailuaren urkiletara transmititzen da.**
- **Ez utzi oina enbrage-pedalean bermatuta; presioa hutsala iruditu arren, enbrage-diskoaren higadura goiztiarra eragin dezake. Erabili oinazpikoa martxarik aldatu behar ez duzunean.**
- **Ziurtatu ibilgailua guztiz geldituta dagoela atzera martxa engranatu baino lehen.**
- **Martxaz aldatzerakoan, zapaldu sakonki lozagia.**
- **Ez ezazu ibilgailua geldirik izan maldan gora lozagia "irristatzen" eta motorra martxan izanik.**

DSG aldagailu automatikoa

Gaiaren aurkezpena

Zure ibilgailuak erregulazio elektronikoa duen eskuzko aldagailua du. Motorraren eta aldagailuaren arteko indar-transmisioa bi lozagia independenteren bidez gertatzen da. Ohiko aldagailu automatikoen pare-bihurgailua ordezkatzen dute eta, horiei esker, trakzio-indarraren etenaldia hauteman gabe, ibilgailuak azelera dezake.

Tiptronic sistemak martxak *eskuz* ››› 174. orrialdea, *Txertatu martxak Tiptronic moduan* ere aldatzeko aukera ematen du.

Martxa-hautagailuaren posizioak

116. irudia Erdiko kontsolan: hautatze-agintea.

Martxa-hautagailuaren posizioa dagokion zeinua piztean erakusten da. Pantailan ere ikusten da sartu den martxa eskuzko aldagailuaren posizio hauetan: **M**, **D**, **S** eta **E** (**Individual** profilean hautatuta dagoenean **Eco** moduko motorra ››› **180. orrialdea**).

Bertsio jakin batzuetan, pantailan ere ikusten da **S+** edo **M+** , **Drift** edo **CUPRA** profila hautatu denean. **S+** eta **M+** badira aldagailuaren funtzionamendu-moduak, ohikoagoa den **Sport (S)** modua baino muturrekoagoak.

P – Aparkatze-blokeoa

P sakatzean, gurpil eragileak blokeatuta daude. **P** baino ez duzu sakatu behar ibilgailua geldirik dagoenean ››› ⚠.

P botoia sakatzeko, aldi berean balaztaren pedala zapaldu beharko duzu.

R – Atzerako martxa

Atzerako martxa sartu behar da soilik ibilgailua geldirik dagoenean eta motorra ralentian ››› ⚠.

R atzerako martxa sartzeko, aldi berean balazta-pedala zapaldu beharko duzu. Pizgailua konektatuta, atzera martxako argiak atzera martxa **R** sartzean piztuko dira.

N – Loka-puntua

Posizio horretan, aldagailua loka-puntuan dago.

Zapaldu balazta-pedala **N**tik **D/S**-ra aldatzeko 3 km/h-tik (2 mph) beheko abiaduretan edo ibilgailua geldirik dagoela ››› ⚠.

D/S – Aurrerako martxarako posizio iraunkorra

D/S posizioan aldagailua modu normalean (**D**) edo kirol-moduan (**S**) erabili ahalko da. **S** kirol-modua hautatzeko, bultzatu atzerantz agintea. Berriz bultzatuz gero, **D** modu normalera itzuliko da. Tresnen koadroko pantailan hautatutako gidatze-modua agertuko da.

Modu normalean (**D**), aldagailuak egokiena aukeratzen du. Hori motorraren, abiaduraren eta erregulazio-programa dinamikoaren (DRP) kargaren araberakoa izango da.

Sport modua (**S**) hautatu beharko litzateke kirol-estilorako gidatzean. Motorraren potentzia guztiz aprobetxatuko da. Azeleratzean, martxa-aldaketen eragiketak nabarituko dira.

Egoera jakin batzuetan (adibidez, mendiko errepideetan) gomendagarria izan daiteke triptonic modura aldatzea ››› **174. orrialdea**, martxa egokitzeko errepideko baldintzetara.

⚠ ADI

- **Ibilgailua geldirik dagoenean, ziurtatu ez duzula azeleragailua zapaltzen. Une horretan, ibilgailua martxan jarriko da, nahiz eta geratze-balazta jarrita egon, eta, beraz, istripu bat eragiteko arriskua dago.**
- **Ez jarri inoiz agintea R posizioan martxan zehar. Bestela, istripua edo matxura izateko arriskua dago.**
- **Motorra martxan jarrita eta agintea edozein posiziotan dagoelarik, balazta-pedala zapalduta mantendu beharko da; izan ere, transmisio-indarra ez da ralentian ere guztiz eteten.**
- **Martxa bat aukeratzen den bitartean, autoa geldirik dagoela eta motorra martxan, ez da azeleratu behar. Bestela, istripua izateko arriskua dago.**
- **Gidaria ez da inoiz ibilgailutik atera behar motorra martxan dagoenean eta abiadura bat engranatuta dagoenean. Konektatu aparkatze-balazta elektronikoa eta jarri aparkatzeko blokeoa (P).**

Oharra

- **Gidatzen ari zarenean nahi gabe agintea Nra mugitzen baduzu, kendu oina azeleragailutik eta itxaron motorrak ralentian bira egin dezan, berriro D edo S martxa-sorta jarri aurretik.**

- **P aparkatzeko blokeoa aktibo dagoenean korronte-elikadura eteten bada, agintea ezingo da mugitu. Kasu horretan, larrialdietako desblokeatzera jo daiteke. Horretarako, eskatu laguntza espezializatutako langileei.**

Oharra

- **Martxa-sorta bat aukeratu bada, eta ibilgailuak ez badu ez aurrera ez atzera egiten, honako hau egin:**
  - **Ibilgailua nahi duzun norabidean mugitzen ez denean, baliteke sistemak martxa-erlazioa ondo sartu ez izana. Zapaldu balazta-pedala eta sartu berriz martxa-erlazioa.**
  - **Hala ere, ibilgailua nahi duzun norabidean mugitzen ez bada, sistemak akats bat izango du. Eskatu laguntza espezializatua eta sistema berrikus dezatela.**

Txertatu martxak Tiptronic moduan

117. irudia Bolantea: aldagailu automatikorako palankak.

Tiptronic sistemari esker, gidariak eskuz ere alda ditzake martxak.

Tiptronic programara aldatzean, orain hautatutako martxari eusten zaio. Hori egin daiteke une horretan dagoen trafikoaren egoera dela-eta sistemak martxa automatikoki aldatzen ez duen bitartean.

Tiptronic bolanteko espeken bitartez erabiltzea

Aldatze-espekak erabil daitezke hautatze-agintea **D/S** posizioan dagoela.

- Sakatu ⊕ aldatze-espeka martxa handiago bat sartzeko ››› **117. irudia**.
- Sakatu ⊖ aldatze-espeka martxa txikiago bat sartzeko.
- Tiptronic modutik ateratzeko, tira egin eskuineko espekatik bolante aldera, gutxi gorabehera 1 segundoz.

Tiptronic modua mugarik gabe aktibatuta edukitzeko, hautatze-agintea **S** posizioan jarri behar da. Hautatze-agintea **D** posizioan badago eta denbora batez espekei eragiten ez bazaie, automatikoki Tiptronic modutik aterako da.

KONTUZ

- **Azeleratzean, goragoko martxa bat ez bada hautatzen, automatikoki aldatuko da, utzitako gehieneko erregimenera iritsi aurretik.**
- **Halaber, beheragoko martxa bat hautatzen bada, sistemak ez du aldatuko motorra gehieneko bira erregimenera ez dela helduko hauteman arte.**

Aldagailu automatikoa duen gidatzea

Martxa luzeagora edo laburragora aldatzea modu automatikoan egiten da.

Motorra soilik jarri daiteke martxan agintea **N** posizioan dagoenean eta **P** botoiak piztuta egon behar du (aparkatzeko blokeoa aktibo dago).

Aldapa behera gidatzea

Zenbait inguruabarretan abantailatsua izan daiteke Tiptronic modua erabiltzea martxak eskuz hautatzeko, ibiltzeko baldintzen arabera ››› ⚠.

Gelditu/Aparkatu

Lurzoru lauan aparkatzeko nahikoa da **P** ››› **116. irudia** botoia sakatzea. Maldetan, lehenik geratze-balazta jarri beharko litzateke eta, jarraian, **P** botoia sakatu.

Gidariaren aldeko atea zabaltzen baduzu eta **P** sakatu ez baduzu, ibilgailua mugi liteke. Tresnen koadroko pantailan, honako ohar-mezu hau agertzen da: ⓘ **`Cambio: ¡palanca selectora en posición de marcha!`**. Gainera, burrunba bat entzungo da.

Maldan behera gelditzea

Zapaldu *beti* balazta-pedala indarrez, ibilgailua mugi ez dadin; jarri geratze-balazta elektronikoa beharrezkoa bada ››› ⚠.

Ez azeleratu martxa-sorta bat sartuta badago, autoa aldapan behera ez joateko ››› ⓘ.

Maldan gora zaudela abiatzea Auto Hold funtzioarekin

- Martxa-sorta bat jarrita dagoelarik, kendu oina balaztaren pedaletik eta azeleratu poliki.

Maldan gora zaudela abiatzea Auto Hold funtziorik gabe

- Geratze-balazta elektronikoaren teklari tira egin.
- Martxa-sorta bat jarrita dagoelarik, kontuz azeleratu eta sakatu geratze-balazta elektronikoaren tekla.

⚠ ADI

Gogoan izan segurtasun-oharrak ››› 173. orrialdeko ⚠ (*Martxa-hautagailuaren posizioak*).

- **Ez utzi balaztak irrist egin dezan, eta ez zapaldu balazta-pedala sarritan, ezta denbora luzez ere, balaztak gehiegi berotzen dira eta. Horrek balaztatzearen potentzia murrizten du, balaztatze-distantzia handitu eta balazta-sistemaren matxura ere eragiten du.**
- **Aldapa batean gelditu behar izatekotan, mantendu ibilgailua balaztatuta balazta-pedala zapalduta edo geratze-balazta jarrita.**

ⓘ KONTUZ

- **Ibilgailua maldan gora gelditzean, ez saiatu saihesten martxa bat jartzea eta azeleragailua zapaltzea. Horrela, aldagailu automatikoa gehiegi berotu eta kaltetu daiteke.**
- **Motorra geldirik eta agintea N posizioan daudenean, ibilgailua mugitzen uzten baduzu, aldagailu automatikoa kaltetuko da labainketaren faltagatik.**
- **Zenbait gida-egoeratan edo trafikoaren baldintzatan, aldagailua gehiegi berotu liteke eta kaltegarria izan! ⓘ kontrol-argia pizten bada, gelditu ibilgailua ahal duzun bezain laster eta itxaron aldagailua hoztu arte ››› 177. orrialdea.**
- **Aldagailuak larrialdietarako programarekin funtzionatzen badu, joan zaitez lehenbailehen tailer espezializatu batera matxura konpontzera.**

Kick-down

Kick-down gailuak ahalbidetzen du gehieneko azelerazioa aldagailua **D**, **S** posizioetan edo Tiptronic moduan dagoenean.

Azeleragailua hondoraino zapalduz, aldagailu automatikoa martxa laburrago batera aldatzen da, abiaduraren eta motor-erregimenaren arabera. Horrela,ibilgailuaren gehieneko azelerazioa aprobetxatzen da ››› ⚠.

Handiagoa den hurrengo martxara ez da aldatuko aurrez ezarritako gehienezko bira-erregimena lortu arte.

⚠ ADI

Kontuan izan, errepidea irristakor badago, kickdown gailuari eragitean, gurpil eragileek irrist egin dezaketela, eta, ondorioz, irristatzeko arriskua dagoela.

Launch-control programa

Launch-control programak ahalbidetzen du azelerazio maximoa geldirik egonda.

Baldintza: motorra zerbitzu-tenperaturara heldu da eta bolantea ez dago biratuta.

Launch-controlerako motorraren erregimena desberdina da gasolinazko motorretan edo diesel motorretan.

Launch-controla erabiltzeko, beharrezkoa da trakzio-kontrola (TCS) deskonektatzea, ESC Sport edo ESC OFF modua aktibatzea, infotainment sistemako menuaren bidez: sakatu > **Asistentes** > **Menú ESC** funtzio-botoia. kontrol-argia piztuta geratuko da.

- Zapaldu balazta-pedala ezkerreko oinarekin eta mantendu zapalduta gutxienez segundo batez.
- Jarri hautatze-agintea **S** edo Tiptronic posizioan, edo hautatu Drive Profilearen **Sport** edo **Cupra** gidatze-profila.
- Zapaldu azeleragailu-pedala eskuineko oinarekin sakon edo kickdown posiziora heldu arte. **3.200** b/m (gasolinazko motorra) inguruko edo **2.000** b/m (diesel motorra) inguruko motor-erregimena ezartzen da .
- Kendu ezkerraldeko oina balazta-pedaletik. Ibilgailua gehieneko azelerazioarekin martxan hasiko da.

⚠ ADI

- **Egokitu beti zure gidatzeko modua dagoen trafikora.**
- **Erabili Launch-Control programa bide publikoen egoerak eta trafikoaren egoerak ahalbidetzen badute soilik, hau da, zure gidatzeko moduak eta ibilgailuaren azelerazio-ahalmenak beste gidari batzuk molestatzen eta arriskuan jartzen ez badituzte.**
- **Ziurtatu ESCa aktiboa dagoela. Kontuan izan TCS eta ESC desaktibatuta badaude gurpilek irrist egin dezaketela eta ibilgailuak lerratu. Istripu-arriskua!**
- **Martxan hasi ondoren, TCS aktibatu beharko zenuke edo ESCren "sport" modua berriro desaktibatu, infotainment sisteman funtzio-botoi honen bidez: > Asistentes.**

Oharra

- **Gerta daiteke dinamikoki gidatu ondoren edo launch-control programa erabiliz gero, katalizatzailearen edo abiadura-kaxaren tenperatura asko igo izana. Kasu horretan, programa minutu batzuez erabilgarri ez egotea gerta daiteke. Hozte-fasearen ondoren, programa berriz erabili ahal izango da.**
- **Launchcontrol programarekin balaztatzean, ibilgailuko pieza guztiei esfortzu handia ezartzen zaie. Horrek higadura handiagoa sortu ahal izango du.**

Inertzia-modua

Inertzia-moduari esker, azeleragailua erabili gabe zenbait tartetan ibil daiteke. Horrela, erregaia aurrezten da. Erabili inertzia-modua ibilgailua aldez aurretik "libre" ibil dadin.

Inertzia-modua aktibatzea

Baldintza: aldaketa **D** posizioan, % 12tik beherako maldak eta 20 eta 130 km/h (12 eta 80 mph) arteko abiadurak.

- Kendu oina leunki azeleragailutik.

Tresnen koadroan erakutsiko da oharra eco, sartutako martxa desagertuko da eta uneko kontsumoan **Inercia** testua agertuko da.

Aldagailuak lozagia kenduko du automatikoki, eta ibilgailua libre ibiliko da, motor-balaztaren efektua izan gabe. Ibilgailua mugitzen ari den bitartean, motorra ralentian biratzen da.

Geldiarazi inertzia modua

- Zapaldu balazta-pedala edo azeleragailua.

Berriro motorraren inertzia moduari etekina ateratzeko, kendu berriro oina azeleragailutik.

Inertzia modua (= tarte luzea energia gutxiagorekin) eta **inertziagatiko deskonexioa** (= erregaiaren beharrik ez duen tarte laburragoa) konbinatuta aplikatuz, erregaiaren kontsumoa eta emisioen balantzea hobetu daiteke.

Drive Profile ››› 180. orrialdea bidez, inertzia-modua aktiba daiteke **Comfort** eta **Individual** profiletan. **Individual** profilean **Eco** mo-

duan doitzen bada motorra, aktibazioak funtzionatzen du funtzionatzeko baldintzak betetzen direnean, oina azeleragailutik kentzeko erabiltzen den leuntasuna edozein dela ere.

⚠ ADI

- **Inertzia modua konektatu baduzu, kontuan izan oztopo batera hurbiltzean, ibilgailuak ez duela beti bezala motelduko abiadura: istripua izateko arriskua!**
- **Inertzia modua maldan behera erabiliz gero, ibilgailuak abiadura handitu dezake: istripua izateko arriskua!**
- **Beste erabiltzaile batzuek zure ibilgailua erabiltzen badute, ohartarazi inertzia moduari buruz.**

KONTUZ

Inertzia-moduak funtzionatzeak, motor hibridoekin konbinatuta, errekuntza-motorraren deskonexioa ekar dezake.

KONTUZ

%15etik gorako maldekin, automatikoki deskonektatutako da inertzia-modua.

Arazoak konpontzea

Motorra ez da martxan jartzen

Kontrol-argi berdea pizten da.

Ez daukazu balazta zapalduta, adibidez, hautatze-palankaren posizioa aldatzen saiatzean.

- Martxa-erlazioa hautatzeko, zapaldu balazta-pedala.

Jarraibideak tresnen koadroko pantailan:

Lozagia

¡Embrague sobrecalentado! ¡Deténgase, por favor!

- Lozagia gehiegi berotu da eta kaltetu egin daiteke. Gelditu eta itxaron motorra erralentian dagoela aldaketa hoztu arte, eta sakatu aparkatze-blokeatzeko **P** botoia. Gidariarentzako oharra eta argia itzaltzean, joan tailer espezializatu batera matxura konpontzeko. Ez badira itzaltzen jarraitu aurrera. Eskatu laguntza espezializatutako langileei.

Martxen matxura

Caja de cambio: ¡anomalía! Deténgase y coloque la palanca en P

- Aldagailuan arazoren bat dago. Gelditu ibilgailua leku seguru batean eta ez ezazu ibilgailuarekin ibiltzen jarraitu. Eskatu laguntza espezializatutako langileei.

Caja de cambio: ¡anomalía en el sistema! Puede proseguir la marcha

- Lehenbailehen, joan tailer espezializatu batera matxura konpontzera.

Caja de cambio: ¡anomalía en el sistema! Puede proseguir con limitaciones. Marcha atrás deshabilitada

- Joan zaitez tailer espezializatu batera matxura konpontzera.

Caja de cambio: ¡anomalía en el sistema! Puede proseguir en D hasta que apague el motor

- Gelditu ibilgailua leku seguru batean. Eskatu laguntza espezializatutako langileei.

Caja de cambio: demasiado caliente. Adapte la conducción en consonancia

- Jarraitu ibiltzen, kontu handiz. Kontrol-argia itzaltzen denean, gidatzen jarraitu ahal izango duzu normaltasun osoz.

Caja de cambio: accione el freno y vuelva a engranar una gama de marchas

- Abisua gertatu bada aldagailuaren tenperaturarengatik, argibide hori gidaria adieraziko zaio berriz hoztu denean.

Larrialdietako programa

Tresnen koadroko pantailak aldagailuaren posizio guztiak atzealde argian erakusten baditu, sisteman anomaliaren bat dago, eta aldagailu automatikoak larrialdi-programarekin funtzionatuko du. Ibilgailua oraindik gidatu daiteke,

baina abiadura txikiago batean eta ez martxa guztietan. Gerta daiteke **atzera martxan gidatzea ezinezkoa izatea**.

Aparkatze-blokeoaren larrialdietako desblokeatzea

Energia-akats baten kasuan (adibidez, deskargatutako 12 volteko bateria), ibilgailua atoian eraman behar bada, larrialdiko desblokeoa egin ahal zaio aparkatze-blokeoari. Horretarako, eskatu laguntza espezializatutako langileei.

Aldapetan gidatzea

Aldapan gelditzeko laguntzailea (HHC)

Offroad moduan zirkulatzean aldapan gora, aldagailua **D/S** posizioan dagoela, ibilgailua gelditzen denean aldapan gelditzeko laguntzailea aktibatzen da.

Pedala balaztatik askatzean, laguntzaileak autoa frenatuta mantentzen du segundo batzuez, gidariak azeleragailuaren pedala berriz ere zapaltzeko denbora eduki dezan eta, horrela, zirkulatzen jarraitu ahal izateko.

Jaisteko laguntzailea

Maldaren arabera eta aldagailua **D/S** posizioan dagoela, balazta-pedala zapaltzean jaisteko laguntzailea aktibatzen da. Aldagailuak martxa labur egokiena hartzen du.

Muga logiko batzuen barruan, balaztatzean ibiltzen zen abiadura mantentzen saiatuko da laguntzailea. Beharrezkoa izango da balazta zapalduz abiadura zuzentzea.

Laguntzaileak 3. martxaraino bakarrik jaits daiteke. Gerta daiteke malda oso handietan tiptronic modura aldatu behar izatea, eta horrela, eskuz jaistea, 2. edo 1. martxaraino, motor-balazta aprobetxatzeko eta balazta-sistema gainkargatzea saihesteko.

Jaisteko laguntzailea desaktibatuko da malda txikiagoa denean edo azeleragailua zapaltzen denean.

Abiadura-erregulagailua duten ibilgailuetan ››› 194. orrialdea, abiadura programatzean jaisteko laguntzailea ere aktibatzen da.

⚠ ADI

Jaisteko laguntzaileak ezin ditu lege fisikoek ezarritako mugak gainditu. Hori dela eta, ezin du abiadura edozein egoeratan etengabe mantendu. Edozein momentutan frenatzeko prest dago!

Maldak jaisteko laguntzailea (HDC)

✓ Honako ibilgailu hauetarako baliagarria: 4Drive trakzio osoarekin

Jaisteko laguntzaileak abiadura mugatzen du malda handietan, lau gurpilak automatikoki frenatuz, bai aurrera martxan eta bai atzera martxan. Balaztak ez blokeatzeko sistema aktibo dagoenez, ezingo dira gurpilak blokeatu.

Eskuzko aldagailua duten ibilgailuetan, jaisteko laguntzaileak abiadura teorikoa egokituko du motorra bere ralenti-erregimenetik behera frenatu gabe.

Kontrol-argiak

Zuriz pizten da.
Jaisteko laguntzailea aktibo dago.

Grisez pizten da.
Jaisteko laguntzailea ez dago aktibo. Sistema konektatuta dago, baina ez dago erregulatuta.

Aldapa bat 30 km/h (18 mph) baino astiroago jaisten hasi ondoren, abiadura gutxienez 2 km/h (1 mph) eta gehienez 30 km/h (18 mph) izango da. Egokitzat jotzen duenean, gidariak abiadura handitu edo gutxitu ahal izango du aipatutako mugaren barruan, azeleragailua edo balazta zapalduz. Une horretan, funtzioa eten egingo da eta, hala dagokionean, ondoren berriz aktibatuko da.

Hala ere, beharrezkoa izango da azalerak atzikipen nahikoa bermatzea. Hori dela eta, jaisteko laguntzaileak ezin izango du bere funtzioa bete, adibidez, gainazal izoztuak edo irristakorrak dituzten maldetan behera jaisten denean.

Jaisteko laguntzailea erabilgarri dago tresnen koadroko pantailan seinalea agertzen denean.

Jaisteko laguntzaileak automatikoki parte hartuko du, honako baldintza hauek betetzen badira:

- Ibilgailuaren motorra martxan dago.
- **Offroad** gidatze-profila hautatu da››› 181. orrialdea. 30 km/h (18 mph) baino astiroago zirkulatzen bada (tresnen koadroko pantailan erakusten da seinalea).
- Jaisteko malda gutxienez %10ekoa da aurrera martxan zirkulatuz gero eta %9koa, atzera martxan zirkulatuz gero.
- Ez da ez balazta ez azeleragailua zapaltzen.

Jaisteko laguntzailea desaktibatuko da balazta edo azeleragailua zapalduz gero, edo malda %5etik beherakoa bada. Funtzioa eskuz deskonekta daiteke infotainment sisteman > **Asistentes** > **HDC** funtzio-botoiaren bidez.

⚠ ADI

Egon beti prest frenatzeko. Hala ez badago, istripu bat edo lesioak paira daitezke.

- **Jaisteko laguntzailea osagarrizko sistema bat besterik ez da, eta zenbait egoeratan ezingo du ibilgailua behar bezala frenatu, malda batean behera joanez gero.**
- **Ibilgailuaren abiadura handitu daiteke jaisteko laguntzaileak parte hartu arren.**

Direkzioa

Ibilgailuaren direkzioari buruzko informazioa

Ibilgailua lapurtzea zailtzeko, blokeatu beti direkzioa irten baino lehen.

Direkzioa

Direkzio elektromekanikoa duten ibilgailuetan, lagundutako direkzioa automatikoki doitzen da, zirkulatzen ari den abiaduraren, bolantearen biraketa-parearen eta gurpilen orientazioaren arabera. Direkzio elektromekanikoak bakarrik motorra martxan dagoela funtzionatzen du.

Lagundutako direkzioa ez badabil zuzen, edo batere ez badabil, ohikoa baino askoz ere indar handiagoa aplikatu beharko da bolantea biratzeko.

Direkzio progresiboa

Ibilgailuak, ekipamenduaren arabera, direkzio progresiboko sistema bat izan dezake.

Hiri-trafikoan ez da beharrezkoa horrenbeste biratzea aparkatzean, maniobrak egitean edo biratze oso itxiak egitean.

Errepidean edo autobian direkzio progresiboak transmititzen du, adibidez, bihurguneetan, gidatzerakoan kirol-sentsazio handiagoa, sentsazio zuzenagoa eta nabarmen dinamikoagoa den sentsazioa.

Direkzioa kontrolatzeko laguntza

Laguntza, hori egoera kritikoetan, lagungarria da gidariarentzat. Gomendatu egiten du bolantea biratzea maniobra zuzentzailea (kontrabolantea) egiteko, bolantearen bira txiki bat eginez, ibilgailuak irrist egin ez dezan ››› ⚠.

⚠ ADI

Direkzioa kontrolatzeko laguntza egoera kritikoetan laguntzeko da. Gidariak une oro kontrolatu behar du ibilgailuaren direkzioa.

Arazoak konpontzea

Matxura direkzioan

Oharpen-argi gorria pizten da.

Matxura bat dago direkzio elektromekanikoan.

- **Ez jarraitu gidatzen!** Eskatu laguntza espezializatutako langileei.
- Ez utzi ibilgailua bere gurpilen gainean atoian eramaten.

Matxura direkzioan

Kontrol-argi horia pizten da edo dir-dir egiten du.

Direkzioak ohi baino erresistentzia handiagoa du edo ohi baino modu sentikorragoan erreakzionatzen du

Kontrol-argia **piztu eta piztuta mantentzen da**:

- Jarri berriro motorra martxan eta egin astiro ibilbide labur bat. Kontrol-argiak piztuta jarraitzen badu, joan tailer espezializatu batera.
- **EDO:** 12 volteko bateriako borneak askatuta zeuden eta berriro lotu dira. Egin astiro ibilbide labur bat.

Kontrol-argiak **dir-dir** egiten du:

- Biratu apur bat bolantea albo batera eta bestera.
- Deskonektatu pizgailua eta konektatu berriro.
- Kontuan izan tresnen koadroan erakusten diren seinaleak.
- Pizgailua konektatu eta gero kontrol-argiak dir-dir egiten jarraitzen badu, ez jarraitu gidatzen. Eskatu laguntza espezializatutako langileei.

Gidatze-profilak (Drive Profile)

Gaiaren aurkezpena

Gidatze-profilen bitartez, gidariak ibilgailuaren sistemen ezaugarri batzuk uneko martxa-egoerara, nahi den erosotasun-martxara eta gidatze ekonomikoko estilo batera egokitu ditzake. Egokitu daitezkeen sistemetako batzuk esekidura, direkzioa, motorra eta klimatizagailua dira.

Ibilgailuaren ekipamenduaren arabera, gidatze-profil desberdinak aukeratu daitezke. Ibilgailuaren sistemen eragin-maila gidatze-profil desberdinetan ibilgailuaren ekipamenduaren araberakoa da.

Motorra

Aukeratutako profilaren arabera, motorrak azkarrago edo leunkiago erantzuten du azeleragailua zapaltzean.

Aldagailu automatikoa duten ibilgailuetan, transmisioaren portaera aldatzen da, besteak beste, goranzko edo beheranzko martxa aldatzeko unea. Ralenti-maila eta aldaketa-posizioa ere alda daitezke, hautatutako profilaren arabera.

Horrez gain, **Modo Inercia** funtzioa aktikatuko da, **Comfort** hautatuz edo **Individual** profilean, motorra **ECO** doikuntzan hautatzean.

Honek erregai-kontsumoa murriztea ahalbidetzen du. Horren aktibazioa beste faktore batzuek eragin dezakete ››› **176. orrialdea**.

Eskuzko aldagailuarekin, **ECO** profilak martxa aldatzeko gomendio-oharrak aldatzen ditu, gidatze eraginkorragoa erraztuz.

Motorraren soinua

Ekipamenduaren eta aukeratutako profilaren arabera, bidaiari-lekuan edukitzen den sentsazio akustikoa eta kanpoaldeko sonoritatea aldatzen ditu. Ibilgailuko hainbat osagaitan jarduten da, motorraren eta sarreraren soinua indartzeko edo arintzeko, baita ihes-sistematik datorrena ere. Konfigurazioa profil bakoitzerako aurrez definituta dago, eta hori **Individual** profilaren barruan alda daiteke.

Esekidura moldagarria DCC

DCC sistemak etengabe egokitzen du esekidura-sistemaren indargetzea galtzadaren ezaugarrietara eta martxaren egoerara (abiadura, azelerazioa eta bolante-angelua), hautatutako gidatze-profilaren arabera. Gainera, ibilgailuaren jardun dinamikoa egokitzen da, bihurguneetan trakzioa eta duen biraketa-gaitasuna hobetuz. **Individual** profilean DCCren posizioa modu pertsonalizatuan ere doi daiteke. DCCa matxuratzen bada, tresnen koadroko pantailan honako mezu hau agertuko da: **`Avería: regulación de la amortiguación`**.

Trakzio osoa (4Drive)

Transmisioa aldatzen du, ibilgailuaren trakzio-gaitasuna galtzadara egokitzeko. Halaber, gelditze-posiziotik azeleratzeko gaitasuna aldatu egingo da.

Direkzioa

Lagundutako direkzioak bere funtzionamendua aldatzen du eta hautatutako profilera egokitzen da, egoera bakoitzean portaerarik onena emanez.

Klimatizazioa

Climatronic-ek **Eco** moduan funtziona dezake, bereziki neurrizkoa den kontsumoa eginik.

Abiaduraren kontrol moldatzailea (ACC)

Gidatzeko profilaren arabera, ACCren jarduna aldatu egiten da, kirol tankera handiagoa edo erregai-kontsumoa gehiago errespetatzen duen abiadura-moldaketa ahalbidetzeko.

PreCrash sistema

PreCrash sistema egokitzen da hautatutako konfigurazioaren arabera ››› **51. orrialdea**.

Cupra eta **Offroad** gidatze-profilek berariazko doikuntzak dituzte, gidatzearen ezaugarrietara egokitzeko .

Jaitsiera-kontrolatzeko laguntzailea

Laguntzaile hori **Offroad** profilean aktiba edo desaktiba daiteke. Jaitsiera-laguntzaileak abiadura mugatzen du jaitsiera nabarmenetan, eta automatikoki frenatzen ditu lau gurpilak, bai aurrera bai atzera..

Maldetan abiarazteko laguntzailea

Laguntzaile hori aktiba edo desaktiba daiteke **Offroad** profilaren barruan.

Indar momentuaren banaketa (bakarrik V25 bertsioan)

Atzeko gurpilen artean egoki banatzen du indar momentua, bihurgunetan duen trakzio-gaitasuna handituz.

Gidatze-profil bat aukeratzea

118. irudia Funtzio anitzeko bolantea: gidatze-profila aldatzeko botoia.

Gidatze-profila hautatu daiteke pizgailua konektatuta dagoela eta ibilgailua geldirik edo abian dagoela ››› ⚠.

Gidatze-profil bat aukeratzea

- Sakatu > **Drive Profile** funtzio-botoia.
- **EDO:** Sakatu > **Ajustes del vehículo** > **Drive Profile** funtzio-botoia, profil erabilgarriak erakutsiko dira.
- **EDO:** Sakatu funtzio-botoia, irristatu hatza pantailatik horizontalean **Drive Profile** funtzio-botoiraino. Sakatu > gainean gidatze-profila aldatzeko edo sakatu bi aldiz ikonoaren gainean profil erabilgarriak erakusteko.
- **EDO:** Infotainment sistema itzalita, **Drive Profile** ikonoaren gainean sakatuz, erabilgarri dauden gidatze-profilak erakutsiko dira.
- **EDO:** Sakatu labur ››› **118. irudia** botoia (gezia), gidatze-profila aldatzeko. Sakatu luze botoia zuzenean **Cupra** profilean sartzeko.

Gidatze-profilaren informazioa erakustea

- Hautatutako gidatze-profilari buruzko informazio gehiago ikusteko, sakatu **`Información`** infotainment sisteman.

⚠ ADI

Gidatze-profila martxan zauden bitartean doitzeak trafikotik arreta galaraz diezazuke, eta istripuak eragin.

- **Trafikoan arreta jarriz eta modu arduratsuan gidatu beti.**

Gidatze-profilen ezaugarriak

Hautatutako profilaren ikonoa une oro erakusten da tresnen koadroaren goiko erdialdean eta Infotaiment sistemako pantailan, itzalita dagoenean.

Gidatze-profila	Ezaugarriak
Comfort	Hari esker, lasaiago eta erosoago gidatu daiteke, adibidez, autopistan egiten diren ibilbide luzeetan.
Sport	Ibilgailuari portaera globala eta dinamikoa ematen dio, kirol-gidatzea egiteko egokia.
Cupra[a)]	Horrek kirol-estiloko izaera nabarmena ematen dio ibilgailuari eta, hala, errendimendurik handiena lor dezake.
Individual	Konfigurazioa pertsonalizatzeko aukera ematen du. Doitu daitezkeen funtzioak ibilgailuaren ekipamenduaren araberakoak dira.
Offroad[b)]	Errepidetik kanpoko gidatze hoberena mantentzen du, eta ibilgailuaren parametroak konfiguratzea ahalbidetzen du.
Drift[c)]	Ibilgailua konfiguratzen du kontrolatutako gainbiraketa-esperientzia ahalbidetzeko.

a) Erabilgarri VZ bertsioan.
b) 4Drive modeloetarako soilik. Ez da baliogarria PHEV ibilgailu hibridoetarako.
c) V25 bertsioan soilik erabilgarri.

⚠ ADI

Gidatze-abiadura eta -modua beti egokitu behar dira ikuspen-, klimatologia-, galtzada- eta trafiko-baldintzetara.

Oharra

- **Kontaktua kentzeko unean aukeratutako gidatze-profila edozein dela ere, sistema guztiak Comfort moduan hasiko dira. Beste gidatze-profil bat aukeratzeko, erabili funtzio anitzeko bolantearen CUPRA botoia edo infotainment sistemaren pantaila.**
- **Gidatze-abiadura eta -modua beti egokitu behar dira ikuspen-, klimatologia-, galtzada- eta trafiko-baldintzetara.**

Balazta-sistema

Balazten inguruko informazioa

Lehenengo 200 eta 300 km artean, **balazta-pastilla berriek** ez dute balaztatzeko gehienezko ahalmenik eskaintzen, eta oraindik "finkatu" behar dira ››› ⚠. **Balazta-pastillen errodajean zehar, balaztatze-distantzia luzeagoa da, sakoneko balaztatzearen edo larrialdiko balaztatzearen kasuan**, errodajearen ondoren baino. Errodajean zehar, ez da sakoneko balaztatzerik egin behar, ez eta balaztak asko eskatzen dituzten egoerarik ere, adibidez, beste ibilgailu batengandik gertuegi zirkulatzea.

Balazta-pastillen higadura ibilgailua nola erabiltzen den eta gidatzeko moduaren araberakoa da, neurri handi batean. Ibilgailua maiz erabiltzen bada hiriko trafikoan eta ibilbide labur-

rak egiteko edo kirolerako gidatzen bada, pastillen lodiera aztertzeko eskatu beharko zaio aldizka tailer espezializatu bati.

Balaztak bustita daudela ibiltzean, adibidez, ura zeharkatu ondoren, euri asko egiten badu edo ibilgailua garbitu ondoren, baliteke balaztatzeko gaitasuna murriztuta egotea, balazta-diskoak bustita edo neguan izoztuta daudelako. Gidariak prest egon beharko luke indar handiagoz balaztatzeko.

Freno-diskoetan eta -pastilletan gatz-geruza agertzen bada, balaztatze-gaitasuna murrizten da eta balaztatze-distantzia handitzen da. Gatzez bustitako errepideetan zirkulatzen bada, denbora batez balaztatu gabe, gatz-geruza karrakatu beharko dugu, zenbait balaztatze kontu handiz eginez ››› ⚠.

Freno-diskoen **korrosioa** eta freno-pastillen **zikinkeria** areagotu egiten dira ibilgailua denbora luzean erabili gabe badago edo kilometro asko egiten ez baditu. Korrosiorik balego, diskoak eta pastillak garbitzea gomendatzen da, abiadura handian zirkulatzen duzunean hainbat aldiz intentsitate handiagoz frenatuz. Ziurtatu ez duzula beste ibilgailurik edo bide-erabiltzailerik arriskuan jartzen ››› ⚠.

⚠ ADI

Balazta-pastillak higatuta izanik edo balazta-sistema akastunean zirkulatuz gero, istripuak eta lesio larriak gerta daitezke.

- **Balazta-pastillak higatuta edo balazta-sisteman matxura dagoela uste baduzu, joan berehala tailer espezializatu batera eta eskatu balazta-pastillak berrikusteko eta higatuta daudenak aldatzeko.**

⚠ ADI

Hasieran, balazta-pastillak balaztatzeko duten gaitasuna ez da hoberena.

- **Lehenengo 300 km-etan, balazta-pastilla berriek ez dute balaztatzeko gehienezko ahalmenik eskaintzen, eta oraindik "finkatu" behar dira . Hori konpentsatu daiteke balazta-pedalean presio handiagoa eginez.**
- **Balazta-pastillak berriak direnean, gidatu arreta bereziz, istripuak, lesio larriak edo ibilgailuaren kontrola galtzeko arriskua murriztеko.**
- **Egin frenatze irmoagoak, balazta-sistema garbitzeko, trafikoaren egoerak ahalbidetzen duenean bakarrik. Ez dira arriskuan jarri behar beste ibilgailuetako bidaiariak. Istripu-arriskua!**
- **Balazta-pastilla berriak errodajean dauden bitartean, ez ibili inoiz beste ibilgailuetatik hurbilegi, eta ez eragin balaztak asko bortxatzen dituen egoerarik.**

⚠ ADI

Balaztak gehiegi berotzen direnean, horien balaztatzeko ahalmena murrizten da eta balaztatzeko distantzia handitzen da.

- **Maldan behera zirkulatzean, balaztak bereziki bortxatzen dira eta oso azkar berotzen dira.**
- **Jaitsiera nabarmena duen ibilbide luze baten aurrean, murriztu abiadura eta aldatu martxa edo gama laburrago batera. Horrela, motor-balazta aprobetxatu eta frenoak arinduko ditu.**
- **Geroago aurreko espoiler bat, edergarri integralak edo beste osagarri batzuk muntatzekotan, ziurtatu balaztetatik sartzen den aire ez dela murrizten; bestela, balazta-sistema berotu liteke gehiegi. Kontuan izan, halaber, freno-likidoari buruzko informazioa** ››› 350. orrialdea.

⚠ ADI

Bustita edo izoztuta dauden edota gatzez estalita dauden balaztek geroago balaztatzen dute eta balaztatze-distantzia luzatzen dute.

- **Probatu balaztak kontu handiz.**
- **Lehortu eta askatu beti balaztak izotzetik eta gatzetik eta balaztatu behin eta berriro kontuz, ikuspen, klimatologia, galtzada eta trafikoaren baldintzek ahalbidetzen badute.**

⚠ ADI

Automatikoki hasitako balaztatze-maniobretan, balazta-pedala automatikoki mugi daiteke eragintza-norabidean. Ez jarri oina balazta-pedalaren azpian. Lesio larrien arriskua!

⚠ ADI

Motorra geldirik dagoela saihestu ibilgailua loka-puntuan mugitzea. Frenatze-distantzia nabarmen areagotzen da, serbofrenoa aktibo ez dagoenean.

Oharra

Balaztatzea beharrezkoa ez bada, ez zapaldu inoiz leunki balazta-pedala balaztak "arinki jardun daitezen". Horrek balaztak berotzea eragin dezake, eta, horren ondorioz, balaztatze-ibilbidea eta higadura handiagoak dira. Kontuan izan freno-likidoari buruzko ohar garrantzitsuak ››› 350. orrialdea.

Oharra

Nolabaiteko erregulartasunez egiaztatu behar da balazta-pastillen lodiera hagunetako zuloetatik edo ibilgailuaren behealdetik. Beharrezkoa izatekotan, gurpilak desmuntatu beharko dira, sakonago berrikusi ahal izateko. CUPRAk CUPRA kontzesionario espezializatu batera edo SEAT sareko edozein kontzesionariotara joatea gomendatzen du horretarako.

Arazoak konpontzea

Matxura balazta-sisteman

Oharpen-argi gorria pizten da. Mezu bat ere ager daiteke.

Ez jarraitu gidatzen!

- Esan tailer espezializatu batean eta eskatu balazta-sistema aztertzeko.

Balazta-pastilletako higaduraren adierazlea

Kontrol-argia argituko da horiz.

Aurreko balazta-pastillak higatuta daude.

- Joan berehala tailer espezializatu batera.
- Eskatu balazta-pastilla **guztien** berrikuspena eta, beharrezkoa izatekotan, horiek aldatzeko.

Balaztatzeko laguntza-sistemak

Balaztatzeko laguntza-sistemen inguruko informazioa

Balaztatzeko laguntza-sistemek gidatze edo balaztatze kritikoko egoeretan lagundu diezaiokete gidariari. Gidariak du beti ibilgailua modu seguruan gidatzeko ardura ››› ⚠.

Balaztatzeko laguntza-sistemak erregulatzen ari direnean, balazta-pedala mugi daiteke edo zaratak sor daitezke. Hala ere, jarraitu balaztatzen beharrezko indarrarekin eta, beharrezkoa izatekotan, kontrolatu ibilgailuaren ibilbidea.

Ekipamenduaren arabera, ibilgailuan ESC eta TCSerako doikuntzak egin daitezke.

- ESCak, ABSak eta TCSak behar bezala funtziona dezakete lau gurpilek aurreikusitako pneumatikoak badaramatzate soilik ››› ⚠.
- ABSan matzura gertatzen bada, ESCa, TCS eta EDSa ere ez dira ibiltzen.

Egonkortasun-kontrol elektronikoa (ESC)

ESCa lagungarria da irristatzeko arriskua murrizteko eta gidatze-egoera batzuetan egonkortasuna hobetzeko ››› ⚠.

Trakzio-kontrola (TCS)

TCSak irristatzen diren gurpilen indar eragilea murrizten du eta indar hori galtzadaren baldintzetara egokitzen du. TCSaren bidez, abiaraztea, azeleratzea eta maldak igotzea errazten dira ››› ⚠.

Balaztatze-indarraren banaketa elektronikoa (EBV)

Balazta-indarraren banaketa elektronikoak (EBV) aurreko ardatzaren eta atzekoaren arteko balaztatze-indarra erregulatzen du. Atzeko ardatza gehiegi balaztatzea saihesten da, eta ibilgailua egonkor egoten da balaztatze-eragiketak irauten duen bitartean.

Balazten blokeoaren aurkako sistema (ABS)

ABSak gurpilak blokeatzea eragotz dezake, ibilgailua gelditu baino pixka bat lehenago balaztatzean, eta gidariari direkzioaren eta ibilgailuaren kontrola mantentzen laguntzen dio ››› ⚠.

Balaztatze-laguntzailea (BAS)

Balaztatze-laguntzaileak (BAS) balaztatze-distantzia murriztu dezake. Balaztatze-laguntzaileak handitu egiten du gidariak larrialdi-egoeretan balazta-pedala zapaltzean egiten duen presioa.

Diferentzialaren blokeo elektronikoa (EDS eta XDS)

EDSak irrist egiten duten gurpilak balaztatzen ditu eta indar eragilea beste gurpil eragilera eramaten du.

XDSak trakzioa hobetzen du balaztatzean esku hartuz, ibilgailua bere erreian mantentzeko.

Talka anitzeko frenoa

Talka anitzeko balaztak automatikoki balaztatzen du airbagaren kontrol-unitateak istripua gertatzen denean talka hautematen badu.

Automatikoki balaztatzeko baldintzak:

- Gidariak ez du azeleragailuaren pedala zapaltzen.

Trakzio-atoi multzoaren egonkortzea

Atoia duen ibilgailua gidatzen baduzu, honako hau gertatuko da: trakzio-atoi multzoak, normalean, zabuka ibiltzeko joera izango du. Atoiak bere zabuak ibilgailura transferitzen dituenean eta ESCak hautematen dituenean, automatikoki jardungo du trakzio-ibilgailua balaztatuz sistemaren mugen barruan eta multzoa egonkortuz. Trakzio-atoi multzoaren egonkortzea ez dago erabilgarri herrialde guztietan ››› 316. orrialdea.

Serbofreno elektromekanikoa (eBKV)

Pizgailua konektatuta dagoenean, serbofreno elektromekanikoak (eBKV) oinaren indarra optimizaten du, gidariak balaztaren pedalean eragiten duen presioa handituz ››› ⚠. Gidariarentzako laguntza-sistemak balaztatzetan esku hartzen duenean, adibidez, ACCak erregulatzean, edo larrialdiko balaztatze batean, balazta-pedala automatikoki mugi daiteke.

Pizgailua deskonektatu eta gero, serbofrenoaren laguntza pixkanaka murrizten da. Balaztaren pedalarekin ibilgailuari eusten jarraitzen bada, mezuak agertuko dira tresnen koadroko pantailan. Kasu horretan, serbofrenoaren funtzioa mugatuta dago.

Behin geldirik, ibilgetu ibilgailua, mugi ez dadin ››› 222. orrialdea.

Balaztatze-indarrak erregulatutako aplikazioa[1)]

Balaztatze-indarraren aplikazio arautuak motor elektrikoak energia berreskuratzean duen balaztatze-efektua eta gidariaren balaztatze mekanikoa konbinatzen ditu.

---

1) Baliogarria ibilgailu hibridoetarako

⚠ ADI

Balaztatzeko laguntza-sistemen teknologia adimentsuak ezin ditu lege fisikoek ezarritako mugak gainditu eta sistemen mugen barruan soilik funtzionatzen du. Abiadura handian galtzada izoztuetatik, irristakorretatik edo bustitakoetatik gidatzeak ibilgailuaren kontrola galtzea eragin dezake, bai eta gidariak eta harekin doazenek lesio larriak izatea ere.

- **Beti egokitu gidatze-abiadura eta -modua, ikuspen-, klimatologia-, galtzada- eta trafiko-baldintzen arabera. Ez izan inoiz segurtasuna arriskuan jartzen duen arriskurik.**
- **Balaztatzeko laguntza sistemek ezin dute istripua saihestu beste ibilgailu batzuetatik gertuegi zirkulatuz gero.**
- **Erabili beti pneumatiko egokiak. Gidatze-egonkortasuna pneumatikoen itsaspenaren araberakoa da.**

⚠ ADI

ESCaren eraginkortasuna nabarmen murriztu daiteke gidatze-dinamikari eragiten dioten osagaiek edo sistemek mantentze-lan egokirik jaso ez badute edo behar bezala funtzionatzen ez badute. Hori bereziki gerta daiteke esekiduran aldaketak egiten badira edo baimenik gabeko hagun- eta pneumatiko-konbinazioak erabiltzen badira.

- **Utzi soilik tailer espezializatuen esku ibilgailuan egin beharreko berrikuntzak eta aldaketak.**
- **Erabili beti pneumatiko egokiak. Gidatze-egonkortasuna pneumatikoen itsaspenaren araberakoa da.**

⚠ ADI

Serbofrenorik gabe zirkulatzen bada edo serbofrenoaren funtzioa mugatua bada, balaztatze-distantzia nabarmen handitu daiteke eta istripu eta lesio larriak gerta daitezke.

- **Serbofrenoa ez badabil, balaztaren pedala indar handiagoz zapaldu behar da, balaztatze-distantzia handitzen delako, serbofrenoak laguntzen ez du eta.**

ESC eta TCS konektatzea eta deskonektatzea



119. irudia Erdiko kontsolaren azpialdean: ESCa konektatzeko/deskonektatzeko botoia

ESC automatikoki konektatzen da motorra abiaraztean, eta motorra martxan dagoenean baino ez du funtzionatzen, eta ABS, EDS eta TCS sistemak hartzen ditu barne.

TCS funtzioa trakzio nahikoa lortzen ez den egoeretan bakarrik deskonektatu beharko da.

Akaberen eta bertsioen arabera, badago aukera TCS bakarrik deskonektatzeko edo ESC "Sport" moduan aktibatzeko, edota ESC deskonektatzeko.

TCS deskonektatzea eta konektatzea

- TCSa deskonekta eta konekta daiteke erdiko kontsolako botoia labur sakatuz ››› **119. irudia**.

- **EDO:** infotainment sistemaren bidez: sakatu > **Asistentes** > **Menú ESC** funtzio-botoia ››› 38. orrialdea.

TCSa deskonektatuta dagoenean, tresnen koadroan kontrol-argia pizten da.

ESC “Sport” moduan deskonektatzea eta konektatzea

- ESCa “Sport” moduan deskonekta eta konekta daiteke erdiko kontsolako botoia labur sakatuz ››› 119. irudia.
- **EDO:** infotainment sistemaren bidez: sakatu > **Asistentes** > **Menú ESC** funtzio-botoia ››› 38. orrialdea.

“Sport” modua konektatuta, ibilgailua egonkortzeko ESCk eta trakzio-kontrolak (TCS) dituzten esku-hartzeak mugatu egingo dira. 4 gurpiletan trakzioa duten ibilgailuetan, TCS guztiz deskonektatuko da. Horrez gain, tresnen koadroan kontrol-argia pizten da.

ESCa deskonektatu eta konektatzea

- ESCa deskonekta eta konekta daiteke erdiko kontsolako botoia luze sakatuz ››› 119. irudia.
- **EDO:** infotainment sistemaren bidez: sakatu > **Asistentes** > **Menú ESC** funtzio-botoia ››› 38. orrialdea.

ESC sistema deskonektatuta dagoenean kontrol-argia pizten da tresnen koadroan.

ESCa “Offroad” moduan

Hautatu **Offroad** profila hura konektatzeko ››› 182. orrialdea. TCS, EDS eta ABS sistemen esku hartzeak bide-zoru irregularra duten lur-zoruetara egokitzen dira.

Salbuespenezko egoera hauetan, zentzuzkoa izan daiteke Offroad profila aktibatzea, gurpilek irrist egin dezaten:

- Ibilgailua askatzeko “kulunkatu” behar bada.
- Elur geruza sakon baten edo oso finkoa ez den azalera baten gainean gidatuz gero.
- Zoru irregularrean gidatuz gero, baldin eta gurpilak neurri handi batean kargarik gabe badaude (ardatzen bidegurutzea).
- Aldapa behera handietan, zolaturik ez dagoen lur-eremuen gainean balaztatzen bada.

Zure segurtasunerako, Offroad profila desaktibatzea gomendatzen dizugu, guztiz beharrezkoa ez den guztietan.

Offroad profila **deskonektatzeko**, hautatu gidatze-profil desberdin bat.

⚠ ADI

ESC Sport trafikoaren egoerak eta gidariaren trebetasunak horrela ahalbidetzen dutenean bakarrik aktibatu behar da. Irrist egiteko arriskua!

- **ESC Sport moduan izanik, funtzio egonkortzailea mugatu edo desaktibatu egingo da (modelo-bertsioaren arabera), kirol-gidatzea ahalbidetzeko. Ibilgailuak irrist egin dezake.**
- **ESCa desaktibatuta badago, ibilgailua egonkortzeko funtzioa ez dago eskuragarri.**

Oharra

- **TCS, ESC deskonektatzen bada edo “Sport” modua aukeratzen bada, abiadura-erregulagailua deskonektatuko da.**
- **ESC OFF moduan, ESCa aldi baterako aktibatuko da berriz, gidariari balaztatzen laguntzeko, eta, gero, berriz ere, modu pasibora igaroko da balaztaren pedala askatzean (modeloaren bertsioaren arabera).**

Arazoak konpontzea

ABS sistema ez dabil behar bezala edo ez dabil batere

Kontrol-argia argituko da horiz.

- Joan tailer espezializatu batera. Ibilgailuaren balaztek ABS gabe funtzionatzen jarraitzen dute.

ESCa edo TCSa erregulatzen ari da

Kontrol-argi horiak dir-dir egiten du.

Matxura ESC sisteman

Kontrol-argia argituko da horiz. ESCa deskonektatu da.

Akats edo matxuraren bat dago.

- Deskonektatu pizgailua eta konektatu berriro.
- Horrela dagokionean, egin ibilbide labur bat 15-20 km/h-ko (9-12 mph) abiadurarekin.
- kontrol-argiak piztuta jarraitzen badu, jo tailer espezializatu batera.

Balaztatzeko laguntza-sistemek zaratak sortzen dituzte

Deskribatutako balaztatzeko laguntza-sistemek esku hartzen dutenean, baliteke zaratak entzutea.

⚠ ADI

- **Pizgailua konektatzean, balazta-sistemaren egoera eta balaztatzeko laguntza-funtzioak automatikoki egiaztatzen dira. Kontrol-argiak labur argiztatzen dira tresnen koadroan, eta berriro itzaltzen dira. Argiren bat etengabe piztuta geratzen bada, matxura bat dago. Bilatu berehala laguntza tekniko kualifikatua.**

- **Balazta-sistemaren oharpen-argia piztu bada kontrol-argiarekin batera, baliteke ABSren funtzio erregulatzaileak ez funtzionatzea, eta, horregatik, atzeko gurpilak azkar samar blokeatzea balaztatzean. Horrek ibilgailuaren kontrola galtzea ekar dezake! Posiblea bada, gutxitu abiadura eta joan astiro eta kontu handiz hurbilen dagoen tailer espezializaturaino, eta eskatu balazta-sistema egiaztatzeko. Ibilbide horretan, ez egin balaztarik eta ez egin maniobra zakarrik.**
- **kontrol-argia itzaltzen ez bada edo martxan zehar pizten bada, orduan ABS sistema ez dabil behar bezala. Ibilgailua ohiko balaztekin soilik geldiaraziko da (ABS gabe). Kasu horretan, ABSren babes-funtzioa ez da erabilgarri egongo. Joan lehenbailehen tailer espezializatu batera.**

Gidariarentzako laguntza-sistemak

Oharpen orokorrak

Segurtasun-aholkuak

ADI

- Gidariari une oro dagokio gidatzearen erantzukizuna. Gidatzeko laguntza-sistemek ezin dute gidariaren arreta ordezkatu. Jarri arreta guztia gidatzean eta prest egon une oro esku hartzeko.
- Erabili gidatzeko laguntza-sistemak baldintzek ahalbidetzen dutenean bakarrik. Gidatze-estiloa beti egokitu behar da klimatologia-, ikuspen-, galtzada- eta trafiko-baldintzetara.
- Gidatzeko laguntza-sistemek behar bezala erreakzionatu ahal izateko, sentsoreek eta kamerek mugarik gabe funtzionatu behar dute. Kontuan izan kapitulu honetako sentsore eta kamerei buruzko oharrak.

Oharra

- Kontuan izan herrialde bakoitzeko arau espezifikoak, batez ere gidatzeari, larrialdietarako korridore bat eratzeari, segurtasun-distantziari, abiadurari, aparkatzeko posizioari, gurpilen posizioari eta abarri dagozkienez. Herrialde bakoitzeko araudi espezifikoa beti betetzearen erantzule bakarra da gidaria.
- Sentsoreen eta kameren aurreko aldean eta inguruan ez da itsasgarririk, argi gehigarririk, matrikularik edo horren gisakorik estali behar, laguntzaileen funtzionamendua kaltetu dezaketelako. Ibilgailua modu desegokian konpontzen bada edo egitura-aldaketak egiten badira, baliteke laguntzaileen funtzionamenduan eragina izatea.
- Sentsoreak konpontzeko eta doitzeko ezagutza eta tresna bereziak behar dira. Hori dela eta, CUPRA kontzesionario espezializatu batera edo SEAT sareko edozein kontzesionariotara joatea komenigarria da.

Sistemaren mugak

ADI

- Gidatzeko laguntza-sistemek ezin dituzte fisikak ezartzen dituen mugak gainditu. Egoeraren arabera, baliteke talka bat ezin saihestea.
- Baliteke ohartarazpenak, abisuak eta kontrol-argiak garaiz ez adieraztea edo gaizki adieraztea, adibidez, ibilgailu bat azkarregi hurbiltzen bada.
- Litekeena da gidatzeko laguntza-sistemen esku-hartze zuzentzaileak (adibidez, direkzioan edo balaztetan esku hartzea) nahikoak ez izatea, edo ez gertatzea, egoeraren arabera. Gidari gisa, une oro jarduteko prest egon behar duzu.

Oharra

- Ingurunea detektatzeari dagokionez sistemak berak dituen mugak direla-eta, baliteke sistemek garaiz ez abisatzea/esku hartzea edo, nahi ez bada ere, abisatzea. Gainera, gerta daiteke sistema osagarriek maniobra bat gaizki ulertzea eta gidariari horri buruz abisatzea ustekabean.
- Baliteke atoian eramateko modua aukeratuta egonda, laguntza-sistema batzuek mugekin edo ezohiko moduan erreakzionatzea, edo erabilgarri ez egotea. Kontuan izan atoian eramateko moduari buruzko adierazpenak.

Gidariarentzako laguntza-sistemen tekla



120. irudia Keinukarien eta argi luzeko palankan: gidariarentzako laguntza-sistemetarako tekla (bertsioen arabera).

121. irudia Funtzio anitzeko bolantearen ezkerraldea: gidariarentzako laguntza-sistemen tekla (bertsioen arabera).

Ekipamenduaren arabera, keinukarien eta errepideko argiaren palankan edo funtzio anitzeko bolantean dago gidariarentzako laguntza-sistemen tekla. Tekla horrekin **Asistentes** menuan dauden gidariarentzako laguntza-sistemak konekta eta deskonekta daitezke.

- Sakatu tekla **Asistentes** menua irekitzeko.
- Hautatu dagokion laguntza-sistema eta konekta edo deskonekta ezazu. Marka batek dio gidariarentzako laguntza-sistema konektatuta dagoela.
- Ondoren, baieztatu hautapena funtzio anitzeko bolanteko OK teklarekin.

Gidariarentzako laguntza-sistemak konekta eta deskonekta daitezke infotainment sisteman ere, ibilgailu-doikuntzetako menuan >>> **38. orrialdea**.

Gidatzen laguntzeko sentsoreak eta kamerak

Aurreko radarra

122. irudia Aurreko kolpe-leungailuan: radar-sentsorea.



123. irudia Detekzio-eremua.

Ibilgailuko aurreko kolpe-leungailuan radar bat munta daiteke ››› **122. irudia**. Aurreko radarrak objektuak detektatzen ditu bere detekzio-eremuan ››› **123. irudia** eta honako funtzio hauei eusten die:

- Front Assist ››› **205. orrialdea**.
- Gurutzaldi-kontrol egokitzailea (ACC) ››› **197. orrialdea**.

Radarrak 120 m (400 oin) arteko irismena izan dezake, bideko baldintzen eta klimatologiaren arabera.

⚠ ADI

- **Radar-sentsorearen ikuspena murriztu egin daiteke zikinkeriagatik edo ingurumen-eraginengatik, hala nola euria, lainoa, elurra, lokatza, hautsa, intsektuak, etab. Kasu horretan, gerta daiteke Front Assist eta ACC funtzioek funtzionatzeari uztea. Tresnen koadroko pantailan, honako mezu hau agertzen da: ¡`Sensor sin visibilidad`! Eta hau adierazten duten kontrol-argiak piztuko dira: Front Assist ez dago erabilgarri edo ACC ez dago erabilgarri.**
- **Garbitu sentsore-eremua kolpe-leungailuan, hemen adierazten den moduan: ››› 386. orrialdea, *Kanpoko garbiketa*. Radar-sentsoreak pantailako mezua behar bezala berriro detektatzen duenean, itzali egiten da eta funtzioak berriro erabilgarri daude.**

ⓘ KONTUZ

- **Radar-sentsorea zikin edo desdoituta badago, litekeena da Front Assist sistemak alferrikako ohartarazpenak igortzea eta balaztetan behar ez duenean esku-hartzea.**
- **Igorritako seinalearen islapen handiak gertatzen badira, radarraren funtzionamenduan eraginda izan daiteke. Hori gerta daiteke aparkaleku itxi batean, tuneletan edo objektu metalikoak (adibidez, bazter-babesak edo obretan erabilitako plakak) egonez gero.**
- **Sentsoreak kolperen bat jasotzen badu, desdoitu daiteke. Horrek sistemaren eragin-kortasuna kaltetu dezake edo deskonektatzea eragin. Radar-sentsorea kaltetuta edo desdoiturik dagoela uste baduzu, deskonektatu Front Assist eta ACC funtzioak, kalterik ez gertatzeko. Kasu horretan, doitzeko eskatu.**

Aurreko kamera



124. irudia Haizetakoan: errei-irteeraren abisu-sistemaren ikus-eremua.

Ekipamenduaren arabera, ibilgailuko aurreko haizetakoan aurreko kamera bat munta daiteke. Kamera honek erreiaren mugak (marrak) detektatzen ditu funtzio hauei eusteko:

- Errei-irteeraren abisu-sistema (Lane Assist) ››› **209. orrialdea**.
- Gidatze-laguntzailea (Travel Assist) ››› **212. orrialdea**.
- Larrialdietarako laguntzailea (Emergency assist) ››› **217. orrialdea**.

KONTUZ

Sistemen funtzionaltasunean ez eragiteko, hartu kontuan honako puntu hauek:

- **Garbitu maiz kameraren ikus-eremua, eta elurrik eta izotzik gabe mantendu.**
- **Ez estali kameraren ikus-eremua.**
- **Egiaztatu haizetakoa kaltetuta ez dagoela kameraren ikus-eremuko zonaldean.**

Atzeko radarra

125. irudia Ibilgailuaren atzeko ikuspegia: radar-sentsoreen guneak.



126. irudia Sentsoreen detektatze-zonaldeak

Radar-sentsoreak ezkerrean eta eskuinean daude, atzeko kolpe-leungailuaren atzean, eta ez dira kanpotik ikusten ››› **125. irudia**. Sentsoreek angelu itsuaren gunea ikuskatzen dute, baita ibilgailuaren atzealdean sortzen den trafikoa ere ››› **126. irudia**.

Funtzio hauei eusten die:

- Errei-aldaketarako laguntzailea (Side Assist) ››› **218. orrialdea**.
- Desaparkatzeko laguntzailea (RCTA) ››› **245. orrialdea**.
- Ateak irekitzeko laguntzailea (Exit Assist) ››› **246. orrialdea**.

Eutsitako funtzioak automatikoki desaktibatzea

Atzeko radarreko sentsoreak automatikoki deskonektatzen dira, besteak beste, sentsoreetako bat modu iraunkorrean estalita dagoela detektatzen denean. Hori gerta daiteke, adibidez, sentsoreen aurrean izotz- edo elurgeruza bat badago.

Tresnen koadroko pantailan horren inguruko mezu bat agertzen da.

Kontrol-argiak

- Errei-aldaketarako laguntzailearen (Side Assist) funtzioa ez erabilgarri
- Desaparkatzeko laguntzailearen (RCTA) funtzioa ez erabilgarri.
- Ateak irekitzeko laguntzailearen (Exit Assist) funtzioa ez erabilgarri.

KONTUZ

- **Kolpe bat hartzen badute, atzeko kolpe-leungailuaren radar-sentsoreak hondatu edo mugi daitezke, adibidez, aparkatzean edo desaparkatzean. Ondorioz, sistema deskonekta daiteke edo, behintzat, bere eginkizuna murriztu.**
- **Radar-sentsoreen funtzionamendu ona bermatzeko, mantendu atzeko kolpe-leungailua elurrik eta izotzik gabe eta ez estali.**

- **Atzeko kolpe-leungailuak CUPRAk baimendutako pinturekin margotuta egon behar du soilik. Beste pintura batzuk erabili badira, errei-aldaketarako laguntzaileak modu mugatuan edo desegokian funtziona lezake.**
- **Radar-sentsoreen ikusteko gaitasuna kaltetua egon daiteke, adibidez, hostoen, elurraren, laino gogorraren edo zikinkeriaren eraginez. Garbitu sentsoretako aurrealdea.**
- **Ez erabili inoiz errei-aldatzeko laguntzailea ezta desaparkatzeko laguntzailea radar-sentsoreak zikin daudenean.**
- **Radarraren funtzionamendua ere kaltetua gerta daiteke baldin eta haren ikuspena oztopatzen bada, besteak beste, bizikletak eramateko objektuekin edo ekipaje-tokiarekin.**

Ultrasoinu-sentsoreak

Kolpe-leungailuak ultrasoinu-sentsorez hornituta daude, honako funtzio hauek betetzeko:

- Park Assist ››› 232. orrialdea.
- Plus aparkatzeko laguntza ››› 227. orrialdea.
- Atzeko aparkatze-laguntza ››› 231. orrialdea.

KONTUZ

- **Ibilgailuaren erradiadorearen parrillan, kolpe-leungailuan, gurpil-etxean eta ibilgailu-barrenetan kalteak gertatzen badira, sentsoreen orientazioa alda daiteke. Horrek eragina izan dezake aparkatzeko laguntzaren funtzionamenduan. Eraman ibilgailua tailer espezializatu batera, funtzionamendua azter dezaten.**
- **Matrikula edo matrikula-ontzi handiegi batek matrikula jartzeko tokia gainditzen badu, edo okertuta edo deformatuta badago, gerta daiteke gezurrezko detekzioak sortzea edo sentsoreek ikuspena galtzea.**

Oharra

- **Funtzionamendu ona bermatzeko, mantendu sentsoreak garbi, elurrik eta izotzik gabe, eta ez estali itsasgarri edo beste objektu batzuekin.**
- **Presio handiko ekipoak edo lurrun-ekipoak erabiltzen badituzu garbitzeko, ez erabili zuzenean horien gainean denbora luzez eta 10 cm baino gutxiagoko distantziatik.**
- **Ibilgailuaren atzealdean muntatutako osagarri batzuek, adibidez, publizitate matrikula-ontzi bat, Aparkatzeko laguntzaren funtzionamendua murriztu dezakete.**

Ikuspen periferikoko kamerak



127. irudia Maletategiko atearen heldulekuan: atzera martxaren laguntzailearen kameraren kokapena.

Zure ibilgailuaren ekipamenduaren arabera, 1 edo 4 kamera munta daitezke, eta honako funtzio hauei eusten diete:

- Ikuspen periferikoko sistema (Top View Camera) ››› 242. orrialdea.
- Rear View Camera ››› 239. orrialdea.

ADI

Matrikula-ontzi batek pantailan erakusten den bista oztopatu dezake, kameraren ikuseremua murritz dezakeelako.

KONTUZ

- **Sistema ondo funtzionatzea bermatzeko, mantendu kamera garbi, elurrik eta izotzik gabe, eta ez estali itsasgarri edo beste objektuekin. Kamara garbitu daiteke luneta-garbigailuari eraginez.**
- **Ez erabili inoiz kontserbazio-produktu urratzailerik kameraren leiarra garbitzeko.**
- **Ez erabili inoiz ur epel edo berorik kameraren leiarretik elurra edo izotza kentzeko. Bestela, gerta liteke leiarra hondatzea.**

Abiadura-erregulagailua

Gaiaren aurkezpena

Abiadura-erregulagailuak (GRA) zuk doitutako abiadura konstante mantentzen laguntzen du.

Abiadura-tartea

Abiadura-erregulagailua erabilgarri dago aurrerako martxan zirkulatzen denean 20 km/h-tik (15 mph) gorako abiaduran.

Abiadura-erregulagailuarekin gidatzea

Gordetako abiadura edozein unetan gaindi daiteke, adibidez, aurreratzeko. Azelerazioak irauten duen bitartean erregulazioa eten egiten da, eta, ondoren, gordetako abiadura kontuan hartuta jarraitzen du.

Seinaleak pantailan

Abiadura-erregulagailua konektatuta dagoenean, tresnen koadroko pantailan gordetako abiadura eta sistemaren egoera erakusten dira:

Grisez pizten da.
Abiadura-erregulagailua konektatuta dago, baina erregulazioa ez dago aktibo.

Berdez pizten da.
Abiadura-erregulagailua konektatuta dago, eta erregulazioa aktibo dago.

Ez badago inolako abiadurarik gordeta, tresnen koadroko pantailan ––– agertuko da, abiadura-ren ordez.

Martxa aldatzea

Lozagiaren pedala zapaldu bezain laster, erregulazioa eten egiten da, eta martxa-aldaketa egin ondoren, berriro jarraituko du.

Maldak jaistea

Murriztu martxa jaiste luzea hasi aurretik. Hala, motor-balaztaz baliatuko zara eta balaztak gutxiago beharko dituzu.

Ibilgailuak ezin du mantendu gordetako abiadura martxa-egoera guztietan. Egon beti prest ibilgailua balaztatzeko.

ADI

Segurtasun-distantzia nahikoarekin eta abiadura konstantean zirkulatzea ezinezkoa bada, abiadura-erregulagailua erabiltzeak istripuak eragin ditzake eta, beraz, lesio larriak.

- **Ez erabili inoiz abiadura-erregulagailua trafiko handia dagoenean, distantzia nahikorik ez baduzu, eremu malkartsuetan, errebuelta askoko eremuetan edo labainkorretan (hala nola, elurra, izotza, euria edo hartxintxar soltea dagoenean), ezta urpean gelditu diren bideetan ere.**
- **Erabili abiadura-erregulagailua asfaltatutako eta zoru sendoko bideetatik bakarrik.**
- **Egokitu beti abiadura eta aurreko ibilgailutik segurtasun-tartea ikusgaitasun-, klima-, galtzada- eta trafiko-baldintzen arabera.**
- **Abiadura-erregulagailua erabili ondoren, deskonektatu beti, abiadura nahi gabe erregula ez dadin.**
- **Arriskutsua da aurretik programatutako abiadura bat erabiltzea azkarregia denean galtzadaren, trafikoaren edo eguraldiaren uneko baldintzetarako.**

Abiadura-erregulagailua erabiltzea



128. irudia Funtzio anitzeko bolantean: abiadura-erregulagailua erabiltzea.

Konektatu

- Sakatu tekla.

Ez dago inolako abiadurarik gordeta eta orain-dik erregulazioa ez da hasi.

Erregulazioa hasieratzea

- Atzerako martxan zehar, sakatu **SET** tekla.

Abiadura-erregulagailuak uneko abiadura gorde eta erregulatzen du.

Abiadura doitzea

Abiadura-erregulagailuak erregulatzen duen bitartean, gordetako abiadura doi daiteke:

RES + 1 km/h (1 mph)

SET – 1 km/h (1 mph)

+ + 10 km/h (5 mph)

– – 10 km/h (5 mph)

Abiaduraren erregulazioak azelerazioari bakar-rik eragiten dio, **ez du balaztatzen** ibilgailua.

Ibilgailu hibridoetan, abiadura-erregulagailuak abiadura egokitzen du azeleratuz edo frenatuz.

Erregulazioa etetea

- Sakatu labur tekla edo zapaldu balazta-pedala.

Abiadura gordeta mantenduko da.

Berriro erregulatzea

- Sakatu **RES** tekla.

Abiadura-erregulagailua gordetako abiadurara itzultzen da eta erregulatzen du.

Deskonektatu

- Sakatu luze tekla.

Abiadura-erregulagailua deskonektatzen da eta gordetako abiadura ezabatzen da.

Abiadura-mugagailua aldatzea

- Sakatu tekla.
- Aukeratu tresnen koadroko pantailan abia-dura-mugagailua.

Abiadura-erregulagailua deskonektatzen da.

Arazoak konpontzea

Matxura abiadura-erregulagailuan

Kontrol-argia argituko da horiz.

Ezohiko funtzionamendua. Deskonektatu abiadura-erregulagailua eta jo tailer espeziali-zatu batera.

Erregulazioa automatikoki eteten da

- Lozagiaren pedala luzaro zapaldu duzu.
- Ibilgailuak denbora luzez gainditu du gorde-tako abiadura.
- Ez dago aukeratuta inolako martxa-erlaziorik aurrerako martxarako.
- Balaztatzeko laguntza-sistemaren batek esku hartu du, adibidez, TCSk edo ESCk.
- Front Assistek balaztatu du ibilgailua.
- Arazoak jarraitzen badu, deskonektatu abia-dura-erregulagailua eta joan zaitez tailer espe-zializatu batera.

Abiadura-mugagailua

Gaiaren aurkezpena

Abiadura-mugagailuak zuk gordetako abiadura ez gainditzen laguntzen du.

Abiadura-tartea

Abiadura-mugagailua aurrerako martxako ibilbideetan erabilgarri dago 30 km/h (20 mph) ingurutik gorako abiaduran.

Abiadura-mugagailuarekin gidatzea

Abiadura-muga une oro eten daiteke azeleragailuaren pedala sakon zapalduz, erresistentzia-puntutik harago. Gordetako abiadura gainditu bezain laster, kontrol-argi bordeak dirdir egiten du eta baliteke ohartarazpen-seinale akustiko bat entzutea. Abiadura gordeta mantenduko da.

Erregulagailua berriz aktibatuko da automatikoki, gordetakoa baino abiadura baxuagoan zirkulatzen denean.

Seinaleak pantailan

Abiadura-mugagailua konektatuta dagoenean, tresnen koadroko pantailan gordetako abiadura eta sistemaren egoera erakusten dira:

LIM **Argi grisa pizten da**
Abiadura-mugagailua konektatuta dago, baina erregulazioa ez dago aktibo.

LIM **Argi berdea pizten da**
Abiadura-mugagailua konektatuta dago eta erregulazioa aktibo dago.

Maldak jaistea

Murriztu martxa jaiste luzea hasi aurretik. Hala, motor-balaztaz baliatuko zara eta balaztak gutxiago beharko dituzu.

Ibilgailuak ezin du mantendu gordetako abiadura martxa-egoera guztietan. Egon beti prest ibilgailua balaztatzeko.

⚠ ADI

Abiadura-mugagailua erabili ondoren, deskonektatu beti, abiadura nahi gabe erregula ez dadin.

- **Abiadura-mugagailuak ez dio gidariari abiadura egokian zirkulatzeko erantzukizuna kentzen. Ez gidatu abiadura handian beharrezkoa ez bada.**
- **Eguraldi txarra egiten duenean, abiadura-mugagailua erabiltzea arriskutsua da eta istripu larriak eragin ditzake, aquaplaninga-rengatik, elurrarengatik, izotzarengatik edo orbelarengatik, besteak beste. Erabili abiadura-mugagailua galtzadaren egoerak eta eguraldiak hala ahalbidetzen dutenean bakarrik.**

Abiadura-mugagailua erabiltzea

129. irudia Funtzio anitzeko bolantean: abiadura-mugagailua erabiltzeko botoiak.

Konektatu

- Sakatu tekla.

Oraindik ez da erregulatzea egin.

Erregulazioa hasieratzea

- Atzerako martxan zehar, sakatu **SET** tekla.

Uneko abiadura mugako abiadura gisa gordeko da.

Abiadura doitzea

Gordetako abiadura doi daiteke:

RES + 1 km/h (1 mph)
SET – 1 km/h (1 mph)
+ + 10 km/h (5 mph)
– – 10 km/h (5 mph)

Erregulazioa etetea

- Sakatu tekla.

Abiadura gordeta mantenduko da.

Berriro erregulatzea

- Sakatu RES tekla.

Mugagailua berriz aktibatuko da gordetakoa baino abiadura baxuagoan zirkulatzen denean.

Deskonektatu

- Sakatu luze tekla.

Abiadura-mugagailua deskonektatzen da eta abiadura ezabatzen da.

Beste gidariarentzako laguntza-sistema batera aldatzea

- Sakatu tekla.
- Aukeratu tresnen koadroko pantailan nahi den sistema. Abiadura-mugagailua deskonektatzen da.

Arazoak konpontzea

LIM **Abiadura-mugagailua ez dago erabilgarri**

Kontrol-argia argituko da horiz.

- Anomalia funtzionamenduan. Deskonektatu abiadura-mugagailua eta jo tailer espezializatu batera.

Erregulazioa automatikoki eteten da

- Egonkortasun-kontrol elektrikoa (ESC) desaktibatu duzu.
- Balaztak gehiegi berotu dira. Itxaron balaztak hoztu arte, eta egiaztatu berriz funtzionamendua.
- Matxurak jarraitzen badu, joan zaitez tailer espezializatu batera.

Segurtasun-arrazoiak direla eta, abiadura-mugagailua erabat deskonektatzen da gidariak azeleragailua noizbait zapaltzeari uzten dionean edo sistema eskuz deskonektatzen duenean bakarrik.

Abiaduraren kontrol moldatzailea (ACC Adaptive Cruise Control)

Gaiaren aurkezpena

Abiaduraren kontrol moldatzaileak (ACC - Adaptive Cruise Control) gidariak doitutako abiadura mantentzen du konstante. Aurretik doan beste ibilgailu batera hurbiltzean, ACCk hura detektatzen du eta abiadura automatikoki egokitzen du, gidariak konfiguratu dezakeen distantzia mantenduz.

Badauka nire ibilgailuak ACC?

Zure ibilgailuak ACC du funtzio anitzeko bolantean ACC funtzioaren berezko botoiak baditu, ››› 115. orrialdea, edo infotainment sisteman konfigurazio-menua badu.

Abiadura-tartea

ACC funtzioak erregulatzen ditu 20 eta 210 km/h (15 y 130 mph) arteko abiadurak.

Ibilgailu hibridoetan, **E-Mode** aktibatzean, ACCren abiadura-tartea alda daiteke.

ACCk gelditzen den ibilgailu baten aurrean zure ibilgailua balazta dezake erabat.

Zure ibilgailuak eskuzko aldagailua badauka, arreta jarri beharko duzu martxa-aldaketetan. ACC desaktiba liteke biraketa-erregimen baxuegi edo altuegi batera iristean.

ACCarekin gidatzea

ACCaren erregulazioa une oro baliogabe dezakezu. Balaztatzean, erregulazioa etengo da. Azeleratzean, erregulazioa etengo da azelerazioak irauten duen bitartean, eta ondoren berriro hasiko da.

Gidariak esku-hartzea eskatzea

Sistemaren berezko muga jakin batzuen mende dago ACC; hau da, zenbait egoeratan gidariak berak erregulatu beharko ditu abiadura eta beste ibilgailuekiko distantzia. Kasu honetan, tresnen koadroko

pantailan **esku-hartzeko eskatuko zaizu** balazta zapalduz, eta soinu-ohartarazpen bat entzungo da.

Radar-sentsorea

ACCk aurreko radarraren teknologia darabil. Irakurri hura mantentzeko adierazpenak eta haren mugak >>> 189. orrialdea.

⚠ ADI

ACCak dakarren teknologiak ezin ditu gainditu sistemaren berezko mugak, ezta lege fisikoek ezarritakoak ere. Arduragabekeriaz edo nahi gabe erabiltzen bada, istripua gerta daiteke eta lesio larriak eragin. Sistema horrek ezin du gidariaren arreta ordezkatu.

- **Egon prest edozein momentutan azeleratzeko edo frenatzeko.**
- **Azeleragailuaren pedalean presioa egiten baduzu, ACCk utziko dio jarduteari. Hortaz, ez du frenatuko, ezta frenatzeko esku hartzerik eskatuko ere.**
- **Egokitu beti abiadura eta aurreko ibilgailuarekiko segurtasun-tartea ikuspen-baldintzen, baldintza meteorologikoen, galtzadaren eta trafikoaren arabera.**
- **Ez erabili ACC ikuspen txarra badago, eremu malkartsuetan, bihurgune askokoetan edo itsaspen gutxikoetan.**
- **Ez erabili ACCa mendi-zeharkaldietan edo zoladura gabeko bideetan.**

- **Gerta daiteke sistemak ez erreakzionatzea oztopo geldien aurrean (adibidez, auto-ilara baten bukaera), batez ere abiadura handietan. Erantzun denbora nahikoarekin arrisku-egoera saihesteko.**
- **Gerta daiteke sistemak ez erreakzionatzea erreian bertan geldirik dauden ibilgailuen aurrean. Kasu horretan, erantzun zuk zeuk denbora nahikoarekin.**
- **Gurutzatzen ari diren edo kontrako noranzkoan hurbiltzen ari diren pertsonen, animalien edo ibilgailuen aurrean ez du erreakzionatzen sistemak.**
- **Larrialdiko gurpilarekin zirkulatuz gero, ACCa deskonektatu egin daiteke automatikoki. Deskonektatu sistema abian jartzean.**
- **Balaztatu berehala ACCk abiadura behar adina murrizten ez badu.**
- **Balaztatu berehala, tresnen koadroko pantailan gidariak esku hartzeko oharra agertzen denean.**
- **Ibilgailuak mugitzen jarraitzen badu hala nahi ez denean eta gidariaren esku hartzea eskatu ondoren, gelditu ibilgailua.**
- **Frenaketetan, balaztatze-pedala beherantz mugi liteke. Kontuz ibili eta ez jarri oina pedalaren azpian.**

ⓘ Oharra

ACCak atal honetan deskribatu bezala funtzionatzen ez badu, ez erabili tailer espezializatu batek aztertu arte. CUPRA kontzesionario espezializatu batera edo SEAT sareko edozein kontzesionariotara joatea gomendatzen da.

ACCaren erabilera



130. irudia Tresnen koadroko pantailan: ACC aktibo.



131. irudia Funtzio anitzeko bolantean: ACC sistema erabiltzeko botoiak.

››› 130. irudia

① Aurreko ibilgailua detektatua. Piztu egingo da, harekiko distantzia erregulatzen bada.

② Aukeratutako distantzia-maila 2.

Informazio hori erakutsi ahalko da **Asistentes** ikuspeneko erdiko koadroan edo ezkerreko informazio-profilean ››› 17. orrialdea. Ikuspegi horiek aukeratu ezean, automatikoki erakutsiko da tresnen koadroko beheko erdialdean, modu sinplifikatuan.

Funtzio-egoeraren adierazlearen ondoan programatutako abiadura erakutsiko da.

Konektatu

- Sakatu funtzio anitzeko bolanteko tekla ››› 131. irudia.

ACCk oraindik ez du erregulatzen (standby).

Erregulazioa hasieratzea

ACC sistema aktibatzen bada, ESC eta trakzio-kontrola (TCS) automatikoki aktibatuko dira.

- Erregulazioa hasteko, SET ››› 131. irudia sakatu.

ACCak uneko abiadura gordetzen du eta doitutako distantzia mantentzen du. Egungo abiadura aurrez definitutako abiadura-tartetik kanpo badago, ACCak gutxieneko abiadura (astiro zirkulatzen bada) edo gehieneko abiadura (azkar zirkulatzen bada) doitzen du.

Martxa-egoeraren arabera, honako kontrol-argi hauek pizten dira:

Argi berdea pizten da
ACC konektatuta, aurrean ez da ibilgailurik hautematen.

Argi berdea pizten da
ACC konektatuta, aurreko ibilgailua hautemanda.

ACC Standbyan dagoenean, kontrol-argiak grisez pizten dira.

Abiadura programatzea

Abiadura programatzeko, sakatu + edo – ››› 131. irudia botoiak, nahi den abiadurara arte. 10 km/h-ko (5 mph) tarteetan doitzen da abiadura.

ACCa aktibo dagoela, RES tekla saka dezakezu nahi den abiadura 1 km/h (1 mph) handitzeko. Jarraian, SET saka dezakezu 1 km/h (1 mph) murrizteko.

Distantzia-maila programatu

Distantzia 5 mailatan doi daiteke, oso motzetik oso zabalera:

- Sakatu tekla eta, ondoren, + edo – ››› 131. irudia tekla.
- Aukera gisa, sakatu tekla behar adina aldiz, nahi den distantzia doitu arte.

Kontuan izan herrialde bakoitzeko segurtasun gutxieneko distantziari buruzko lege-xedapenak.

Erregulazioa etetea (standby)

- Sakatu labur ››› 131. irudia tekla edo zapaldu balazta-pedala.

ACCren kontrol-argia grisa da; abiadura eta distantzia gordeta daude.

ESC edo TCS deskonektatzen badira, ACCren erregulatzea automatikoki eteten da.

Berriro erregulatzea

- Sakatu RES tekla. Doitutako azken abiadurarekin eta distantzia-mailarekin erregulatzen du ACCk.
- **EDO**: Sakatu SET tekla uneko abiadurarekin erregulatzeko.

Deskonektatu

- Sakatu luze tekla. Doitutako abiadura ezabatuko da.

ACCk erregulatutako abiadura gainditzea

Martxan zehar, ACC aktibo dagoela, gidariak abiadura handitu dezake, azeleragailuaren pedala zapalduz. ACCren erregulatzea eteten da azeleragailuaren pedala askatu arte ›››.

Gidatze-profila doitzea

Drive Profile duten ibilgailuetan, hautatutako gidatze-profilak ACCaren azeleratze- eta balaztatze-jokaeran eragin dezake ››› **180. orrialdea**.

Drift gidatze-profila daukaten ibilgailuetan, ACCa desaktibatuko da hori hautatzean, eta ACCren erregulazioa ezin izango da hasieratzea beste profil bat hautatu arte.

Drive Profile ez duten ibilgailuetan, ACCren jokaeran ere eragin daiteke, gidatze-profil baten bat hautatzen bada Infotainment sisteman, hemen: **Asistencia al conductor**. ACCn egindako doikuntzak Drive Profileren berdinak izango dira.

⚠ ADI

Martxa hasi aurretik, egiaztatu bidea libre dagoela. Baliteke radar-sentsoreak bidean egon litezkeen oztopoak ez gainditzea. Horrek istripua eta lesio larriak sor ditzake. Beharrezkoa bada, zapaldu balazta.

KONTUZ

Azeleragailuaren pedalaren bidez abiadura handitzen baduzu, hura askatzean baliteke ACC abiadura edo distantzia modu seguruan erregulatzeko gai ez izatea, sistemaren mugak direla eta.

- **Egon prest erantzuteko egoerak hala eskatzen badu.**

Gidatze-egoera bereziak



132. irudia Tresnen koadroko pantailan: ACCa aktibo, ibilgailua hauteman da ezkerraldean.

Kontuan izan kapitulu honen hasieran deskribatutako mugak eta ohartarazpenak ››› **197. orrialdea**, ***Gaiaren aurkezpena***.

Eskuinetik aurreratzea saihestea[1)]

Gidariak ezarritako abiadura baino astiroago ezkerreko erreian zirkulatzen duen ibilgailu bat antzematen bada, sistemaren konfort-mugen artean frenatuko du ibilgailua, eskuinetik ez gainditzeko ››› **132. irudia**.

Erregulazio hori ezezta dezakezu ezarritako abiadura aldatuz edo azeleragailuaren pedala zapalduz.

[1)] Edo ezkerretik, ezkerretiko zirkulazioa duten herrialdeetan.

Funtzioak 80 km/h-tik (50 mph) aurrera eragiten du. Baliteke herrialde batzuetan erabilgarri ez egotea.

Aurreratzeak

Aurreratzeko keinukaria aktibatzean, ACCk aurreko ibilgailuarekiko distantzia murrizten du, aurreratzen laguntzeko. Ezarritako gurutzaldi-abiadura ez da gainditukо.

Funtzioak 80 km/h-tik (50 mph) aurrera eragiten du. Baliteke herrialde batzuetan erabilgarri ez egotea.

Stop&Go funtzioa

ACCk ibilgailua balazta dezake hori guztiz eten arte, aurreko ibilgailua gelditzen denean. *Eskuzko aldagailua duten ibilgailuak:* enbrage-pedala zapalduta eduki beharko duzu, autoa erabat geldi dadin.

ACC aktibo dago eta segundo batzuetan erakusten du tresnen koadroan mezu hau: **ACC `listo para arrancar`**. Abisu hori luzatu edo berraktibatu ahal duzu **RES** botoia sakatuz, edo, bolantea hartuz zure ibilgailuak Travel Assist badauka. Denbora horretan, automatikoki abian jarriko da berriro, aurreko ibilgailuak aurrera egiten badu.

Ibilgailua abiarazteko **ACC `listo para arrancar`** mezua ez dagoenean, aurreko ibilgailua behin abiatuta:

- Zapaldu labur-labur azeleragailuaren pedala (eta jaso emeki lozagiaren pedala eskuzko aldagailua duten ibilgailuetan).
- **EDO**: sakatu funtzio anitzeko bolanteko **RES** tekla.

ACC ez dago aktibo hurrengo kasuetan:

- Geldialdi-faseak minutu batzuk irauten badu.
- Ibilgailuaren ate bat irekitzen bada.
- Pizgailua deskonektatzen bada.

⚠ ADI

Tresnen koadroko pantailan ACC `Listo para arrancar` mezua agertzen bada eta aurreko ibilgailua martxan jartzen bada, zure ibilgailua automatikoki abian jarriko da. Kasu horretan, gerta daiteke bidean egon litezkeen oztoporik ez detektatzea. Horrek istripuak eta lesio larriak eragin ditzake.

- **Egiaztatu beti bidea martxa hasi aurretik, eta, beharrezkoa bada, balaztatu ibilgailua.**

ACC sistemaren mugak



133. irudia A Ibilgailu bat kurba batean. B Aurretik radar-sentsorearen ekintza-eremutik kanpo dabilen motoziklista.



134. irudia C Ibilgailu bat erreiz aldatzea. D Ibilgailua bat bira emanez eta bestea geldirik.

ACC sistemaren berezko mugen ondorioz, ez da egokia egoera guztietan ››› **198. orrialdeko** ⚠ (***Gaiaren aurkezpena***).

CUPRAk gomendatzen du funtzioa ez erabiltzea honako kasu hauetan ››› ⚠:

- Euria, elurra edo laino sarria.
- Tuneletan zehar.
- Errepide-lanak dauden tarteetan.
- Bihurguneak dituzten ibilbideetan, adibidez, mendiko errepideetan.
- Landan zeharreko ibilbideetan.
- Aparkaleku estalietan.
- Metalezko objektuak integratuta dituzten bideetan, adibidez, tren- edo tranbia-bideetan.
- Hartxintxar askea duten bideetan.

Arreta berezia jarri honako agertoki hauetan ACC erabiltzean:

Bihurguneetan

Gerta liteke ACC-ak bihurguneetan ez detektatzea aurreko ibilgailua, edo beste errei batzuetan dauden ibilgailuekiko distantzia erregulatzea››› **133. irudia** A.

Sentsoreko zonatik kanpoko ibilgailuak

Baliteke ACCk ez erreakzionatzea, atzerapenarekin edo ezgaraian erreakzionatzea honako martxa-egoera hauetan:

- Lerrokatuta ez dabiltzan edo sentsorearen detektatzeko eremutik kanpo dauden ibilgailuak, adibidez, motozikletak ››› **133. irudia** B.
- Zu erabiltzen ari zaren erreira aldatzen diren ibilgailuak, zure ibilgailutik gertu ››› **134. irudia** C.
- Alboetatik, atzerantz edo goiko aldetik irteten diren kargak edo osagarriak dituzten ibilgailuak.

Detektatzen ez diren objektuak

ACC funtzioak noranzko berean mugitzen diren ibilgailuak bakarrik detektatzen ditu eta horien aurrean bakarrik erreakzionatzen du. Beraz, ez du detektatzen:

- Pertsonak
- Animaliak
- Kontrako noranzkoan zirkulatzen duten ibilgailuak edo zeharka gurutzatzen direnak
- Beste oztopo geldi batzuk

Gerta daiteke ACCk ez erreakzionatzea geldi-tutako ibilgailuen aurrean. Adibidez, ACC-ak detektatutako ibilgailu bat biratu edo aldentzen bada, eta haren aurrean ibilgailu bat geldituta badago, ACC-ak ez luke erreakzionatuko azken horren aurrean ››› **134. irudia** D.

⚠ ADI

Aipatutako egoeretan ACC erabiltzen baduzu, istripuak eta lesio larriak gerta daitezke, eta legea hautsi zenezake.

Arazoak konpontzea

ACC ez erabilgarri

Kontrol-argi horia piztuko da:

- Radar-sentsorea zikin edo desdoituta dago; kontuan eduki kapitulu honen hasieran deskribatutako argibideak ››› **190. orrialdea**
- Matxura edo akats bat dago. Deskonektatu ibilgailuaren pizgailua eta aktibatu berriro minutu batzuen buruan.
- Arazoak jarraitzen badu, joan tailer espezializatu batera.

ACC ez dabil espero bezala

- Ziurtatu radar-sentsoreak funtzionamendu egokirako baldintzak betetzen dituela ››› 190. orrialdea.
- Balaztak gehiegi berotzen badira, erregulazioa automatikoki etengo da. Itxaron balaztak hoztu arte, eta egiaztatu berriz haien funtzionamendua.
- ACCk frenatze automatikoan, ezohiko zaratak normalak dira, eta ez dira inolako anomaliaren seinale.

Honako baldintza hauek ACCak ez erantzutea eragin dezakete:

- Azeleragailua edo balazta zapalduta daude.
- Ez dago inolako martxa engranaturik edo **R** martxa engranatuta dago.
- Ibilgailua atzera ibiltzen da.
- ESC jarduten ari da.
- Gidariak ez darama lotuta segurtasun-uhala.
- Biraketa-erregimena altuegia edo baxuegia da.
- Ibilgailuko balazta-argiren bat matxuratuta dago.
- Atoiko balazta-argiren bat matxuratuta dago.
- Geratze-balazta aktibo dago.
- Aldapa oso malkartsutik zirkulatzen da.

Abiaduraren erregulazio prediktiboa

Aurkezpena

Abiadura-erregulazio prediktiboak abiadura egokitzen du hautemandako abiadura-mugetara eta bidearen trazadurara (bihurguneak, bidegurutzeak, biribilguneak, etab.).

Abiadura-erregulazio prediktiboa ACCaren funtzio gehigarri bat da, ››› 197. orrialdea eta trafiko-seinaleak detektatzeko sistema ››› 27. orrialdea eta infotainment sistemako nabigazio-datuak erabiltzen ditu.

Abiadura-erregulazio prediktiboa erabilgarri dago ekipamenduaren arabera, baina ez herrialde guztietan.

⚠ ADI

Abiadura-erregulazio prediktiboaren teknologia adimendunak ezin ditu lege fisikoek ezarritako mugak gainditu, eta sistemaren mugen barruan bakarrik funtzionatzen du. Ez utzi inoiz funtzio horrek ematen duen konfort handienak arriskurik harrarazten dizunik segurtasuna arriskuan jarriz. Modu arduragabean edo oharkabean erabiltzen bada, istripuak edo lesio larriak gerta daitezke. Sistema horrek ezin du gidariaren arreta ordezkatu.

- **Beti egokitu abiadura ikuspen-, klimatologia-, galtzada- eta trafiko-baldintzetara.**
- **Egon beti trafikoari adi, eta kontuan izan beti ibilgailuaren ingurunea.**
- **Prest egon beti abiadura zuk zeuk erregulatzeko. Trafiko-seinaleak antzemateko sistemak behar bezala funtzionatzen ez badu edo nabigazio-datuak eguneratuta ez badaude, baliteke abiadura ustekabean eta batbatean aldatzea edo trafikoaren uneko egoerara ez egokitzea. Gainera, baliteke sistemak erregulatutako abiadura zure gidatzeko tankerarekin bat ez etortzea.**
- **Prest egon beti abiadura zuk zeuk erregulatzeko. Ibilbide gidatu aktiborik gabe zirkulatzen baduzu, nabigazio-sistemak kalkulatutako ibilbidea uzten baduzu edo ibilgailuaren kokapena behar bezala zehaztu ezin bada, GPSk ez dituelako datu zehatzak ematen, baliteke abiadura ustekabean eta batbatean aldatzea edo trafikoaren uneko egoerara ez egokitzea.**
- **Erabili beti nabigazio-datu eguneratuak.**
- **Kontuan hartu beti baimendutako gehieneko abiadura. Nabigazio-datuetan sartuta ez dauden abiadura-mugen kasuan, baimendutako gehieneko abiadura gaindi daiteke.**

ⓘ Oharra

Kontuan izan, halaber, segurtasunerako garantzitsua den ACCari buruzko informazioa **››› 197. orrialdea**.

Abiadura-erregulatze prediktiboaren mugak

Trafiko-seinaleak detektatzeko sistemaren mugez ››› 27. orrialdea eta ACCren mugez gain, abiadura-erregulatze prediktiboak sistemari datxezkion honako muga hauek ditu:

- Abiadura-erregulatze prediktiboak abiadura-muga duten trafiko-seinaleak baino ez ditu detektatzen. Abiadura-erregulatze prediktiboak ez ditu kontuan hartzen, adibidez, pasatzeko lehentasun-arauak, ezta semaforoak ere.
- Abiadura-muga zeharka erakusten duten trafiko-seinaleak, hala nola herrietara sartzeko seinaleak nabigazio-datuetan oinarrituta baino ez dira antzematen.
- Nabigazio-datuetan sartuta ez dauden bideetan, edo zehaztasun gutxirekin sartuta dauden bideetan, abiadura-erregulatze prediktiboa ez dago erabilgarri.
- Nabigazio-datuetan oinarritutako abiadura-muga baten berri ematen bada, trafiko-seinaleak antzemateko sistemak antzeman gabe, adierazitako abiadura azken aldiz gordetako abiadurara egokituko da.
- Abiadura-erregulatze prediktiboa ez dago erabilgarri 20 km/h (gutxi gorabehera 15 mph) inguru baino abiadura-muga txikiagoak daudenean. Kasu horretan tresnen koadroko pantailan horren inguruko abisua agertuko da.

Abiaduraren erregulazio prediktiboa aktibatzea

Infotainment sisteman, laguntzaile-menuan, banaka doitu dezakezu ibilgailuak zer gorabehera-motari erantzun behar dion ››› 38. orrialdea:

- Bidearen trazadurari erantzuna.
- Baimendutako abiadurei erantzuna.

Abiadura-erregulazio prediktiboarekin gidatzea

- Konektatu ACC laguntzailea ››› 198. orrialdea.
- Doitu distantzia eta abiadura.
- Aktibatu abiadura-erregulazio prediktiboa.

Sistemak, ibilbidean zehar, abiadura-muga bat edo bide-trazadura nabarmen bat antzematen duen bezain laster, abisu bat agertuko da tresnen koadroan. Abisu horretan muga horrengatik ibilgailua zer abiaduratan erregulatuko duen eta zergatik adieraziko da.

Abiadura-muga batengatik erregulatzea.

Bidearen trazadurarengatik erregulatzea.

Abiadura-muga baten ondorioz erregulatzen bada, antzemandako abiadura aukeratutako abiadura berri gisa gordeko da. Bidearen trazaduraren ondorioz erregulatzen bada, ibilgailuak berriro azeleratuko du erregulazioaren arrazoia atzean utzi ondoren, eta gordeta zegoen abiadura erregulatuko da.

Bihurguneetarako adierazitako abiadurak gidatze-profilaren araberakoak dira››› 180. orrialdea.

Abiadura-moldaketa etetea

- Abisuak irauten duen bitartean, sakatu **RES** tekla.
- Erregulazioak irauten duen bitartean, sakatu **SET** tekla.

Adierazitako abiadura moldatzea

Adierazitako abiadura-muga batengatik erregulatzearen kasuan soilik moldatu ahal izango da.

Funtzio anitzeko bolantea:

RES + 1 km/h (1 mph), ACC erregulatzen ari den bitartean bakarrik

SET – 1 km/h (1 mph), ACC erregulatzen ari den bitartean bakarrik

+ + 10 km/h (5 mph)

– – 10 km/h (5 mph)

Adierazitako abiadura gehiegi egokitzen baduzu, abiadura erregulazio prediktiboa eten egingo da.

Oharra

- **Abiadura-muga bat detektatzen denean, abiadura-erregulazio prediktiboak ere egokitu egiten du gordetako abiadura, nahiz eta ACCa deskonektatuta egon. Ez da erregulatzen, ordea.**
- **Zirkulatzean, trafiko-seinaleak antzemateko sistemak antzemandako abiadura-muga dezente gainditzen bada, horri buruzko ohartarazpen bat agertuko da tresnen koadroko pantailan.**
- **Abiadura-mugarik gabeko autobia batean sartuz gero, aukeratutako abiadura gisa gomendatutako abiadura gordeko da automatikoki. Abiadura-mugarik gabeko autobia baterako lehendik abiadura handiagoa gorde bada, hori hartuko da gomendatutako abiaduraren ordez.**

Arazoak konpontzea

Mezu bat ager daiteke abiadura erregulatze prediktiboa zure herrialdean gaur egun ez dagoela erabilgarri adieraziz.

- Mezu hau denbora luzean erakusten bada eta abiadura erregulatze prediktiboa zure herrialdean erabilgarri badago, joan tailer espezializatu batera.

Oharra

Anomalia zein denaren arabera, informazio gehigarria erakuts daiteke hemen: `Estado del vehículo` ››› 37. orrialdea.

Larrialdi-balaztatzeari laguntzeko sistema (Front Assist)

Gaiaren aurkezpena

Sistemak honako hau du helburu: ibilgailuaren ibilbidean dauden objektuen aurka aurrealdearekin talka egiten saihestea, edo horren ondorioak murriztea.

Funtzioaren xedea da talkak saihestea hauen kontra:

- Aparkatutako ibilgailuak.
- Errei eta noranzko berean doazen ibilgailuak, oinezkoak eta txirrindulariak.
- Ibilgailuaren ibilbidea zeharka zeharkatzen duten oinezkoak eta txirrindulariak.

Haizetakoan dagoen goialdeko kamera baten bidez eta ibilgailuaren aurrealdeko radar-sentsore baten bidez detektatzen ditu Front Assist-ek aipatutako objektuak ››› 190. orrialdea.

Zenbait faktoreren arabera eta egoeraren kritikotasun mailaren arabera, sistemak modu mailakatuan jarduten du.

Lehenik gidaria ohartarazten du, eta erreakzioa gertatzen ez bada edo nahikoa ez bada, larrialdiko balaztada autonomoa edo saihestemaniobra aktibatzen du, hurrengo puntuetan aipatuko diren baldintzen arabera.

Sistemaren jarduna bertan behera utz daiteke azeleragailuaren pedala zapaltzen bada edo bolantea irmotasunez biratzen bada.

Ekipamenduaren eta herrialdearen arabera, Front Assist-ek honako funtzio hauek ere ditu:

- Oinezkoen kontrako babesa ››› 207. orrialdea
- Txirrindularien kontrako babesa ››› 207. orrialdea
- Saiheste-laguntzailea ››› 207. orrialdea
- Bira-laguntzailea ››› 207. orrialdea

ADI

- **Front Assist gidatzeko laguntza bat da, baina ezin du inolaz ere gidariaren arreta ordezkatu.**
- **Front Assist-ek ezin ditu lege fisikoak ezarritako mugak gainditu, ezta gidaria ordezkatu ere, ibilgailuaren kontrola mantentzeko, eta sor daitekeen larrialdi-egoera bat dela-eta erreakzionatzeko.**
- **Front Assist sistemaren larrialdi-abisu baten ondoren, egoerari arreta jarri berehala eta saiatu talka saihesten, kasuan-kasuan egokiena zer den.**

Ohartaraztearen eta balaztatze-laguntzaren mailak

135. irudia Tresnen koadroko pantaila: aurre abisuaren argibideak.

Front Assist laguntzailea 5 km/h-tik (3 mph) aurrera dago aktibo. Hainbat baldintzaren arabera (ibilgailuaren abiadura, antzemandako objektu-mota eta horren abiadura, etab.), jarraian deskribatutako etapetako batzuk ez dira kontuan hartzen sistemaren jarduna hobetzeko.

Segurtasun-tartearen oharpena

Sistemak hautematen badu aurreko ibilgailutik gertuegi zirkulatzen ari dela, gidariari abisatuko dio tresnen koadroko pantailan argibide bat emanez.

Gidari-jarreraren, ibilgailu-abiaduraren eta bien arteko abiadura erlatiboaren arabera aldatuko da ohartarazte-momentua.

Segurtasun-distantziari buruzko abisua 65 km/h-tik (40 mph) aurrera egongo da aktibo.

Aurreabisua (aurretiko jakinarazpena)

Sistemak hautematen badu aurreko ibilgailuarekin edo objektuarekin talka egin dezakeela, gidariari horren berri emango dio soinu-seinale baten bidez eta tresnen koadroko pantailan seinale bat erakutsiz ››› **135. irudia**.

Oharra erakusteko unea aldatuko da trafikoaren egoeraren eta gidariaren jarreraren arabera. Aldi berean, larrialdi-balaztatze baterako prestatuko da ibilgailua ››› **205. orrialdeko** ⚠ (***Gaiaren aurkezpena***).

Front Assist konektatuta dagoenean, pantailako beste funtzioen adierazleak ezkutuan gera daitezke.

Ohar kritikoa

Gidariak ez badu erreakzionatzen **aurreabisua** dela-eta, sistemak modu aktiboan parte har dezake balaztetan, eta balaztatze labur bat eragin, gidariari talka egiteko arriskua dagoela jakinarazteko.

Balaztatze automatikoa

Oraingo honetan ere, gidariak ez badu **ohar kritikoaren** aurrean erantzuten, sistemak larrialdietarako balaztatze autonomo bati ekin diezaioke, balaztatzearen intentsitatea pixka-naka handituz, egoeraren larritasun-mailaren arabera.

Gidariarentzako larrialdi-balaztatzeari laguntzeko sistema

Gidaria, ohartarazpen kritikoaren ondotik, balaztatzen hasten bada, baina sistemak antzematen badu frenoari ez zaiola behar adinako indarraz eragiten, balaztatzearen intentsitatea handituko da. Balaztatzeko laguntza hori pedala irmo zapalduta dagoenean baino ez da gertatzen.

⚠ ADI

- **Sistemak, zenbait kasutan, ezin du talka saihestu, baina horren ondorioak nabarmen murriztu ditzake, abiadura eta inpaktuaren energia gutxituz.**
- **Front Assistek balaztatzea eragiten duenean, balazta-pedala “gogorrago” dago.**
- **Esku-hartze automatikoak Front Assist-eko balaztetan eten egin daitezke azeleragailua zapalduz edo bolantea mugituz.**
- **Front Assistek ibilgailuaren abiadura moteldu dezake, erabat gelditu arte. Hala ere, balazta-sistemak ez du ibilgailua modu iraunkorrean gelditzen. Zapaldu balazta-pedala!**

Oinezkoak eta txirrindulariak antzematea

Sistemak errei eta noranzko berean doazen oinezko eta txirrindulariak antzematen ditu, eta ibilgailuaren ibilbidea zeharka gurutzatzen duten oinezko eta txirrindulariak.

Oinezkoak eta txirrindulariak antzemateko teknologiak ezin ditu fisikoki agindutako mugak gainditu, eta sistemaren mugen artean bakarrik funtzionatzen du. Balaztatzearen ardura beti gidariaren esku dago.

Oinezkoak eta txirrindulariak antzemateak nahi ez diren ohartarazpenak eta nahi ez diren balaztatze esku-hartzeak eragin ditzake, adibidez, ezkutuko radar-sentsore baten edo kameraren ikuseremu zikin baten kasuan.

Egon prest edozein momentutan ibilgailuaren ardura hartzeko.

Oinezkoak eta txirrindulariak antzemateko funtzionamenduaren abiadura-tartea Front Assist-ekoa baino txikiagoa da.

Saiheste-laguntzailea

Saiheste-laguntzaileak kaldintza kritikoetan oztopo bat saihesten laguntzen dio gidariari.

Front Assist-ek ohartarazpen kritiko bat aktibatu ondoren, gidariak objektua saihesteko asmoa badu, saiheste-laguntzaileak lagunduko dio ibilbidea zuzentzen. Gidariak maniobra hasi eta amaitu behar du, laguntza-sistema hori ez baita autonomoa.

Sistema hori gutxi gorabehera 30 km/h (20 mph) eta 150 km/h (90 mph) artean dago aktibo.

Mugak

Sistema honek ez du erantzuten ez zeharka gurutzatzen dituzten objektuen aurrean, ezta animalien aurrean ere. Gainera, Front Assist laguntzailearen oinarrizko mugak kontuan hartu behar dira ››› **207. orrialdea**.

Bira-laguntzailea

Kontrako erreian kontrako noranzkoan hurbiltzen ari den ibilgailu batekin talka egitea saihestu dezake laguntzaile horrek, ibilgailua balaztatuz biratzeko asmoa dagoenean.

Sistema hori aktibo dago **15 km/h-raino** (9 mph).

Mugak

Bira-laguntzailearen funtzioa erabilgarri dago, baldin eta biratzeko asmoa adierazi bada –keinukaria aldez aurretik aktibatuz–, bolantea biratu bada eta biratzeko ibilbidea hasi bada.

Ibilgailuaren ibilbidean dauden ibilgailuen aurrean bakarrik erantzuten du (ez animalien, pertsonen eta abarren aurrean).

Gainera, kontuan izan behar dira Front Assist laguntzaileak dituen oinarrizko mugak. ››› **207. orrialdea**.

Sistemaren mugak

136. irudia Tresnen koadroko pantailan: sistemaren hasierako autokalibrazio-seinalea

Front Assist-ek sistemaren beraren zenbait muga ditu. Horrela, egoera batzuetan, erantzun batzuk desegokiak izan daitezke gidariaren ustez. Horregatik, adi egon behar da beti, esku-hartzea beharrezkoa izanez gero.

Front Assistek ez erantzutea edo beranduegi erantzutea eragin dezakete honako baldintza hauek:

- Pizgailua aktibatu eta gidatzeko lehen uneetan, hasierako autokalibrazioaren ondorioz. Fase horretan, tresnen koadroko pantailan honako adierazpen hau agertuko da: .

Ez antzemandako objektuak

- Sentsoreen irispidetik kanpo zirkulatzen ari diren ibilgailuak, beraien ibilgailutik distantzia laburrean.

- Zirkulatzen ari den erreira bat-batean aldatzen diren ibilgailuak.
- Antzeman ezin diren oinezkoak, partzialki edo erabat ezkutuan daudelako.
- Hormak, zutoinak, hesiak, zuhaitzak edo garaje-ateak bezalako objektuak.
- Beste ibilgailuen karga eta osagarriak alboetatik, atzetik edo goraka irteten direnean.
- Ibilgailuaren ibilbidea zeharkatzen duten ibilgailuak.
- Geldirik dauden edo kontrako noranzkoan hurbiltzen diren oinezkoen edo txirrindularien kasuan.

Funtzionamenduaren mugak

Hurrengo egoeretan, baliteke Front Assistek modu mugatu batean edo behar ez bezala funtzionatzea. Tresnen koadroan ikonoa eta **Front Assist con limitaciones** mezua erakusten dira.

- Radar-sentsorea edo aurreko kamera desaktibatuta edo matxuratuta badaude.
- Radar-sentsorea edo aurreko kamera zikin edo estalita badaude.
- Kurba itxiak edo ibilbide konplexuak egitean.
- Azeleragailua irmo edo guztiz zapaltzen bada.
- ESC erregulatzen ari bada edo matxuratuta badago.
- Ibilgailuaren edo elektrikoki loturik dagoen atoiaren balazta-argiak matxuratuta badaude.
- Ibilgailua atzeraka ibiltzen bada.
- Elurtea edo eurite handia egiten badu.
- Eguzki itsugarria edo erabateko iluntasuna dagoenean.
- Tuneletako sarrerak eta irteerak.
- Ibilbide konplexuetan (esaterako, oinezkoen babesguneak, biribilgune zatituak, etab.), Front Assist sistemak ohartarazi eta parte har dezake balaztetan beharrezkoa ez bada ere.

Xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikusi ››› 189. orrialdea atala.

Funtzioa eskuz aktibatzea eta desaktibatzea

137. irudia Tresnen koadroko pantailan: Front Assist desaktibatuta dagoela adierazten da.

Front Assist-en oharpenak tresnen koadroko pantailan agertzen dira.

Front Assist pizgailua konektatzen denean aktibatzen da. Ibilgailua pizteko momentuan, baliteke Front Assist erabilgarri ez egotea epe laburrean sistema martxan jartzen den bitartean. Denbora horretan, honako ikono hau agertuko da tresnen koadroko pantailan: ››› 136. irudia.

Front Assist desaktibatuta dagoenean, aurreabisu-funtzioa eta distantziari buruzko oharpena ere desaktibatuta daude. CUPRAk Front Assist aktibatuta uztea gomendatzen du, hemen aurkeztutako egoeretan izan ezik: ››› 209. orrialdea.

Front Assist aktibatzea eta desaktibatzea

Pizgailua konektatuta, Front Assist desaktibatu eta aktiba daiteke honela:

- Infotainment sistemaren bidez: sakatu > **Asistencia al conductor** > **Smart Assistants** > **Front Assist** ››› 38. orrialdea funtzio-botoia.
- **EDO:** Hautatu dagokion menu-aukera gidariari laguntzeko sistemen teklaren bidez ››› 190. orrialdea.

Front Assist-a desaktibatuta dagoenean, adierazpena agertuko da tresnen koadroan.

Pizgailua konektatzen den bakoitzean, berriro aktibo egongo balitz bezala agertuko da Front Assist.

Aktibatu edo desaktibatu aldez aurreko abisua (aurretiko jakinarazpena)

Aldez aurreko abisua infotainment sisteman aktiba edo desaktiba daiteke 🚗 > **Asistencia al conductor > Smart Assistants > Front Assist** >>> **38. orrialdea**funtzio-botoiaren bidez.

Pizgailua konektatzen den hurrengo aldian, egindako doikuntza mantentzen du sistemak.

CUPRAk gomendatzen du aldez aurreko abisuaren jakinarazpena aktibatuta edukitzea.

Ibilgailuko Infotainment sistemaren arabera, **aldez aurreko abisuaren** funtzioa egokitu daiteke honela:

- Anticipado
- Medio
- Retardado
- Desactivado

CUPRAk gomendatzen du "Medio" funtzioan gidatzea.

Distantzia-abisua aktibatu edo desaktibatzea

Distantzia-abisua aktiba edo desaktiba daiteke infotainment sisteman 🚗 > **Asistencia al conductor > Smart Assistants > Front Assist** >>> **38. orrialdea**funtzio-botoiaren bidez.

Pizgailua konektatzen den hurrengo aldian, egindako doikuntza mantentzen du sistemak.

CUPRAk distantzia-abisua aktibatuta edukitzea gomendatzen du, atal honetan deskribatutako salbuespenetan izan ezik: >>> **209. orrialdea**.

Saiheste-laguntzailea eta bira-laguntzailea aktibatzea eta desaktibatzea

Saiheste- eta bira-laguntzaileak aktiba edo desaktiba daitezke infotainment sisteman 🚗 > **Asistencia al conductor > Smart Assistants > Front Assist** >>> **38. orrialdea** funtzio-botoiaren bidez.

Pizgailua konektatzen den hurrengo aldian, egindako doikuntza mantentzen du sistemak.

CUPRAk saiheste- eta bira-laguntzaileak aktibatuta izatea gomendatzen du, >>> **209. orrialdea** atalean deskribatutako salbuespenetan izan ezik.

Saiheste-laguntzailea eta bira-laguntzailea aktibatuta edukitzea gomendatzen du SEATek, atal honetan deskribatutako salbuespenetan izan ezik >>> **209. orrialdea** .

Front Assist aldi baterako desaktibatzea, egoera hauetan

Sistemak dituen mugen ondorioz, gomendatzen da Front Assist desaktibatzea honako egoera hauetan:

- Ibilgailua atoian eramaten denean.
- Ibilgailua arrabolen proba-bankuan dagoenean.
- Radar-sentsorea edo aurreko kamera matxuratuta daudenean.
- Radar-sentsoreak edo aurreko kamerak kolpe bortitzaren bat jasotzen badute.
- Beharrezkoa ez denean hainbatetan eskuhartzen badu.
- Radar-sentsorea edo aurreko kamera aldi batean osagarriren batekin estaltzen bada.
- Ibilgailua garraio batean kargatzen bada.
- Haizetakoa kaltetuta badago, aurreko kameraren ikusmena estaltzen duen eremu batean.

Errei-irteeraren abisu-sistema (Lane Assist)

Aurkezpena

Erreitik atera zaren abisu-sistemak (Lane Assist) bere erreian mantentzen laguntzen dio gidariari, sistemaren muga fisikoen barruan. Funtzio hori ez da egokia, eta ez dago diseinatuta ibilgailua automatikoki erreian mantentzeko.

Haizetakoan dagoen kameraren bidez, errei-irteeraren abisu-sistemak detektatzen ditu erabiltzen ari den erreiko mugak. Ibilgailua erraiko antzemandako mugetara gehiegi hurbiltzen bada, sistemak gidariari ohartarazten dio bolantea zuzentzeko mugimendu baten bidez. Gidariak edozein unetan baliogabetu dezake direkzioaren zuzenketa.

Keinukariak piztuta badaude, ez da inolako ohartarazpenik egiten, errei-irteeraren abisu-sistemak ulertzen baitu erreiz aldatu nahi dela.

Sistemaren mugak

Erabili errei-irteeraren abisu-sistema autobideetan eta bigarren mailako errepide zabaletan eta egoera onean daudenetan.

Sistema ez dago erabilgarri baldintza hauetan:

- Gidatze-abiadura gutxi gorabehera 55 km/h-tik (30 mph) beherakoa da.
- Sistemak ez du detektatu inolako errei-lerrorik.
- Bihurgune itxietan.
- Kirol-modu oso biziko egoeretan denboraldi batean.
- Keinukaria konektatuta badago erreia eskuz aldatu aurretik.
- Gidariak sistemaren esku-hartze bat irmo zuzentzen badu.
- Erreiaren mugaketa bat zeharkatzen bada, sistemak esku hartu arren.
- Gidariak esku hartzeko eskaera bati erantzuten ez badio.

⚠ ADI

Errei-irteeraren abisu-sistemaren teknologia adimentsuak ezin ditu lege fisikoek eta sistemaren naturak berak ezarritako mugak gainditu. Errei-irteeraren abisu-sistemaren arreta edo kontrolik gabe erabilita, istripuak eta lesio larriak sor daitezke. Sistema horrek ezin du gidariaren arreta ordezkatu, ezta berak egindako maniobrak bolantearekin ere.

- **Egokitu beti abiadura eta aurreko ibilgailuekiko segurtasun-tartea ikuspen-baldintzetara, baldintza meteorologikoetara, galtzadaren egoerara eta trafikora.**
- **Eskuak beti bolantean izan, edozein unetan biratzeko prest egoteko. Erreian egotearen ardura gidariarena da beti.**
- **Erreia uzten dela ohartarazteko sistemak ez ditu galtzadaren marka guztiak hautematen. Galtzadak, galtzadaren egiturak edo egoera txarrean dauden objektuak oker hauteman daitezke, galtzadaren markak balira bezala, errei-irteeraren abisu-sistemaren baldintza jakinetan. Indargabetu berehala sistemak eragindako nahi ez den edozein esku-hartze.**
- **Erreparatu tresnen koadroko adierazpenei eta jardun eskatu bezala, trafiko-egoerak horrela baimentzen badu.**
- **Egoera hauetan sistemak eragindako nahi ez diren esku-hartzeak gerta daitezke, edo gerta daiteke sistemak inolako esku-hartzerik ez izatea. Egoera hauetan gidariaren arreta berezia eskatzen da, eta hala badagokio, errei-irteeraren abisu-sistemaren behin-behineko desaktibazioa:**
  - **Kirol-modu oso bizian gidatzean.**
  - **Kontrako eguraldia dagoenean edo errepideak egoera txarrean daudenean.**
  - **Obrak egiten ari diren eremuetatik igarotzean.**
  - **Sestra aldaketen eta ibarren aurretik.**
- **Begiratu beti arretaz ibilgailuaren inguru-nea eta gidatu modu proaktiboan.**
- **Kameraren ikus-eremua zikindu, estali edo kaltetzen denean, errei-irteeraren abisu-sistemaren funtzionamenduan izan dezake eragina.**

Gidatzea errei-irteeraren abisu-sistema aktibatuta dagoela



138. irudia Tresnen koadroko pantailan: errei-irteeraren abisu-sistemaren adierazpenak

① Marra horia: Sistemak parte hartzen du irudikatutako aldean lagunduz.

② Marra zuria: Errei-marra antzemanda. Sistemak ez du esku hartzen.

Ekipamenduaren arabera, tresnen koadroko pantailan erreia mugatzeko kamerak une horretan detektatutako marraren beste xehetasun batzuk ere erakuts daitezke, adibidez, bidemarra etenak.

Kontrol-argiak

Argi berdea pizten da
Errei-irteeraren abisu-sistema aktibatuta eta eskuragarri.

Argi horia pizten da
Errei-irteeraren abisu-sistema, direkzioa zuzenduz esku hartuz.

Errei-irteeraren abisu-sistemaren konexioa edo deskonexioa

Herrialde batzuetan, errei-irteeraren abisu-sistema (Lane Assist) beti aktibatzen da pizgailua konektatzean. Dagokion tekla sakatu ondoren, konexio-egoera erakusten da **Asistencia al conductor** menuan, infotainment sisteman edo gidariarentzako laguntzaile-sistemen menuan. Hori aktiba edo desaktiba daiteke menu horietan.

Errei-irteeraren abisu-sistema prest dago aktiboki esku hartzeko 60 km/h (35 mph) ingurutik aurrera eta erreiaren mugak detektatu badira (sistemaren egoera: aktiboa).

Tresnen koadroko pantailako kontrol-argia itzalita egoteak esan nahi du sistema aktibo dagoela edo ez dagoela prest esku hartzeko edo desaktibatuta dagoela.

Keinukaria piztean, sistema denboraldi batean egoera pasibora pasatuko da, erreiz eskuz aldatu ahal izateko.

Gidariak bolantea indarrez biratzen edo zuzentzen badu, sistema aldi baterako egoera pasibora pasatuko da.

Gidariak esku-hartzea eskatzea

Direkzioa ez bada eskuz zuzentzen, sistemak gidariari ohartaraziko dio, tresnen koadroko pantailan oharpen baten eta abisu akustikoen bidez.

Gidariaren erantzunik ez bada lortzen, sistema egoera pasibora aldatuko da.

Bolanteekin egindako maniobrak alde batera utzita, tresnen koadroko pantailan oharpen baten eta abisu akustiko gehigarrien bidez, erreiaren erditik gida dezala eskatu ere egingo zaio gidariari, direkzioaren zuzenketak behar baino denbora gehiago ematen badu.

Bibrazioa bolantean

Honako egoera honek bolanteko bibraziorako bidea eman dezake:

- Erreia ez da gehiago antzematen sistemaren direkzioan bat-bateko esku hartzen ari den bitartean.

Horrez gain, infotainment sistemako **Asistentes** menuan bolantearen bibrazioa hauta daiteke. Kasu horretan, Lane Assist aktibatuta duen ibilgailuak detektatutako errei-muga gainditzen duenean, bibrazio bat sortuko da bolantean.

Oharra

Erreitik irteteko abisua ematen duen laguntzaileak matxura badu, baliteke automatikoki deskonektatzea.

Arazoak konpontzea

Errei-irteeraren abisu-laguntzailea ez dago erabilgarri

Kontrol-argia argituko da horiz. Gainera, horren inguruko abisu bat agertzen da tresnen koadroko pantailan.

- Kameraren ikuseremua zikin dago. Garbitu haizetakoa ››› 384. orrialdea.
- Kameraren ikusteko gaitasuna osagarriengatik edo itsasgarriengatik murriztuta dago.
- Matxura edo akats bat dago. Itzali motorra eta piztu berriro.

Sistemak itxarondakotik desberdina den modu batera jokatzen du

- Kamera desdoitu edo kaltetu egin da, adibidez, haizetakoan kalteren batengatik. Egiaztatu ea ageriko kalterik dagoen.
- Ez muntatu objekturik bolantean.

Arazoak jarraitzen badu, joan tailer espezializatu batera.

Oharra

Pizgailua konektatu ondoren, segundo batzuk igaro daitezke sisteman akatsa detektatu arte.

Oharra

Errei-irteeraren abisu-laguntzailea erabilgarri ez dagoenean, larrialdietarako laguntzailea (Emergency Assist) eta gidatze-laguntzailea (Travel Assist) ere ez.

Gidatze-laguntzailea (Travel Assist)

Gaiaren aurkezpena

Gidatze-laguntzaileak (Travel Assist) gurutzaldi-kontrol egokitzailea (ACC-a) eta erreian gidatze egokitzailearen funtzioa konbinatzen ditu. Sistemaren mugen artean, ibilgailuak aurreko ibilgailutik distantzia bat izan dezake, gidariak aurrez aukeratua, eta erreiaren barruan gogokoen duen posizioan egon daiteke.

Gurutzaldi-kontrol egokitzaileak (ACC) eta errei-irteeraren abisu-sistemak (Lane Assist) erabiltzen dituzten sentsore berberak erabiltzek ditu Travel Assist-ek. Irakurri arretaz ACC ››› 197. orrialdea eta Lane Assist ››› 209. orrialdea sistemen inguruko informazioa, eta kontuan izan sistemen mugak eta horietan agertzen diren adierazpenak.

Zelan jakin ea ibilgailuak Travel Assist daukan

Ibilgailuak Travel Assist dauka, funtzio anitzeko bolanteak honako tekla hau baldin badauka: .

Abiadura-tartea

Travel Assist-ek erregulatzen du, aldagailuaren arabera, 0 km/h-tik (0 mph). Abiadura doi daiteke 30 km/h-tik (20 mph).

Gidatzea Travel Assist aktibatuta dagoela

Travel Assist-ek azeleragailuaren pedala, balaztak eta direkzioa automatikoki kontrolatzen ditu. Gainera, Travel Assist-ek, bere mugen artean, ibilgailuaren abiadura moteldu dezake, gelditzen den beste baten atzean gelditu arte, eta automatikoki berriro abiarazi.

Lagundutako erregulazioa une oro baliogabe dezakezu.

Seinaleak pantailan



139. irudia Tresnen koadroko pantailan: bistaratzea erregulazio aktiboarekin (irudikapen eskematikoa).

① Errei-marken koloreak gidatze egokitzailearen funtzio-egoera adierazten du.

- *Horia:* erreian gidatze egokitzailearen funtzioa aktibo.
- *Grisa:* erreian gidatze egokitzailearen funtzioa pasibo.

② Doitutako distantzia.

Ekipamenduaren arabera, tresnen koadroko pantailan ere erakutsi daitezke beste xehetasun batzuk, adib. , bide-marka jarraituak eta aurrean zirkulatzen duten ibilgailuak.

Tresnen koadroko pantailan kontrol-argi batzuek sistemaren egoera adierazten dute:

Kontrol-argi berdea: Travel Assist aktibatuta, gurutzaldi-kontrol egokitzailea eta erreian gidatze egokitzailearen funtzioa aktibatuta.

Kontrol-argia partzialki berdez: Travel Assist aktibatuta, gurutzaldi-kontrol egokitzaile aktibatuta eta erreian gidatze egokitzailearen funtzio pasiboa.

Kontrol-argi grisa: Travel Assist desaktibatuta, erregulaziorik gabe.

Gidariak esku-hartzea eskatzea

Eskuak bolantetik kentzen badituzu, segundo batzuk igaro ondoren sistemak direkzioa zure gain hartzeko eskatzen dizu, tresnen koadroko pantailan agertzen den adierazpen baten eta jakinarazpen akustikoen bidez.

Erantzuten ez baduzu, Travel Assist desaktibatzen da.

Horren ordez, ekipamenduaren arabera, larrialdietarako laguntzailea (Emergency Assist) aktibatuko da, infotainment sisteman konektatuta badago.

⚠ ADI

Travel Assist-en teknologia adimentsuak ezin ditu lege fisikoek ezarritako mugak gainditu eta sistemaren mugen barruan soilik funtzionatzen du. Travel Assist modu arduragabean edo oharkabean erabiltzen bada, istripuak edo lesio larriak gerta daitezke. Sistema horrek ezin du gidariaren arreta ordezkatu.

- **Kontuan hartu sistemaren mugak eta gurutzaldi-kontrol egokitzaileari (ACC) eta errei-irteeraren abisu-laguntzaileari (Lane Assist) buruzko adierazpenak.**
- **Egokitu beti abiadura eta aurreko ibilgailutik segurtasun-tartea ikusgaitasun-, klima-, galtzada- eta trafiko-baldintzen arabera.**
- **Ez erabili Travel Assist inoiz ikusgaitasun txarra dagoenean, eremu malkartsuetan, errebuelta askoko eremuetan edo labainkorretan (hala nola, elurra, izotza, euria edo hartxintxar soltea dagoenean), ezta urpean gelditu diren bideetan ere.**
- **Ez erabili inoiz Travel Assist landan barrena edo zoru egonkorra ez duten bideetan. Travel Assist zolatutako bideetan erabiltzeko soilik aurreikusi da.**
- **Travel Assist-ek ez du pertsonen edo animalien aurrean erantzuten,, ezta zeharka gurutzatzen edo errei beretik aurkako noranzkoan hurbiltzen diren ibilgailuen aurrean ere.**
- **Balaztatu berehala, Travel Assist-ek ez badu abiadura behar adina murrizten.**
- **Balaztatu berehala, tresnen koadroko pantailan balaztatzeko oharra agertzen denean edo Travel Assist-ek abiadura behar den adina murrizten ez badu.**
- **Balaztatu, balaztatzeko oharpenaren ondoren, ibilgailua mugitzen denean nahi ez bada ere.**
- **Ahal dela, ez gidatu eskularruak jantzita. Sistemak interpreta lezake bolantean ez dagoela jarduerarik.**
- **Tresnen koadroko pantailan gidariaren esku hartzea eskatzen bada, hartu ibilgailuaren kontrola berehala.**

- **Izan beti eskuak bolantean, une oro direkzioa kontrolatu ahal izateko. Gidariak du beti ibilgailua erreian mantentzeko ardura.**
- **Prest egon beti abiadura zuk zeuk erregulatzeko.**

Travel Assist erabiltzea



140. irudia Funtzio anitzeko bolanteko ezkerraldea.

Erregulazioa konektatzea eta hastea

1. ACC-a aktibatua dagoela zirkulatzen duzun bitartean, sakatu funtzio anitzeko bolantean.

   Ibilgailuak ACC-tik Travel Assist-era aldatzen du.

Gidatze egoeraren arabera, ibilgailuak Travel Assist-eko sistemaren egoera hauetara aldatzen du:

- ACC-a erregulatzen ari denean, Travel Assist-ak uneko abiadura eta aurreko ibilgailuarekiko aurrez ezarritako distantzia mantentzen ditu.

Erreiko markak antzematen direnean, ibilgailua aldi berean mantentzen da erreian, direkzio-mugimenduen bidez.

- ACC-ak erregulatzen ez badu, Travel Assist-a hautatu egingo da, baina modu pasiboan (erregulatu gabe).

1. Sakatu **SET** tekla.

   Travel Assist-ak sistemaren modu aktibora aldatzen du, gidatze-egoeraren arabera.

Gidatze-egoerari dagokion kontrol-argia tresnen koadroko pantailan pizten da. Mezu bat ere erakutsiko da.

Erregulazioa etetea

1. Sakatu labur tekla.

   EDOTA: zapaldu balazta-pedala.

   Doitutako distantzia gordeta mantentzen da.

ACC-ra aldatzea

1. Sakatu tekla funtzio anitzeko bolantean.

   Ibilgailuak Travel Assist-etik gidatze-egoerari dagokion ACC-an sistemaren egoerara aldatzen du.

Beste doikuntza batzuk egitea

Gainerakoan, Travel Assist laguntzailea kontrolatzen da ACC-a bezala.

Lagundutako errei-aldaketa erabiltzea

Lagundutako errei-aldaketak erreia aldatzeko laguntzaileak (Side Assist) erabiltzen duen sentsore-sistema bera erabiltzen du. Beraz, irakurri arretaz Side Assist laguntzaileari buruzko informazioa ››› 218. orrialdea eta erreparatu sistemaren mugei eta bertan adierazten diren oharrei.

Autobide batean konfort-keinukaria aktibatuz gero, betiere aldez aurreko baldintzak betetzen badira eta inguruan ibilgailurik detektatu ez bada, ibilgailuak modu lagunduan alda dezake erreia.

Aurretiazko betekizunak

Lagundutako errei-aldaketa, ibilgailuaren ekipamenduaren arabera, Infotainment sistemaren nabigazio-datuetan jasotako errei batzuetako autobideetan aurrerantz gidatzen den bitartean bakarrik dago erabilgarri, eta 90 km/h ingurutik aurrera.

Travel Assist laguntzaileak ere aktibatuta egon behar du.

Seinaleak pantailan



141. irudia Tresnen koadroko pantailan: lagundutako errei-aldaketaren bistaratzea (irudikapen eskematikoa).

① Alboko errei nabarmendua, dagokion aldean alda daiteke erreia.

② Erabiltzen ari den erreiko geziek errei-aldaketa erabilgarria dela adierazten dute.

③ Lorratz horia aurreratze-erreiaren gainean. Errei-aldaketa gertatzen ari da.

Lagundutako errei-aldaketa aktibatzea eta desaktibatzea

Lagundutako errei-aldaketa infotainment sisteman aktiba eta desaktiba daiteke.

1. Sartu laguntzailearen menuan.
2. Hautatu Travel Assist
3. Aktibatu edo desaktibatu lagundutako errei-aldaketa Travel Assist-aren azpifuntzio gisa.

Oharra

- **Sisteman matxuraren bat gertatzen bada, lagundutako errei-aldaketa automatikoki deskonektatu edo eten daiteke erreia aldatzen den bitartean.**
- **Erreia aldatzeko laguntzailea (Side Assist) erabilgarri ez badago, lagundutako errei-aldaketa ere ez dago erabilgarri.**

Gidatu bitartean lagundutako errei-aldaketa aktibatzea

1. Sakatu **SET** tekla.

   Tresnen koadroko pantailan zure erreiko geziak erakusten dira.

Erreia aldatzea

Sistemak ez badu objekturik detektatu sentsore-sistemaren detekzio-eremuan, eta posible bada alboko errei batera lagundutako errei-aldaketa egitea, dagokion erreia tresna-koadroko pantailan agertuko da, gidariaren erreiren ondoan.

1. Aukeratutako aldeko konfort-keinukariari eragindakoan, ibilgailuak erreia aldatuko du. Mezu bat ere erakutsiko da.

Erreia aldatzen den bitartean, ibilgailuak automatikoki aktibatzen du dagokion aldeko keinukaria. Errei-aldaketa amaitu ondoren, keinukaria automatikoki itzaliko da.

⚠ ADI

Sentsore-sistemak ezin ditu inguruko objektu guztiak fidagarritasunez detektatu, eta sistemaren mugen artean bakarrik funtzionatzen du. Arduragabe lagundutako errei-aldaketa erabiltzen baduzu, istripu eta lesio larriak gerta daitezke. Sistemak gidariaren arreta ezin du ordezkatu.

- **Erreia aldatu aurretik, ziurtatu segurua dela. Bereziki azkar hurbiltzen diren objektuak baliteke garaiz ez detektatzea.**
- **Eduki eskuak bolantean une oro, eta prest egon zure abiadura eta martxaren norabidea kontrolatzeko.**

Lagundutako errei-aldaketa etetea

1. Sakatu labur tekla.

   EDO: Zapaldu balazta-pedala.

   Lagundutako errei-aldaketa desaktibatzen da. Travel Assist laguntzailea ere desaktibatzen da.

Arazoak konpontzea

Travel Assist ez dago erabilgarri edo ez dabil espero den bezala

Kontrol-argia argituko da horiz. Gainera, horren inguruko abisu bat agertzen da tresnen koadroko pantailan.

- Matxura bat dago sentsoreetan. Egiaztatu ACC-a ››› 202. orrialdea edo Lane Assist laguntzailearen ››› 212. orrialdea gaineko informazioan deskribatzen diren arrazoiak eta konponbideak.
- Matxura edo akats bat dago. Itzali motorra eta martxan jarri berriro.
- Sistemaren mugak gainditzen dira.
- Arazoak jarraitzen badu, joan tailer espezializatu batera. CUPRAk CUPRA kontzesionario espezializatu batera edo SEAT sareko edozein kontzesionariotara joatea gomendatzen du.

Heldu bolanteari

Oharpen-argi zuria pizten da, eta tresnen koadroko pantailan mezu bat agertzen da.

- Bolantea segundo batzuez askatu duzu. Heldu bolanteari eta hartu ibilgailuaren kontrola.

Heldu bolanteari

Oharpen-argi gorria pizten da, eta tresnen koadroko pantailan mezu bat agertzen da. Egoeraren arabera, soinu-oharpen igortzen da edo bolanteak dar-dar egiten du.

- Bolantea denbora luze samarrez askatu duzu, edo sistemaren mugetara iritsi da. Heldu berehala bolanteari eta hartu ibilgailuaren kontrola.

Travel Assist automatikoki deskonektatzen da

- *Larrialdietarako laguntzailerik gabeko (Emergency Assist) ibilgailuak:*

Bolantea askatu duzu denbora-tarte dezentez.

- Matxura edo akats bat dago. Itzali motorra eta martxan jarri berriro.
- Arazoak jarraitzen badu, joan tailer espezializatu batera. CUPRAk CUPRA kontzesionario espezializatu batera edo SEAT sareko edozein kontzesionariotara joatea gomendatzen du.

Erregulazioa ustekabean eteten da

- *Errei-aldaketa lagundurik gabeko ibilgailuak:*

Keinukaria piztu duzu.

Lagundutako errei-aldaketa ez erabilgarri

Kontrol-argia argituko da horiz. Gainera, horren inguruko abisu bat agertzen da tresnen koadroko pantailan.

- Matxura bat dago sentsoreetan. Egiaztatu errei-aldaketaren laguntzaileari (Side Assist) buruzko informazioan deskribatzen diren arrazoiak eta neurri zuzentzaileak.
- Arazoak jarraitzen badu, joan tailer espezializatu batera. CUPRAk CUPRA kontzesionario espezializatu batera edo SEAT sareko edozein kontzesionariotara joatea gomendatzen du.

Lagundutako errei-aldaketa eten da edo ez dago erabilgarri.

Horri buruzko abisu bat agertzen da tresnen koadroko pantailan.

- Ibilgailuak errei-markak detektatzeari utzi dio.
- Bolantea askatu duzu
- Direkzioan eragiten duzu indar gehiegiz.
- Keinukariak behin baino gehiagotan ipini dituzu edo keinukari-palanka trabatuta dago.
- Gidatze-abiadura 85 km/h inguru baino txikiagoa da.

- Ibilgailuak lagundutako errei-aldaketa eragozten duten objekturik detektatu du inguruetan.
- Ez zaude errei bat baino gehiagoko autobidean.

Larrialdietarako laguntzailea (Emergency Assist)

Funtzionamendua

Larrialdietarako laguntzaileak (Emergency Assist) gidariak jarduerarik ez duela hauteman ahal du, eta ibilgailua bere erreian mantendu, bai eta guztiz gelditu ere, beharrezkoa bada. Horrela, sistemak modu aktiboan lagundu dezake istripuak ekiditen edo horien ondorioak murrizten.

Larrialdietarako laguntzaileak gurutzaldi-kontrol egokitzaileak (ACC-a) eta errei-irteeraren abisu-laguntzaileak (Lane Assist) erabiltzen dituzten sentsore berberak erabiltzek ditu. Horregatik, irakurri arretaz ACCri ACC-a ››› 197. orrialdea eta Lane Assist-i ››› 209. orrialdea buruzko informazioa, eta kontuan hartu sistemen mugak eta bertan agertzen diren oharrak.

Gidariak esku-hartzea eskatzea

Larrialdietarako laguntzaileak detektatzen badu gidariak ez duela inolako jarduerarik egiten, ibilgailuaren kontrola hartzeko eskatzen dio. Horretarako, ohartarazpen optikoak eta akustikoak egiten ditu eta bat-bateko balaztada eragin. Gainera, tresnen koadroko pantailan abisu bat erakusten da eta infotainment sistemako bolumena jaisten da.

Ekipamenduaren arabera, gidariaren segurtasun-uhala tenkatzen da.

Sistemak esku-hartzea

Gidariak erreakzionatzen ez badu, sistemak ibilgailua galgatu eta bere erreian mantendu dezake. Tresnen koadroko pantailan kontrol-argi hau pizten da:

Sistema erregulatzen ari da.

Erregulazioa uneoro baliogabe dezakezu bolantea mugituz, asko azeleratuz edo balaztatuz.

Larrialdietarako laguntzailea erregulatzen ari den bitartean, bideko gainerako erabiltzaileei horrela ohartarazten zaie:

- Handik gutxira, larrialdietako keinukariak konektatzen dira.
- Klaxonak soinua egiten du (abiaduraren arabera).

Ibilgailua gelditu bezain pronto, hauxe gertatuko da:

- Geratze-balazta elektronikoa eta martxa-aldagailuko **P** posizioa konektatzen dira.
- Ateak desblokeatuko dira.
- Bidaiari-lekuko argiak piztuko dira.
- Ekipamenduaren arabera, larrialdietarako deia egingo da (eCall).

Konektatu eta deskonektatzea

Larrialdietarako laguntzailea (Emergency Assist) infotainment sisteman, laguntzaileen menuan, konekta eta deskonekta daiteke.

Konektatuta dagoenean, larrialdietarako laguntzailea honako baldintza hauek betetzen direnean bakarrik aktibatzen da:

- Gidatze-laguntzailea (Travel Assist) edo errei-irteeraren abisu-laguntzailea (Lane Assist) konektatuta dago.
- Sistemak erreia mugatzeko marra bat antzeman du ibilgailuaren bi aldeetan.

Oharra

Larrialdietarako laguntzaileak matxuraren bat badu, automatikoki deskonekta daiteke.

Oharra

Errei-irteeraren abisu-laguntzailea (Lane Assist) erabilgarri ez dagoenean, larrialdietarako laguntzailea (Emergency Assist) ere ez.

⚠ ADI

Larrialdietarako laguntzaileak (Emergency Assist) dakarren teknologia adimentsuak ezin ditu lege fisikoek ezarritako mugak gainditu eta sistemaren mugen barruan soilik funtzionatzen du. Gidariak du beti ibilgailua gidatzeko ardura.

- **Egokitu beti abiadura eta aurreko ibilgailutik segurtasun-tartea ikusgaitasun-, klima-, galtzada- eta trafiko-baldintzen arabera.**
- **Larrialdietarako laguntzaileak berez ezin ditu beti istripuak saihestu, ezta lesio larriak ere.**
- **Radar-sentsorea edo kamera estalita badaude edo desdoitu edo matxuratu badira, baliteke sistemak balaztetan edo direkzioan ezorduan esku hartzea.**
- **Larrialdietarako laguntzaileak ez du pertsonak edo animaliak direla-eta erantzuten, ezta zeharka gurutzatzen edo errei beretik aurkako norabidean hurbiltzen diren ibilgailuak direla-eta ere.**

⚠ ADI

Larrialdietarako laguntzaileak (Emergency Assist) modu ezegokian esku hartzen badu, istripuak edo lesio larriak gerta daitezke.

- **Ibilgailuak espero ez bezala jokatzen badu, eten larrialdietako laguntzailearen esku-hartzea, asko azeleratuz, balaztatuz edo bolantea mugituz.**
- **Ez erabili gidatze-laguntzailea (Travel Assist) edo errei-irteeraren abisu-laguntzailea (Lane Assist). Joan tailer espezializatu batera eta sistema aztertzeko eskatu.**

Arazoak konpontzea

SOS Larrialdietarako laguntzailea (Emergency Assist) ez dago erabilgarri

Kontrol-argia argituko da horiz. Gainera, horren inguruko abisu bat agertzen da tresnen koadroko pantailan.

- Matxura edo akats bat dago. Deskonektatu propultsio-sistema eta konektatu berriro.
- Arazoak jarraitzen badu, deskonektatu larrialdietarako laguntzailea eta joan zaitez tailer espezializatu batera.

Botoiek espero ez den bezala erantzuten dute

Hezetasunak, zikinkeriak eta koipeak botoi-funtzionamendua muga dezakete.

- Ziurtatu botoiak beti garbi eta lehor daudela.

Errei-aldaketarako laguntzailea (Side Assist)

Gaiaren aurkezpena

Radar-sentsoreen bitartez, errei-aldaketarako laguntzaileak ibilgailuaren atzeko gunea zaintzen du ››› 6. orrialdea. Horretarako, sistemak beste ibilgailuekiko distantzia eta abiadura-ezberdintasuna neurtzen ditu. Errei-aldaketarako laguntzaileak ez du funtzionatzen gutxi gorabehera 15 km/h (9 mph) baino abiadura txikiagoetan,

Erreiaren zabalera ez da indibidualki hautematen; baizik eta sisteman ezarrita dago aldez aurretik. Horregatik, errei estuetatik edo erreien erditik gidatuz gero, gerta daiteke argibide okerrak jasotzea. Halaber, gerta liteke sistemak hirugarren errei batetik zirkulatzen duten ibilgailuak edo objektu finkoak (adibidez, babes-hesiak) hautematea eta argibide okerra ematea.

Atoiarekin gidatzea

Errei-aldaketarako laguntzailea automatikoki desaktibatzen da, eta ezin da aktibatu fabrikan muntatutako atoi-krokadura atoi edo antzeko gailu batekin elektrikoki konektatuta badago.

Gidaria ibilgailuari elektrikoki konektatutako atoi batekin abian jartzen denean, mezu bat agertuko da tresnen koadroko pantailan, errei-aldaketarako laguntzailea desaktibatuta da-

goela adierazteko. Ibilgailutik atoia askatu ondoren, errei-aldaketarako laguntzailea atoia elektrikoki konektatu zen unearen aurreko egoerara itzuliko da.

Atoirako krokadura fabrikatik muntatua ez bada, errei-aldaketarako laguntzailea eskuz desaktibatu behar da atoiarekin zirkulatzen denean.

Sistemari atxikitako muga fisikoak

Gidatze-egoera zehatz batzuetan, gerta daiteke errei-aldaketarako laguntzaileak trafiko-egoera ondo ez interpretatzea. Adibidez, honako egoera hauetan:

- bihurgune itxietan;
- zabalera ezberdina duten erreietan;
- sestra-aldaketa handiak dituzten eremuetan;
- baldintza klimatologiko txarrak daudenean;
- aldeetan eraikuntza bereziak daudenean; adibidez, babes-hesi altuak edo lerrokatu gabeak.

⚠ ADI

Errei-aldaketarako laguntzaileak (Side Assist) erabiltzen duen teknologia adimendunak ezin ditu lege fisikoek ezarritako mugak gainditu, eta sistemaren mugen barruan baino ez du funtzionatzen. Errei-aldaketarako laguntzailea zabarkeriaz edo nahi gabe erabiltzen bada, istripuak eta lesio larriak gerta daitezke. Sistema horrek ezin du gidariaren arreta ordezkatu.

- **Egokitu beti abiadura eta aurreko ibilgailuarekiko segurtasun-tartea ikuspen-baldintzen, baldintza meteorologikoen, galtzadaren eta trafikoaren arabera.**
- **Eskuak izan beti bolantean, edozein unetan direkzioan esku hartzeko prest egoteko.**
- **Kontuan izan errei-aldaketarako laguntzailearen kontrol-argiak eta mezuak tresnen koadroko pantailan, eta jardun zaitez horiek adierazten dutenaren arabera.**
- **Errei-aldaketarako laguntzaileak erantzun lezake aldeetako eraikuntza bereziei direla eta, adibidez, babes-hesi altuak edo lerrokatu gabeak. Hala bada, ohartarazpen okerrak egin ditzake.**
- **Ez erabili inoiz errei-aldaketarako laguntzailea bide-zoru irmoa ez duten errepideetan. Errei-aldaketarako laguntzailea bide-zoru irmoko bideetan erabiltzeko aurreikusi da.**
- **Begiratu beti arretaz ibilgailuaren inguru-nea.**
- **Eguzki-erradiazioa gertatzen bada, gerta daiteke errei-aldaketarako laguntzailearen kontrol-argiak gaizki ikustea.**

ⓘ Oharra

Erre-aldaketarako laguntzaileak kapitulu honetan deskribatzen den moduan funtzionatzen ez badu, ez erabili eta joan tailer espezializatu batera.

Errei-aldaketarako laguntzaileare-kin gidatzea

142. irudia Errei-aldaketarako laguntzailearen kontrol-argia.



143. irudia Errei-aldaketarako laguntzailearen kontrol-argia.

Konektatu eta deskonektatzea

Errei-aldaketarako laguntzailea aktiba eta desaktiba daiteke **Asistentes** menura sartuz infotainment sistematik.

Gainera, aktiba eta desaktiba daiteke **Asistentes** menura sartuz tresnen koadrotik.

Errei-aldaketarako laguntzailea funtzionatzeko prest dagoen bezain laster, kontrol-argietan seinalea pizten da labur, konfirmazio moduan.

Sisteman egindako azken doikuntzak aktibo irauten du ibilgailua piztean.

Argi-seinalea

Kontrol-argiak, dagokion aldean, ibilgailuaren atzealdeko trafikoaren egoerari buruzko informazioa ematen du, egoera larritzat jotzen bada. Ezkerraldeko kontrol-argiak ibilgailuaren atzeko ezkerraldean dagoen trafikoaren egoerari buruz informatzen du, eta eskuinaldeko kontrol-argiak aldiz, ibilgailuaren eskuinaldeko trafikoaren egoerari buruz.

Mantendu errei-aldaketarako laguntzailearen abisu-argien zonaldea objekturik, itsasgarririk edo antzekorik gabe, haien ikusgaitasuna ez oztopatzeko.

Argiztatu egiten da
Behin pizten da, une labur batez: errei-aldaketarako laguntzailea aktibatuta dago, funtzionatzeko prest, adibidez, sistema aktibatzean.
Etengabe pizten da: errei-aldaketarako laguntzaileak ibilgailu bat angelu itsuan antzematen du.

Dir-dir egiten du
Ibilgailu bat antzeman da ondoko erreian, eta, horrez gain, keinukariari eragin zaio hautemandako ibilgailuaren norabidean.
Errei-irteeraren abisu-laguntzaileaz, gehigarri gisa, hornituta dauden ibilgailuetan ››› 209. orrialdea, erreia uztean ohartarazpena ere bidaltzen da keinukariari ez eragin arren (“Plus” errei-aldaketarako laguntzailea).

Argiak argiztatuko dira pizgailua konektatzean eta 2 segundo inguru geroago itzali beharko dute, funtzioaren azterketak denbora hori behar baitu.

Errei-aldaketarako laguntzailearen kontrol-argiak agindurik ez emateak esan nahi du une horretan errei-aldaketarako laguntzaileak ez duela ibilgailurik atzematen atzeko aldean.

Kanpoko argia baxua denean, kontrol-argien intentsitatea ahultzen da. Erabiltzaileak kontrol-argien intentsitatea alda dezake, gehienez 5 mailaren artean, infotainment sistemaren menuan.

Plus errei-aldatzeko laguntzailea

Plus errei-aldatzeko laguntzailea honako funtzio hauek aktibatuz lortzen da: **Asistente de aviso de salida de carril (Lane Assist)** ››› 209. orrialdea eta **Asistente de cambio de carril (Side Assist)**. Kasu horretan, bere funtzioak horrela handitzen dira:

Gidariak erreia aldatzeko maniobra bat egiten duenean eta balizko egoera kritiko batean:

- Kontrol-argiak dagokion alboan dir-dir egiten du, keinukaria ez jarri arren.
- Bolanteak dar-dar egiten du gidariari talka-arriskuaz ohartarazteko.
- Direkzioa zuzentzeko bira egiten da, ibilgailua errei barrura itzul dadin.

Gidatze-egoerak



144. irudia Irudikapen eskematikoa: A Aurreratzea atzealdean trafikoa dagoela. B Errei-aldaketarako laguntzailearen adierazpena ezkerraldean.



145. irudia Irudikapen eskematikoa: A Erdiko erreian aurreratzea eta eskuineko erreian sartzea. B Errei-aldaketarako laguntzailearen adierazpena eskuinaldean.

Honako egoera hauetan seinale bat erakusten da kontrol-argian ››› **144. irudia** B (gezia) edo ››› **145. irudia** B (gezia):

- Beste ibilgailu batek ibilgailua aurreratzen duenean ››› **144. irudia** A.
- Beste ibilgailu bat aurreratzean ››› **145. irudia** A 10 km/h (6 mph) inguruko abiadura-aldearekin. Aurreratzea nabarmenki azkarragoa bada, ez da seinalerik erakusten.

Ibilgailu bat zenbat eta azkarrago hurbildu, orduan eta lehenago agertuko da seinalea kontrol-argian, errei-aldaketarako laguntzaileak beste ibilgailuekiko abiadura-aldea kontuan hartzen duelako. Hortaz, seinaleak kasu batzuetan lehenago eta beste batzuetan geroago agertzen dira, beste ibilgailu batekiko tartea berdin-berdina izan arren.

Aparkatzea eta maniobratzea

Ibilgailua aparkatzea

Aparkatzea

Kontuan izan legezko xedapenak ibilgailua aparkatzerakoan.

1. Konektatu geratze-balazta elektronikoa ››› 223. orrialdea.
2. *Aldagailu automatikoa:* aktibatu aparkatze-blokeoa **P** botoia sakatuz.
3. Gelditu motorra eta deskonektatu pizgailua. Biratu pixka bat bolantea direkzioa blokeatzeko.
4. *Eskuzko aldagailua:* jarri lehen martxa zoru lauan eta aldapa goran, edo, atzera martxa aldapa beheran, eta askatu enbragearen pedala.
5. Maldetan, biratu bolantea, aparkatutako ibilgailua mugitzen ari bada zintarrirantz joan dadin.
6. Irten ibilgailutik ››› ⚠. Ibili kontuz bideko gainerako erabiltzaileekin!
7. Hartu ibilgailuaren giltzak eta blokeatu.

Kalteak edo egoera arriskutsuak saihesteko, aparkatu ibilgailua beti aparkaleku egoki batean ››› ⓘ.

⚠ ADI

Ibilgailua modu desegokian aparkatuz gero, ibilgailua mugitu daiteke, baita malda txikietan ere. Horrek istripuak eta lesio larriak eragin ditzake.

- **Aparkatzean, errespetatu beti operazioetan agindutako ordena.**
- **Ibilgailutik irten aurretik, ziurtatu aparkatzeko balazta elektronikoa konektatuta dagoela.**

⚠ ADI

Haurrak, laguntza behar duten pertsonak edo animaliak ibilgailuan zaintzarik gabe badaude, istripu eta lesio larriak gerta daitezke.

- **Ez utzi inoiz haurrak, laguntza behar duten pertsonak edo animaliak ibilgailuan zaintzarik gabe. Martxa-hautagailuari eragin diezaiokete eta geratze-balazta elektronikoa deskonektatu. Ibilgailua martxan jar liteke.**
- **Ez utzi inoiz haurrak, laguntza behar duten pertsonak edo animaliak ibilgailuan. Urte-sasoiaren arabera, ibilgailu itxi batean tenperatura oso altuak edo baxuak izan daitezke.**
- **Ibilgailutik irtetean, hartu beti ibilgailuaren giltzak.**

ⓘ KONTUZ

Lurrean, harean edo lokatzean irregulartasunak badaude, baliteke ibilgailua behar bezala aparkatzea ezin izatea eta kalteak izan ditzake.

- **Aparkatu ibilgailua lur tinko eta lau batean.**

ⓘ KONTUZ

Ibilgailuaren beheko aldean dauden osagaiak, hala nola kolpe-leungailuak, espoilerrak eta errodaje-trenaren osagaiak, kaltetu egin daitezke lurretik irteten diren objektuen gainetik pasatzean.

- **Kontuz ibili etxeetako sarreretan, arrapaletan, zintarriak edo ertz finkoak igotzean eta maldan behera ibiltzean.**

ⓘ KONTUZ

Ez aparkatu ibilgailua leku batean, baldin eta ihesak belar lehorra, sasiak, isuritako erregaia edo material sukoiak uki baditzake.

Geratze-balazta elektronikoa

Geratze-balazta elektronikoa erabiltzea

146. irudia Kontsola zentralaren beheko aldean: geratze-balazta elektronikoaren tekla.

Konektatu

Geratze-balazta elektronikoa konekta daiteke ibilgailua geldirik dagoen guztietan, pizgailua deskonektatuta dagoenean ere bai. Konektatu ibilgailutik ateratzen zaren edo hori aparkatzen duzun guztietan.

- Tira egin ⓟ ››› **146. irudia** teklatik eta eduki ezazu posizio horretan.

Geratze-balazta konektatuta dago piztuta daudenean kontrol-argi gorria ⓟ tresnen koadroan eta teklako kontrol-argia.

- Askatu tekla.

Deskonektatu

- Konektatu pizgailua.
- Sakatu ⓟ tekla ››› **146. irudia**. Aldi berean, zapaldu indarrez balazta-pedala edo, motorra martxan badago, zapaldu leunki azeleragailuaren pedala.
- Teklako kontrol-argia eta tresnen koadroko kontrol-argi gorria ⓟ itzaltzen dira.

Deskonexio automatikoa abio hastean

Geratze-balazta elektronikoa automatikoki deskonektatuko da abioa hastean, baldin eta, gidariaren atea itxita dagoela eta gidariak segurtasun-uhala lotuta duela, honako egoera hauetakoren bat gertatzen bada:

- *Aldagailu automatikoa duten ibilgailuak:* martxa-sorta bat sartzen da edo beste martxa batera aldatzen da eta azeleragailuaren pedala zapaltzen bada arinki.

Eskuzko aldagailua duten ibilgailuak: enbragearen pedala sakon zapaltzen da martxa hasi aurretik, eta azeleragailuaren pedala arinki zapaltzen da. .

- Zenbait maniobra errazteko, badaude gidariak segurtasun-uhala lotuta izan gabe geratze-balaztaren deskonexio automatikoa ahalbidetzen duten salbuespenak.

Geratze-balazta automatikoki deskonektatzea eragotz daiteke, abioa hastean ⓟ teklatik etengabe gorantz tira eginez.

Geratze-balazta elektronikoa ez da deskonektatzen ⓟ tekla askatu arte. Horrela, abioaren hasiera erraztu daiteke zama handi bat atoian eramaten denean. ››› **309. orrialdea**.

Konexio automatikoa ibilgailutik modu desegokian irteteagatik

Abiadura-aldagailu automatikoa duten ibilgailuetan geratze-balazta elektronikoa automatikoki konektatuko da ibilgailutik modu desegokian ateraz gero, baldin eta:

- Martxen hautagailua **D/S** edo **R** posizioan edo tiptronic moduan dago.
- **ETA:** ibilgailua geldirik badago.
- **ETA:** gidariaren aldeko atea irekita badago.

Konexio automatikoa pizgailua deskonektatzean

Funtzio hori infotainment sistemaren bidez desaktiba daiteke. Eskuzko aldagailua duten ibilgailuetan, geratze-balazta elektronikoa automatikoki konektatzen da pizgailua deskonektatzean.

Larrialdi-balaztaren funtzioa

Larrialdi-balaztaren funtzioa erabili soilik larrialdi egoeretan, ibilgailua oin-balazta zapalduz gelditu ezin baduzu ››› ⚠!

- Tira egin Ⓟ teklatik eta eduki ezazu posizio horretan. Ibilgailuak bat-batean frenatuko du. Aldi berean, abisurako soinu-seinale bat entzungo da.
- Frenaketa eteteko, askatu tekla edo azeleratu.

ESC Sport edo **ESC OFF** modua hautatuta, ESCa berpiztuko da balaztatzean zehar gidariari laguntzeko. Modelo-bertsioaren arabera, ESC berriro igaroko da aurreko deskonektatze-egoerara edo konektatuta geldituko da.

⚠ ADI

Ibilgailua modu desegokian utziz gero, ibilgailua mugitu daiteke. Horrek lesio larriak eta kalte materialak eragin ditzake.

- **Ibilgailua aparkatzen duzunean, egin itzazu dagozkion eragiketak adierazitako hurrenkeran.** ››› **222. orrialdea, *Aparkatzea*.**
- **Ibilgailutik irten aurretik, ziurtatu geratze-balazta elektronikoa konektatuta dagoela eta Ⓟ kontrol-argia gorriz piztuta dagoela tresnen koadroan.**

⚠ ADI

Geratze-balazta elektronikoa modu desegokian erabiltzen bada, istripuak eta lesio larriak gerta daitezke.

- **Ez ezazu inoiz geratze-balazta elektronikoa erabili ibilgailua balaztatzeko, non eta emergentzia bat ez den. Balaztatze-distantzia askoz luzeagoa da. Erabili beti balazta-pedala.**
- **Ez ezazu inoiz motorraren hobitik azeleratu baldin eta martxa-erlazio bat hautatuta badago edo martxa bat engranatuta badago eta motorra martxan. Ibilgailua martxan jar liteke geratze-balazta elektronikoa konektatuta badago ere.**

ⓘ KONTUZ

Ibilgailua aparkatzean nahi gabe ez mugitzeko, konektatu lehenik geratze-balazta elektronikoa eta gero kendu oina balazta-pedaletik.

Arazoak konpontzea

Ⓟ Geratze-balazta elektronikoan matxura bat dago

Kontrol-argia argituko da horiz.

Zoaz CUPRA kontzesionario batera edo beste tailer espezializatu batera.

Geratze-balazta elektronikoa deskonektatzen da.

12 volteko bateria deskargatuta dago.

- Erabili abio-laguntza ››› **332. orrialdea.**

Geratze-balazta elektronikoak zarata egiten du

- Geratze-balazta elektronikoa konektatu eta deskonektatzean, zaratak entzun daitezke.
- Sistemak noizean behin egiaztapen automatikoak eta entzungarriak egiten ditu aparkatuta dagoen ibilgailuan geratze-balazta elektronikoa denbora luzez erabiltzen ez bada.

Auto-Hold funtzioa

147. irudia Erdiko kontsolaren behealdean: Auto-Hold funtzioaren tekla.

Auto Hold funtzioak atxikitzen du ibilgailua behin gelditutа, eta hura mugitzea eragozten du balaztaren pedala zapalduta eduki beharrik gabe.

Auto-Hold funtzioa aktibo dagoenean, tresnen koadroan kontrol-argi berdea pizten da. >>> **147. irudia** teklaren kontrol-argia piztuta geratzen da Auto Hold funtzioa konektatuta dagoen bitartean.

Baldintzak

- Gidariaren aldeko atea itxita dago.
- Gidariak segurtasun-uhala lotuta dauka.
- Motorra martxan dago.

Konektatu eta deskonektatzea

Sakatu Auto Hold >>> ⚠ tekla. Teklaren kontrol-argia piztu egiten da Auto Hold funtzioa konektatuta dagoenean. Orain aktibatu daiteke funtzioa. Teklaren kontrol-argia itzali egiten da Auto Hold funtzioa deskonektatzen denean.

Konexio eta deskonexio automatikoa

Pizgailua deskonektatu aurretik Auto Hold funtzioa Auto Hold teklarekin konektatu bazen, funtzioa pizgailua konektatzen den hurrengo aldian konektatuta egongo da.

Auto Hold funtzioa konektatu ez bazen, automatikoki deskonektatuta egongo da pizgailua konektatzen den hurrengoan.

Auto Hold funtzioa automatikoki deskonektatuko da honako baldintza hauek betetzen badira:

1. Funtzioak eskatzen dituen baldintzetako bat betetzeari uzten bazaio.
2. Motorra modu irregularrean baldin badabil edo arazoren bat baldin badu.
3. Motorra gelditzen bada.
4. *Aldagailu automatikoa:* Pneumatikoren batek gutxieneko kontaktua baldin badu lurzoruarekin, adibidez, ardatzak gurutzatuz gero.

Aktibatzea eta desaktibatzea

Auto Hold funtzioa automatikoki aktibatzen da honako baldintza hauek betetzen badira (puntu guztiak **aldi berean** bete behar dira):

1. Funtzioa konektatuta dago
2. Ibilgailua balaztaren pedalarekin gelditzen da guztiz, lurzoru lauan edo malda batean.
3. Motorra “zuzen” biratzen da.

Auto Hold funtzioa automatikoki desaktibatuko da honako baldintza hauetako bat betetzen bada:

1. Berriz jartzen bada martxan:

   Aldagailu automatikoa: azeleragailua zapalduz.

   Eskuzko aldagailua: enbrage-pedalatik oina kenduz eta azeleragailua zapalduz.
2. Aurreko ataletan ikusitako ekintzen bidez deskonektatzen da funtzioa.

⚠ ADI

Auto Hold funtzioaren teknologia adimenduak ezin ditu lege fisikoek ezarritako mugak gainditu eta sistemaren mugen artean bakarrik funtzionatzen du. Ez baimendu inoiz Auto Hold funtzioak ematen duen erosotasun handiak bultzatzen zaituela segurtasuna kaltetzen duen arriskurik hartzera.

- **Inola ere ez irten ibilgailutik motorra martxan dagoela eta Auto-Hold funtzioa aktibatuta.**
- **Auto Hold funtzioak ezin du beti aldapan gora ibilgailua geldirik mantendu edo aldapan beheran behar bezala balaztatu, adibidez, azalera labaingarrietan edo izoztuetan.**

KONTUZ

Garbiketa automatikoko instalazio batean sartu baino lehen, deskonektatu beti Auto Hold funtzioa. Bestela, kalteak gerta litezke geratze-balazta automatikoki konektatzeagatik.

Oharra

12 volteko bateriari borneak ipini eta gero, ibilbide laburrean zirkulatzea beharrezkoa da, Auto Hold funtzioaren funtzionamendu zuzena berrezartzeko.

Aparkatzeko sistemen inguruko argibide orokorrak

Esku-hartze automatikoa balaztan

Aparkaleku-sistema bateko balaztetan automatikoki esku hartzeak talka-arriskua murrizteko balio du, aparkatzean oztoporen bat hautematen denean.

Balaztatze-funtzioak

Ekipamenduaren arabera, sistema hauek daude:

- Plus aparkatzeko laguntzaren balaztatze-funtzioa maniobrak egitean ››› 227. orrialdea.
- Aparkalekutik irteeraren laguntzaileak duen larrialdiko balaztaren funtzioa ››› 245. orrialdea.
- Lagundutako aparkatze-laguntzailea duen larrialdiko balaztaren funtzioa ››› 232. orrialdea.

Baldintzak

- Ibilgailua 3 km/h eta 8 km/h inguruko abiaduran zirkulatzen ari da maniobrak egitean
- Aparkatzeko sistema bat konektatuta dago.

Balaztetan ez da automatikoki esku hartzen aparkatzeko laguntza automatikoki konektatu denean aurrerako martxan zehar.

Zer gertatzen da balaztetan automatikoki esku hartzen bada?

Oztoporen bat egotekotan, sistemak geldiarazi egiten du ibilgailua hori gelditu arte, eta geldirik edukitzen du 2 segundo inguruz. **Zapaldu balazta!**

Aktibatzea

- Balaztetan automatikoki esku hartzea gidariak aparkatzeko sistema bat konektatzen duenean aktibatzen da.

Desaktibatzea

- Balaztetan automatikoki esku hartzeko funtzioa aparkatzeko sistema desaktibatzen denean desaktibatzen da.
- **EDO:** aldi baterako desaktibatzeko balaztatze-funtzioa maniobrak egitean, sakatu ⚙ funtzio-botoia aparkatzeko laguntzaren pantailan eta doitu.

⚠ ADI

Ez utzi aparkatzeko sistemetako balaztetan automatikoki esku-hartzeak segurtasunean eragiten duen inolako arriskurik ekartzea. Zenbait egoeratan, gerta daiteke esku-hartze automatikoak balaztan ez funtzionatzea edo mugapenekin funtzionatzea. Oztopoen kontrako talkek lesioak eta kalteak eragin ditzakete ibilgailuan. Sistema horrek ezin du gidariaren arreta ordezkatu.

- **Egon adi eta ez jarri konfiantza osoa aparkatzeko sistemetan.**
- **Egon beti prest ibilgailua geldiarazteko eta zuk zeuk direkzioa kontrolatzeko.**
- **Ez izan inoiz segurtasuna arriskuan jartzen duen arriskurik.**
- **Jardun aparkatzeko sistemak gidatzeko ohartarazpen eta gomendioen arabera.**

Oharra

- **Balaztetan automatikoki esku hartzeak gehiegi eragiten badu, adibidez, zelai baten erditik zirkulatzean, deskonektatu aparkatzeko sistema.**
- **Maniobratzean aparkatzeko laguntzaren balaztatze-funtzioak ibilgailua balaztatu badu, martxaren noranzko berean 5 metroz geldirik geratzen da edo martxa aldatu ondoren edo posizio-martxen hautagailua aldatu ondoren berriro ere aktibo dago.**

Arazoak konpontzea

Aparkatzeko sistemak espero ez bezala funtzionatzen du

Zenbait arrazoi egon daitezke:

- Ez dira sistemaren baldintzak betetzen.
- Sentsoreak edo kamera zikin daude edo izotza dute ››› **386. orrialdea**.
- Kameraren lentea ez dago garbi eta irudia ez da argia ››› **386. orrialdea**.
- Zarata-iturri batzuek, hala nola mailu pneumatikoak edo galtzada-harriak, ultrasoinu-seinalea oztopatzen dute.
- Ibilgailuak kalteren bat du sentsoreen edo kameraren eremuan, esaterako, aparkatzean hartu duen kolperen batengatik.
- Sentsoreen detektatze-zonaldea edo kameraren ikus-eremua blokeatutako daude, osagarriren batekin, esaterako, bizikleta-euskarri batekin.
- Aldaketak egin dira pinturan edo egituran, sentsoreen edo kameraren eremuan barrena, edo egiturazko aldaketak egin dira, esaterako, ibilgailuaren aurrealdean edo errodaje-trenean.

Kontuan hartu ere infotainment sistemaren pantailan erakusten diren mezuak.

Ikuspenik gabeko sentsorea edo kamera, edo aparkatzeko sistema deskonektatu da

Sentsore bat matxuratzen bada, sentsore-eremu hori deskonektatu egiten da betirako. Sentsore-gune kaltetua infotainment sisteman erakuts daiteke ! ikurraren eta segmentu grafiko gris baten bidez. Horrela badagokio, aparkatzeko sistemak erasandako eremua deskonektatzen du.

Aparkatzeko laguntza behar bezala ez badabil, konektatzean seinale akustiko bat entzuten da segundo batzuetan. Hala badagokio, tresnen koadroko pantailan mezu bat agertuko da horri buruz.

- Begiratu aurretik adierazitako arrazoietako bat den.
- Arazoaren jatorria moldatu eta gero, sistema berriro konekta dezakezu.
- Arazoak jarraitzen badu, joan tailer espezializatu batera.

Plus aparkatzeko laguntza

Deskribapena



148. irudia Aparkatzeko laguntza bistaratzea infotainment sistemako pantailan.

Plus Aparkatzeko laguntzak gidariari laguntzen dio ibilgailuaren aurrean eta atzean dauden oztopoei buruz bisualki eta akustikoki ohartaraziz.

Kolpe-leungailuek ez dute sentsorerik integratuta. Oztopo bat hautematen dutenean, infotainment sisteman eta soinu-seinaleen bitartez adierazten dute ››› **148. irudia**.

Oztopo batera hurbiltzen bada, soinu-frekuentziaren arabera jakin daiteke ibilgailuaren aurretik edo atzetik datorren.

Sentsoreen neurtzeko irismena honako hau da, gutxi gorabehera:

Ⓐ 1,20 m

Ⓑ 0,90 m

Ⓒ 1,60 m

Ⓓ 0,90 m

Oztopora hurbiltzen den heinean, seinale akustikoen maiztasuna handituko da. 0,30 m-an seinalea iraunkorra izango da: gelditu!

Tartea mantentzen bada, abisuaren bolumena 2,5 segundoren buruan murriztuko da.

Errore-mezuak

Infotainment sisteman errore- edo matxura-mezu bat agertzen bada aparkatzeko laguntzan, arazoren bat dago.

Arazoa pizgailua itzali aurretik desagertzen ez bada, aparkatzeko laguntza konektatzen duzun hurrengo aldian ez da adieraziko.

Atzeko sentsoreren bat matxuratzen bada, bakarrik erakutsiko dira aurrealdeko oztopoak. Aurreko sentsoreren bat matxuratzen bada, bakarrik erakutsiko dira atzealdeko oztopoak. ⚠ sinboloa erakutsiko da.

Gomendatzen dugu tailer espezializatu batera joatea, matxura konpontzera.

Atoiarekin gidatzea

Fabrikan muntatutako atoi-krokadura duten ibilgailuetan, atoia konektatuta dagoenean, atzeko sentsoreak ez dira aktibatuko atzerako martxa jartzean edo P⁄⁄ tekla sakatzean infotainment sisteman (🚗 > **Asistentes**); horregatik, ez pantailan ez seinale akustikoen bidez ez dira adieraziko ibilgailuaren atzealdean eta alboetan egon daitezkeen objektuak.

Pantailan, aurrealdean hautematen diren objektuak soilik erakutsiko dira eta ibilbidearen bistaratzea ezkutatuko da.

Aparkatzeko laguntza doitzea

Jarraibideak eta seinale akustikoak infotainment sisteman doitzen dira: 🚗 > **Asistentes** > **Aparcamiento** > P > **Ajustes** funtzio-botoia.

- **Activación automática:** On/off
- **Volumen delantero:** Bolumena aurreko eta alboko gunean.
- **Volumen trasero:** Bolumena atzeko gunean.
- **Atenuar volumen:** Aparkatzeko laguntza konektatuta dagoenean, audio-iturriaren bolumena murriztuko da, aukeratutako moduaren arabera.

⚠ ADI

- **Ondo begiratu eta egon adi trafikoari eta ibilgailuaren inguruari. Laguntza-sistemek ez dute gidariaren arreta ordezkatzen. Gidariak du beti erantzukizuna.**
- **Sentsoreek pertsonarik edo objekturik hauteman ezin dituzten gune itsuak dituzte. Arreta berezia jarri ume eta animaliei.**
- **Mantendu beti ibilgailuaren inguruarekiko kontrol bisuala: atzerako ispiluak ere erabili.**

ⓘ KONTUZ

Gerta daiteke kalteak sor ditzaketen zenbait alderdik Plus aparkatzeko laguntzaren funtzioetan eragina izatea:

- **Egoera zehatz batzuetan, sistemak ez ditu objektu batzuk antzematen ezta erakusten ere:**
  - **Kateak, atoi-lantzak, barrak, hesiak, zutoinak edo zuhaitz meheak.**
  - **Sentsoreen gainetik dauden objektuak, adibidez, horma baten hegala.**
  - **Gainazal edo egitura jakinak dituzten objektuak, adibidez, alanbre hesiak edo elur xehea.**
- **Jantzi eta objektu jakin batzuek ez dituzte ultrasoinu-sentsoreen seinaleak islatzen. Sistemak ezin ditu ondo hauteman objektu horiek edo jantzi horiek daramaten pertsonak.**
- **Kanpoko soinu-iturriek eragina izan dezakete sentsore-seinaleetan. Horrek pertsonak edo objektuak hautematea galaraz lezake.**

- Sistemak altura txikiko oztopo bat gertu dagoela ohartarazi ostean, gerta liteke hurbiltzen jarraitzean oztopo hori neurtzeko irismenetik kanpo geratzea eta, beraz, han dagoela ez ohartarazten ez jarraitzea. Egoera zehatz batzuetan, sistemak ez ditu ibilgailuaren beheko partea hondatu dezaketen objektu batzuk hautematen, adibidez, zintarri altuak.
- Aparkatzeko laguntzaren oharra kontuan hartzen ez bada, gerta liteke ibilgailuak kalte larriak pairatzea.
- Ibilgailuaren erradiadorearen parrillan, kolpe-leungailuan, gurpil-etxean eta ibilgailu-barrenetan kalteak gertatzen badira, sentsoreen orientazioa alda daiteke. Horrek eragina izan dezake aparkatzeko laguntzaren funtzionamenduan.

Eraman ibilgailua tailer espezializatu batera, funtzionamendua azter dezaten.

- Matrikula edo matrikula-ontzi handiegi batek matrikula jartzeko tokia gainditzen badu, edo okertuta edo deformatuta badago, gerta daiteke gezurrezko detekzioak sortzea edo sentsoreek ikuspena galtzea.

Oharra

- Infotainment sistemako pantailan atzerapen arin batekin bistaratzen da.
- Egoera zehatz batzuetan, sistemak oharra bidal dezake, eremuan oztoporik ez egon arren:
  - Zoru zimurtsua, galtzada-harrizko zoladura edo belar oso luzea duten lurzoruak.
  - Kanpoko ultrasoinu-iturriak, adibidez, ultrasoinuen bidezko sistemak dituzten beste ibilgailu batzuk.
  - Euri-zaparradak, elurteak, txingorra edo ihes-gas trinkoak.
  - Matrikula kolpe-leungailuaren gainazalean guztiz itsasten ez bada.
  - Sestra-aldaketetan.
- Funtzionamendu ona bermatzeko, mantendu sentsoreak garbi, elurrik eta izotzik gabe, eta ez estali itsasgarri edo beste objektu batzuekin.
- Presio handiko ekipoak edo lurrun-ekipoak erabiltzen badituzu garbitzeko, ez erabili zuzenean horien gainean denbora luzez eta 10 cm baino gutxiagoko distantziatik.
- Ibilgailuaren atzealdean muntatutako osagarri batzuek, adibidez, publizitate matrikula-ontzi bat, Aparkatzeko laguntzaren funtzionamendua murriztu dezakete.
- Gomendatzen dizugu trafikorik gabeko eremu batean aparkatzen praktikatzea.
- Seinaleen eta adierazpenen bolumena eta tonua alda ditzakezu.
- Kontuan hartu atoiarekin gidatzeko jarraibideak.

Plus aparkatzeko laguntza erabiltzea

Eskuz konektatzea eta deskonektatzea

- Saktu botoia infotainment sisteman (**> Asistentes > Asistente de aparcamiento > Ayuda aparcamiento**).

Automatikoki aktibatzea

- Sartu atzera martxa.
- **EDO:** aurrera bazoaz, 15 km/h-tik (9 mph) beherako abiadura batean, eta oztopo bat aurkitzen baduzu, hori detektatzen da optikoki gutxi gorabehera 95 cm-ra dagoenean, edo akustikoki gutxi gorabehera 50 cm-ra. Konexio automatikoa aktibatuta badago, bistaratze murriztua erakutsiko da.
- **EDO:** ibilgailua atzerantz mugitzen bada distantzia jakin bat (10 eta 20 cm artean gutxi gorabehera, oztopo bat aurkitzen badu edo ez)

Ayuda de aparcamiento Plus automatikoki konektatzean, pantailan ibilgailuaren irudia eta segmentuak bistaratuko dira. Funtzio hori eskuragarri egongo da, erabiltzaileak desaktibatu ez badu.

Abiadura lehen aldiz 15 km/h-tik (9 mph) behera murrizten den bakoitzean bakarrik funtzionatzen du.

Aparkatzeko laguntza automatikoki aktibatzea infotainment sisteman konekta eta deskonekta daiteke:

- Konektatu pizgailua.
- Infotainment sisteman, hautatu > **Asistentes** > **Aparcamiento** > **Ayuda aparcamiento**.
- Markatu **Activación automática** laukia.

Automatikoki aktibatu bada, soinu-oharra aurrealdeko oztopoak gutxi gorabehera 50 cm baino gutxiagora daudenean soilik igorriko da.

Infotainment sisteman tekla bidez desaktibatzen bada, berriro automatikoki aktibatzeko, ekintza hauetako bat egin beharko da:

- Pizgailua eskuz konektatzea eta deskonektatzea.
- **EDO:** aurrerantz zirkulatzea 15 km/h (9 mph) ingurutik gorako abiaduran.
- **EDO:** aparkatze-blokeoaren **P** botoia aktibatzea edo desaktibatzea.
- **EDO:** aktibatze automatikoa infotainment sisteman konektatzea eta deskonektatzea.

Deskonexio automatikoa

- Zirkulatu 15 km/h (9 mph) baino arinago aurrerantz.
- **EDO:** sakatu aparkatze-blokeoaren **P** botoia.

Soinua aldi baterako kentzea

- Sakatu funtzio-botoia infotainment sistemaren pantailan.
- **EDO:** aktibatu geratze-balazta elektronikoa.

Bistaratze murriztutik pantaila osoko modura aldatzea

- Sartu atzera martxa, zure ibilgailua atzera martxaren kameraz hornituta badago.
- Sakatu bistaratze murriztuko autoaren figuraren gainean.
- **EDO:** ibilgailua atzerantz mugitzen da distantzia jakin bat (10 eta 20 cm artean gutxi gorabehera, oztopo bat aurkitzen badu edo ez).

Atzera martxarako laguntzailearen irudira aldatzea (Rear View Camera "RVC")

- Sartu atzera martxa.
- **EDO:** sakatu **RVC** [1] tekla infotainment sistemako pantailan.

Sistema konektatzean, konfirmazio-seinale bat entzungo da eta teklaren ikurra argituko da.

KONTUZ

Plus aparkatzeko laguntzaren konexio automatikoak oso astiro ibiltzean soilik funtzionatzen du. Gidatzeko estiloa ez bada inguruabarretara egokitzen, lesio larriak eragin ditzakeen istripu bat sor daiteke.

Seinale bisualaren segmentuak



149. irudia Aparkatzeko laguntza bistaratzea infotainment sistemako pantailan.

Segmentuen ikus-argibideak honela funtzionatzen du:

- **Segmentu grisak**: oztopoa 30 cm inguru baino urrunago dago, ibilbidetik kanpo edo martxaren kontrako noranzkoan. Geratze-balazta elektronikoa aktibatuta dagoenean ere erakusten dira.

[1] RVC botoia bakarrik erakutsiko da atzera martxa engranatuta dagoenean.

- **Segmentu horiak**: oztopoak ibilgailuaren ibilbidearen barruan daude eta 30 cm inguru baino urrunago.
- **Segmentu gorriak**: oztopoak 30 cm inguru baino hurbilago daude.

Lorratz orientagarri batek aurreikusitako aurreranzko edo atzeranzko ibilbidea adieraziko du, sartutako martxaren arabera.

Oztopoa ibilgailuaren norabidean dagoenean, dagokion soinu-oharra entzungo da.

Azken-aurreko segmentua bistaratzen denean, ibilgailua talka-gunera iritsiko da. Talka-gunean, oztopoak gorriz adierazten dira (ibilbidetik kanpo daudenak ere). Gelditu! ››› **228. orrialdeko ⚠ (*Deskribapena*)**

Ibilgailuak Top View Camera sistema edukiz gero, aparkatzeko laguntzaren adierazpen bisuala agertuko da Top View Camera sisteman hautatutako ikuspegiaren arabera.

Atzeko aparkatze-laguntza

Deskribapena

Atzeko aparkatzeko laguntza laguntzaile optiko eta akustikoa da, eta ibilgailuaren atzealdean dauden oztopoen berri ematen du.

Atzeko kolpe-leungailuak sentsore integratuak daramatza. Horiek oztopo bat hautematen dutenean, infotainment sisteman adierazten dute ikus- eta soinu-seinaleen bitartez.

Top View Camera sistema instalatuta badago, atzeko aparkatzeko-laguntzak ibilgailuaren atzealdean dauden objektuen berri emango du akustikoki, eta infotainment sistemako pantailan Top View Camera sistemaren irudia agertuko da, ibilgailuaren inguruan dauden objektuen benetako irudia emanez.

Kontuz ibili sentsoreak itsasgarriekin, hondakinekin, zikintasunarekin edo antzekoekin ez estaltzeko, sistemaren funtzionamenduan eragina izan lezake eta. Garbiketaren inguruko seinaleak ››› **386. orrialdea**.

Atzeko sentsoreen neurtzeko irismena honako hau da, gutxi gorabehera:

- Alboko gunea: 0,60 m
- Erdiko gunea: 1,60 m

Oztopora hurbiltzen den heinean, seinale akustikoen maiztasuna handituko da. 0,30 m inguruan seinalea iraunkorra izango da: gelditu! ››› **228. orrialdeko ⚠**.

Tartea mantentzen bada, abisuaren bolumena 2,5 segundoren buruan murriztuko da.

Aparkatzeko laguntza konektatzea

- Sartu atzera martxa.

Aparkatzeko laguntza deskonektatzea

- Zirkulatu 15 km/h (9 mph) baino arinago aurrerantz.
- **EDO:** hautatu **N** edo **D** hautatze-agintearen bidez, edo sakatu **P** aparkatze-blokeoaren botoia.

Aparkatzeko laguntza doitzea

Jarraibideak eta seinale akustikoak infotainment sisteman doitzen dira: 🚗 > **Asistentes** > **Aparcamiento** > P > **Ajustes** funtzio-botoia.

- **Volumen trasero:** Bolumena atzeko gunean.
- **Atenuar volumen:** Aparkatzeko laguntza konektatuta dagoenean, audio-iturriaren bolumena murriztuko da, aukeratutako moduaren arabera.

Errore-mezuak

Tresnen koadroan errore- edo matxura-mezu bat agertzen bada Aparkatzeko laguntzan, arazo bat egongo da.

Arazoa pizgailua itzali aurretik desagertzen ez bada, aparkatzeko laguntza konektatzen duzun hurrengo aldian ez da adieraziko.

Gomendatzen dugu tailer espezializatu batera joatea, matxura konpontzera.

Atoirako gailua

Fabrikan muntatutako atoirako krokadura duten ibilgailuetan, atoia konektatuta dagoenean, Aparkatzeko laguntza ez da aktibatuko atzera martxa engranatzean.

⚠ ADI

Gogoan izan segurtasun-oharrak ››› 228. orrialdeko ⚠ (*Deskribapena*).

Aparkatzen laguntzeko sistema (Park Assist)

Gaiaren aurkezpena

Aparkatzen laguntzeko sistema ParkPilot-eko funtzio osagarria da ››› 227. orrialdea eta gidariari laguntzen dio aparkaleku egoki bat aurkitzen hauen artean:

- leku egokian lerroan eta zeharka atzera martxan aparkatzen,
- leku egokian aurrera martxan lerroan aparkatzen,
- aurrera martxan ibilgailua lerroko aparkalekutik ateratzen,
- leku egokian zeharka aurrera martxan aparkatzen, hautatutako aparkaleku-eremuaren zati batean sartuz. Sistemak aparkaleku-eremu horretan zentratuko du ibilgailua,
- lerroan atzera martxan aparkatzen leku batean, non eskuz aparkatzen saiatu baikara, ibilgailuko atzeko aldea neurri batean sartuz.

Aparkatzen laguntzeko sistema eta fabrikan muntatutako infotainment sistema duten ibilgailuetan, aurreko gunea, atzeko gunea eta aldeak irudikatzen dira eta oztopoen posizioa erakutsi.

Aparkatzen laguntzeko sistemak berari datxezkion muga jakin batzuk bete behar ditu, eta hori erabiltzeko arreta berezia jarri behar du gidariak ››› ⚠.

⚠ ADI

Aparkatzen laguntzeko sistemak dakarren teknologiak sistemari berari eta ultrasoinu-sentsoreen erabilerari atxikitako hainbat muga ditu. Aparkatzen laguntzeko sistemaren erabilerak ez du segurtasuna arriskuan jarri dezakeen inolako erabakirik hartzea eragin behar. Sistema horrek ezin du gidariaren arreta ordezkatu.

- **Ibilgailuaren ustekabeko edozein mugimenduk lesio larriak sor ditzake.**
- **Beti egokitu gidatze-abiadura eta -modua, ikuspen-, klimatologia-, galtzada- eta trafiko-baldintzen arabera.**
- **Jantzi eta objektu jakin batzuek ez dituzte ultrasoinu-sentsoreen seinaleak islatzen. Sistemak ezin ditu objektu horiek edo jantzi horiek daramaten pertsonak hauteman, edo gaizki hautematen ditu.**
- **Kanpoko soinu-iturriek eragina izan dezakete ultrasoinu-sentsoreetan. Baldintza jakin batzuetan, horrek pertsonak edo objektuak hautematea galaraz lezake.**
- **Ultrasoinu-sentsoreek pertsona edo objekturik hauteman ezin dituzten gune itsuak eduki ditzakete.**
- **Eduki beti ibilgailuaren ingurunea kontrolpean, ultrasoinu-sentsoreek ez baitituzte ume txikiak, animaliak edo objektu batzuk egoera guztietan hautematen.**

⚠ ADI

Aparkatzen laguntzeko sistemarekin aparkalekura sartzean edo handik ateratzean biraketa azkarrak eginez gero, lesio larriak sor daitezke.

- **Ez heldu bolanteari aparkaleku batean sartzeko edo handik ateratzeko maniobretan, sistemak hala eskatu arte. Horrek sistema ezgaitzen du maniobran zehar, eta aparkatzea bertan behera utzi.**

KONTUZ

- Baldintza jakin batzuetan, ultrasoinu-sentsoreek ez dituzte objektu batzuk hautematen, eta horiek ibilgailua hondatu dezakete; adibidez, atoi-lantzak, barrak, hesiak, zutoinak edo zuhaitz meheak, edo irekitzen ari den atzeko ate handi bat.
- Erosi ondoren ibilgailuan muntatutako osagarriek (adibidez, bizikleta-euskarri bat) aparkatzen laguntzeko sistemaren funtzionamendua murriztu dezakete eta, batzuetan, kalteak eragin.
- Aparkatzen laguntzeko sistemak aparkatuta dauden ibilgailuak, zintarriak eta beste objektu batzuk hartzen ditu erreferentzia gisa. Saiatu aparkatzean hagunak eta pneumatikoak ez kaltetzen. Beharrezkoa balitz, eten aparkatze-maniobra ibilgailuan kalterik sor ez dadin.
- Kolpe bat hartzen badute, kolpe-leungailuaren radar-sentsoreak hondatu edo mugitu daitezke, adibidez, aparkaleku batean sartzean edo handik ateratzean.
- Sentsoreak garbitzeko presio handiko edo lurrun-ekipoak erabiltzen badituzu, ez aplikatu zuzenean horien gainean denbora luzez eta 10 cm baino gutxiagoko distantziatik.

- Aurrealdeko edo atzealdeko matrikula edo matrikula-ontzi handiegi batek, matrikula jartzeko tokia gainditzen badu edo okertuta edo deformatuta badago, honako arazo hauek eragin ditzake:
  - Antzemate okerrak egitea.
  - Sentsoreek ikusmena galtzen dute.
  - Aparkatze-maniobra bertan behera uztea edo aparkatze okerra egitea.
- Ultrasoinu-sentsoreetako bat hondatzen bada, sentsore-talde horri dagokion gunea desaktibatzen da (aurrekoa edo atzekoa) eta ezin da berriro aktibatu matxura konpondu arte. Hala ere, beste kolpe-leungarriaren sentsoreak erabili ahal izango dira normaltasun osoz. Sistemak matxuraren bat izatekotan, joan tailer espezializatu batera. CUPRAk CUPRA kontzesionario espezializatu batera edo SEAT sareko edozein kontzesionariotara joatea gomendatzen du horretarako.

Oharra

- Sistemaren funtzionamendu ona bermatzeko, mantendu kolpe-leungailuko ultrasoinu-sentsoreak garbi, elurrik eta izotzik gabe, eta ez estali itsasgarri edo beste objektuekin.
- Soinu-iturri batzuek (adibidez, asfalto zimurtsua edo galtzada-harrizko zoladura) eta beste ibilgailuen zaratak aparkatzen laguntzeko sistemak edo ParkPilot-ek ohar okerrak bidaltzea eragin dezakete. Metalezko objektuak egoteak ere kalte egin diezaioke maniobrari.

- Sisteman eta bere funtzioetan trebatzeko, CUPRAk gomendatzen du trafiko asko ez dagoen toki batean edo aparkaleku batean praktikatzea aparkatzen laguntzeko sistemarekin.

Aparkatzen laguntzeko sistemaren deskribapena

Aparkatzen laguntzeko sistemaren osagaiak hauek dira: aurreko eta atzeko kolpe-leungailuetan dauden ultrasoinu-sentsoreak, sistema konektatzeko eta deskonektatzeko P tekla, eta tresnen koadroko pantailako seinaleak.

Aparkatzeko beharrezko baldintzak

- Trakzio-kontrolak (TCS) konektatuta egon behar du ››› 186. orrialdea.
- Abiadura aparkatzeko tokiaren ondotik igarotzean: ez gainditu **50 km/h (31 mph)** inguruko abiadura.
- Aparkalekuaren ondotik pasatzean, **0,5 y 2,0 metro** arteko tartea utzi.
- Aparkatzeko lekuaren luzera (lerroan aparkatzea): **ibilgailuaren luzera + 0,8 metro**.
- Tokiaren zabalera (lerroko aparkalekua): **ibilgailuaren zabalera + 0,8 metro**.
- Ez gainditzea **7 km/h (4 mph)** inguruko abiadura aparkatzean. Abiadura hori gaindituz gero, ibilgailuak balaztatze automatikoa egingo

du behin bakarrik. Behin baino gehiagotan abiadura gainditzen baduzu, aparkatzen laguntzeko sistema deskonektatuko da.

Aparkalekutik ateratzen laguntzeko beharrezko baldintzak (lerroko aparkalekurako bakarrik)

- Trakzio-kontrolak (TCS) konektatuta egon behar du ››› 186. orrialdea.
- Tokiaren luzera: **ibilgailuaren luzera + 0,5 metro**.
- Ez gainditzea **7 km/h (4 mph)** inguruko abiadura aparkalekutik irtetean.

Behar baino lehen bukatzea edo aparkalekuan sartzeko edo handik ateratzeko maniobrak automatikoki etetea

Aparkatzen laguntzeko sistemak aparkalekuan sartzeko edo handik ateratzeko maniobrak eteten ditu honako kasu hauetan:

- Infotainment sistemako P tekla sakatzen da, **> Asistentes > Aparcamiento > Sistema de aparcamiento asistido**.
- Behin baino gehiagotan gainditzen da 7 km/h (4 mph) inguruko abiadura.
- Gidariak bolantearen kontrola hartzen badu.
- Aparkatze-maniobra direkzio automatikoa aktibatu denetik 6 minutu inguru pasa ondoren bukatu ez bada.
- Sisteman matxuraren bat badago (sistema ez dago erabilgarri aldi batez).
- TCS deskonektatzen bada.
- TCS edo ESC sistemek esku hartzen badute, erregulatzen.
- **Offroad** edo **Snow** gidatze-profila hautatzen da.
- Gidariaren aldeko atea zabaltzen bada.

Maniobrari berriro ekiteko, beharrezkoa da egoera horietako bat bera ere ez gertatzea, eta berriro sakatzea P tekla infotainment sisteman.

Esku-hartze automatikoa balaztan, baimendutako gehienezko abiadura gainditzea ekiditeko

Aparkatzean eta aparkalekutik ateratzean baimendutako 7 km/h (4 mph) inguruko abiadura gainditzea ekiditeko, gerta daiteke sistemak automatikoki balaztan esku-hartzea. Sistemak automatikoki esku hartu ondoren, aparkatzeko edo aparkalekutik ateratzeko maniobrekin jarrai daiteke.

Sistemak behin baino ez du balaztan automatikoki esku hartzen aparkatzeko edo aparkalekutik ateratzeko saiakera bakoitzeko. Berriro ere 7 km/h (4 mph) inguruko abiadura gainditzen bada, dagokion eragiketa bertan behera uzten da.

Zehaztasunak

Aparkatzen laguntzeko sistemak, atxikitako mugapen zehatzak ditu. Horregatik, adibidez, ezin da sistema erabili bihurgune itxietan aparkatzean edo desaparkatzean, ezta oso bide aldapatsuetan ere.

Aparkalekura sartzean edo handik ateratzean, seinale labur bat entzuten da, gidariari atzera edo aurrera martxa engranatzeko eskatuz (kasuaren arabera). Hurrengo maniobretan, laguntzaileak gidariari martxa-aldaketa adierazten dio, beranduenez, seinale akustiko jarraitua agertzen denean (objekturik bertan dago ≤30 cm-tan) Park Pilot-ean.

Aparkatzen laguntzeko sistemak ibilgailua geldi dagoenean bolantea biratzen duenean, ikurra agertzen da tresnen koadroko pantailan. Ikurra tresnen koadroan agertzen den bitartean, balazta zapaldu gurpilek ibilgailua geldi dagoela bira egin dezaten. Modu honetan, sistemak maniobra gutxiago beharko ditu aparkamendua burutzeko.

Atoiarekin gidatzea

Aparkatzen laguntzeko sistema ezin da konektatu fabrikan muntatutako atoi-gailua atoi bati elektrikoki konektatuta badago.

Gurpil bat aldatu ondoren

Gurpil bat aldatu ondoren ibilgailuak aparkalekuan sartzeko edo handik ateratzeko zailtasunak baditu, baliteke gurpil berriaren zirkunferentzia ezberdina izatea eta sistema gurpil

berriari egokitu behar izatea. Egokitzapen hori automatikoa da eta ibilgailua martxan dagoen bitartean egiten da. Birak egitea astiro, bi noranzkoetan eta abiadura txikian (20 km/h [12 mph]) minutu batzuetan, lagungarria izan daiteke egokitze-prozesu horretarako.

Aparkatze-mota bat aukeratzea

150. irudia Tresnen koadroko pantailan: aparkatzen laguntzeko sistemaren irudikapena, bistaratze murriztuarekin.



151. irudia Infotainment sistemako pantailan: aparkatze-moten adierazlea

Aparkatzen laguntzeko sistemak 6 aparkatze-mota ditu:

- A Lerroan aparkatzea, atzera martxan.
- B Zeharka aparkatzea, atzera martxan.
- C Zeharka aparkatzea, aurrera martxan.
- D Lerroan aparkatzea atzera martxan aldez aurretik igaro ez bagara: “Help me”.
- E Zeharka aparkatzea aurrera martxan aldez aurretik igaro ez bagara.
- F Zeharka aparkatzea atzera martxan aldez aurretik igaro ez bagara.

Aparkatze-mota bat aukeratzea aldez aurretik lekuaren aurretik igaro ondoren

Aparkatzen laguntzeko sistema aktibatu ondoren eta aparkatzeko leku bat detektatzen denean, tresnen koadroko pantailan aparkatze-mota bat proposatzen da. Aparkatzen laguntzeko sistemak aparkatze-mota aukeratzen du automatikoki. Aukeratutako mota tresnen-koadroko pantailan ››› **151. irudia** eta infotainment sistemako pantailan agertzen da.

- Aparkatze-sistema lagunduarekin aparkatzeko beharrezkoak diren baldintzak bete behar dira ››› **233. orrialdea**.
- Sakatu P tekla infotainment sisteman, 🚗 > **Asistentes**.
- Sistema konektatuta dagoenean, infotainment sistemako pantailan P sinboloa nabarmentzen da. Horrez gain, tresnen koadroko pantailan, aukeratu den aparkatze-mota erakusten da. Infotainment sistemako pantailan aparkatze-mota alda daiteke.
- Leku gehiago badaude, beste leku bat hauta daiteke, infotainment sistemako pantailan bere gainean sakatuz.
- Jarraitu tresnen koadroko pantailan agertzen diren argibideei, trafikoan arreta jarri bitartean, eta pasatu ibilgailuarekin aparkatzeko lekuaren ondotik.

Lerroan aparkatzea atzera martxan aldez aurretik igaro ez bagara (D mota)

D motako aparkatze-kasu horretan, sakatu P tekla, sistemak buka dezan dagoeneko hasita dagoen aparkatze-mota. Sistema aktibatuko da soilik maniobra nahiko aurreratuta badago (alboko sentsoreak erreferentziazko ibilgailua detektatzeko gai izan behar du). Hasitako maniobra arrakastaz amaitzea ezinezkoa bada, sistemak berak desegingo du maniobra, A motaren antzera aparkatzen hasteko.

Zeharka aparkatzea, aurretiko urratsik gabe

Zeharkako aparkalekuaren kasu berezia, E motakoa, aurrerantz edo atzerantz aurretiko urratsik egin gabe:

- Aparkatze-sistema lagunduarekin aparkatzeko beharrezkoak diren baldintzak bete behar dira ››› 233. orrialdea.
- Joan aurrera martxan aparkatzeko lekurantz, trafikoari arreta emateari utzi gabe, eta gelditu ibilgailua aurrealdeko parte bat aparkalekuren barruan duenean.
- Sakatu P tekla behin infotainment sisteman, > **Asistentes**.
- Sistema konektatuta dagoenean, infotainment sistemako pantailan P sinboloa nabarmentzen da. Horrez gain, tresnen koadroko pantailan, aukeratu den aparkatzeko modua erakusten da, bistaratze murrizturik gabe.
- Askatu bolantea.

Aparkatzen laguntzeko sistemarekin aparkatzea



152. irudia Tresnen koadroko pantailan: lerroan aparkatzea. A: Aparkaleku bat bilatzea B: Aparkatzeko posizioa. C: Maniobratzea.



153. irudia Tresnen koadroko pantailan: zeharka aparkatzea. A: Aparkaleku bat bilatzea B: Aparkatzeko posizioa. C: Maniobratzea.

1. Aurrera martxan ibiltzeko argibidea
2. Norberaren ibilgailua
3. Hauteman den aparkalekua
4. Aparkatzeko argibidea
5. Balazta-pedala zapaltzeko argibidea
6. Aurrerapen-barra

Aparkatzeko laguntza-sistemarekin aparkatzeko beharrezkoak diren baldintzak bete behar dira ››› **233. orrialdea** eta aparkatzeko modua hautatu behar da ››› **235. orrialdea**.

Aparkatzea

- Begiratu tresnen koadroko pantailan ea lekua “egokitzat” jo den eta ea aparkatzeko posizio egokia lortu duzun ››› **152. irudia** B edo ››› **153. irudia** B. Lekua “egokitzat” jo da baldin eta tresnen koadroko pantailan aparkatzeko seinalea agertzen bada 4.
- Gelditu ibilgailua eta, etenaldi labur baten ondoren, sartu atzerako martxa, edo sakatu P tekla infotainment sisteman, > **Asistentes** > **Aparcamiento** > **Sistema de aparcamiento asistido**.
- Askatu bolantea.
- Kontuan izan honako mezu hau:

Intervención en la dirección activa. ¡Vigile su entorno!

Zure inguruari begiratzen diozun bitartean, azeleratu kontuz, gehienez ere 7 km/h-ko (4 mph) abiduraraino. Aparkatzeko maniobran zehar, sistema direkzioaz **soilik** arduratuko da. **Zuk, gidari gisa, azeleratu egin behar duzu, behar izanez gero enbragatu, martxa aldatu eta frenatu.**

- Atzera egin ParkPilotaren etengabeko seinalea entzun arte; **EDO:** atzera egin tresnen koadroko pantailan aurrera egiteko agindua agertu arte ››› **152. irudia** C edo ››› **153. irudia** C; **EDO:** atzera egin tresnen koadroko pantailan mezua **Park Assist finalizado** agertu arte. Korritze-barrak ⑥ ibili behar den distantzia adierazten du.
- Zapaldu balazta-pedala aparkatzen laguntzeko sistemak bolantea biratzeari utzi arte; **EDO:** ⊘ ikurra tresnen koadroaren pantailan itzali arte.
- Engranatu 1. martxa.
- Aurrera egin tresnen ParkPilot-en etengabeko seinaleak jo arte; **EDO BESTELA:** aurrera egin tresnen koadroko pantailan atzera martxa sartzeko argibidea agertu arte. Aparkatzeko laguntza-sistemak ibilgailua bideratzen du aurrera eta atzera aparkalekuan zentratu arte ››› **152. irudia** C edo ››› **153. irudia** C.
- Emaitza optimoa lortzeko, maniobra bakoitzaren amaieran, itxaron aparkatzen laguntzeko sistemak bolantea biratzen bukatu arte. Tresnen koadroren pantailan mezu bat agertzen denean amaitzen da aparkatze-maniobra eta, beharrezkoa bada, soinu-seinale bat bidaltzen du.

Aurrerapen-barrak

Korritze-barrak ››› **152. irudia** ⑥ eta ››› **153. irudia** ⑥ sinbolikoki erakusten du tresnen koadroko pantailan oraindik egiteko dagoen distantzia erlatiboa. Zenbat eta handiagoa izan distantzia, orduan eta beteago dago aurrerapen-barra. Aurrera martxan ibiltzean, aurrerapen-barraren edukia gorantz eginez gutxitzen da, eta atzera martxan ibiltzean, beherantz eginez.

Oharra

Aparkatzean maniobra behar baino lehenago bukatzen bada, gerta daiteke emaitza optimoa ez izatea.

Aparkalekutik ateratzea aparkatzen laguntzeko sistemaren bidez (lerroan aparkatuta egonez gero bakarrik)



154. irudia Tresnen koadroko pantailan: ilarako aparkaleku batetik ateratzea.

① Norberaren ibilgailua atzera martxarekin engranatuta

② Aparkalekutik ateratzeko proposatutako maniobraren argibidea

③ Aurrerapen-barra, oraindik egin beharreko distantzia adierazteko

Aparkalekutik ateratzea (lerroko aparkatzea)

Beharrezko baldintzak bete behar dira aparkalekutik ateratzea aparkatzen laguntzeko sistemaren bidez ››› **233. orrialdea**.

- Sakatu P tekla infotainment sisteman: > **Asistentes**. Sistema konektatuta dagoenean, infotainment sistemako pantailan P sinboloa nabarmentzen da.
- Piztu aparkalekua utziko duzun galtzadaren aldeari dagokion keinukaria.
- Sartu atzerako martxa, edo, sakatu P tekla infotainment sisteman.
- Askatu bolantea. Kontuan izan honako mezu hau:

`Dir. autom. activa. Vigile su alrededor.`

Zure inguruneari adi begiratzen diozun bitartean, kontuz azeleratu, gehienez 7 km/h-ko (4 mph) abiaduraraino. Aparkalekutik ateratzekoan, sistema direkzioaz arduratzen da **soilik**. **Zuk, gidari gisa, azeleratu egin behar duzu, behar izanez gero enbragatu, martxa aldatu eta frenatu.**

- Atzera egin ParkPilot-en etengabeko seinaleak jo arte; **EDO BESTELA:** atzera egin tresnen koadroaren pantailan aurrera egiteko argibidea agertu arte. Korritze-barrak ››› **154. irudia** ③ ibili behar den distantzia adierazten du.
- Zapaldu balazta-pedala aparkatzen laguntzeko sistemak bolantea biratzeari utzi arte; **EDO:** zapaldu balazta-pedala ikurra tresnen koadroaren pantailan itzali arte.
- Aurrera egin tresnen ParkPilot-en etengabeko seinaleak jo arte; **EDO BESTELA:** aurrera egin tresnen koadroko pantailan atzera martxa sartzeko argibidea agertu arte. Aparkatzen laguntzeko sistemak ibilgailua bideratzen du aurrera eta atzera martxan aparkalekutik atera ahal izan arte.
- Ibilgailua aparkalekutik atera daiteke tresnen koadroren pantailan mezu bat agertzen denean eta, beharrezkoa bada, sistemak soinuseinale bat bidaltzen du. Arduratu direkzioaz, aparkatzen laguntzeko sistemak doitutako biraketa-angeluarekin.
- Trafikoa kontuan izanik, atera aparkalekutik.

Atzera martxarako laguntzailea (Rear View Camera)

Gaiaren aurkezpena

Maletategiko ateko heldulekuan dagoen kamera batek gidariari aparkatzean edo atzera martxan ibiltzean laguntzen dio ››› **193. orrialdea**.

Infotainment sistemako pantailan, proiektatutako orientazio-lerro batzuekin batera bistaratzen da kameraren irudia. Beheko partean, kolpe-leungailuaren parte bat ikusten da, gidariarentzako erreferentzia gisa.

Atzera martxarako laguntzailearen moduak

Ekipamenduaren arabera, modu hauek daude:

- **Zeharka aparkatzea:** atzera martxan aparkatzea, galtzadarekiko perpendikularrean.
- **Atoi bat lotzeko laguntza-funtzioa:** atoi bat lotzen laguntzen du.
- **Zeharkako trafikoa:** zeharkako noranzkoko trafikoa zaintzen da.

Baldintzak

Atzera martxarako laguntzailearekin aparkatzeko, baldintza hauek bete behar dira:

- **15 km/h (9 mph)** inguruko abiadura ez gainditzea.
- Aparkatzeko tartearen zabalera: **ibilgailuaren zabalera + 0,15 metro** (atzerako ispiluak kontuan hartu gabe).

Benetako irudi bat erakusteko, baldintza hauek bete behar dira:

- Maletategiko atea itxita dago.
- Ingurua gainazal laua da.
- Ibilgailuak ez du zama handirik eramaten atzeko partean.

⚠ ADI

- **Atzera martxarako laguntzailearekin ezin da oztopoen distantzia zehaztasunez kalkulatu, ezta sistemaren berezko mugak gainditu ere; beraz, hura erabiliz, istripu edo lesio larriak eragin litezke beharrezko arreta ipini gabe erabiltzen bada. Gidariak ingurunea zaindu behar du beti gidatze segurua bermatzeko.**
- **Kameraren leiarrak ikus-eremua handitu eta eraldatzen du; hortaz, objektuak errealitatearekin bat etorri gabe ikus daitezke pantailan. Halaber, distantzien pertzepzioa eraldatu egiten da.**
- **Pantailaren bereizmenaren edo argiaren ondorioz, gerta liteke objektu batzuk ez agertzea edo lauso ikustea. Kontuz ibili zutoinekin, hesiekin, burdin-hesiekin edo zuhaitz meheekin, pantailan agertu gabe ibilgailua hondatu lezakete eta.**
- **Atzera martxarako laguntzaileak eremu itsuak ditu, eta hor ez dira ikusten ez pertsonak, ez objektuak. Mantendu beti ibilgailuaren ingurua kontrolpean.**
- **Sistema horrek ezin du gidariaren arreta ordezkatu. Gainbegiratu beti aparkatzeko maniobra eta ibilgailuaren ingurua.**
- **Ez galdu trafikoarekiko arreta pantailan erakusten diren irudiei begiratzeagatik.**
- **Irudiak bi dimentsiokoak bakarrik dira. Gerta liteke bidetik ateratzen diren objektuak edo galtzadaren barrunbeak, adibidez, gaizki ikustea edo ez ikustea.**
- **Ibilgailuaren zamak proiektatzen diren orientazio-lerroen irudia aldatzen du. Lerro horien zabalerak behera egiten du zamaren arabera. Jarri arreta inguruari barnealdea edo maletategia zamatuta badaude.**
- **Honako egoera hauetan, objektuak edo beste ibilgailuak beren benetako kokapena baino hurbilago edo urrunago agertzen dira. Jarri arreta berezia:**
  - **Azalera lau batetik malda batera igarotzean eta alderantziz.**
  - **Ibilgailua oso zamatuta badoa.**
  - **Ibilgailua gainazalean ez dauden objektuetara edo beren euskarritik ateratzen diren objektuetara hurbiltzen denean. Kameraren angelutik kanpo gera daitezke atzera martxan gidatzean.**

Oharra

- **Garrantzitsua da kontuz ibiltzea gidariak oraindik sistema ondo ezagutzen ez badu.**
- **Atzera martxarako laguntzailean, erreferentziako lerroak desagertzen dira maletategiko atea irekita dagoenean.**

Konektatu eta deskonektatzea

Atzera martxarako laguntzailea konektatzea

- Sartu atzera martxa.
- **EDO:** infotainment sisteman hautatu > **Asistencia al conductor > Ayuda aparcamiento**.

Atzera martxarako laguntzailea deskonektatzea

- Zirkulatu aurrerantz 15 km/h-ko (9 mph) abiaduran gutxienez.

Pantailan bistaratzea

Sistemaren funtzioak eta adierazpenak ekipamenduaren arabera desberdinak izan daitezke.

Laguntzailearen irudia desberdin ikusten da fabrikan muntatutako atoi-gailua atoi batekin elektrikoki konektatuta dagoenean ››› **309. orrialdea**.

Atzera martxarako laguntzailearen funtzioak eta sinboloak

Atzera martxako laguntzailea konektatuta, doikuntzak egin daitezke funtzio-botoien bidez. Zenbait doikuntza ekipamenduaren arabera bakarrik egin daitezke.

✕ Uneko bistaratzetik irtetea

Zeharkako aparkatzera aldatzea ››› **241. orrialdea**

Atoia krokatzeko laguntza-funtziora aldatzea

Zeharkako trafikora aldatzea

Bistaratzea doitzea: distira, kontrastea eta kolorea

Aparkatzeko laguntzara aldatzea
››› 227. orrialdea

Aparkatzeko laguntzaren bistaratzea erakustea/ezkutatzea

Orientazio-lerroak

Lerro horizontal berdeak: ibilgailuaren luzapena.

Lerro horiak: ibilgailuaren ibilbidea biraketa-angeluaren arabera.

Atoia krokatzeko laguntza-funtzioa

Fabrikatik muntatutako atoi-gailua duten ibilgailuetan, funtzio horrekin, ibilgailua atoi baten lantzara hurbil daiteke.

Infotainment-sisteman, lerro osagarriak erakusten dira.

Lerro berdeak: atoi-gailurako distantzia. Lerroen arteko distantzia 0,30 m ingurukoa da.

Lerro horia: bolantearen biraketaren arabera aldez aurretik kalkulatutako atoi-gailuaren norabidea.

Zeharkako trafikoa

Bistaratze horrek ibilgailuaren atzealdeko trafikoa zaintzen laguntzen du, eta, adibidez, garajeetatik edo irteera estuetatik irteteko erabil daiteke.

Zeharka aparkatzea



155. irudia Infotainment sistemako pantailan bistaratzea: atzera martxarako laguntzailearekin aparkatzea.

››› **155. irudia**-ren legenda:

- A Aparkalekua bilatzea.
- B Aukeratutako aparkalekura joatea
- C Ibilgailua aparkalekuaren barruan erdiratzea
- 1 Galtzada
- 2 Aparkatzeko tokia
- 3 Aparkatzeko tokiaren alboko muga
- 4 Aparkatzeko tokiaren atzeko muga

Aparkatzea

- Infotainment sisteman hautatu > **Asistencia al conductor > Ayuda aparcamiento** aukeratu duzun aparkatzeko lekuaren aurretik pasatu baino lehenago.
- Atzera martxako laguntzailea konektatuta, eta funtzionatzeko baldintzetan, sakatu funtzio-botoia.
- Jarri ibilgailua aparkalekuaren aurrean ››› **155. irudia** 2 A.
- Joan atzera, bolantea biratuz, lerro horiek aparkatzeko tokian sartzeko moduan. Las líneas verdes y amarillas tienen que coincidir con las líneas de delimitación laterales 3 B.
- Gelditu ibilgailua, lerro gorria atzeko mugaraino 4 C heldutakoan.

Arazoak konpontzea

Sistemak itxarondakotik desberdina den modu batera jokatzen du

Zenbait arrazoi egon daitezke:

- Kamera zikin dago ››› **386. orrialdea**. Zikintasunez eta elurraz gain, kameraren ikuspena okerragotu daiteke, detergente hondarrengatik, edo estalduren batengatik.
- Sistemaren baldintzak bete behar dira ››› **239. orrialdea**.
- Kamera urez beterik dago.

- Fabrikan muntatutako atoi-gailua atoi bati konektatuta dago elektrikoki ››› 309. orrialdea.
- Ibilgailuak kalteren bat du kameraren inguruan, adibidez, aparkatzean emandako kolperen baten ondorioz.
- Kameraren ikuseremua osagarriren batek blokeatzen du, adibidez, bizikleta-euskarri batek.
- Aldaketak egin dira pinturan kameraren inguruan, edo egiturazko aldaketak egin dira, esaterako, errodaje-trenean.

Ikuspenik gabeko kamera, matxura-mezua, sistema deskonektatzen da

- Garbitu kamera edo kendu egon daitezkeen itsasgarriak edo osagarriak ››› 386. orrialdea.
- Begiratu ikusten den kalterik ba ote dagoen.

Konponbide posiblea

- Sistema denboraldi batean deskonektatu.
- Begiratu aurretik adierazitako arrazoietako bat den.
- Arazoaren jatorria moldatu eta gero, sistema berriro konekta dezakezu.
- Hala ere, sistemak ustekabean jokatzen badu, eskatu tailer espezializatu bati hori azter dezan.

Ikuspen periferikoko sistema (Top View Camera)

Gaiaren aurkezpena

4 kamera erabiliz, sistemak infotainment sistemako pantailan agertzen den irudikapen bat sortzen du. Kamerak erradiadorearen parrillan, kanpoko atzerako ispiluetan eta maletategiko atean kokatuta daude.

Ikuspen periferikoko sistemaren funtzioak eta irudikapenak aldatu daitezke, kontuan hartuta ibilgailuak ParkPilot sistema duen ala ez.

⚠ ADI

Kamera horien irudiekin ezin da oztopoen (pertsonak, ibilgailuak, etab.) distantzia zehaztasunez kalkulatu, beraz, erabiltzen badira, istripu edo lesio larriak eragin litezke.

- **Kameren leiarrek ikus-eremua handitu eta eraldatzen dute eta objektuak pantailan modu desberdinean ikusten dira, zehaztasunik gabe.**
- **Pantailaren bereizmenaren ondorioz edo argi-baldintzak nahikoak ez direnean, objektu batzuk ezin dira erakutsi, edo zehaztu gabe soilik bistaratzen dira, adibidez, zutoin edo hesi meheak.**
- **Kamerek pertsona edo objekturik hauteman ezin dituzten gune itsuak dituzte.**

⚠ ADI

Ikusmen periferikoko sistemak (Top View Camera) barne hartzen duen teknologia adimendunak ezin ditu lege fisikoek ezarritako mugak gainditu, eta sistemaren mugen artean bakarrik funtzionatzen du. Ikuspen periferikoko sistemaren erabilerak ematen duen erosotasunak ez du segurtasuna arriskuan jarri dezakeen inolako erabakirik hartzea eragin behar. Modu arduragabean edo oharkabean erabiltzen bada, istripuak edo lesio larriak gerta daitezke. Sistema horrek ezin du gidariaren arreta ordezkatu.

- **Egokitu gidatze-abiadura eta -estiloa klimatologia, ikuspen, errepide eta trafikoaren baldintzetara.**
- **Ez galdu trafikoarekiko arreta pantailan erakusten diren irudiei begiratzeagatik.**
- **Eduki beti ibilgailuaren ingurunea kontrolpean, kamerek ez baitituzte ume txikiak, animaliak edo objektu batzuk egoera guztietan hautematen.**
- **Nekez gertatzekoa da sistemak gune guztiak argitasunez irudikatu ezin izatea.**

KONTUZ

- **Pantailan agertzen diren kameraren irudiak dimentsio bikoak dira soilik. Espazio-sakonera falta dela eta, bidetik ateratzen diren objektuak edo galtzadaren barrunbeak, adibidez, gaizki ikusten dira edo ez dira ikusten.**
- **Baldintza zehatzetan, kamerak ez ditu ibilgailua hondatu dezaketen objektu batzuk hautematen, adibidez, barrak, hesiak, zutoinak edo zuhaitz meheak.**
- **Sistemak lerroak eta kaxa osagarriak erakusten ditu ibilgailuaren ingurua kontuan hartu gabe, ez ditu objektuak hautematen. Gidariak berak ebaluatu behar du ibilgailua aparkalekuan sartzen den ala ez.**

Ikuspen periferikoko sistema



156. irudia Ikuspen periferikoko sistemaren bistaratzea: aireko perspektiba.

Lau ikuspen desberdinen artean aukera daiteke ››› **156. irudia**:

Ⓐ Aurreko kameraren gunea

Ⓑ Eskuineko kameraren gunea

Ⓒ Atzeko kameraren gunea

Ⓓ Ezkerreko kameraren gunea

Funtzio-botoiak:

Oraingo irudikapenetik atera.

Bistaratzea doitu: distira, kontrastea eta kolorea.

Ekipamenduaren arabera: ParkPilot-en soinua konektatu eta deskonektatu.

Kamera guztietako irudiak konbinatuz sortzen da airetiko perspektiba ››› **156. irudia**. Airetiko perspektiba aukeratzeko, ibilgailuaren gainean sakatu behar da, eremuaren barruan.

Aurreko eta atzeko kameretako ikuspegien artean aldatzen du sistemak, martxaren noranzkoaren arabera.

Airetiko perspektibaren edo airetiko perspektiba murriztuaren eremu desberdinetan ››› **156. irudia** Ⓐ-tik Ⓓ-ra sakatuz, dagokion ikuspena aukera eta ezarri daiteke (laranjaz nabarmenduko da).

Ikuspen periferikoko sistema erabiltzeko beharrezko baldintzak

- Ateek eta maletategiko ateak itxita egon behar dute.
- Irudiak fidagarria eta argia izan behar du. Beraz, kameraren lenteak garbi egon beharko luke, adibidez.
- Ibilgailuaren inguruko gune osoa argitasunez bistaratu behar da.
- Aparkatzeko edo maniobrak egiteko eremuak laua izan beharko luke.
- Ibilgailuak **ez** du atzeko partean zama handirik izan behar.
- Gidariak sistema ondo ezagutu behar du.
- Ibilgailuak ez du kameren gunean kalterik izan behar. Tailer espezializatu batek sistema aztertu beharko du, kameren posizioa edo muntatzeko angelua aldatu bada, adibidez, atzealdean kolpe bat hartu ostean.

Zehaztasunak

Ikuspen periferikoko sistemaren kamerak dimentsio bikoak dira soilik. Espazio-sakonera falta dela eta, oso zaila edo ezinezkoa da pantailan bereiztea lurzoruan egon daitezkeen sakonuneak, lurzorutik ateratzen diren objektuak edo beste ibilgailuetatik ateratzen diren piezak.

Objektuak edo beste ibilgailuak beren benetako kokapena baino hurbilago edo urrunago erakusten diren egoerak:

- Azalera lau batetik malda batera igarotzean.
- Malda batetik azalera lau batera igarotzean.
- Ibilgailuak zama handia eramaten duenean atzeko partean.
- Ibilgailua ateratzen diren objektuetara hurbiltzen denean. Objektu hauek kameren ikuspen-angelutik kanpo geratu daitezke.

Atoiarekin gidatzea

Ikuspen periferikoko sistemak atzeko kameraren eremuan ezkutatzen ditu orientazio-linea lagungarri guztiak, fabrikan muntatutako atoigailua atoi batean elektrikoki konektatuta dagoenean. ››› 309. orrialdea.

Oharra

Sisteman eta bere funtzioetan trebatzeko, ikuspen periferikoko sistemarekin trafiko askorik ez dagoen toki batean edo aparkaleku batean praktikatzea gomendatzen du CUPRAk.

Konektatu eta deskonektatzea

Konektatu

- Sartu atzera martxa.
- **EDO:** infotainment sisteman hautatu **> Asistentes > Asistente de aparcamiento > Ayuda aparcamiento**.

Deskonektatu

- Zirkulatu aurrerantz 15 km/h-ko (9 mph) abiaduran gutxienez.
- **EDO:** sakatu ✕ funtzio-botoia.

Ikuspen periferikoko sistemaren bistaratzeak (moduak)

Erakusten diren lerro gorriek gutxi gorabehera 40 cm-ko distantzia adierazten dute ibilgailuarekiko.

Aireko perspektibaren bistak (txori-begizko ikuspegia)

Modu nagusia:

Ibilgailua eta hurbileko ingurua irudikatzen da, goitik ikusita. Ekipamenduaren arabera, ParkPilot-en ibilbidearen bistaratzea ere erakuts daiteke.

Aurreko kameraren bistak (aurreko ikuspegia)

Zeharkako trafikoa.

Bistaratze horrek ibilgailuaren ezkerreko, aurreko eta eskuineko trafikoa zaintzen laguntzen du, eta, adibidez, garajeetatik edo irteera estuetatik irteteko erabil daiteke.

Zeharka aparkatzea.

Ibilgailuaren aurreko gunea erakusten da. Laguntza moduan, orientazio-lerroak erakusten dira.

Alboko kameraren bistak (alboko ikuspegia)

Eskuinaldea eta ezkerraldea.

Zuzenean ibilgailuaren alboan dauden guneak irudikatzen dira, goitik ikusita, egon daitezkeen oztopoak zehaztasunez inguratu ahal izateko.

Atzeko kameraren bistak (atzeko ikuspegia)

Zeharka aparkatzea.

Ibilgailuaren atzeko gunea erakusten da. Orientazio moduan, lerro osagarriak erakusten dira.

Atoi bat lotzeko laguntzaren funtzioa.

Fabrikatik muntatutako atoi-gailua duten ibilgailuetan, funtzio horrekin, ibilgailua atoi baten lantzara hurbil daiteke. Infotainment-sisteman, lerro osagarriak erakusten dira.
Lerro berdeak: atoi-gailurako distantzia. Lerroen arteko distantzia 0,30 m inguru-koa da.
Lerro horia: bolantearen biraketaren arabera aldez aurretik kalkulatutako atoi-gailuaren norabidea.

Zeharkako trafikoa.

Bistaratze horri esker, trafikoa ibilgailuaren ezkerraldetik, atzetik eta eskuinaldetik azter daiteke, eta, esaterako, garajeetatik edo irteera estuetatik ateratzeko erabil daiteke.

Desaparkatzeko laguntzailea (RCTA)

Funtzionamendua

157. irudia Desaparkatzeko laguntzailearen irudikapen eskematikoa: desaparkatzen ari den ibilgailuaren inguruan zaindutako gunea.

Desaparkatzeko laguntzaileak, atzeko kolpeleungailuan ››› **192. orrialdea** kokatzen diren radar-sentsoreen bitartez, ibilgailuaren atzealdeko zeharkako trafikoa gainbegiratzen du, zeharkako aparkaleku batetik atzera martxan irtetean edo maniobrak egitean, adibidez, ikuspen txarra dagoen egoeretan.

Sistemak ibilgailuaren atzealdetik bideko ibilgailu garrantzitsu bat hurbiltzen dela antzematen duenean ››› **157. irudia**, soinu-seinale bat entzun daiteke, horren garrantzia badauka.

Soinu-seinaleaz gain, infotainment sistemaren pantailan, ikus-seinale bat agertzen da gidaria informatzeko. Seinale hori gorri koloreko zerrenda moduan agertzen da ibilgailuaren irudiko atzeko partean, infotainment sistemaren pantailan. Zerrenda horrek zeharkako trafikoa ibilgailura zein aldetik hurbiltzen den erakusten du [1].

Esku-hartze automatikoa balaztan, kalteak murrizteko

››› **226. orrialdea**.

Konektatu eta deskonektatzea

Desaparkatzeko laguntzailea aktiba eta desaktiba egin daiteke **Asistentes** menuan sartuz, infotainment sisteman. Park Assist-eko **Ajustes** menuan ere aurki daiteke.

Horrez gain, aktiba eta desaktiba daiteke tresnen koadroko **Asistentes** menuan sartuz.

Sisteman egindako azken doikuntzak aktibo irauten du ibilgailua piztean.

Atoiarekin gidatzea

Desaparkatzeko laguntzailea automatikoki desaktibatzen da, eta ezin da aktibatu fabrikan muntatutako atoi-krokadura elektrikoki konektatuta badago atoi edo antzeko gailu batekin. Gidariak abian jarri bezain laster, mezu bat agertuko da tresnen koadroko pantailan, laguntzailea desaktibatuta dagoela adierazteko.

Atoia ibilgailutik askatu ondoren, laguntzailea atoia elektrikoki konektatu zen unearen aurreko hasierako egoerara itzuliko da.

Atoirako krokadura ez bada fabrikatik muntatua, desaparkatzeko-laguntzailea eskuz desaktibatu behar da atoiarekin zirkulatzen denean.

ADI

Desaparkatzeko laguntzaileak dakarren teknologia adimentsuak ezin ditu lege fisikoek ezarritako mugak gainditu eta sistemaren mugen barruan soilik funtzionatzen du. Aparkatzeko sistemaren laguntza-funtzioak ez du inolako arriskua hartzea eragin behar. Sistema horrek ezin du gidariaren arreta ordezkatu.

- **Ez erabili sistema inoiz ikuspen mugatua dagoenean edo trafiko-egoera nahasietan, adibidez, trafiko handiko bideetan edo errei ugari zeharkatzeko.**

[1] Ibilgailuak aparkatzeko sistema badu soilik erakusten da.

- **Eduki beti ibilgailuaren ingurunea kontrolpean, sistemak ez baititu beti bizikletak eta oinezkoak, besteak beste, segurtasunez hautematen.**
- **Desaparkatzeko laguntzaileak ez du beti berak bakarrik ibilgailua geldiarazten, guztiz gelditu arte.**

Ateak irekitzeko laguntzailea (Exit Assist)

Funtzionamendua



158. irudia Adibide grafikoa

159. irudia Atea: oharpen-argia

Ateak irekitzeko laguntzaileak (Exit Assist) ibilgailua geldituta dagoenean atea irekitzean talka bat egon daitekeela ohartarazi die bidaiariei.

Sistemak, bere mugen barruan, ibilgailuaren atzeko eta alboko ingurunea ikuskatzen du, atzeko sentsoreen bidez ››› **192. orrialdea**. Mugitzen eta atzetik hurbiltzen diren objektuak, adibidez, autoak, antzematen dira ››› **158. irudia**.

Atea irekitzean egoera kritikoa antzematen bada, seinale akustiko baten bidez abisatuko da dagokion aldeko atearen bozgorailuan ››› **159. irudia**. Horrez gain, dagokion aldeko ateko errei-aldaketarako laguntzailearen kontrol-argiak kliskatuko du. Atea jada ireki bada eta beste bide-erabiltzaile bat egoera kritikoan detektatu bada, dagokion aldeko errei-aldaketarako laguntzailearen kontrol-argia etengabe argituko da.

Ateak irekitzeko laguntzailearen seinalearen distira ezin da doitu.

Ibilgailura lehen aldiz sartu nahi denean, ateak itxita eta blokeatuta daudela, funtzioa erabilgarri egongo da edozein atetako lehen irekieraren ondorengo 3 minutuetan. Funtzioak erabilgarri jarraituko du, baldin eta ibilgailuak pizgailua konektatuta badu eta mugimenduan ez badago.

Pizgailua deskonektatu ondoren, funtzioak 3 minutu inguruz jarraituko du erabilgarri. Denbora-tarte hori igarota, kontrol-argiak argituko dira funtzioa desaktibatu dela adierazteko.

Konektatu eta deskonektatzea

Ateak irekitzeko laguntzailea aktiba eta desaktiba daiteke infotainment sistemaren **Asistentes** menuan sartuz. Horrez gain, Park Assistaren **Ajustes** menuan aurki daiteke.

Sisteman egindako azken doikuntzak aktibo irauten du ibilgailua piztean.

Atoiarekin gidatzea

Ateak irekitzeko laguntzailea automatikoki desaktibatzen da eta ezin da aktibatu fabrikan muntatutako atoi-krokadura elektrikoki konektatuta badago atoi edo antzeko gailu batekin.

Atoia ibilgailutik askatu ondoren, laguntzailea atoia elektrikoki konektatu zen unearen aurreko hasierako egoerara itzuliko da.

Atoi-krokadura ez bada fabrikatik muntatua, ateak irekitzeko laguntzailea eskuz desaktibatu behar da atoiarekin zirkulatzen denean.

⚠ ADI

- **Arreta osoa jarri beti trafikoari eta ibilgailuaren inguruneari. Ateak irekitzeko laguntzaileak (Exit Assist) ezin du okupatzaileen arreta ordezkatu. Ateak irekitzean eta ibilgailua uztean, erantzukizuna ibilgailuko bidaiariena da beti.**
- **Ateak irekitzeko laguntzaileak (Exit Assist) etenik gabe funtzionatzen du, baldin eta ibilgailuaren kontaktua piztuta badago. Bestela, sistema desaktibatu egiten da, kontrolargiak labur piztuz.**
- **Gerta daiteke trafiko-egoera behar bezala ez interpretatzea eta hurbiltzen diren objektu guztiak ezin ohartaraztea, adibidez, oinezkoak. Kontrolatu trafikoa eta ibilgailuaren ingurunea ikusmenarekin beti.**

⚠ ADI

Ateak irekitzeko laguntzailea (Exit Assist) sistemaren mugen mende dago, eta ezin du kasu guztietan hur-hurreko talkaren berri eman:

- **Zure ibilgailua aparkatzeko zuloan gehiegi sartuta badago eta ondoko ibilgailuek estaltzen badute.**
- **Egoera jakin batzuetan, hurbiltzen diren objektuak edo pertsonak, adibidez bizikletaz edo patinetez, ez dira detektatzen.**
- **Sistemak gelditutako objektuen aurrean ez du erantzuten.**

Ekipamendu praktikoa

Objektu-ontzia

Gaiaren aurkezpena

Objektu-ontzia objektu txiki eta arinak uzteko bakarrik erabili.

⚠ ADI

Ibilgailuan lotu gabe doazen gauzak bidaiarilekuan barrena jaurti daitezke balaztadetan edo bat-bateko maniobretan. Horrek lesio larriak eta ibilgailuaren kontrola galtzea eragin dezake.

- **Ez ezazu eraman animaliarik, objektu gogor edo zorrotzik, edo pisutsurik ibilgailuko objektu-ontzi irekietan, tresnen taularen gainean edo atzeko eserlekuen atzeko estalkiaren gainean, ezta zure jantzietan edo bidaiari-lekuan daramatzazun poltsetan ere.**
- **Objektu-ontziak itxita eraman ibilgailua martxan badago.**
- **Ez eseki 2,5 kg (5,5 lb inguru) baino gehiago pisatzen duten jantziak ibilgailuaren zintzilikarioetan. Inoiz ez utzi objektu astunak, gogorrak edo zorrotzak esekitako jantzietan.**

⚠ ADI

Ibilgailuan metxeroak uzten badira, kalteak eragin edo ezustekoan pitz daitezke. Horrek erredura larriak eta kalteak eragin ditzake ibilgailuan.

- **Eserlekua doitu aurretik, ziurtatu eserlekuaren pieza mugikorren zonan metxerorik ez dagoela.**
- **Objektu-ontzia itxi aurretik, egiaztatu ixteko zonan metxerorik ez dagoela.**
- **Inoiz ez utzi metxerorik objektu-ontzi batean edo ibilgailuaren beste gainazal batean, sua har baitezake gainazal horiek har dezaketen beroaren ondorioz, udan gehienbat.**

KONTUZ

- **Ez gorde objekturik, elikagairik edo beroarekin zein hotzarekin honda daitekeen sendagairik bidaiari-lekuan. Beroak eta hotzak haiek hondatu ditzakete edo erabilezin bihurtu.**
- **Ibilgailuan utzitako material gardenez osatutako objektuek, besteak beste, betaurrekoek, lupek edo beiran jarritako bentosa gardenek eguzkiaren argia kontzentratu eta ibilgailuan kalteak eragin ditzakete.**

Gordetegia



160. irudia Gidarikidearen aldean: gordetegia.

Ireki eta itxi gordetegia

Irekitzea: Tira egin heldulekuari ››› **160. irudia** eta ireki gordetegia.

Ixtea: Sakatu gordetegia gorantz.

⚠ ADI

Gordetegia irekita uzten bada, istripua, balaztada edo bat-bateko maniobra gertatuz gero, lesio larriak gerta daitezke.

- **Gordetegiak itxita egon behar du abian zoazenean.**

Edari-euskarria



161. irudia Atzeko erdiko beso-euskarrian: edari-ontzia.

Gidariaren zein gidarikidearen ateetako objektu-ontziek botila-euskarri bana dute.

Aurreko edari-euskarria

Erdiko kontsolan bi baso-azpiko daude.

Atzeko erdiko beso-euskarriko edari-euskarria

Erabilera: Erdiko beso-euskarriaren azpian ››› **161. irudia**.

Edari-euskarria erabiltzen ez duzunean, jaso berriz ere edari-euskarria.

⚠ ADI

Edari-euskarriak gaizki erabiltzeak lesioak eragin ditzake.

- **Inoiz ez jarri edari berorik edari-euskarrian. Balaztada edo istripua gertatuz gero, edari-euskarrian dauden edari beroak erori eta erredurak eragin ditzakete.**
- **Saihestu botilak edo bestelako objektuak gidariaren oinazpikora erortzea pedalak zapaltzea oztopatu dezakete eta.**
- **Ez jarri inoiz edaririk, janaririk edo beste objektu astunik jarri edari-euskarrian. Objektu astun horiek bidaiari-lekutik jaurti daitezke istripua gertatuz gero, eta lesio larriak eragin.**

⚠ ADI

Itxitako botilak ibilgailuan lehertu daitezke beroaren edo hotzaren ondorioz.

- **Ez utzi inoiz botila itxirik ibilgailuan tenperatura oso altua edo oso txikia denean.**

KONTUZ

Abian, ez utzi inoiz irekita dagoen edari-euskarriko ontzirik. Edaria isuriko balitz (balaztada baten ondorioz, adibidez), ibilgailuan eta sistema elektrikoan kalteak gerta litezke.

Oharra

Edari-euskarriko barruko elementuak aska daitezke haiek garbitzeko.

Objektu-ontzia aurreko eserlekuen azpian

162. irudia Aurreko eserlekuen azpiko objektu-ontzia.

Irekitzea: Sakatu tiraderaren heldulekua eta tira egin tiraderatik kanporantz.

Ixtea: Bultzatu eserlekuaren azpiko tiraderari ahokatzen den arte.

Ekipamenduaren arabera, gidariaren eserlekuaren azpian liburuak gordetzeko lekua egon daiteke (jarraibide-eskuliburuaren tamainakoa) objektu-ontziaren ordez.

⚠ ADI

Tiradera irekita uzten baduzu, pedalak zapaltzea eragotzi dezake. Horrek istripuak eta lesio larriak eragin ditzake.

- **Tiradera beti itxita utzi martxan zehar. Bestela, tiraderak eta barrutik atera daitezkeen objektuak gidariaren oinazpikora atera daitezke eta pedalak zapaltzea eragotzi.**

ⓘ KONTUZ

Tiraderan gehienez 1,5 kg-ko zama jar daiteke.

Beste objektu-ontzi batzuk

Ibilgailuaren beste leku batzuetan, objektu-ontzi, konpartimentu eta euskarri gehiago aurkituko dituzu:

- Erdiko kontsolan.
- Gordetegiaren goialdean. Zama ez da 1,2 kg-tik gorakoa izango.
- Atzeko plazetan, eserlekuen ezker eta eskuinaldean, beste objektu-ontzi batzuk daude.
- Aurreko eserlekuen bizkarraldeetan, objektu-ontzietako poltsak.

Ateen erdiko muntagetan eta sabaiko atzeko heldulekuetan, esekitoki batzuk daude.

⚠ ADI

Esekita dauden janzkiek gidariari ikusmena murriztu ahal izango diote, eta horrek istripuak eta lesio larriak eragin ahal izango ditu.

- **Jantziak gidariari ikusmena ez kentzeko moduan eseki beti.**
- **Ibilgailuaren esekilekuetan, jantzi arinak bakarrik eseki. Inoiz ez utzi objektu astunak, gogorrak edo zorrotzak esekitako jantzietan.**
- **Buruaren pareko airbagen eraginkortasuna ez murrizteko, arropa-pertxarik ez erabiltzea gomendatzen da.**

ⓘ KONTUZ

Ez itzazu aurreko eserlekuetako bizkarraldeetako objektu handiegiak poltsetan jarri (adibidez, botilak) edo ertz zorrotzeko objektuak; izan ere, poltsak eta tapiza hondatzeko arriskua dago.

Korronte-harguneak

Gaiaren aurkezpena

Ibilgailuaren korronte-hargunetara konekta daitezke gailu elektrikoak.

Gailuek egoera ezin hobean egon beharko dute. Ez erabili gailu akastunik.

12 volteko korronte-harguneak pizgailua konektatuta dagoenean soilik funtzionatzen du.

⚠ ADI

Korronte-harguneak eta gailu elektrikoak modu desegokian erabiltzeak sutea eta lesio larriak eragin ditzake.

- **Inoiz ez utzi haur bati zaintzarik gabe ibilgailuan jolasean. Korronte-harguneak eta horiei lotutako gailuak pizgailua konektatuta dagoenean erabil daitezke.**
- **Gailu elektrikoak gehiegi berotzen badira, itzali itzazu berehala eta deskonektatu saretik.**

ⓘ KONTUZ

- **Sistema elektrikoan matxurak ekiditeko, ez konektatu 12 volteko korronte-hargunera korrontea ematen duten gailu elektrikorik, hala nola eguzki-panelak edo bateria kargagailuak, 12 volteko bateria kargatzeko.**
- **Erabili bateragarritasun elektromagnetikoaren arloan indarrean dauden zuzentarauak betetzen dituzten gailu elektrikoak soilik.**
- **Tentsio-gorabeherek kalterik eragin ez dezaten, pizgailua konektatu eta deskonektatu aurretik kendu entxufetik gailu elektrikoak.**
- **Ez konektatu inoiz 12 volteko korronte-hargune batera adierazitakoa baino potentzia handiagoa kontsumitzen duten gailu elektrikorik. Gehieneko kontsumo-potentzia gainditzen bada, ibilgailuaren sistema elektrikoa honda daiteke.**
- **Kontuan izan gailu elektrikoen gidaliburua!**

Oharra

- **12 volteko bateria deskargatuko da gailu elektrikorik konektatua badaude, motorra geldirik dagoela.**
- **Isolamendurik gabeko gailuek interferentziak sor ditzakete irratian, infotainment sisteman eta ibilgailuaren sistema elektronikoan.**

Ibilgailuaren korronte-harguneak



163. irudia Ibilgailuaren 12 volteko korronte-harguneak.

>>> **163. irudia**

① 12 volteko korronte-harguneak aurrealdeko beso-euskarriaren barruan.

② 12 volteko USB korronte-harguneak kontsolaren atzealdean, aurreko eserlekuen artean.

Ziurtatu korronte-harguneen gehieneko potentzia-kontsumoa ez duzula gainditzen. Gailuen potentzia-kontsumoa horien modeloplakan agertzen da.

Ibilgailuaren 12 volteko korronte-hargune guztien potentzia jarraitua 120 wattekoa da guztira.

Bi gailu elektriko edo gehiago aldi berean konektatzen direnean, ziurtatu guztien kontsumo osoa ez dela inoiz 190 wattetik gorakoa.

USB korronte-harguneak

Ekipamendu eta herrialdearen arabera, ibilgailuak USB konektoreak ere izan ditzake, **soilik karga-funtziorako edo korronte-hargune** >>> **163. irudia** ②.

USB sarrera horiek kontsolaren atzealdean daude, aurreko eserlekuen artean. Konektore horiek 10,5 W-ra arteko gehienezko potentziarekin egin dezakete lan ataka bakoitzeko.

KONTUZ

12 volteko korronte-hargunea potentzia maximoan erabiltzen bada, adierazitakoa baino denbora gehiagoz, fusiblea urtu daiteke.

- **Ez erabili inoiz 12 volteko korronte-hargunea potentzia maximoan 10 minutuz baino gehiagoz.**
- **Potentzia maximoa erabiliz gero, erabili 12 volteko korronte-hargune bakarra.**

230 volteko korronte-hargunea



164. irudia Maletategian: 230 volteko korronte-hargunea.

Motorra martxan dagoela, konektore bat entxufatzen denean automatikoki aktibatzen da korronte-hargunea. Nahikoa energia badago erabilgarri, hala badagokio, korronte-hargunea ere erabil daiteke motorra itzalita >>> ⚠.

Potentziaren gehieneko kontsumoa 150 watt da (300 watt - gehienez 2 minutu).

Gailu elektriko bat konektatzea: Ireki tapa eta entxufatu konektorea korronte-hargunean barruraino, haurrentzat txertatuta duen segurtagailua desblokeatzeko. Harguneak haurrentzako segurtagailua desblokeatuta badago bakarrik ematen du korrontea.

LED adierazlea korronte-hargunean ››› 164. irudia (gezia)

Argi berde iraunkorra:

- Haurrentzako segurtagailua desblokeatuta dago. Korronte-hargunea erabiltzeko prest dago.

Aldizkako argi gorria:

- Arazoren bat da; esaterako, gainberotzea-rengatik edo gainkorrontearengatik deskonektatu da.

Gainberotzea dela eta deskonektatzea

Tenperaturak balio jakin bat gainditzen badu, 230 volteko korronte-hargunearen bihurgailua automatikoki deskonektatzen da. Deskonektatzeak gainberotzea saihesten du konektatutako gailuen potentzia-kontsumoa gehiegizkoa bada, edo giro-tenperatura oso altua bada. 230 volteko korronte-hargunea berriro erabil daiteke hozten denean. Horretarako, lehendabizi, konektorea konektatuta dagoen gailutik desentxufatu behar da, eta ondoren, berriro entxufatu. Horrela, gailu elektrikoa ez da nahi gabe berriro piztuko.

⚠ ADI

Sistema elektrikoa goi-tentsioan dago!

- **Ez bota likidorik korronte-hargunean.**
- **Ez entxufatu egokigailu edo luzagarririk 230 volteko korronte-hargunean. Bestela, han dagoen haurrentzako segurtagailuak desblokeatu eta korronte-hargunea ibiliko da.**
- **Ez sartu objektu eroalerik (jostorratza, esaterako) 230 volteko korronte-hargunean.**

KONTUZ

230 volteko korronte-hargunea:

- **Ez utzi gailu edo konektore astunegirik (esaterako, korronte-elikagailua) korronte-hargunetik zuzenean esekita.**
- **Ez konektatu neon-lanpararik.**
- **Konektatu korronte-hargunean haren tentsioarekin bat datorren tentsioa duten aparatuak soilik.**
- **Gainkargarengatiko deskonexioaren funtzioak abiatzeko korronte handia behar duten gailu elektrikoak piztea ekiditen du. Kasu horretan, desakoplatu gailuaren elikagailua eta saiatu berriro konektatzen 10 bat segundoren buruan.**

Oharra

Gerta daiteke zenbait gailutan zuzen ez ibiltzea 230 volteko korronte-harguneetara konektatzean, potentzia faltarengatik (wattak).

Datu-igorpena

CUPRA CONNECT

Gaiaren aurkezpena

Erabiltzeko, CUPRA CONNECT[1] online aktibatu behar da lehenik, SEAT, S.A.rekin CONNECTen kontratu bat itxiz, eta herrialdearen araberako aldi baterako erabilera-mugari lotuta dago.

CUPRAk eskainitako CUPRA CONNECTen zerbitzuen zorroak nahiz banakako zerbitzuak aldatu, baliogabetu, desaktibatu, berriro aktibatu, berriro izendatu eta handitu daitezke, baita aldez aurretik jakinarazi gabe ere.

myCUPRA.com helbidean erabiltzaile-kontua sor eta zerbitzuen deskribapena eta bestelako informazioa kontsulta dezakezu.

CUPRA CONNECTen zerbitzu eta zerbitzu-zorro guztien gauzatzea eta erabilgarritasuna herrialdearen arabera alda daiteke, baita ibilgailuaren eta ekipamenduaren arabera ere.

CUPRA CONNECTen ahotsa antzemateko eta bilatzeko teknologiak ez du hitz guztietarako emaitzarik antzematen edo eskaintzen.

CUPRA CONNECTen zerbitzu batzuentzat nahitaezkoa da erregistratzea eta beste batzuentzat ez.

Zerbitzuen deskribapena

CUPRA CONNECT zerbitzuak gauzatu aurretik, irakurri eta kontuan hartu zerbitzuei dagokien deskribapena. Deskribapenak aldizka egunératzen dira eta online erabilgarri daude hemen: myCUPRA.com.

- Erabili beti dagokion zerbitzuen deskribapenaren bertsiorik eguneratuena.

⚠ ADI

Telefonia mugikorreko eta GPS estaldura nahikorik ez dagoen eremuetan ez da larrialdi deirik edo telefono deirik egingo. Halaber, ezin da daturik transmititu.

- **Ahal den neurrian aldatu kokapena.**

ⓘ KONTUZ

Ibilgailuak kalteak izan ditzake CUPRAren kontrolez kanpoko faktoreengatik. Hauek bereziki izan daitezke:

- **Telefono mugikorrak behar ez bezala erabiltzea.**
- **Datuak transmisioan galtzea.**
- **Hirugarrenen aplikazio desegokiak edo akastunak.**
- **Software gaiztoa datu-euskarrietan, ordenagailuetan, tabletetan edo telefonia mugikorreko gailuetan.**

Zerbitzu-zorroa

Hemen erakusten den zerbitzuen hasierako esleipenak ahalik eta bolumen handiena adierazten du. Posible den gehieneko bolumena ibilgailu-modelo gutxi batzuetan baino ez dago erabilgarri. Ibilgailuaren bizitza baliagarrian, hemen erakusten den esleipena alda daiteke.

Zerbitzuen kudeaketa infotainment sisteman aktibatu ondoren, ibilgailuak zerbitzurik duen eta zeintzuk diren kontsulta ditzakezu ››› **257**. **orrialdea**.

Herrialde batzuetan eta kontratua berrituz gero, eskainitako zerbitzuak hemen adierazten den bestelako modu batean konbinatuta egon daiteke. Ibilgailuaren ekoizpen-urtearen arabera ere alda daitezke. Aipatutako zerbitzuak **CUPRA CONNECT Gen3** (hirugarren belaunaldia) zerbitzuari dagozkio.

Aktibatu behar ez diren CUPRA CONNECTen zerbitzuak eta funtzioak

Hurrengo zerbitzuek CUPRA CONNECT aktibatu gabe ere funtzionatzen dute:

- Larrialdietarako dei-zerbitzu publikoa.
- Pribatutasun-modua.
- Legezko oharra.
- CUPRA CONNECT aktibatzea.

[1] Ez dago eskuragarri merkatu guztietan.

- Modu pribatua (zerbitzuak desaktibatzea).
- Erabiltzailea ezabatzea / fabrika-doikuntzak berrezartzea.

CUPRA CONNECTen zerbitzuak

Barne dauden zerbitzuak hauek dira:

- Larrialdi-deia publikoa
- Errepideko laguntzarako deia
- Bezeroarentzako arreta
- Zerbitzu-hitzorduak planifikatzea
- Sistema eguneratzea linean
- Pertsonalizatzea
- CUPRA CONNECT aktibatzea
- Modu pribatua (zerbitzuak desaktibatzea)
- Erabiltzailea ezabatzea / fabrika-doikuntzak berrezartzea
- Urrutiko berogailu independentea
- Urrutiko irekitzea
- Klaxona eta keinukariak
- Ibilgailuaren egoera, ateak eta argiak barne
- Bidaiaren inguruko datuak
- Ibilgailuaren egoerari buruzko txostena
- Lapurreten aurkako alarmaren jakinarazpena
- Zonari buruzko jakinarazpena
- Abiadurari buruzko jakinarazpena
- Mapak eguneratzea linean
- Interesguneak bilatzea
- Gasolindegiak
- Trafikoari buruzko informazioa linean
- Aparkalekuak
- Infotainment eguneratzea linean
- Ibilbidea kalkulatzea linean
- Arriskuei buruzko informazioa
- Diktaketa
- Ahots naturalaren bidezko kontrola infotainment, media eta irratiren aplikazioetarako
- Ahots naturalaren bidezko kontrola helmuga eta helbideetarako
- Irratia linean
- Media linean
- Ibilbideak linean inportatzea
- Helmugak linean inportatzea
- Urrutiko aireztapen independentea
- Aparkatze-posizioa
- Pribatutasun-modua
- Legezko oharra

Ibilgailu hibridoetarako CUPRA CONNECTen zerbitzuak

Ibilgailu elektriko eta hibridoetan bakarrik erabilgarri.

Barne dauden zerbitzuak dira aurreko ataleko CUPRA CONNECT zerbitzu guztiak eta:

- Urrutiko klimatizazioa
- Energia elektrikoaren kudeatzailea
- Irteera-orduak

CUPRA CONNECTen banakako aukerak

- In-Car aplikazioak. Aplikazio horiek In-Car dendaren bidez eskura eta instala daitezke zuzenean infotainment-en.
- Full Link.
- Datu-paketeak. Lineako funtzioak erabiltzeko ordainketa-datuen tarifak, adibidez, 2 GB hilean.

Oharra

- **Larrialdietarako dei-zerbitzu publikoa erabilgarri dago, infotainment sisteman saioa hasi ala ez.**
- **In-Car aplikazioak pertsonalizatzeko eta eskuratzeko, saioa hasi behar da infotainment-en, baina ez da beharrezkoa ibilgailua aktibatzea CUPRA CONNECTen kontu batean.**

CUPRA CONNECT eta S-PIN aktibatzea

Hurrengo urratsak beharrezkoak dira CUPRA CONNECT aktibatzeko (erregistroa barne):

- Sortu erabiltzaile-kontu bat myCUPRA.com helbidean edo zuzenean infotainment bidez Erabiltzaile-administrazioaren menuan.
- Egin CUPRA CONNECTen eskaera eta aktibatu.
- Gehitu ibilgailua zure erabiltzaile-kontura.
- Egiaztatu jabetza.

- Egiaztatu zure identitatea. Bakarrik da beharrezkoa segurtasunerako garrantzitsuak diren CUPRA CONNECTen zerbitzuak exekutatu behar badituzu.
- Aktiba dezakezu myCUPRA.com helbidean edo zuzenean infotainment bidez. Infotainment bidez aktibatzeko, ondorengo urratsak jarraitu: **Usuarios > Ajustes > Convertirse en usuario principal**.

Jarraitu gainontzeko argibideak eta infotainment-en erakusten den informazioa. Aktibatzearen zehar, posible da zuri eskatzea S-PIN bat sortzea.

Eguneratzeko aukera	
Infotainment	Bai
CUPRA CONNECT ataria	Bai
CUPRA CONNECT aplikazioa	Bai

Informazio gehiago myCUPRA.com/faqs helbidean

S-PIN

CUPRA CONNECTen erregistroa gauzatzean hauta daitezkeen hainbat zifrako sekuentzia da S-PIN.

S-PIN sortzerakoan, saihestu asmatzen errazak diren zifrako sekuentziak eta jaiotze-data ezagunak. S-PIN alda dezakezu CUPRA CONNECTen erabiltzaile-kontuan **Ajustes de la cuenta** atalean.

S-PIN beharrezkoa da, adibidez, zure erabiltzaile-profila babesteko edo zure ibilgailuaren segurtasunerako garrantzitsua den CUPRA CONNECTen zerbitzu bat exekutatzeko.

S-PIN hori konfidentzialtasun osoz erabili behar duzu. S-PIN hirugarrenei jakinarazten badiezu, segurtasun-arrazoiengatik berehala aldatu beharko duzu.

Jabetza eta identitatea egiaztatzea

Erabiltzaile nagusi bihurtzea

Erabiltzaile nagusi bihurtzeko eta horrela ibilgailuaren jabetza egiaztatzeko, ibilgailuaren bi giltza fisikoak behar dituzu. Jabetzaren egiaztatzea ibilgailuan egiten da erregistratzean, edo, CUPRA CONNECTeko erabiltzaile-kontu bat baduzu, saioa hasi behar duzu infotaiment sistemaren bidez, eta gero sartu **Administración de usuarios** atalean.

- Konektatu pizgailua eta infotainment sistema.
- Infotainment-en eman izena CUPRA CONNECTen.

Edo: ireki **Usuarios > Ajustes > Convertirse en usuario principal** menua eta jarraitu argibideak.

- Sakatu irekiera-tekla ibilgailuaren lehenengo giltzan.
- Sakatu irekiera-tekla ibilgailuaren bigarren giltzan.

Infotainment-ek aginduak irrati-frekuentzia bidez prozesatu ondoren, jabetza egiaztatzea osatuta egongo da. CUPRA CONNECT atarian uneko egoera kontrola dezakezu.

Nola egiaztatzen da jabetza?	
Infotainment	2 giltzetako metodoa
CUPRA CONNECT ataria	Ezin da
CUPRA CONNECT aplikazioa	Ezin da

Identitatea egiaztatzea (SEAT Ident)

Segurtasunerako garrantzitsuak diren CUPRA CONNECTen zerbitzuak erabili ahal izan baino lehen, identitatea egiaztatu behar da, hala nola **urruneko irekiera** zerbitzua erabili ahal izateko. Nortasunaren egiaztatzea CUPRA kontzesionario espezializatuan edo SEAT sareko edozein kontzesionariotan egingo da.

SEAT Ident-i buruzko informazio gehiago kontsulta dezakezu CUPRA CONNECTen atarian myCUPRA.com helbidean.

Legezko xedapenak

CUPRA CONNECTen zerbitzuak erabiltzen diren bitartean, informazioa bidali eta prozesatu egiten da linean ibilgailuaren bidez. Datu horiek gidariari buruzko informazioa ere eman dezakete (zeharka, gutxienez), adibidez, bolantean duen portaera eta kokapena. CUPRA

CONNECTen eta SEAT, S.A.-ren arteko kontratuaren alderdi kontratatzaile gisa, beste gidari batzuek (adibidez, senitartekoek edo lagunek) zure ibilgailua erabiltzen duten bitartean, datuen babesa eta eskubide pertsonalak errespetatuko direla bermatu behar duzu. Horregatik, aldez aurretik jakinarazi behar diezu gidariei ibilgailuak datuak linean bidaltzen eta jasotzen dituela eta datu horiek eskura ditzakezula.

Jakinarazteko betebehar hori kontuan ez hartzeak bidaiarien zenbait eskubide urra ditzake.

Jarraipen-zerbitzuak: bidaiari guztiei kontsultatzea

Jarraipen-zerbitzuek datu geografikoak eta ibilgailuaren datuak behar dituzte, hala nola zehazteko ibilgailua abiadura muga jakin batzuen barruan erabiltzen ari den, non dagoen aparkatuta edo ezarritako eremu geografikoan erabiltzen ari den. Informazio hori CUPRA CONNECTen atarian eta CUPRA CONNECTen aplikazioan erakusten da.

Hori dela eta, abian jarri aurretik, galdetu ibilgailuko bidaiari guztiei aktibatutako zerbitzuekin ados dauden. Horrez ez bada, desaktibatu dagokion zerbitzua (ahal bada), edo ez utzi bidaiariei ibilgailua erabiltzen.

GPS bidezko jarraipena: bereizgarria

Ibilgailuak fabrikan hornitutako kokapen geografikoa eta uneko abiadura ematen dituen kontrol-unitatea badauka, oro har, GPS bereizgarri hori eramango du, adibidez, sabaiko kontsolan. Bereizgarri hori ibilgailuan ez egoteak ez du bermatzen kontrol-unitateak ez dituela igorriko ibilgailuaren kokapen geografikoa eta uneko abiadura.

Datu pertsonalak

CUPRAk zure datu pertsonalak babesten ditu, eta bakarrik erabiltzen ditu baldin eta legeak baimentzen badu edo zure baimena eman baduzu erabilera bat dela-eta. CUPRA CONNECTen zerbitzuekin lotutako datuen prozesamenduari buruzko informazio zehatza aurkituko duzu Datuen babesari buruzko adierazpenean; horretako dagokion bertsio eguneratuan sar zaitezke, CUPRAren web orrian.

Ibilgailuaren lagapen iraunkorra

Bigarren eskuko ibilgailua erosi badduzu edo beste norbaitek ibilgailua etengabe erabiltzeko utzi badizu, baliteke CUPRA CONNECT aktibatuta egotea eta aurreko erabiltzaile nagusiak erregistratutako datuetara CUPRA CONNECT bidez oraindik sartzeko aukera izatea, baita zure ibilgailuaren funtzio jakin batzuk kontrolatzeko aukera ere.

Zu zeu erregistra zaitezke ibilgailuaren erabiltzaile nagusi gisa, eta, horrela, aurreko erabiltzaile nagusia automatikoki ezabatu. Bestela, infotainment sistema berrezarri dezakezu fabrikako doikuntzen arabera (⚙ **> Restaurar valores de fábrica**) edo ibilgailua Offline moduan jarri, eta horrela mugatu dituzu bai zure ibilgailuaren eta CUPRAko datuen zerbitzariaren arteko komunikazioa, bai datu pertsonalen eta ibilgailuaren datuen prozesamendua.

CUPRA CONNECTen zerbitzuak desaktibatzea

CUPRA CONNECT zerbitzuak aktibatzeko eta desaktibatzeko, hurrengo funtzioak dituzu:

- Datu-transferentzia ahalbidetzeko edo eragozteko infotainment sistemaren bidez ››› **257. orrialdea**, ***Pribatutasun-modua***.
- Ahal den guztietan: banakako desaktibazioa edo aktibazioa ››› **257. orrialdea**.

Desaktibazioa ezeztatu ondoren, dagozkion zerbitzuak berriz ere exekuta ditzakezu.

Oharra

Legeak eskatzen dituen zerbitzuak eta horien datu-bidaltzea ezin dira deskonektatu, ezta desaktibatu ere, adibidez, larrialdi publikoetarako dei-sistema (e-Call).

Anomaliak

CUPRA CONNECTen zerbitzuak erabiltzeko beharrezkoak diren baldintzak beteta ere, gerta daiteke zerbitzu horiek ematea eragozten edo galarazten duten CUPRAren kontroletik kanpoko faktoreak egotea. Hauek bereziki izan daitezke:

- Telekomunikazio-ekipamenduen, sateliteen, zerbitzarien eta datu-bankuen softwarea mantentzeko, konpontzeko, desaktibatzeko eta eguneratzeko lanak, eta teknikoki handitzekoak.
- Telefonia mugikorreko estandarra aldatzea, telekomunikazio-zerbitzuen hornitzaileak datuak igor ditzan, esaterako, LTEtik, UMTStik EDGEra edo GPRSra.
- Jadanik dagoen telefonia mugikorreko estandar bat deskonektatzea telekomunikazio-zerbitzuen hornitzaileak.
- Interferentzia, perturbazioa edo etena telefonia mugikorraren eta GPSren seinalean, esaterako abiadura handietan gidatzeagatik, eguzki-ekaitzengatik, eragin meteorologikoengatik, topografiarengatik, ekipamendu inhibitzaileengatik eta telefonia mugikorraren gehiegizko erabilerarengatik dagokien sareetan.
- Telefonia mugikorreko edo GPSko estaldurarik ez dagoen edo nahikoa ez den estaldura dagoen eremuetan zaudenean. Halaber, esaterako, tuneletan, eraikin oso garaien artean dauden eremu txikietan, garajeetan, lurpeko pasabideetan, mendietan eta haranetan.
- Hirugarren hornitzaileena ez den informazioa, mugekin, osorik ez dagoena edo zuzena ez dena; esaterako, mapen adierazpenak.
- CUPRA CONNECT eskaintzen ez den herrialde eta eskualdeak.

Zerbitzuak kudeatzea

Ireki doikuntzak **Usuarios** atalean eta jo **Privacidad y Servicios** atalera. Infotainment-en honako hau egin ahal izango duzu:

- Kontsultatzea CUPRA CONNECTen zer zerbitzu dauden erabilgarri ibilgailuan momentuan.
- Aktibatuta edo desaktibatuta dagoen CUPRA CONNECTen zerbitzu kopurua.
- CUPRA CONNECTen zerbitzuak aktibatzea edo desaktibatzea.

Kontsultatu informazio gehiago hemen: myCUPRA.com.

Oharra

CUPRA CONNECTen zerbitzu guzti-guztiak desaktibatzen badituzu, ibilgailuak larrialdideien (eCall) datuak bidaltzen jarrai dezake.

Pribatutasun-modua

Gaiaren aurkezpena

“Pribatutasuna” funtzioarekin, ibilgailuaren eta Interneten arteko datu-transmisioak baimendu edo eragotzi daitezke.

Nahi den modua infotainment sistemako ibilgailuaren doikuntzetan doitu daiteke.

Kanpoko gailuetako datuak transmititzea eta ibilgailuarekin komunikatzea **ezin** dira eragotzi “Pribatutasuna” funtzioarekin.

Legeak eskatzen dituen zerbitzuak eta horien datuak bidaltzea ezin dira deskonektatu, ezta desaktibatu ere, adibidez, larrialdi-deiaren sistema (eCall).

Oharra

Kontuan izan ibilgailuaren erabiltzaile guztiek doikuntza indibidualak konfiguratu ditzaketela “Pribatutasuna” funtzioan. Baliteke doikuntza horiek ibilgailuaren jabeak nahi dituenekin bat ez etortzea.

Pribatutasuna eta zerbitzuak doitzea

CUPRA CONNECTen zerbitzuak banaka aktiba eta desaktiba daitezke. Horretarako, aktibatu edo desaktibatu nahi duzun zerbitzuari dagokion laukitxoa markatu besterik ez duzu egin behar. Zerbitzu guztiak aldi berean desaktibatu nahi izanez gero, pribatutasun-modua erabili behar duzu.

Pribatutasun-modua

Zerbitzuak desaktibatzeko edo aktibatzeko aukera ematen du, hautatutako pribatutasun-mailaren arabera.

Tracking	**Kokapena partekatzea.** Erabiltzaile nagusiek eta besteek posizio-datuak ikus ditzakete CUPRA CONNECTen atarian edo aplikazioan.
Location	**Kokapena erabiltzea.** Posizio-, ibilgailu- eta erabiltzaile-datuak zerbitzuetarako erabiltzen dira.
Personal	**Kokapenik gabe.** Ibilgailu-datuak eta erabiltzaile-datuak baino ez dira erabiltzen zerbitzuetarako.
Incógnito	**Pribatutasun maximoa.** Zure zerbitzuak desaktibatuta daude. Legeak eskatzen dituen zerbitzuek bakarrik erabiltzen dituzte datuak.

Doikuntza-aukerak ez daude erabilgarri ez merkatu guztietan, ez ibilgailu-modelo guztietan.

Konektibitatearen egoera adierazte a

Hurrengo seinaleek datu-igorpenaren egoera adierazten dute infotainment sisteman.

Zuri koloreko sinboloa: konektibitate osoa, zerbitzu guztiak aktibo.

Gris koloreko sinboloa: konektibitate mugatua, zerbitzu batzuk ez erabilgarri egon daitezke.

ikonorik gabe Konektibitaterik gabe, ez dago zerbitzu erabilgarririk.

WLAN sarbide-puntua

Aurkezpena

✓ Ez dago erabilgarri CUPRA CONNECT eta nabigaziorik gabeko ibilgailuetan

Infotainment sistema gehienez 8 gailu arteko WLAN konexioa partekatzeko erabil daiteke ››› **258. orrialdea,** ***Konexioa WLAN bidez partekatzeko konfigurazioa***.

Infotainment sistemak kanpoko gailu baten WLAN sarbide-puntua ere erabil dezake, sarbide-puntura (hospot) konektatutako gailuei (WLAN bezeroa) internet eskaini ahal izateko ››› **259. orrialdea**.

Oharra

- **Behar den datu-transmisioa ordaindu beharrekoa izan daiteke. Trukatzen den datu-bolumen handia dela eta, CUPRAk tarifa finkoa erabiltzea gomendatzen du. Telefonia mugikorreko operadoreek horren inguruko informazioa eman dezakete. Gainera, zure ibilgailurako datu-paketeak eros ditzakezu Cubic web-orrian:**

  https://seat.cubictelecom.com/es/

- **Datu-paketeak trukatuz eta hirugarrenei erosiz, kostu gehigarriak sor daitezke telefonia mugikorreko tarifaren arabera, batez ere atzerrian egiten bada (roaming-tasak, adibidez)**

Konexioa WLAN bidez partekatzeko konfigurazioa

Ezarri konexioa hari gabeko sarearekin (WLAN)

- Sakatu **HOME >** ⚙ tekla.
- Aktibatu hari gabeko sarea. Horretarako, sakatu **Wi-Fi > Sistema de infotainment como hotspot** funtzio-botoia.
- Aktibatu hari gabeko sarea (WLAN) konektatu behar den gailuan. Horretarako, kontsultatu fabrikatzailearen argibideen eskuliburua.
- Aktibatu telefonia mugikorreko gailuaren esleipena infotainment sisteman. Horretarako, sakatu **Utilizar como hotspot** funtzio-botoia eta aktibatu kontrol-laukia.
- Sartu eta baieztatu gailuan ageri den saregakoa.

Ondorengo doikuntzak egin daitezke menu honetan ere: **Sistema infotainment como hotspot:**

- **Segurtasun-maila:** WPA2 kodeketarekin, automatikoki sortzen da sare-gakoa.
- **Sare-gakoa:** Automatikoki sortutako sare-gakoa. Sakatu funtzio-botoia sare-gakoa eskuz aldatzeko. Sare-gakoak 8 karaktere izan behar ditu gutxienez eta 63 gehienez.
- **SSID:** WLAN sarearen izena (32 karaktere gehienez).

WLAN konexioa ezartzen da (hari gabea). Konexioa amaitzeko, baliteke gailuan beste datu batzuk sartu behar izatea.

Errepikatu prozesu hori beste gailu batzuk konektatzeko.

QR kodea eskaneatzeko aukera ere badago, gailua infotainment Wi-Fi sarean zuzenean konektatuz, pasahitza sartzeko beharrik gabe: hautatu **Ajustes > Wi-Fi > Conexión rápida con el sistema infotainment**.

Era berean, infotainment sistemak edozein gailuri datuak WPS (Hotspot mode) bidez eskaintzeko funtzionaltasuna dago, QR kodearen menu berean.

Wi-Fi Protected Setup (WPS)

✓ Ekipamenduaren eta herrialdearen araberakoa da.

Wi-Fi Protected Setup sistemak kodifikazioa duen hari gabeko sare lokal bat sortzeko aukera ematen du, modu erraz eta azkarrean (**Ajustes > Wi-Fi > Wi-Fi > Conexión rápida WPS**).

- Ezarri konexioa hari gabeko sarearekin (WLAN) .
- Sakatu routerreko WPS tekla, WLAN lekukoa routerrean keinuka hasten den arte. WLAN routerrak ez badu onartzen, WPS sarea eskuz konfiguratu behar da.
- **EDO:** Eduki sakatuta WLAN tekla WLAN routerrean, WLAN lekukoa keinuka hasten den arte routerrean.
- Sakatu WPS tekla WLAN gailuan. WLAN konexioa ezartzen da (hari gabea).

Errepikatu prozesu hori beste gailu batzuk konektatzeko.

Interneterako sarbidea konfiguratzea

Infotainment sistemak kanpoko gailu baten WLAN sarbide-puntua erabil dezake interneterako konexioa ezartzeko.

Ezarri konexioa hari gabeko sarearekin (WLAN)

- Aktibatu eta partekatu kanpoko gailuko Interneterako hari gabeko sarbide-puntu bat. Horretarako, kontsultatu fabrikatzailearen argibide-eskuliburua.
- Sakatu **HOME >** ⚙ tekla.
- Sakatu **Wi-Fi > Conexión con Wi-Fi** menuan eta aktibatu kontrol-laukia.
- Sakatu **Buscar red Wi-Fi** funtzio-botoia eta hautatu nahi den gailua zerrendan.
- Behar izanez gero, sartu gailuaren sare-gakoa infotainment sisteman eta baieztatu **OK** bidez.

Eskuzko doikuntzak:

- Kanpoko gailu baten (WLAN) doikuntzak eskuz sartzeko.

WLAN konexioa ezartzen da (hari gabea). Konexioa amaitzeko, baliteke gailuan beste datu batzuk sartu behar izatea.

Oharra

Gailu desberdinen kopuru handia dela eta, ezin da bermatu funtzio guztiak arazorik gabe beteko direla.

Full Link

Gaiaren aurkezpena

Full Link-ari esker, posible da infotainment-eko pantailan telefonia mugikorreko gailuan erakusten diren edukiak eta funtzioak ikustea eta erabiltzea.

Horretarako, telefonia mugikorreko gailuak USB interfaze baten bidez konektatuta egon behar du infotainment-ekin.

Teknologia batzuk Wireless Full Link bidez ere erabil daitezke, Bluetooth® interfazea eta Wi-Fi konexioa erabiliz.

Hurrengo teknologiak erabilgarri egon daitezke:

- Apple CarPlay™
- Apple CarPlay™ Wireless
- Android Auto™
- Android Auto™ Wireless
- MirrorLink®

Full Link barne hartzen dituzten teknologien erabilgarritasuna herrialdearen eta erabilitako telefonia mugikorreko gailuaren araberakoa da.

CUPRAren web orrian informazio gehiago aurkituko duzu.

Full Link menu nagusia atzitzea

Full Link menu nagusirako nabigazioa erabiltzen den infotainment sistemaren araberakoa da.

- Sakatu **Home > Full Link**

Wireless Full Link konfiguratzea

Wireless Full Link erabili ahal izateko, lehenik telefonia mugikorreko gailua infotainment-ekin parekatu behar duzu. Horretarako, honako hau egin:

Telefonia mugikorreko gailu bat lehen aldiz konektatzea.

- Desblokeatu telefonia mugikorreko gailua.
- Konektatu Wi-Fi hartzea eta Bluetooth® telefonia mugikorreko gailuan.
- Konektatu telefonia mugikorreko gailua infotainment sistemarekin, USB kable baten bidez edo Bluetooth® bidez.
- Sartu **Full Link** menu nagusian, automatikoki agertzen ez bada.
- Aukeratu telefonia mugikorreko gailua eta nahi duzun teknologia.
- Baieztatu baimen-kontsultak telefonia mugikorreko gailuan, infotainment-i beharrezko baimenak emateko.
- Eten USB konexioa eta konektatu berriro Wi-Fi edo Bluetooth® bidez infotainment sistemarekin. Wireless Full Link konfiguratu egin da.

Parekatzea osatu egin da. Hemendik aurrera, konektatutako telefonia mugikorreko gailuak Wireless Full Link ere erabil dezake USB konexiorik gabe.

Konexio-prozesuan agertzen diren menuak baztertzen badira, Wireless Full Link ez da erabilgarri egongo. Kasu horretan, CUPRAk gailuak ezabatzea gomendatzen du, bai telefonoaren doikuntzetan, bai infotainmenten, eta konexio-prozesua berrabiaraztea.

⚠ ADI

Gidatzen duzun bitartean aplikazioak erabiltzeak, arreta trafikotik kentzea eragin dezake. Gidariak arreta galduz gero, istripua eta lesioak eragin ditzake.

- **Trafikoan arreta jarriz eta modu arduratsuan gidatu beti.**

⚠ ADI

Egokiak ez diren aplikazioak edo behar bezala ez exekutatzeak kalteak eragin ditzake ibilgailuan, edo istripuak eta lesio larriak.

- **Babestu telefonia mugikorreko gailua eta horren aplikazioak erabilera okerretik.**
- **Inoiz ez egin aldaketarik aplikazioetan.**
- **Kontuan izan telefonia mugikorreko gailuaren jarraibide-eskuliburua.**

KONTUZ

Ondorengo arrazoiengatik ibilgailuan eragindako kalteak ez dira CUPRAren erantzukizuna izango: kalitate txarreko aplikazioak edo aplikazio akastunak erabiltzeagatik, aplikazioen programazio eskasagatik, sarearen estaldura eskasagatik, bidaltzean datuak galtzeagatik edo telefonia mugikorreko gailuak gaizki erabiltzeagatik.

Oharra

- **Gerta liteke Wireless Full Link teknologia guztiekin bateragarria ez izatea.**
- **Herrialde berekoak ez diren irrati-maiztasun baimenduak dituzten herrialdeetako muga igarotzean, Full Link-en Wireless funtzioaren funtzionamendua mugatua egon daiteke, edo, are gehiago, eskuragarri ez egotea, legezko xedapenak direla eta. Baliteke hori infotainment sisteman ere adierazteа, mezu baten bidez. Full Link kable bidez erabiltzea ez dago mugatuta, eta erabiltzen jarrai daiteke.**

Aplikazioak (app-ak)

Full Link bidez, telefonia mugikorreko gailuetan instalatutako CUPRAren eta beste hornitzaileen aplikazioen edukiak bistaratzea infotainmenteko pantailara eraman daiteke.

Beste hornitzaile batzuen aplikazioen kasuan, bateragarritasun-arazoak egon daitezke.

Aplikazioak, beren erabilera eta telefonia mugikorraren beharrezko konexioa ordainpekoak izan daitezke.

Aplikazioen eskaintza askotarikoa izan daiteke, eta ibilgailu edo herrialde jakin baterako diseinatuta egon. Aplikazioen edukia eta bolumena, bai eta aplikazio horiek eskaintzen dituzten enpresak ere, alda daitezke. Gainera, aplikazio batzuk hirugarrenen zerbitzuen erabilgarritasunaren mende daude.

Ezin da bermatu eskaintzen diren aplikazio guztiek telefonia mugikorreko gailu guztietan eta horien sistema eragile guztiekin funtzionatzen dutenik.

CUPRAk eskaintzen dituen aplikazioak aldatu, ezeztatu, desaktibatu, berraktibatu eta zabaldu egin daitezke, aldez aurreko jakinarazpenik gabe.

Gidariak arreta gal ez dezan, ibilgailua martxan dela aplikazio ziurtatuak soilik erabil daitezke.

Full Link-en sinboloak eta doikuntzak

- Informazio gehiago erakuts dadin.
- Full Link-en doikuntzen menua irekitzeko
- Apple CarPlay teknologia hautatzeko.
- Android Auto™ teknologia hautatzeko.
- MirrorLink® teknologia hautatzeko.

Apple CarPlay™

Apple CarPlay erabiltzeko, honako baldintza hauek bete behar dira:

- iPhone™-k bateragarria izan **behar du** Apple CarPlay™-rekin.
- Ahots bidezko erabilerak (Siri™) aktibatuta egon **behar du** iPhone™ gailuan.
- Apple CarPlay™-k aktibatuta egon **behar du** mugarik gabe iPhone™-ren doikuntzetan.
- Apple CarPlay™ Wireless bidez posiblea ez denean, iPhone™-k konektatua egon **behar du** infotainment sistemarekin USB konexio bidez. Soilik datuen transmisioa duten USB konexioak gai dira Apple CarPlay-ren erabilerarako.
- Erabilitako USB kableak izan **behar du** Apple™-ren kable originala.

Apple CarPlay™ Wireless: iPhone™ gailuan beharrezkoa da Bluetooth® eta Wi-Fi aktibatuta egotea.

Konexioa ezartzea

iPhone™ bat lehen aldiz konektatzen duzunean, bete itzazu infotainment sistemaren pantailan eta iPhone™ gailuan agertzen diren jarraibideak.

Apple CarPlay™ erabiltzeko baldintzak bete behar dira.

Hasieratu Apple CarPlay™:

- Sakatu **HOME** > **Full Link** Full Link menu nagusian sartzeko.
- Apple CarPlay™ sakatu, iPhone™-rekiko konexioa ezartzeko.

Konexioa amaitzea

- Apple CarPlay™ moduan, sakatu **CUPRA** ikonoa, Full Link menu nagusian sartzeko.
- Sakatu ✕ konexio aktiboa eteteko.

Funtzio-botoien irudikapena aldatu egin daiteke pantailan.

Zehaztasunak

Aktibo dagoen Apple CarPlay™ konexio batean, honako zehaztasun hauek gertatzen dira:

- **Ezin** dira egin Bluetooth® konexioak iPhone™ gailuaren eta infotainment sistemaren artean.
- Bluetooth® konexio aktiboa badago, automatikoki etengo da.
- Telefonoaren funtzioak Apple CarPlay™ bidez soilik erabil daitezke. Infotainment sistemarako deskribatu diren funtzioak ez daude erabilgarri.
- Konektatutako iPhone™ **ezin** da multimedia gailu gisa erabili **Media** menu nagusian.
- **Ezin** dira aldi berean erabili barne-nabigazioa eta Apple CarPlay™-ren nabigazioa. Hasitako azken ibilbideak aurretik aktibo zegoena eteten du.
- Erabiltzen duzun infotainment-en arabera, tresnen koadroko pantailan Telefono-moduaren datuak ikus ditzakezu.
- Tresnen koadroko pantailan ez da biratzeko abisurik agertzen.
- Funtzio anitzeko bolantearekin, deiak onartu edo baztertu ditzakezu, bai eta aribidean den telefono bidezko elkarrizketa amaitu ere.

Ahots bidezko erabilera

- Sakatu labur infotainment sistemako ahots bidezko maneiua hastea.
- Sakatu tekla hori luzaroan, iPhone konektatuaren ahots bidezko erabilera (Siri™) hasieratzeko.

Oharra

- **Teknologien erabilgarritasuna herrialdearen araberakoa da eta aldatu egin daiteke.**
- **CUPRAren eta Apple CarPlay™-ren web orrietan, edo CUPRA kontzesionario espezializatuetan edo SEAT sareko edozein kontzesionariotan, baldintza teknikoei, iPhone bateragarriei, ziurtatutako aplikazioei eta horien erabilgarritasunari buruzko informazioa lortuko duzu.**

Android Auto™

Android Auto™-rako baldintzak

Android Auto™ erabiltzeko, honako baldintza hauek bete behar dira:

- Telefonia mugikorreko gailuak, hemendik aurrera smartphone izenekoa, bateragarria **izan behar du** Android Auto™-rekin.
- Smartphoneak Android Auto™ aplikazio bat instalatuta **izan behar du**.
- Android Auto Wireless bidez posiblea ez denean, smartphoneak konektatuta egon behar du infotainment-ekin datuak bidaltzeko USB konexioaren bidez.
- USB kableak izan **behar du** smartphone-fabrikatzailearen jatorrizko kablea.

Android Auto Wireless: beharrezkoa da smartphonean Bluetooth® eta WLAN (Wi-Fi) ere aktibatuta egotea.

Konexioa ezartzea

Smartphone bat lehen aldiz konektatzen duzunean, bete itzazu infotainment-eko pantailan eta smartphonean agertzen diren jarraibideak.

Android Auto™ erabiltzeko baldintzak bete behar dira.

Hasieratu Android Auto™:

- Sakatu **HOME > Full Link** Full Link menu nagusian sartzeko.
- Android Auto™ sakatu, konexioa ezartzeko smartphonearekin.

Konexioa amaitzea

- Android Auto™ moduan, sakatu **/Salir** ikonoa Full Link menu nagusian sartzeko.
- Sakatu ✕ konexio aktiboa eteteko.

Zehaztasunak

Aktibo dagoen Android Auto™ konexio batean, honako zehaztasun hauek gertatzen dira:

- Android Auto™ gailu aktibo bat aldi berean egon daiteke konektatuta infotainment sistemarekin Bluetooth® bidez (HFP profila).
- Telefonoaren funtzioak Android Auto™ bidez erabil daitezke. Android Auto™ gailua aldi berean konektatuta badago infotainment sistemarekin Bluetooth® bidez, infotainment sistemaren telefono-funtzioa ere erabil daiteke.
- Android Auto™ gailu akitbo bat **ez** daiteke erabili multimedia gailu gisa **Media** menu nagusian.
- **Ez** da posible erabiltzea aldi berean barnenabigazioa eta Android Auto™-ren nabigazioa. Hasitako azken ibilbideak aurretik aktibo zegoena eteten du.
- Tresnen koadroko pantailan Telefono eta Media moduen inguruko datuak ikus ditzakezu.
- Funtzio anitzeko bolantearekin, deiak onartu edo baztertu ditzakezu, bai eta aribidean den telefono bidezko elkarrizketa amaitu ere.

Ahots bidezko erabilera

- Sakatu labur infotainment sistemako ahots bidezko maneiua hastea.
- Sakatu tekla hori luzaroan, smartphone konektatuaren ahots bidezko erabilera (Google Assistant) hasieratzeko.

Oharra

- **Teknologien erabilgarritasuna herrialdearen araberakoa da eta aldatu egin daiteke.**
- **CUPRAren eta Android Auto™-ren web orrietan, edo CUPRA kontzesionario espezializatuetan edo SEAT sareko edozein kontzesionariotan, baldintza teknikoei, telefonia mugikorreko gailu bateragarriei, ziurtatutako aplikazioei eta horien erabilgarritasunari buruzko informazioa lortuko duzu.**

MirrorLink®

MirrorLink®-erako baldintzak

MirrorLink® erabiltzeko, honako baldintza hauek bete behar dira

- Telefonia mugikorreko gailuak bateragarria izan **behar** du MirrorLink®-ekin.
- Telefonia mugikorreko gailuak konektatua **egon behar du** infotainment sistemarekin, datuak transmititzeko gai den USB konexio bidez.
- Erabilitako USB kableak telefonia mugikorreko gailuaren fabrikatzailearen kable originala **izan behar du**.
- Erabilitako telefonia mugikorreko gailuaren arabera, horretan MirrorLink® erabiltzeko egokia den Car-Mode aplikazio batek instalatuta egon **behar** du.

Konexioa ezartzea

Telefonia mugikorreko gailu bat lehen aldiz konektatzen duzunean, bete itzazu infotainment-eko pantailan eta telefonia mugikorreko gailuan agertzen diren jarraibideak.

MirrorLink® erabiltzeko baldintzak bete behar dira.

Hasieratu MirrorLink®:

- Sakatu **HOME > Full Link Full Link** menu nagusian sartzeko.
- Sakatu, **Mirror Link** telefonia mugikorreko gailuarekin konexioa ezartzeko.

Konexioa amaitzea

- MirrorLink® moduan, sakatu **APP** Full Link menu nagusira sartzeko.
- Sakatu ✕ konexio aktiboa eteteko.

Zehaztasunak

Aktibo dagoen MirrorLink® konexio batean, honako zehaztasun hauek gertatzen dira:

- MirrorLink® gailu aktibo bat infotainment sistemarekin aldi berean konektatuta egon ahal da Bluetooth® bidez.
- MirrorLink® gailua infotainment sistemarekin Bluetooth® bidez konektatuta badago, infotainment sistemaren telefono-funtzioa erabil daiteke.
- MirrorLink® gailu aktibo bat **ezin** da multimedia gailu gisa erabili **Media** menu nagusian.
- Tresnen koadroko pantailan Telefono-moduaren inguruko datuak ikus ditzakezu.
- Tresnen koadroko pantailan ez da biratzeko edo Media moduaren abisurik agertzen.
- Funtzio anitzeko bolantearekin, deiak onartu edo baztertu ditzakezu, bai eta aribidean den telefono bidezko elkarrizketa amaitu ere.

Funtzio-botoiak

Funtzio-botoiak eta beren funtzioa:

APP Full Link menu nagusira itzuli. Hemen amaitu ahal da MirrorLink® konexioa, telefonia mugikorreko beste gailu bat konektatu edo beste teknologia bat hautatu.

× Sakatu irekitako aplikazioak ixteko. Ondoren, sakatu itxi nahi dituzun aplikazioak edo **Cerrar todas** funtzio-botoia irekitako aplikazio guztiak ixteko.

Sakatu telefonia mugikorreko gailuaren pantaila infotainment sistemaren pantailan ikusteko.

MirrorLink®-en doikuntzak irekitzeko.

Oharra

CUPRAren eta MirrorLink®-en web orrietan, edo CUPRA kontzesionario espezializatuetan edo SEAT sareko edozein kontzesionariotan, baldintza teknikoei, telefonia mugikorreko gailu bateragarriei, ziurtatutako aplikazioei eta horien erabilgarritasunari buruzko informazioa lortuko duzu.

Kable bidezko konexioak eta haririk gabekoak

USB konexioa

165. irudia Erdiko kontsola: USB sarrera.



166. irudia Erdiko kontsolaren atzealdea: korronte-harguneko funtzioa duten USB konektoreak

USB sarrera aurrealdeko erdiko kontsolako objektu-ontziaren eremuan dago ››› **165. irudia**.

Ekipamenduaren eta herrialdearen arabera, ibilgailuak **karga edo korronte-hargunearen funtzioa bakarrik** duten USB konektoreak ere izan ditzake.

USB sarrera horiek kontsolaren atzealdean daude, aurrealdeko eserlekuen artean ››› **166. irudia**.

Oharra

Motorraren pizgailua konektatu eta deskonektatu aurretik, atera USB ataketara konektatutako tresnen entxufea, tentsio elektrikoaren oszilazioak eragindako kalte posibleetatik babesteko.

Infotainment sistema

Lehen urratsak

Gaiaren aurkezpena

Infotainment sistemaren funtzioak eta doikuntzak herrialdearen eta ekipamenduaren araberakoak dira.

Lehen erabilpenaren aurretik

Lehen erabilpenaren aurretik, eskaintzen diren funtzioak eta doikuntzak ahalik eta gehien aprobetxatzeko kontuan izan hurrengo puntuak:

- Gogoan izan oinarrizko segurtasun-oharrak >>> 265. orrialdea.
- Berrezarri infotainment-en fabrikako doikuntzak.
- Bilatu eta memorizatu irrati-katerik gogokoenak presintonia-tekletan, azkar sintonizatu ahal izateko.
- Audio-iturri eta datu-euskarri egokiak baino ez erabili.
- Parekatu telefono mugikor bat telefonoaren kudeaketa erabili ahal izateko infotainment sistemaren bidez.
- Erabili eguneratutako mapak nabigaziorako.
- Erregistra zaitez CUPRA-n erabilgarri dauden zerbitzuak gauzatzeko.

Indarreko dokumentazioa erantsita

Infotainment eta bere osagaiak erabiltzeko, kontuan izan, jarraibide-eskuliburu honekin batera, honako dokumentazio hau:

- Zure ibilgailuaren barruko dokumentazioko gehigarriak.
- Telefonia mugikorreko gailuaren edo audio-iturrien jarraibide-eskuliburua.
- Datu-euskarriak eta kanpoko irakurgailuak erabiltzeko argibideak.
- Geroago instalatutako edo gehigarri gisa erabilitako infotainment-en osagarrien eskuliburuak.
- Zerbitzuei buruzko deskribapena, CUPRA-n zerbitzuak gauzatzen direnean.

Segurtasun-jarraibideak

Funtzio-arlo batzuek hirugarrengo webguneetarako estekak izan ditzakete. CUPRA ez da esteken bidez erabil daitezkeen hirugarrengo webguneen jabea, eta ez du bere gain hartzen webgune horien edukien gaineko erantzukizunik.

Funtzio-arlo batzuetan hirugarren hornitzaileetatik datorren kanpoko informazioa egon daiteke. CUPRAk ez du bere gain hartzen informazio hori zuzena, egungoa eta osoa izatearen ardura, ez eta hirugarrengo eskubideak ez urratzearena ere.

Irrati-kateak eta datu-euskarrien eta audio-iturrien jabeak dira eurek transmititzen duten informazioaren erantzule.

Kontuan izan aparkalekuetan, tuneletan, eraikin garaietan, mendietan edo beste gailu elektriko batzuen funtzionamenduaren ondorioz (kargagailuak, adibidez), irrati-seinalea jasotzea ere eragotz daitekeela.

Laminek edo metalezko geruzak dituzten itsasgarriek, antenan eta leihatiletako kristalen gainean, irrati-seinaleak jasotzean perturbazioak sor ditzakete.

⚠ ADI

Infotainment-en ordenagailu zentrala ibilgailuan muntatutako kontrol-unitateekin interkonektatuta dago. Horregatik, istripu larria eta lesioak izateko arrisku larria dago, ordenagailu zentrala behar ez bezala konponduz edo desmuntatuz eta muntatuz gero.

- **Ez ordeztu inoiz ordenagailu zentrala bizitza baliagarriaren amaieran dagoen ibilgailu batetik datorren edo erabilita eta birziklatuta dagoen beste batekin.**
- **Ordenagailu zentralaren konponketa edo desmuntaketa eta muntaketa utzi tailer espezializatuen esku bakarrik. CUPRAk CUPRA kontzesionario espezializatu batera edo SEAT sareko edozein kontzesionariotara joatea gomendatzen du horretarako.**

⚠ ADI

Gidariak arreta galduz gero, istripua eta lesioak eragin ditzake. Pantailako informazioa irakurtzeak eta infotainment maneiatzeak trafikoari arreta galaraz diezaiokete, eta istripua eragin.

- Trafikoan arreta jarriz eta modu arduratsuan gidatu beti.

⚠ ADI

Gidatzen ari zaren bitartean audio-iturri edo datu-euskarri bat konektatzeak, sartzeak edo ateratzeak trafikoari arreta galarazi diezaioke eta, ondorioz, istripua eragin.

⚠ ADI

Kanpotik datozen soinu-seinaleak (adibidez, larrialdi-ibilgailuen sirenak) argi eta garbi uneoro entzun ahal izateko moduan doitu bolumena.

- Bolumena ozenegi jartzen bada, denbora labur baterako soilik bada ere, entzumena kaltetu daiteke.

⚠ ADI

Honako egoera hauek larrialdiko deiak, telefono-deiak edo datu-transmisioak burutzea oztopatu edo eten ahal dituzte:

- Telefonia mugikorreko edo GPSko estaldurarik ez dagoen edo nahikoa ez den estaldura dagoen eremuetan zaudenean. Halaber, tuneletan, eraikin oso garaien arteko guneetan, garajeetan, lurpeko pasabideetan, mendietan eta haranetan.
- Telefonia mugikorreko edo GPSko estaldura nahikoa duten eremuetan, telekomunikazio-hornitzailearen telefonia-sareak interferentziak dituenean edo erabilgarri ez dagoenean.
- Larrialdi-deiak egiteko, telefono-deiak egiteko eta datuak transmititzeko behar diren ibilgailuko osagaiak hondatuta daudenean, funtzionatzen ez dutenean edo energia elektriko nahikorik ez dutenean.
- Telefonia mugikorreko gailuaren bateria deskargatuta dagoenean edo karga-maila nahikoa ez denean.

⚠ ADI

Herrialde eta telefonia-sare batzuetan, laguntza- edo larrialdi-dei bat bakarrik egin ahal da honako baldintza hauek betetzen badira: telefonia mugikorreko gailu bat ibilgailuaren telefono-interfazearekin konektatuta dago, barruan deiak egiteko saldo nahikoa duen SIM txartel “desblokeatu” bat dago eta sare-estaldura nahikoa du.

⚠ ADI

Irakurri eta kontuan hartu fabrikatzailearen erabilera-jarraibideak telefonia mugikorreko gailuak, datu-euskarriak, kanpoko gailuak, audio-iturriak eta kanpoko multimedia-iturriak erabiltzen dituzunean.

⚠ ADI

Audio- edo multimedia-iturri bat aldatzean edo konektatzean bat-bateko bolumen-aldaketak gerta daitezke.

- Jaitsi bolumena audio- edo multimedia-iturri bat konektatu edo aldatu aurretik.

⚠ ADI

Telefonia mugikorreko gailuak eta irrati-komunikaziorako gailuak kanpoko antenarekiko konexiorik gabe erabiltzen badira, gerta litekeena da erradiazio elektromagnetikoaren gehieneko mailak gainditzea ibilgailuaren barnean, gidariaren nahiz berarekin doazenen osasuna arriskuan jarriz. Gauza bera gertatzen da kanpoko antena ondo instalatuta ez badago.

- Telefonia mugikorreko gailuaren antenen eta osasun-inplante (taupada-markagailua, adibidez) aktibo baten artean 20 zentimetroko gutxieneko tartea egongo da nahitaez, telefonia mugikorreko gailuek inplantearen funtzionamendua alda dezaketelako.

- Piztuta dagoen telefonia mugikorreko gailua ez da eraman beharko osasun-inplante aktibo batetik oso hurbil edo osasun-inplante aktibo baten gainean, esate baterako, bularreko poltsikoan.
- Itzali berehala telefonia mugikorreko gailua, baldin eta osasun-inplante aktibo batean edo beste edozein osasun-gailutan interferentziak eragiten dituela susmatzen baduzu.

⚠ ADI

Eutsi gabe edo ondo eutsi gabe dauden telefonia mugikorreko gailuak, kanpoko gailuak eta osagarriak airean irten daitezke bidaiarilekuan barna, eta lesioak sortu, bat-bateko maniobra, balaztada edo istripu baten kasuan.

- Finkatu telefonia mugikorreko gailuak, kanpoko gailuak eta haien osagarriak airbagak zabaltzeko guneetatik kanpo edo gorde itzazu modu seguruan.
- Jarri audio-iturrien eta kanpoko gailuen konexio-kableak gidaria ez oztopatzeko moduan.

⚠ ADI

Erdiko beso-euskarriak gidariaren besoen mugimendua muga dezake, eta horrek istripuak eta lesio larriak eragin ditzake.

- Erdiko beso-euskarriko objektu-ontzia beti itxita eraman martxan zehar.

⚠ ADI

Argiztapen baldintzak onak ez badira eta pantaila hondatuta edo zikinduta badago, gerta litekeena da pantailan agertzen diren argibideak eta informazioa irakurri ahal ez izatea edo behar bezala ez irakurtzea.

- Pantailan erakusten diren jarraibideek eta informazioak ez dute inoiz eragin behar segurtasuna arriskuan jar dezakeen arriskurik. Pantailak ezin du gidariaren arreta ordezkatu.

⚠ ADI

Irrati-kateek hondamendien edo arriskuen abisuak bidali ditzakete. Honako baldintza hauek abisu horiek jaso edo bidali ahal izatea eragozten dute:

- Irrati-seinalea jasotzen ez duten edo behar beste jasotzen ez duten eremuetan zaudenean. Halaber, tuneletan, eraikin oso garaien arteko guneetan, garajeetan, lurpeko pasabideetan, mendietan eta haranetan.
- Irrati-seinale nahikoa jasotzen duten eremuetan irrati-katearen maiztasun-bandek interferentziak dituztenean edo eskuragarri ez daudenean.
- Irrati-seinalea jasotzeko behar diren bozgorailuak eta ibilgailuaren osagaiak hondatuta daudenean, funtzionatzen ez dutenean edo behar adinako energia elektrikorik ez dutenean.

⚠ ADI

Leherketa-arriskua duten tokietan, itzali telefonia mugikorreko gailuak!

⚠ ADI

Nabigazio-sisteman ageri diren gidatzeko gomendioak eta trafiko seinaleak benetako egoeran ezberdinak izan daitezke.

- Zirkulazio-seinaleek, seinalatze-sistemek, trafiko-arauek eta tokiko inguruabarrek lehentasuna daukate gidatzeko gomendioen eta nabigazio-sistemaren oharren gainetik.
- Egokitu gidatze-abiadura eta -estiloa klimatologia, ikuspen, errepide eta trafikoaren baldintzetara.
- Inguruabar jakin batzuek nabarmen luza dezakete hasieran aurreikusitako bidaiaren iraupena, bai eta helmugarako ibilbidea ere; edo, are gehiago, aldi baterako galaraz dezakete bertaraino nabigatzea, adibidez, bide bat trafikoari ixten bazaio.

⚠ KONTUZ

Arau bereziak dituzten tokietan edo telefonia mugikorreko gailuak erabiltzea debekatuta duten lekuetan, gailu horiek beti egon beharko dute deskonektatuta. Piztuta dagoen telefonia mugikorreko gailuak igortzen duen erradiazioak sor ditzake interferentziak ekipamendu tekniko eta mediko sentikorretan, eta, hala, horien ezohizko funtzionamendua edo matxura.

KONTUZ

Erreprodukzio bolumena gehiegizkoa bada edo distortsionatua badago, bozgorailuak honda daitezke.

Koadro orokorra eta aginteak

Connect System



167. irudia Koadro orokorra: aginte-unitatea

1. Ukipen-pantaila. Pantailaren bidez erabil ditzakezu infotainment-en funtzioak.
2. HOME botoia.

   : widgeten ikuspegiak dituen menu nagusia.

   : menu nagusia mosaiko moduan.
3. Laguntzaileetara eta ibilgailuaren doikuntzetara sarrera zuzeneko botoia.
4. On/Off ukipen-botoia (infotainment sistema pizteko/itzaltzeko)
5. Ukipen-eremuak (klimatizagailuaren tenperatura igotzeko eta jaisteko).
6. Ukipen-eremuak (bolumena igotzeko eta jaisteko).

Erabileraren gaineko jarraibide orokorrak

Erabiltzeko jarraibideak

- Infotainment sistema osorik hasteko beharrezkoak dira segundo batzuk, eta tarte horretan ez dizkio sarrerei erantzuten. Sistema abiatzean, atzera-martxako kamera sistemaren irudia baino ezin da erakutsi.
- Jarraibide guztiak bistaratuko dira eta funtzioak exekutatuko dira soilik infotainment sistemaren abioa osatu ondoren. Sistemaren abioaren iraupena infotainment-en funtzio kopuruaren araberakoa da, eta ohi baino gehiago luza daiteke tenperatura oso altuak edo oso baxuak izanez gero.
- Infotainment eta dagozkion osagarriak erabiltzen dituzunean, adibidez, entzungailuak edo aurikularrak, kontuan hartu herrialdeko berariazko arauak eta lege-xedapenak.
- Infotainment-en funtzio batzuek CUPRA CONNECTen erabiltzaile-kontu aktiboa eta ibilgailurako Interneterako konexioa behar dituzte. Datuen transmisioak ez du mugatuta egon behar funtzioak exekutatzeko.
- Infotainment erabiltzeko nahikoa da tekla bat emeki sakatzea edo pantaila pixka bat ukitzea.
- Infotainment egoki erabiltzeko, garrantzitsua da piztuta egotea eta, hala badagokio, ibilgailuaren ordua eta data ongi doituta egotea.
- Pantailan funtzio-botoi bat falta bada, ez da ekipoaren akatsa, baizik eta herrialdeko edo bertsioko berariazko ekipamenduarengatik da.
- Infotainment-en zenbait funtzio ibilgailua geldirik dagoenean bakarrik hauta daitezke. Gainera, herrialde batzuetan, aparkatze-blokeoak aktibatuta egon behar du (**P** botoia) edo hautatze-aginteak posizio neutralean **N** egon behar du. Hori ez da funtzionamendu txarraren ondorioa, baizik eta legezko xedapenak betetzearena.
- Herrialde batzuetan, Bluetooth® teknologia duten gailuen erabileraren inguruko murrizketak egon daitezke. Horren inguruko informazio gehiago lortzeko, bertako agintaritzari galdetu.
- 12 V-eko bateriako borneak askatu badituzu, konektatu pizgailua infotainment sistema berriz piztu aurretik.
- Doikuntzak aldatzen badira, pantailako jarraibideak alda daitezke eta baliteke infotainment, kasu jakin batzuetan, jarraibide-eskuliburu honetan deskribatu ez bezala jokatzea.
- Herrialde batzuetan, infotainment automatikoki itzaltzen da motorra itzalita dagoenean eta ibilgailuaren 12 volteko bateriaren kargamaila baxua denean.
- Utzi soilik tailer espezializatu baten esku infotainment-en egin behar diren konponketak eta aldaketak. CUPRAk CUPRA kontzesionario espezializatu batera edo SEAT sareko edozein kontzesionariotara joatea gomendatzen du horretarako.
- Ibilgailuaren barrualdean telefonia mugikorreko gailua erabiltzeak bozgorailuetan zaratak eragin ditzake.
- Aparkatzeko laguntza duten ibilgailuetan, audio-iturriaren bolumena automatikoki jaisten da atzera martxa sartzean. Bolumena jaistea doitu ahal da.
- Barne dagoen softwareari eta lizentziaren baldintzei buruzko informazioa kontsulta daiteke hemen: **`Ajustes > Copyright`**.
- Ibilgailua saltzeko edo uzteko orduan, ziurtatu gordetako datu, artxibo eta doikuntza guztiak ezabatu direla, eta, hala badagokio, kanpoko audio-iturriak eta datu-euskarriak kendu direla.

Oharra

Infotainment erabiltzeko informazio eta aholku gehiago aurkituko dituzu Ayuda menuan.

Hasierako pantaila HOME

Aginte- eta oharpen-unitatean, ikuspegiak eta hasierako pantailako irudikapena konfigura ditzakezu, edo fabrika-formatuko txantiloiak erabil ditzakezu.

Ikono bat falta bada, ez da akatsa, baizik eta herrialdearen edo bertsioaren araberako berariazko ekipamendua da.

Ondorengo menuak ikono moduan sar daitezke hasierako pantailan:

Menu nagusiak hasierako pantailan

Nabigazioa ››› 286. orrialdea

Irratia ››› 278. orrialdea, Multimedia ››› 282. orrialdea

Telefonoa ››› 294. orrialdea

Full Link ››› 260. orrialdea

Doikuntzak ››› 272. orrialdea

Ibilgailua ››› 38. orrialdea

Datuak ››› 37. orrialdea

Klimatizazioa ››› 140. orrialdea

Soinua

Erabiltzaileak

Store

Legezko oharra

Laguntza

Infotainment erabiltzea

Exekutatu funtzioak eta doikuntzak infotainment-eko aginteen bidez.

Infotainment-ek ekipamenduaren araberako hainbat aginte ditu:

- Ukipen-pantaila.
- Ukipen-eremuak pantailatik kanpo, adibidez, Bolumena (+ –).

Gida laburra irekitzea

Erabilpenari buruzko informazio eta aholku gehiago aurkituko duzu infotainment sistemaren Guía breve-n (gida laburra).

- Sakatu **HOME > ❓ Ayuda**.

Infotainment konektatzea eta deskonektatzea

Infotainment pizgailua konektatzean piztu egiten da, lehenago eskuz itzali ez bada.

Infotainment azken aldiz doitutako bolumenarekin piztuko da, betiere aurrez hautatutako gehieneko pizte-bolumena gainditzen ez badu.

Infotainment automatikoki itzaliko da gidariaren atea irekitzean, baldin eta lehenago pizgailua deskonektatu bada.

Objektuak mugitzea eta bolumena doitzea

Mugi itzazu objektuak pantailan doikuntzak egokitzeko, adibidez, botoi mugikorren bidez edo menu bateko eremuak mugitzeko.

Ekipamenduaren arabera, menuak eta ikuspegiak pertsonalizatu daitezke.

Irudiak edo mapak handitzea eta txikitzea

Aholkua: erabili erpuprua eta hatz erakuslea.

- Sakatu bi hatzekin aldi berean maparen gainean eta utzi itzazu pantailan.
- Ikuspegiak handitzeko, bereizi hatz bat bestetik poliki-poliki. Ikuspegiak txikitzeko, hurbildu hatz bat bestera poliki-poliki.

Oharra

Infotainment eskuz pizten baduzu pizgailua deskonektatuta, automatikoki itzaliko da 30 minutu inguru igaro ondoren.

Oharra

Azken belaunaldiko ekipo informatiko eta elektroniko gehienetan bezala, kasu batzuetan litekeena da sistemak berriro hasi behar izatea, behar bezala funtzionatzen duela bermatzeko. Horretarako, hala badagokio, eduki On/Off botoia sakatuta Infotainment sisteman (››› 167. irudia) 15 segundoz, CUPRA logoa pantailan agertu arte.

Infotainment pertsonalizatzea

Pertsonalizatu infotainment-en menuak eta ikuspegiak, gustukoen dituzun edo maizago erabiltzen dituzun funtzioak azkar atzitzeko.

Menu nagusiak infotaiment sistemaren aplikazio guztietara sartzeko funtzio-botoiak ditu.

Menu pertsonalizatuak konfiguratzea

Ikuspegi guztietan (Main Menu, StandBy, Parking, Speller eta Full Link izan ezik), pantailaren beheko aldean aurkituko dituzu pertsonalizatu ahal den sistemaren funtzioetarako zuzeneko sarbideak. Ezabatu, ordeztu edo ordena aldatu konfigurazioaren bidez.

- Mantendu hatza ikonoetako batean (edo sakatu posizio huts baten ikonoan) leiho gehigarri bat erakusteko.
- Aukeratu aplikazioen barrako ikonoetako bat.
- Sakatu ✕ ikono bat ezabatzeko.
- Sakatu leiho gehigarriko ikono batean balioa ordezteko.
- Mantendu hatza ikonoetako batean eta nahi duzun posiziora lerratu.
- Edizio-modua ixteko, leiho gehigarrian sakatu ✕ gainean.

Doikuntzak (sistema eta soinua)

Doikuntza posibleen hautaketa aldatu egiten da herrialdearen, delako ekipoaren eta ibilgailuaren ekipamenduaren arabera.

Doikuntzak aldatzea

Ondorengo sinboloen esanahiak sistemaren eta soinuaren doikuntza guztietarako balio du.

Aldaketak automatikoki aplikatzen dira menu bat ixtean.

☑ / ◉	Doikuntza hautatuta eta aktibatuta edo konektatuta dago.
☐ / ○	Doikuntza ez dago hautatuta, aktibatuta edo konektatuta.
▼	Zerrenda zabalgarri bat irekitzeko.
+	Doikuntza-balio bat handitzeko.
–	Doikuntza-balio bat murrizteko.
<	Urratsez urrats atzera egiteko.
>	Urratsez urrats aurrera egiteko.
⊙	Doikuntza-balio bat aldatzeko, graduaziorik gabeko botoi mugikorrarekin.

Soinuaren doikuntzak

- Soinuaren doikuntzetan sartzea: **HOME >** 🔊.

Soinuaren doikuntzetan funtzio, informazio eta doikuntza-aukera hauek egon daitezke:

- Ekualizadorea.
- Posizioa.
- Doikuntzak.

Sistemaren doikuntzak

- Sistemaren doikuntzetan sartzea: **HOME >** ⚙.

Sistemaren doikuntzetan funtzio, informazio eta doikuntza-aukera hauek erabilgarri egon daitezke:

- Pantaila.
- Ordua eta data.
- Hizkuntza.
- Teklatuaren hizkuntza gehigarriak.
- Unitateak.
- Ahots bidezko erabilera.
- Wi-Fi.
- Datu-konexioa.
- Gailu mugikorrak kudeatzea.
- Fabrikako doikuntzak berrezartzea.
- Sistemaren informazioa.
- Copyright.
- Konfiguraziorako laguntzailea.

Kanpoko audio-iturrien bolumena egokitzea

Kanpoko audio-iturri baten erreprodukzio-bolumena igo nahi baduzu, lehenago jaitsi infotainment-eko bolumena.

Konektatutako kanpoko audio-iturria **oso baxu** entzuten bada, igo **irteera-bolumena** kanpoko audio-iturrian. Hori aski izango ez balitz, erregulatu **sarrera-bolumena** honela: **ertaina** edo **altua**.

Konektatutako kanpoko audio-iturria **ozenegi edo distortsionatuta** entzuten bada, jaitsi **irteera-bolumena** kanpoko audio-iturrian. Hori aski izango ez balitz, erregulatu **sarrera-bolumena** honela: **ertaina** edo **baxua**.

Pantaila garbitzea

Kendu zikinkeria iraunkorra kontuz eta garbiketa-produktu erasokorrak erabili gabe. Pantaila garbitzeko honako hau gomendatzen dugu:

- Infotainment itzalita egotea.
- Erabili zapi garbia, leuna eta uretan bustia ››› 384. orrialdea.
- Zikinkeria iraunkorra izanez gero: bigundu zikinkeria ur pixka batekin bustiz. Gero kontu handiz kendu trapu garbi eta leun batekin.

KONTUZ

Pantaila garbiketa-produktu desegokiekin edo lehor dagoenean garbitzen baduzu, kalte egin diezaiokezu.

- **Garbitzean, presioa egin baina pixka bat bakarrik.**
- **Ez erabili garbiketa-produktu erasokorrak edo disolbatzaileak dituztenak. Produktu horiek ekipamendua kaltetu dezakete eta pantaila ilundu.**

Marka erregistratuak, baimenak eta egile-eskubideak

Marka erregistratuak eta baimenak

Eskuliburu honetako termino batzuek ® edo ™ ikurra daramate. Ikur horiek marka komertziala edo marka komertzial erregistratua dela adierazten dute. Ikur hori ez egoteak ez du derrigorrez esan nahi, ordea, delako terminoa askatasunez erabil daitekeenik.

Produktuen beste izen batzuk eskubideen jabeen erregistratutako markak dira.

- Manufactured under license from Dolby Laboratories. Dolby and the double-D symbol are trademarks of Dolby Laboratories.
- Manufactured under license from Dolby Laboratories. Dolby, Pro Logic and the double-D symbol are trademarks of Dolby Laboratories.

- Android Auto™ Google Inc. enpresaren marka ziurtatua da.
- Apple CarPlay™ Apple Inc. enpresaren marka ziurtatua da.
- Bluetooth® Bluetooth® SIG, Inc.-en marka erregistratua da.
- iPod®, iPad® eta iPhone® Apple Inc.-en marka komertzialak dira.
- MirrorLink® eta MirrorLink® logotipoa Car Connectivity Consortium LLC-ren marka erregistratuak dira.
- Windows® Microsoft Corporation (Redmond, USA) enpresaren marka erregistratua da.
- MPEG-4 HE-AAC audioa kodetzeko teknologiak eta patenteek Fraunhofer IIS-ren lizentzia dute.
- Produktu hori Microsoft Corporation-en zenbait industria-jabetza eta jabetza intelektualaren eskubidek babesten dute. Debekatuta dago mota horretako teknologia produktu horren konfiguraziotik kanpo erabiltzea edo komertzializatzea, Microsoften edo Microsoftek egiaztatutako sukurtsal baten lizentziarik gabe.

Egile-eskubideak

Oro har, datu-euskarrietan eta audio-iturrietan gordetako audio- eta bideo-artxiboak jabetza intelektualaren babesaren mende daude, kasu bakoitzean aplikatzekoak diren nazioko eta nazioarteko xedapenen arabera. Kontuan eduki legezko xedapenak!

Datu teknikoak

Ordenagailu zentrala aginte- eta ohar-unitatearekin[1)]

Fabrikan ibilgailuan muntatutako ordenagailu zentralak baditu herrialdeko berariazko osagaiak eta konektibitaterako eta ibilgailuaren, konfortaren eta infotainment-en funtzioak gauzatzeko softwarea.

Dagozkion jarraibideak aginte- eta ohar-unitateko pantailan agertzen dira, eta, hein batean, tresnen koadroan.

- Koloretako pantaila kapazitiboa
- Ekipamendua maneiatzea hauen bidez:
  - Ukipen-eremuak. Ukipen-maneiua.
  - Funtzio anitzeko bolantean dauden teklak.
  - Hurbiltze- eta keinu kontrol-sentsoreak.

  HOME > ⚙ Ajustes > Pantalla.

Ibilgailuaren eta konfortaren funtzioak

- Gidariarentzako laguntza-sistemak doitzea.
- Berogailua eta aire girotua doitzea.
- Argien eta ikusgaitasunaren funtzioak doitzea.
- Konfort-funtzioak doitzea.
- Aparkatzea eta maniobratzea doitzea.

Soinu-sistema (oinarrizko ekipamendua):

Fabrikatik datorren infotainment honela hornituta dago:

- Potentzia-maila (wattak) desberdinetako bozgorailuak leku desberdinetan kokatuta.
- Sistemaren araberako barruko anplifikadorea:
  - 7 bozgorailu: 5 x 20 W

Doitzeko aukerak:

- Sistemaren araberako ekualizadorea:
  - 7 bozgorailu: 5 maiztasun-banda eta aurrez zehaztutako doikuntzak.
- Sistemaren araberako soinu-banaketa:
  - 7 bozgorailu: Balance + Fader (ezkerra / eskuina / aurrealdea / atzealdea).
- Soinua zonaka optimizatzea (7 bozgorailuko sistemarako baliogarria):
  - Eskuzkoa (Gidaria eta Guztiak)
  - Automatikoa, okupatutako eserlekuen arabera.

Hautazko soinu-sistema

Infotainment sistema handitu egin daiteke hautazko soinu-sistema batekin, honela:

- Potentzia-maila (wattak) desberdinetako 10 bozgorailu leku desberdinetan kokatuta.
- Kanpoko anplifikadorea (340 W-eko Ethernet), zeinak ordenagailu zentralak bidaltzen dituen audio-seinaleak prozesatzen dituen.
- Bozgorailuetako kanalak eszitatzea, AB klaseko azken etapetan zehar.
- Audio-seinalearen prozesamendua seinaleen barne prozesadore digitalean (DSP).
- Aparteko subwooferra maletategian.

Doitzeko aukerak:

- Erabiltzailea ekualizadorea: 5 banda.
- Aurretik zehaztutako ekualizadorearen doikuntzak.
- Soinu-banaketa: Balance (ezkerra / eskuina) + Fader (aurrean / atzean).
- Soinua zonaka optimizatzea:
  - Eskuzkoa (Gidaria, Aurrealdea eta Guztiak)
  - Automatikoa, okupatutako eserlekuaren arabera.
- Subwooferreko bolumena.
- Surround doitzea.

Wi-Fi

- IEEE 802.11 b/g/n arauaren araberako Wi-Fi.
- 2,4 GHz eta 5 GHz-ko transferentzia.

---

1) Ekipamenduaren izena: Connect System

- Wi-Fi bi modutan aldi berean:
  - Tethering (2,4 GHz).
  - 2,4 GHz-ko sarbide-puntua.
- 8 Wi-Fi gailurainoko konexioa aldi berean.
- Interneterako konexioa Wi-Fi bidez:
  - Tethering bezeroaren telefonoaren bidez.
  - Bezeroentzako (clients) sarbide-puntua ibilgailuan.
- Apple CarPlay eta Android Auto Wi-Fi bidez.
- Parekatze-prozesua WPS-k edo QR kodeak erraztuta.

Bluetooth® profilak

Gehienez ere, esku libreko Bluetooth ®-ra konektatutako bi gailu eramangarri egon daitezke, eta hirugarren bat Bluetooth ®-ra konektatuta, musika-erreproduzitzaile gisa.

Telefono mugikor bat telefonoaren kudeaketa-sistemarekin konektatuta dagonean, Bluetooth® profil batzuen bidez datu-trukea gertatzen da.

- **Esku libreko profilarekin (HFP)**, deiak kudea daitezke infotainment sistemaren bidez.
- **Audio-profila (A2DP):** Profil horri esker, audioa estereo kalitatean igor daiteke. Beste profil osagarrien konexioa eska dezake, erreprodukzioa kudeatu eta kontrolatzeko.
- **Agenda deskargatzeko profila (PBAP):** Horri esker, telefono mugikorraren agendaren kontaktuak deskarga daitezke.
- **Mezu-profila (MAP):** Mezu laburrak (SMS) eta emailak deskargatzeko eta sinkronizatzeko aukera ematen du.

Ahots bidezko erabilera

Gaiaren aurkezpena

Ahots bidezko erabilerak bai linean[1], bai lineaz kanpo funtzionatzen du, **“Idiomas disponibles en función del mercado”** atalean adierazitakoa kontuan hartuta. Online moduan, aginduak erregistratzen dira zehaztasun handiagoz, datu gehiago eskura baitaude.

Ahots bidezko erabilerak galderak eta esamoldeak ulertzen ditu, komandoak ikasi beharrik gabe. Aginduak askatasunez formula daitezke eta lagunartekoak izan. Infotainment sisteman agindu-proposamenak aurkituko dituzu, adibidez, ❓ **Ayuda > Manejo por voz** menuaren bidez.

Lineatik kanpoko moduan funtzioak murriztuta daude.

Ibilgailuaren barruko edo kanpoko zarata handiek anomaliak sor ditzateke funtzionamenduan, bai eta esaldi eta erantzun nahasiek ere.

Merkatuaren araberako hizkuntza erabilgarriak

- *Linean eta lineatik kanpo:* alemana, ingeles estatubatuarra, ingeles britainiarra, frantsesa, italiera, gaztelania, txekiera, nederlandera, poloniera, portugesa, suediera, daniera eta norvegiera. Hizkuntza horiek funtzio aurreratuak dituzte, hala nola aginduak linean, klimatizagailu-kontrola, elkarrekintza naturala, eta abar.

Infotainment sistemako gainerako hizkuntzek **ez** dute klimatizagailuko kontrolik edo interakzio naturalik.

Baldintzak

- *Linean eta lineatik kanpo:* ahots bidezko maneiua, ibilgailuan muntatutako dagokion infotainment.
- *Online:* CUPRA CONNECT Plus-eko kontratu aktiboa indarrean.

Oharra

- **Ahots bidezko erabilerak soilik infotainment-en doitutako hizkuntzan dauden aginduak ezagutzen ditu.**
- **Saiatu ahots bidezko erabilera ibilgailua geldirik, martxan hasi aurretik, beraren funtzionamenduarekin ohitzeko.**
- **Ahots bidezko lineako bilaketa azkarragoa eta fidagarriagoa izango da, baldin eta “Erabili kokapena” pribatutasun-doikuntza hau-**

[1] Ez dago eskuragarri merkatu guztietan.

tatzen bada eta zure gailu mugikorraren aplikazioan posizio-datuak erabiltzeko baimena ematen baduzu.

- **Ahots bidezko maneiuak ibilgailuaren ekipamenduan erabilgarri dauden funtzioak bakarrik kontrolatu ahal izango ditu.**

Aktibazio hitza eta aginduak

Ahots bidezko erabilerarako aktibazio hitza

Ahots bidezko erabilera infotainment-ek aktibazio hitza ezagutzen duenean hasten da.

Ahots bidezko erabilera aktibazio hitzaren bidez konektatu baduzu, infotainment konektatuak honela erantzuten du: "*¿Qué desea hacer?*".

- **EDO:** aktibatzeko hitzaren ondoren, esan nahi duzun komandoa, adibidez: "*Hola Hola*" eta gero, "*calefacción*".

Sistemak aktibatzeko hitzaren ondoren ibilgailuan esandako hitzak aztertzen ditu.

Aktibazio hitza konektatzea eta deskonektatzea

- Sakatu **HOME** > ⚙ **Ajustes** > **Manejo por voz** > **Activar/ desactivar palabra de activación**.

Aktibazio hitza:	Hola Hola

Aginduak

Ahots bidezko erabilerak aginduak ondo ulertzeko:

- Argi ahoskatu. Argi entzuten ez diren komandoak ez dira hautematen. Hitz egin ahots-tonu normalarekin. Abiadura handiarekin ibiltzen bazara, hitz egin ozenxeago.
- Saihestu kanpoko zaratak. Leihatila eta ate irekiek ahots bidezko erabilera oztopa dezakete.
- Saihestu bigarren mailako beste zarata mota batzuk, hala nola elkarrizketak ibilgailuan. Ez zuzendu difusoreetako aire-korrontea mikrofonorantz edo sabaiaren barruko estalduarantz.
- Ez egin etenaldi luzerik.

	Ahots bidezko erabilera aktibo dago eta ahoskatutako hitzak ezagutzen ditu.

Komandoen proposamenak irekitzea

- Sakatu **HOME** > ❓ > .

Oharra

- **Aktibazio hitza deskonektatuta dagoenean, ezin da aktibazio hitzaren bidez infotainment aktibatu. Ahotz bidezko erabilerak erabilgarri jarraitzen du funtzio anitzeko bolanteko teklaren bitartez.**
- **Erabilgarritasuna herrialdearen eta ekipamenduaren araberakoa da.**

Ahots bidezko erabilera hastea eta bukatzea

Ekipamenduaren arabera, ahots bidezko erabilera hainbat modutan hasiera dezakezu.

Ahots bidezko erabilera hasieratzea

- *Ahots bidezko erabilera aktibatzea:* esan ahots bidezko erabilera aktibatzen duen hitza.
- *Funtzio anitzeko bolantea:* sakatu ahots-bidezko maneiuaren tekla.

Kasu batzuetan, konektatutako telefonia mugikorreko gailua ahots bidez maneiatzen ere has daiteke ahots bidezko erabilerako tekla sakatuta mantenduz.

Ahots bidezko erabilera bukatzea

Ahots bidezko erabilera bukatu ahal da **Cancelar** agindua erabiliz.

- *Funtzio anitzeko bolantea:* sakatu bi aldiz edo luze ahots-bidezko maneiuaren tekla.

Ahots bidezko erabilera automatikoki amaitzen da, infotainment-en funtzioak erabiltzen badituzu, aparkaleku-sistema aktibatzen bada edo jasotzen diren deiengatik.

Irratia modua

Gaiaren aurkezpena

168. irudia Irudikapen eskematikoa: Irratia ikuspegia.

Irratia moduan, hainbat maiztasun-bandatan eskuragarri dauden irrati-kateak sintoniza ditzakezu eta zure gogokoenak aurresintonia-tekletan memorian gorde, bertara azkar sartzeko.

Hartze-motak eta maiztasun-bandak ekipamenduaren eta herrialdearen araberakoak dira. Herrialde jakin batzuetan, baliteke maiztasun-bandak emititzeari uztea edo berriro ez eskaintzea.

RADIO menuan sartzea

- Sakatu **HOME** > ▶ > ⊟ ››› **168. irudia**.

Doikuntzetan sartzea

- Sakatu **HOME** > ▶ > ⚙.

Funtzioak linean Irratia moduan[1)]

Funtzioak linean Irratia moduan baldintza hauetan baino ez daude erabilgarri:

- CUPRA CONNECT edo CUPRA CONNECT Plus ekipamendua.
- CUPRA CONNECTen erabiltzaile-kontu aktibo bat duzu.
- Ibilgailua zure erabiltzaile-kontuari esleituta dago.
- CUPRAko datu ofizialen hornitzailearen webshopean erositako datu-pakete bat daukazu edo, Wi-Fi sarbide-puntuaren bidez, zure telefonia mugikorreko gailuaren datu-kopurua daukazu.

Oharra

- **Streaming zerbitzuetarako, kontu bat eduki behar duzu jadanik dagokion hornitzailean.**
- **Irrati-igorgailuak ematen duten informazioaren edukiaren erantzuleak dira. Ibilgailuari konektatutako ekipo elektrikoek, gai-**

1) Ez dago eskuragarri merkatu guztietan.

nera, interferentziak eragin ditzakete irrati-seinalea hartzean eta zaratak bozgorailuetan.

• Leihatiletako kristaletan jarritako orriek edo itsasgarriek (metalezko geruzak badituzte) irrati-seinalearen harrera nahasi dezakete antena kristaletan integratuta duten ibilgailuetan.

Irratiaren sinboloak eta ekipamendua

Funtzioak, bata hartze-motak eta maiztasun-banda erabilgarriak ere, ekipamenduaren eta herrialdearen araberakoak dira.

- AM sintonizadorea.
- FMko hargailu bikoitza (diversity antena).
- Irrati-kateen zerrenda laburtuta.
- DAB eta FM irrati-kateak zerrenda batean elkartzea..
- Aurresintonia-tekletan gordetako irrati-kate guztiak zerrenda batean ekartzea. Gehienez, 36 irrati-kate gogokoen.
- Irrati-kateen logotipoak.
- DAB aurkezpena (slideshow). Sekuentzialki emititzen diren irudiak.
- Irratia linean.

Sinbolo unibertsalak Irratia moduan

AM AM maiztasun-banda hautatzeko.

FM/DAB FM/DAB maiztasun-banda hautatzeko.

Irratia linean Irratia linean hartze-mota hautatzeko.

TP Irrati-katearen izenaren ondoan, trafiko aktiboaren informazioa (TP) igortzen duten irrati-kateak jarraitzea.

Sinboloak FM/DAB maiztasun-bandan

Maiztasun-banda bistaratzeko, FM maiztasuna eskuz hautatzeko. Bakarrik da posible irrati-kateen zerrenda laburtuta deskonektatuta dagoenean.

DAB ezin da sintonizatu.

DAB irrati-kateek aurkezpenak onartzen dituzte (slideshow).

Sinboloak AM maiztasun-bandan

Irrati-kateen zerrenda eskuz eguneratzea.

Maiztasun-banda bistaratzeko, AM maiztasuna eskuz hautatzeko.

Menuak Irratia linean moduan[1)]

Hautatutako irrati-kateak erakustea.

Testu-bilaketa irekitzea.

Linean entzundako azken irrati-kateak erakustea.

TOP 100 Gehien entzuten diren 100 irrati- eta podcast-kateak erakustea.

Linean eskuragarri dauden irratiko podcastak erakustea.

Lineako irrati-kateak erakustea, herrialdeka taldekatuta.

Nahi den hizkuntzaren araberako lineako irrati-kateak erakustea.

Nahi den musika-generoko programa duten lineako irrati-kateak erakustea.

Irrati bat aukeratu, sintonizatu eta memorizatzea

Maiztasun-banda hautatzea

Irrati-kate bat hautatu aurretik, maiztasun-banda bat edo hartze-mota bat hautatu beharko duzu. Hautatutako maiztasun-bandaren edo hartze-motaren arabera, hainbat irrati-kate daude.

Maiztasun-bandak eta hartze-motak ekipamenduaren eta herrialdearen araberakoak dira.

- Hautatu maiztasun-banda edo hartze-mota: AM, FM/DAB, FM (DAB ez daukaten ekipamenduetarako), Irratia linean.

---

1) Ez dago eskuragarri merkatu guztietan.

Irrati-kate bat bilatzea eta hautatzea

Irrati-kateak hautatzeko hainbat era daude. Era horiek maiztasun-bandaren eta hartze-motaren araberakoak dira.

Maiztasun-bandaren bidez (AM eta FM) hautatzea

1. Aktibatu maiztasun-banda.
2. Sakatu kurtsorearen gainean, mugitu maiztasun-bandatik eta askatu nahi duzun maiztasun-bandara iristean.

   EDO: maiztasun-bandaren puntu batean sakatu. Kurtsorea automatikoki joango da dagokion maiztasunera.

Doitutako maiztasunaren irrati-katea sintonizatuko da.

Irrati-kateen (AM eta FM/DAB) zerrendatik hautatzea

Irrati-kateen zerrendak momentuan sintonizatu ahal diren irrati-kateak erakusten ditu. AM maiztasun-bandan, gerta daiteke irrati-kateen zerrenda eguneratu behar izatea, irrati-kateen zerrendan azkenekoz sartu zinen eremuan ez bazaude dagoeneko. FM/DAB maiztasun-bandan, irrati-kateak automatikoki eguneratzen dira.

1. Ireki irrati-kateen zerrenda.
2. Sakatu nahi duzun irrati-katea.

Hautatutako irrati-katea sintonizatzen da. FM/DABen kasuan, eta irrati-katea erabilgarri badago, kalitate onena duen hartze-mota hautatuko da automatikoki.

Irrati-kateak bilatzea eta galbahetzea (Irratia linean)

Irratia linean moduan, irrati-kateak kategorien arabera galbahe daitezke eta testu bidez bila daitezke.

1. Ireki irrati-kateen hautaketa.
2. Irrati-kateak galbahetzeko behar den kategoria hautatu.

   EDO: sakatu 🔍 testu bidezko bilaketa hasieratzeko. Sartzeko eremua erakusten da.
3. Sartu nahi duzun irrati-katearen izena. Sartze-prozesuan, aurkitutako irrati-kateen zerrenda eguneratuz doa.
4. Sakatu nahi duzun irrati-katea.

Hautatutako irrati-katea sintonizatzen da.

SCAN (AM eta FM/DAB) moduan bilatzea

SCAN moduan, irrati-kateak modu sekuentzialean sintonizatzen dira automatikoki, eta horietako bakoitza erreproduzitzen da 5 segundo inguruz.

- SCAN modua hasieratzeko, sakatu **SCAN**.

SCAN modua hasten da eta une hartan sintonizatutako irrati-katea pantailan agertzen da. Bere ondoan SCAN funtzio-botoi bat erakusten da.

- Irrati-kate bat hautatzeko, sakatu SCAN.

SCAN modua gelditzen da eta irrati-katea sintonizatuta dago. SCAN funtzio-botoia ezkutatzen da.

Memorizatu irratiak aurresintonia-tekletan

Maiztasun-banda eta hartze-mota desberdinetako 36 irrati-kate gorde ditzake gogokoen gisa aurresintonia-tekletan.

1. Sintonizatu nahi duzun irrati-katea.
2. Sartu aurresintonia-tekletan.
3. Sakatu aurresintonia-tekla eta mantendu sakatuta irrati-katea memorian gorde arte.

   EDO: sakatu irrati-katea irrati-kateen zerrendan eta mantendu sakatuta. Aurresintonia-teklak erakusten dira.
4. Sakatu aurresintonia-tekla.

Irrati-katea hautatutako aurresintonia-teklan gordetzen da.

Aurresintonia-teklan ordurako irrati-kate bat gordeta bazegoen, irrati-kate berria gainean idatziko da.

Funtzio bereziak Irratia moduan

TP (trafikoaren irrati-katea)

TP funtzioak trafiko-informazioa duen irrati baten jakinarazpenak ikuskatzen ditu, eta automatikoki erreproduzitzen ditu Irratia moduan edo aktibo dagoen multimedia-erreproduk-

zioan. Horretarako, trafikoari buruzko informazioa duen irrati-katea sintonizatu ahal izatea beharrezkoa da.

Trafikoaren informaziorik ez duten zenbait irratik TP funtzioa onartzen dute, eta beste irrati batzuen trafiko-informazioa igortzen dute (EON).

AM maiztasun-bandan edo Multimedia moduan automatikoki sintonizatzen da trafikoari buruzko informazioa duen irrati-kate bat bigarren planoan, trafiko-informazioa duen irrati-kate bat hartzea posible den bitartean.

Trafiko-informazioa duen irrati-katerik ezin bada sintonizatu, ekipamenduak trafiko-informazioa duten eta sintonizagarriak diren irrati-kateak automatikoki bilatzen ditu.

Trafiko-informazioa duten irrati-kateak ez daude eskuragarri herrialde guztietan.

TP funtzioa aktibatzea eta desaktibatzea

- Irratia moduan edo Multimedia moduan, sakatu ⚙ > **Emisora de tráfico (TP)**.

Aurkezpenak (SlideShow) DABen

Aurkezpenen funtzioa (SLS) irrati digitalen irrati-kateen (DAB) ezaugarri bat da, erabiltzaileari irudien aurkezpen bat erakusteko aukera ematen duena, adibidez, irratiaren logoa.

SLS funtzioa aktibatzea eta desaktibatzea

DAB irrati-kateetako aurkezpen-funtzioa desaktiba daiteke.

- Radio menuan, sakatu irrati-kate horren informazioa dagoen gunean, izenean edo informazio gehigarrian (egilea edo informazio-testua).

Irratia linean[1)]

Lineako irratia Interneteko irrati-kateetarako eta podcastetarako hartze-mota bat da, AM, FM eta DABetik apartekoa. Internet bidezko transmisioari esker, hartzea ez dago eskualdera mugatuta.

Lineako irratia bakarrik dago erabilgarri infotainment-en Interneteko konexioa aktibatuta badago. Lineako irratia erabiltzeak gastuak eragin ditzake datuak Internetetik bidaltzeagatik.

- Irratia linean moduan, sakatu eta doitu soinuaren kalitatea, altua edo baxua, irratia linean sintonizatzeko.

Irrati-kateen logotipoak

Maiztasun-banda batzuen kasuan, irrati-kateen logotipoak aldez aurretik instalatuta egon daitezke infotainment-en.

FM/DAB maiztasun-bandaren doikuntzetan aktibatuta badago **Selección automática logotipos emisoras**, irrati-kateen logotipoak automatikoki esleitzen zaizkie irrati-kateei.

Irratia linean moduan, infotainment lineako datu-baseko irrati-kateen logotipoetara sartzen da, eta automatikoki esleitzen dizkie irrati-kateei.

Irrati-kateen logotipoak eskuz esleitzea

1. FM/DAB moduan, sakatu **Logotipos de emisoras**.
2. Sakatu ✎ ikonoaren gainean eta jarraian hautatu irrati-katearen logotipo bat esleitu behar zaion irrati-katea.
3. Aukeratu irrati-kateen logotipoa. Nahi baduzu, errepikatu prozesu bera beste irrati batzuekin.
4. **EDO:**, ⚙ > **Logotipos de emisoras** menuan.

[1)] Ez dago eskuragarri merkatu guztietan.

Media modua

Gaiaren aurkezpena



169. irudia Irudikapen eskematikoa: Multimedia ikuspegia.

Media moduan, datu-euskarrien eta streaming zerbitzuen[1] multimedia-fitxategiak erreproduzitu ditzakezu infotainment bidez.

Ekipamenduaren arabera, honako datu-euskarri hauek erabil daitezke:

- USB biltegiratze-euskarria (adibidez, USB memoria, USB bidez konektatutako telefono mugikorra).
- Bluetooth® gailua (adibidez, telefono mugikorra edo tableta).

Ekipamenduaren arabera, honako multimedia-fitxategi mota hauek erreproduzitu daitezke:

- Audio-fitxategiak.
- Bideo-fitxategiak (sistemaren arabera).

Streaming zerbitzuak ere erabil ditzakezu. Streaming zerbitzuen erabilgarritasuna ekipamenduaren eta herrialdearen araberakoa da.

Streaming zerbitzuak erabiltzeko, erabiltzaile-kontu propioa eduki behar duzu delako streaming-zerbitzuan.

Sartu MEDIA menuan

- Sakatu **HOME** > ▶ > ♫ >>> **169. irudia**.

Doikuntzetan sartzea

- Sakatu **HOME** > ▶ > ⚙.

Datu-euskarrien mugak eta datu-euskarriei buruzko oharrak

Tenperatura altuetan edo kaltetuta egon diren datu-euskarriek ez dute funtzionatuko. Hartu kontuan fabrikatzailearen oharrak.

Fabrikatzaile desberdinen datu-euskarrien arteko kalitate-desberdintasunek anomaliak eragin ditzakete multimedia-erreprodukzioan.

Datu-euskarri batean konfigurazio okerrak datuen euskarria ezin irakurtzea eragin dezake.

[1] Ez dago eskuragarri merkatu guztietan.

Erreprodukzio-zerrendek erreprodukzio-ordena bat baino ez dute zehazten, eta multimedia-fitxategiak biltegiratzen diren tokia adierazten dute, karpeta-egituraren barruan. Erreprodukzio-zerrendan ez dago gordetako multimedia-fitxategirik. Erreprodukzio-zerrenda bat erreproduzitzeko, multimedia-fitxategiek erreprodukzio-zerrendak adierazten dituen datu-euskarriak biltegiratzeko lekuetan egon behar dute.

Oharra

CUPRAk ez du erantzukizunik bere gain hartuko datu-euskarrietako fitxategien narriaduragatik edo galeragatik.

Ekipamenduaren ezaugarriak eta multimedia-sinboloak

Audioa, multimedia eta konektibitatea:

- Audio-erreprodukzioa eta multimedia-kontrola Bluetooth® bidez.
- Audio-erreprodukzioa honako formatu hauetan: AAC, ALAC, AVI, FLAC, MP3, MP4, WMA.
- Bideo-erreprodukzioa honako formatu hauetan: MPEG-1 eta MPEG-2 (.mpg, .mpeg), ISO MPEG4, DivX 3, 4 eta 5 Xvid (.avi), ISO MPEG4 H.264 (.mp4, .m4v, .mov), Windows Media Video 10 (.wmv, .asf).
- Edozein motatako gailuaren erreprodukzio-zerrendak.
- Multimedia streaming (linean).
- Multimedia bilaketa.

Sinbolo unibertsalak Media moduan

▶ Erreprodukzioa hasteko.

II Erreprodukzioa eteteko.

⏮ Aurreko izenburura aldatzeko.

⏭ Hurrengo izenburura aldatzeko.

Erreproduzitzen ari den izenburua errepikatzeko.

Izenburu guztiak erreproduzitzea.

Ausazko erreproduzitzeko ordena aktibatzeko.

★ Gogokoen zerrenda erakusteko.

⊕ Multimedia fitxategia gogokoen artean gehitzeko.

▼ Goian, eskuinaldean: multimedia-iturria hautatzea

⚙ Doikuntzetan sartzea.

🔍 Bilaketa irekitzea.

< Multimedia-iturriaren karpeta nagusira itzultzeko.

Multimedia-iturria hautatzea eta erreproduzitzea

Multimedia-iturria hautatzea

Multimedia-fitxategiak erreproduzitu aurretik, multimedia-iturri bat konektatu behar duzu.

Streaming zerbitzuak erabiltzeko Interneten konektatuta egon behar duzu.

- Konektatu kanpoko multimedia-iturri bat.
- Hautatu erreprodukziorako erabili behar den multimedia-iturri konektatua.

Audio- eta bideo-fitxategiak erreproduzitzea

Eskura dagoen multimedia-iturri baten multimedia-fitxategiak hainbat modutan bila eta erreproduzi ditzakezu.

Karpeta-egituran bilatzea

Multimedia-fitxategiak kategorien arabera katalogatuta egon daitezke (adibidez, albuma, interpretea, izenburua). **Mis multimedia** atalean, kategorietako bista hori beti agertzen da. Banakako USB datu-euskarrietako karpeta-egitura klasikoa **Mis multimedia** atalean ere dago.

1. Aktibatu karpeta-egitura.

   Hautatutako multimedia-iturriko karpeta-egitura erakusten da. Aukeratuta dagoenean **Mis multimedia** lehenik kategoriak

(musika, bideoak, erreprodukzio-zerrendak) eta konektatutako multimedia-iturriak agertuko dira.

2. Karpeta-egituran bilatu nahi duzun izenburua.

   EDO: sakatu 🔍 testu-bilaketa hasteko. Sartzeko eremua erakusten da.

3. Sartu bilatzen ari zaren izenburua. Sartze-prozesuan, aurkitutako izenburu-zerrenda eguneratuz doa.
4. Sakatu nahi duzun izenburua.

   Erreprodukzioa hastean zure hautaketa multimedia-iturri bateko karpeta batean badago, bertan dauden multimedia-fitxategiak erreprodukzioari gehituko zaizkio.

   Erreprodukzio zerrenda bat erreproduzitzen bada, erreprodukzio zerrendatik eskuragarri dauden izenburu guztiak gehituko zaizkio erreprodukzioari.

5. Itxi zure hautaketa honekin: ✕.

Gogokoak hautatzea

Gogokoetan tituluak, musika-generoak, interpreteak eta albumak banaka gorde ditzakezu erreproduzitzeko.

- Sartu gogokoetan ★.
- Sakatu nahi duzun gogokoa.

Hautaketaren arabera, gogokoari dagozkion izenburu guztiak erreprodukzioari gehituko zaiozkio.

Gogokoak gordetzea

Gogoko gisa fitxategi multimediak baino ezin dira gorde, infotainmenteko **Mis multimedia** atalekoak. Izenburuak, albumak, interpreteak eta musika-generoak banaka gorde ditzakezu gogoko gisa, gehienez 30.

1. Hasieratu erreprodukzioa.
2. Sartu gogokoetan.
3. Sakatu esleituta ez dagoen gogoko batean.

   EDO: sakatu dagoen gogoko baten gainean eta eutsi sakatuta 3 segundo inguruz.

4. Aukeratu hautatze-zerrendatik: Izenburua, albuma, interpretea, musika-generoak, erreprodukzio-zerrenda.

Hautaketa aurretik aukeratutako gogokoaren ordez gordeko da. Ordurako gogokoa esleituta bazegoen, gordeta zegoen gogokoa gainean idatziko da.

Hautatze-zerrendan hauta daitezkeen aukerak multimedia-fitxategiari erantsitako datuen araberakoak dira. Musika-fitxategietan genero musikala adierazten ez bada, adibidez, ezin da gorde genero musikala gogoko gisa.

Bideo-fitxategi bat erreproduzitzen ari bada, bideo hori bakarrik faborito gisa gorde daiteke.

Streaming-zerbitzuak konfiguratzea

Ekipamenduaren arabera, streaming-zerbitzuak zuzenean infotainment bidez erabil ditzakezu. Horretarako, delako streaming-zerbitzuaren erabiltzaile premium kontu bat eduki behar duzu, eta horrekin hasieratu behar duzu saioa infotainment-en. Gainera, Interneten konektatuta egotea beharrezkoa da.

1. Hautatu **Streaming** multimedia-iturri gisa.

   Streaming zerbitzu eskuragarri dauden zerrenda agertuko da.

2. Aukeratu nahi duzun streaming zerbitzua.
3. Jarraitu infotainment sistemak adierazitako urratsak.

   Streaming zerbitzua multimedia-iturrien zerrendan gehitzen da funtzio-botoi berri gisa.

Entretenimendu-edukien erreprodukzioa infotainment-en

Infotainment sistemaren arabera, bideoak erreproduzi daitezke.

Bideoa modua

Bideoa moduan, infotainment-eko pantailan datu-euskarri bateko, **Mis Multimedia** ataleko edo streaming zerbitzu bateko bideo bat erreproduzitu ahal da. Kasu horretan, bideoaren soinua ibilgailuaren bozgorailuen bidez erreproduzitzen da.

Ibilgailua gelditua dagoenean bakarrik ikusten da irudia. Martxan zehar, infotainment-eko pantaila itzali egiten da. Bideoaren soinua entzuten jarrai daiteke.

Streaming zerbitzu batetik erreproduzitzeko, Interneterako konexio egonkorra behar da. Kasu horretan, telefonia-gastuak eragin daitezke.

Nabigazioa

Gaiaren aurkezpena

170. irudia Irudikapen eskematikoa: Nabigazioa ikuspegia

Satelite sistema global batek ibilgailuaren uneko kokapena zehazten du, eta ibilgailuan muntatutako sentsoreek egindako ibilbideak aztertzen dituzte. Neurtutako balio guztiak eta trafikoko gertakari posibleak eskuragarri dauden mapekin alderatzen dira, helmugara ezin hobeto nabigatu ahal izateko.

Nabigazioaren lokuzioek eta irudikatutako grafikoek helmugaraino gidatuko zaituzte.

Nabigazioaren maneiua pantailan gauzatzen da.

Herrialdearen arabera, infotainment-en zenbait funtzio ez dira erabilgarri egongo pantailan abiadura jakin batetik aurrera. Ez da funtzionamendu txarra, legezko xedapenak bete beharra baizik.

Nabigazioaren lokuzioak

Nabigazioaren lokuzioak gidatzeko jakinarazpen akustikoak dira, uneko ibilbideari buruzkoak.

Nabigazio-lokuzioen mota eta maiztasuna martxa-egoeraren araberakoak dira, esate baterako, helmugarako gidaren hasiera, autobidean edo biribilgune batean zirkulatzea; eta doikuntzen araberakoak.

Helmuga zehatzera iritsi ezin bada –adibidez, digitalizatu gabeko eremuan dagoelako–, pantailan, helmugaren helbideari eta helmugatik distantziari buruzko jakinarazpenak agertuko dira.

Helmugara joateko gida dinamikoan, ibilbideko trafikoko gorabeherez ohartarazten da. Ibilbidea berriro kalkulatzen bada, esaterako, autoilara batengatik, beste lokuzio bat entzungo da.

Nabigazioaren lokuzio bat erreproduzitzen den bitartean, bolumena egokitu daiteke. Igorritako nabigazioaren hurrengo lokuzioak bolumena doituta erreproduzituko dira.

Mugak nabigazioan zehar

Infotainment-ek ezin baditu GPS sateliteen datuak jaso, adibidez, tunel batean edo lurpeko garaje batean, nabigazioak aurrera egiten du ibilgailuko sentsoreen bidez.

Digitalizatuta ez dauden zonetan edo infotainment-en memoria ez badago erabat digitalizatuta, infotainment-ek helmugarako gida ahalbidetzen saiatzen jarraituko du.

Nabigazio-datuak falta badira, edo osatu gabe badaude, gerta daiteke ibilgailuaren posizioa zehaztasunez ezin ezartzea. Nabigazioa ohi bezain zehatza ez izatea eragin dezake.

Bideen trazatuak etengabeko aldaketak ditu (adibidez, kale berriak, lanak, trafikoari kaleak ixtea, kaleen izenak eta eraikinen zenbakiak aldatzea). Nabigazio-datuak zaharkituta badaude, akatsak edo zehaztugabetasunak eragin ditzakete helmugarako gidan zehar.

Nabigazio-mapa erabiltzea

Ondo ikusteko, nabigazio-mapa hatzen mugimendu gehigarriekin erabil ere egin dezakezu.

Mapa mugitzea

Aholkua: erabili hatz erakuslea

- Mugitu mapa hatzarekin.

Ikuspegia handitzea

Aholkua: erabili hatz erakuslea

- Ikuspegia posizio jakin batean handitzeko, sakatu bi aldiz jarraian maparen gainean.

Ikuspegia murriztea

Aholkua: erabili hatz erakuslea eta hatz luzea

- Sakatu bi hatzekin aldi berean maparen gainean.

Ikuspegia aldatzea

Aholkua: erabili hatz erakuslea

- Sakatu bi aldiz jarraian maparen gainean eta eutsi sakatzeari pantailaren gainean hatzaz.
- Maparen ikuspegia txikitzeko, gorantz mugitu hatza. Maparen ikuspegia handitzeko, beherantz mugitu hatza.

Ikuspegia aldatzea

Aholkua: erabili erpurua eta hatz erakuslea

- Sakatu bi hatzekin aldi berean maparen gainean eta eutsi sakatzeari.
- Maparen ikuspegia txikitzeko, hurbildu hatz bat bestera. Maparen ikuspegia handitzeko, banandu hatz bat bestetik.

Ikuspegia okertzea

Aholkua: erabili hatz erakuslea eta hatz luzea

- Sakatu bi hatzekin horizontalean eta aldi berean maparen gainean, eta eutsi sakatzeari.
- Maparen ikuspegia aurrerantz kulunkatzeko, mugitu behatzak gorantz. Maparen ikuspegia atzerantz kulunkatzeko, mugitu behatzak beherantz.

Mapa biratzea

Aholkua: erabili erpurua eta hatz erakuslea

- Sakatu bi hatzekin aldi berean maparen gainean eta eutsi sakatzeari.
- Mapa-ikuspegia biratzeko, biratu hatzak erlojuaren orratzen noranzkoan edo kontrakoan.

Gordetako datuak

Infotainment-ek datu jakin batzuk gordetzen ditu, adibidez, ohiko ibilbideak eta kokapen-datuak, helmuga sartzea arintzeko eta helmugarako gida hobetzeko.

Gordetako datuak ezabatzea

- Sakatu **Ajustes > Ajustes de las funciones básicas > Eliminar** eta, jarraian, **Aceptar**.

⚠ ADI

Egin itzazu nabigaziorako doikuntzak, helmuga sartzea eta aldaketak bakarrik ibilgailua geldi dagoenean.

Oharra

- **Helmugarako gida batean zehar desbideratze bat kontuan hartu ezean, gerta daiteke nabigazioak berriz ere ibilbidea kalkulatzea.**
- **Bidalitako gidatze-gomendioen kalitatea erabilgarri dauden nabigazio-datuen eta jasotako auto-ilarei buruzko datuen araberakoa da.**
- **Nabigazioko lokuzioak ez dira igortzen soinua infotainment-en ezabatuta badago.**

Nabigazioaren funtzioak eta sinboloak

Navegación

Nabigazioaren funtzioak ekipamenduaren eta herrialdearen araberakoak dira.

Funtzioak

- Helmuga sartzea eta ibilbidea kalkulatzea (lineatik kanpo eta linean[1]).
- Bi nabigazio-mapa aldi berean agertzea (pantaila eta tresnen koadroa).
- Mapak linean eguneratzea[1].
- Aurreikusitako nabigazioa.
- Hiri-mapak 3Dn.
- Trafiko-informazioa linean[1].
- POI (interesguneak) dinamikoak.

[1] Ez dago eskuragarri merkatu guztietan.

Mapan dauden sinboloak

Botoiak eta jakinarazpenak doikuntzen eta martxa-egoeraren araberakoak dira.

Mapan trafiko-gertaeretarako eta interesguneetarako (POI) sinboloak ageri dira, adibidez, gasolindegiak, tren-geltokiak edo etapa interesgarriak, betiere nabigazioak datu horiek baditu ››› 291. orrialdea.

- Uneko kokapena.
- Helmugak bilatzea.
- Helmugak ibilbidean barrena.
- Azken helmuga.
- Etxeko helbidea.
- Lanaren helbidea.
- Helmuga gogokoenak.
- Aukera gehiago dituen leiho gehigarria.
- Ibilbide-aukerak dituen leiho gehigarria.
- Uneko kokapenean mapa zentratzea.
- Ikuspegia aldatzea: 2D iparraldera begira, edo 2D martxaren noranzkora begira, edo 3D martxaren noranzkora begira.
- Uneko helmugarako gidari buruzko informazioa.
- 500m Maparen eskala.

Sinboloak leiho gehigarrian

- Leiho gehigarria irekitzeko, sakatu ☰.
- Azken nabigazio-lokuzioa errepikatzea.
- Nabigazio-lokuzioen bolumena.
- Mapa argitzea Automatikoa, Eguna edo Gaua moduan.
- Helmugarako ibilbide berriak eskaintzea.
- 360° Autonomia elektrikoaren adierazlea (ibilgailu hibridoetan)

Beste sinbolo batzuk

- Helbide baterako helmuga zehazki sartzea.
- Helmugak bilatzea.
- Ohiko helmugak.
- Azken helmugak.
- Helmuga gogokoenak.
- Atrás

Sinboloak ibilbide-xehetasunetan

- Uneko kokapena.
- Uneko gidaren helmuga.

POIren (interesguneen) sinboloak

Mapan POI (interesguneak) ageri dira, betiere nabigazioak datu horiek baditu.

Sakatu nahi duzun POI (interesgune) gainean, helmugarako gida bat hasieratzeko ››› 290. orrialdea.

- Gasolindegia.
- Aparkalekua.
- Turismo informazio bulegoak.
- Tren-geltokia.
- Jatetxea.

Trafiko-informazioa

Mapan trafiko-informazioa ageri da, baldin eta nabigazioak datu horiek baditu ››› 291. orrialdea.

Sakatu trafiko-gertaera baten gainean, xehetasun gehiago duen leiho gehigarria irekitzeko ››› 292. orrialdea.

- Trafiko handia.
- Auto-ilara.
- Istripua.
- Ibilgailu matxuratua.
- Zoru irristakorra (izotza edo elurra).
- Trafikoari itxitako bidea.
- Arriskua bide irristakorragatik.
- Arriskua.
- Errepide-lanak.
- Haize gogorra.
- Ikuspen murriztua.

Nabigazioaren inguruko datuak

Infotainment-ek badu barne-nabigazioaren inguruko datu-memoria. Herrialdearen arabera, baliteke beharrezko nabigazio-datuak aldez aurretik instalatuta egotea.

Helmugarako gidak behar bezala egiteko eta eskaintzen diren funtzioak ahalik eta gehien aprobetxatu ahal izateko, infotainment aldizka eguneratu beharko litzateke.

Datu zaharkituak erabiltzen badituzu, akatsak egon daitezke nabigazioan zehar. Ezin izango dira uneko ibilbideak trazatu, bestela helmugarako gidek okerreko helmugetara eramango dute.

Eduki eguneratuta nabigazio-datuak uneoro.

Linean nabigazio-datuak eguneratzea[1)]

Gidatzean maiz bisitatutako eskualdeen inguruko nabigazio-datuak automatikoki eguneratzen dira bigarren planoan, baldin eta Interneterako konexioa ezarrita badago eta pribatutasun-doikuntzak baliagarriak badira.

- Pizgailua konektaturik, nabigazio-datuak automatikoki eguneratzen dira.

Nabigazio-datuak eskuz eguneratzea

Eskualde handietarako, Mendebaldeko Europarako adibidez, eguneratutako nabigazio-datuak www.seat.com webgunetik deskarga daitezke eta USB datu-euskarrietan gorde.

- Deskargatu nabigazio-datuak USB datu-euskarri batera.
- Konektatu ibilgailuaren pizgailua.
- Konektatu USB datu-euskarria infotainment-ekin. Nabigazio-datuak automatikoki eguneratzen dira bigarren planoan.

HOME > ⚙ > Información del sistema atalean mapa-bertsioak erakusten dira.

⚠ ADI

Martxan zehar nabigatzeko datuak eskuz eguneratzen badituzu, lesio larriak eragiten dituzten istripuak eragin ditzakezu.

- **Eguneratu nabigazio-datuak ibilgailua geldirik dagoenean bakarrik.**

[1)] Ez dago eskuragarri merkatu guztietan.

Oharra

Nabigazio-datuen eguneratze automatikoa pribatutasun-doikuntzen araberakoa da. Ezezaguna moduan ez dira eguneratzerik gauzatzen.

Helmugarako gida bat hasieratzea

Herrialdearen eta ekipamenduaren arabera, hainbat funtzio daude helmugak sartzeko.

Helmugak sartzeko funtzioak nabigazioaren menu nagusian daude.

Nabigazioaren menu nagusia irekitzea

- Sakatu **HOME >** ⚑.

Helmuga hautatzea eta nabigazioa hasieratzea

1. Sakatu ⚲.
2. Hautatu nahi duzun helmuga. Hauta dezakezu hauen artean: **Ohiko helmugak,** **Azken helmugak edo** ☆ **Helmuga gogokoenak.**

   EDO: sakatu 🔍 eta sartu helbidea sarreramaskaran.

   EDO: helbide zehatza.
3. Sakatu **Inicio**.

Ohiko helmugak

Helmugen inguruko sinopsiak erregistratutako datuak erabiltzen ditu balizko helmugak proposatzeko.

Helmuga hautatzea eta nabigazioa hasieratzea:

1. Sakatu ⚲, eta ondoren ⚲.
2. Hautatu nahi duzun helmuga. Helmugarako gidak automatikoki hasieratzen du.

Hasiera azkarra: azkar hasteko, sakatu eta sakatuta mantendu nahi duzun helmuga segundo batzuetan.

Azken helmugak

Nabigazioak azken helmugak gordetzen ditu, helmugarako gida baterako erabilgarri izan daitezen.

Helmuga hautatzea eta nabigazioa hasieratzea:

1. Sakatu ⚲, eta ondoren ⏲.
2. Sakatu nahi duzun helmugan.
3. Sakatu **Inicio**.

Hasiera azkarra: azkar hasteko, sakatu eta sakatuta mantendu nahi duzun helmuga segundo batzuetan.

Helmuga gogokoenak

Gorde 20 helmuga gehienez gogoko gisa.

Helmuga bat gogoko gisa gordetzeko, sakatu ☆ leiho gehigarrian helmuga sartzeko momentuan.

Helmuga hautatzea eta nabigazioa hasieratzea:

1. Sakatu ⚲, eta ondoren ☆.
2. Sakatu nahi duzun helmugan.
3. Sakatu **Inicio**.

Oharra

Sartu helmuga ahalik eta zehaztasun handienaz. Helmuga bat gaizki sartzen baduzu, ezin izango da helmugarako gida hasieratu edo horrek helmuga desegoki batera eramango zaitu.

Helmugarako gida bat hasieratzea, mapan aukeratuz

Nabigazio-mapak helmuga sartzeko egokiak diren gune askotan eremu aktiboak ditu. Horretarako sakatu nahi duzun kokapena edo lekua mapan. Puntu horretan mapako datuak badaude, helmugarako gida bat has dezakezu.

Nabigazio-maparen bidez helmuga sartu ahal izatea datuen egoeraren araberakoa da, eta ezinezkoa da posizio guztietarako.

“Errepidetik kanpoko (offroad) nabigazioa” hasieratzeko, sakatu posizio-daturik gabeko eremu libre batean.

Nabigazioa hasieratzea:

1. Sakatu .
2. Lerratu ikuspegia mapan, harik eta nahi duzun kokapena hautatu ahal izan arte. Nabigazio-mapa hatzekin mugimendu gehigarriak eginez erabil daiteke ››› **286. orrialdea**.
3. Sakatu mapako nahi duzun helmugan.
4. Sakatu **Ruta**.

Offroad nabigazioa

"Offroad nabigazioak" hautatutako helmuga-puntuetarako ibilbideak kalkulatzen ditu datu ezezagunak erabiliz. Helmuga-puntu bat ezagutzen diren bideetatik edo kokapen-datuetatik kanpo dagoenean, nabigazioak ezagutzen diren bideen hurrengo punturainoko ibilbidea arakatzen du, eta hurrengo helmuga-punturainoko ibilbidea osatzen du zuzeneko konexioaren bidez.

Nabigazioa hasieratzea:

1. Lerratu ikuspegia mapan, harik eta nahi duzun kokapena hautatu ahal izan arte. Nabigazio-mapa hatzekin mugimendu gehigarriak eginez erabil daiteke ››› **286. orrialdea**.
2. Kokapen-daturik gabe, sakatu mapako edozein punturen gainean.
3. Sakatu **Ruta**.

Helmugarako gida bat hasieratzea, kontaktu-datuak erabiliz

Hasieratu helmugarako gida bat, kontaktu baten gordetako helbide-datuak erabiliz. Helbide-daturik gabe gordetako kontaktuak ezin dira erabili helmugarako gida baterako.

Nabigazioa hasieratzea:

1. Sakatu .
2. Sakatu nahi duzun kontaktuaren gainean.
3. Sakatu **Ruta**.

Oharra

Kontaktu baten helbide-datuak zaharkituta badaude, helmugarako gidak erregistratutako helbidera era berean eramango zaitu. Egiaztatu kontaktuaren helbidea eguneratuta dagoela.

Trafiko-informazioa

Infotainment-ek trafiko-informazio zehatza jasotzen du automatikoki[1], Interneteko konexioa ezarrita badago. Informazio hori sinboloen bidez erakusten da, eta mapan bide-sarea kolore batez nabarmenduz.

Trafiko-gorabeherak

Trafiko-gorabeherak, adibidez, auto-ilarak edo trafiko handia, sinboloen bidez erakusten dira nabigazio-mapan.

Helmugarako gida aktibo bat dagoelarik, uneko ibilbidean dauden trafiko-gorabeherak erakusten dira ibilbidearen inguruko xehetasunetan. Trafiko-gorabehera horiek ekidin daitezke ››› **292. orrialdea, *Funtzioak deskribatzea***.

Arriskuei buruzko informazioa

Nabigazio-mapan arriskuei buruzko informazioa erakusten da sinboloak erabilita, zirkulazio-gorabeherak bezala. Kasu honetan, informazioaren iturria arrisku hori antzeman duen beste ibilgailu bat da, zeinak informazio hori zerbitzuaren hornitzailera bidali duen.

Agertzen diren arriskuak hauek dira: istripua, matxuratutako ibilgailua eta zoru irristagarria.

Trafikoaren arintasuna jakinaraztea

Nabigazio-mapan trafikoaren arintasuna erakusten da, uneko trafiko-gertakarien arabera eta bide-sarea nabarmenduz kolore batez.

- **Horia:** Trafiko handia.
- **Gorria:** Auto-ilara.

Oharra

Trafiko-informazioa jasotzea pribatutasun-doikuntzen araberakoa da. Gehieneko Pribatutasuna moduan ez da trafikoari buruzko informaziorik jasotzen. Tracking edo Location Maila beharrezkoa da.

[1] Ez dago eskuragarri merkatu guztietan.

Funtzioak deskribatzea

Ibilbidearen inguruko xehetasunak

Ibilbidearen xehetasunek gorabehera guztiei buruzko informazioa jasotzen dute, adibidez, abiapuntua, etapak, trafikoko gertaerak, POI eta helmuga, baldin eta nabigazioak datu horiek baditu.

Gorabehera baten gainean sakatuz gero, aukera gehiago dituen leiho gehigarria irekiko da. Erabilgarri dauden aukerak gorabeheren eta uneko doikuntzen araberakoak dira.

Ibilbide-xehetasunak irekitzea eta ixtea

- Irekitzeko, sakatu | gainean edo irrista ezazu.
- Ixteko, sakatu | gainean edo irrista ezazu.

Helmugara joateko gida editatzea

Helmugarako gida editatzeko, mugitu helmugarako etapak TripView ikuspegian.

- Sakatuta eduki nahi duzun helmuga, agerian nabarmendu arte.
- Mugitu helmuga nahi den kokapenera.
- Kendu hatza pantailatik. Ibilbidea berriro kalkulatuko da.

Trafiko-gorabeherak ekiditea

Ibilbide-xehetasunek uneko trafiko-gorabeherak erakusten dituzte, nabigazioak datu horiek baditu. Ekidin trafiko-gorabeherak ibilbide-xehetasunak editatuz ››› 292. orrialdea.

- Sakatu trafiko-gertaera baten gainean.
- Sakatu **Evitar**. Ibilbidea berriro kalkulatuko da.

Leiho gehigarria

Nabigazioaren funtzioak maneiatzen dituzunean, beste aukera batzuk dituen leiho gehigarri bat ireki daiteke. Aukera posibleak erabiltzen ari den funtzioaren araberakoak dira.

Leiho gehigarria ixtea

- Sakatu leiho gehigarritik kanpoko eremu libre batean.
- **EDO:** sakatu ×.
- **EDO:** sakatu **Aceptar**.

Sinboloak leiho gehigarrian:	
Mapan erakustea	Mapan hautatutakoa erakusten du.
Etapa gehitzea	Helmugarako gidan etapa bat gehitzen du.
Zuzeneko ibilbidea	Helmugarako gida zuzena hasieratzen du.
Ezabatzea	Helmugarako gidako etapa bat ezabatzen du.
Ekiditea	Auto-ilara bat saihesten du. Ibilbidea berriro kalkulatuko da.
Helmugarako gida etetea	Uneko helmugarako gida amaitzen du.
×	Leiho gehigarria ixtea.
☆	Gogokoei helmuga bat gehitzen die.

Erabiltzeko jokabidea ikastea

Martxan zehar, nabigazioak egindako ibilbideak eta helmugak gordetzen ditu, helmugak automatikoki proposatzeko. Helmugak eguneko orduaren eta asteko egunaren arabera ikasten dira.

Nabigazioak 5 ibilbide proposa ditzake aldi berean. Proposatutako ibilbideak ohiko helmugarako gidako ibilbideak ez bezalakoak izan daitezke.

Proposatutako helmugetako bat aukeratuz gero, helmuga horretaranzko gida hasiko da.

Helmugarako gidak hautatutako ibilbideari jarraitzen dio ibilgailua desbideratu arte. Kasu horretan, ibilbidea berriro kalkulatuko da, eta berriro gidatuko du hasieran hautatutako helmugaranzko biderik zuzenenetik.

Auto-ilara garrantzitsuak helmugarako gidan kontuan hartzen dira, eta saihestu egiten dira bestelako biderik badago, baldin eta nabigazioak datu horiek baditu.

Nahi duzun guztietan aktiba eta desaktiba dezakezu funtzioa.

Erabiltzeko jokabidea ikastea aktibatzea eta desaktibatzea

Doikuntza nabigazioko dagokion menuan dago: ⚙ > **Ajustes de las funciones básicas**.

- Funtzioa aktibatzeko, aktibatu **Aprender comportamiento de uso**.
- Funtzioa desaktibatzeko, desaktibatu **Aprender comportamiento de uso**.
- Gordetako datuak ezabatzeko, sakatu **Eliminar comportamiento de uso**.

360°-ko autonomia elektrikaren adierazlea

Erabilgarri propultsio hibrido entxufagarria duten ibilgailuetarako

Goi-tentsioko bateriaren uneko karga-egoerak ematen duen balizko autonomia erakusten du 360°-ko autonomia elektrikoaren adierazleak.

360°-ko autonomia elektrikoaren adierazlea aktibatzea

- Ireki mapako leihatila gehigarria eta sakatu ikurra.

Telefono interfazea

Gaiaren aurkezpena

171. irudia Irudikapen eskematikoa: Telefonoa ikuspegia.

Telefono interfazearen bidez, telefono mugikorra konekta dezakezu infotainmentekin, eta telefonoaren funtzioak maneiatu infotainment bidez. Soinua ibilgailuaren bozgorailuen bidez erreproduzitzen da.

Telefonia mugikorreko bi gailu gehienez konekta ditzakezu aldi berean infotainment sisteman.

Honako hauek eragin negatiboak izan ditzakete ibilgailu barruko dei telefonikoen audiokalitatean: azkar gidatzea, errepide- eta meteorologia-baldintza kaskarrak, inguru zaratatsua (ibilgailutik kanpo ere bai), baita sarearen seinalearen intentsitatea ere.

Oharra

- **Oro har, gailu bat (adibidez, telefonia mugikorreko gailua) behin bakarrik parekatu behar da. Bluetooth® edo Wi-Fi bidezko gailuaren eta infotainment sistemaren arteko konexioa berrezarri dezakezu, gailua berriro parekatu behar izan gabe.**
- **Telefonia funtzio batzuen erabilgarritasuna infotainment sistemara konektatutako telefono mugikorraren araberakoa izango da.**

Telefono interfazearen ekipamendua eta sinboloak

Ekipamenduaren ezaugarriak

- Esku libreko funtzioa.
- Bi telefono gehienez aldi berean erabiltzea.
- Gehienez 5.000 kontaktu dituen telefono-agenda.
- SMS funtzioak Bluetooth® bidez: SMS irakurtzea, SMS idaztea (txantiloiak barne), SMS erreproduzitzea, mezuen historia.
- Posta elektronikoko funtzioak Bluetooth® bidez: posta elektronikoa irakurtzea, posta elektronikoa idaztea.

- Hari gabeko karga-aukerarako konexioa.
- Ibilgailuan muntatutako mikrofonora konektatzea.

Sinboloak menu nagusian

- Kontaktuak.
- Sarrerako eta irteerako deien zerrenda.
- Telefono-zenbakia markatzea.
- Testu-mezuak (SMS eta posta elektronikoaren mezuak).
- Telefono interfazearen doikuntzak.

Deietarako sinboloak

Sinboloak desberdinak izan daitezke infotainment sistemaren arabera.

- Dei bat hasieratzea edo lehen planora ekartzea.
- Dei bati amaiera ematea edo uko egitea.
- Kontaktu-zerrenda irekitzea edo Telekonferentzia hastea
- Telefono-zenbakia markatzea.
- Esku-libreko soinua kentzea.
- Deia atxikitzea.
- Deiarekin jarraitzea.
- Deia modu pribatura pasatzea.
- SOS Larrialdietarako dei bat egitea.
- Ahots-postontzia.
- Matxura izanez gero, laguntza eskuratzea.
- CUPRA markari buruz eta hautatutako zerbitzu gehigarriei buruz (horiek trafikoarekin eta horren mugimenduekin lotuta daudela) informazioa lortzea.

Dei-zerrendetako sinboloak

- Dei-zerrendak irekitzeko, sakatu .
- Heltzen ari den deia.
- Irteerako deia.
- Dei galdua.
- Telefono-zenbakia (enpresa).
- Telefono-zenbakia (norberarena).
- Telefono mugikorren zenbakia (enpresa).
- Telefono mugikorren zenbakia (norberarena).
- Faxa (norberarena).
- Faxa.

Testu-mezuetarako sinboloak

Sinboloak desberdinak izan daitezke infotainment sistemaren arabera.

- Testu-mezuak irekitzeko, sakatu .
- Aktibatu ahots-aginteen bidezko sartzea ››› **275. orrialdea**.
- Testu-mezuetarako txantiloiak.

Arau bereziak dituzten tokiak

Leherketa-arriskua duten tokietan, deskonektatu telefonoa eta telefono interfazea. Leku horiek ez daude beti modu argian seinaleztatuta. Horietako batzuk, adibidez, honako hauek dira:

- Produktu kimikoak dituzten hodi eta biltegitatik gertu dauden zonaldeak.
- Itsasontzien eta ferryen beheko bizkarrak.
- Gas likidotuarekin (propano edo butanoa, adibidez) bultzatutako ibilgailuetatik gertu dauden zonaldeak.
- Partikulak edo elementu kimikoak dituzten zonaldeak, hala nola irina, hautsa edo metalezko partikulak.
- Motorra edo telefonoa itzaltzea derrigorrezkoa den beste edozein leku.

⚠ ADI

Leherketa-arriskua duten tokietan, itzali telefono mugikorra!

Oharra

Arau bereziak dituzten tokietan edo telefonoa erabiltzea debekatuta duten lekuetan, beti egon behar du deskonektatuta. Piztuta dagoen telefonoak igortzen duen erradiazioak ekipamendu tekniko eta mediko sentikorretan interferentziak sor ditzake, eta, hala, horien ezohizko funtzionamendua edo matxura eragin.

Parekatzea, konektatzea eta kudeatzea

Parekatzeko baldintza:

- Bluetooth® aktibatuta dago telefonia mugikorreko gailuan.
- Bluetooth® aktibatuta dago infotainment sisteman.
- Gailu mugikorraren arabera, beharrezkoa izango da Bluetooth® menua irekita izatea edo, bestela, **Visibilidad** aukera aktibatzea, gailua infotainment sistematik ikusteko modukoa izan dadin

Parekatu telefoniarako egokia den telefono mugikorreko gailu bat infotainment sistemarekin, telefono-interfazearen funtzioak erabiltzeko. Lehen konexioan telefonia mugikorreko gailua parekatzen da infotainment sistemarekin. Hori egitean erabiltzaile-profil bat gordetzen da >>> **296. orrialdea, *Erabiltzaile-profilak***.

Parekatzeak minutu batzuk iraun dezake. Erabilgarri dauden funtzioak erabilitako telefonia mugikorreko gailuaren eta beraren sistema eragilearen araberakoak dira.

Telefonia mugikorreko gailua parekatzea

1. Ireki telefonia mugikorreko gailuan eskuragarri dauden Bluetooth® gailuen zerrenda, eta hautatu infotainment sistemaren izena.
2. Kontuan izan eta, beharrezkoa bada, baieztatu telefono mugikorraren gailuan eta infotainment-en agertzen diren mezuak. Parekatzea zuzen gauzatu ez bada, erabiltze-profilean gordeko dira telefonoaren datuak.
3. *Aukerakoa:* baieztatu datu-bidalketa mezua telefonia mugikorreko gailuan.

Konexio aktiboa eta pasiboa

Telefono interfazearen funtzioak erabiltzeko, gutxienez telefonia mugikorreko gailu batek egon behar du konektatuta infotainment sistemarekin. Telefonia mugikorreko hainbat gailu infotainment-ekin konektatuta badaude, konexio aktibo eta pasiboen artean alda dezakezu. Nahi den telefonia mugikorreko gailuarekin telefono interfazea erabiltzeko, ezarri konexio aktiboa infotainment-ekin.

Konexio-moten arteko desberdintasuna

Aktiboa Telefonia mugikorreko gailua parekatuta eta konektatuta dago. Telefono interfazearen funtzioak telefonia mugikorreko gailu horren datuekin gauzatzen dira.

Pasiboa Telefonia mugikorreko gailua parekatuta eta konektatuta dago. Deiak kudea daitezke, baina agenda, mezuak edo bestelako funtzioak ez dira aktibo egongo.

Parekatutako telefonia mugikorreko gailuak infotainmen-en gordeta daude, nahiz eta une horretan konektatuta ez egon.

Telefonia mugikorreko gailua konektatzea

Baldintza: telefonia mugikorreko gailua infotainment sistemarekin parekatuta egotea.

- Bluetooth® telefonia mugikorreko gailuan.

Konexio aktiboa ezartzea

Baldintza: telefonia mugikorreko hainbat gailu aldi berean infotainment sistemarekin konektaturik egotea

- Aukeratu menu zabalgarrian nahi duzun telefonia mugikorreko gailua. Telefonia mugikorreko gainerako gailuak automatikoki daude konexio pasiboan.

Erabiltzaile-profilak

Parekatutako telefonia mugikorreko gailu bakoitzerako banako erabiltzaile-profil bat sortzen da automatikoki. Erabiltzaile-profilean telefonia mugikorreko gailuaren datuak gordetzen dira, adibidez, harremanetarako datuak edo doikuntzak. Infotainment sisteman gehienez lau erabiltzaile-profil gorde ahal dira aldi berean.

⚠ ADI

Martxan zehar parekatzea egiten baduzu, istripua edo lesioak eragin ditzakezu.

- **Gauzatu parekatzea soilik ibilgailua geldi dagoenean.**

Oharra

- **Infotainment Telefono mugikor ezagunak menuan dagoen bitartean, haririk gabeko kargaren funtzioa desaktibatuta dago. Menu horretatik irtetean, haririk gabeko kargaren funtzioa aktibatzen da berriro.**
- **Telefonia mugikorreko gailu batzuen parekatzean, PIN zenbaki bat ageri da telefonia mugikorreko gailuaren pantailan. Sartu zenbaki hori infotainment-en, parekatzea burutzeko.**

Basic eta Comfort telefonia

Ekipamenduaren arabera, telefonoaren bi interfaze mota erabil ditzakezu:

- Basic telefono-interfazea.
- Comfort telefono-interfazea.

Basic telefono-interfazea.

Basic telefono interfazeak Bluetooth® HFP profila erabiltzen du transmisiorako. Interfaze horri esker, telefonoaren funtzioak infotainment bidez erabil daitezke, eta ibilgailuaren bozgorailuen bidez erreproduzitu.

Comfort telefono-interfazea.

Basic telefono interfazeak bezala, Comfort telefono-interfazeak ere Bluetooth® HFP profila erabiltzen du.

Comfort telefonoaren interfazeak hari gabeko karga-funtzioa izan dezake ››› 298. orrialdea.

Hari gabeko karga-funtzioaren funtzioak erabili ahal izateko, telefonia mugikorreko gailu egokia ipini behar duzu behar bezala objektu-ontzian. Orduan, telefonia mugikorreko gailua ibilgailuaren antenarekin konektatuko da. Horrela, deien soinuaren harrera eta kalitatea hobetzen dira.

Deitzea eta mezuak bidaltzea

Telefono interfazea irekitzea

- Sakatu **HOME** > .

Dei bat egitea

Aukeratu telefono zenbaki bat dei bat hasteko. Telefono zenbaki bat aukeratzeko hainbat funtzio dauzkazu erabilgarri:

Kontaktuak

Kontaktu batean hainbat telefono zenbaki erregistratuta badaude, bat hautatu beharko duzu.

- Sakatu eta zerrendan sakatu zenbaki bat deia hasteko.

EDO: sakatu eta sartu kontaktuaren izena sartzeko eremuan, hura bilatzeko. Sakatu kontaktua deia hasteko.

EDO: sakatu gogoko bat telefono interfazearen menu nagusian deia hasteko.

Deiak

Telefono interfazeak telefonia mugikorreko gailuaren dei-zerrenda erakusten du. Hasi deia dei-zerrendatik.

- Sakatu > **Todas** eta zerrendan sakatu zenbaki bat deia hasteko.

EDO: sakatu eta galbahetu dei-zerrendako sarrerak (adibidez, dei galduak edo markatutako zenbakiak). Galbahetutako zerrendan, sakatu zenbaki bat deia hasteko.

Markatzea

Sartu eskuz telefono zenbaki bat dei bat hasteko. Telefono zenbakia sartzean, infotainment-eko pantailan agertuko dira zenbaki horrekin bat datozen kontaktuak.

- Sakatu eta sartu telefono-zenbakia.

Sakatu deia hasteko.

Sakatze luzea egiten bada funtzio-anitzeko bolanteko teklan, azken deia markatuko.

Mezuak bidaltzea

Erabilitako telefonia mugikorreko gailuaren eta infotainment-en arabera, SMS eta mezu elektronikoak bidali eta jaso ditzakezu telefono interfazearen bidez.

SMS bat bidaltzea:

1. Sakatu ✉ > **SMS > Introducir nuevo mensaje** eta sartu mezua pantailan.
2. Sartu nahi duzun kontaktua bilaketa-barran.
3. Mezua bidaltzeko, sakatu **OK**.

Mezu elektroniko bat bidaltzea:

- Sakatu ✉ > **Correo Electrónico > Introducir nuevo mensaje** eta sartu mezua pantailan.
- Sartu nahi duzun kontaktua bilaketa-barran.
- Mezua bidaltzeko, sakatu **OK**.

Telefono-agenda, gogokoak eta markatze laburreko teklak

Telefono bat infotainment sistemarekin parekatzen den lehen aldian, telefono-agenda infotainment sisteman gordetzen da. Agian, datu-transmisioa berretsi beharko da telefonoan.

Telefonoa berriro konektatzen den bakoitzean agenda telefonikoa eguneratzen da.

Dei anizkoitzak bateragarriak badira, telefono-agendan sar daiteke dei batean zehar. Kontaktu baterako irudi bat gordeta badago, hori, zerrendan, sarrera ondoan erakutsi daiteke.

Gogokoak (Favoritos)

Markatze laburreko tekla bat telefono-agendako sei gogokori gehienez eslei dakioke. Sarreran argazki bat erregistratuta badago, markatze laburreko teklan agertuko da.

Markatzeko teklak eskuz editatu behar dira, eta orduan erabiltzaile-profil bati esleituko dira ››› **296. orrialdea**.

Markatze laburreko tekla bat esleitzea

- **Favoritos** menuan sakatu ✚ tekla, ondoren, agenda irekiko da kontaktu bat gogoko gisa aukeratzeko. Kontaktuak zenbait telefono-zenbaki baditu, sakatu zenbakiaren gainean zerrendan.

Markatze laburreko tekla bat editatzea

- Gogoko kontaktu bat editatzeko edo ezabatzeko, sakatu ✎ ikono gainean, **Favoritos** menuko pantailan. Gogoko bat baino gehiago ezaba daiteke.

Gogoko bati deitzea

- Sakatu esleitutako markatze laburreko tekla.

Oharra

Gogokoak ez dira automatikoki eguneratzen. Kontaktu baten telefono-zenbakia aldatuz gero, markatze-laburreko tekla berriro esleitu beharko da.

Connectivity Box

172. irudia Kontsola zentralean: telefono mugikorraren konexiorako tokia.

Connectivity Box-ak zure gailu mugikorra erabiltzen lagunduko duten hainbat funtzionalitate ditu. Funtzionalitate horiek honako hauek dira:

- Haririk gabeko karga (*Wireless Charger*)[1].
- Seinale-anplifikadorea (*Mobile Signal Amplifier*).

[1] Haririk gabeko karga funtzioa besterik ez dauka.

Haririk gabeko karga (Wireless Charger)

Qi[1] teknologia duen zure gailu mugikorrari ahalbidetzen dio haririk gabe kargatzea.

Zure telefono mugikorra haririk gabe kargatzeko:

- Jarri erdian zure gailu mugikorra, pantaila gorantz begira ››› 172. irudia , ››› ⚠.

Ziurtatu ahokalekuaren eta telefono mugikorraren artean objekturik ez dagoela.

Telefono mugikorra kargatzen hasiko da automatikoki. Zure gailuak Qi teknologia onartzen duen jakiteko, zure telefonoaren gidaliburua berrikusi edo CUPRAren webgunea bisitatu.

Seinale-anplifikadorea (Mobile Signal Amplifier)

Ibilgailuan irradiazioa gutxitzea eta hartze hobea izatea ahalbidetzen du.

Segurtasun-neurriak direla eta, komenigarria da sistema eta gailu mugikorra Bluetooth® bitartez parekatzea, eta Connectivity Box-eko basean jartzea, telefono mugikorra hobeki entzuteko eskuekin erabili behar izan gabe.

Ibilgailuaren kanpoko antenarekin konexioa ezartzeko:

- Jarri tokiaren erdian zure gailu mugikorra, pantaila gorantz begira ››› 172. irudia , ››› ⚠.

Ziurtatu ahokalekuaren eta telefono mugikorraren artean objekturik ez dagoela.

Automatikoki, zure telefono mugikorra kanpoko antenaren funtzioa erabiltzeko moduan egongo da.

⚠ ADI

Telefonia mugikorreko gailuaren pantailako jakinarazpenek gidariaren arreta gutxitu dezakete eta istripu larria izateko arriskua areagotu.

- **Utzi gaitutako telefonia mugikorreko gailu bakarra, Qi-rekin bateragarria dena, horrela badagokio. Behar bezala funtzionatzeko, babes-karkasarik gabe eta 80 x 140 mm-ko (3,15 x 5,512 hazbete) gehieneko neurriekin (zabalera x luzera) jarri behar da Connectivity Box-aren basearen gainean, jarraibideen arabera.**
- **Telefonia mugikorreko gailua ez bada Connectivity Box-eko basearen gainean utzi posizio egokian, edo bere neurriak zehaztutakoak baino handiagoak badira, baliteke ez onartzea edo behar bezala ez kargatzea. Infotainment sistemak, egoera jakin batzuetan, objektu-ontzian objektu arrotz bat dagoela adierazten du. Telefonia mugikorreko gailu egoki bat erabiltzen bada eta beraren posizioa zuzentzen bada, matxura ezaba daiteke.**
- **Horrela badagokio, kendu estalkia ixteko funtzioa oztopatzen duten objektuak.**

⚠ ADI

- **Telefono mugikorra berotu daiteke haririk gabeko karga dela eta. Kontuan hartu, hartzean, eta arretaz kendu.**
- **Ez da objekturik egon behar, ez metalikorik ez bestelakorik, telefono mugikorraren eta tokiaren artean, Connectivity Box-aren funtzionaltasunean eraginik egon ez dadin.**

KONTUZ

Connectivity Box-aren basea ez da ateragarria.

Oharra

- **Zure gailu mugikorrak indukzio bidezko karga duen Qi interfaze-estandarrarekin bateragarria izan behar du, modu egokian funtzionatzeko.**
- **Karga-denbora eta tenperatura desberdinak izango dira erabilitako gailuaren arabera.**
- **Gehienezko karga-gaitasuna 5W-koa da.**
- **Qi teknologiarekin ezin da aldi berean gailu bat baino gehiago kargatu.**
- **Ezin da harrera-kalitatea hobetzea bermatu, basean telefono mugikor bat baino gehiago badago.**
- **Haririk gabeko kargak egoki funtziona dezan, motorra martxan izatea gomendatzen da.**

[1] Qi teknologiari esker, zure telefono mugikorra haririk gabe kargatu daiteke.

- Qi teknologia duen telefono bat USB-ren bitartez konektatzen denean, fabrikatzaile bakoitzak zehaztutako bitartekoaren bidez konektatuko da.

Objektuak garraiatzea

Ekipajea eta karga kokatzea

Gai orokorrak

Ipini ekipajea ibilgailuan modu seguruan

Karga eta ekipajea garraia daitezke Ibilgailuan, atoi batean ››› 309. orrialdea eta sabaian ››› 307. orrialdea. Hori egitean, kontuan eduki legezko xedapenak.

- Ibilgailuan karga ipintzean egin ahalik eta banaketa berdinena.
- Kokatu ekipajea eta objektu astunak beti maletategian ahalik eta aurreen ››› ⚠.
- Kontuan izan ardatz bakoitzaren gehieneko masa baimendua, baita ibilgailuaren gehieneko masa baimendua ere ››› 399. orrialdea.
- Finkatu objektuak maletategiko eusteko zirgiloetara eusteko uhalak, finkatzeko zintak edo euste-zinta egokiak erabiliz ››› 304. orrialdea.
- Objektu txikiak ere modu seguruan ipini.
- Argien irismen-erregulazio dinamikoa duten ibilgailuetan, argiak automatikoki egokitzen dira.
- Egokitu pneumatikoen presioa kargara egokiro. Kontuan izan pneumatikoetako presioaren itsasgarria ››› 365. orrialdea.
- Pneumatikoen presioaren kontrol-sistemaz hornitutako ibilgailuetan, beharrezkoa balitz, doitu kargaren egoera berria ››› 375. orrialdea.

⚠ ADI

Solte edo modu desegokian finkatuta dauden objektuek lesio larriak eragin ditzakete frenatzen bada, maniobra bortitz bat egoten bada edo istripu bat gertatzen bada. Bereziki airbaga irekitzen denean horiek kolpatu eta bidaiari-lekuan barna jaurtitzen baditu. Lesioak sortzeko arriskua murrizteko, kontuan hartu honako hau:

- **Ipini objektu guztiak ibilgailuan modu seguruan.**
- **Finkatu objektu txiki eta arinak ere.**
- **Ipini bidaiari-lekuan garraiatzeko objektuak ibilgailua martxan den bitartean airbagak hedatzen diren zonaldetara ez iristeko moduan.**
- **Objektu-ontziak itxita eraman ibilgailua martxan badago.**
- **Ipini objektuak modu jakin batean, ibilgailuan doan inork gorputz-jarrera desegokia hartu behar ez izateko moduan.**
- **Plaza bat hartzen duten objektuak garraiatzen dituzunean, ez utzi sekula inori plaza horretan bidaiatzen.**
- **Ez utzi objektu gogor, zorrotz edo astunak solte ibilgailuaren objektu-ontzi irekietan, atzeko eserlekuaren bizkarraldearen atzean dagoen zorroan edota tresnen taulan.**
- **Atera objektu gogor, zorrotz edo astunak arropetatik eta bidaiari-lekuan daramatzazun poltsetatik eta gorde modu seguruan.**

⚠ ADI

Objektu astunak garraiatzen direnean, ibilgailuaren martxaren propietateak aldatu egiten dira eta balaztatze-distantzia areagotu egiten da. Behar bezala ipini edo finkatuta ez doan karga astunak ibilgailuaren kontrola galdu eta lesio larriak sorraraztea eragin dezake.

- **Ez zamatu sekula ibilgailua gehiegi. Hala kargak nola hura ibilgailuan banatzeko moduak eragina izan dezakete martxan eta balaztatze-ahalmenean.**
- **Objektu astunak garraiatzen direnean, ibilgailuaren martxaren propietateak aldatu egiten dira grabitate-zentroa aldatu egiten delako.**
- **Karga ibilgailuan ipintzean egin berdin-banaketa bat eta ipini objektuak horizontalean, ahalik eta gehien.**
- **Ipini objektu astunak maletategian beti atzeko ardatzaren aurrean, hartatik ahalik eta urrunen.**
- **Maletategian finkatu gabe daramatzazun objektuak ezustean mugitu egin daitezke eta ibilgailuaren martxa aldatzea eragin dezakete.**
- **Beti egokitu gidatze-abiadura eta -modua, ikuspen-, klimatologia-, galtzada- eta trafiko-baldintzen arabera.**

- Azeleratu kontu eta arreta handiz.
- Balaztatze eta maniobra bortitzak saihestu.
- Balaztatu ohi baino lehenago.

KONTUZ

Filamentu elektrikoetan edo, ekipamenduaren arabera, atzeko beiretan txertatuta dagoen antenan kalteak eragin daitezke, are ez konpontzeko moduan, objektuen aurka higatuz gero.

Oharra

Osagarriak saltzen diren dendetan, eusteko zirgiloetara egokitu daitezkeen garraio-zintak aurkitu ditzakezu.

Maletategia

Maletategiaren erretilua



173. irudia Maletategian: erretilua desmuntatzea eta muntatzea.



174. irudia Maletategian: erretilua desmuntatzea eta muntatzea.

Desmuntatzea

- Askatu ››› **173. irudia** Ⓑ euste-tiranteak Ⓐ ahokalekuetatik.
- Askatu erretilua alboko euskarrietatik ››› **174. irudia** gorantz tira eginez eta atera erretilua.

Beharrezkoa izanez gero, erretilua maletategiko zoru bikoitzaren azpian gorde daiteke ››› **303. orrialdea**.

Muntatzea

- Sartu erretilua horizontalean “ferra” bat egin dadin ››› **174. irudia** euskarrietako ardatzaren gainean, eta egin presioa beherantz ahokatu arte.
- Sartu ››› **173. irudia** Ⓑ eusteko tiranteak maletategiko atean.

ADI

Animaliak edo objektuak solte edo modu desegokian finkatuta garraiatzen badira maletategiaren erretiluaren gainean, lesio larriak sorraraz daitezke balaztatzen bada, maniobra bortitz bat egiten bada edo istripu bat gertatzen bada.

- **Ez eraman objektu gogor, zorrotz edo astunik solte edo poltsetan maletategiaren erretiluaren gainean.**
- **Ez eraman sekula animaliarik maletategiaren erretiluaren gainean.**

KONTUZ

- **Ziurtatu maletategiaren atea itxi baino lehen maletategiaren erretilua ongi jarrita dagoela.**
- **Maletategian karga-bolumen gehiegi jarriz gero, maletategiaren erretilua gaizki koka daiteke eta, ondorioz, deformatu edo hautsi egin daiteke.**
- **Maletategian karga-bolumen handiegia jarriz gero, erretilua kentzea gomendatzen da.**

Oharra

Arropa jartzean, egiaztatu atzeko lunetaren bidez ikuspen egokia izaten jarraitzen duzula.

Maletategiaren erretilua gordetzea



175. irudia Maletategian: erretilua gordetzeko estalkiak.

176. irudia Maletategian: erretilua jartzea.

Ekipamenduaren arabera, behin maletategiaren erretilua desmuntatuta, maletategiaren zoruaren azpian gorde daiteke.

- Atera ezkerreko eta eskuineko estalkiak ››› **175. irudia**.
- Ipini maletategiko erretilua horretarako aurreikusi den euskarrian ››› **176. irudia**.
- Jarri, berriz, ezkerreko eta eskuineko estalkiak dagokien lekuan.

Maletategiko zoru aldakorra



177. irudia Maletategiko zoru aldakorra: A posizio altua; B posizio baxua.



178. irudia Maletategiko zoru aldakorra: posizio inklinatua.

Zoru aldakorra posizio altuan

- Beheko posiziotik goikora igarotzeko, jaso zorua ››› **177. irudia** ① heldulekutik, tira egin atzera zoruaren aurrealdeak euskarriak erabat gainditu arte ②.
- Horien gainean mugitu zorua aurrerantz, atzeko eserlekuen bizkarraldearekin talka egin arte, eta, ondoren, jaitsi zorua heldulekua erabiliz ①.

Zoru aldakorra posizio baxuan

- Goiko posiziotik behekora igarotzeko, jaso zorua ››› **177. irudia** ①, heldulekutik, tira egin atzera zoruaren aurrealdeak euskarriak erabat gainditu arte ②.
- Askatu aurreko aldea zoruaren kontra eror dadin eta bultzatu zorua aurrerantz, atzeko eserlekuen bizkarraldearekin talka egin arte, eta, aldi berean, jaitsi zorua heldulekua erabiliz ①.

Zoru aldakorra posizio inklinatuan

Zoru aldakorra inklinatua dagoenean, ordezko gurpilaren ingurura edo zuloak konpontzeko kitera irits daiteke.

- Zoru aldakorra goi-posizioan dagoela, altxa ››› **177. irudia** ① heldulekutik, tira egin eta bultzatu atzeko eserlekuen bizkarralderantz, harik eta banda-lerrotik tolestu eta zoruaren zati mugikorra horren kontra egon arte.
- Bermatu zorua erabilera horretarako aurreikusitako ahokalekuetan ››› **178. irudia** (geziak).

⚠ ADI

- **Objektuak beti finkatu, maletategiko zorua behar bezala altxatuta badago ere.**
- **Atzeko eserlekuaren eta altxatuta dagoen maletategiko zoruaren artean garraiatu zoruaren altueraren 2/3 gainditzen ez dituzten objektuak bakarrik.**
- **Atzeko eserlekuaren eta altxatuta dagoen maletategiko zoruaren artean, 7,5 kg inguruko pisua gainditzen ez duten objektuak bakarrik garraia daitezke.**

ⓘ KONTUZ

- **Maletategiko zoru aldakorrak goiko posizioan jasan dezakeen gehieneko pisua 100 kg-koa da.**
- **Maletategia ixtean ez utzi zorua erortzen, gidatu beti beherantz modu kontrolatuan. Bestela, maletategiko emokadurek edo zoruak kalteak jasan ditzakete.**

Maletategiko ekipamendua

Eusteko zirgiloak



179. irudia Maletategian: eusteko zirgiloa.

Maletategiaren aurrealdean eta atzealdean eusteko zenbait zirgilo daude ››› **179. irudia** solte dauden objektuak eta ekipajea finaktzeko euste-uhalekin eta finkatzeko edo eusteko zintekin.

⚠ ADI

Desegokiak diren edo kaltetuta dauden eusteko uhalak, finkatzeko zintak edo eusteko zintak erabiltzen badira, hautsi egin daitezke balaztatzen denean edo istripu bat gertatzen denean. Orduan objektuak airean irten daitezke bidaiari-lekuan barna eta lesio larri edo hilgarriak eragin ditzakete.

- **Erabili beti egoera onean dauden eusteko uhal, finkatzeko zinta edo eusteko zinta egokiak.**
- **Tenkatu eusteko uhalak, finkatzeko zintak eta eusteko zintak gurutze forman maletategiaren zoruaren gainean ipinitako kargaren gainean eta finkatu eusteko zirgiloetara modu seguruan.**
- **Ez gainditu sekula eusteko zirgiloen gehienezko trakzio-karga objektuak finkatzen dituzunean.**
- **Ziurtatu, bereziki objektu lauen kasuan, kargaren goiko ertza eusteko zirgiloak baino gorago geratzen direla.**
- **Ekipamenduaren arabera, kontuan izan maletategian karga ipintzeko modua adierazteko letreroak.**
- **Ez sekula finkatu haurrentzako eserleku bat eusteko zirgiloetara.**

Oharra

- **Eusteko zirgiloek euts dezaketen gehienezko trakzio-karga 3,5 kN da gutxi gorabehera.**
- **Establezimendu espezializatuetan finkatzeko zinta, eusteko zinta eta karga finkatzeko sistema egokiak eskura daitezke. CUPRAk CUPRA kontzesionario espezializatu batera edo SEAT sareko edozein kontzesionariotara joatea gomendatzen du horretarako.**

Sare-poltsa



180. irudia Maletategian: saredun poltsa zoruaren arrasean krokatua.



181. irudia Maletategian: zirgiloak (1) eta kakoak (2) sare-poltsa lotzeko.

Maletategiko saredun poltsak ekipaje arina mugitzea eragozten du. Kremailera batez hornitutako saredun poltsan objektu txikiak gorde daitezke.

Saredun poltsa hainbat modutan kroka daiteke maletategian.

Saredun poltsa maletategiko lurrean krokatzea

Hala badagokio, aldez aurretik zabaldu behar dira aurrealdeko zirgiloak ››› **304. orrialdea**.

- Finkatu sareko kakoak euste-zirgiloetan ››› **180. irudia** (1) eta (2) ››› ⚠. Poltsaren kremailerak gora begira geratu behar du.

Saredun poltsa karga-atalasearen aldamenean krokatzea.

- Finkatu sareko kako laburrak euste-zirgiloetan ››› **181. irudia** ① ››› ⚠. Poltsaren kremailerak gora begira geratu behar du.
- Finkatu zintak poltsak eskegitzeko kakoetan ②.

Saredun poltsa desmuntatzea

Lotutako sare-poltsa tenk dago ››› ⚠.

- Askatu saredun poltsa, eusteko zirgiloetatik.
- Gorde saredun poltsa maletategian.

⚠ ADI

Saredun poltsa elastikoa maletategiko eusteko zirgiloetan finkatzeko tenkatu egin behar da. Behin krokatuta tenkaturik geratzen da. Saredun poltsa modu desegokian krokatu eta askatzen bada, bertako kakoek lesioak sorraraz ditzakete.

- **Eutsi beti ongi poltsako kakoei ez daitezen kontrolik gabe askatu eusteko zirgiloetatik krokatu eta askatzean.**
- **Kakoak krokatu eta askatzean, babestu begiak eta aurpegia lesioak ekiditeko kakoak kontrolik gabe askatuko balira.**
- **Krokatu beti saredun poltsako kakoak deskribatutako hurrenkeran. Kako bat ustekabean askatzen bada, lesioak sorraraz ditzake.**

Poltsetarako kakoak

182. irudia Maletategian: poltsetarako kakoak.

Maletategiko bi alboetan poltsak zintzilikatzeko kakoak egon daitezke ››› **182. irudia**.

Poltsetarako kakoak erosketa-poltsa arinak zintzilikatzeko diseinatu dira.

⚠ ADI

Ez erabili sekula kakoak ekipajea edo bestelako objektuak eusteko. Balaztatzen bada edo istripu bat gertatzen bada, kakoak hautsi egin daitezke.

Objektu luzeak garraiatzeko tranpa-ohola



183. irudia Atzeko eserlekuaren bizkarraldean: tranpa-oholaren irekiera.



184. irudia Maletategian: tranpa-oholaren irekiera.

Atzeko eserlekuan, erdiko beso-euskarriaren atzealdean, bidaiari-lekuan objektu luzeak garraiatzeko tranpa-ohol bat dago, esate baterako, eskiak garraiatzeko.

Tranpa-ohola irekitzea

- Jaitsi erdiko beso-euskarria.
- Egin tira desblokeatze-palankari, geziaren noranzkoan, eta erabat tolestu tranpa-oholaren estalkia ››› 183. irudia ① aurrerantz
- Ireki maletategiko atea.
- Sartu objektu luzeak tranpa-oholean zuloan zehar maletategitik.
- Finkatu ongi objektuak segurtasun-uhalarekin.
- Itxi maletategiko atea.

Tranpa-ohola ixtea

- Altxatu tranpa-oholaren estalkia, ahokatu arte. Ez da maletategiaren aldeko marka gorria ikusi beharko.
- Itxi maletategiko atea.
- Behar izanez gero, altxatu erdiko beso-euskarria.

⚠ ADI

Erdiko airbagaren hedatze-zonaldean objektuak egoteak horren funtzionamendu egokia eragotz dezake eta lesio larriak eragin ditzake.

- **Ez utzi inoiz objekturik erdiko airbagaren hedatze-zonaldean ››› 57. orrialdea.**

⚠ ADI

- **Beso-euskarria jaitsita dagoenean, inork ez du bidaiatu behar atzeko eserlekuaren erdiko plazan.**
- **Ez sekula manipulatu tranpa-ohola ibilgailua martxan den bitartean.**
- **Tranpa-ohola jaistean edo altxatzean, kontuz ibili eskuekin eta segurtasun-uhala harrapatuta edo kaltetuta ez suertatzeko.**

ⓘ Oharra

Tranpa-ohola maletategitik ere ireki daiteke. Horretarako, desblokeatze-palankari beherantz, geziaren noranzkoan, eta estalkiari aurrerantz egin behar zaie ››› 184. irudia.

Sabaiko ekipajea eramatekoa

Gaiaren aurkezpena

Ibilgailuaren sabaia aerodinamika hobetzeko diseinatu da. Horregatik, ezingo da zeharkako barrarik ezta ohiko ekipajea eramateko sistemarik muntatu sabaiko isurkietan.

Sabaiko isurkiak airearekiko erresistentzia murrizteko jarri direnez, CUPRAk homologatutako zeharkako barrak eta ekipajea eramateko sistemak bakarrik erabil daitezke.

Noiz desmuntatu behar lirateke zeharkako barrak eta ekipajea eramateko sistema?

- Erabiltzen ez direnean.
- Ibilgailua auto garbiketa-tunel batean garbitzen denean.
- Ibilgailuaren alturak nonbaitetik igarotzeko altura gainditzen duenean, zenbait garajetan, adibidez.

⚠ ADI

- **Karga, beti, ondo finkatu, egoera onean dauden eta dagozkion lotura-uhal edo euste-zintekin.**
- **Karga handiek, pisutsuek, luzeek edo lauek eragin negatiboa dute aerodinamikan, grabitate-zentroan eta ibilgailuaren martxan.**
- **Saihestu balaztatze eta maniobra bortitzak.**
- **Beti egokitu gidatze-abiadura eta -modua, ikuspen-, klimatologia-, galtzada- eta trafiko-baldintzen arabera.**

⓵ KONTUZ

- **Desmuntatu zeharkako barrak eta ekipajea eramateko sistema garbiketa-tunel automatiko batean sartu behar duzunean.**
- **Zeharkako barrak eta ekipajea eramateko sistema muntatzen dituzunean, ibilgailuaren altura handitzen da, baita haietan garraiatzen den kargarekin ere. Horregatik, ziurtatu ibilgailuaren alturak ez duela gainditzen igaro**

behar den lekuaren altura maximoa, adibidez, lurrazpiko igarobideetan edo garajeen ateetan.

- **Zeharkako barrek, ekipajea eramateko sistemak eta haietan jarritako kargak ez dute sabaiko antenan interferitu behar, ezta sabai lerrakor panoramikoaren ibilbidea eta maletategiko atearen ibilbidea oztopatu ere.**
- **Maletategiko atea ireki behar duzunean, egiaztatu sabaiko kargaren kontra talka egiten ez duela.**

Ingurumenari buruzko oharra

Zeharkako barrak eta ekipajea eramateko sistema muntatuta daudenean, erregai-kontsumoa areagotzen da, erresistentzia aerodinamiko handiagoa delako.

Zeharkako barrak eta ekipajea eramateko sistema finkatzea



185. irudia Sabaiko ekipajea eramateko sistemarako luzeranzko barrak finkatzeko puntuak.

Zeharkako barrak dira ekipajea eramateko zenbait sistema bereziren oinarria. Segurtasun-arrazoiengatik, sistema bereziak erabili behar dira maletak, bizikletak, surfeko taulak, eskiak eta itsasontziak eramateko. CUPRA kontzesionario espezializatuetan edo SEAT sareko edozein kontzesionariotan eskuratu ditzakezu osagarri egokiak.

Finkatu beti ongi zeharkako barrak eta ekipajea eramateko sistema. Kontuan izan zeharkako barrekin eta ekipajea eramateko sistemarekin batera datozen muntatzeko jarraibideak.

Barrak muntatzea

Zeharkako barrak sabaiko alboetako barretan muntatzen dira. ››› **185. irudia** (A) zeharkako barren arteko distantziak 70 eta 90 cm artekoa izan beharko du, eta zeharkako barrek sabaiko alboetako barren (B) euskarriekin duten distantziak 9 cm izan beharko du.

ADI

Zeharkako barrak eta ekipajea eramateko sistema modu okerrean erabiliz, sistema osoa sabaitik askatu daiteke eta, ondorioz, istripuak eta lesioak sor daitezke.

- **Jarraitu beti fabrikatzailearen muntatzeko jarraibideei.**
- **Berrikusi hariztatutako loturak eta finkapenak abiatu aurretik, eta behar izanez gero, estutu pixka batez ibili ondoren. Bidaia luzeak egiten dituzunean, berrikusi hariztatutako loturak eta finkapenak atseden hartzen duzun bakoitzean.**
- **Ez ezazu zeharkako barren edo ekipajea eramateko sistemaren aldaketarik edo konponketarik egin.**

Oharra

Irakurri arretaz zeharkako barrekin eta ekipajea eramateko sistemarekin batera datozen muntatzeko jarraibideak eta eraman itzazu beti ibilgailuan.

Ekipajea eramateko sistema karga-tzea

Zeharkako barrak eta ekipajea eramateko sistema behar bezala muntatuta badaude bakarrik finkatu ahal izango da zama modu seguruan ››› ⚠.

Sabai gainean eramateko baimendutako gehienezko karga

Sabai gainean eraman daitekeen baimendutako gehieneko karga **75 kg** da. Kopuru hori ekipajea eramateko sistemaren, zeharkako barren eta sabaiaren gainean garraiatutako kargaren pisuen baturaren emaitza da ››› ⚠.

Argitu ezazu ekipajea eramateko sistemaren pisuaren, zeharkako barren pisuaren eta sabaiaren gainean garraiatutako kargaren pisuaren batura zenbatekoa den: beharrezkoa bada, pisatu itzazu. Inoiz ez jarri sabaian baimendutako pisua baino gehiago.

Karga-ahalmen txikiagoko zeharkako barrak eta ekipajea eramateko sistemak erabiliz gero, ezingo duzu baimendutako karga maximoa erabili. Kasu horretan, muntatze-jarraibideetan datorren mugaraino kargatu ahal izango duzu ekipajea eramateko sistema.

Kargaren banaketa

Banatu karga uniformeki eta finkatu ezazu zuzen ››› ⚠.

Kontrolatu finkapenak

Zeharkako barrak eta ekipajea eramateko sistema muntatu eta gero, berrikusi hariztatutako loturak eta finkapenak ibilbide labur bat egin ondoren eta, aurrerago, noizean behin.

⚠ ADI

- **Inoiz ez ezazu gainditu adierazitako sabai gaineko karga, ardatzen gainean baimendutako karga edo ibilgailuaren baimendutako pisu maximoa.**
- **Ez ezazu gainditu zeharkako barren eta ekipajea eramateko sistemaren karga-ahalmena, sabai gainean onar daitekeen karga maximora iristen ez bada ere.**
- **Objektu pisutsuak ahalik eta aurreren jarri, eta banatu karga, oro har, modu uniformean.**

⚠ ADI

Karga aske badoa edo ongi finkatuta ez badoa, ekipajea eramateko sistematik eror daiteke eta istripuak edo lesioak eragin.

- **Erabili beti lokarri edo uhal egokiak.**

Atoiarekin gidatzea

Gaiaren aurkezpena

Hartu kontuan dagokion herrialdearen xedapen zehatzak, atoiarekin gidatzean eta atoigailu bat erabiltzean.

Ibilgailua, lehenik, pertsonen garraiorako diseinaturik dago, baina, beharrezko ekipamendua badu, atoi bat eramateko ere erabil daiteke. Masa gehigarri horrek ondorioak ditu balio-bizitzan, erregai-kontsumoan eta ibilgailuaren errendimenduan, eta, baldintza jakinetan, zerbitzu-tarteak laburraraz ditzake.

Atoiarekin gidatuz, ibilgailuak ahalegin handiagoa egin behar du, eta, gidariak, berriz, kontzentrazio handiagoa behar du.

Negu-sasoian, negurako pneumatikoak muntatu beharko dira, bai ibilgailuan, **baita** atoian ere.

Akoplamenduaren gainean teknikoki onar daitekeen gehienezko karga bertikala

Atoi-gailuko kakoaren gainean atoi-lantzak teknikoki onar dezakeen *gehieneko* karga bertikala **80 kg** da.

Start-Stop sistemadun ibilgailuak

Ibilgailuak fabrikan muntaturiko atoi-gailua edo CUPRAk ostean muntaturiko bat badu, Start-Stop sistemak beti bezala funtzionatuko du. Ez da inongo berezitasunik kontuan hartu behar.

Sistemak atoia onartzen ez badu edo CUPRAk ez du atoi-gailua ondoren muntatu, Start-Stop sistema deskonektatu behar da, erdiko kontsolaren beheko aldean dagokion tekla sakatuz, atoiarekin zirkulatzen hasi aurretik, eta ibilbide osoan deskonektatuta utzi ››› ⚠.

Gidatze-profil hautaketa duten ibilgailuak

Ibilgailua krokaturiko atoi batekin gidatzen bada, ez da komenigarria erabiltzea Drive Profileren **Eco** doikuntza motorrerako. Atoi batekin ibiltzen hasi aurretik, erabilgarri dagoen beste gidatze-profil bat hautatzea gomendatzen da.

Atoi-karga/euste-karga

Ez da baimendutako atoiaren karga gainditu behar. Ez bada atoirako baimendutako gehienezko karga erabiltzen, malda handiagoetan erabil daiteke.

Adierazitako atoi-kargek itsas mailaren gainetik 1.000 m gainditzen ez duten **altitudeetarako** baino ez dute balio. Garaiera handiagoaren ondorioz motorraren errendimendua eta maldak gainditzeko ahalmena txikiagotzen direnez, atoiaren zama proportzionalki txikiagotzen da. Ibilgailuak eta atoiak osatzen duten multzoaren pisua % 10 murriztu behar da altuerako 1.000 m-ko. Atoiaren gailuaren buru esferikoaren gainean jartzeko **baimendutako euste-karga** ahalik eta gehien aprobetxatu behar litzateke, **gainditu gabe**.

⚠ ADI

Ez erabili inoiz atoia pertsonak garraiatzeko, horrek beren bizitza arriskuan jar baitezake. Gainera, debekatuta egon daiteke.

⚠ ADI

Atoi-gailuak, desegoki erabiliz gero, lesioak eta istripuak eragin ditzake.

- **Atoi-gailua egoera bikainean badago eta bikainki finkatuta badago soilik erabili.**
- **Ez ezazu inongo aldaketa edo konponketarik egin atoi-gailuan.**
- **Atzeko talken ondorioz sorturiko lesioak gertatzeko arriskua murriztеko, eta aparkatzean oinezkoei eta txirrindulariei lesiorik ez sortzeko, atoi-krokadura askatu edo desmuntatu, atoia erabiltzen ez den guztietan.**
- **EU 2021_535 araudiaren arabera, ezin da muntatu atzeko matrikula erabat edo partzialki estaltzen duen atoi-gailurik.**
- **Inoiz ez muntatu "pisu-banaketa" edo "karga-konpentsazioa" duen atoi-gailu bat. Ibilgailua ez dago mota horretako atoi-gailuetarako diseinaturik. Atoi-gailuak huts egin lezake eta atoia ibilgailutik aske geratu.**

⚠ ADI

Atoiarekin gidatu eta objektu pisudun edo azalera handidunak garraiatuz gero, martxaren ezaugarriak alda daitezke eta istripu bar sortu.

- **Karga beti ondo finkatu, egoera onean dauden eta dagozkion lotura-uhal edo euste-zintekin.**
- **Beti egokitu gidatze-abiadura eta -modua, ikuspen-, klimatologia-, galtzada- eta trafiko-baldintzen arabera.**
- **Grabitate-zentro altua duten ibilgailuek irauli egiteko aukera handiagoa dute, grabitate-zentro baxua dutenek baino.**
- **Saihestu balaztatze eta maniobra bortitzak.**
- **Aurreratzeetan, bereziki kontu handiz gidatu.**
- **Berehala murriztu abiadura, atoia gutxi bada ere zabuka ari dela antzematen baduzu.**
- **Ez zirkulatu 80 km/h-tik (50 mph) gorako abiaduran atoia eramaten duzunean (edo 100 km/h-tik gorakoan (60 mph) salbuespenezko kasuetan). Abiadura handiagoz ibil daitekeen herrialdeetan ere, aintzat hartu agindu hori. Kontuan hartu dagokion herrialdean zein den baimenduriko gehienezko abiadura atoiarekin ibiltzen diren ibilgailuetarako. Atoi gabe dabiltzan ibilgailuetarako baino txikiagoa izan bailiteke.**
- **Inoiz ez saiatu trakzio-ibilgailu eta atoi-multzo bat azaleratuz "zuzentzen".**

⚠ ADI

Atoi-gailua CUPRAz bestelako tailer batek muntatu badu, Start-Stop sistema eskuz deskonektatu behar da, atoiarekin gidatu aurretik. Bestela, matxura bat gerta liteke balazta-sisteman eta, horren ondorioz, istripu bat eta lesio larriak sortu.

- **CUPRAz bestelako beste tailer batek muntaturiko atoi-gailuari krokaturiko atoia badaramazu, beti, eskuz deskonektatu Start Stop sistema.**

Oharra

- **Atoia lotu edo askatu aurretik, beti desaktibatu lapurreten aurkako alarma** **›››** 101. orrialdea. **Bestela, inklinazio-sentsorea nahi gabe pitz daiteke.**
- **Ez zirkulatu atoiarekin motorraren lehenengo 1.000 km-etan** **›››** 158. orrialdea.
- **Atoi-krokadura erabili behar ez denean, CUPRAk ahal bada desmuntatzea edo ezkutatzea aholkatzen du. Atzeko talka gertatzekotan, kalteak handiagoak izan litezke atoi-krokadura muntaturik egonez gero.**
- **Gerora muntaturiko zenbait atoi-gailuk atoiaren atzeko zirgiloaren lekua tapatzen dute. Kasu horietan, ezin da atoi-zirgiloa erabili atoi-bidezko abiaraztea egiteko edo beste ibilgailuak atoian eramateko. Horregatik, atoi-gailua ibilgailua erosi ondoren muntatu baduzu, atoi-krokadura ibilgailuan gorde beti desmuntatu eta gero.**

Baldintza teknikoak

Fabrikatik atoi-gailuarekin datozen ibilgailuek atoiarekin ibiltzeko beharrezkoak diren baldintza tekniko eta legal guztiak betetzen dituzte.

Ibilgailua gero atoi-gailu batekin hornitzen bada, eraman behar den atoiaren baimendutako gehieneko masarako baimendutako gailu bat baino ez da muntatu beharko. Atoi-gailuak ibilgailurako eta atoirako egokia izan behar du, eta ibilgailuaren bastidoreari ondo finkatuta egon behar du. CUPRAk ibilgailu honetarako onarturiko atoi-gailu bat soilik erabili. Beti egiaztatu eta kontuan izan fabrikatzaileak atoi-gailuari buruz emandako jarraibideak.

Kolpe-leungailuan muntaturiko atoi-gailua

Inoiz ez muntatu atoi-gailu bat kolpe-leungailuan, ezta horren finkagailuan ere. Atoi-gailuak ez du kolpe-leungailuaren funtzioa murriztu behar. Ez egin aldaketarik edo konponketarik, ez ihes-sisteman, ezta balazta-sisteman ere. Maiz egiaztatu atoi-gailua ondo finkaturik dagoela.

Motorraren hozte-sistema

Atoiarekin ibiltzeak esfortzu handia dakar motorrerako eta hozte-sistemarako. Hozte-sistemak likido hozgarri nahikoa eduki beharko du eta atoiarekin ibiltzeak dakarren esfortzurako prest egon.

Atoiaren balaztak

Atoiak bere balazta-sistema baldin badu, kontuan hartu horri dagozkion indarreko xedapenak. Ez ezazu inoiz konektatu atoiaren balazta-sistema ibilgailuaren balazta-sistemarekin.

Atoi-kablea

Erabili beti atoi-kablea ibilgailuaren eta atoiaren artean **›››** 312. orrialdea.

Atoiaren atzeko argiak

Atoiaren atzeko argiek dagozkien lege-xedapenak bete beharko dituzte **›››** 312. orrialdea.

Inoiz ez konektatu atoiaren atzeko argiak zuzenean ibilgailuaren sistema elektrikoarekin. Atoia elektrikoki era egokian konektaturik dagoela ziur ez bazaude, tailer espezializatu batean eskatu aholkua. CUPRAk CUPRA kontzesionario espezializatu batera edo SEAT sareko edozein kontzesionariotara joatea gomendatzen du horretarako.

Kanpoko atzerako ispiluak

Trakzio-Ibilgailuan fabrikatik datozen kanpoko ispiluekin atoiaren atzealdea ikusi ezin bada, beharrekoa izango da atzerako ispilu gehigarriak jartzea, betiere dagokion herrialdeari dagozkion xedapenak betez. Abian jarri aurretik, kanpoko atzerako ispiluak doitu egin behar dira, atzera behar adinako ikus-eremua eman dezaten.

⚠ ADI

Atoi-gailua okerki muntaturik badago edo egokia ez bada, gailua ibilgailutik aska liteke eta lesio larriak sortu.

KONTUZ

- **Atoiaren atzeko argiak ez badaude zuzenki konektaturik, ibilgailuaren sistema elektronikoa hondatu egin daiteke.**
- **Atoiak energia gehiegi kontsumitzen badu, ibilgailuaren sistema elektronikoa hondatu egin daiteke.**
- **Ez ezazu inoiz konektatu atoiaren sistema elektrikoa zuzenki atzeko multzo optikoen konexioekin edo beste elikatze-iturriekin. Erabili atoiaren korronte-elikadurarako prestaturiko konexioak soilik.**

Atoi bat krokatzea eta konektatzea



186. irudia Irudikapen eskematikoa: atoirako korronte-harguneko pinen esleitzea.

Pin	Esanahia
1	Ezkerreko keinukaria
2	Lainotako atzeko argiak
3	1., 2., 4., 5., 6., 7. eta 8. pinetarako masa
4	Eskuineko keinukaria
5	Eskuineko atzeko argia
6	Balazta-argia
7	Ezkerreko atzeko argia
8	Atzera martxako argia
9	Positibo iraunkorra
10	Karga-kable positiboa
11	10. pinerako masa
12	Esleitu gabe
13	9. pinerako masa

Atoirako korronte-hargunea

Trakzio-ibilgailuaren eta atoiaren arteko konexioa 13 kontaktuko korronte-hargune baten bitartez egiten da. Motorra martxan dagoela, atoiko kontsumitzaile elektrikoek tentsioa jasotzen dute konexio elektrikoaren bidez (atoirako korronte-harguneko 9. pina eta 10. Pina).

Sistemak atoi bat konektatu dela detektatzen badu, atoiko kontsumitzaileek elektrizitatea jasotzen dute konexioaren bidez (9. eta 10. pinak). 9. pinak positibo iraunkorra du. Horrela, adibidez, atoiaren barruko argiek funtziona dezakete. Kontsumitzaile elektrikoek, karabana bateko hozkailuak adibidez, motorra martxan badago **bakarrik** jasotzen dute tentsio elektrikoa (10. pinaren bidez).

Sistema elektrikoa ez gainkargatzeko, 3. pina, 11. pina eta 13. pinaren masa-kableak ezin dira beren artean konektatu.

Atoiak **7 kontaktuko konektorea** badu, dagokion kable egokitzailea erabili beharko da. Kasu horretan, 10. pinaren funtzioa ez da erabilgarri egongo.

Atoi-kablea

Atoiaren kableak trakzio-ibilgailuari ondo finkaturik joan beharko du beti eta bihurguneak erosotasunez hartzeko behar bezain lasai ere. Hala ere, kableak ezin izango du, autoa martxan dagoela, lurra ukitzeko adinako luzera izan.

Atoiaren atzeko argiak

Ziurtatu atoiaren atzeko argiek egoki funtzionatzen dutela eta dagozkien lege-xedapenak betetzen dituztela. Atoia fabrikan muntatutako sisteman konektatzen baduzu, atzeko laino seinale-argia piztean, trakzio-ibilgailuaren laino seinale-argia itzaliko da, atoiaren laino seinale-argia pizteko.

Lapurreten aurkako alarman barne hartzea

Atoia lapurreten aurkako alarman sartzen da, honako baldintza hauek betetzen badira:

- Ibilgailuak fabrikan hornitutako lapurreten aurkako alarma badu.
- Ibilgailuak fabrikan hornitutako atoi-gailua badu.
- Atoia trakzio-ibilgailuari elektrikoki konektaturik badago, atoirako korronte-hargunearen bitartez.
- ibilgailuaren eta atoiaren sistema elektrikoak egoera bikainean badaude eta ez badute ez matxurarik ez kalterik.
- Ibilgailua giltzarekin blokeatu bada eta lapurreten aurkako alarma aktibaturik badago.

Ibilgailua blokeaturik dagoenean, alarma piztu egingo da, atoiarekin konexio elektrikoa eten bezain laster.

Atoi bat krokatu edo askatu aurretik, desaktibatu beti lapurreten aurkako alarma. Bestela, inklinazio-sentsorea nahi gabe pitz daiteke.

Atzean LED teknologiako argiak dituzten atoiak

Arrazoi teknikoak direla-eta, argi-diodoko (LED) atzeko argiak dituzten atoiak ezin dira lapurreten aurkako alarma-sisteman sartu.

Ibilgailua blokeaturik dagoenean, alarma ez da piztuko, atoiarekin konexio elektrikoa etetean, baldin eta atzeko argiak argi-diodoak badira.

⚠ ADI

Kableak era desegoki edo okerrean konektatzen badira, atoira gehiegizko korrontea pasa liteke, eta horrek ibilgailuaren sistema elektroniko osoan arazoak sor ditzake, baita istripu eta lesio larriak ere.

- **Tailer espezializatu batean soilik egin sistema elektrikoan egin behar diren lanak.**
- **Ez ezazu inoiz konektatu atoiaren sistema elektrikoa zuzenki atzeko multzo optikoen konexioekin edo beste elikatze-iturriekin.**

⚠ ADI

Atoi-gailuaren korronte-hargunearen pinen arteko kontaktuak zirkuitulaburrak, sistema elektrikoaren gainkarga edo argitze-sistemaren matxura sor ditzake, eta, horren ondorioz, baita istripu eta lesio larriak ere.

- **Inoiz ez konektatu atoiaren korronte-hargunearen pinak beren artean.**
- **Tailer espezializatu batean eskatu tolesturiko pinak konpontzeko.**

ⓘ KONTUZ

Ez utzi atoia ibilgailuan akoplaturik, bere euskarrien edo oinarri-gurpilaren gainean ezarrita aparkatu baduzu. Ibilgailuak gora edo behera egiten badu, adibidez kargan aldaketa bat egon delako edo pneumatikoa zulatu delako, atoi-gailuak eta atoiak presio handiagoa jasango dute, eta, horren ondorioz, ibilgailuak eta atoiak kalteak jasan ditzakete.

Oharra

- **Ibilgailuaren edo atoiaren sistema elektrikoetan, eta lapurreten aurkako alarman arazoak badaude, eskatu horiek aztertzea tailer espezializatu batean.**
- **Atoiaren osagarriek energia kontsumitzen badute korronte-hargunearen bitartez eta motorra geldirik badago, bateria deskargatu egingo da.**
- **Ibilgailuaren bateriak karga gutxi badu, atoiarekin duen konexio elektrikoa automatikoki etengo da.**

Atoi bat kargatu

Atoian eramateko teknikoki onar daitekeen gehienezko masa eta akoplamenduaren gaineko karga bertikala

Atoian eramateko teknikoki onar daitekeen gehienezko masa ibilgailuak atoian eraman dezakeen masa da ››› ⚠. Akoplamenduaren gainean dagoen karga bertikala atoi-gailuaren krokaduraren gainean eta goitik behera bertikalki eragiten den karga da.

Atoian eramateko masari buruz eta akoplamenduaren gaineko karga bertikalari buruz atoi-gailuaren modelo-plakan ageri diren datuak balio esperimentalak besterik ez dira. Ibilgailuari dagozkion balioak, maiz balio horiek baino txikiagoak, ibilgailuaren dokumentazioan ageri dira. Ibilgailuaren dokumentazio ofizialean ageri diren datuek beti dute lehentasuna.

Martxan zehar segurtasuna errazteko, CUPRAk gomendatzen du ahalik eta gehien aprobetxatzea teknikoki akoplamenduaren gainean onar daitekeen gehieneko karga bertikala ››› **309. orrialdea**. Nahikoa ez den karga batek eragin kaltegarria izan dezake atoiaz eta trakzio-ibilgailuaz osaturiko multzoan martxan dagonean.

Dagoen karga bertikalak pisua gehitzen du atzeko ardatzean eta ibilgailuan posible den karga erabilgarria murrizten du.

Trakzio-ibilgailuaren eta atoiaren multzoaren karga

Honako da multzoaren masa: trakzio-ibilgailuaren eta kargaturiko atoiaren benetako masen batuketa.

Zenbait herrialdetan, atoiak kategoriatan sailkatzen dira. Ibilgailurako atoirik egokienak zein diren jakiteko, tailer espezializatu batean galdetzea gomendatzen du CUPRAk.

Atoi bat kargatu

Trakzio-ibilgailuak eta atoiak osatzen duten multzoa orekaturik egon beharko du. Horretarako, akoplamenduaren gainean dagoen teknikoki onarturiko gehienezko karga bertikalari ahalik eta probetxu handiena atera behar zaio, eta karga, atoiaren aurreko eta atzeko parteen artean, era uniformean banatu:

- Karga atoian banatu, pisudun objektuak ardatzetik ahal bezain gertu edo horren gainean gera daitezen.
- Karga atoiari egokiro finkatu.

Pneumatikoan puzte-presioa

Atoiaren pneumatikoen puzte-presioak fabrikatzailearen jarraibideen araberakoa izan beharko du.

Atoia daramazunean, puztu trakzio-ibilgailuko pneumatikoak baimendutako gehieneko presioan ››› **365. orrialdea**.

⚠ ADI

Ardatz bakoitzerako onarturiko gehienezko masa, akoplamenduaren gainean onarturiko gehienezko karga bertikala, edo ibilgailuaren edota trakzio-ibilgailu eta atoi-multzoaren onarturiko gehienezko masak gainditzen badira, istripu eta lesio larriak gerta litezke.

- **Ez itzazu inoiz adierazitako balioak gainditu.**
- **Aurreko eta atzeko ardatzen gainean jartzen den pisuak ez du inoiz ardatz bakoitzerako onarturiko gehienezko masa gainditu behar. Ibilgailuaren aurreko eta atzeko pisuak ez du inoiz onarturiko gehienezko masa gainditu behar.**

⚠ ADI

Karga mugituz gero, trakzio-ibilgailuak eta atoiak osaturiko multzoaren egonkortasuna eta segurtasun arriskuan jar daitezke, eta istripu edo lesio larriak sortu.

- **Atoia beti egokiro kargatu.**
- **Karga beti finkatu, egoera onean dauden eta dagozkion lotura-uhal edo euste-zintekin.**

Atoiarekin gidatzea

Faroak doitzea

Atoia akoplaturik dagoenean ibilgailuaren aurrealdea igo egin daiteke eta argiak beste gidariak itsutu.

Atoiarekin gidatzearen berezitasunak

- Atoiak **inertzia-balazta** badu, *lehenik astiro* balaztatu eta gero, arin. Horrela, atoiaren gurpilen blokeoa dela eta ez da tiratzerik sortuko.
- Trakzio-ibilgailuak eta atoiak osaturiko multzoaren masa dela eta, balazta-distantzia handitu egiten da.
- Malda bat jaistean, martxa laburrago bat erabili (eskuzko aldagailua baduzu edo aldagailu automatikoaren tiptronic modua badarabilzu), motor-balaztari etekina ateratzeko. Bestela, balazta-sistema gehiegi berotu liteke, baita huts egin ere.
- Atoian eramandako masak, eta trakzio-ibilgailuak eta atoiak osaturiko multzoaren masa total handiak ibilgailuaren grabitate-zentroa eta martxaren ezaugarriak alda ditzakete.
- Trakzio-ibilgailua hutsik eta atoia kargaturik badoaz, pisuaren banaketa desegokia izango da. Baldintza horietan, gidatu arreta bereziz eta behar bezain astiro.

Atoi batekin malda batean abiarazi

Maldaren inklinazioaren arabera eta trakzio-ibilgailuak eta atoiak osaturiko multzoaren guztirako masaren arabera, abiaraztean, baliteke multzoak atzera egitea.

Atoi bat krokaturik duzula, honako hau egin malda batean abiarazteko:

- Zapaldu balazta eta eutsi zapaldurik.
- Sakatu behin (P) tekla geratze-balazta elektronikoa deskonektatzeko ››› 223. orrialdea.
- *Eskuzko aldagailua:* Zapaldu guztiz enbrage-pedala eta sartu lehen martxa.

Aldagailu automatikoa: Ipini hautatze-agintea **D/S** posizioan.

- Tira egin (P) teklatik eta eduki posizio horretan trakzio-ibilgailuak eta atoiak osatutako multzoari eusteko geratze-balazta elektronikoaren bidez.
- Askatu balazta-pedala.
- Abiatu poliki.

Eskuzko aldagailua: astiro askatu enbrage-pedala.

- Ez askatu (P) tekla motorrak abiarazteko beharrezko indar eragilea izan arte.

⚠ ADI

Atoiari desegokiro tiratzen bazaio, ibilgailuak kontrola galdu eta lesio larriak sor ditzake.

- **Atoiarekin gidatuz eta objektu pisudun edo azalera handidunak garraiatuz gero, martxaren ezaugarriak alda daitezke eta balaztatze-distantzia handitu.**
- **Gidatu beti kontuz eta arreta handiz. Balaztatu ohi baino lehenago.**
- **Beti egokitu gidatze-abiadura eta -modua, ikuspen-, klimatologia-, galtzada- eta trafiko-baldintzen arabera. Murriztu abiadura, batez ere maldan behera joatean.**
- **Azeleratu kontu eta arreta handiz. Saihestu balaztatze eta maniobra bortitzak.**
- **Aurreratzeetan, bereziki kontu handiz gidatu. Berehala murriztu abiadura, atoia gutxi bada ere zabuka ari dela antzematen baduzu.**
- **Inoiz ez saiatu trakzio-ibilgailu eta atoi-multzo bat azaleratuz "zuzentzen".**
- **Kontuan hartu atoiarekin ibiltzen diren ibilgailuetarako gehienezko abiadura. Atoi gabe dabiltzan ibilgailuetarako baino txikiagoa izan bailiteke.**

Trakzio-ibilgailua eta atoiaren multzoa egonkortzea

Ibilgailu- eta atoi-multzoa egonkortzea egonkortze-programa elektronikoaren (ESC) funtzio gehigarria da.

Ibilgailuak eta atoiak osatzen duten multzoaren egonkortze-sistemak atoia kulunkatzen dela hautemateko badu, kulunka hori murriztekо esku hartzen du.

Ibilgailu- eta atoi-multzoa egonkortzeko baldintzak

- Ibilgailuak fabrikatik ekartzen du atoi-gailua edo, ondoren, atoi-gailu bateragarri bat gehitu diote.
- ESC eta TCS aktibatuta daude. Tresnen koadroan ez dago piztuta edo kontrol argia.
- Atoia trakzio-ibilgailura konektaturik dago, atoirako korronte-hargunearen bitartez.
- 60 km/h (37 mph) ingurutik gorako abiaduran zirkulatzen da.
- Ez da gainditzen akoplamenduaren gainean teknikoki onar daitekeen gehienezko masa eta karga bertikala.
- Atoiak badu lantza zorrotz bat.
- Atoiak balazta badu, inertzia-balazta mekaniko bat izan behar du.

⚠ ADI

Ibilgailu- eta atoi-multzoaren egonkortzeak segurtasun handiagoa eman arren, ez da segurtasuna arriskuan jar dezakeen inolako erabakirik hartu behar.

- **Beti egokitu gidatze-abiadura eta -modua, ikuspen-, klimatologia-, galtzada- eta trafiko-baldintzen arabera.**
- **Azeleratu kontu handiz galtzada irristakorra denean.**
- **Sistema bat erregulatzen ari den bitartean, utzi azeleratzeari.**

⚠ ADI

Gerta daiteke ibilgailu- eta atoi-multzoaren egonkortzeak martxaren egoera guztiak ondo ez hautematea.

- **ESC sistema deskonektatuta badago, trakzio-ibilgailu eta atoi multzoaren egonkortzea ere deskonektatuta egongo da.**
- **Egonkortze-sistemak ez ditu kasu guztietan atoi arinak hautematen; beraz, ez ditu behar bezala egonkortzen.**
- **Itsaspen gutxiko galtzadetatik zirkulatzen denean, atoia zabuka ibil daiteke egonkortze-sistemarekin ere.**
- **Grabitate-zentro altua duten atoiak aurretik kulunkatu gabe ere irauli egin daitezke.**
- **Atoi bat akoplatuta eramaten ez bada, baina konektore bat korronte-hargunean entxufatuta badago (adibidez, argiztapena duen txirrindu-euskarria eramaten bada), balaztada automatikoak gerta daitezke muturreko martxa-egoeretan.**

Desblokeatze elektrikoko atoi-krokadura[1)]



187. irudia Maletategiaren ezkerraldean: atoi-krokadura desblokeatzeko tekla.

Atoi-gailuaren krokadura kolpe-leungailuan dago. Desblokeatze elektrikodun atoi-krokadura ezin da desmuntatu.

Ez da pertsonarik, animaliarik edo objekturik egongo atoi-krokaduraren ibilbidearen eremuan ››› ⚠.

1) Ez dago eskuragarri merkatu guztietan.

Atoi-krokadura elektrikoki desblokeatzea eta ateratzea

- Gelditu ibilgailua eta konektatu geratze-balazta elektronikoa ››› 223. orrialdea.
- Itzali motorra.
- Ireki maletategiko atea.
- Egin tira labur ››› 187. irudia teklatik. Atoi-krokadura elektrikoki desblokeatu eta automatikoki kanporantz biratzen da. Teklaren kontrol-argiak dir-dir egiten du.
- Eskuz amaitu atoi-krokadura ateratzen, ahokatu dela nabaritu eta entzun arte, eta kontrol-argia teklan iraunkorki piztu arte.
- Itxi maletategiko atea.
- Lotu eta konektatu atoi bat ››› 312. orrialdea.

Atoi-krokadura kentzea

- Geldiarazi ibilgailua eta konektatu geratze-balazta elektronikoa.
- Itzali motorra.
- Askatu atoia eta eten haren eta ibilgailuaren arteko konexioa. Egokigailuren bat badarabilzu, atera hura atoiaren korronte-hargunetik.
- Ireki maletategiko atea.
- Egin tira labur ››› 187. irudia teklatik. Atoi-krokadura elektrikoki desblokeatzen da.
- Biratu atoi-krokadura kolpe-leungailuren azpitik eskuz, ahokatu dela nabaritu eta entzun arte, eta kontrol-argia teklan iraunkorki piztu arte.
- Itxi maletategiko atea.

Teklaren kontrol-argia

Dir-dir egiten du:
Horrek adierazten du atoi-krokadura oraindik ez dela ondo ahokatu edo kaltetuta dagoela ››› ⚠.

Piztuta geratzen da:
Maletategiko atea irekita dagoela piztuta geratzen bada, horrek adierazten du atoi-krokadura behar bezala ahokatuta dagoela, bai aterata dagoenean, bai ezkutatuta dagoenean.

Teklaren kontrol-argia itzali egiten da maletategiko atea itxi eta minutu 1 ingurura.

⚠ ADI

Atoi-gailuak, desegoki erabiliz gero, lesioak eta istripuak eragin ditzake.

- **Erabili atoi-krokadura ondo ahokaturik baldin badago soilik.**
- **Ziurta ezazu atoi-krokaduraren ibiltarteeremuan pertsonarik, animaliarik edo objekturik ez dagoela.**
- **Ez ezazu inoiz esku hartu erreminta edo tresna batekin, atoi-krokadura mugitzen ari den bitartean.**
- **Ez sakatu inoiz ››› 187. irudia tekla atoi bat lotuta dagoenean edo atoi-krokaduraren gainean ekipaje-euskarri bat edo bestelako osagarriak daudenean.**
- **Atoi-krokadura zuzenki ahokatzen ez bada, ez erabili; tailer espezializatu batera jo eta eskatu atoi-gailuaren azterketa.**
- **Sistema elektrikoan edo atoi-gailuan matxuraren bat badago, jo ezazu tailer espezializatu batera eta azter dezaten eskatu.**
- **Bolak guneren batean 49 mm baino diametro txikiagoa badu, ez erabili inoiz atoi-gailua.**

KONTUZ

Ibilgailua presio altuko edo lurrunezko garbiketa-tresneriarekin garbitzen baduzu, ez ezazu zuzenki zuzendu zurrusta ken daitekeen atoi-krokadurarantz, ezta atoiaren korronte-hargunerantz ere, junturak kaltetu edo lubrifikaziorako beharrezko koipea kendu baitaitezke.

Oharra

Tenperaturak izugarri baxuak direnean, ezin zaio atoi-krokadurari eragin. Kasu horietan, ibilgailua toki epelago batean uztea nahikoa izango da (garaje batean, adibidez).

Atzeko sostengu-sistema edo bizikleta-euskarria muntatzea atoirako krokaduran



188. irudia Pisuaren gomendatutako banaketa atzeko sostengu-sisteman

Atzeko sostengu-sistemak dira, adibidez, bizikleta-euskarriak edo erabilera anitzeko kutxak, eta atoirako krokaduran muntatzen dira.

Dagokion fabrikatzaileak ibilgailu-modelorako, modeloen urterako eta ibilgailuaren bertsiorako aurreikusi dituen atzeko sostengu-sistemak baino ez erabili ››› ⚠.

CUPRAk CUPRA jatorrizko ordezko piezak eta osagarriak erabiltzea gomendatzen du; horiek markaren kontzesionarioetan eros daitezke. Muntatu atzeko sostengu-sistema fabrikatzailearen muntaia-jarraibideen arabera.

Zama-ahalmena atzeko sostengu-sistema eta gainean garraiatutako zamaren pisuaren araberakoa da.

Atoirako krokaduran muntatutako atzeko sostengu-sistemaren gehieneko zama-ahalmen gomendagarria ibilgailuaren akoplamendu espezifikoaren gaineko gehieneko zama bertikala ez bezalakoa izan daiteke.

Hala ere, ezin da gainditu atoi-gailuaren (modeloaren araberakoa) gainean baimendutako zama bertikal maximoa.

Zama-ahalmena murriztu egiten da buru esferikoaren sostengu-sistema zenbat eta urrunago egon palanka efektuaren ondorioz.

Jarri objektu astunak atoi-krokaduratik ahalik eta hurbilen ››› **188. irudia**.

Ibilgailuaren araberako gehieneko zama-ahalmena

Zure ibilgailurako gomendatutako zama-ahalmena ezagutzeko, egiaztatu zein den zama bertikal maximoa akoplamenduaren gainean ››› **399. orrialdea**. Jarraian, zama-ahalmena ikus dezakezu taula honetan.

UN-R-55 gidalerroaren arabera, CUPRAk atzeko sostengu-sisteman adierazitako bizikleta-kopuru baino gehiago ez muntatzea gomendatzen du.

Gehieneko zama bertikala ibilgailuaren akoplamendu espezifikoaren gainean	Gehieneko zama-ahalmena	Bizikleta-kopurua
50 kg	50 kg	2
55 kg	55 kg	2
75 kg-tik aurrera	75 kg	3

Atzeko sostengu-sistemaren zama-hegal maximoa



189. irudia Bi edo hiru bizikletarako bizikleta-euskarriko zama-hegal maximoaren irudikapen eskematikoa.

Ⓐ Gehienez 55 kg-ko zama-ahalmenarekin: 500 mm (19,7 hazbete inguru)

Ⓑ Gehinez 75 kg-ko zama-ahalmenarekin: 700 mm (27,6 hazbete inguru)

Bi bizikletarako bizikleta-euskarrien kasuan, gehieneko hegalak ezin izango ditu 500 mm gainditu buru esferikoaren erdialdetik azken euskarriko errailaren erdialderaino ››› 189. irudia Ⓐ. Hiru bizikletarako bizikleta-euskarrien kasuan, ezin izango da 700 mm ››› 189. irudia Ⓑ gainditu.

⚠ ADI

Atoi-krokaduran muntatutako atzeko sostengu-sistema bat behar ez bezala erabiltzeak lesioak eta istripuak eragin ditzake.

- **Ziurtatu sostengu-sistema zure ibilgailurako egokia dela.**
- **Irakurri eta kontuan hartu atzeko sostengu-sistemaren fabrikatzailearen muntaketa-jarraibideak.**
- **Ez finkatu inoiz atzeko sostengu-sistemarik buru esferikoaren azpitik atoi krokaduran. Sistema irristatu egin daiteke, krokaduraren forma dela eta.**

Oharra

CUPRAk gomendatzen du, ahal den neurrian, sostengu-sisteman finkatutako zamaren osagarri guztiak kentzea martxari ekin aurretik. Osagarri horiek izan daitezke, adibidez, saskiak eta anekak, haurrentzako aulkitxoak edo bateriak. Horrela, atzeko sostengu-sistemaren aerodinamika eta grabitate-zentroa hobetzen dira.

Atoi-gailu bat ondoren muntatzea



190. irudia Atoi-gailu bat ondoren muntatzeko kotak eta finkatze-puntuak.

Distantzia-kotak (neurriak alda daitezke txasis-multzo desberdinen arabera):

Ⓐ Finkapen-puntuak ibilgailuan

Ⓑ 65 mm (gutxienez)

Ⓒ 350 mm eta 420 mm bitartean (ibilgailua gehienezko kargarekin)

Ⓓ 1.043 mm

Ⓔ 414 mm

Ⓕ 634 mm

Ⓖ 959 mm

CUPRAk tailer espezializatu batera joatea gomendatzen du atoi-gailu bat ondoren muntatzeko. Gerta daiteke, adibidez, hozte-sistema egokitu behar izatea edo babes termikorako xaflak muntatzea. CUPRAk CUPRA kontzesionario espezializatu batera edo SEAT sareko edozein kontzesionariotara joatea gomendatzen du horretarako.

Atoi-gailu bat ondoren muntatzen bada, distantzia-kotak kontuan hartu behar dira beti.

Buru esferikoaren erdigunearen eta ››› 190. irudia Ⓒ galtzadaren arteko kota ez da inoiz adierazitakoa baino txikiagoa izango. Hori kontuan izan behar da ibilgailua karga betearekin ibiltzen denean ere, akoplamenduaren gainean teknikoki onar daitekeen gehienezko karga bertikala barne hartuz.

⚠ ADI

Kableak era desegoki edo okerrean konektatzen badira, gerta daiteke ibilgailuaren sistema elektroniko osoan arazoak sortzea, eta istripu eta lesio larriak eragitea.

- Ez konektatu inoiz atoiaren sistema elektrikoa zuzenki atzeko multzo optikoen konexioekin edo egokiak ez diren beste elikatze-iturriekin. Atoia konektatzeko, erabili konektore egokiak soilik.
- Ibilgailuko atoi-gailu baten muntaketa tailer espezializatu batean soilik egin daiteke.

⚠ ADI

Atoi-gailua oker muntatuta badago edo egokia ez bada, gerta daiteke gailua trakzio-ibilgailutik askatzea. Horrek istripu larriak eta lesio hilgarriak eragin ditzake.

Oharra

- EU2021_535 arauaren arabera, ezin da desmuntatu edo ezkatatu ezin den atoi-gailurik instalatu.
- Erabili CUPRAk dagokion modelorako baimenduriko atoi-gailuak soilik.
- Zenbait bertsiotan ez da komenigarria atoi-kakoaren modelo konbentzional bat muntatzea. Kontsultatu zure zerbitzu teknikoari.

Erregaia eta ihes-gasak araztea

Erregaia hartzea

Erregaia maneiatzeari buruzko segurtasun-oharpenak

⚠ ADI

Erregaia sukoia da eta erredurak edo lesio larriak eragin ditzake.

- Erregai-tanga betetzeko, motorra itzali behar da eta pizgailua deskonektatu, segurtasun-arrazoiengatik.
- PHEV modeloen erregai-sistema presurizatuta dago, gasolina-lurrunek atmosferara ihes egin ez dezaten.
- Erregaia hartzean edo erreserba-bidoi bat betetzean ezin da erre. Halaber, ezin da sugarrik egon ibilgailutik hurbil, lehertzeko arrisku handia egongo litzatekeelako.
- Kontuan hartu legezko aginduak erreserba-bidoiak erabiltzeko, biltegiratzeko eta garraiatzeko.
- Segurtasun-arrazoiak direla-eta, ibilgailuan erreserba-bidoirik ez eramatea gomendatzen dizugu. Istripuren bat gertatuko balitz, gerta liteke bidoia hondatzea eta erregaia isurtzea.

- Erregai-bidoi bat eramateko premia baduzu, honako alderdi hauek izan behar dituzu kontuan:
  - Ez bete inoiz erreserba-bidoia ibilgailuaren barruan edo gainean. Leherketa-arriskua dago. Bidoia betetzeko, lurrean utzi beti.
  - Sartu pistola bidoiaren karga-ahoan, ahalik eta barrenen.
  - Erreserba-bidoi metalikoen kasuan, pistolak bidoiarekin kontaktuan egon behar du betetzen den bitartean. Horrela, karga estatikoa saihesten da.
  - Ez isuri inoiz erregairik ibilgailuan edo maletategian. Erregaia lurruntzen denean, leherkorra da eta, jakina, oso arriskutsua.

KONTUZ

- Ibilgailuaren pinturaren gainean erregaia isurtzen bada, ahalik eta lasterren kendu behar da. Bestela, pintura kaltetzeko arriskua dago.
- Ez hustu inoiz erabat erregai-tanga. Katalizatzailea hondatu daiteke.
- Diesel motorra duen ibilgailu batean erregai-andela erabat hustu bada, erregaia hartu ondoren kontaktua gutxienez 30 segundoz konektatuta eduki beharko da motorra martxan jarri aurretik. Motorra berehala abiarazten bada, baliteke ibilgailuak normalean baino denbora gehiago behar izatea martxan jartzeko (1 minutu ere bai).

Ingurumenari buruzko oharra

Ez gehiegi bete erregai-tanga; ibilgailua birberotzen bada, erregaia isuri egin baitaiteke.

Oharra

Ez dago erregai-tangaren estalkia desblokeatzeko larrialdi-mekanismorik. Beharrezkoa balitz, eskatu laguntza espezializatutako langileei.

Oharra

Diesel ibilgailuek badute mahuka okerra sartzea ekiditen duen babes-sistema bat [1]. Hortaz, hornigailuaren diesel pistolekin soilik har daiteke erregaia.

- Hornigailuaren pistola higatuta edo hondatuta badago, edo txikiegia bada, gerta daiteke mahuka okerren aurkako babesak ez funtzionatzea. Bira eginez hornigailuaren pistola sartzen saiatu baino lehen, saiatu beste hornigailu batean erregaia hartzen, edo eskatu laguntza espezializatua.
- Erreserba-bidoi batean erregaia hartzen baduzu, babesgarria ez da irekiko. Gasolioa poliki-poliki ematea da hori konpontzeko modu bat.

[1] Herrialdearen arabera.

Erregaia hartzea



191. irudia Tapoia ahokatuta duen tangaren estalkia.

Tangaren tapa ibilgailuaren atzealdean dago, eskuineko aldean.

- Tangako estalkia desblokeatu egiten da ixte-sistema zentralizatuaren urrutiko agintetik autoa desblokeatu denean. ››› **96. orrialdea**.

Ibilgailu hibridoak: Desblokeatu tangako estalkia gidariaren ateko teklaren bidez ››› **322. orrialdea**.

- Ireki erregai-deposituko estalkia, atxikigailuaren eremu gainean presioa eginez.
- Askatu tapoia ezkerralderantz biratuz.
- Ipini ezazu estalki irekiko bisagran dagoen lekuan ››› **191. irudia**.
- Hasi erregaia hartzen. Hornigailuaren pistola automatikoak erregai-hornidura mozten duenean, erregai-tanga beteta dago. Une horretan utzi behar zaio erregaia hartzeari; bestela, tangaren hedapen-gunea ere beteko da.
- Hariztatu tapoia eskuinerantz mugaraino.
- Itxi estalkia.

Ibilgailuak eskatzen duen erregai-mota egokia tangaren estalkiaren barnealdean dagoen itsasgarri batean adierazten da. Erregaiari buruzko informazio gehiago hemen aurkituko duzu: ››› **323. orrialdea**.

Zure ibilgailuko tanga-edukiera hemen adierazten da: ››› **399. orrialdea**.

Ibilgailu hibridoak

6 hilabetean behin, gasolinarekin zirkulatu beharko da kontrol-argia piztu arte eta tanga berriz bete beharko da. Hori beharrezkoa da ziurtatzeko sistemak zuzen funtzionatzen duela eta gasolinarekin zirkulatzeko beharrezko erregaiaren kalitatea egokia dela.

Erregai-depositua purgatzea

✓ Baliogarria ibilgailu hibridoetarako.

192. irudia Gidariaren atea: deposituko estalkia desblokeatzea.

Erregaia hartu baino lehen, erregai-sistema despresurizatu egin behar da ››› **321. orrialdeko** ⚠ (***Erregaia maneiatzeari buruzko segurtasun-oharpenak***). Horretarako, sakatu gidariaren ateko tekla.

Soinu-seinale bat entzungo da, eta tresnen koadroko pantailan horri dagokionez abisu bat erakutsiko da.

Berehala erregai-deposituko estalkia desblokeatuko da eta horrela egongo da minutu batzuk. Denbora hori igarota erregaia hartu ez baduzu, tekla berriro sakatu beharko duzu erregaia hartzeko.

Saihestu ukitzea deposituko tapako blokeobotoia ››› 191. irudia (gezia). Sistemak ulertuko du bukatu duzula eta ezin izango duzu jarraitu erregaia hartzen. Berriro sakatu gidariaren ateko tekla jarraitzeko.

Erregai-motak

Erregaiak identifikatzea[1)]



193. irudia Europar Batasuneko (UE) 2014/94/ Zuzentarauaren araberako erregaien identifikazioa

Erregaiak hornigailuan eta ibilgailuaren erregaitangaren estalkian dauden ikurren bidez identifikatzen dira. Identifikazio horren bitartez, erregaia aukeratzean sor daitezkeen nahasketak ekiditen dira.

1. **Gasolina** etanolarekin ("E" hizkiak **E**tanola adierazten du). Zenbakiak gasolinak duen etanol ehunekoa adierazten du. "E5" identifikazioak, adibidez, esan nahi du gehienez gasolinaren %5 etanola dela.
2. **Diesel** EN590 arauaren arabera. Zenbakiak erregaiaren biodieselaren ehuneko handiena adierazten du. "B7"-k gehienez % 7ko biodiesela adierazten du.
3. **Diesel** sintetikoa EN15940 arauaren arabera.
4. **Gas naturala**: "GNK" siglak **G**as **N**aturala **K**onprimitua (gas naturala konprimitua) adierazten du.

Gasolina-mota

Gasolina-mota egokia erregai-tangaren estalkiaren barneko partean adierazten da.

Ibilgailuak badu katalizatzailea; beraz, **berunik gabeko gasolina** soilik hartu behar du. Gasolinak EN 228 araua bete behar du eta **ezin du sufrerik izan**. %10 etanola duten erregaiak har daitezke (E10)[2)]. Gasolina motak **oktano-indizeen (ROZ)** edo **pikatuaren indizearen (AKI)** bitartez bereizten dira.

95 oktanoko berunik gabeko super gasolina edo gutxienez 91 oktanoko gasolina normala

95 oktanoko (91 AKI) super gasolina hartzea gomendatzen da. Ez balego, 91 oktanoko gasolina normala (87 AKI) har daiteke (potentzia apur bat galduko litzateke).

Gutxienez, 95 oktanoko berunik gabeko super gasolina

Gutxienez, 95 oktanoko (91 AKI) super gasolina erabili behar da.

Super gasolina egon ezean, 91 oktanoko gasolina normala (87 AKI) ere har daiteke, behar izanez gero. Kasu horretan, berriz, bira-erregimen neurridun batean soilik gidatu behar da, motorrak ahalegin handiegirik egin ez dezan. Eman super gasolina ahal duzunean.

---

1) Herrialdearen arabera.

2) Zer herrialdetan zirkulatzen duzun, hango arauak errespetatu.

98 oktanoko berunik gabeko super plus gasolina edo, gutxienez, 95 oktanoko super gasolina

98 oktanoko (93 AKI) super Plus gasolina hartzea gomendatzen da. Erregai hori ez balego: 95 oktanoko super gasolina (91 AKI) (potentzia apur bat galduko litzateke).

Super gasolina egon ezean, 91 oktanoko gasolina normala (87 AKI) ere har daiteke, behar izanez gero. Kasu horretan, berriz, bira-erregimen neurridun batean soilik gidatu behar da, motorrak ahalegin handiegirik egin ez dezan. Eman super gasolina ahal duzunean.

KONTUZ

- **Ez dira hartu behar etanol-ehuneko handia duten erregaiak, adibidez, E30 - E100. Erregai-sistema hondatzen da.**
- **Beruna edo bestelako gehigarriak dituen erregaia hartuz gero, katalizatzailearen eraginkortasunak okerrera egiten du modu iraunkorrean.**
- **SEATek homologatutako gasolinarako gehigarriak soilik erabili behar dira. Oktanajea areagotzeko edo detonazioa murrizteko substantziak dituzten produktuek gehigarri metalikoak izan ditzakete, eta horiek kalte nabarmenak eragiten dituzte katalizatzailean eta motorrean. Produktu horiek ez dira erabili behar.**
- **Ez dira erabili behar hornigailuan metalifero gisa sailkatutako erregaiak. LRP *(lead replacement petrol)* erregaiek metal-gehigarriak dituzte kontzentrazio handietan. Motorra hondatzeko arriskua!**
- **Oktanaje txikiegia duen gasolina erabiltzearen ondorioz, motorrean kalteak sor daitezke ibilgailua bira-erregimen handian gidatzen bada edo motorrari esfortzu handiak eginarazten bazaizkio.**

Oharra

- **Ibilgailuak motorrak eskatzen duen baino oktanaje handiagoko gasolina har dezake.**
- **Sufrerik gabeko erregaia ez duten herrialdeetan, sufre kantitate txikia duen erregaia ere erabil daiteke.**

Gasolioa

✓ Diesel motorra duten ibilgailuetarako balio du

Kontuan hartu erregai-tangaren estalkiaren barrualdean dagoen informazioa.

Gasolioa, tenperatura oso hotzetan, loditu egin daiteke, eta, horrenbestez, motorra abiarazteko arazoak sortu edo haren funtzionamendua kaltetu. Galdetu gasolindegiaren arduradunari bere gasolioa neguan erabiltzeko egokia den ala ez.

Ura erregaiaren iragazkian[1)]

Zure ibilgailuak diesel motor bat bada eta **urdekantagailua duen erregai-iragazkia** badu, tresnen koadroan, honako ohar hau ager daiteke:

`Agua en el filtro de combustible.`

Kasu horretan, eraman ezazu ibilgailua taller espezializatu batera, erregai-iragazkitik ura atera dezaten.

KONTUZ

- **Ez erabili inoiz FAME erregairik (EN590 arautik kanpoko biodiesela), gasolinarik, berokuntza-oliorik, beste erregairik edo bestelako gehigarri fluidizatzailerik, erregai-sistema eta motorrean kalte handiak eragin ditzaketelako.**
- **Erregai okerra hartu baduzu, ez abiarazi motorra inola ere. Erregai-sistema eta motorra hondatzeko arriskua! Eskatu profesional baten laguntza.**

1) Herrialdearen arabera.

AdBlue®

AdBlue®-ri buruzko informazioa

AdBlue®-ren kontsumoa gidatzeko estilo pertsonalaren, sistemaren zerbitzu-tenperaturaren eta ibilgailua erabiltzen denean dagoen giro-tenperaturaren araberakoa da.

AdBlue® -11°C-tik (+13°F) beherako tenperaturan izozten da. Sistemak tenperatura baxuekin ere bere funtzionamendua bermatzen duten elementu-berotzaileak ditu.

Gainerako autonomia 2.400 km-tik beherakoa bada, tresnen koadroko pantailan mezu bat agertuko da AdBlue® betetzeko eskatuz.

Mezu hori ez bada kontuan hartzen, **1.000 km-ko autonomia geratzen denean**, kontrol-argi horia piztuko da . Tresnen koadroaren pantailan argibide hau agertuko da: hemendik XXX km-ra ezingo da berriro motorra martxan jarri.

Kontrol-argi horia kontuan hartu ezean, **0 km-ko gainerako autonomia** erakusten denean, orduan motorra ezin izango da abian jarri. abisu-argi gorria piztuko da.

AdBlue® Auto Industriaren Alemaniako Elkartearen (VDA) marka erregistratua da, eta AUS32 edo DEF (Diesel Exhaust Fluid) izenez ere ezagutzen da.

KONTUZ

AdBlue® gehiegi betetzen bada, andeleko sisteman kalteak eragin daitezke.

AdBlue® ipintzea



194. irudia AdBlue®-ren tangaren betetze-pitaren tapoia.

Karga egin baino lehenagoko lanak

Gelditu ibilgailua lurzoru lau batean eta deskonektatu pizgailua. Ibilgailua lurzoru lau batean ez badago, edo alde batetik zintarri baten gainean, gerta daiteke maila-adierazleak karga modu egokian ez hautematea.

AdBlue®-ren mailari buruzko mezu bat agertu bada tresnen koadroko pantailan, **ipini gutxienez beharrezkoa den gutxieneko kantitatea (5 litro inguru)**. Nahikoa da kantitate hori ipintzea AdBlue® ipini duzula detektatzeko; horrela, berriro motorra abiarazi ahal izango duzu.

Karga-botila batekin kargatzea

Erabili bakarrik ISO 22241-1 araua betetzen duen AdBlue®.

- Erabili ontzi originalak bakarrik.
- Ireki tangako estalkia ››› **194. irudia**.
- Askatu tangaren betetze-pitaren tapoia erloju-orratzen kontrako norabidean.
- Kontuan izan karga-botilaren fabrikatzailearen argibide eta informazioak.
- Egiaztatu iraungitze-data.
- Askatu karga-botilaren tapoia.
- Sartu botilaren lepoa tangaren betetze-pitan bertikalki eta hariztatu botila eskuarekin erloju-orratzen norabidean.
- Sakatu karga-botila betetze-pitaren norabidean eta mantendu posizio horretan.
- Itxaron botilako edukia AdBlue®-ren tangan hustu arte. Ez ezazu botila konprimatu, ezta apurtu ere!
- Askatu botila erloju-orratzen aurkako noranzkoan eta kontuz atera ezazu gorantz ››› **326. orrialdea**.
- AdBlue®-ren tanga beteta egongo da botilatik likido gehiagorik ateratzen ez denean.
- Hariztatu tangaren betetze-pitaren tapoia erloju-orratzen norabidean sartu arte.
- Itxi tangaren tapa.

AdBlue® hornigailuan kargatzea

Erabilgarri hautatze-erredukzio katalitikoa duten ibilgailuetarako.

- Ireki tangaren karga-pitaren tapa
- Biratu SCR-ren betetze-pitako ixteko tapoia ezkerrerantz ››› 194. irudia.
- Sartu AdBlue® betetze-pistola lehenengo aldiz gelditu arte.
- Itxi SCRren hodia eskuinalderantz biratuz, klik bat entzun arte.

Ibiltzen jarraitu baino leheneko lanak

- Bete ondoren, konektatu pizgailua bakarrik.
- Utzi pizgailua konektatuta gutxienez 30 segundoz, sistemak betetzea detekta dezan.
- Ez jarri motorra martxan 30 segundoak igaro arte!.

⚠ ADI

AdBlue® likidoa gorde beharko da soilik jatorrizko ontzian, ondo itxita eta leku seguru batean.

KONTUZ

- **Tanga betetzerakoan, betetze-pistolaren heldulekuak beherantz egon behar du. Bestela, pita ez da automatikoki konektatuko.**
- **Ez ezazu eman gehigarri gehiago pistola lehenengo aldiz gelditu ondoren. AdBlue®-ren tanga gehiegi bete daitekeelako eta AdBlue® kanporantz bota.**
- **Erabili bakarrik ISO 22241-1 araua betetzen duen AdBlue®. Erabili ontzi originalak bakarrik.**
- **Ez nahastu inoiz AdBlue® urarekin, erregaiekin edo gehigarriekin. Nahasteagatik sortutako edozein kalte bermetik kanpo geratuko da.**
- **Ez ipini inoiz AdBlue® gasolioren andelean! Bestela, motorra kaltetu egin daiteke!**
- **Ez ezazu betetze-botila beti ibilgailuan eraman. Ihesaldi bat gertatuz gero (tenperatura aldaketengatik edo botilan sortutako kalteengatik), AdBlue® likidoak ibilgailuko barrualdea kaltetu lezake.**

Ingurumenari buruzko oharra

Deuseztatu karga-botila ingurumena errespetatuz.

Oharra

CUPRA kontzesionario espezializatuetan edo SEAT sareko edozein kontzesionariotan eskuratu ditzakezu AdBlue® ipintzeko botila egokiak.

Arazoak konpontzea

AdBlue®-maila baxuegia da

Kontrol-argi gorria pizten da. **Ezin da motorra berriro martxan jarri!**

Gelditu ibilgailua leku egoki, seguru eta lau batean, eta ipini beharrezko den gutxieneko AdBlue® kantitatea››› 325. orrialdea.

honekin : Anomalia AdBlue® sisteman

Kontrol-argi gorriak pizten dira. **Ezin da motorra berriro martxan jarri!**

Joan tailer espezializatu batera eta eskatu sistema aztertzea.

AdBlue®-ren erreserba baxu dago

Kontrol-argi horia pizten da.

Ipini AdBlue® adierazitako hurrengo kilometroetan (edo milietan) ››› 325. orrialdea.

honekin : Anomalia AdBlue® sisteman

Kontrol-argi horiak pizten dira. AdBlue® sisteman anomalia bat dago, edo ipinitako AdBlue®-likidoa ez da egokia. Joan tailer espezializatu batera eta eskatu sistema aztertzea.

Motorraren kudeaketa eta ihes-gasak arazteko sistema

Gaiaren aurkezpena

⚠ ADI

Ihes-gasak arazteko sistemak oso tenperatura altuak hartzen dituenez, ez zenuke zure ibilgailua aparkatu behar su erraz har dezakeen leku batean. Sute-arriskua dago!

⚠ ADI

Ez aplikatu kontserbatzailerik ibilgailuaren beheko aldeetan, ihes-sistemaren zonaldean: sute bat eragin daiteke!

Katalizatzailea

Katalizatzaileak denbora luzez funtziona dezan

- Gasolina-motorretan erabili berunik gabeko gasolina bakarrik.
- Ez utzi erregai-tanga ia hustu arte.
- Motorrari olioa aldatzean edo ipintzean, ez gainditu beharrezkoa den kantitatea ››› 353. orrialdea, *Motorreko olio-maila begiratzea eta jartzea*.
- Ez abiarazi ibilgailua atoiaren bidez, erabili larrialdiko kableak ››› 332. orrialdea.

Errekuntza-akatsak hautemango bazenitu, potentzia gutxitzen dela edo motorra ez dabilela ohiko moduan, zoaz espezializatutako tailer batera ibilgailua azter dezaten. Oro har, ihes-gasen kontrol-argia pizten da sintoma horiek agertzen direnean. Horrelako kasuetan, erre ez den erregaia ihes-sistemara eta atmosferara hel daiteke. Horrez gain, gehiegi berotzeak katalizatzailea kaltetu dezake.

KONTUZ

Ez agortu erregai-tanga guztiz; horrelakoetan, elikadura irregular batek kalte eragin dezake pizgailuan. Horrelakoetan, erre gabeko gasolina iristen da ihes-gasen sistemara eta, ondorioz, katalizatzailea gehiegi berotu eta kaltetu daiteke.

Ingurumenari buruzko oharra

Zenbaitetan gerta liteke ihes-gasen sistemak zuzen funtzionatu arren gas horiek sufrearen antzeko usaina izatea. Erregaiak duen sufre kantitatearen arabera izango da hori. Hori saihestu daiteke, askotan, beste marka bateko erregaia hartuz.

Partikula-iragazkia

Erabilgarri hauetarako: gasolinarako eta dieselerako partikula-iragazkia duten ibilgailuetarako

Partikulen iragazkiak ihes-sistemaren kedar-partikula ia guztiak iragazten ditu. Normaltasunez gidatzen den bitartean, iragazkia bera bakarrik garbitzen da. Iragazkia berez ez bada garbitzen (esaterako, etengabe ibilbide laburrak egiten badira), kedarrarekin buxatzen da, eta seinale hau agertzen da gidariarentzat:

Filtro de partículas: se limpia durante la marcha. Ver Manual.

Partikula-iragazkia garbitu behar da (leheneratzea).

Gasolinarako eta dieselerako partikula-iragazkia leheneratzea[1)]

Leheneratzeko ibilbiderako baldintza: motorra zerbitzu-tenperaturan dago.

- Gidatu 50-120 km/h-ko (31-75 mph) abiaduran. Horrela, tenperatura igo egiten da eta iragazkiaren kedarra erre ››› 328. orrialdea.
- Kontuan hartu legezko abiadura-mugak eta gomendatutako martxak.
- Kontrol-argia itzalitakoan, amaitu leheneratze-ibilbidea.

1) 2.0l eta 2.5l TSI gasolinazko motorrak izan ezik.

Kontrol-argiak piztuta jarraitzen badu martxan jarri eta 30 minutura, leheneratze moduan, joan tailer espezializatu batera, matxura konpon dezaten.

Partikula-iragazkia leheneratzea (2.0l eta 2.5l TSI gasolinazko motorretarako soilik)

Leheneratzeko ibilbiderako baldintza: motorra zerbitzu-tenperaturan dago.

- Gidatu gutxienez 80 km/h-ko ››› **328. orrialdea** abiaduran.
- Kendu, segundo batzuetan, oina azelera-gailu-pedaletik, ibilgailua jarritako martxan ibil dadin.
- Kontuan hartu legezko abiadura-mugak eta gomendatutako martxak.
- Errepikatu prozedura hori (azeleratu eta bakarrik ibiltzen uztea) kontrol-argia itzali arte.

Prozedura horren bidez, partikula-iragazkia berez garbitzen da, eta denbora eman dezake horretan.

Kontrol-argia **ez bada itzaltzen**, joan espezializatutako tailer batera matxura konpontzera.

⚠ ADI

Egokitu beti zure abiadura baldintza meteorologikoetara, errepideen, eremu irekiaren eta trafikoaren egoeretara partikula-iragazkia leheneratze-fasean badago. Ibilbide-gomendioek ezin dute eragin zuk herrialde bakoitzaren ibilgailuen trafikoari buruzko berariazko arautegia ez betetzea.

Oharra

Partikula-iragazkia birsortzeko prozesuan zehar erregai-erreserbaren abisua ere jasotzen baduzu, prozesua eten egin daiteke. Erregaia hartu eta partikula-iragazkia birsortzeko prozesuarekin jarraitu.

KONTUZ

- **Ihes-sistemak partikulen iragazkia asetzear dagoela hautematen badu, sistema horren autogarbiketa-funtzioak funtzio horretarako martxa egokia gomendatzen du.**
- **Partikula-iragazkia leheneratzeak eragiten dituen tenperatura altuak direla eta, litekeena da motorra gelditu ondoren (nahiz eta oraindik ez den iritsi haren zerbitzu-tenperaturara) erradiadorearen haizagailua martxan jartzea.**
- **Leheneratzean, zaratak, usainak eta ralenti-erregimen altuak sor daitezke.**
- **Partikula-iragazkiaren balio-bizitza ez laburtzeko, erabili beti motorraren olio egokia eta erregai zuzena. Ez egin etengabe ibilbide laburrak.**

Arazoak konpontzea

Anomalia isurpenak kontrolatzeko sisteman

Kontrol-argi horia pizten da.

Moteldu abiadura eta gidatu kontu handiz gertuen dagoen espezializatutako tailerrera iritsi arte, motorra aztertzeko.

Katalizatzailea kaltetu dezaketen akatsak errekuntzan

Kontrol-argi horiak dir-dir egiten du.

Moteldu abiadura eta gidatu kontu handiz gertuen dagoen espezializatutako tailerrera iritsi arte, motorra aztertzeko.

Partikulen iragazkia buxatuta

Kontrol-argi horia pizten da ››› **327. orrialdea**.

EPC Anomalia gasolinazko motorraren kudeaketan

Kontrol-argi horia pizten da.

Joan berehala tailer espezializatu batera motorra aztertzera.

Pizgailua konektatzean, EPC (Electronic Power Control) kontrol-argia pizten da eta itzali egin behar da motorra piztu ondoren.

Diesel motorraren aurretiko berotze-sistema

Kontrol-argi horia pizten da.

Kontrol-argia itzaltzerakoan motorra unean bertan abiaraz daiteke.

Anomalia diesel motorraren kudeaketan

Kontrol-argi horiak dir-dir egiten du.

Joan berehala tailer espezializatu batera motorra aztertzera.

KONTUZ

, , EPC edo kontrol-argiak piztuta dauden bitartean, motorrean anomaliak ager daitezke, erregaiaren kontsumoa handitu egin daiteke eta motorrak potentzia gal dezake.

Bestelako egoerak

Ibilgailu barruko tresnak

Ibilgailu barruko tresna-sorta



195. irudia Maletategian, karga-azaleraren estalkiaren azpian: ibilgailu barruko tresnak.

Ibilgailu barruko tresnak maletategian egoten dira, karga-azaleraren estalkiaren azpian. Barruko tresnak dauden lekura heltzeko ››› **302. orrialdea**.

Hona hemen ibilgailuaren tresnak:

1. Lapurreten aurkako torlojurako egokigailua
2. Biribilka daitekeen atoiaren zirgiloa
3. Gurpiletarako giltza
4. Katuaren biradera
5. Katu jasotzailea
6. Gurpilaren erdiko edergarriak ateratzeko gakoa
7. Gurpil-torlojuetako txanoetarako pintza

Aipatutako zenbait tresnak bertsio batzuetan bakarrik egoten dira edo aukerako ekipamenduak dira.

⚠ ADI

Barruko tresnak, zuloak konpontzeko kitak eta aske dauden ordezko gurpilak indartsu irten daitezke airean bidaiari-lekuan bat-bateko maniobrak edo balaztatze bortitzak egiten badira edo istripuak gertatuz gero, lesio larriak sorraraziz.

- **Egiaztatu beti barruko tresnak, zuloak konpontzeko kita eta aske dauden ordezko gurpila edo larrialdiko gurpila behar bezala eutsita daudela maletategian.**

⚠ ADI

Egokiak ez diren edo kaltetuta dauden barruko tresnek lesioak eta istripuak eragin ditzakete.

- **Ez sekula lan egin desegokiak diren edo kaltetuta dauden tresnekin.**

Oharra

Katua, oro har, ez da mantentze-lanetarako objektu bat. Beharrezkoa izanez gero, koipe unibertsalarekin koipeztatu behar da.

Eskuilak aldatzea

Haizetako-garbigailuaren zerbitzu-posizioa



196. irudia Haizetako-garbigailua zerbitzu-posizioan.

Egiaztatu eskuilak izoztu ez direla.

Haizetako-garbigailua zerbitzu-posizioan dagoela, haizetako-garbigailuaren besoak jaits daitezke ››› **196. irudia**.

- Itxi motorreko kapota ››› **343. orrialdea**.
- Konektatu eta deskonektatu pizgailua.
- Egin presio labur eta beherantz haizetako-garbigailuaren palankan.

Martxan hasi baino lehen, jaitsi behar dira berriro eskuilak daramatzaten besoak. Haizetako-garbigailuaren palankari eragitean, eskuilak daramatzaten besoak hasierako posiziora itzuliko dira.

Oharra

- **Haizetako-garbigailuaren besoak aldaketa egiteko posiziorantz mugitzeko, aurreko kapotak guztiz itxita egon behar du.**
- **Zerbitzu-posizioa beste egoera batzuetan ere balia daiteke, adibidez, neguan aparkatzean haizetakoa ez izozteko estaltzen baduzu.**

Haizetako-garbigailua eta luneta-garbigailua aldatzea



197. irudia Haizetako-garbigailuaren eskuilak aldatzea.

Haizetako-garbigailuaren eskuilak grafito geruza batekin datoz fabrikatik. Geruza horri esker, beiraren gaineko ekorketak ez du zaratarik egiten. Geruza kaltetuta badago, zarata handiagoa izango da, ura beiratik ekortzerakoan.

Egiaztatu maiz eskuilen egoera. **Eskuilek beira arraspatzen badute**, aldatu behar dira hondatuta badaude, edo garbitu, zikin egonez gero ››› ⓘ.

Azkenengo hori nahikoa ez balitz, baliteke haizetako-garbigailuaren muntatzeko angelua desdoituta egotea. Kasu horretan, joan zaitez tailer espezializatu batera kontrolatu eta doitu dezaten.

Haizetako-garbigailuaren eskuilak hondatuta badaude, berehala aldatu behar dira. Tailer espezializatuetan eros daitezke.

Altxatu eta jaitsi haizetako-garbigailuaren besoak

- Ipini haizetako-garbigailua zerbitzu-posizioan ››› **330. orrialdea**.
- Eutsi haizetako-garbigailuaren besoei eskuilaren finkapen-gunetik **bakarrik**.

Beirak garbitzeko eskuilak garbitzea

- Altxatu eskuilak daramatzaten besoak.
- Kendu kontu handiz beirak garbitzeko eskuiletako hautsa eta zikinkeria, zapi leun batez.
- Oso zikin badaude, erabili kontu handiz belaki edo zapi bat ››› ⓘ .

Haizetako-garbigailuaren beirak garbitzeko eskuilak aldatzea

- Altxatu eta jaitsi eskuilak daramatzaten besoak.
- Sakatuta mantendu ››› **197. irudia** ① desblokeatzeko tekla, eskuilatik geziaren norabidean poliki tira eginez,
- Ipini eskuila berri bat, **luzera eta mota berekoa**, eskuilak daramatzan besoan, eta ondo sartu.
- Bermatu berriz eskuilak eramateko besoak haizetako-garbigailuaren gainean.

Luneta-garbigailuaren eskuila aldatzea

- Bereizi eskuila daraman besoa atzeko lunetatik.
- Atera eusletik eskuila zentroaren azpitik. Eragiketa horretan, tinko eutsi eskuila daraman besoari.
- Sartu eskuila berria (luzera eta mota berekoa) eskuila daraman besoaren ahokalekuan, presioa eginez. Hori egitean, eutsi eskuila daraman besoari goiko muturretik.
- Tolestu eskuila daraman besoa eta ipini lunetaren gainean.

⚠ ADI

Gastatutako edo zikin dauden haizetako-garbigailuaren eskuilek ikuspena murrizten dute eta istripuak eta lesio larriak pairatzeko arriskua areagotzen dute.

- **Aldatu haizetako-garbigailuaren eskuilak hondatuta edo gastatuta dauden guztietan, edo haizetako-garbigailua zuzen garbitzen ez duenean.**

ⓘ KONTUZ

- **Eskuilak hondatuta edo zikin badaude, beiran arrastoa utz dezakete.**
- **Disolbagarriak, belaki latzak edo objektu zorrotzak dituzten produktuak eskuilak garbitzeko erabiltzen baditugu, grafito geruza kaltetuko da.**
- **Ez garbitu beirak inoiz erregaiarekin, esmalte-kentzekoarekin, pintura-disolbagarriarekin edo antzeko produktuekin.**
- **Izoztea gertatzen bada, begiratu eskuilak izoztu egin diren ala ez haizetako-garbigailua abiarazi aurretik. Eguraldia hotza bada, ibilgailua gelditzean lagungarri izan daiteke haizetako-garbigailua zerbitzu-posizioan ipintzea** >>> 330. orrialdea.

ⓘ KONTUZ

- **Motorreko kapota eta haizetako-garbigailuaren besoak ez kaltetzeko, jaitsi zerbitzu-posizioan bakarrik.**
- **Martxan hasi baino lehen, beti jaitsi behar dira haizetako-garbigailuaren besoak.**

Abiatzen laguntzea

Gaiaren aurkezpena

12 volteko bateria deskargatu delako motorra abiarazten ez bada, beste ibilgailu bateko bateria erabil dezakezu zurea martxan jartzeko.

Abioa egiteko **DIN 72553 arauaren araberako** kableak behar dira (ikus kableen fabrikatzailearen oharrak). Gasolinako motorra duten ibilgailuen kablearen sekzioak 25 mm² izan behar du, gutxienez, eta diesel motorra duten ibilgailuetan, berriz, 35 mm², gutxienez.

ⓘ KONTUZ

Ibilgailuaren sistema elektrikoan kalte adierazgarriak ekiditeko, kontuan izan honakoa:

- **Abiarazteko kableak gaizki konektatzen badira, zirkuitulabur bat gerta daiteke.**
- **Erabili abiarazteko kableak guztiz isolatutako pintzekin soilik.**
- **Ez utzi ibilgailuei kontaktuan jartzen, bestela polo positiboak konektatu bezain laster hasiko bailitzateke korrontea pasatzen.**

Abiatzen laguntzea: deskribapena



198. irudia Start-Stop sistema duten ibilgailuetarako konexio-sistema.

Deskargatutako bateriak ibilgailuaren barruko sarera behar bezala borneen bidez lotuta egon behar du.

Ziurtatu pintzek behar bezalako kontaktu metalikoa dutela poloetara konektatzerakoan.

Larrialdietarako kableen konexioa

Abio-kableak **1 > 2 > 3 > 4** >>> **198. irudia** hurrenkera jarraituz bakarrik konektatu beharko dira.

1. Deskonektatu bi ibilgailuen pizgailua ››› ⚠.
2. Lotu borneen bidez larrialdietarako kable *gorriaren* mutur bat polo positiboarekin (+), bateria deskargatuta duen ibilgailuan (A).
3. Lotu borneen bidez larrialdietarako kable *gorriaren* beste muturra (+) korrontea ematen duen ibilgailuaren polo ositiboarekin (B).
4. Lotu borneen bidez larrialdietarako kable *beltzaren* mutur bat (C) masa terminal egoki bati, motorreko blokean torlojuen bidez lotutako metal tinkozko pieza bati edo motorreko blokeari berari.
5. Lotu borneen bidez larrialdietarako kable *beltzaren* mutur bat (D) , bateria deskargatuta duen ibilgailuan, motorreko blokean torlojuen bidez lotutako metal tinkozko pieza batekin edo motorreko blokearekin berarekin, baina ahalik eta urrunen bateriatik.
6. Jarri kableak motorraren hobiaren pieza biratzaile batek inoiz harrapatuko ez dituen modu batean.

Martxan jartzea

7. Abiarazi korrontea ematen duen ibilgailuaren motorra eta utzi ralentin funtzionatzen.
8. Abiarazi bateria deskargatuta duen ibilgailuaren motorra eta itxaron bizpahiru minutuz, motorra ibili arte.

Larrialdietarako kableen deskonexioa

9. Larrialdietako kableen borneak askatu baino lehen, itzali argi laburra piztuta badago.
10. Aktibatu bateria deskargatuta duen ibilgailuaren berogailuaren turbina eta luneta termikoa, borneak askatzerakoan sortzen diren tentsio-gorabeherak murrizteko.
11. Motorrek martxan jarraitzen duten bitartean, askatu kableen borneak aurretik lotu ziren aurkako hurrenkeran.

10 segundo igaro ondoren, motorra ez bada abiatzen, saiatu berriz minutu 1 inguru igaro ondoren.

⚠ ADI

- **Bete itzazu oharpenak motorreko hobian lanak egitean ›››** **343. orrialdea**.
- **Korrontea ematen duen bateriak deskargatutako bateriaren tentsio (12V) eta gaitasun bera (ikusi bateriaren itsasgarria) izan behar ditu. Bestela, eztanda egiteko arriskua dago.**
- **Baterietako bat izoztuta badago, ez saiatu inoiz larrialdietarako kableekin abiarazten, eztanda egitea eragin baitezakezu. Desizoztu ondoren ere, erre zaitezke elektrolitoa isuriz gero. Ordezkatu bateria izoztuta badago.**
- **Mantendu edozein sutze-iturri (garrak, zigarrotxoak, etab.) baterietatik urrun. Bestela, eztanda bat gerta daiteke.**
- **Kasu egin larrialdietarako kableen fabrikatzailearen erabilera-jarraibideei.**
- **Ez konektatu beste ibilgailuan kable negatiboa zuzenean deskargatutako bateriaren polo negatibora. Txinpartak eraginez gero, bateriatik ateratako gas lehergarria sutu daiteke eta eztanda egin dezake.**
- **Kable negatiboa ez da inoiz erregai-sistemaren osagaiekin edo frenoaren tutuekin konektatu beharko beste ibilgailuan.**
- **Ez dira ukitu behar poloetako pintzetan isolatu gabe dauden aldeak. Horrez gain, bateriaren polo positibora borneen bidez lotutako kableak ez du inoiz elektrizitatea eroaten duten ibilgailuaren piezekin kontaktuan egon behar, zirkuitulaburra eragiteko arriskua baitago.**
- **Larrialdietarako kableak motorraren hobiaren pieza biratzaileak inoiz ez harrapatzeko moduan kokatuko dira.**
- **Ez bermatu zure gorputza baterien gainean, erre zaitezke eta.**
- **Kontuan izan abio-kableen eta beste ibilgailuaren fabrikatzailearen jarraibideen eskuliburua.**

ⓘ KONTUZ

Zoaz berehala tailer espezializatu batera eta eskatu 12 volteko bateria berrikusteko.

Nola eraman ibilgailua atoian

Gaiaren aurkezpena

Ibilgailu bat atoian eramateko, praktika behar da, batez ere atoi-kable bat eramaten bada. Bi gidariek ondo ezagutu behar lituzkete ibilgailua atoian eramateko berezitasunak. Esperientziarik gabeko gidariek ez lukete atoia erabili beharko.

Atoian eramatean, ziurtatu onartzen ez den trakzio-indarrik edo astindurik eragiten ez dela. Zoru finkorik gabeko bideetan finkapenpiezak gehiegi kargatzeko arriskua dago.

Kontuan hartu atoiaren bidez abiarazteari eta atoian eramateari buruzko xedapen legalak.

Atoian abiaraztea

Atoiaren bidez abiarazteak esan nahi du ibilgailu baten motorra martxan jartzea eta beste batek, tira eginez, mugitzen jartzea.

Ibilgailua abiaraz daiteke atoiaren bidez atoi-barra edo -kablea erabiliz.

Atoian eramatea

Atoian eramatea ibilgailu batek ibiltzeko egoeran ez dagoen beste bati tira egitea da.

Ibilgailua barra edo atoi-kable batekin eraman daiteke atoian:

- Baimendutako abiadura maximoa 50 km/h-koa (30 mph) da.
- Baimendutako distantzia maximoa 50 km-koa (30 milia) da.

Atoi-kablea eta atoi-barra

Atoi-barra atoian eramateko seguruagoa da eta ibilgailuan kalteak sortzea saihesten du. Atoi-kablea erabili beharko litzateke atoi-barra bat eskuragarri ez badago bakarrik.

Atoi-kableak malgua izan beharko du, ibilgailuetan kalterik ez eragiteko. Erabili zuntz sintetikozko edo antzeko material elastikozko kable bat.

Garabi batekin atoian eramatea

Garabia erabiltzen bada, aldagailu automatikoa duten ibilgailuen kasuan, atoian eraman ahal izango da baldin eta aurrealdeko gurpilak zintzilikatuak baditu bakarrik.

Osoko trakzioko ibilgailuak atoian eramatea (4Drive)

Osoko trakzioko ibilgailuak (4Drive) atoia-barra edo atoia-kable batekin eraman daitezke atoian. Ibilgailua atoian eramaten bada aurrealdeko edo atzeko ardatza zintzilikatuta, motorra itzali behar da; bestela, transmisioa kaltetu egin daiteke.

⚠ ADI

Ibilgailua atoian eramaten den bitartean, martxaren jarrera eta frenatzeko gaitasuna nabarmen aldatzen dira.

⚠ ADI

Ez utzi inoiz ibilgailua atoian eramatea korronterik ez badauka.

- **Atoian eramaten duzun bitartean, ez atera inoiz kontaktu-giltza sarrailatik, eta ez deskonektatu inoiz pizgailua abio-sakagailuarekin. Bestela, direkzioaren zutabeko blokeatze elektronikoa bat-batean ahokatu liteke eta ezinezkoa izango litzateke ibilgailua zuzentzea. Horrek ibilgailuaren kontrolaren galtzea eragin dezake, baita istripuak eta lesio larriak ekarri ere.**
- **Ibilgailua atoian eramaten ari den bitartean, ibilgailua korronterik gabe geratuko balitz, eten berehala prozesua eta eskatu laguntza langile espezializatuei.**

ⓘ KONTUZ

Ibilgailua kable edo atoi-barra batekin atoian eramateak kalteak eragin ditzake ibilgailuan.

- **Ibilgailua kable edo atoi-barra batekin atoian eramaten bada, kontu handiz ibili beharko da.**
- **Ahal bada, eskatu ibilgailua garabi batekin atoian eramatea.**

KONTUZ

Ibilgailua eskuekin bultzatzen bada, atzoko talde optikoak, lunetako alboko espoilerrak eta txapa azalera handiak honda daitezke. Horrez gain, atzeko espoilerra aska liteke.

- **Ibilgailua bultzatu behar bada, ez utzi atzeko talde optikoak, lunetako alboko espoilerrak, txapa-azalera handiak edo atzeko espoilerra presionatzea.**

KONTUZ

Atoiaren tapa eta atoiaren zirgiloa desmuntatzean eta muntatzean kalteak eragin daitezke ibilgailuan; esaterako, pinturan.

- **Ibilgailua ez kaltetzeko, desmuntatu eta muntatu atoiaren tapa eta zirgiloa, kontu handiz.**

KONTUZ

Ibilgailuarentzat egokia ez den atoiaren zirgoila erabiltzeak ibilgailuari kalte egin diezaioke.

- **Atoian eramateko, erabili beti ibilgailuari dagokion atoiaren zirgoila, ibilgailuaren barruko tresnen parte dena, edo ibilgailurako egokia den zirgoila.**

Atoiaren bidez abiarazteko eta atoian eramateko argibideak

Ibilgailua atoian eramaten den bitartean, atoian eramandako ibilgailuan, direkzio-aldaketa seinaleztatu egin daiteke, larrialdietarako keinukariak konektatuta baldin badaude ere. Horretarako, dagokion keinukarien palankari eragin behar zaio, pizgailua konektatuta dagoela. Denbora horretan zehar, larrialdietarako keinukariak deskonektatuta egongo dira. Keinukarien palanka oinarrizko posizioan kokatzen denean, larrialdietarako keinukariak berriro konektatuko dira automatikoki.

Ibilgailua atoiaren bidez abiaraztea eta atoian eramatea baimenduta ez dauden kasuak

Ez utzi ibilgailua atoian eramaten honako egoera hauetan:

- Ibilgailuko abiadura-kaxa kaltetuta dago edo ez du lubrifikatzailerik.
- 12 volteko bateria deskargatuta dago. “Keyless Access” ixteko eta abiarazteko sistema duten ibilgailuetan, direkzioa blokeatuta dago eta ezin da aparkatzeko balazta deskonektatu, ezta direkzio-zutabearen blokeoa askatu ere, horiek konektatuta badaude.
- 50 km baino gehiago egin behar baldin badira.
- Ezin da bermatu gurpilak arazorik gabe biratzea edo direkzioa istripu baten ondoren ibiltzea.

Aipatutako arrazoiren batengatik ibilgailua ezin bada gurpilen gainean atoian eraman, eskatu laguntza langile espezializatuei, eta hala bada, eskatu ibilgailua eramatean gurpilek galtzada ez ukitzea.

Atoian abiaraztea

Atoian abiaraztearen aurreko urratsak

Aldagailu automatikoa duten ibilgailuak: Arrazoi teknikoak direla eta, ezin da ibilgailua atoi bidez abiarazi. Saia zaitez motorra martxan jartzen abio-laguntzarekin ››› **332. orrialdea**.

Eskuzko aldagailua duten ibilgailuak: Orokorrean, ez da gomendatzen ibilgailua atoian abiaraztea. Motorra martxan jartzen ez bada, saiatu lehenik abio-laguntzarekin ››› **332. orrialdea**. Kontuan izan, gasolinazko motorren kasuan, baimendutako gehieneko distantzia atoian abiarazteko 50 m da.

- Finkatu kablea edo atoi-barra horretarako aurreikusi diren finkatze-puntuetan bakarrik.
- Konektatu pizgailua eta larrialdietarako keinukariak.
- Sartu bigarren edo hirugarren martxa ibilgailua geldituta dagoela.
- Zapaldu enbrage-pedala eta eduki zapalduta.
- Bi ibilgailuak mugitzen direnean, askatu enbrage-pedala.

- Motorra abian jartzen denean, zapaldu enbrage-pedala eta askatu martxa, trakzio-ibilgailuarekin talka ez egiteko.

KONTUZ

Atoiaren bidez abiaraztean, katalizatzailera erre gabeko erregaia iritsi eta kalteak eragin ditzake.

Atoian eramatea

Aurretiko urratsak

- Finkatu kablea edo atoi-barra horretarako aurreikusitako finkatze-puntuetan soilik >>> ⚠ . Ekipamenduaren arabera, hauek atoigailua edo atoiaren zirgiloa izan daitezke.
- Ziurtatuta atoi-kablea okertuta ez egotea. Bestela, atoiaren zirgiloa askatu daiteke atoian eramatean.
- Konektatu pizgailua eta piztu bi ibilgailuetako larrialdi-argi keinukariak. Hala badagokizu, kontuan hartu beste egon daitezkeen beste kokapen batzuk.
- Kontuan hartu beste ibilgailuaren eskuliburuan atoian eramateari buruz adieraziko jarraibideak.

Trakzio-ibilgailua (aurrean)

- Ez abiarazi kablea tenkatu arte.
- Azeleratu kontu handiz.
- Balaztatze eta maniobra bortitzak saihestu.

Eskuzko aldagailua duten ibilgailuak:

- Abioa hastean, enbragatu leuntasun handiz.

Atoian eramandako ibilgailua (atzetik)

- Ziurtatu abioa konektatuta dagoela, bolantea blokea ez dadin, eta beharrezkoa bada, keinukariak eta beira garbitzekoa erabil ditzazun.
- Serbofrenoak eta direkzio lagunduak motorra martxan dagoenean baino ez dute funtzionatzen. Bestela, indar handiagoarekin zapaldu beharko duzu balazta-pedala, eta indar handiagoa beharko duzu bolantea biratzeko.
- Askatu geratze-balazta elektronikoa.
- Ziurtatu atoi-kablea beti tinko dagoela.
- Kendu martxa edo ipini martxa-hautagailua **N** posizioan.

⚠ ADI

Ez jarri inoiz atoi-kablea edo -barra ardatzaren edo errodaje-trenaren osagaietara. Baliteke kaltetuta egotea eta istripua eta lesio larriak gertatzea.

- **Eskatu laguntza espezializatutako langileei eta, horrela badagokio, eskatu ibilgailua garabian eramateko**

KONTUZ

Ibilgailua atoian eraman ahal izango da, baldin eta 12 volteko bateriaren karga-egoera nahikoa bada geratze-balazta elektronikoa deskonektatu eta direkzio-zutabea blokeatu ahal izateko. Ibilgailua korronterik gabe geratuko balitz edo sistema elektrikoan matxuraren bat egongo balitz, kasu horretan motorra martxan jarri beharko litzateke abio-laguntzarekin, geratze-balazta askatzeko eta direkzio-zutabearen blokeoa desaktibatzeko.

Atoiaren aurrealdeko zirgiloa



199. irudia Aurrealdeko kolpeleungailuaren eskuineko aldean: estalkia kentzea.



200. irudia Aurreko kolpe-leungailuaren eskuineko aldea: hariztatutako atoiaren zirgiloa.

Harizta daitekeen atoi-zirgiloaren ahokalekua aurrealdeko kolpe-leungailuaren eskuinaldean dago, estalki baten atzealdean ››› **199. irudia**.

Atoiaren zirgiloa ibilgailuan eraman behar da beti.

Kontuan hartu atoian eramateari buruzko jarraibideak ››› **335. orrialdea**.

Atoiaren aurrealdeko zirgiloa muntatzea

- Atera atoiaren zirgiloa maletategian dauden ibilgailu barruko tresnen artetik ››› **330. orrialdea**.
- Kendu tapa, haren beheko aldean presioa eginez eta utzi ibilgailutik esekita ››› **199. irudia**.
- Hariztatu atoiaren zirgiloa bere ahokalekuan eta ahal duzun guztia biratu **erloju-orratzen aurkako noranzkoan** ››› **200. irudia** , ››› ⓘ.

Erabili objektu egoki bat atoiaren zirgiloa bere ahokalekuan guztiz eta irmotasunez hariztatu ahal izateko.

- Ibilgailua atoian eraman ondoren, askatu zirgiloa **erloju-orratzen norabide berean** objektu egoki batekin.
- Ipini berriro estalkia eta egin presioa horren gainean barrurantz, ahokatu arte.
- Beharrezkoa izanez gero, garbitu zirgiloa eta gorde berriro maletategian ibilgailu barruko gainerako tresnekin batera.

ⓘ KONTUZ

Atoiaren zirgiloak guztiz eta irmotasunez hariztatuta egon behar du beti. Bestela, ahokalekua atera liteke atoian eramaten ari den bitartean.

Atoiaren atzeko zirgiloa



201. irudia Atzealdeko kolpe-leungailuaren eskuineko aldean: estalkia kentzea.



202. irudia Atzealdeko kolpe-leungailuaren eskuineko aldean: hariztatutako atoiaren zirgiloa.

Atoiko hariztatutako zirgiloaren ahokalekua atzealdeko kolpe-leungailuaren eskuineko aldean dago, tapa baten atzean. ››› **201. irudia**.

Atoi-gailua duten serieko ibilgailuek **ez** daukate ahokalekurik taparen atzean atoiaren hariztatutako zirgilorako. Kasu horretan, bola-krokadura atera edo muntatu behar da, eta atoian eramateko erabili ››› 309. orrialdea , ››› ⓘ.

Kontuan hartu atoian eramateari buruzko jarraibideak ››› 335. orrialdea.

Atoiaren atzeko zirgiloa muntatzea (fabrikako atoi-gailurik gabeko ibilgailuak)

- Atera atoiaren zirgiloa maletategian dauden ibilgailu barruko tresnen artetik ››› 330. orrialdea.
- Egin presioa taparen ››› 201. irudia goialdean ahokalekutik ateratzeko.
- Kendu tapa eta utzi ibilgailutik zintzilik.
- Hariztatu atoiaren zirgiloa bere ahokalekuan eta ahal duzun guztia biratu **erloju-orratzen aurkako noranzkoan** ››› 202. irudia , ››› ⓘ. Erabili objektu egoki bat atoiaren zirgiloa bere ahokalekuan guztiz eta irmotasunez hariztatu ahal izateko.
- Ibilgailua atoian eraman ondoren, askatu zirgiloa **erloju-orratzen norabide berean** objektu egoki batekin.
- Jarri berriz tapa eta sakatu, erlaitza kolpeleungailuan ahokatu arte.
- Beharrezkoa izanez gero, garbitu zirgiloa eta gorde berriro maletategian ibilgailu barruko gainerako tresnekin batera.

ⓘ KONTUZ

- **Atoiaren zirgiloak guztiz eta irmotasunez hariztatuta egon behar du beti. Bestela, ahokalekua atera liteke atoiaren bidez abiarazten edo atoian eramaten ari den bitartean.**
- **Ibilgailuak fabrikan hornitutako atoi-gailu bat badu, atoi-barra batez atoian eramatea baimenduta dago, baldin eta hori bola-krokadura batean muntatzeko bereziki diseinatuta badago. Egokia ez den atoi-barra bat erabiltzen bada, bai krokadura eta bai ibilgailuaren bola kaltetu daitezke. Horren ordez, atoi-kable bat erabili beharko da.**

Fusibleak

Gaiaren aurkezpena

Printzipioz, fusible bat hainbat gailuri eslei dakioke. Bestela, gerta daiteke gailu bati fusible bat baino gehiago egokitzea.

Ordezkatu fusibleak akatsaren kausa konpondu bada bakarrik. Aldatu eta denbora gutxira fusible bat berriz erretzen bada, sistema elektrikoa egiaztatu beharko da tailer espezializatu batean.

⚠ ADI

Sistema elektrikoaren goi-tentsioarekin, deskargak eta erredura larriak paira daitezke, baita hil ere!

- **Ez ukitu inoiz pizgailu-sistemaren kable elektrikoak.**
- **Saia zaitez sistema elektrikoan zirkuitulaburrik ez eragiten.**

⚠ ADI

Egokiak ez diren fusibleak erabili, fusibleak konpondu eta korronte-zirkuitu batean fusible gabe zubia eginez gero, sutea eta lesio larriak eragin daitezke.

- **Ez erabili inoiz balio handiagoko fusiblerik. Ordezkatu fusibleak ampere-kopuru (kolore eta grabatze bera) eta tamaina bereko fusibleekin bakarrik.**
- **Ez ordezkatu inoiz fusibleak tira metaliko batekin, grapa batekin edo antzeko zerbaitekin.**

ⓘ KONTUZ

- **Ibilgailuaren sistema elektrikoa ez kaltetzeko, fusible bat ordezkatu baino lehen, itzali egin beharko dira beti pizgailua, argiak eta gainerako gailu elektronikoak.**
- **Babestu irekita dauden fusibleen kutxak, zikinkeria edo hezetasuna sar ez dadin, sistema elektrikoa kaltetu baitaiteke.**

Oharra

Ibilgailuan, kapitulu honetan adierazitako baino fusible gehiago daude. Hauek tailer espezializatu batek bakarrik aldatu beharko lituzke.

Fusibleak ibilgailuaren barruan

203. irudia Gidariaren aldeko tresnen taulan: fusibleen kutxaren estalkia.

Tresnen taularen azpiko fusibleen kutxa ireki eta ixtea

- *Ireki:* mugitu estalkia beherantz arte ››› **203. irudia**.
- *Itxi:* mugitu estalkia gorantz ahokatu arte.

Tresnen taularen azpian kokatutako fusibleak koloreen bidez bereiztea

Kolorea	Korrontearen intentsitatea amperetan
Laranja	5
Marroia	7,5
Gorria	10
Urdina	15
Horia	20
Zuria edo gardena	25
Berdea	30
Laranja	40

KONTUZ

- **Desmuntatu fusibleen estalkiak eta muntatu berriz behar bezala, ibilgailuan kalterik eragin ez dadin.**
- **Babestu irekita dauden fusibleen kutxak, zikinkeriarik edo hezetasunik sar ez dadin. Fusibleen kutxetan zikinkeria edo hezetasuna sartzen bada, sistema elektrikoa kaltetu daiteke.**

Fusibleak motorreko konpartimentuan



204. irudia Motorraren hobian: fusibleen kutxaren estalkia.

Ireki motorreko konpartimentuko fusibleen kutxa

- Ireki motorreko kapota ››› **343. orrialdeko** ⚠.
- Egin presioa blokeo-erlaitzetan, fusibleen kutxako estalkia desblokeatzeko ››› **204. irudia**.
- Atera estalkia gorantz.
- Estalkia **muntatzeko**, ipini fusibleen kutxaren gainean. Bultzatu erlaitzak beherantz, ahokatu dutela entzun arte.

Erretako fusiblea aldatzea



205. irudia Erretako fusible baten irudikapena.

Prestatze-lanak

- Deskonektatu pizgailua, argiak eta gailu elektriko guztiak.
- Ireki dagokion fusibleen kutxa ››› **339. orrialdea**, ››› **339. orrialdea**.

Erretako fusible bat hautematea

Erretako fusible bat atzemango duzu metalezko tira erreta badago ››› **205. irudia**.

- Argitu fusiblea linterna batekin ea erreta dagoen ikusteko.

Fusiblea ordezkatzea

- Atera fusiblea.
- Ordezkatu erretako fusiblea *ampere*-kopuru bera (kolore eta grabatze bera) eta *tamaina* bera duen berri batekin.
- Jarri berriro estalkia edo itxi fusibleen kutxaren estalkia.

Fusibleen hornidura

Fusibleen hornidura bidaiari-lekuan

Zk.	Kontsumitzaileak/Ampereak	
3	Atoia	25
4	SCR, Adblue®	20
5	Aldagailu automatikoaren palanka	25
6	Barne-argia	30
8	Sabai irekigarria	20
7	Berotutako eserlekuak	30
9	Ezkerraldeko atea	30
11	Atoia	15
12	Eskuinaldeko argiak	40
13	Ixte-sistema zentralizatua	40
14	Ethernet kanpoko anplifikadorea	30
16	Airbag	7,5
17	SCR, motor-errelea 1.5	10
18	KESSY	7,5
19	Tresnen koadroa	7,5
20	Connectivity Box	7,5
21	Atzeko kamera	7,5
24	4x4 Haldex gunea	15
25	RGS+EBSS aurreko uhalak	25
26	Eskuinaldeko atea	30
27	RGS+EBSS aurreko uhalak	25
28	PHEV. Goi-tentsioko sistema deskonektatzea erreskatelanetarako. Etiketa horiaren bidezko identifikazioa	10
29	Atoia	15
30	Irratia	30
31	Atoia	25
34	230V hargunea	30
35	Ezkerraldeko argiak	40
36	Klimatizagailuaren airezta-gailua	40
37	Maletategiko ate elektrikoa	30
39	Berotze-sistema duen bolantea	10
40	Alarmaren bozina	7,5

Zk.	Kontsumitzaileak/Ampereak	
41	Gateway	7,5
42	Aldagailu automatikoaren palanka	7,5
43	Klimatizagailu/berogailuaren kontrol-panela, atzeko lunetaren berogailua, AA konpresorea	10
44	Diagnostikoa, esku-balaztaren kommutadorea, argien kommutadorea, atzera martxako argia, barruko argiztapena, argiztatutako talonera	7,5
45	Direkzio-zutabea	7,5
46	Irrati-pantaila	7,5
47	Gidatze-modua	10
48	USB	7,5
52	12V hargunea	20
58	Aparkatzeko sentsoreak, aparkatzen laguntzeko gunea, aurrealdeko kamera, radarra	7,5
59	Atzera martxarako etengailua, klima-sentsorea, ispilu elektrokromikoa	7,5
60	Diagnosia, faroen gunea, faro-erregulagailua	7,5

Zk.	Kontsumitzaileak/Ampereak	
61	Abio-motorra, lozagia-sentsorea	7,5
65	Soinu-anplifikadorea	10
66	Luneta garbitzekoa	15
67	Luneta termikoa	30

Aireko fusiblea/Ampereak	
230 V-eko atzeko korronte-harguneak	30
Gidariaren eserleku elektrikoa	15

Motorreko konpartimentuko fusibleen hornidura

Zk.	Kontsumitzaileak/Ampereak	
2	Motorraren kontrol-unitatea	7,5
3	Gasolina-ponparen gunea, KGN	7,5/10/20
	VZ5 bertsioa: Pizte-bobinak	30
4	Aurreko ezkerreko argia	15
5	Aurreko eskuineko argia	15
7	Aldagailu automatikoaren ponpa	30
8	Serbofrenoa	40
9	Klaxona	15

Zk.	Kontsumitzaileak/Ampereak	
10	Aurrealdeko beirak garbitzekoa	30
11	Klima PHEV	7,5
12	Aldagailu automatikoaren kontrol-unitatea	15/30
	VZ5 bertsioa: Aldagailu automatikoaren kontrol-unitatea	10
13	ESP kontrol-unitatea	25
14	Standheizung	20
15	ESP kontrol-unitatea	40
16	PHEV, Aldagailu automatikoaren unitatea	
17	PTC	40
18	PTC	40
20	Aurrealdeko diferentzial elektronikoa	15
21	Motorraren gunea	7,5
22	Abio-motorra	30
23	Motorraren kontrol-unitatea (diesel/gasolina)	15
24	Motorreko sentsoreak	7,5/10
	VZ5 bertsioa: Motor-errelea, elektrohaizagailua	7,5

Zk.	Kontsumitzaileak/Ampereak	
25	Motorreko sentsoreak	7,5/10
	VZ5 bertsioa: Motorreko sentsoreak	15
26	Motorreko elikadurak	7,5/10/15
	VZ5 bertsioa: Motorreko elikadurak	7,5
27	Lambda zunda	10/15
28	Motorra	10/20
29	Gasolina-ponparen gunea	15/20/30
30	1.0 presio-ponpa	10
31	*VZ5 bertsioa*: 1-4 zilindrorako injekzio-balbula	10
33	PTC	40

Oharra

- **Ibilgailuan, kapitulu honetan adierazitako baino fusible gehiago daude. Horiek tailer espezializatu batean bakarrik aldatu behar dira.**
- **Inolako fusiblerik okupatu gabeko posizioak ez dira tauletan agertzen.**
- **Tauletan adierazitako ekipamendu batzuk zenbait modeloren bertsioetakoak dira bakarrik edo aukerako ekipamendua osatzen dute.**

- **Mesedez, kontuan hartu taulek eskuliburua inprimatzerakoan eskuragarri dauden datuak bakarrik adierazten dituztela; beraz, horiek aldatu egin daitezke.**

Lanparen aldaketa

Argi bat aldatzea

LED teknologia duten argiak

Full-LED faroek argiztapen-funtzio guztiak inplementatzen dituzte (eguneko argia, posizio-argia, keinukariak, argi laburrak eta ibilbide-argia) diodo elektroluminiszenteekin (LED) argi-iturri gisa.

Full-LED faroak ibilgailuaren bizitza osorako irauteko diseinatu dira eta argi-iturriak ezin dira aldatu. Faroa matxuratuz gero, joan baimendutako tailer batera hura ordezkatzeko.

Lainotako faroak, atzeko argiak, matrikula-argia, alboko keinukariak eta balazta-argi gehigarria LED argiek osatuta daude . Hori kontuan izanik, zerbitzu tekniko batean ordezkatu beharko litzateke.

Maila egiaztatzea eta hornitzea

Motorraren hobia

Motorraren hobian lanak egitea

Ibilgailuaren motorraren hobia leku arriskutsua da. Egin zuk zeuk lanak motorraren hobian zer eragiketa egin behar dituzun eta balio orokorra duten segurtasun neurriak ongi ezagutzen badituzu, eta tresna, baliabide eta likido operatiboak baldin badituzu. Lanak modu desegokian egiten badira, lesio larriak gerta daitezke ››› ⚠. Beharrezkoa izanez gero, eskatu tailer espezializatu batean lan guztiak egin ditzaten. CUPRAk CUPRA kontzesionario espezializatu batera edo SEAT sareko edozein kontzesionariotara joatea gomendatzen du horretarako.

Motorraren hobian edozein lan hasi aurretik, aparkatu beti ibilgailua lur horizontal eta finko batean, beharrezkoak diren segurtasun-neurri guztiak hartuz.

⚠ ADI

Mantentze-lanak egiten ari diren bitartean, ibilgailuaren ustekabeko edozein mugimenduk lesio larriak sor ditzake.

- **Ez egin inoiz lanik ibilgailuaren azpian, aldez aurretik immobilizatu ez baduzu, mugi ez dadin. Gurpilak lurrean daudela, ibilgailuaren azpian lanak egiten direnean, ibilgailuak gainazal lau baten gainean egon beharko du, eta gurpilek blokeatuta.**
- **Ibilgailuaren azpian lan egin behar baduzu, eutsi modu seguruan, asto egokiekin. Katua ez da egokia xede horretarako, eta agian ezingo dio eutsi; horrek, lesio larriak eragin litzake.**
- **Start-Stop sistema eskuz deskonektatu beharko da.**

⚠ ADI

Edozein ibilgailuren motorraren hobia eremu arriskutsua da, eta lesio larriak gerta daitezke!

- **Edozein lan egitean, kontu eta zuhurtasun handiarekin jokatu beti, eta kontuan hartu balio orokorreko segurtasun-neurriak. Ez jarri inoiz arriskuan zeure burua.**
- **Ez egin inoiz lanik motorraren hobian, zer eragiketa egin behar diren ongi ez badakizu. Zer egin behar duzu argi ez badaukazu, eskatu lantegi espezializatu bati beharrezko lanak egin ditzala. Lanak modu egokian ez badira egiten, lesio larriak gerta daitezke.**
- **Lurrunik edo likido hozgarririk ateratzen bada, inoiz ez ireki edo itxi motorraren kapota. Lurrun edo likido hozgarri beroek erredura larriak eragin ditzakete. Itxaron beti motorraren hobitik lurruna edo likido hozgarria ateratzen dela ikusteari edo entzuteari utzi arte.**
- **Motorraren kapota ireki aurretik, itxaron motorra hoztu arte.**
- **Motorreko edo ihes-sistemako osagai beroak ukitzen baditu, erredurak izan ditzakezu larruazalean.**
- **Deskonektatu pizgailua eta gorde ibilgailuaren giltza leku seguruan eta ibilgailutik zuhurtziazko distantziara, deskuiduz pizgailua konektatu eta errekuntza-motorra martxan jartzea ezinezkoa izan dadin.**
- **Mantendu haurrak, beti, motorraren hobitik urrun eta ez utzi hauek gainbegiratzeari.**
- **Motorra bero dagoenean, bere hozte-sistema presiopean dago. Ez ireki espantsiotangako estalkia, likido hozgarri beroa zipriztindu dezake eta erredura larriak eta beste lesio batzuk eragin ditzake.**
  - **Biratu hedatzeko tangaren tapa motel, eta kontu handiz, erloju-orratzen kontrako noranzkoan, eta egin aldi berean presio txikia haren gainean.**
  - **Babestu beti likido hozgarritik edo lurrun berotik aurpegia, eskuak eta besoak, zapi handi eta lodi batekin.**

- Likido operatiboak berriro jartzean, ekidin motorreko osagaietan edo ihes-sistemaren gainean erortzea. Likido horiek sute bat eragin lezakete.

⚠ ADI

Sistema elektrikoa goi-tentsiopean dago, eta deskarga elektrikoak, erredurak, lesio larriak eta heriotza eragin dezakete!

- Ez sortu inoiz zirkuitulaburrik sistema elektrikoan. 12 volteko bateriak eztanda egin lezake.
- Deskarga elektrikoa eta lesio larriak izateko arriskua murrizteko, ez ukitu inoiz pizte-sistemako kable elektrikoak motorra martxan dagoen bitartean edo martxan jartzen denean.

⚠ ADI

Motorraren hobian lesio larriak eragin ditzaketen pieza birakariak daude.

- Ez sartu inoiz eskua erradiadorearen haizagailuan, ez eta haren eremutik ere. Errotorearen palak ukitzeak lesio larriak eragin ditzake. Haizagailua tenperaturaren arabera aktibatzen da, eta automatikoki jar liteke martxan, baita pizgailua deskonektatuta badago ere.
- Motorra pizten den bitartean edo martxan dagoenean lanak egin behar badituzu, kontuan izan pieza birakariak (adibidez, poli-V uhala, alternadorea edo erradiadoreko haizagailua) eta goi-tentsioko pizte-sistema arrisku hilgarriak direla. Zuhurtasun handienarekin jokatu beti.
  - Ziurtatu ez dagoela pieza birakarietan harrapatuta gera daitekeen gorputzeko atalik, soinean eramaten duzun harribitxirik edo gorbatarik, arropa, lasaia bada, ezta ilea ere, luzea bada. Motorraren hobian lanak egin aurretik, kendu jantzita daramatzazun bitxiak edo gorbata, bildu ilea luzea badaramazu, eta lotu jantzita daramazun arropa lasaia.
  - Ez zapaldu azeleragailua arreta jarri gabe, kontuz ibili beti. Ibilgailua martxan jar liteke geratze-balazta elektronikoa konektatuta badago ere.
- Ez utzi objekturik motorraren hobian, adibidez, trapuak edo erremintak.

⚠ ADI

Likido operatiboak eta motorraren hobiko zenbait material oso sukoiak dira, eta suteak eta lesio larriak eragin ditzakete!

- Ez erre inoiz motorraren hobitik hurbil.
- Ez egin inoiz lanik babestu gabe dauden garretatik edo txinpartetatik hurbil.
- 12 volteko sarean lanak egin behar dituzunean, kontuan izan honako hau:
  - Kendu beti 12 volteko bateriari borneak. 12 volteko bateriaren borneak kentzerakoan ziurtatu ibilgailua desblokeatuta dagoela; bestela, lapurreten aurkako alarma aktibatuko da.
  - Ez egin inoiz lanik berogailu, berogailu jarraitu edo babesik gabeko garretatik hurbil.
- Izan eskura beti erabiltzeko moduan eta aztertuta dagoen su-itzalgailu bat.

ⓘ KONTUZ

Likido operatiboak berriro jartzen edo aldatzen dituzunean, ziurtatu likido zuzenak botatzen dituzula betetze-aho zuzenetan. Likido operatibo okerrak erabiltzen badituzu, kalte larriak eragin ditzakezu funtzionamenduan, baita motorra hondatu ere.

Ingurumenari buruzko oharra

Ibilgailutik kanpo erortzen diren likido operatiboek ingurumena kutsatzen dute. Hori dela eta, begiratu erregulartasunez ibilgailuaren azpian. Lurrean likido operatiboen orbanak badaude, joan lantegi espezializatu batera, eta eskatu ibilgailua berrikustea. Likido operatiboren bat ateratzen bada, behar bezala baztertu.

Ibilgailua prestatzea motorraren hobian lanak egiteko

Motorraren hobian lanak egin aurretik, egin beti eragiketa hauek, adierazitako ordenan ››› ⚠:

1. Jarri ibilgailua zoru lau eta irmoan, beharrezko segurtasun-neurriak hartuz.
2. Zapaldu balazta-pedala eta eduki ezazu zapalduta pizgailua deskonektatu arte.
3. Konektatu geratze-balazta elektronikoa.
4. *Eskuzko aldagailua:* jarri aldagailuko palanka loka-puntuan.

   Aldagailu automatikoa: sakatu **P** aparkatze-blokeoaren botoia.
5. Deskonektatu pizgailua ››› **160. orrialdea**.
6. Atera ibilgailutik horren giltza eta gorde ibilgailutik kanpo, errekuntza-motorra martxan ez jartzeko deskuiduan.
7. Itxaron motorra behar adina hoztu arte.
8. Ez utzi inoiz beste pertsona batzuei motorraren hobira hurbiltzen.
9. Ibilgetu ibilgailua, mugitu ez dadin.

⚠ ADI

Zure segurtasunerako, begiratu egiaztatze-zerrenda garrantzitsu hau, bestela, istripu eta lesio larriak gerta daitezkeelako.

- **Jarraitu beti egiaztatze-zerrendako argibideei, eta kontuan hartu beti balio orokorreko segurtasun-neurriak.**

Motorreko kapota ireki eta ixtea



206. irudia Desblokeatze-palanka gidariaren oinazpikoan.

207. irudia Kapotaren azpiko palanka.

Ireki motorraren kapota

Motorraren kapota barrutik desblokeatzen da.

Kapota ireki aurretik, ziurtatu haizetako-garbigailuaren besoak haizetakoaren gainean pausatuta daudela.

- Ireki atea eta tira egin tresnen taularen azpiko palankari ››› **206. irudia** ①.
- Kapota igotzeko, egin presioa ezkerrerantz esku-ahurrarekin beherantz, kapotaren azpian dagoen palankan, erdialdean ››› **207. irudia** ②. Finkatze-kakoak desblokeatzen dira.
- Kapota ireki ahal izango duzu. Askatu sostengu-hagaxka eta sartu kapotan horretarako prestatutako den tokian.

Itxi motorraren kapota

- Igo pixka bat kapota.
- Askatu sostengatze-hagatxoa eta jarri bere tokian pixka bat sakatuz.
- 20 cm inguruko altuera batean, utzi erortzen, blokeatuta gera dadin.

Kapota gaizki itxi bada, ez sakatu. Ireki berriro eta utzi erortzen lehenago azaldu dugun bezala.

⚠ ADI

Ziurtatu kapota ongi itxita dagoela. Ibiltzen ari zaren bitartean irekitzen bada, istripu bat izan dezakezu.

ⓘ KONTUZ

Haizetako-garbigailuaren besoak eta kapota ez kaltetzeko, ireki besoak haizetakoan sostengatuz bakarrik.

Likido eta bitarteko operatiboak

Gaiaren aurkezpena

Likido eta bitarteko guztiak, hala nola motorreko likido hozgarria edo ibilgailuaren bateriak, etengabe garatuz doaz. Hori dela eta, joan tailer espezializatu batera likido edo bitarteko operatiboren bat aldatu behar duzunean.

CUPRA kontzesionarioek unean-unean jasotzen dute edozein aldaketari buruzko informazioa.

⚠ ADI

Likido eta bitarteko operatibo desegokiak edo modu desegokian erabiltzen badira, istripuak, lesioak, erredurak eta intoxikazio larriak gerta daitezke.

- **Gorde likido operatiboak ondo itxitako jatorrizko ontzietan soilik.**
- **Ez gorde inoiz likido operatiboak elikagai-latetan, botiletan edo hutsik dauden beste ontzi batzuetan, norbaitek horiek edan baititzake.**
- **Gorde likido eta bitarteko funtzionalak haurrek eskura ez izateko moduan.**
- **Irakurri eta kontuan izan beti likido operatiboetako ontzietako informazio eta oharrak.**
- **Lurrun kaltegarriak isurtzen dituzten produktuak erabiltzen badituzu, lan egin ezazu beti kanpoaldean edo ongi aireztatutako toki batean.**

ⓘ KONTUZ

Erabili soilik egokiak diren likido operatiboak. Ez nahastu inoiz likido operatiboak. Bestela, akats funtzional larriak izan litezke edo kalteak eragin motorrean!

❀ Ingurumenari buruzko oharra

Erortzen diren likido operatiboek ingurumena kutsatu dezakete. Likido operatiboren bat erortzen bada, jaso ontzi egoki batean eta deuseztatu behar bezala eta ingurumena errespetatuz.

Hozte-sistema

Gaiaren aurkezpena

Egin zuk zeuk lanak motorraren hozte-sistema zer eragiketa egin behar dituzun eta balio orokorra duten segurtasun neurriak ongi ezagutzen badituzu, eta tresna, baliabide eta likido operatiboak baldin badituzu. Lanak modu desegokian egiten badira, lesio larriak gerta daitezke. Beharrezkoa izanez gero, eskatu tailer espezializatu batean lan guztiak egin ditzaten. CUPRAk CUPRA kontzesionario espezializatu batera edo SEAT sareko edozein kontzesionariotara joatea gomendatzen du horretarako.

⚠ ADI

Motorrerako likido hozgarria toxikoa da!

- **Gorde likido hozgarria bakarrik ondo itxitako bere jatorrizko ontzi batean eta leku seguru batean.**
- **Ez gorde inoiz motorraren likido hozgarria elikagai-latetan, botiletan edo hutsik dauden beste ontzi batzuetan, norbaitek hori edan ahal lukeelako.**

- **Gorde likido hozgarria haurrengandik urrun.**
- **Egiaztatu egin beharko da likido hozgarrirako gehigarri-ehunekoa egokia dela ibilgailua erabiliko den lekuan aurreikusitako girotenperatura baxuena kontuan hartuta.**
- **Kanpoko tenperatura oso baxua denean, likido hozgarria izoztu egin daiteke eta ibilgailua ibilgetu. Kasu horretan, berogailuak ere ez luke funtzionatuko eta behar adina arropa ez duten bidaiariak hotzez hil litezke.**

Ingurumenari buruzko oharra

Likido hozgarriak eta horren gehigarriek ingurumena kutsatu dezakete. Likido operatiboren bat erortzen bada, jaso eta deuseztatu behar bezala eta ingurumena errespetatuz.

Likido hozgarriaren zehaztapena

Motorrak fabrikatik dakarren hozte-sistemak honako hauen nahasketa darama: bereziki tratatutako ura likido hozgarrirako G12evo gehigarriaren % 40, gutxienez (TL-VW 774 L).

Informatu zure ibilgailuarentzat egokia den likido hozgarriaren inguruan tailer espezializatu batean. CUPRAk CUPRA kontzesionario espezializatu batera edo SEAT sareko edozein kontzesionariotara joatea gomendatzen du horretarako.

Motorraren hozte-sistema babesteko, gehigarriaren ehunekoak gutxienez % 40koa izan behar du **beti**. Arrazoi klimatikoak direla eta, izotz-aurkako babes handiagoa behar bada, gehigarriaren proportzioa handitu ahal izango da. Hala ere, % 55era arte gehienez, bestela, izotz-aurkako babesa murriztuko litzatekeelako eta, aldi berean, hozte-efektua okertuko litzatekeelako.

G12evo gehigarria (TL-VW 774 L) bere kolore lilagatik identifikatzen da. Ur eta gehigarri nahasketa horrek -25 °C-rainoko (-13 °F) izotz-kontrako babesa eskaintzen du, eta, horrez gain, hozte-sistemako aleazio arineko piezak korrosioaren aurrean babesten ditu, karearen sedimentazioa saihesten du eta likido hozgarriaren irakite-puntua nabarmen handitzen du.

Likido hozgarria ematean **ur destilatuko** nahasketa bat erabili behar da eta, gutxienez, likido hozgarrirako gehigarri egokiaren % 40, korrosioaren kontrako babes ezin hobea lortzeko ››› 348. orrialdea.

ADI

Ibilgailuaren hozte-sistemak izotz-aurkako babes nahikorik ez badu, motorrak huts egin dezake eta, ondorioz, lesio larriak eragin ditzake.

- **Egiaztatu egin beharko da likido hozgarrirako gehigarri-ehunekoa egokia dela ibilgailua erabiliko den lekuan aurreikusitako girotenperatura baxuena kontuan hartuta.**
- **Kanpoko tenperatura oso baxua denean, likido hozgarria izoztu egin daiteke eta ibilgailua ibilgetu. Kasu horretan, berogailuak ere ez luke funtzionatuko eta behar adina arropa ez duten bidaiariak hotzez hil litezke.**

KONTUZ

Ez nahastu inoiz G12evo (TL-VW 774 L) likido hozgarrirako jatorrizko gehigarriak motorraren likido hozgarriekin, CUPRAk baimendu ez baditu.

- **Hedapen-deposituko likidoak kolore arrosarik ez badu (lila koloreko gehigarria ur destilatuarekin nahastearen ondorioz), adibidez, marroia bada, likido hozgarri egokia beste likido ez-egoki batekin nahastu dela esan nahi du. Kasu horretan, berehala aldatu beharko da likido hozgarria. Bestela, akats larriak izan litezke funtzionamenduan edo kalteak motorrean eta hozte-sisteman!**

Ingurumenari buruzko oharra

Motorraren likido hozgarriak eta horren gehigarriek ingurumena kutsatu dezakete. Likido operatiboren bat erortzen bada, jaso eta deuseztatu behar bezala eta ingurumena errespetatuz.

Likido hozgarriaren tanga

✓ Baliogarria ibilgailu hibridoetarako.



208. irudia Motorraren hobia: Likido hozgarriaren tangak

Ibilgailu hibridoetan likido hozgarrirako bi espantsio-andel independente daude.

››› **208. irudia**

① Errekuntza-motorreko likido hozgarrirako espantsio-andela.

② Goi-tentsioko sistemako likido hozgarrirako espantsio-andela. Begiratu **goi-tentsioko sistemako** likido hozgarriaren maila. **Ez ireki!**, zigilatuta dago.

Goi-tentsioko sistemako hozte-sistemaren likido hozgarriaren maila baxuegia bada:

- **Ez ipini likido hozgarri gehiagorik!**
- Jakinarazi berehala tailer espezializatu bati.

Likido hozgarria egiaztatzea eta hornitzea



209. irudia Motorraren aurreko baoan: likido hozgarriaren zabaltze-tangako marka.

210. irudia Aurreko baoa: likido hozgarriaren zabaltze-tangako tapoia.

Aurretiko urratsak

- Aparkatu ibilgailua gainazal horizontal eta tinko batean.
- Itxaron motorra hoztu arte ››› ⚠.
- Ireki aurreko kapota.
- Motorraren likido hozgarriaren zabaltze-tanga estalkiaren gainean dagoen sinboloari ezker ezagutzen da ››› **210. irudia**

Maila egiaztatzea

Ibilgailua entregatzen denean (ibilgailu berrien kasuan), likido hozgarria markatutako eremuaren gainetik egon daiteke. Hori normala da. Ez da likido hozgarria xurgatu behar.

- Motora hotz dagoela, egiaztatu likido hozgarriaren maila espantsio-andelaren alboko marketan ››› **209. irudia**. Likido hozgarriaren mailak marken artean egon behar du.
- Maila gutxieneko markatik (min) behean badago, gehitu likido hozgarria. Motorra bero dagoenean, baliteke likido hozgarriaren mailak goiko marka pixka bat gainditzea.

Likidoa hornitzea

Motorreko likido hozgarriaren maila baxuegia bada, likido hozgarriaren oharpen-argia pizten da. Kasu horretan, eskatu laguntza berehala langile espezializatu bati.

Likido hozgarriaren maila baxuegia bada eta inguruan tailerrik ez badago, kontuan izan hurrengo hau:

- Babestu aurpegia, eskuak eta besoak likido hozgarri edo lurrun beroetatik, trapu egoki bat motorreko likido hozgarriaren zabaltze-tangako taparen gainean jarrita.
- Askatu tapa kontu handiz ››› ⚠.
- Gehitu bakarrik likido hozgarri **berria**, CUPRAren zehaztapenen arabera ››› **347. orrialdea**.
- Gehitu likido hozgarria soilik oraindik likido pixka bat geratzen bada zabaltze-deposituan; bestela, motorra kaltetu liteke! Zabaltze-tangan likido hozgarririk ez baduzu ikusten, **ez jarraitu martxa** eta eskatu langile espezializatuen laguntza.
- Zabaltze-deposituan oraindik likido hozgarri pixka bat geratzen bada, gehitu likido hozgarria deposituaren goiko markaraino eta kontrolatu maila hurrengo egunean. Maila **berriro** jaisten bada, joan tailer batera eta eskatu hozte-sistema egiaztatzeko.
- Likido hozgarriaren mailak zabaltze-tangako marken artean egon beharko du ››› **209. irudia**. **Ez gainditu inoiz markatutako eremuaren goiko ertza** ››› ⚠.
- Itxi ondo tapa.
- Larrialdietan ez baduzu eskatutako zehaztapenak duen motorraren likido hozgarririk, ez erabili likido hozgarrirako beste gehigarririk! Kasu horretan, gehitu **ur destilatua** ››› ⓘ soilik. Ondoren, ahalik eta lasterren eskatu agindutako gehigarria gehitzeko, proportzio egokian. ››› **347. orrialdea**.

⚠ ADI

Motorraren lurrun eta likido hozgarri beroek erredura larriak eragin ditzakete.

- **Ez ireki inoiz aurreko kapota, motorraren hobitik lurruna edo likido hozgarria ateratzen dela ikusten edo entzuten baduzu. Itxaron beti lurruna edo likido hozgarria ateratzen dela ikusteari edo entzuteari utzi arte. Bero dauden piezak ukitzen badituzu, larruazalean erredurak izan ditzakezu.**
- **Aurreko kapota ireki baino lehen, kontuan izan honako hau:**
  - **Konektatu geratze-balazta elektronikoa.**
  - **Mantendu haurrak, beti, aurreko hobitik urrun eta ez utzi hauek gainbegiratzeari.**
- **Motorra bero dagoenean, bere hozte-sistema presiopean dago. Ez ireki espantsiotangako estalkia, likido hozgarri beroa zipriztindu dezake eta erredura larriak eta beste lesio batzuk eragin ditzake.**
  - **Biratu tapa motel, eta kontu handiz, erloju-orratzen kontrako noranzkoan, eta egin aldi berean presio txikia haren gainean.**
  - **Babestu beti likido hozgarritik edo lurrun berotik aurpegia, eskuak eta besoak, zapi handi eta lodi batekin.**

ⓘ KONTUZ

Erabili soilik ur destilatua! Gainerako ur-motek korrosioagatik kalte handiak eragin ditzaketen substantzia kimikoak dituzte. Destilatu gabeko ura gehitu baduzu, eskatu berehala tailer espezializatu bati motorraren hozte-sistemaren likido guztia aldatzeko.

- **Likido hozgarria gehitzean, ez gainditu markatutako eremuaren goiko ertza ››› 209. irudia. Bestela, tenperatura igotzen denean, soberako likidoa motorraren hozte-sistematik kanporatuko da eta kalteak eragin ditzake.**
- **Sistemak likido hozgarri dezente galtzen badu, motorra *erabat hoztu* ondoren birjarri berriro. Likido hozgarriaren galera nabarmena bada, baliteke hozte-sisteman ihesak egotea. Joan berehala tailer espezializatu batera eta eskatu sistema errebisatzea. Bestela, motorra kaltetu egin daiteke!**
- **Ez gehitu likido hozgarririk zabaltze-depositua guztiz hutsik badago! Airea egon liteke hozte-sisteman. Ez jarraitu ibiltzen eta eskatu laguntza espezializatutako langileei. Bestela, motorra kaltetu egin daiteke!**
- **Likido operatiboak berriro jartzen dituzunean, ziurtatu likido zuzenak botatzen dituzula betetze-aho zuzenetan. Likido operatibo okerrak erabiltzen badituzu, kalte larriak eragin ditzakezu funtzionamenduan, baita motorra hondatu ere.**

Freno-likidoa

Egiaztatu eta eman freno-likidoa

211. irudia Motorraren hobia: freno-likidoaren tangaren tapoia.

Freno-likidoaren maila begiratzea

Freno-likidoaren mailak MIN eta MAX marken artean egon behar du.

Freno-likidoaren maila asko jaisten bada denbora gutxian edo MIN markaren azpitik geratzen bada, baliteke freno-sistemak ihesak izatea. Eskatu laguntza espezializatutako langileei. Tresnen koadroko pantailako kontrol-argi batek freno-likidoaren maila ere gainbegiratzen du.

Freno-likidoaren maila

Kontrol-argi gorria pizten da.

Freno-likidoaren maila baxuegia da.

- **Ez jarraitu gidatzen!**
- Egiaztatu freno-likidoaren maila.
- Freno-likidoaren maila baxuegia bada, eskatu laguntza espezializatutako langileei.

Freno-likidoa aldatzea

Freno-likidoaren aldaketa egiteko zerbitzu tekniko batera joatea gomendatzen dizugu.

ADI

Freno-likidoaren maila baxua bada, aproposa ez bada edo zaharkituta badago, balazta-sistemak huts egin dezake edo balaztatzeko potentzia murriztu.

- **Maiztasunez begiratu balazta-sistema eta freno-likidoaren maila nola dauden!**
- **Freno-likidoa zaharkituta dagoela balaztek esfortzu handia jasan behar badute, lurrun burbuilak sortu daitezke. Burbuila horiek balaztatzeko potentzia murrizten dute, ondorioz, balaztatze-distantzia asko luzatzen da eta balazta-sistema guztiz hondatu daiteke.**
- **Ziurtatu freno-likido egokia erabiltzen duzula. Erabili soilik berariaz VW 501 14 araua betetzen duen freno-likidoa.**
- **CUPRAren kontzesionario batean edo SEAten zerbitzu ofizialean eros dezakezu VW 501 14 araua betetzen duen freno-likidoa. Eskuragarri ez badago, erabili soilik DIN ISO 4925 CLASS 4 arauaren edo Ameriketako Estatu Batuetako FMVSS 116 DOT 4 arauaren eskakizunak betetzen dituen kalitate handiko freno-likidoa.**
- **Jartzen den freno-likidoa berria izan behar da.**
- **Freno-likidoa jatorrizko ontzi itxian eta umeen helmenetik kanpo gorde behar da: intoxikazio-arriskua dago!**

KONTUZ

Freno-likidoak ez du ukitu behar ibilgailuaren pintura, urratzailea baita.

Oharra

Freno-likidoak ingurumena kutsatzen du. Bildu isuritako likido operatiboak eta deusezatu era profesionalean.

Beirak garbitzeko likidoaren tanga

Beirak garbitzeko likidoaren tangaren maila begiratu eta betetzea

212. irudia Motorreko hobian: beirak garbitzeko likidoaren tangako tapoi urdina.

Begiratu aldizka beirak garbitzeko uraren tangaren maila eta hornitu, behar denean.

Beirak garbitzeko uraren tangak detergente likidoa du haizetakorako eta atzeko lunetarako.

Beirak garbitzeko likidoaren deposituaren betetze-ahoan bahe bat dago. Tanga betetzean, baheak zikinkeria-partikula handiak atxikitzen ditu, eiektoreetara irits ez daitezen. Ez atera bahea garbitzeko ez bada. Bahea kaltetuta balego edo muntatuta ez balego, zikinkeria-partikula horiek sisteman sar litezke hori betetzean, eta beira-garbigailuen eiektoreak buxatu.

- Ireki motorreko kapota ››› **343. orrialdeko** ⚠.
- Beirak garbitzeko uraren tanga tapoian duen ikurragatik bereizten da.
- Begiratu likido nahikoa dagoen tangan.

Ura ez da nahikoa beirak sakon garbitzeko. Horregatik, urari beirak garbitzeko produktu bat gehitzea gomendatzen dugu beti.

Beirak garbitzeko gomendatua

- Urte-sasoi beroetarako, beira argietarako udako G 052 184 A1 gomendatzen dugu. Garbitzeko uraren tangako nahasketaren proportzioa: 1:100 (kontzentratu 1 zati uraren 100 zatiko).
- Urte osorako, beira garbietarako G 052 164 A2. Neguko nahasketaren gutxi gorabeherako proportzioa, -18°C-raino (0°F): 1:2 (kontzentratu 1 zati uraren 2 zatiko); bestela, 1:4-ko nahasketa-proportzioa garbitzeko uraren tangan.

Beirak garbitzeko likidoaren tangaren edukiera 3 litro ingurukoa (4,5 litro VZ5 bertsioan) da.

KONTUZ

Beirak garbitzeko likidoak ez badu nahikoa izotz-aurkakorik, izoztu egin daiteke haizetakoan eta lunetan, eta aurreko eta atzeko ikuspena mugatu dezake.

- **Neguan, nahikoa izotz-aurkako babesarekin soilik erabili haizetako-garbigailua.**
- **Ez erabili haizetako-garbigailu sistema neguko tenperaturekin, aireztapen-sistemarekin haizetakoa aldez aurretik berotu gabe. Izotz-aurkako babesa izoztu egin liteke haizetakoaren gainean eta ikuspena oztopatuko luke.**

KONTUZ

Ez nahasi izotz-aurkakoak edo antzeko beste gehigarri desegoki batzuk beirak garbitzeko tangaren uretan. Ikuspena kaltetuko lukeen geruza koipetsu bat sor daiteke beira gainean.

- **Erabili ur garbia CUPRAk gomendatutako beirak garbitzeko produktu batekin.**
- **Behar izanez gero, eman beirak garbitzeko tangako urari izotz-aurkako egokia.**

KONTUZ

- **Ez nahasi inoiz CUPRAk gomendatutako detergenteak beste detergente batzuekin. Osagaiak malutatu egin litezke eta beirak garbitzeko difusoreak buxatu.**
- **Inolaz ere ez nahasi likido operatiboak betetze-prozesuan. Akats larriak eragin litzake funtzionamenduan.**
- **Beirak garbitzeko likidorik ez izateak ikuspen-galera eragiten du haizetakoan.**

Motorreko olioa

Oharpen orokorrak



213. irudia Motorraren hobian: motorreko olioaren etiketa



214. irudia Motorraren hobian: motorreko olioaren etiketaren kokalekua

››› **213. irudia**-ren legenda:

Ⓐ Motorreko olioaren arauari buruzko informazioa.

Ⓑ Motorreko olioaren biskositateari buruzko informazioa.

Motorrak fabrikatik darama gradu anitzeko olio berezia, eta urte-sasoi guztietan erabil daiteke.

Kalitate oneko olioa erabiltzea motorrak behar bezala funtzionatzeko eta asko irauteko nahitaezko premisa denez, olioa eman edo aldatu behar denean, VW arauak betetzen dituzten olioak erabili behar dira beti.

Motorreko olioaren etiketa duten ibilgailuetarako

Motorraren olioa sartu behar baduzu, erabili etiketan adierazitako olioetako bat ››› **213. irudia**. Agindutako araua adierazita duen etiketa aurreko aldean dago, motorraren hobian ››› **214. irudia** ①. Gomendatutako motorreko olioa erabiliz gero, behar beste aldiz zuzendu daiteke betetze-maila.

Motorreko olioaren etiketarik gabeko ibilgailuetarako

Joan zaitez tailer espezializatu batera edo SEAT Zerbitzu Ofizial batera, dagokion arauari buruzko informazio eman diezazuten.

Motorreko olioaren maila baxuegia bada

Gomendutako olioa eskuragarri ez badago, **larrialdi batean** baimenduta dago jartzea **behin** honako olio hau, gehienez 0,5 l, hurrengo olio-aldaketara arte:

- *Gasolinazko motorrak:* VW 504 00, ACEA C3, ACEA C4, API SN edo ILSAC GF-6A araua.
- *Diesel motorrak:* VW 507 00, ACEA C3, ACEA C4 edo API CK-4 araua.

CUPRAk gomendatzen du (espezializatutako) tailer batean aldatzea olioa. CUPRAk gomendatzen du CUPRA Zerbitzu espezializatu bat edo SEAT Zerbitzu Ofizial bat.

KONTUZ

CUPRAk gomendatzen du dagokion VW arauaren arabera homologatutako motorreko olioak erabiltzea. Kalitate-baldintza horiek betetzen ez dituzten olioak erabiltzeak kalteak eragin ditzake motorrean.

CUPRAk gomendatzen du SEAT ordezko pieza originaletako motorreko olioak erabiltzea.

Motorreko olioaren gehigarriak

Motorreko olioari ez zaio inolako gehigarririk bota beharko. Bermeak ez ditu estaliko aipatutako gehigarriek eragindako kalteak.

KONTUZ

Larrialdietan bakarrik, salbuespen gisa, 0,5 l motor-olio erabil daiteke, adierazitako motor-olioaren arauetako batekoa.

KONTUZ

Arestian aipatutako arauetan edo zure zerbitzu teknikoak adierazitakoan zehazten den motorreko olioa eta zuk erabilitakoa betetzeko desberdinak badira, kontuan hartu honako hau:

- **Ezin da erabat baztertu motorrari eta partikula-iragazkiari kalteak eragiteko arriskua.**
- **Ibilgailuan zirkulatzen jarrai daiteke, 0,5 l motorreko olio baino gehiago jarri ez bada. Joan ahalik eta lasterren tailer espezializatu batera eta eskatu olioa aldatzea. Bestela, motorrean kalteak gertatzeko arriskua dago.**
- **0,5 l motorreko olio baino gehiago jarri baduzu, zirkulatu motorra karga baxuan duzula eta, gehienez ere, batez besteko biraketa-tartearen barruan. Ez zirkulatu 80 km/h baino gehiagoko abiaduran eta ez egin 300 km (inguru) baino gehiago. Joan ahalik eta lasterren tailer espezializatu batera eta eskatu olioa aldatzea. Bestela, motorrean kalteak gertatzeko arriskua dago.**
- **Ibilgailuan gerta daitezkeen kalteen arriskua (motorra, ihes-sistema) zure erantzukizuna da. Zalantzarik izanez gero, ez abiarazi motorra eta eskatu zerbitzu teknikoaren laguntza.**
- **Motorreko olioarekin bete ez baduzu, beste likido batekin baizik, ez abiarazi motorra. Eskatu zerbitzu teknikoaren laguntza. Motorrean kalteak eragiteko arriskua!**

Oharra

Bidaia luze bat egiten hasi aurretik, VW zehaztapenaren araberako motorreko olioa erostea eta zure ibilgailuan eramatea gomendatzen dizugu. Horrela, motorreko olio egokia izango duzu beti, behar izanez gero eman ahal izateko.

- **Motorreko olioaren zehaztapen duen etiketa falta bada ››› 213. irudia, harremanetan jarri tailer espezializatu batekin.**

Motorreko olio-maila begiratzea eta jartzea



215. irudia Olio-maila neurtzeko hagaxka.

216. irudia Motorreko olioa sartzeko ahoko estalkia, motorraren hobian.

››› 215. irudia-ren legenda:

Ⓐ Ez jarri oliorik inola ere.

Ⓑ Eremu horretan maila mantentzen duen bitartean olioa jar dezakezu.

Ⓒ Olio-maila baxuegia da. Jarri olioa Ⓑ eremuraino.

Motorraren kapota ireki aurretik, horri buruzko ohartarazpenak irakurri eta kontuan hartu beharko dituzu. ››› 343. orrialdea, *Motorraren hobian lanak egitea*.

Begiratu olio-maila

Motorreko olio-maila neurtzeko hagaxkaren bidez kontrolatzen da.

- Aparkatu ibilgailua horizontalean.
- Jarri motorra ranlentian denbora labur batean, zerbitzu-tenperaturan dagoenean eta gelditu.
- Itxaron 2 minutu.
- Bilatu olio-maila neurtzeko hagaxka. Goiko mutur koloredunagatik igarriko duzu.
- Atera olioa neurtzeko hagaxka. Garbitu hagaxka zapi garbi batekin eta sartu berriro hondoraino.
- Ondoren, atera ezazu berriro eta begiratu olio-maila ››› 215. irudia. Behar izanez gero, eman motorreko olioa.

Olioak Ⓐ eta Ⓒ eremuen artean utzi behar du marka. Inoiz ez du gainditu behar Ⓐ eremua.

Gidatzeko estiloaren eta baldintzen arabera, olio-kontsumoa 0,5 litro/1.000 km-ko izan daiteke. Kontsumoa handiagoa izan daiteke lehen 5.000 kilometroetan. Horregatik, motorreko olio-maila maiz kontrolatu behar da (erregaia hornitzean eta bidaia luzeak egin aurretik da onena).

Olioa eman

- Bilatu motorreko olioa sartzeko ahoa. Estalkiaren gainean dagoen sinboloari esker igartzen da ››› 216. irudia.
- Askatu motorreko olioa sartzeko ahoko estalkia ››› 216. irudia.
- Eman olioa kantitate txikitan (gehienez, 0,5 l).
- Olio gehiegirik ez emateko, kopuru bat botatzen duzun bakoitzean, itxaron 2 minutu eta begiratu berriro olioaren maila ››› 354. orrialdea.
- Beharrezkoa bada, eman olio gehiago.
- Olio-maila gutxienez ››› 215. irudia Ⓑ eremura heltzen denean, hariztatu arretaz sartzeko ahoko estalkia ››› ⓘ.

Motorreko olioaren zehaztapena ››› 352. orrialdea.

⚠ ADI

Motorrean edo motorraren hobian egiten diren lanak zuhurtziaz egin behar dira.

- **Motorraren hobian lanak egin aurretik, kontuan izan dagozkion ohartarazpenak** **››› 343. orrialdea**.

⚠ ADI

Olioa produktu sukoia da. Olioa ematean, ez utzi motorreko pieza beroen gainean isurtzen.

ⓘ KONTUZ

Olio-maila Ⓐ eremutik gora badago, ez abiarazi motorra. Kalteak eragin ditzake motorrean eta katalizatzailean. Jakinaren gainean jarri zerbitzu teknikoa.

Ingurumenari buruzko oharra

Olio-mailak ez du inola ere egon behar Ⓐ eremuaren gainetik. Bestela, olioa arnastu ahal izango litzateke birabarkiko karterreko aire-zulotik, eta atmosferara iritsi ihes-sistemaren bidez.

Oharra

Bidaia luze bat egiten hasi aurretik, VW zehaztapenaren araberako motorreko olioa erostea eta zure ibilgailuan eramatea gomendatzen dizugu. Horrela, motorreko olio egokia izango duzu beti, behar izanez gero eman ahal izateko.

Motorreko olioa aldatzea

Olio-aldaketa egiteko zerbitzu tekniko batera joatea gomendatzen dizugu.

⚠ ADI

Motorreko olio-aldaketa zeure kasa egin ahal izateko, behar diren ezagutzak izan behar dituzu.

- **Motorraren kapota ireki aurretik, dagozkion ohartarazpenak irakurri eta kontuan hartu beharko dituzu** ››› **343. orrialdea.**
- **Lehenbizi, utzi motorra hozten. Olio beroak erredurak eragin ditzake.**
- **Erabili betaurreko babesleak, olio-ziprizti-nek zauri kaustikoak eragin ditzakete eta.**
- **Olioa husteko torlojua hatzekin askatzen duzunean, eduki besoak horizontalean olioa ez isurtzeko.**
- **Ondo garbitu olioarekin kontaktuan egon diren gorputz-zatiak.**
- **Olioa toxikoa da. Eduki olio erabilia haurren helmenetik kanpo.**

ⓘ KONTUZ

Ez gehitu lubrifikatzaile gehigarririk motorreko olioari. Motorra kaltetu egin dezake. Gisa horretako produktuak erabiltzeagatik sortutako edozein kalte bermetik kanpo geratuko da.

Ingurumenari buruzko oharra

- **Gomendatzen dugu zerbitzu tekniko batean aldatzea motorreko olioa eta iragazkia.**
- **Olioa ez da inolaz ere estolderian edo ingurumenean isuri behar.**
- **Aldaketa egitean erabilitako olioa jasotzeko, erabili zure motorreko olio guztia hartzeko moduko tanga bat.**

Arazoak konpontzea

Motorreko olioaren presioa baxuegia

Kontrol-argi gorria pizten da.

Ez jarraitu gidatzen! Itzali motorra. Motorreko olio-maila egiaztatu.

- kontrol-argiak dir-dir egiten badu eta, aldi berean, **hiru oharpen-seinale** entzuten badira, gelditu motorra eta begiratu olioaren maila. Behar izanez gero, gehitu olioa ››› **353. orrialdea**.
- kontrol-argiak dir-dir egiten badu, nahiz eta olioaren maila egokia izan, **ez jarraitu gidatzen**. Ez utzi motorra martxan, ezta ralentian ere. Eskatu profesional baten laguntza.

Motorreko olioaren maila baxuegia

Kontrol-argi horia pizten da.

- Begiratu olioaren maila lehenbailehen ››› **353. orrialdea**.
- Ipini olioa aukera duzun bezain laster.

Matxura olioaren maila-sentsorean

Kontrol-argi horiak dir-dir egiten du.

- Joan tailer espezializatu batera aztertzera.
- Ordura arte eta segurtasun-arrazoiak medio, olio-maila begiratu beharko da hornitu behar den bakoitzean.

12 volteko bateria

Gaiaren aurkezpena

12 volteko bateria motorraren hobian edo maletategian (PHEV ibilgailu hibridoak) dago. 12 volteko bateria aztertzen da, eta, behar izanez gero, ordezkatu egiten da mantentze-lan gisan. .

Bateriekin lanak egiteko, profesional baten ezagutzak behar dira. Bateriarekin zerikusia duten gaietarako, CUPRA Zerbitzu espezializatu batera, SEAT Zerbitzu Ofizial batera edo tailer espezializatu batera joatea eskatzen dizugu: zure burua erretzeko eta bateriak eztanda egiteko arriskua dago!

Bateria ez da ireki behar! Ez saiatu bateriaren likido-maila aldatzen. Hori eginez gero, gas detonatzailea ateratzen da eta leherketa-arriskua dago.

Baterien abisu-argibideak

Erabili betaurreko babesgarriak.

Bateriaren elektrolitoa oso korrosiboa da. Erabili eskularru eta betaurreko babesgarriak. Elektrolito-zipriztinik egonez gero, ur ugarirekin garbitu.

Debekatuta dago sua piztea, txinpartak sortzea, babestu gabeko garra erabiltzea edo erretzea.

Bateria ondo aireztatutako barrunbeetan soilik kargatu. Leherketa-arriskua dago.

Umeak azidotik eta bateriatik urrun eduki.

Kontuan izan beti jarraibideen eskuliburua.

Zer gertatzen da ibilgailua luzaroan geldirik egoten denean?

Motorra geldirik dagoela korronte-kontsumoa zaintzeko sistema bat du ibilgailuak, denboratarte luzeetarako ››› 360. orrialdea. Baliteke funtzioren bat aldi baterako desgaituta geratzea, bateria deskarga ez dadin, esaterako, barruko argiena edo ateak agintearekin irekitzekoa. Funtzio horiek berriro erabilgarri egongo dira pizgailua konektatu eta motorra abiarazi bezain laster.

ADI

12 volteko baterian eta sistema elektrikoan lanak egiteak erredura larriak, suteak eta deskarga elektrikoak eragin ditzake. Baterian lanak egin aurretik, irakurri eta kontuan hartu beti hurrengo oharpen eta segurtasun-neurri hauek:

- **12 volteko baterian lanak egin aurretik, deskonektatu pizgailua eta kontsumitzaile elektriko guztiak, eta askatu bateriaren kable negatiboa.**
- **Haurrek 12 volteko bateriaren elektrolitotik urrun egon behar dute beti.**
- **Erabili beti begi-babesa eta babeserako eskularruak.**
- **Bateriaren elektrolitoa oso agresiboa da. Azalean erredurak eragin ditzake, baita itsutasuna ere. 12 volteko bateria manipulatzean, babestu batez ere eskuak, besoak eta aurpegia elektrolito-zipriztinetatik**
- **Ez erre lanak egiten dituzun bitartean, eta ez erre inoiz, gertu babesik gabeko sugarrak edo txinpartak badaude.**
- **Ez dadila txinpartarik sortu deskarga elektrostatikoengatik, ezta kable eta gailu elektrikoak manipulatzean ere.**
- **Sekula ez eragin zirkuitulaburrik bateriaren poloetan.**
- **Sekula ez erabili hondatuta dauden 12 volteko bateriak. Lehertu egin daitezke. 12 volteko bateria hondatuta badago, aldatu berehala.**
- **Sekula ez erabili hoztuta dagoen 12 volteko bateriarik. Deskargatutako bateria 0 °C (+32 °F) inguruko tenperaturetan izoztu daiteke. 12 volteko bateria izoztuta badago, aldatu berehala.**

KONTUZ

Ez jarri 12 volteko bateria eguzkiargitan luzaroan.

- **Izpi ultramoreek bateriaren karkasa honda dezakete.**

KONTUZ

Denbora luzean ibilgailua erabili behar ez baduzu, babestu 12 volteko bateria izozteetatik.

- **Bateria izoztu egin daiteke eta, ondorioz, kalte konponezina egin.**

Oharra

Motorra guztiz deskargatutako edo aldatu berri den 12 volteko bateriarekin martxan jarri ondoren edo abio-laguntza erabili ondoren, baliteke sistemaren doikuntza batzuk (ordua, data, erosotasun-doikuntza pertsonalizatuak eta programazioak) desdoitu edo ezabatu izana. Egiaztatu eta zuzendu desdoitze horiek bateria nahiko kargatu ondoren.

Oharra

Neguan, abio-potentzia murriztu egin daiteke, eta, behar izanez gero, bateriaren karga bat gomendatzen da.

Elektrolito-maila egiaztatzea

217. irudia Ibilgailu hibridoak (PHEV): bateriaren kokapena maletategian

218. irudia 12 volteko bateriaren goialdeko behatxuloa (irudikapen eskematikoa).

12 volteko bateriara iristea

12 volteko bateria motorraren konpartimentuan (ibilgailu arruntak) edo maletategiko zoruaren azpian (PHEV ibilgailu hibridoak) dago.

Erabilgarri ibilgailu arruntetarako:

- Ireki motorreko kapota ››› **343. orrialdeko** ⚠ (***Motorraren hobian lanak egitea***).
- Altxatu bateriaren aurrealdea babesten duen estalkia.

Erabilgarri ibilgailu hibridoetarako (PHEV):

- Ireki maletategia.
- Altxatu maletategiko zorua ››› **303. orrialdea**,12 volteko bateriako estalkira heldu ahal izateko ››› **218. irudia**.
- Estalkia irekitzeko eta ixteko, erreminta egokia erabili behar da.

Erabilgarri VZ5 bertsiorako: 12 volteko bateria maletategiko zolaren azpian dago.

Maila egiaztatzea

Elektrolito-maila maiz kontrolatu behar da klima epeleko herrialdeetan eta, bateria zaharren kasuan, batez besteko kilometrajea handia denean.

- Egiaztatu miraren kolore-adierazlea, bateriako goialdean ››› **218. irudia**.
- Miran burbuilak eratzen badira, eman kolpe txiki batzuk hatz-koskorrekin, desagertu arte.

Miraren adierazleak (“begi magikoa”) kolorea aldatuko du bateriaren kargaren edo elektrolito-mailaren arabera.

Bi kolore bereizten dira:

Hori argia edo koloregabea: Bateriaren elektrolito-maila baxuegia da. Joan zaitez tailer espezializatu batera, eskatu bateria berrikusteko eta, behar izanez gero, hori ordezteko.

Beltza: Bateriaren elektrolito-maila egokia da.

12 bolteko bateria kargatzea, aldatzea eta horri borneak kentzea edo jartzea

12 volteko bateria kaltetuta edo akastun dagoela susmatzen baduzu, joan zaitez behar bezala kualifikatutako tailer espezializatu batera eta eskatu bateria berrikusteko.

12 volteko bateria kargatzea

12 volteko bateria kargatzeko, joan zaitez tailer espezializatu batera, ibilgailuaren fabrikako bateria-modeloak tentsio mugatuko karga eskatzen duen teknologia erabiltzen baitu ››› ⚠. CUPRAk CUPRA kontzesionario espezializatu batera edo SEAT sareko edozein kontzesionariotara joatea gomendatzen du horretarako.

12 volteko bateria aldatzea

12 volteko bateria kokapenaren arabera diseinatu da eta segurtasun-elementuak ditu. 12 volteko bateria bat ordezkatu behar bada, teknikari kualifikatu batek instalatu behar du ordezko bateria. CUPRAk CUPRA kontzesionario batera joatea gomendatzen du. Izan beharreko tamainari eta mantentze-lanen, potentziaren eta segurtasunaren ezaugarriei buruzko informazioa Teknikari kualifikatu bati eska dakioke, eta teknikariak beharrezko dokumentazioa eta ekipo teknikoak eduki behar ditu. CUPRAk CUPRA kontzesionario espezializatu batera edo SEAT sareko edozein kontzesionariotara joatea gomendatzen du.

12 volteko bateriaren gasgabetzeko zuloak beti polo negatiboaren aldean egon behar du. Polo positiboaren aldeko gasgabetzeko zuloak itxita egon behar du beti.

Erabili soilik mantentze-lanik gabeko 12 volteko bateriak, TL 825 06 eta VW 7 50 73 arauak betetzen dituztenak. Arau horiek 2014ko urrikoak edo geroagokoa izan behar dute.

12 volteko bateria teknikari kualifikatu batek ordezkatu behar du beti, ibilgailuaren sistema elektronikoa ere egokitu behar baita ordezkapenaren esparruan. Horrez gain, funtzionamenduaren segurtasunari buruzko bateriaren parametroak bateria originalarekin zehaztu daitezke soilik. Teknikari kualifikatu batek bakarrik ditu doikuntza egiteko teknologia egokia eta ordezko bateria zuzenak.

Bateria desegokiak erabiltzeak homologazioa deuseztatzen du.

Start-Stop funtzionamendua duten ibilgailuek (››› **169. orrialdea**) bateria berezi bat daukate. Horregatik, zehaztapen berak dituen beste bateria bat soilik jarri beharko duzu lehengo bateriaren ordez.

12 volteko bateriari borneak kentzea

Ibilgailuaren sistema elektrikoko 12 volteko bateriari borneak kendu behar badizkiozu, kontuan izan honako hau:

- Deskonektatu kontsumitzaile elektriko guztiak.
- Bateriari borneak kendu aurretik, desblokeatu ibilgailua, bestela alarma abian jarriko da.
- Kendu aurrena kable negatiboaren bornea eta ondoren positiboarena ››› ⚠.

12 volteko bateriari borneak jartzea

- Deskonektatu elektrizitatea kontsumitzen duten gailu guztiak, 12 volteko bateriari berriz borneak ipini aurretik.
- Lotu aurrena kable positiboaren bornea eta ondoren negatiboarena ››› ⚠.

12 volteko bateriari borneak jarri eta pizgailua konektatu ondoren, hainbat kontrol-argi piztu daitezke. Argi horiek itzali egiten dira ibilbide laburra egin ondoren, gutxi gorabehera 15 eta 20 km/h (10 eta 12 mph) arteko abiaduran. Argiak itzaltzen ez badira, joan lantegi espezializatu batera, eta eskatu ibilgailua berrikustea.

12 volteko bateria denbora luzez bornerik gabe egon bada, litekeena da hurrengo zerbitzua noiz egin behar den behar bezala ez adieraztea edo ez kalkulatzea ››› **17. orrialdea** . Kasu horretan, baimendutako gehieneko mantentze-tarteak hartu beharko dira kontuan ››› **381. orrialdea**.

“Keyless Access” ixte-sistema eta giltzarik gabeko abio-sistema duten ibilgailuak ››› **94. orrialdea**: 12 volteko bateriari borneak jarri ondoren pizgailua konektatu ezin bada, blokeatu eta desblokeatu ibilgailua kanpotik. Ondoren, saiatu berriro pizgailua konektatzen. Pizgailua konektatzen ez bada, eskatu laguntza espezializatutako langileei.

⚠ ADI

12 volteko bateria modu desegokian finkatzen bada edo bateria desegokiak erabiltzen badira, zirkuitulaburrak, sua eta lesio larriak gerta daitezke.

- **Erabili soilik mantentze-lanik gabeko eta isurien aurkako sistema duten 12 volteko bateriak, fabrikako bateria muntatuaren propietate, zehaztapen eta neurri berak dituztenak.**

⚠ ADI

12 volteko bateria kargatzean, gas detonatzaileen nahasketa oso leherkorra gertatzen da.

- **Kargatu 12 volteko bateria ondo aireztatutako tokietan soilik.**
- **Sekula ez kargatu hoztuta dagoen edo desizoztu den 12 volteko bateriarik. Bateria deskargatuta dagoenean, 0 °C (+32 °F) inguruko tenperaturetan ere izoztu daiteke.**
- **12 volteko bateria izoztu bada, eskatu hori aldatzeko.**
- **Poloetako kableei bornea gaizki jarri bazaie, zirkuitulabur bat gerta daiteke. Lehenik, kable positiboaren bornea jartzen da eta ondoren negatiboarena.**

KONTUZ

- **Ez jarri edo ez kendu borneak inoiz 12 volteko bateriari pizgailua konektatuta edo motorra martxan dagoenean. Era berean, ez erabili inoiz ibilgailuaren zehaztasunak ez dituen 12 volteko bateriarik. Sistema elektrikoa edo osagai elektroniko jakin batzuk kaltetu daitezke eta funtzio elektrikoetan matxurak gerta daitezke.**
- **Ez konektatu 12 volteko korronte-hargunera edo pizgailura korrontea ematen duten osagai elektrikorik, hala nola eguzki-panelak edo bateria kargagailuak, 12 volteko bateria kargatzeko. Bestela, ibilgailuaren sistema elektrikoa kaltetu daiteke.**

Ingurumenari buruzko oharra

- **Bateriak substantzia toxikoak eduki ditzake, esate baterako azido sulfurikoa eta beruna. Baztertu 12 volteko bateria, indarrean dauden xedapenen arabera.**
- **Elektrolitoak ingurumena kutsa dezake. Likido operatiboren bat ateratzen bada, jaso eta bota behar bezala.**

Arazoak konpontzea

Matxura alternadorean

Erabilgarri soilik ibilgailu arruntetarako.

Kontrol-argi **GORRIA** pizten da.

Ibilgailuko bateriak kargatzeari uzten dio alternadoretik. Zoaz lehenbailehen tailer espezializatu hurbilenera.

Bateria, pixkanaka-pixkanaka, deskargatzen ari denez, deskonektatu ezinbestekoak ez diren gailu elektriko guztiak.

Batería de 12 voltios

Kontrol-argi **GORRIA** pizten da. Honako mezu hauek agertu daitezke:

`Error: no se carga la batería de 12 V. ¡Pare el vehículo de forma segura!`

`Error: alimentación 12V. ¡Deténgase de forma segura! ¡Manual!`

Ez jarraitu gidatzen! Posible eta seguru denean, geldiarazi ibilgailua. 12 volteko bateria ez da kargatuko martxan dagoen bitartean, edo matxura bat dago 12 volteko ibilgailuaren barruko sarean.

- Deskonektatu pizgailua eta beharrezkoak ez diren kontsumitzaile elektrikoak.
- Jakinaren gainean jarri tailer espezializatu bat.
- Eskatu sistema elektrikoa berrikusteko.

Batería de 12 voltios

Kontrol-argi **HORIA** piztuko da. Hurrengo mezu hau agertzen da:

Error: batería de 12 V. Imposible arrancar el motor. Acuda al taller.

Matxura dago barruko sarearen eta 12 volteko bateriaren arteko konexioan.

Egoera horretan propultsio-sistema deskonektatzen bada, ezin izango da berriro konektatu. Beharrezkoa bada, erabili abio-sistemaren laguntza ››› 332. orrialdea edo eskatu laguntza langile espezialitatuei.

- Joan tailer espezializatu batera.
- Eskatu sistema elektrikoa berrikusteko.

Batería de 12 voltios

Kontrol-argi **HORIA** piztuko da. Hurrengo mezu hau agertzen da:

Nivel bajo de la batería de 12 V. Cargue circulando

Martxan jartzeko gaitasuna mugatuta egon daiteke. Gidariarentzako oharpen hori denbora-tarte baten ondoren itzaltzen bada, ibilgailuaren bateria berriro kargatu da martxan zehar, eta behar adinako mailara iritsi da. Gidariarentzako oharpena desagertzen ez bada, jo tailer espezializatu batera.

Batería de 12 voltios

Kontrol-argi **HORIA** piztuko da. Hurrengo mezu hau agertzen da:

Sustituya la batería de 12 V. Acuda al taller

12 volteko bateria bizitza baliagarriaren amaierara ia iritsi da. .

- Joan tailer espezializatu batera.
- Eskatu 12 volteko bateria berrikusteko eta, behar izanez gero, ordezkatzeko ››› 357. orrialdea.

Batería de 12 voltios

Kontrol-argi **HORIA** piztuko da. Hurrengo mezu hau agertzen da:

Error: La alimentación de 12V está limitada en estos momentos.

12 volteko energia-hornidura mugatua da, adibidez, 12V-ko bateria deskargatuta dagoelako edo errendimendu osoan ez dabilelako, kanpoko tenperatura oso hotzetan, esaterako. 12 volteko bateria karga daiteke martxan zehar. Ohartarazpena desagertu arte, kontuz gidatu behar duzu.

Error: Alimentación de 12V. Acuda al taller

12 volteko energia-hornikuntzan akats bat dago.

- Joan tailer espezializatu batera.
- Eskatu sistema elektrikoa berrikustea.

Energiaren kudeaketa

Abiarazteko gaitasuna optimizatzea

Energiaren kudeaketak energiaren banaketa elektrikoa kontrolatzen du, motorra abiarazterakoan beti energia elektriko nahikoa egon dadin.

Zure ibilgailuak energia-sistema konbentzionala badu, eta denbora luzez geldirik badago, gailu elektrikoek (adibidez, martxaren blokeatze elektronikoa) bateria deskargatuko dute. Horren ondorioz, zenbait inguruabarretan, motorra abiarazteko energia elektriko nahikoa ez egotea gerta daiteke.

Zure ibilgailuan, energia kudeatzeko sistema adimendu bat arduratuko da energia elektrikoa banatzeaz. Horrela, abiarazteko gaitasuna eta bateriaren balio-bizitza nabarmen hobetuko da.

Funtsean, energia kudeatzeko sistema **bateriaren diagnostiko-funtzio batek**, **pausaguneko korrontea kudeatzeko sistema batek** eta **energia kudeatzeko sistema dinamiko batek** osatzen dute.

Bateriaren diagnostikoa

Bateriaren diagnostikoak haren egoera etengabe zehazten du. Hainbat sentsore tentsioa, korrontea eta bateriaren tenperatura zehaz-

teaz arduratzen dira. Horren arabera, bateriaren karga-maila eta eraginkortasun-maila zehazten dira.

Korrontea kudeatzeko sistema geldirik dagoenean

Geldirik dagoenean korrontea kudeatzeko sistemak energiaren kontsumoa murrizten du ibilgailua geldirik dagoen bitartean. Pizgailua deskonektatua izanik, energiaren elikadura kudeatzen du gailu elektrikoetarantz. Hura egitean, bateriaren diagnostikoaren datuak kontuan hartzen ditu.

Bateriaren karga-mailaren arabera, deskonektatu banaka gailu elektrikoak bateria gehiegi ez deskargatzeko eta abiarazteko gaitasuna mantendu ahal izateko.

Energia kudeatzeko sistema dinamikoa

Martxan sortutako energia kudeatzeko sistema dinamikoaren bidez banatzen da gailu elektrikoetara, horiek duten energia-premiaren arabera. Horrez gain, sortzen den baino energia gehiago ez kontsumitzeaz arduratzen da; hartara, bateriaren karga-maila hoberena ziurta dezake.

Oharra

- **Energia kudeatzeko sistemak ezin ditu lege fisikoek ezarritako mugak ezabatu. Eskatzen dizugu, arren, kontuan hartzea bateriaren gaitasuna eta balio-bizitza mugatuak direla.**
- **Ibilgailua martxan ez jartzeko arriskua dagoenean, alternadoreko akats elektrikoaren kontrol-argia edo bateriaren karga-maila baxua erakutsiko da** ››› **359. orrialdea.**

Bateria deskargatzea

Abiarazteko gaitasuna mantentzeak du lehentasuna. Bateriak egin behar duen esfortzua askoz handiagoa da ibilbide motzetan, hirian zehar gidatzen denean eta urteko garai hotzean.

Horrelako egoeretan, energia asko behar da, baina oso gutxi sortzen da. Motorra geldirik badago baina aldi berean gailu elektrikoak aktibo baldin badaude, bateria puntu kritiko bateraino deskarga daiteke. Kasu horretan, energia kontsumitzen da aldi berean batere sortu gabe.

Horrelako egoeretan konturatuko zara energia erregulatzeko sistemak energiaren banaketa aktiboa doitzen duela.

Denbora luzez geldirik dagoen ibilgailua

Ez baduzu ibilgailua egunez edo astebetez gidatzen, doikuntza bat egingo da kontsumoa murrizteko edo gailu elektrikoak banaka deskonektatuz joango dira. Horrela, energiaren kontsumoa murrizten da eta abiarazteko gaitasuna denbora luzeagoz mantentzen da. Gerta liteke erosotasuneko zenbait funtzio (adibidez, ibilgailua urrutitik irekitzea) erabilgarri ez egotea zenbait inguruabarretan. Erosotasun-funtzioak erabilgarri egongo dira berriz pizgailua konektatzen eta motorra abiarazten duzunean.

Motorra geldirik dagoenean

Adibidez, irratia entzuten baduzu motorra geldirik dagoenean, bateria deskargatuko da.

Energia-kontsumoak motorra martxan jartzea arriskuan jartzen badu, gidariarentzako informazio-sistema duten ibilgailuetan, testu bat erakutsiko da.

Gidariarentzako argibide horrek adierazten du motorra abiarazi beharko dela bateria kargatzeko.

Motorra martxan dagoela

Bateria deskarga daiteke martxan dagoenen energia sortzen bada ere. Hori gertatzen da batez ere energia gutxi sortzen bada baina asko kontsumitzen bada bateriaren karga-maila hoberena ez den une batean.

Energia-maila berriz orekatu ahal izateko, behin-behineko doikuntza bat egingo da energia gehiago kontsumitzen duten gailuetan, edo desaktibatu egingo dira. Berokuntza-sistemek, bereziki energia asko kontsumitzen dute. Konturatzen bazara, esate baterako, eserlekuaren berogailuak edo luneta termikoarenak ez dutela berotzen, horrek esan nahi du horien be-

hin-behineko doikuntza bat egin zela edo desaktibatu zirela. Sistema horiek berriz erabil daitezke energiaren maila orekatu denean.

Horrez gain, beharrezkoa izanez gero, bira-erregimena zertxobait handitu ahal izango duzu ralentian. Hala ere, hori normala da eta ez duzu horretaz kezkatu behar. Bira-erregimena ralentian handitu ondoren, energiaren osagarrizko eskaera sortzen da eta bateria kargatu egingo da.

Gurpilak eta pneumatikoak

Gurpilen eta pneumatikoen inguruko informazio garrantzitsua

Oharpen orokorrak

- Zure ibilgailuak **pneumatiko berriak** baditu, zuhurtzia handiz gidatu lehen 600 km-etan.
- Zintarri edo antzekoetara igo behar baduzu, poliki igo eta, ahal izanez gero, gurpilak oztopoarekiko perpendikular daudela.
- Aldian behin, begiratu pneumatikoak hondatuta dauden (zulatuak, ebakiak, zartatuak edo mailatuak). Kendu pneumatikoaren profilean dagoen objektu arrotz oro.
- Gurpil edo pneumatiko hondatuak berehala aldatu behar dira.
- Ahal izanez gero, pneumatikoak ez zikindu oliotan, koipetan edo erregaitan.
- Balbulen txano estalgarriren bat galdu bada, jarri beste bat lehenbailehen.
- Markatu gurpilak desmuntatu baino lehen, berriro muntatzean biraketa-noranzko bera izan dezaten.
- Gorde desmuntatutako gurpilak edo pneumatikoak leku fresko, lehor eta, ahal izanez gero, ilunean.

Profil baxuko pneumatikoak

Profil baxuko pneumatikoek errodadura-banda zabalagoa, hagunaren diametro handiagoa eta pneumatikoaren hegalaren altuera txikiagoa dituzte. Beraz, martxan, arinago jokatuko du.

Profil baxuko pneumatikoak estandarrak baino bizkorrago hondatu daitezke, esaterako, kolpe handiengatik, zuloengatik, estolda-tapengatik eta zintarri-ertzengatik. Pneumatikoaren presio zuzena oso garrantzitsua da ››› 365. orrialdea.

Pneumatiko eta hagunetan kalterik ez izateko, kontu handiz gidatu egoera txarrean dauden errepideetan.

Begiratu gurpilak 3.000 km-z behin.

Pneumatikoek edo hagunek kolpe handiren bat hartu badute edo kalteak jasan badituzte, joan tailer espezializatu batera, pneumatikoa aldatu behar ote duzun azter dezaten.

Profil baxuko pneumatikoak estandarrak baino lehen higa daitezke.

Ikusten ez diren kalteak

Sarritan, pneumatikoetan eta hagunetan izaten diren kalteak ez dira ikusten lehen begiratuan. Ibilgailuak ez-ohiko moduan **bibratzen badu** edo **alde batera joateko joera badu**, pneumatikoak narriatuta egon daitezke. Gurpil bat zulatu dela susmatzen baduzu, gutxitu lehenbailehen abiadura. Begiratu pneumatikoak kaltetuta dauden. Pneumatikoaren kanpoaldean ez bada kalterik ikusten, jarraitu astiro eta zuhurtziaz gidatzen hurrengo tailer espezializaturaino, han ibilgailua azter dezaten.

Objektu arrotzak txertatuta pneumatikoan

- Ez kendu objektu arrotzak objektuak barruraino iritsi badira pneumatikoa zeharkatuz!
- Ibilgailuak zuloak konpontzeko kita badauka, hala dagokionean, zigilatu hondatutako gurpila ››› 377. orrialdea atalean adierazten den bezala. Joan espezializatutako tailer batera konpontzera edo berri bat jartzera. CUPRAk CUPRA kontzesionario espezializatu batera edo SEAT sareko edozein kontzesionariotara joatea gomendatzen du horretarako.

Pneumatikoaren errodadura-bandaren barnealdeko masillak sartutako objektu arrotza biltzen du eta pneumatikoa zigilatzen du behin-behinean.

Norabide bakarreko errodadura duten pneumatikoak

Norabide bakarreko errodadura duten pneumatikoen alboetan, geziak daude markatuta. Nahitaezko biraketa-noranzkoa izan behar da kontuan gurpilak muntatzerakoan. Horrela, ahalik eta hobekien bermatzen da pneumatikoaren ezaugarrien aprobetxamendu optimoa, aquaplaningari, itsaspenari, zaratei eta higadurari dagozkienez.

Osagarrien ondoren muntatzea

Gurpilak, hagunak edo gurpil-edergarriak aldatu edo berriro hornitu nahi badituzu, CUPRA Zerbitzu espezializatu batera edo SEAT Zerbitzu Ofizial batera joatea gomendatzen dizugu. Han emango dizkizute dauden aukera teknikoei buruzko aholkuak.

Abiadura-oharrak

Abiadura-siglak pneumatikoetarako onartutako gehieneko abiadura adierazten du.

P gehienez 150 km/h (93 mph)

Q gehienez 160 km/h (99 mph)

R gehienez 170 km/h (106 mph)

S gehienez 180 km/h (112 mph)

T gehienez 190 km/h (118 mph)

U gehienez 200 km/h (124 mph)

H gehienez 210 km/h (130 mph)

V gehienez 240 km/h (149 mph)

Z 240 km/h (149 mph) baino gehiago

W gehienez 270 km/h (168 mph)

Y gehienez 300 km/h (186 mph)

⚠ ADI

- **Pneumatiko berriak ez dira iristen itsaspen-gradu optimora lehen 600 km-ak egin arte. Hori dela eta, arretaz gidatzea aholkatzen da, istripurik ez izateko.**
- **Ez gidatu inoiz hondatutako pneumatikoekin. Istripu-arriskua dago.**
- **Ibilgailuak ibiltzen ari den bitartean ezohiko moduan bibratzen badu edo alde batera joateko joera badu, gelditu berehala eta egiaztatu pneumatikoen egoera.**
- **Ez erabili pneumatikoak aurretik nola erabili diren ez badakizu.**

Gurpil eta pneumatiko berriak

Zure ibilgailua tailer espezializatu batera eramatea gomendatzen dizugu gurpilen edo pneumatikoen inguruko lan guztiak egiteko. Han, beharrezko ezagutzak dituzte, eta tresna bereziak eta dagozkien ordezko piezak.

- Neguko pneumatikoek ere itsaspena galtzen dute izotzarekin. Pneumatiko berriak jarri badituzu, joan kontu handiz lehen 600 km-an eta neurrizko abiadurarekin.
- 4 gurpiletan, mota eta tamaina (gurpilaren perimetroa) bereko pneumatikoak erabili behar dira beti eta, ahal izanez gero, marrazkia dutenak.
- Pneumatikoak aldatzean, ez aldatu bat bakarrik; gutxienez, ardatz bereko biak aldatu.
- Zure ibilgailua fabrikakoa ez den beste pneumatiko eta hagun batzuekin hornitu nahi baduzu, erosi aurretik, informa zaitez zure tailer espezializatuan ››› ⚠

Zure ibilgailuan erabili beharreko gurpil eta pneumatiko konbinazioen neurriak ibilgailuaren dokumentu gehigarrian zehaztuta daude (esaterako, CEE edo COC adostasun-ziurtagiria[1]). Ibilgailuaren dokumentazio osagarriak herrialdearen berariazkoak dira.

Ordezko gurpilak eta gurpil arruntak desberdinak badira (adibidez, neguko pneumatikoen edo bereziki zabalak diren pneumatikoen kasuan), denbora-tarte labur batean erabili beharko dira, zulatuz gero, eta lasai gidatu beharko da. Ahal bezain laster ordeztu beharko da gurpil normalarekin.

Trakzio osoa duten ibilgailuek, 4 gurpiletan, marka, mota eta marrazki bereko pneumatikoekin hornituta joan behar dute, trakzio-sistema gurpilen bira kopuruaren desberdintasunarengatik ez kaltetzeko. Horregatik, zulatzen bada, ordezko gurpil bat bakarrik erabili behar da, pneumatiko arrunten perimetro berarekin.

[1] COC = *certificate of conformity.*

Fabrikazio-data

Fabrikazio-data pneumatikoaren alboan adierazita dago (agian gurpilaren kanpoaldean soilik):

DOT ... 2220 ...

esaterako, pneumatikoa 2020. urteko 22. astean fabrikatu zela esan nahi du.

ADI

- **Erabili pneumatiko eta hagunen konbinazioak bakarrik, baita CUPRAk homologatutako gurpil-torloju egokiak ere. Bestela, kalteak sor daitezke ibilgailuan, eta istripu bat gerta daiteke.**
- **Arrazoi teknikoak direla-eta, ezin dira beste ibilgailu batzuen gurpilak erabili. Zenbait kasutan, ez eta ibilgailu modelo bereko gurpilak ere.**
- **Ziurtatu zuk aukeratutako pneumatikoek behar den igarobidea dutela. Ordezko pneumatikoak ez dira hautatu behar tamaina nominalarengatik soilik, tamaina bera izan arren nabarmen aldatu daitezkeelako fabrikatzailearen arabera. Lasaiera-faltak pneumatikoak edo ibilgailua narriatu ditzake, eta horren ondorioz, bide-segurtasuna arriskuan jarri. Istripu-arriskua!**
- **Erabili 6 urte baino gehiago dituzten pneumatikoak larrialdi kasuan bakarrik, eta behar bezalako zuhurtasunez gidatuz.**
- **Zure ibilgailuan ezin dituzu jarri larrialdiko errodadura-propietateak dituzten pneumatikoak! Erabilera onartezinak kalteak eragin ditzake zure ibilgailuan, edo istripuak eragin.**
- **Abatz-estalki edergarriak muntatzen badituzu, ziurtatu nahikoa airea igarotzen dela balazta-sistema hozteko. Istripu-arriskua!**
- **Hagun aerodinamikoak edo elementu plastiko torlojutuak dituzten modeloek (diseinu itxiagoa) barnealdean izotza eta elurra metatzeko probabilitatea handiagoa dute. Kontuan izan hori gidatze-egoeren arabera; izan ere, gurpiletan elurra edo izotza pilatzeak bibrazioak eragin ditzake ibilgailuan 40 km/h baino gehiagoan zirkulatzean. Gurpilen barruko izotza eta elurra kentzea gomendatzen da, ur beroa erabiliz.**
- **Lurrezko edo legarrezko pistetan gidatuz gero, elementu plastikoak dituzten hagunen barruan harriak harrapatuta geratzeko probabilitatea handitu egiten da, abiadura handian edo kirol-moduan zirkulatzean. Aluminiozko hagunaren eta txertatutako elementuaren artean harriak harrapatuta geratu direla ikusiz gero, presiozko uraren bidez kentzen saia zaitezke.**

Ingurumenari buruzko oharra

Pneumatiko erabiliak indarreko arauen arabera deuseztatu behar dira.

Oharra

- **CUPRA Laguntza Zentro batean galdetu behar da CUPRAn hasieran muntatutakoen tamaina ez duten hagunak edo pneumatikoak muntatzeko aukera badagoen eta zein diren aurreko (1. ardatza) eta atzeko (2. ardatza) ardatzen artean baimendutako konbinazioak.**
- **Ez erabili pneumatikoak zer "aurrekari" dituzten ez badakizu.**

Pneumatikoen balio-bizitza



219. irudia Pneumatikoen puzte-presioaren itsasgarriaren kokapena.

Pneumatikoen balio-bizitza luzatzeko, haiek presio egokian puztuta egon behar dute beti, eta zuhurtziaz gidatu behar da.

- Begiratu pneumatikoen presioa hilean behin, gutxienez, eta bidaia luze bat egin behar duzun bakoitzean.
- Presioa beti begiratu behar da pneumatikoak hotz daudenean. Pneumatikoak berotuta badaude ez jaitsi presioa.
- Egokitu pneumatiken presioa ibilgailuak daraman kargara ››› 219. irudia.
- Pneumatikoen presioaren adierazlea duten ibilgailuetan, gorde memorian pneumatikoen presio aldatua ››› 375. orrialdea.
- Ez gidatu abiadura handiegian kurbetan eta ez egin azelerazio zakarrak.
- Aldiro-aldiro, begiratu pneumatikoek higadura irregularra duten.

Pneumatikoen presioa

Puzte-presioaren balioak ezkerraldeko aurreko ate-markoaren atzealdean kokatutako etiketa itsasgarrian adierazten dira ››› 219. irudia.

Gutxiegizko edo gehiegizko presioak asko murrizten du pneumatikoen balio-bizitza eta modu negatiboan eragiten du ibilgailua ibiltzeko moduan. Pneumatikoen presioa oso garrantzitsua da, batez ere **abiadura handian** ibiliz gero.

Pneumatikoen presioa ibilgailuaren egungo kargara egokitu behar da. Ibilgailuak ahalik eta gehien kargatuta joan behar badu, etiketa itsasgarrian adierazitako karga-balio handienera igo behar da puzte-presioa ››› 219. irudia.

Pneumatikoen presioa begiratzen duzunean, ez ahaztu ordezko gurpilarena ere begiratzea. Puztu gurpil hori zure ibilgailurako aurreikusitako presio handienean.

Larrialdiko gurpil minimizatu baten kasuan (125/70 R16 edo 125/70 R18), 4,2 barreko presioan puztu, pneumatikoen presioaren etiketan adierazten den bezala ››› 219. irudia.

Gidatzeko modua

Kurbetan bizkor gidatzeak, azelerazio zakarrek eta balaztadek (pneumatikoen kirrinkak) gurpilen higadura areagotzen dute.

Gurpilak orekatzea

Ibilgailu berri baten gurpilak orekatuta egoten dira. Baina erabileran izaten diren gorabeherek desorekak eragiten dituzte (eszentrikotasuna), eta, bolantean, bibrazio gisa sumatzen dira.

Desorekak direkzioaren, esekiduraren eta pneumatikoen higadura handiagoa ere eragiten duenez, gurpilak berriro orekatu beharko dira. Gurpila berriro orekatu behar da pneumatiko berri bat muntatzen den bakoitzean edo konpontzen den bakoitzean.

Hutsegiteak gurpilen lerrokatzean

Errodaje-trena gaizki doituta badago, pneumatikoen higadura handitu ez ezik, gidatzeko segurtasuna murriztu ere egiten da. Pneumatikoen higadura oso handia dela ikusten bada, CUPRA Zerbitzu espezializatu batean edo SEAT Zerbitzu Ofizial batean berrikusi beharko da gurpilen lerrokatzea.

⚠ ADI

Gurpilen eta pneumatikoen erabilera ezegokiak pneumatikoek ustekabean presioa galtzea, errodadura-banda askatzea edo pneumatikoa lehertzea ere eragin dezake.

- **Gidariak du ibilgailuaren pneumatiko guztiak presio egokian puzteko ardura. Gomendatutako puzte-presioa itsasgarri batean adierazten da ››› 219. irudia.**
- **Egiaztatu aldizka pneumatikoen puzte-presioa eta mantendu beti adierazitako puzte-presioaren balioa. Pneumatikoaren presioa baxuegia bada, gerta liteke pneumatikoa gehiegi berotzea eta errodadura-banda askatzea edo pneumatikoa lehertzea.**
- **Pneumatikoak hotz daudenean, itsasgarrian adierazitako presioa mantendu behar da beti ››› 219. irudia.**
- **Egiaztatu aldizka pneumatikoen puzte-presioa hotz daudenean. Beharrezkoa bada, doitu muntatutako pneumatikoen presioa hotz daudenean.**
- **Egiaztatu aldizka pneumatikoak higadura-zeinurik ez dutela edo hondatuta ez daudela.**

- **Ez gainditu inoiz zure ibilgailuaren pneumatiko motarako baimendutako gehienezko abiadura eta karga.**

Ingurumenari buruzko oharra

Pneumatikoen presioa ez bada behar adinakoa, erregai-kontsumoa handitu egiten du.

Higadura seinaleak

220. irudia Pneumatikoaren profila: higadura-adierazleak.



221. irudia Gurpilak trukatzea.

Jatorrizko pneumatikoen gurpil-arteken sakoneraren basean 1,6 mm-ko altuerako higadura-adierazleak daude, tarte erregularretan eta martxa-norabidearekiko zeharka ordenatuta ››› **220. irudia**. "TWI" letrek edo pneumatikoaren alboan dauden triangelu batzuek higadura adierazleen posizioa adierazten dute.

Profilaren utzitako gutxieneko sakonera[1] lortu da pneumatikoak higadura-seinaleetaraino higatu direnean. Aldatu pneumatikoak beste berri batzuekin ››› ⚠.

Gurpilak trukatzea

Gurpilak modu uniformean higa daitezen, erregulartasunez aldatzea gomendatzen da eskema honen arabera ››› **221. irudia**. Jokabide horrekin, pneumatiko guztien balio-bizitza berdintsua izatea lortzen da.

⚠ ADI

Pneumatikoak, asko jota, higadura-adierazleak higatu direnean aldatu behar dira. Bestela, istripua izateko arriskua dago.

- **Bereziki, meteorologia-baldintza txarretan bidaiatzen bada, esaterako, euriarekin edo izotzarekin. Garrantzitsua da pneumatikoen marrazkiaren sakonera ahalik eta handiena izatea eta, gutxi gorabehera, berdina izatea aurreko eta atzeko gurpiletan.**
- **Marrazkiaren gutxiegizko sakoneraren ondoriozko gidatze-segurtasun eskasa honako egoera hauetan geratzen da agerian, batik bat: putzu sakonetan igarotzean, "aquaplaning" arriskuan baitago; kurbetan ibiltzean eta balaztatzeko portaeran.**
- **Abiadura egokitzen ez bada, ibilgailuaren kontrola gal daiteke.**

Gurpilaren torlojuak

Hargunak eta **gurpilen torlojuak** multzo baten parte izateko diseinatu dira. Ibilgailuaren hagunak ordezkatzen badira eta beste mota batekoak jartzen badira (adibidez, aleazio-hagunak edo neguko pneumatikoak dituzten gurpiletan erabiltzen direnak), kalotaren luzera eta forma egokia duten gurpileko torlojuak erabili behar dira. Alderdi hori zeharo garrantzitsua da gurpilak ondo finkatzeko eta balazta-sistemak behar bezala funtzionatzeko.

[1] Zer herrialdetan zirkulatzen duzun, hango arauak errespetatu.

Gurpilaren torlojuek garbi eta erraztasunez hariztatzeko moduan egon behar dute.

Gurpiletako lapurreten aurkako torlojuak lasaitzeko, egokigailu berezia behar da ››› 372. orrialdea.

⚠ ADI

Gurpil-torlojuak ez dira inoiz koipeztatu edo oliotu behar.

- **Erabili soilik dagokion hagun bakoitzarekin bat datozen gurpil-torlojuak.**
- **Adierazitakoa baino estutze-pare txikiago batekin estutzen badituzu torlojuak, gurpila irten liteke ibilgailua martxan denean, eta horrek istripu-arriskua dakar. Estutze-parea handiegia bada, berriz, torlojuak edo haria kaltetu daitezke.**

ⓘ KONTUZ

Altzairuzko eta aleazio hagunetako torlojuetarako ezarritako estutzeko parea zein den jakiteko, kontsultatu **››› 374. orrialdea**.

Neguko pneumatikoak

- Neguko pneumatikoak **lau** gurpiletan jarri behar dira.
- Zure ibilgailuarentzat homologatutako neguko pneumatikoak bakarrik erabili.
- Baliteke baimendutako gehienezko abiadura txikiagoa izatea neguko pneumatikoak erabiltzen badira.
- Egiaztatu neguko pneumatikoek **profil** nahikoa dutela.
- Kontrolatu pneumatikoen presioa gurpilak muntatu ondoren. Hori egiterakoan, kontuan izan ezkerreko aurreko ateko markoaren atzealdean adierazitako balioak ››› 365. orrialdea.

Errepideetan neguko baldintzekin, neguko pneumatikoek argi eta garbi hobetzen dute ibilgailuaren abioa. Udako pneumatikoen eta izotzaren eta elurraren arteko itsaspena txikiagoa izaten da bere diseinuaren ondorioz (zabalera, kautxu-nahastea, profil mota). Aurrekoa funtsezkoa da **gurpil zabalak** edo **abiadura handirako pneumatikoak** dituzten ibilgailuetarako (H, V hizki bereizleak edo Y hizkia duena pneumatikoaren alboan).

Erabili zure ibilgailuarentzat homologatutako neguko pneumatikoak bakarrik. Pneumatiko horien neurriak ibilgailuaren dokumentu osagarrietan ikus daitezke (esaterako, CEE edo COC egokitasun ziurtagiria[1]). Ibilgailuaren dokumentazio osagarriak herrialdearen berariazkoak dira.

Neguko pneumatikoek ezaugarri asko galtzen dituzte higatu badira 4 mm-ko **gurpil-arteken sakoneraino** .

Pneumatikoen ezaugarrien galera eragiten duen beste faktore bat **zaharkitzea** da, nahiz eta marrazkiaren sakonera 4 mm-tik gorakoa izaten jarraitu.

Neguko pneumatikoek abiadura-muga adierazten duen hizki grabatua daramate ››› 363. orrialdea.

Infotainment sistemako **Ajustes del vehículo** menuan abiadura-abisu bat doitu daiteke **Neumáticos** menuan.

Gehieneko abiadura gainditzeko beharrezko potentzia duten ibilgailuek **itsasgarri** bat jarri behar dute gidariaren ikus-eremuan. Itsasgarri horiek zure CUPRAren Zerbitzu espezializatuan, SEATen Zerbitzu Ofizialean eta tailer espezializatu batean eros daitezke. Kontuan izan herrialdearen arabera arau desberdinak izan ditzaketela.

Neguko pneumatikoen ordez, “orotarako pneumatikoak” erabil daitezke.

V hizkiko neguko pneumatikoen erabilera

Kontuan hartu V letra duten neguko pneumatikoak erabiltzean, 240 km/h-ko (149 mph) gehieneko abiadura orokorra **ez dela beti onargarria ikuspuntu teknikotik, eta, zure ibilgailuaren kasuan, nahiko mugatuta egon daitekeela**. Pneumatiko horien gehieneko abiadura ardatzen gainean jarri daitezkeen karga maxi-

[1] COC = *certificate of conformity.*

moen mende eta muntatutako pneumatikoetan adierazitako trakzioaren indarraren mende dago.

Zure CUPRAren Zerbitzu espezializatuarekin edo SEATen Zerbitzu Ofizialarekin harremanetan jartzea gomendatzen dizugu, V hizkidun pneumatikoekin zein abiadura maximora irits zaitezkeen jakiteko, ibilgailuaren eta pneumatikoaren datuetan oinarrituta.

⚠ ADI

Inoiz ezingo duzu neguko pneumatikoentzat baimendutako gehieneko abiadura gainditu, pneumatikoak hondatu eta ibilgailuaren kontrola galdu ahal duzulako, eta horrek istripua izateko arriskua areagotuko baitu.

Ingurumenari buruzko oharra

Negua igaro ostean, jarri berriz udako pneumatikoak, egokitzat jotzen denean. Tenperatura +7°C (+45°F) baino handiagoa bada, udako pneumatikoen bidez, dinamika hobetuko da. Errodadura-zarata, higadura eta energia-kontsumoa murriztuko dira.

Elurretako kateak

Elurretako kateak **aurreko gurpiletan** muntatzea bakarrik baimenduta dago, **trakzio integrala** duten ibilgailuetan barne.

- Metro batzuez ibili ondoren, egiaztatu behar bezala ezarri direla; zuzendu horien posizioa beharrezkoa izanez gero, fabrikatzailearen muntatzeko jarraibideekin bat eginez.
- Kontuan izan 50 km/h (30 mph) abiadura maximoa.
- Kateak muntatu arren harrapatuta geratzeko arriskua badago, gomendagarriena da ESC sisteman trakzio-kontrola (TCS) desaktibatzea ››› **186. orrialdea**.

Errepidean elurra baldin badago, elurretako kateek, *trakzioa* hobetu ez ezik, *frenatze*-jokaera ere hobetuko dute.

Arrazoi teknikoak direla eta, bakarrik zenbait hagun eta pneumatiko konbinaziotan erabil daitezke elurretako kateak:

Pneumatikoa	Haguna	Kateak
215/55 R17	7,5Jx17 ET40	Gehienez 15 mm-ko katebegia
225/55 R17	7,5Jx17 ET40	9 mm-ko gehieneko maila
225/50 R18	8x18 ET40	
245/45 R18	8x18 ET40	
245/40 R19	8x19 ET40	
Gainontzeko dimentsioek ez dituzte kateak onartzen		

Elurretako kateak erabiltzen badituzu, horiek ipini baino lehen, desmuntatu egin beharko zenuke gurpilaren edozein edergarri.

⚠ ADI

Egokiak ez diren kateak erabiltzen badira, edo kateak behar bezala ipini ez badira, istripu eta kalte adierazgarriak sorraraz daitezke.

- **Erabili beti elurretako kate egokiak.**
- **Kontuan izan kateen fabrikatzailearen muntatzeko jarraibideak.**
- **Elurretako kateekin gidatzen baldin baduzu, ez sekula gainditu gehienez baimendutako abiadura.**

KONTUZ

- **Desmuntatu kateak elurrik gabeko ibilbideetan. Bestela, ibilgailuaren portaera okerragoa izango litzateke, pneumatikoak kaltetu eta berehala hondatuko lirateke.**
- **Kateek hagunak ukitzen badituzte zuzenean, kaltetu edo urratu egin ditzakete. CUPRA etxeak beti estalitako elurretako kateak erabiltzea gomendatzen du.**

Gurpil bat aldatzea

Gaiaren aurkezpena

Zuk zeuk aldatu gurpil bat, baldin eta ondo ezagutzen badituzu beharrezko operazioak eta segurtasun-neurriak, behar diren erremintak badituzu eta ibilgailua modu seguruan aparkatuta badago.

Aurretiko jarduerak

- Gelditu ibilgailua azalera horizontal eta leku seguru batean, ibilgailuetako trafikotik ahalik eta urrutien.
- Konektatu geratze-balazta elektronikoa.
- Jarri larrialdi-argi keinukariak.
- *Eskuzko aldagailua:* engranatu 1. martxa.
- *Aldagailu automatikoa:* aktibatu **P** aparkatze-blokeoa.
- Atoia eramanez gero, askatu atoia zure ibilgailutik.
- Utzi erabilgarri ibilgailu barruko tresnak

>>> **330. orrialdea** eta ordezko gurpila.

- Bete itzazu herrialde bakoitzeko lege-xedapenak (txaleko islatzailea, oharpenerako triangeluak, argi-baliza, etab.).
- Esan jaisteko ibilgailu barruan dauden guztiei eta mantendu arrisku-zonaldetik urrun (adibidez, alboko bazter-babesaren atzean).

⚠ ADI

- **Kontuan hartu adierazitako urratsak eta babestu zeure burua eta bideko beste erabiltzaileak.**
- **Gurpila maldan dagoen errepide batean aldatzen baduzu, blokeatu beste aldeko gurpila harri batez edo antzeko beste zerbaitekin, ibilgailua ez mugitzeko.**

Larrialdiko gurpilaren kokapena eta erabiltzea



222. irudia Maletategian: karga-zoru altxatua.



223. irudia Maletategian: desmuntatu subwooferra.

Larrialdiko gurpila maletategian dago, kargaren azaleraren azpian eta gurpiltxo baten bidez lotuta dago.

Larrialdiko gurpila denbora-tarte laburretan zehar erabiltzeko pentsatuta dago. Joan ahalik eta lasterren CUPRA Zerbitzu espezializatu batera, SEAT Zerbitzu Ofizial batera edo tailer espezializatu batera gurpila aztertu eta alda dezaten.

Larrialdiko gurpila ez da aldatu behar beste ibilgailu baten larrialdiko gurpilarekin.

Larrialdiko gurpila ateratzea

- Altxatu karga-zorua eta eduki ezazu altxatuta, larrialdiko gurpila atera ahal izateko

>>> **303. orrialdea**.

- Biratu gurpiltxoa erloju-orratzen aurkako noranzkoan ››› 222. irudia.
- Atera larrialdiko gurpila.

Larrialdiko gurpila ateratzea soinu-sistema aukerakoa (subwoofer duela) duten ibilgailuetan

Ordezko gurpila atera ahal izateko, lehendabizi subwooferra desmuntatu behar da.

- *Maletategiko zoru aldakorrik gabeko ibilgailuak:* tiratu maletategiko zorutik (alfonbra) gorantz, ateratzeko.
- *Maletategiko zoru aldakorra duten ibilgailuak:* altxatu eta finkatu maletategiko zorua hemen azaltzen den bezala: ››› 303. orrialdea.
- Deskonektatu subwoofer bozgorailuko kablea ››› 223. irudia ①.
- Biratu finkatze-gurpiltxoa erloju-orratzen aurkako noranzkoan ››› 223. irudia ②.
- Atera subwoofer bozgorailua eta ordezko gurpila.
- Ordezko gurpila berriz muntatzean, jarri subwoofer bozgorailua hagunaren oinarrian, kontu handiz. Hori egitean, subwoofer bozgorailuan dagoen “FRONT” geziaren puntak aurrerantz seinalatu beharko du.
- Berriro konektatu bozgorailuko kablea eta biratu indarrez gurpiltxoa erloju-orratzen araberako noranzkoan, subwoofer bozgorailuak eta gurpilak osatutako multzoa ondo finkatuta gera dadin.

Kateak

Arrazoi teknikoengatik, ezin da jarri elurretako katerik larrialdiko gurpilean.

Elurretako kateak jarri behar badituzu eta aurreko gurpila zulatu bazaizu, jarri larrialdiko gurpila atzeko gurpil baten lekuan. Jarri elurretako kateak atzetik kendu eta zulatutako aurreko gurpilaren ordez jarriko duzun gurpilean.

⚠ ADI

- **Larrialdiko gurpila jarri ondoren, egiaztatu berehala pneumatikoen presioa. Bestela, istripu arriskua izango duzu. Puzte-presioa ezkerreko aurreko ate-markoaren atzeko aldean aurkituko duzu ››› 365. orrialdea.**
- **Ez gidatu larrialdiko gurpila erabiliz 80 km/h-tik (50 mph) gorako abiaduran: istripua izateko arriskua!**
- **Ez egin inoiz 200 km baino gehiago larrialdiko gurpila muntatuta badaramazu.**
- **Saihestu azeleragailua guztiz zapaltzea, bat-batean frenatzea eta kurbak abiadura handiz hartzea: istripua izateko arriskua!**
- **Inoiz ez gidatu larrialdiko gurpil bat baino gehiagorekin, istripua izateko arriskua dago eta.**
- **Larrialdiko gurpilaren hagunean ez dira muntatu behar pneumatiko arruntak, ezta negukoak ere.**
- **Larrialdiko gurpilarekin zirkulatuz gero, ACC sistema deskonektatu egin daiteke automatikoki ibilbidean zehar. Deskonektatu sistema abian jartzean.**

Gurpil-torlojuetako txanoak

224. irudia Gurpila: gurpilaren torlojuak txanoekin.

Atera

- Sartu plastikozko pintza (barneko erreminta ››› 195. irudia) txanoaren gainean, ahokatu arte ››› 224. irudia.
- Atera txanoa plastikozko pintzarekin.

Txanoek gurpileko torlojuak babesten dituzte eta gurpila aldatu ondoren berriro muntatu behar dira.

Gurpilaren lapurreten aurkako torlojuak
txano berezia du. Txano hori lapurreten aurkako torlojuekin soilik da bateragarria eta ez du balio torloju konbentzionaletarako.

Gurpilaren lapurreten aurkako torlojuak



225. irudia Lapurreten aurkako gurpilaren torlojua txanoarekin eta egokigailuarekin.

Lapurreten aurkako torlojua lasaitzea

- Atera gurpilaren edergarria edo txanoa.
- Ahokatu egokigailu berezia ››› **225. irudia** ① (ibilgailu barruko tresna ››› **330. orrialdea**) gurpilaren lapurreten aurkako torlojuan mugaraino.
- Ahokatu gurpilaren giltza (ibilgailu barruko tresna) egokigailuan mugaraino.
- Kendu gurpileko torlojua ››› **372. orrialdea**.

Oharra

Idatzi gurpilaren segurtasun-torlojuaren kodea eta gorde leku seguru batean, baina inoiz ez zure ibilgailuan. Ordezko egokigailu bat behar duzunean, CUPRA Zerbitzu espezializatuan edo SEAT Zerbitzu Ofizialean lortu ahal izango duzu, zure kode-zenbakia adierazita.

Gurpil-torlojuak lasaitzea

226. irudia Gurpil-aldaketa: gurpil-torlojuak lasaitzea.

Gurpil-torlojuak lasaitzeko, erabili ibilgailuaren gurpil-giltza soilik.

Katuarekin ibilgailua jaso aurretik, lasaitu gurpil-torlojuak, buelta bat emanez gutxi gorabehera.

Torloju bat lasaitzen ez bada, presionatu kontu handiz oinarekin gurpil-giltzaren muturraren gainean. Eragiketa hori egitean,heldu ibilgailuari eta saiatu oreka ez galtzen.

Gurpil-torlojuak lasaitzea

- Ahokatu gurpil-giltza torlojuan toperaino ››› **226. irudia**.
- Eutsi giltzari mutur batetik eta biratu torlojua gutxi gorabehera buelta *bat* erloju-orratzen aurkako noranzkoan ››› ⚠.

Gurpil-torlojuei buruzko informazio garrantzitsua

Fabrikan muntatutako gurpilen hagunak eta torlojuak elkarren artean bateratuta daude ikuspegi konstruktibo batetik. Hortaz, hagunak aldatzen badira, horiei dagozkien gurpil-torlojuak erabili beharko dira, luzera eta buru egokiarekin. Alderdi hori zeharo garrantzitsua da gurpilak ondo finkatzeko eta balazta-sistemak behar bezala funtzionatzeko.

zenbait egoeratan, ibilgailu-sorta bereko gurpil-torlojuak ere ezin izango dira erabili.

⚠ ADI

Gurpil-torlojuak modu ezegokian estutzen badira, ibilgailua martxan den bitartean askatu egin daitezke, eta istripu bat, lesio larriak edo ibilgailuaren kontrola galtzea eragin.

- **Erabili soilik dagokion hagunarekin bat datozen gurpil-torlojuak.**
- **Ez sekula erabili beste gurpil batzuetako torlojuak.**
- **Gurpil-torlojuek eta hariek garbi egon behar dute, oliorik eta koiperik gabe, eta erraz hariztatzeko moduan.**
- **Gurpil-torlojuak lasaitu eta estutzeko, ibilgailuak fabrikatik dakarren gurpil-giltza soilik erabili.**
- **Lasaitu gurpil-torlojuak pixka bat bakarrik (bira bat gutxi gorabehera) ibilgailua katu jasotzailearekin oraindik altxatuta ez dagoenean – Istripu-arriskua!**
- **Ez jarri grasa edo oliorik gurpil-torlojuetan edo gurpil-kuboaren harietan. Torlojuak aurrezarritako pareaz estututa egon arren, martxan zehar lasaitu egin daitezke.**
- **Ez sekula lasaitu torlojututako uztaiekin hariztatutako haguneko lotuneak.**
- **Gurpil-torlojuak aurrezarritakoa baino txikiagoa den pare batekin estutzen badira, torlojuak eta hagunak askatu egin daitezke ibilgailua martxan den bitartean. Estutze-parea handiegia bada, berriz, torlojuak edo haria kaltetu daitezke.**

Ibilgailua igotzea



227. irudia Katuaren euskarri-puntuak.



228. irudia Langa: ibilgailuaren katua kokatzea.

- Oinarritu katua (ibilgailu barruko erreminta) lur tinkoaren gainean. Erabili oinarri zabala eta sendoa, beharrezkoa izanez gero. Lurra labaingarria bada (adibidez, lauzak), oinarritu labaintzen ez duen oinarri baten gainean (adibidez, gomazko alfonbra bat) ››› ⚠.
- Bilatu langan aldatzeko gurpiletik gertuen dagoen puntuaren marka (hondoratutako zonaldea) katua oinarritzeko ››› **227. irudia**.
- Biratu katuaren biradera, langa oinarritzeko puntupean kokatua, altxatzeko, erlaitza ① ››› **228. irudia** aurreikusitako ahokalekuaren azpian kokatu arte.
- Lerrokatu katua erlaitzak ① “heldu dezan” langan aurreikusitako ahokalekuan eta oinarri-plaka mugikorra ② lurrean oinarrituta gera dadin. Oinarrizko plakak ② oinarri-puntuarekiko bertikalean erori behar du ①.
- Jarraitu biratzen katuaren biradera gurpila lurretik zertxobait banatu arte.

⚠ ADI

Fabrikak hornitutako katua zure motako ibilgailuak jasotzeko erabili behar da soilik. Ez erabili inolaz ere ibilgailu pisutsuagoak edo bestelako zamak altxatzeko, zauritzeko arriskua dago eta.

- **Ziurtatu katua egonkor mantentzen dela. Azalera labaingarria edo biguna bada, katua labaindu edo hondoratu daiteke, hurrenez hurren, eta, ondorioz, zauriak eragin ditzake.**
- **Altxatu ibilgailua bakarrik fabrikak hornitutako katuarekin. Bestelako katuak, baita beste CUPRA modeloetako homologatutakoak ere, labaindu daitezke, eta, ondorioz, zauriak eragiteko arriskua dago.**

- **Ipini katua bakarrik langan aurreikusitako oinarri-puntuetan eta lerrokatu. Bestela, katua labaindu daiteke, ibilgailuari behar bezala heldu ez diolako: zauritzeko arriskua!**
- **Sekula ez da gorputz-atal bat kokatu behar, esate baterako, beso edo hanka bat, soilik katuarekin sostengatuta dagoen altxatutako ibilgailu baten azpian.**
- **Ibilgailuaren azpian lan egin behar baduzu ezinbestean, ziurtatu ziri eta astoekin mugi ez dadin.**
- **Sekula ez altxatu ibilgailu bat albo batetik makurtuta baldin badago, edo motorra martxan baldin badago.**
- **Sekula ez piztu motorra ibilgailua altxatuta dagoenean. Gerta daiteke motorraren dardaren ondorioz ibilgailua katutik askatzea.**

KONTUZ

- **Ibilgailua ez da langetatik altxatu behar. Ipini katua bakarrik langan aurreikusitako puntuetan. Bestela, ibilgailua kaltetuko duzu.**
- **Edozein karga edo pisu mota (zapaltzea, katua jartzea, objektu astunak bermatzea, etab.) kanpoko molduraren/taloneraren gainean aplikatzeak kalteak eragin diezazkioke horri. CUPRA ez da izango behar ez bezala erabiltzeagatik kanpoko molduraren edo karrozeriaren gainean sortutako kalteen erantzulea.**

Gurpil bat desmuntatzea eta muntatzea

Torlojuak lasaitu eta ibilgailua katuarekin altxatu ondoren, aldatu gurpila.

Gurpila desmuntatzean/muntatzean, hagunak balazta-diskoaren kontra talka egin dezake, diskoa hondatuz. Beraz, kontuz ibili eta laguntza eskatu beste pertsona bati.

Gurpil bat desmuntatzea

- Atera torlojuak gurpil-giltzarekin eta ipini gainazal garbi batean.
- Kendu gurpila.

Gurpil bat muntatzea

Kontuan izan, halaber, pneumatikoaren biraketa-noranzkoa ››› **374. orrialdea**.

- Ipini ordezko gurpila edo larrialdiko gurpila.
- Hariztatu gurpilaren torlojuak eta estutu zertxobait gurpilaren giltzarekin.
- Lapurreten aurkako gurpileko torlojuak estutzeko erabili dagokion egokigailua.
- Ibilgailua kontu handiz jaitsarazi katuarekin.
- Estutu torloju guztiak gurpiletarako giltzarekin erlojuaren orratzaren norabidean. Ez estutu torlojuak zirkuluan, baizik eta beti kontrako torlojura igaroz.
- Muntatu, halaber, txanoak, edergarriak edo abatz-estalki integrala.

Gurpilaren torlojuek garbi egon behar dute eta erraztasunez hariztatu ahal izango dira. Aztertu gurpila oinarritzeko gainazalak eta gurpil-kuboarenak. Azalera horiek zikin badaude, garbitu beharko dira gurpila muntatu baino lehen.

Gurpil-torlojuen estutzeko parea

Altzairuzko eta aleazio arineko hagunetako torlojuak estutzeko parea **140 Nm** da. Gurpil bat aldatu ondoren, berehala enkargatu estutze-parea egiaztatzea ondo funtzionatzen duen giltza dinamometriko batekin.

Estutzeko parearen **egiaztapena egin aurretik** herdoilduta dauden eta zailtasunez hariztatzen diren gurpil-torlojuak aldatu behar dira, eta gurpil-kuboaren hariak garbitu behar dira.

Ez jarri grasa edo oliorik gurpil-torlojuetan edo gurpil-kuboaren harietan. Torlojuak aurrezarritako pareaz estututa egon arren, martxan zehar lasaitu egin daitezke.

Norabide bakarreko errodadura duten pneumatikoak

Norabide bakarreko errodadura duten pneumatikoak norabide bakarrean ibiltzeko garatu dira. Norabide bakarreko errodadura duten pneumatikoen alboak gezi batzuekin daude markatuta. Adierazitako errodadura-norabidea nahitaez errespetatu behar da, pneumatikoa-

ren ezaugarri optimoak bermatzeko aquaplaningari, itsaspenari, zaratei eta higadurari dagokienez.

Pneumatikoa aurkako errodadura-norabidean muntatuz gero, kontu gehiagorekin gidatu behar duzu, ez zarelako ari pneumatikoa behar bezala erabiltzen. Hori are eta garrantzitsuagoa da zorua bustita badago. Aldatu pneumatikoa lehenbailehen edo muntatu errodadura-norabide egokian.

Gurpil-aldaketaren ondorengo lanak

- Ipini berriro gurpil-torlojuetako txanoak edo edergarriak (ekipamenduaren arabera).
- Gorde tresnak dagokien lekuan.
- Ordezkatutako gurpila ez bada ordezko gurpilerako hutsunean sartzen, gorde era seguruan maletategian ››› **301. orrialdea**.
- Egiaztatu muntatu duzun gurpilaren puzte-presioa ahalik eta lasterren.
- Pneumatikoen presioa adierazten duten ibilgailuetan, aldatu presioa eta memorizatu ››› **375. orrialdea**.
- Egiaztatu, lehenbailehen, gurpileko torlojuen estutzeko parea giltza dinamometrikoarekin ››› **374. orrialdea**. Ordura arte, gidatu kontu handiz.
- Ordezkatu zulatutako gurpila lehenbailehen.

Pneumatikoen presioaren kontrol-sistema

Pneumatikoen presioaren kontrol-adierazlea

229. irudia Tresnen koadroa: pneumatikoek presioa galdu dutela ohartarazteko abisua.

Pneumatikoen presioaren kontrol-sistemak gurpil bakoitzaren banakako abiadurak alderatzen ditu eta, horrekin batera, erradioa dinamikoa ABSren sentsoreen laguntzaz.

Gurpil baten edo gehiagoren errodadura-perimetroa aldatzen bada, pneumatikoen presioaren kontrol-adierazleak kontrol-argiaren eta gidariarentzako abisu baten bidez adierazten du tresnen koadroan ››› **229. irudia**. Pneumatiko bat bakarrik oker badabil, horren posizioa ibilgailuan adieraziko da.

(!) Pérdida presión: ¡Compr. presión neum. del. izq.!

Errodadura-perimetroa aldatzea

Pneumatiko baten errodadura-diametroa aldatuko da:

- Puzte-presioa eskuz aldatzen da.
- Pneumatikoaren presioa eskasa denean.
- Pneumatikoaren egiturak akatsak dituenean.
- Kargaren ondorioz ibilgailua desorekatuta dagoenean.
- Ardatz baten gurpilek karga handiagoa dute (adibidez, karga handi batekin).
- Ibilgailuak elurretako kateak muntatuta ditu.
- Larrialdiko gurpila muntatuta dagoenean.
- Ardatz baten gurpila aldatu denean.

Pneumatikoen presioaren kontrol-adierazleak (!) berandu erreakzionatu dezake, edo ezer ez adierazi egoera jakin batzuetan (adibidez, kirol-moduko gidatzea, elurtuta edo zolatu gabeko errepideak edo kateekin gidatzea).

Pneumatikoen presioaren kontrol-adierazlea kalibratzea

Puzte-presioa aldatu edo gurpil bat edo gehiago ordezkatu eta gero, pneumatikoen presioaren kontrol-adierazlea kalibratu behar da berriz. Egin gauza berbera, adibidez, aurreko gurpilak atzekoekin ordezkatzean.

Ibilgailua geldirik eta pneumatikoak hotz daudela egin behar da kalibraketa. Pneumatiko beroekin eginez gero, presioak egiaztatzeko eta hotzean kalibratzeko prozedura errepikatu behar da hurrengo bidaia baino lehen.

- Konektatu pizgailua.
- Gorde puzte-presio berria infotainment sisteman: ⊞ > **Datos > Estado del vehículo** ››› 37. orrialdea funtzio-botoia.
- **EDOTA: Servicio** menuaren bidez tresnen koadroan ››› 31. orrialdea.

Pneumatikoen presioa kontrolatzeko sistemak, besteak beste, gurpil bakoitzaren bueltak alderatzen ditu, eta, horrekin batera, errodadura-zirkunferentzia, ABS sentsoreen bidez. Abiadura ezberdinekin ibilbide luzea egin ondoren, programatutako balioak batu eta ikuskatzen dira.

Gurpilek karga pisutsuak jasan behar dituztenean, puzte-presioa handitu behar da, kalibratu aurretik karga osorako gomendatutako puzte-presiora egokitzeko ››› 229. irudia.

⚠ ADI

Pneumatikoak presio ezberdinetan puztu badira edo presio baxuegia badute, gerta daiteke pneumatikoren bat hondatzea eta gidariak ibilgailuaren gaineko kontrola galtzea. Horrek istripu larriak eta heriotza ere eragin litzake.

- **Kontrol-argia piztuz gero (!), abiadura berehala murriztu beharko duzu, eta saihestu edozein bat-bateko biraketa- edo balaztatze-maniobra Gelditu ahal bezain laster, eta kontrolatu pneumatiko guztien presioa eta egoera.**
- **Pneumatikoen presioaren kontrol-sistemak ondo funtzionatzen du soilik pneumatiko guztiek, hotzean, presio egokia badaukate, eta adierazitako prozedurari jarraituz berehala kalibratzen bada.**
- **Pneumatikoa zulatu ez bada eta berehala aldatzea nahitaezkoa ez bada, gidatu gertueneko tailer espezializaturaino abiadura motelean eta eskatu puzte-presioa egiaztatzeko eta zuzentzeko.**

Oharra

- **Lehenengo aldiz pneumatiko berriekin abiadura handian gidatzean, pneumatikoak pixka bat dilatatu daitezke eta gerta daiteke sistemak airearen presioari buruzko ohar bat bidaltzea.**
- **Pizgailua konektatuta dagoenean, sistemak puzte-presioa baxuegia dela hautematen badu, soinu-ohar bat entzungo da. Sistemak huts egiten badu, soinu-seinale bat entzuten da.**
- **Asfaltatu gabeko errepideetatik denbora luzez gidatzen bada edo kirol-moduan gidatzen bada, gerta daiteke sistema aldi baterako desaktibatzea. Kontrol-argiak akatsa erakusten du, baina bidearen baldintzak edo gidatzeko modua aldatzen direnean desagertzen da.**
- **Ez fidatu bakarrik pneumatikoen presioaren kontrol-sistemaz. Kontrolatu pneumatikoak aldizka eta egiaztatu beren puzte-presioa egokia dela eta pneumatikoek kalterik ez dutela (adibidez, zulatu, moztu, urratu edo mailatu direlako). Atera pneumatikoan egon daitezkeen objektuak, baldin eta pneumatikoa zulatzen ez badute.**
- **Pneumatikoen presioaren kontrol-adierazlea ez dabil ESCak edo ABSak anomalia bat dutenean** ››› 184. orrialdea.

Arazoak konpontzea

(!) Pneumatikoen presio baxua

Kontrol-argia argituko da horiz.

Gurpil baten edo batzuen puzte-presioa gidariak doitutako balioa baino txikiagoa da, edo pneumatikoak egiturazko kalte bat du. Horrez

gain, soinu-seinale bat entzun daiteke, eta testu-mezu bat ikus daiteke tresnen koadroaren pantailan.

- **Gelditu!** Posible eta seguru denean, geldiarazi ibilgailua.
- Egiaztatu pneumatiko guztiak eta puzte-presio guztiak.
- Ordezkatu hondatutako pneumatikoak.

Matxura pneumatikoak kontrolatzeko sisteman

Kontrol-argiak dir-dir egiten du minutu1 inguruz eta, jarraian, etengabe geratzen da horiz piztuta.

- Puzte-presioa zuzena bada, deskonektatu pizgailua eta piztu berriro.
- Pneumatikoen presioa kontrolatzeko adierazlea berriro kalibratzea ››› 375. orrialdea
- Matxurak jarraitzen badu, joan tailer espezializatu batera.

Pneumatikoen konponketa

Zuloak konpontzeko TMS kita (Tyre Mobility System)

Zuloak konpontzeko kitari esker (Tyre Mobility System), modu fidagarrian konpon daitezke pneumatiko batek objektu arrotzen edo zuloen eraginez jasan dituen kalteak; gehienez **4 mm** diametrokoak badira. **Ez atera pneumatikotik objektu arrotza (adibidez, torlojua edo iltzea).**

Pneumatikoan zigilatzeko pasta sartu ondoren, pneumatikoaren puzte-presioa nahitaez egiaztatu behar da berriz martxan jarri eta 10 minutu inguru ondoren.

Pneumatikoa puzteko, erabili zuloak konpontzeko kita soilik ibilgailua leku seguruan aparkatu ondoren, eta beharrezko eragiketak eta segurtasun-arauak ezagutzen badituzu, eta zuloak konpontzeko kit zuzena baldin baduzu. Bestela, eskatu laguntza espezializatutako langileei.

Pneumatikoetarako zigilua ez da honako kasu hauetan erabili behar:

- Haguna kaltetu bada.
- Kanpoan -20°C-tik (-4°F) beherako tenperaturak badaude.
- Pneumatikoetan, 4 mm-tik gorako ebakiak edo zuloak badaude.
- Pneumatikoan oso puzte-presio baxuarekin edo presiorik gabe zirkulatu bada.
- Zigilatzeko pastaren botilaren iraungitzedata gainditu bada.

⚠ ADI

Zuloak konpontzeko kita erabiltzea arriskutsua da, batez ere, pneumatikoa bazterbidean betetzen bada. Zauri larrien arriskua murrizteko, kontuan hartu honako hau:

- **Posible eta seguru denean, geldiarazi ibilgailua. Aparkatu ibilgailuaren trafikotik distantzia segurura, pneumatikoa betetzeko.**
- **Ziurtatu lurra laua eta sendoa dela.**
- **Bidaiari guztiek, eta batez ere haurrek, lanareatik tarte seguru batera kokatu beharko dute.**
- **Piztu larrialdietarako argiak bidearen beste erabiltzaileei abisatzeko.**
- **Gelditu motorra beti, konektatu aparkatzeko balazta elektronikoa eta sartu martxa bat eskuzko aldagailua izanez gero, edo aktibatu P aparkatzeko blokeoa aldagailu automatikoa izanez gero, ibilgailua nahi gabe mugitzeko arriskua murrizteko.**
- **Erabili zuloak konpontzeko kita beharrezko eragiketak ezagutzen badituzu bakarrik. Bestela, eskatu laguntza espezializatutako langileei.**
- **Zuloak konpontzeko kita larrialdietan bakarrik erabili behar da, gertuen dagoen tailerrera iristeko.**
- **Ordezkatu ahalik eta lasterren zuloak konpontzeko kitarekin konpondutako pneumatikoa.**

- Zigilatzeko pasta osasunerako kaltegarria da eta berehala garbitu behar da larruazala ukitzen badu.
- Gorde beti zuloak konpontzeko kita haurrengandik urrun.

⚠ ADI

Zigilatzeko pastarekin betetako pneumatiko batek ez ditu ohiko pneumatiko baten ibiltze-ezaugarri berak.

- Ez gidatu inoiz 80 km/h baino azkarrago (50 mph).
- Saihestu azeleragailua guztiz ez zapaltzea, bat-batean frenatzea eta kurbak abiadura handiz hartzea.
- Gidatu 10 minutuz bakarrik, gehienez 80 km/h-ko (50 mph) abiaduran, eta ondoren egiaztatu pneumatikoa.

Ingurumenari buruzko oharra

Deuseztatu erabilitako edo iraungitako zigilatzeko pasta, horri buruzko xedapen legalei jarraituz.

Oharra

Pneumatikoak zigilatzeko pastaren botila berria CUPRA kontzesionario espezializatuetan edo SEAT sareko edozein kontzesionariotan eskuratu dezakezu.

Oharra

Kontuan eduki zuloak konpontzeko kitaren fabrikatzailearen jarraibideen eskuliburua bereizita dagoela.

Zuloak konpontzeko kitaren edukia



230. irudia Irudikatze estandarra: zuloak konpontzeko kitaren edukia.

Zuloak konpontzeko kita maletategiaren kompartimentuan dago, lurraren estalkiaren azpian. Honako osagai hauek hartzen ditu barne ››› **230. irudia**:

1. Obusak desmuntatzekoa
2. Tresnen koadroan, gidariaren ikus-eremuan, itsasteko eranskailua, oroitarazteko aholkatutako gehieneko abiadura zein den “80 km/h max.” edo “50 mph max.”
3. Betetzeko tutua tapoiarekin
4. Aire-konpresorea (bertsioaren arabera, modeloa alda daiteke).
5. ON/OFF kommutadorea
6. Airea ateratzeko torlojua (hura puzte-tutuarekin batera ere egon daiteke).
7. Pneumatikoen presioa kontrolatzeko sistemaren adierazlea (hura puzte-tutuarekin batera ere egon daiteke).
8. Pneumatikoak puzteko tutua
9. 12 volteko konektorea
10. Zigilatzeko pastaren botila
11. Ordezko balbularen obusa

Balbularen obusa desmuntatzekoak (1) balbularen obuserako zirrikitua du kanpoko muturrean. Balbularen obusa modu honetan bakarrik hariztatu edo askatu daiteke. Eta gauza bera egin behar da haren ordezko piezarako (11).

Pneumatiko bat zigilatzea eta puztea

Pneumatikoa zigilatzea

- Askatu pneumatikoaren txanoa eta balbularen obusa. Erabili ››› **230. irudia** ① gailua obusa ateratzeko. Ipini garbia dagoen azalera batean.
- Astindu indarrez pneumatikoak zigilatzeko pastaren ››› **230. irudia** ⑩ botila.
- Hariztatu ››› **230. irudia** ③ puzte-tutua zigilatze pastaren botilan. Botilaren zigilua automatikoki apurtuko da.
- Kendu ››› **230. irudia** ③ betetzeko tutuaren tapoia eta hariztatu tutuaren ertz irekia pneumatikoaren balbulan.
- Botila buruz behera jarrita, hustu eduki **osoa** pneumatikoan.
- Kendu botila balbulatik.
- Jarri berriro obusa ››› **230. irudia** ① gailuarekin pneumatikoaren balbulan.

Pneumatikoa puztea

- Hariztatu konpresorearen pneumatikoa puzteko tutua ››› **230. irudia** ⑧ pneumatikoaren balbulan.
- Egiaztatu aire husteko torlojua itxita dagoela ››› **230. irudia** ⑥.
- Abiarazi motorra eta utzi martxan.
- Akoplatu konektorea ››› **230. irudia** ⑨ ibilgailuaren 12 volteko korronte-hargunera ››› **250. orrialdea**.
- Konektatu aire-konpresorea ON/OFF kommutadorearekin ››› **230. irudia** ⑤.
- Mantendu aire-konpresorea martxan 2,0-2,5 bar presiora iritsi arte (2936 psi/200-250 kPa). **8 minutu gehienez**.
- Deskonektatu aire-konpresorea.
- Ez bazara adierazitako presiora iristen, askatu balbularen pneumatikoa husteko tutua.
- Mugitu ibilgailua 10 metroz, zigilatzea pneumatikoaren barruan banatzeko.
- Hariztatu berriro konpresorearen pneumatikoa husteko tutua balbulan.
- Errepikatu huste-prozesua.
- Oraingo honetan ere ez bazara adierazitako presiora iritsi, pneumatikoa oso hondatuta dago. Gelditu eta laguntza eskatu baimendutako langileei.
- Deskonektatu aire-konpresorea. Askatu pneumatikoak husteko tutua pneumatikoaren balbulatik.
- Puzte-presioa 2,0-2,5 bar artean dago, jarraitu ibiltzen 80 km/h gainditu gabe (50 mph).
- Itsatsi eranskailua ››› **230. irudia** ② tresnen koadroan, gidariaren ikus-eremuan.
- Egiaztatu berriz presioa 10 minutu igaro ondoren ››› **379. orrialdea**.

⚠ ADI

Gurpila puztean, aire-konpresorea eta puzteko tutua berotu daitezke.

- **Babestu eskuak eta larruazala bero dauden piezetatik.**
- **Ez ipini pneumatikoak puzteko tutu malgu beroa eta aire-konpresore beroa material sukoien gainean.**
- **Utzi hozten gailua gorde baino lehen.**
- **Pneumatikoa puztu ezin bada gutxienez 2,0 bareetaraino (29 psi/200 kPa), kaltea handiegia da Zigilatzeko pasta ez dago pneumatikoa zigilatzeko moduan. Ez jarraitu ibilgailuarekin ibiltzen. Eskatu laguntza espezializatutako langileei.**

ⓘ KONTUZ

Itzali aire-konpresorea gehienez funtzionatzen hasi eta 8 minuturen ondoren, gehiegi ez berotzeko! Konpresorea berriz piztu baino lehen, utzi hozten zenbait minutuz.

Martxan jarri eta 10 minutu igarotakoan egiaztatzea

Hariztatu berriro puzte-hodia ››› **230. irudia** ⑧ eta egiaztatu presioa manometroan ⑦.

1,3 bar (19 psi/130 kPa) eta txikiagoa:

- **Gelditu!** Horrelakoetan, gurpila ez da ondo zigilatu.
- Eskatu laguntza espezializatutako langileei ››› ⚠.

1,4 bar (20 psi/140 kPa) eta handiagoa:

- Zuzendu berriro pneumatikoaren presioa balio zuzena lortzeko.
- Hasi ibiltzen berriz kontu handiz, gertuen dagoen tailer espezializaturaino iristeko, 80 km/h (50 mph) abiadura gainditu gabe.
- Han, agindu matxuratutako pneumatikoa aldatzeko.

⚠ ADI

Ondo zigilatu gabeko pneumatiko batekin ibiltzea arriskutsua da eta istripuak eta lesio larriak eragin ditzake.

- **Ez jarraitu gidatzen pneumatikoaren presioa 1,3 bar (19 psi/130 kPa) eta txikiagoa bada.**
- **Eskatu laguntza espezializatutako langileei.**

Mantentze-lanak

Zerbitzua

Zerbitzu-lanak eta Mantentze-plan digitala

Egindako zerbitzu lanen erregistroa ("Mantentze-plan digitala")

CUPRA kontzesionario espezializatuak, SEAT sareko kontzesionarioak edo tailer espezializatuak Zerbitzuaren egiaztagiriak erregistratuko ditu sistema zentralean. Zerbitzuaren historialeko dokumentazio garden horri esker, nahi duzun guztietan erreproduzitu ahal izango dituzu zerbitzuaren lanak. CUPRAk egindako zerbitzu bakoitzaren ondoren Zerbitzuaren egiaztagiria eskatzea, non sisteman erregistratutako lan guztiak agertuko diren.

Zerbitzu berria egiten den bakoitzean, egiaztagiria berri batekin ordezkatuko da.

Zenbait merkatutan ez dago eskuragarri Mantentze-plan digitala. Kasu honetan, zure CUPRA kontzesionario espezializatuak edo SEAT sareko edozein kontzesionariok emango dizu zerbitzu-lanen dokumentazioen berri.

Zerbitzu-lanak

Mantentze-plan digitalean, zure CUPRA kontzesionario espezializatuak, SEAT sareko edozein kontzesionariok edo tailer espezializatuak honako dokumentu hauek aurkeztuko ditu:

- Zerbitzu bakoitza noiz egin den.
- Konponketa zuzena gomendatu bada, adib., laster balazta-pastillak aldatu beharra.
- Mantentzerako eskakizun bereziren bat adierazi duzun. Zerbitzuaren aholkulariak lan-eskaera idatziko du.
- Aldatu diren osagaiak edo likido operatiboak.
- Hurrengo zerbitzuaren data.

Iraupen Luzeko Mugikortasun Bermeak hurrengo ikuskapen arte balioko du. Informazio hori, egiten diren ikuskapen guztietan dokumentatuko da.

Zerbitzu-lanen mota eta kopurua ibilgailu batetik bestera aldatu daiteke. Tailer espezializatu batean zure ibilgailuak behar dituen lan espezifikoen berri emango dizute.

⚠ ADI

Zerbitzuak ez badira nahikoak edo egiten ez badira, eta zerbitzu-tarteak betetzen ez badira, ibilgailua trafikoaren erdian gera daiteke, istripua izan eta lesio larriak eragin.

- **Eskatu zerbitzu-lanak egitea CUPRA kontzesionario espezializatu bati, SEAT sareko edozein kontzesionariori edo baimendutako tailer espezializatu bati.**

KONTUZ

CUPRA ez da lan faltagatik edo tresnen erabilgarritasun eskasagatik ibilgailuan gertatutako kalteen erantzule izango.

Oharra

Ibilgailuan zerbitzu-lanak maiz egiteak autoaren balioa, funtzionamendu ona eta bidesegurtasuna mantentzen laguntzen du. Horretarako, CUPRAren jarraibideen araberako lanak eskatu.

Zerbitzu finkoa edo Zerbitzu malgua

Zerbitzuak **olio-aldaketarako zerbitzua** eta **ikuskapena** izan daitezke. Tresnen koadroko pantailako zerbitzu-tarteak hurrengo zerbitzua egiteko beharraren oroigarri gisa balio du.

Ibilgailuaren ekipamendua, motorizazioa eta erabilera baldintzen arabera, Olio-aldaketarako zerbitzuan **Zerbitzu finkoa** edo **Zerbitzu malgua** aplikatuko da.

Nola jakin dezaket nire ibilgailuak zer zerbitzu-mota behar duen

Ikus hurrengo tauletan:

Olio-aldaketarako zerbitzua[a)]		
PR zenbakia	Zerbitzu-mota	Zerbitzu-tartea
QI1	Finkoa	**5.000 km**-tik behin edo **urtebete** igarota[b)]
QI2		**7.500 km**-tik behin edo **urtebete** igarota[b)]
QI3		**10.000 km**-tik behin edo **urtebete** igarota[b)]
QI4		**15.000 km**-tik behin edo **urtebete** igarota[b)]
QI6	Malgua	Zerbitzu-tarteen adierazlearen arabera.

[a)] Datuak erabilera normalaren baldintzetan oinarritzen dira.
[b)] Aurrez betetzen denaren arabera.

Ikuskapen Zerbitzua[a)]
Zerbitzu-tarteen adierazlearen arabera.

[a)] Datuak erabilera normalaren baldintzetan oinarritzen dira.

Zerbitzu malguaren zehaztasuna

Zerbitzu malguaren kasuan, ibilgailuak behar duenean bakarrik behar duzu olioa aldatzeko zerbitzu bat. Noiz egitea komeni den kalkulatzeko, gizabanakoaren erabilera-baldintzak eta gida-estiloa hartuko dira kontuan. Zerbitzu malguaren osagai garrantzitsu bat iraupen luzeko olioa (LongLife) erabiltzea da, motor-olio arruntaren ordez.

Kontuan hartu motor-olioaren zehaztapenei buruzko informazioa VW arauaren ››› 352. orrialdea arabera.

Zerbitzu malgua nahi ezean, Zerbitzu finkoa aukera dezakezu. Hala ere, zerbitzu finko batek zerbitzu-gastuetan eragin dezake. Zerbitzu-aholkulariak atseginez aholkatuko zaitu.

Zerbitzu-tarteen adierazlea

CUPRAn, zerbitzuen datak tresnen koadroko zerbitzu-tarteen adierazlearen bidez ››› 31. orrialdea edo infotainment sistemako **Ajustes del vehículo** menuan adierazten dira ››› 38. orrialdea.

Zerbitzu-tarteen adierazleak motorraren olio-aldaketa edo ikuskapen bat barne hartzen duten zerbitzuen daten inguruko informazioa ematen du. Dagokion zerbitzua burutzeko unea iristen denean, beharrezkoak diren beste lan batzuk ere egin ahalko dira, freno-likidoaren eta bujien aldaketa, esaterako.

Erabilera-baldintzei buruzko informazioa

Preskribatutako zerbitzu-tarteak eta -multzoak **erabilera normalaren baldintzetan**oinarritzen dira orokorrean.

Aldiz, ibilgailua **erabilera baldintza txarretan** erabiltzen bada, beharrezkoa izango da hurrengo zerbitzu-tartea bete aurretik edo preskribatutako zerbitzu-tarteen artean, lan batzuk burutzea.

Erabilera baldintza txarrak dira, besteak beste:

- Sufre indize altua duen erregai bat erabiltzea.
- Ibilbide laburrak maiztasunez egitea.
- Taxien kasuan bezala, motorra denbora luzez ralentian uztea.
- Ibilgailua hauts asko dagoen lekuetan erabiltzea.
- Atoiarekin maiz bidaiatzea (ekipamenduaren arabera).
- Ibilgailua erabiltzea batez ere aldizkako geldialdiak dituen trafiko handiko egoeretan, adibidez, hirian.
- Ibilgailua batez ere neguan erabiltzea.

Batez ere ondorengo osagaientzat balio du honek (ekipamenduaren arabera):

- Hauts eta polenaren iragazkia
- Air Care alergeno-iragazkia
- Airearen iragazkia
- Horzdun uhala
- Partikula-iragazkia
- Motorreko olioa

Zure tailer espezializatuko aholkulariak atseginez aholkatuko zaitu zerbitzu-tarte normalen artean lanak tartekatzeko beharraren inguruan, beti zure ibilgailuaren erabilera baldintzak kontuan izanda.

⚠ ADI

Zerbitzuak ez badira nahikoak edo egiten ez badira, eta zerbitzu-tarteak betetzen ez badira, ibilgailua trafikoaren erdian gera daiteke, istripua izan eta lesio larriak eragin.

- **Eskatu zerbitzu-lanak egitea CUPRA kontzesionario espezializatu bati, SEAT sareko edozein kontzesionariori edo tailer espezializatu bati.**

ⓘ KONTUZ

CUPRA ez da lan faltagatik edo tresnen erabilgarritasun eskasagatik ibilgailuan gertatutako kalteen erantzule izango.

Zerbitzu-multzoak

Zerbitzu-multzoek bide-segurtasuna eta ibilgailuaren erabilera ona bermatzeko beharrezkoak diren **mantentze lan** guztiak barne hartzen ditu (**ibilgailuaren erabilera baldintza eta ekipamenduaren arabera**, adibidez, motorraren, aldagailuaren edo likido operagarriena).

Mantentze-lanak *ikuskapen-lanak* eta *azterketa lanak* dira. Kontsultatu zure ibilgailuarentzat beharrezkoak diren lanen xehetasunak:

- Zure CUPRA kontzesionarioa
- SEAT sareko zure kontzesionarioa
- Zure tailer espezializatua

Baliteke, arrazoi teknikoengatik (osagaien garapen iraunkorra) zerbitzu-multzoak aldatzea. Zure CUPRA kontzesionario espezializatuak, SEAT sareko edozein kontzesionariok edo tailer espezializatu batek unean uneko edozein aldaketaren inguruko informazioa jasotzen du.

Zerbitzu gehigarrien eskaintzak

Homologatutako ordezkoak

SEAT Ordezko originalak ibilgailu hauetarako eginak dira, eta segurtasun-faktorea bereziki kontuan izanik homologatuta daude. Pieza hauek zehatz-mehatz jarraitzen diete diseinua, neurrien zehaztasuna eta materialei buruz fabrikatik datozen aginduei. SEAT Ordezko Originalak zure ibilgailuarentzat esklusiboki eginda daude. Hori dela eta, beti SEAT Ordezko Originalak erabiltzea gomendatzen dizugu. SEAT ez da beste fabrikatzaile batzuen piezen segurtasun eta egokitasunaz arduratuko.

Homologatutako truke-piezak

Homologatutako truke-piezek, fabrikatzailearen jarraibideei jarraituz, zuretzat beste zerbitzu bat osatzen dute multzo osoak ordezkatzeko aukerarekin, ezagunenak izanik: motor arina, abiadura-kaxak, kulatak, agindu unitateak, elementu elektrikoak, etab.

Pieza hauek, noski, **Pieza homologatuak** dira, eta fabrikakoen baldintza berekoak direnez, Homologatutako ordezkoen bermea dute.

Osagarri originalak

Zure ibilgailuan CUPRA Osagarri Originalak eta SEATek homologatutako osagarriak soilik erabiltzea gomendatzen dugu. Osagarri horien fidagarritasuna, segurtasuna eta egokitasuna bereziki mota hauetako ibilgailuetarako egiaztatuta dago. CUPRA ez da beste fabrikatzaile batzuen piezen segurtasun eta egokitasunaz arduratuko.

Mugikortasun Zerbitzua (Service Mobility)

Zure CUPRA berria erosten duzunetik, Mugikortasun Zerbitzuaren abantailak eta estaldurak izango dituzu.

Erosketaren ondorengo lehen bi urteetan, zure CUPRA berria automatikoki estaltzen du Mugikortasun Zerbitzuak, kostu gehigarririk gabe.

Zerbitzu horretaz gozatzen jarraitu nahi baduzu, Mugikortasun Zerbitzua handitu dezakezu, betiere CUPRA Zerbitzu espezializatu batean edo SEAT Zerbitzu Ofizial batean gomendatutako Ikuskapen edo Mantentze Zerbitzuak egiten badituzu.

Matxura edo istripu baten ondorioz zure CUPRA ibilgetuta geratzen bada, gure laguntza-zerbitzuei esker beti mugimenduan edukiko zaitugu,

Errepara ezazu Mugikortasun Zerbitzua desberdina dela ibilgailua saldu den herrialdearen arabera. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu zure CUPRA kontzesionario espezializatuan, SEAT sareko edozein kontzesionariotan edo CUPRAk zure herrialdean duen web orrian.

Ibilgailua mantentzea eta garbitzea

Oinarrizko oharrak

Erregulartasun eta profesionaltasunez burututako mantentze-lanek zure ibilgailuaren balioa mantentzea ziurtatzen dute. Gainera, karrozeriako pinturan korrosio eta kalteak dauden kasuetan berme-eskubidea eskatzeko ezinbesteko baldintza bihurtu daiteke.

Tailer espezializatuek beharrezkoak diren mantentze-produktuak dituzte. Mesedez, kontuan izan ontzietan ageri diren erabilera jarraibideak.

⚠ ADI

- **Mantentze-produktuak oker erabiltzea osasunerako kaltegarria izan daiteke.**
- **Mantendu, beti, mantentze-produktuak leku seguru batean eta haurren helmenetik kanpo. Intoxikazio-arriskua!**

Ingurumenari buruzko oharra

- **Mantentze-produktuak erostean, aukeratu ingurumenarekin bateragarriak direnak.**
- **Mantentze-produktuen hondakinak ez bota etxeko zaborrontzira.**

Ibilgailua garbitzea

Deposituak garbitzeko zenbat eta denbora gehiago eman, adibidez, intsektuen hondakinak, txorien gorotzak, zuhaitzen erretxina edo ibilgailuari itsatsi zaizkion izotz-kontrako gatzak, orduan eta kalte handiagoak jasan ditzake gainazalak. Tenperatura altuek, eguzki erradiazioaren ondorioz, esaterako, kaltea indartzen dute.

Garbitu aurretik bigundu zikinkeria lodia ur askorekin.

Inkrustatutako zikinkeria garbitzeko, adibidez, intsektuen gorotzak edo zuhaitzaren erretxina, onena ur asko eta mikrozuntzezko zapi bat erabiltzea da.

Neguan, izotz-kontrako gatzen garaia amaitzen denean, garbitu ibilgailuaren azpialdea ere.

Presio handiko garbiketa-tresnak

Ibilgailua presio handiko garbiketa tresna batekin garbituz gero, kontuan izan tresna horren erabilera jarraibideak. Aurrekoa, batez ere, ur-zurrusta aplikatzerakoan ibilgailuarekiko dagoen presioa eta distantziarako baliagarria da.

Ez orientatu zurrustada zuzenean alboko kristalen, ateen, kristalezko sabaiaren edo estalkien junturetara; gauza bera gertatzen da pneumatikoetarako, gomazko hodi malgueta-rako, material insonorizatzaileetarako, sentsoreetarako edo kameren lenteetarako. Gutxienez mantendu 40 cm-ko distantzia.

Ez kendu elurra eta izotza presio handiko garbiketa tresna batekin.

Inoiz ez erabili lainoztagailu zirkularrik edo fresarik zikinkeria kentzeko.

Urak ez du egon behar 60°C-tik gorako tenperaturan.

Garbiketa-tunel automatikoak

Garbitzen hasi baino lehen, busti ibilgailua.

Ziurtatu leihatilak eta kristalezko sabaia itxita eta haizetako-garbigailuak desaktibatuta daudela. Kontuan izan garbiketa-tuneleko langileak emandako jarraibideak, batez ere ibilgailutik bereiz daitezkeen piezak badaude.

Ahal dela, erabili eskuilarik gabeko garbiketa-tunelak.

Eskuz garbitzea

Garbitu ibilgailua goitik behera belaki leun batekin edo garbitzeko eskuila batekin. Erabili disolbatzailerik gabeko garbiketa-gaiak.

Leunketa

Leunketa soilik izango da beharrezkoa ibilgailuaren pinturak distira galtzen duenean eta hori kontserbazio-produktuekin ezin denean berriro lortu.

Ez leundu matez pintatutako gainazalak! Pinturari distira ateratzen bazaio, azala hondatu egingo da eta ezin izango da konpondu.

Pintura mateko ibilgailuak eskuz garbitzea

Garbitzean ibilgailua ez kaltetzeko, kendu aurretik hautsa eta zikinkeria handiena. Intsektu-aztarnak, koipe-orbanak eta hatz-markak kentzeko, pintura materako garbigarri berezi bat erabiltzea da hoberena.

Eman produktua mikrozuntzezko zapi batekin. Pinturaren gainazala ez kaltetzeko, ez erabili gehiegizko presioarekin.

Garbitu ur askorekin. Ondoren, garbitu garbigarri neutro batekin eta mikrozuntzezko zapi leun batekin.

Kendu ibilgailuko xaboia ur askorekin eta, jarraian, utzi aire zabalean lehortzen. Kendu balizko ur-arrastoak larruzko zapi batekin.

⚠ ADI

- **Garbitzean, utzi piztu gabe ibilgailua edo jarraitu garbiketa-tuneleko langileen jarraibideei. Istripu-arriskua!**
- **Azpialdea edo gurpil-etxeen barnealdea garbitzen baduzu, babes zaitez metalezko pieza zorrotzetatik. Ebakitzeko arriskua!**
- **Garbitu ostean, baliteke balaztek denbora gehixeago behar izatea balaztatzeko, hezetasuna dela-eta, edo neguan, balazta-diskoak edo -pastillak izoztu direla-eta. Istripu-arriskua! Egoera horretan, behin eta berriro balaztatu beharko da balaztak lehortu arte.**

⚠ ADI

Presio handiko garbiketa-ekipoak behar bezala ez erabiltzeak kalteak eragin ditzake. Horrek istripuak eta lesio larriak eragin ditzake.

- **Ez zuzendu inoiz goi-presioko garbiketa-ekipoaren zorrotada zuzenean laranja kolore-reko goi-tentsioko kableetara, goi-tentsioko sistemako osagaietara edo ibilgailuaren barruko 12 volteko sarera.**

ⓘ KONTUZ

- **Ibilgailua garbiketa-tunel automatikoan garbitzen baduzu, kanpoko atzerako ispiluak tolestu beharko dituzu, kaltetu ez daitezen. Elektronikoki soilik tolestu/zabaldu behar dira elektrikoki tolesten diren kanpoko atzerako ispiluak!**
- **Ez garbitu ibilgailua, eguzki-izpi indartsuetan izan baduzu. Pintura kaltetzeko arriskua!**
- **Ez erabili belakirik, gainazal latza duen sukaldeko belakirik edo antzekorik intsektu-arrastoak garbitzeko. Gainazala kaltetzeko arriskua!**
- **Pintura matea duten ibilgailuen piezak:**
  - **Ez erabili distirarazlerik edo argizari gogorrik. Gainazala kaltetzeko arriskua!**
  - **Ez hautatu inoiz argizaria duen garbiketa-programarik. Pintura matearen itxura kaltetu dezake.**
  - **Ez jarri eranskailurik edo errotulu magnetikorik pintura matearen gainean, kentzean pintura kalte baitezakete.**

Ingurumenari buruzko oharra

Xede horretarako tokietan soilik garbitu ibilgailua. Toki horiek prestatuta daude garbitzen erabilitako ura kanalizaziora joateko. Izan ere, ur hori olioz kutsatuta egon daiteke.

Kanpoko garbiketa

Jarraian, ibilgailuaren banakako osagaiak garbitzeko eta kontserbatzeko gomendio batzuk aurkituko dituzu.

Galdera bereziak egiteko edo aipatu ez diren osagaiei buruz galdetzeko, joan tailer espezializatura.

Hartu kontuan dagozkien oharrak ››› **388. orrialdea, *Kontuz ibili honekin*....**

Haizetako-garbigailuaren eskuilak

- *Zikinkeria:* Zapi leuna beira-garbigarriarekin.

Atzeko argiak/ikus-taldeak

- *Zikinkeria:* Belaki leuna xaboi-disoluzio neutroarekin[1].

Sentsoreak/Kameraren lenteak

- *Zikinkeria:*
  - *Sentsoreak*: zapi leuna disolbatzailerik ez duen garbiketa-produktuarekin.
  - *Kameraren lenteak*: zapi leuna alkoholik ez duen garbiketa-produktuarekin.
- *Elurra/Izotza:* Eskuzko eskuila/Disolbatzailerik gabeko izotzaren aurkako aerosola

Gurpilak

- *Izotz kontrako gatza:* Ura.
- *Balaztetako urradura-hautsa:* Azidorik gabeko garbigarri berezia

Amaierako ihes-hodiak

- *Izotz kontrako gatza:* Ura, altzairu findurako garbigarri egokia izatekotan, edo garbiketa-produktu ez urratzaile edo korrosibo bat.
- *Suciedad en las colas de escape pintadas:*[2] Garbitu urez bustitako oihal leun batekin edo garbigari ez-urratzaile edo korrosibo batekin.

Edergarriak / Moldura edergarriak

- *Zikinkeria:* Xaboi-disoluzio neutroa[1], eta, beharrezkoa balitz, altzairu findurako garbigarri egokia.

Pintura

- *Pinturaren narriadurak:* Kontsultatu pinturaren kolore-kodea kontzesionario batean, eta konpondu ukituak egiteko arkatz batekin.
- *Isuritako erregaia:* Garbitu berehala urarekin.
- *Giroko herdoila metatzea:* Eman giroko herdoila kentzekoa eta mantendu ondoren argizari gogorrarekin. Zalantzarik izanez gero, joan zure tailer espezializatura.
- *Korrosioa:* Eskatu zure tailer espezializatuari kentzeko.
- *Urak ez du perlarik sortzen pintura garbian:* Kontserbatu argizari gogorrarekin (gutxienez 2 aldiz urtean).
- *Distirarik gabe, kontserbatu bada ere/pintura ez oso itxurosoa:* Tratatu distira-emaile egokiarekin, eta, ondoren, eman pintura-kontserbagarria, emandako distira-emaileak ez badu kontserbatzeko osagairik.
- *Metaketak, adibidez, intsektu-arrastoak, txori-gorotzak, zuhaitzetako erretxina, izotzaren aurkako gatzak:* Beratu berehala urarekin eta kendu mikrozuntzezko zapi batekin.
- *Koipe-oinarria duen zikinkeria, adibidez, kosmetika-gaiak edo eguzkitako krema:* Kendu berehala xaboi-disoluzio neutro[1] batekin eta zapi leun batekin.

Karbono-zuntzezko piezak

- *Zikinkeria:* Garbitu pintatutako piezak bezala ››› **384. orrialdea**.

Xafla apaingarriak

- *Zikinkeria:* Belaki leuna xaboi-disoluzio neutroarekin[1].

---

[1] Xaboi-disoluzio neutroa: gehienez bi koilarakada handi 1 l uretan

[2] VZ5 bertsioa.

Barruko garbiketa

Jarraian, ibilgailuaren banakako osagaiak garbitzeko eta kontserbatzeko gomendio batzuk aurkituko dituzu.

Galdera bereziak egiteko edo aipatu ez diren osagaiei buruz galdetzeko, joan tailer espezializatura.

Hartu kontuan dagozkien oharrak ››› **388. orrialdea, *Kontuz ibili honekin*....**

Beirak

- *Zikinkeria:* Eman beira-garbigarria eta, ondoren, lehortu zapi batekin.

Edergarriak / Moldura edergarriak

- *Zikinkeria:* Xaboi-disoluzio neutroa[1].

Plastikozko piezak

- *Zikinkeria:* Zapi hezea.
- *Oso sartuta dagoen zikinkeria:* Xaboi-disoluzio neutroa[1], eta, beharrezkoa balitz, disolbatzailerik gabeko plastikorako garbigarria.

Pantailak/Tresnen koadroa

- *Zikinkeria:* Zapi leuna kristal likidozko pantailetarako garbigarriarekin.

Aginteen panelak

- *Zikinkeria:* Pintzel leuna eta, ondoren, zapi leuna xaboi-disoluzio neutroarekin[1].

Segurtasun-uhalak

- *Zikinkeria:* Xaboi-disoluzio neutroa[1], utzi lehortzen bildu baino lehen.

Ehunak, larru artifiziala, mikrozuntza

- *Gainazalean atxikitako zikintasun-partikulak:* Xurgagailua.
- *Ura oinarri duen zikinkeria, adibidez, kafea, tea edo odola:* Zapi xurgatzaile bat eta xaboi-disoluzio neutroa[1].
- *Koipea oinarri duen zikinkeria, adibidez, olioa edo makillajea:* Eman xaboi-disoluzio neutroa[1]. Xurgatu disolbatutako koipearen eta pinturaren partikulak, zapi xurgatzaile batekin ukitu txikiak emanez, eta, beharrezkoa balitz, urarekin tratatu gero.
- *Zikinkeria berezia, adibidez, boligrafoa, azkazaletako esmaltea, dispertsio-pintura edo betuna:* Orban-kentzeko berezia; lehortu zapi xurgatzaile batekin ukitu txikiak emanaz eta, beharrezkoa balitz, tratatu xaboi-disoluzio neutroarekin gero[1].

Larru naturala

- *Duela gutxiko zikinkeria:* Kotoizko zapia xaboi-disoluzio neutroarekin[1].
- *Ura oinarri duen zikinkeria, adibidez, kafea, tea edo odola:*
  - *Duela gutxiko zikinkeria:* zapi xurgatzailea.
  - *Orban lehorrak:* larrurako orban-kentzeko egokia.
- *Koipea oinarri duen zikinkeria, adibidez, olioa edo makillajea:*
  - *Duela gutxiko zikinkeria:* zapi xurgatzailea eta larrurako orban-kentzeko egokia.
  - *Orban lehorrak:* koipea disolbatzen duen aerosola.
- *Zikinkeria berezia, adibidez, boligrafoa, azkazaletako esmaltea, dispertsio-pintura edo betuna:* Larrurako orban-kentzeko egokia.
- *Kontserbatzea:* Eman maiz eguzkiaren izpietatik babestuko duen eta inpregnatzeko efektua izango duen krema kontserbagarria. Beharrezkoa balitz, erabili kolore egokia duen krema kontserbagarria.

Karbono-zuntzezko piezak

- *Zikinkeria:* Garbitu plastikozko piezak bezala.

---

[1] Xaboi-disoluzio neutroa: gehienez bi koilarakada handi 1 l uretan.

Kontuz ibili honekin...

Atzeko argiak/ikus-taldeak

- Ez garbitu inolaz ere atzeko argiak/ikus-taldeak zapi edo belaki lehor batekin.
- Ez erabili alkohola duen garbigarririk. Arrakalak sor litezke!

Gurpilak

- Ez erabili pinturarako distirarazlerik edo beste produktu urratzailerik.
- Haguneko pinturaren babes-geruza kaltetu bada, adibidez, harriekin talka egiteagatik edo urradurengatik, kaltea berehala konpondu beharko da.

Kameraren lenteak

- Ez erabili inoiz ur epel edo berorik lentetik elurra edo izotza kentzeko. Arrakalak sor litezke lentean!
- Ez erabili inoiz garbigarri urratzailerik edo alkohola dutenik kameraren lentea garbitzeko. Urradurak arrakalak sor litezke!

Beirak

- Kendu beiretan eta kanpoko atzerako ispiluetan egon litekeen elurra eta izotza plastikozko arraspa batekin. Garbitzean urradurak egitea saihesteko, ez mugitu arraspa aurrera eta atzera, noranzko batean baizik.
- Ez kendu inoiz beiretako eta kanpoko atzerako ispiluetako elurra edo izotza ur epel edo beroarekin. Arrakalak sor litezke beiran!
- Atzeko lunetako berokuntza ez kaltetzeko, ez da eranskailurik itsatsi behar berokuntzako harizpien gainean.

Edergarriak / moldura edergarriak

- Ez erabili kromoa duen mantentze-produkturik edo garbigarririk.

Pintura

- Distirarazlea edo mantentze-produktuak eman aurretik, Ibilgailuak garbi eta hautsik gabe egon behar du. Urradurak egin litezke!
- Ibilgailua eguzki-erradiazio handiaren mende badago, ez eman distirarazlerik edo mantentze-produkturik. Pintura kaltetzeko arriskua!
- Giroko herdoilaren metatzeak ez dira leunketa bidez kendu behar. Pintura kaltetzeko arriskua!
- Kendu berehala kosmetika-produktuak eta eguzkitako krema. Pintura kaltetzeko arriskua!

Pantailak/Tresnen koadroa

- Pantailak, tresnen koadroa eta inguratzen duen edergarria ez dira lehorrean garbitu behar. Urradurak egin litezke!
- Garbitzen hasi baino lehen, ziurtatu tresnen koadroa itzalita eta hoztuta dagoela.
- Ziurtatu ez dela likidorik sartzen tresnen koadroaren eta edergarrien artean. Kaltetzeko arriskua!

Aginteen panelak

- Ziurtatu ez dela likidorik sartzen aginteen paneletan. Kaltetzeko arriskua!

Segurtasun-uhalak

- Ez desmuntatu segurtasun-uhalak garbitzeko.
- Segurtasun-uhalak eta haren osagaiak ez dira inoiz produktu kimikoekin garbitu behar eta, halaber, ez dira tratatu behar ezaugarri kaustikoak dituzten likidoekin, disolbatzaileekin edo objektu zorrotz edo puntadunekin. Ehuna kaltetzeko arriskua!
- Eskatu zure tailer espezializatuari segurtasun-uhalak aldatzeko, baldin eta ehunean, loturetan, birbiltzeko gailu automatikoetan edo lotzeko zatian kalteren bat badute.

Ehunak/larru artifiziala/mikrozuntza

- Ez tratatu larru artifiziala/mikrozuntza larrua zaintzeko produktuekin, disolbatzaileekin, zorurako argizariarekin, betunarekin, orbanak kentzekoarekin edo antzeko produktuekin.
- Orbana kentzeko zaila bada, joan zure tailer espezializatura, eta han ken diezazutela. Horrela, ez da kaltetuko.

- Ez erabili inola ere lurrunezko garbigarririk, eskuilarik, belaki gogorik eta abar garbitzeko.
- Ez aktibatu eserlekuetako berogailua eserlekuak lehortzeko.
- Arropetako objektu puntadunek gainazala kaltetu dezakete, adibidez, kremailerek, arroparen erematxeek edo gerrikoek.
- Lotu gabeko belkro-itxigailuek (adibidez, arropakoek) eserlekuaren tapiza kaltetu dezakete. Ziurtatu belkro-itxigailuak itxita daudela.

Larru naturala

- Ez tratatu larrua inoiz ere disolbatzaileekin, zorurako argizariarekin, betunarekin, orbanak kentzekoarekin edo antzeko produktuekin.
- Arropetako objektu puntadunek gainazala kaltetu dezakete, adibidez, kremailerek, arroparen erematxeek edo gerrikoek.
- Ez erabili inola ere lurrunezko garbigarririk, eskuilarik, belaki gogorik eta abar garbitzeko.
- Ez aktibatu eserlekuetako berogailua eserlekuak lehortzeko.
- Ahal dela, ez utzi ibilgailua denbora luzez eguzkitan, larruak kolorea gal ez dezan. Ibilgailua debora luzez aire librean aparkatuta utziz gero, larrua estali egin behar litzateke eguzki-izpietatik babesteko.

⚠ ADI

Haizetakoa ez da tratatu behar beirarako ur-oinarri duten estaldura-produktu iragazgaitzekin. Ikuspen txarra izanez gero, adibidez, hezetasunarekin, ilunpetan edo eguzkia puntu baxuenean dagoenean, baliteke gehiago itsutzea. Istripu-arriskua! Gainera, baliteke haizetakoaren eskuilak zarata ateratzea.

ⓘ Oharra

- **Intsektu-arrastoak askoz errazago ken daitezke mantentze-tratamendua jaso berri duen pinturatik.**
- **Ohiko mantentze-tratamenduei esker, zailagoa da giroko herdoila metatzea.**

Ibilgailua zirkulaziotik ateratzea

Ibilgailua denbora luzez geldi utzi nahi baduzu, joan tailer espezializatu batera. Atseginez aholkatuko dizute zein neurri hartu behar dituzun, hala nola, korrosioaren aurka babesteko, zerbitzurako eta gordetzeko.

Gainera, kontuan hartu ibilgailuko bateriari buruzko argibideak **››› 355. orrialdea** , **››› 355. orrialdea**, ***Gaiaren aurkezpena***.

Osagarriak, ordezko piezak eta konponketa-lanak

Gaiaren aurkezpena

Informatu zaitez ongi-ongi osagarriak eta ordezko piezak erosi baino lehen.

Zure ibilgailuak segurtasun aktibo eta pasibo handia ematen du. CUPRA zerbitzu espezializatu batera edo SEAT zerbitzu ofizial batera joatea gomendatzen dizugu zure ibilgailuan osagarriak muntatu nahi badituzu edo piezaren bat aldatu behar baduzu. Zerbitzu ofizialak poz-pozik emango dizu egokitzapen-mailaren eta legezko xedapenen berri, eta fabrikako aholkuak emango dizkizu osagarriei eta ordezko piezei buruz.

CUPRA osagarriak eta **CUPRA® jatorrizko piezak** erabiltzea gomendatzen dizugu. Normala denez, CUPRA edo SEAT Zerbitzu Ofizialek bermatzen dute muntaketa profesionaltasun oso handiarekin egiten dela.

Merkatua etengabe behatu arren, CUPRAk ezin du epaitu **CUPRAk baimendu gabeko** produktuek fidagarritasun-, segurtasun- eta gaitasun-baldintzak betetzen dituzten ibilgailuarentzat. Horregatik, CUPRAk ez du inolako erantzukizunik izango produktu horiengatik, nahiz eta, kasu zehatz batzuetan, ofizialki onartutako ikuskapen teknikoko institutu baten edo erakunde ofizial baten baimena izan.

Ibilgailuaren kontrolean eragin zuzena izateko, **ondoren instalatu diren ekipoek** (adibidez, abiadura-erregulagailu bat edo **erregulazio elektronikoa duen esekidura bat**) **e** bereizgarria eraman behar dute (Europar Batasunaren baimen-ikurra) eta ibilgailu horretan erabiltzeko homologatuta egon behar dute.

Ibilgailuaren kontrol zuzena hartzeko helburua ez duten **gailu elektriko gehigarriek**, adibidez, hozkailu eramangarriak, ordenagailuak edo haizagailuak) CE bereizgarria eraman behar dute (fabrikatzailearen adostasun- adierazpena Europar Batasunean).

⚠ ADI

Ez da inoiz airbagen estalkian edo jarduera-eremuan osagarririk muntatu behar, besteak beste, telefonoak eta edariak jartzeko euskarriak. Bestela, istripu izanez gero airbaga irekitzen bada, lesioak pairatzeko arriskua dago.

Aldaketa teknikoak

Osagai elektrikoetan, beren programazioan, kable-sarean edo datu-transferentzian nolabait esku hartzen bada, gerta daiteke horiek txarto funtzionatzea.

Mesedez eskatzen dizugu ulertzea zure CUPRA kontzesionario espezializatuak edo zure SEAT sareko kontzesionarioak ezin dituela ibilgailuan lanak modu ezegokian egiteagatik sortutako kalteak bere gain hartu.

Horregatik gomendatzen dizugu eskatzea CUPRA Zerbitzu espezializatuei edo SEAT Zerbitzu Ofizialei beharrezko konponketak **CUPRA jatorrizko piezak** erabiliz egiteko®.

⚠ ADI

Zure ibilgailuan egindako aldaketa edo konponketa ezegokiek arazoak eragin ditzakete haren funtzionamenduan, eta, hala, istripu-arriskua sortu.

Irrati-telefonoak eta bulegoko ekipamenduak

Instalazio finkoko irrati-telefonoak

Ibilgailuan irrati-telefonoak muntatu aurretik, oro har, baimena eskatu behar da. CUPRAk ibilgailuan baimendutako irrati-telefonoak muntatzea autorizatzen du, honako baldintza hauetan:

- Antena zuzen instalatu da.
- Antena bidaiari-lekutik kanpo kokatzen bada (kable blindatu bat erabiliz eta antenaren islatzearen aurkako egokitzapena eginez).
- Antenaren oinarriaren igorpen-potentzia efektiboa 10 watt baino txikiagoa bada.

Irrati-telefonoak igorpen-potentzia handiagoarekin muntatu eta erabiltzeari buruzko informazioa jaso nahi baduzu, joan zure CUPRA Zerbitzu espezializatura edo zure SEAT Zerbitzu Ofizialera edo galdetu tailer espezializatuetan.

Irrati-telefono mugikorrak

Telefono mugikorrak edo irrati-telefono konbentzionalak erabiltzen badira, ibilgailuaren sistema elektronikoetan interferentziak egon daitezke. Arrazoiak honako hauek izan daitezke:

- Kanpoko antenarik gabeko ibilgailua.
- Gaizki instalaturiko kanpoko antena.
- 10 watt-etik gorako igorpen-potentzia.

Hortaz, ez da telefono mugikorrik ezta irrati-telefonorik erabili behar *ibilgailuaren barruan*, kanpoko antenarik gabe edo kanpoko antena gaizki instalatu bada ››› ⚠.

Gainera, kontuan izan gailuak *kanpoko* antena batekin soilik lortzen duela irismenik handiena.

Bulego-ekipoak

Baimenduta dago etxe- eta bulego-ekipoak ibilgailuan ondoren instalatzea, baldin eta horiek gidariak ibilgailua kontrolatzeko oztopo ez badira eta CE bereizgarria badute. Ondoren muntatutako ekipoek, gidariari ibilgailua kontrolatzeko oztopo egin badiezaiokete, ibilgailu horretarako homologazio egokia izan behar dute, bai eta **e** bereizgarria.

⚠ ADI

Kanpoko antenarik ez duen edo kanpoko antena gaizki instalatua duen ibilgailu baten barruan telefono mugikorrak edo irrati-telefonoak erabiltzea kaltegarria izan daiteke osasunerako, eremu magnetiko gehiegi sor ditzakeelako.

Oharra

- Ibilgailu honetan ondoren tresna elektriko edo elektronikoak muntatzeak eragina du beraren lizentzian eta, baldintza zehatzetan, ibilgailuak zirkulazio-baimena galtzea ere eragin dezake.
- Mesedez, telefono mugikorrak eta irrati-telefonoak erabiltzeko, jarraibideak kontuan hartzea eskatzen dizugu.

Erabiltzailearentzako informazioa

Bermea

Matxura gabeko erabileraren bermea

CUPRA Zerbitzu espezializatuek edo SEAT Zerbitzu Ofizialek fabrikako ibilgailu berrien egoera egokia bermatzen dute. Kontsultatu baldintzen xehetasunak eta bermearen epeak egiaztatzen diren Zerbitzu Teknikoak emandako salerosketa kontratuan edo dokumentazio gehigarrian. Lortu horren inguruko informazio gehiago zure CUPRA Zerbitzu espezializatuan edo SEAT Zerbitzu Ofizialean.

Berme komertziala ibilgailu elektriko eta hibridoen goi-tentsioko baterietarako

Lehen aipatutako lege- eta merkataritza-bermeak osatuz, SEAT Zerbitzu Ofizialek goi-tentsioko baterietarako merkataritza-bermea, herrialde askotan existitzen dena, ere ematen dute.

Kontsultatu berme honen xehetasunak salerosketa-kontratuan edo joan SEAT zerbitzu ofizial batera.

Kontrol-unitateek memorizatutako informazioa

Istripuen datuak biltegiratzea (Event Data Recorder)

Ibilgailuak badu istripu-datuak biltegiratzeko (EDR) gailu bat.

EDR gailuak istripu arinen edo larrien datuak erregistratzea du helburu. Ibilgailuaren hainbat sistemaren portaera nolakoa izan den aztertzen laguntzeko balio dute datu horiek.

EDR gailuak gidatzeari buruzko datu dinamikoak eta atxikipen-sistemei buruzko datuak erregistratzen ditu denbora-tarte labur batez (normalean, 10 segundoz edo gutxiagoz), hala nola:

- Nola funtzionatu duten ibilgailuko hainbat sistemak.
- Gidariak eta gainerako bidaiariek segurtasun-uhala jantzita zeramaten.
- Nola sakatu den azeleratzeko edo balaztatzeko pedala.
- Ibilgailuaren abiadura.
- GPS posizioa.

Datu horiei esker, hobeto ulertzen da zein baldintzatan gertatu den istripua.

Orobat, gidatzen laguntzeko sistemen datuak erregistratzen dira. Besteak beste, honelako datuak: sistemak aktibatu gabe edo aktibatuta zeuden, eta beren jarduerak eragina izan ote duen ibilgailuaren portaera dinamikoan, aurrez azaldutako egoeretan ibilbidea desbideratuz, azeleratzea edo desazeleratzea.

Ibilgailuaren ekipamenduaren arabera, sistema-datu hauek ere gehituko dira:

- ibilgailuaren barruko kontrol moldatzailea
- errei-irteeraren abisu-laguntzailea
- aparkatzeko laguntzaileak
- larrialdi-balaztaren funtzioak

EDR gailuaren datuak istripuetan soilik geratzen dira erregistratuta. Gidatze-baldintza normaletan, ez da daturik erregistratzen.

Ez da erregistratzen ibilgailuaren barneko edo inguruko audio- edo bideo-daturik. Inolaz ere ez da datu pertsonalik erregistratzen, hala nola izena, adina edo sexua. Alabaina, baliteke hirugarrenek (zigor-prozesamenduko agintariak, esaterako) EDR gailuko edukia beste datu-iturburu batzuekin erlazionatzea eta erreferentzia pertsonal bat sortzea istripuak ikertzeko testuinguruan.

Legeen aginduz EDR gailuko datuak irakurtzeko, ibilgailua piztuta dagoela atzitu behar da zure ODB interfazea (“On-Board-Diagnose”).

CUPRAk ezingo du EDR daturik atzitu, jabeak (edo “Leasing” kasuetan, errentariak) hala onesten duen kasuetan izan ezik. Baliteke lege- edo kontratu-xedapenen araberako salbuespenak izatea.

Segurtasunarekin lotutako lege-eskakizunak direla-eta, CUPRAk EDR datuak erabili ahal izango ditu ikertzeko eta ibilgailuaren sistemen kalitatea hobetzeko. Ikerketarako erabilitako datuak era anonimoan tratatuko dira (adibidez, ibilgailuari, jabeari edo errentatzaileari erreferentziarik egin gabe).

Ibilgailuaren antenak

Infotainment sistema eta antenak

Infotainment sistemarako antenak ibilgailuaren hainbat leku desberdinetan daude:

- Sabaian.
- Haizetakoan, beiraren geruzen artean.
- Lunetan eta leihatiletan, inprimatutako antenen egiturarekin ››› ⓘ.

ⓘ KONTUZ

Objektuen igurtziak edo produktu korrosiboak edo azidoak dituztenak erabiltzeak lunetan eta leihatiletan dauden inprimatutako antenen egitura hondatu ditzakete.

- **Ez itsatsi itsasgarririk lunetaren eta leihatilen inguruan.**
- **Ez garbitu inoiz antenen egitura produktu korrosiboekin edo azidoak dituztenekin.**

Materialen eta birziklatzearen inguruko informazioa

Ingurumen-bateragarritasuna

Ingurumenarekiko errespetua oso garrantzitsua da zure CUPRA berriaren diseinuan, materialen hautaketan eta fabrikazioan.

Birziklatzearen alde egiteko eraikitze-neurriak

- Erraz desmuntatzen diren akoplatzeak eta loturak.
- Desmuntatze sinplifikatua diseinu modularrari esker.
- Material-nahasketak murriztea.
- Plastikozko piezak eta elastomeroak ISO 1043, ISO 11469 eta ISO 1629 arauen arabera markatzea.

Materialen hautaketa

- Birziklatutako materialak erabiltzea.
- Plastiko bateragarriak erabiltzea multzo baten barruan hura osatzen duten osagaiak erraz banatu badaitezke.
- Jatorri berriztagarriko eta/edo birziklatutako materialak erabiltzea.
- Osagai lurrunkorrak murriztea, baita usaina ere, material plastikoetan.
- CFC gabeko eragile hozgarriak erabiltzea.

Legeak bildutako salbuespenak aintzat hartuta (VFU 2000/53/CE Arauaren II. Eranskina), metal astunak erabiltzeko debekua:kadmio, beruna, merkurio, kromo hexabalentea.

Fabrikazioa

- Disolbagarri gutxiago erabiltzea baoak babesteko argizarietan.
- Film plastikoa erabiltzea ibilgailuak garraiatzeko babesle gisa.
- Disolbagarririk gabeko itsasgarriak erabiltzea.
- CFC gabeko eragile hozgarriak erabiltzea hotza sortzeko sistemetan.
- Hondakinak birziklatzea eta energia berreskuratzea (CDR).
- Hondakin-uren kalitate hobea.
- Hondakin-beroa berreskuratzeko sistemak erabiltzea (berreskuragailu termikoak, gurpil entalpikoak, etab.).
- Ur-oinarria duten pinturak erabiltzea.

Gailu elektrikoak eta elektronikoak birziklatzea

Autoan modu iraunkorrean muntatu gabeko gailu elektriko edo elektroniko (GEE) guztiek ikur hau izan behar dute estanpatuta ezaba ezin daitekeen eran:

Ikur horrek adierazten du ez dela bota behar GEErik etxeko zaborretara, eta gaikako bilketa egiten duen gune batera eraman behar direla.

Produktuak birziklatzea

Ingurumenari buruzko oharra

Triman logotipoak eta Infotri sinboloak azken kontsumitzailea sailkatzeko informazio garrantzitsua dute.

Italia. Ingurumen-etiketa sistema

116. legegintzako dekretuak (2020ko irailaren 3koa), hondakinei buruzko 2018/851 (EB) zuzentaraua eta bilgarriei eta bilgarrien hondakinei buruzko 2018/852 (EB) zuzentaraua barne hartzen dituenak, xedatzen du bilgarri guztiek behar bezala etiketatuta egon behar dutela, bilgarrien bilketa, berrerabilera, berreskurapena eta birziklapena errazteko, bai eta kontsumitzaileei bilgarrien azken helmugari buruzko informazio zuzena emateko ere.

Ibilgailuan dauden bilgarrien ingurumen-etiketa sistemari buruzko informazioa QR kode honen bidez eskura daiteke; kode horrek weborri batera zuzentzen du, eta bertan araudi horrek eskatzen duen informazioa aurki daiteke:

5FF-0085

Ekipo erradioelektrikoak

Adostasun-adierazpen soildua

Zure ibilgailuak ekipo erradioelektriko ugari ditu. Ekipo horien fabrikatzaileek aitortzen dute ekipoek 2014/53/EU Zuzentaraua betetzen dutela, legez hala eskatuz gero.

EBko adostasun-adierazpenaren testu osoa helbide elektroniko honetan dago eskuragarri:

www.cupraofficial.com/owners/your-cupra/certificates-of-conformity CE

Erresuma Batua

Zure ibilgailuak ekipo erradioelektriko ugari ditu. Ekipo horien fabrikatzaileek aitortzen dute ekipoek 2017ko UK Radio Equipment Regulations Zuzentaraua (SI 2017/1206), legez hala eskatuz gero.

Adostasun-adierazpenaren testu osoa Interneteko helbide honetan eskuragarri dago:

www.cupraofficial.com/owners/your-cupra/certificates-of-conformity

Ukrainia

Zure ibilgailuak ekipo erradioelektriko ugari ditu. Ekipamendu horien fabrikatzaileek adierazten dute ekipoek bete egiten dutela, betiere legez hala eskatzen bada, honako hau: Ukraine Decree 355/2017 (TR Radio equipment).

Adostasun-adierazpenaren testu osoa Interneteko helbide honetan eskuragarri dago:

www.cupraofficial.com/owners/your-cupra/certificates-of-conformity

Fabrikatzaileen helbideak

Jarraian, tamainagatik edo izaeragatik, eranskailu bat jarrita eraman ezin duten osagaien fabrikatzaileen helbideak adierazten dira, baldin eta legez hala egitea eskatzen bada:

Kontrol nagusiaren unitatea (BCM)

Robert Bosch GmbH/Braunschweig
Theodor-Heuss-Strasse 12
38122 - Braunschweig, Deutschland
Tel.: 0049 53188890

Keyless Access sistema

HELLA GmbH & Co. KGaA/Hamm
Roemerstr. 66
59075 - Hamm, Deutschland
Tel.: 0049 23817980

Antena techo

ASK Industries S.p.A
Via dell'Industria n.12/14/16
60037 Monte San Vito (AN), Italy
Phone: +3907174521
Website: www.askgroup.it

Mitsumi Electronics Europe GmbH
Siemensstrasse 32
63225 Langen, Germany
Phone: +49 (0) 6103913-0
Website: www.minebeamitsumi.co.jp

Molex CVS Hildesheim GmbH
Daimlerring 31
31135 Hildesheim, Germany
Phone: +49 3377 3160
Website: www.molex.com

Antena-anplifikadoreak

ASK Industries S.p.A
Via dell'Industria n.12/14/16
60037 Monte San Vito (AN), Italy
Phone: +3907174521
Website: www.askgroup.it

Hirschmann Car Communication GmbH
Stuttgarter Strasse 45-51
72654 Neckartenzlingen, Germany
Phone: +49 7127 140
Website: www.te.com

KATHREIN Automotive GmbH
Römerring 1
31137 Hildesheim, Germany
Phone: +498031184-0
Website: www.kathrein.com

Molex CVS Hildesheim GmbH
Daimlerring 31
31135 Hildesheim, Germany
Phone: +49 3377 3160
Website: www.molex.com

Nabigazio-antena

Hirschmann Car Communication GmbH
Stuttgarter Strasse 45-51
72654 Neckartenzlingen, Germany
Phone: +49 7127 140
Website: www.te.com

KATHREIN Automotive GmbH
Römerring 1
31137 Hildesheim, Germany
Phone: +498031184-0
Website: www.kathrein.com

Connectivity Box

Molex CVS Dabendorf GmbH
Märkische Strasse 72
15806 Zossen OT Dabendorf, Germany
Phone:+49 3377 3160
Website: www.molex.com

Funtsezko Infotainment sistema

Panasonic Automotive Systems Czech
U Panasonicu 266
530 06, Pardubice, Czech Republic

Hautazko Infotainment sistema

LG Electronics Mlawa SP
LG Electronics 7
06 500, Mlawa

Urrutiko agintea duen giltza

Digades GmbH Digitales Und Ana/Zittau
Äußere Weberstr. 20
02763 - Zittau, Deutschland
Tel.: 0049 358357750

Tresnen koadroa

Analogikoa SE38x/SE316
Visteon Electronics Germany GmbH
Visteonstr. 4-10
50170 Kerpen, Germany

Analogikoa gainerako modeloak
Continental Automotive Spain,S.A.
Rubí - Ullastrell errepidea, n° 12-30
08191 Rubí (Bartzelona - Espainia)

FPK (digitala)
Continental Automotive GmbH
VDO-Strasse 1,
64832 Babenhausen, Germany

Panasonic Automotive Systems Europe GmbH
Robert Bosch Str. 27-29
63225 Langen, Germany

Panasonic Automotive Systems Czech, s.r.o.
U Panasonicu 266
530 06, Pardubice, Czech Republic

Aurreko radar-sentsoreak

MRR SE38X-rako
Robert Bosch GmbH
Markwiesenstrasse, 46
72770 Reutlingen (Kusterdingen) Germany

MRR Tarraco, Ateca, Ibiza eta Arona-rako
Automotive Distance Control Systems GmbH
Peter-Dornier-Strasse, 10
88131, Lindau, Germany

Atzeko radar-sentsoreak

Hella GmbH & Co. KGaA
Rixbecker Straße 75
59552 Lippstadt (Germany)

Online Connectivity Unit

LG ELECTRONICS INC.
10, Magokjungang 10-ro,
Gangseo-gu, Seoul, Republic of Korea

Ekipo irrati-elektrikoa, maiztasun-banda, gehieneko potentzia igorlea

Jarraian CUPRAren modelo guztiek eduki ditzaketen ekipo irrati-elektrikoak[1] zehazten dira. Zerbait desberdina adierazten ez bada, datuek modelo guztietarako balio dute (aldaerak tauletako oin-oharren bidez adierazten dira).

Maiztasun-banda	Geh. potentzia igorlea
Irrati-maiztasunaren bidezko urrutiko kontrola duen giltza (ibilgailua)	
433,05-434,78 MHz	10 mW (ERP)
433,05-434,79 MHz	10 mW
434,42 MHz	32 µW

Irrati-maiztasunaren bidezko urrutiko kontrola (berogailu independentea)	
868,7-869,2 MHz (869,0 MHz)	25 mW
✓ Honako hauetarako balio du: Formentor	

Igorgailu-Hargailua (berogailu independentea)	
868,7-869,2 MHz (869,0 MHz)	23,5 mW
✓ Honako hauetarako balio du: Formentor	

Bluetooth	
2400-2483,5 MHz	10 dBm

Ibilgailuko kanpoko antenarako konexioa	
GSM 900: 880-915 MHz	33 dBm
GSM 1800: 1710-1785 MHz	30 dBm
WCDMA FDD I: 1920-1980 MHz	21 dBm
WCDMA FDD III: 1710-1785 MHz	21 dBm
WCDMA FDD VIII: 880-915 MHz	21 dBm
LTE FDD1: 1920-1980 MHz	23 dBm
LTE FDD3: 1710-1785 MHz	23 dBm
LTE FDD7: 2500-2570 MHz	23 dBm
LTE FDD8: 880-915 MHz	23 dBm
LTE FFD20: 832-862 MHz	23 dBm
✓ Honako hauetarako balio du: Leon, Formentor, Born	

Car2X-rako antena osagarria	
5855-5925 MHz	2 W PIRE
✓ Honako hauetarako balio du: Born	

Hari gabeko sargunea	
2400-2483,5 MHz	10 dBm

Keyless Access	
434,42 MHz	32 µW

Aurrealdeko laguntza-sistemetarako radar-sentsoreak	
76 GHz-77 GHz	28,2 dBm[a)]
	35,0 dBm[b)]

[a)] *Erabilgarri hauetarako: Leon, Formentor*
[b)] *Erabilgarri hauetarako: Ateca*

Atzealdeko laguntza-sistemetarako radar-sentsoreak	
24050-24250 MHz	20 dBm

Hari gabeko karga-funtzioa	
110-120 kHz	10 W

Tresnen koadroa	
125 kHz	40 dBµA/m

[1] Baliteke Europako zenbait herrialdetan teknologia erredioelektrikoa martxan jartzea edo hura erabiltzeko baimena mugatuta egotea, ezinezkoak izatea edo baldintza osagarriekin soilik posible izatea.

Online Connectivity Unit	
EGSM900: 880-915 MHz	33 dBm
DCS1800: 1710-1785 MHz	31 dBm
UMTS FDD 1: 1920-1980 MHz	24 dBm
UMTS FDD 3: 1710-1785 MHz	24 dBm
UMTS FDD 8: 880-915 MHz	24 dBm
E-UTRA FDD 1: 1920-1980 MHz	23,5 dBm
E-UTRA FDD 3: 1710-1785 MHz	23,0 dBm
E-UTRA FDD 7: 2500-2570 MHz	23,5 dBm
E-UTRA FDD 8: 880-915 MHz	23,0 dBm
E-UTRA FDD 20: 832-862 MHz	23,5 dBm
E-UTRA FDD 28: 703-748 MHz	23,0 dBm

Europar Batasunetik kanpoko herrialdeentzako informazio gehigarria

Mexiko

Zure ibilgailuak ekipo erradioelektriko ugari ditu. Ekipo horien fabrikatzaileek aitortzen dute ekipoek RLVCOAR15-0008 Zuzentaraua betetzen dutela, legez hala eskatuz gero. Adostasun-adierazpenaren testu osoa Interneteko helbide honetan eskuragarri dago:

https://www.seat.mx/servicio/mi-seat/manual-del-propietario.html

Ziurtagiria: RLVHERS17-0286. RS4 Hella KGaA Hueck & Co irismen laburreko radarra. IFT:RLVHERS17-0286. Ekipamendu horrek funtzionatzeko bi baldintza hauek bete behar ditu: (1) baliteke ekipamendu edo gailu horrek ez eragitea interferentzia kaltegarririk eta (2) ekipamendu edo gailu horrek edozein interferentzia onartu behar du, nahi ez den funtzionamendua eragin dezakeena barne.

Erresuma Batua

Ondorengoak Erresuma Batuko merkatuko inportatzaileei eragiten die:

Volkswagen Group United Kingdom Ltd.
Yeomans Drive, Blakelands
Milton Keynes, MK 14 5AN
United Kingdom

Turkia

Telsiz Ekipmanları Yönetmeliği (2014/53/AB)

Aracınızda çeşitli telsiz ekipmanları bulunmaktadır.

Telsiz Ekipmanlari Yönetmeliği (2014/53/AB) açısından Türkiye pazarı için radyo ekipmanı ithalatçısı (bu bilgi sadece resmi temsilcimiz olan Doğuş Otomotiv Servis ve Ticaret A.Ş.'nin ithal ettiği ürünler için geçerlidir):

Doğuş Otomotiv Servis ve Ticaret A.Ş.
Şekerpınar Mahallesi, Anadolu Caddesi, No: 22 ve 45
41420 Çayırova/Kocaeli

Ukrainia

Імпортер:
ТОВ «Порше Україна»
просп. Павла Тичини, 1В, офіс „В“, 4-й поверх
02152 Київ, Україна.

Importer:
Porsche Ukraine LLC
Pavla Tychyny ave. 1V, Office "B", 4th floor
02152 Kyiv, Ukraine.

Datu teknikoak

Datu teknikoei buruzko argibideak

Ibilgailuaren datu bereizgarriak

Datu teknikoetan adierazitako balioak desberdinak izan daitezke hautazko ekipamenduaren edo modeloaren bertsioaren arabera; baita, ibilgailu berezien kasuetan, zenbait herrialdetarako ekipamenduen arabera ere.

Ibilgailuaren dokumentazio ofizialean ageri diren datuek beti dute lehentasuna.

Datu teknikoen atalean erabilitako laburdurak

kW	Kilowatt, motorraren potentziari dagokion neurketa-unitatea.
CV	Zaldi-potentzia (gutxi erabilia), motorraren potentziari dagokion neurketa-unitatea.
rpm, 1/min	Bira minutuko (bira kopurua).
Nm	Newton-metro, motor-momentuaren neurketa-unitatea.
CZ	Cetan-Zahl (zetano-indizea), gasolioaren errekuntza-potentziaren neurketa.
ROZ	Research-Oktan-Zahl, gasolinaren erresistentzia antidetonatzailea zehazteko unitatea.

Bastidore-zenbakia

Toki hauetan, bastidore-zenbakia aurkituko duzu:

- Ibilgailuaren datuak eramatekoan.
- Aurrean, haizetakoa dagoen tokian.
- Eskuinaldean, motorreko konpartimentuan.

Modelo-plaka

Modelo-plaka ibilgailuaren eskuinaldeko atearen markoan dago. Herrialde jakin batzuetarako egindako ibilgailuek ez dute modelo-plakarik.

Prestazioak

Balioak galtzadaren eta eguraldiaren baldintza egokienetan baino ez dira aplikatzen.

Ibilgailuaren prestazioak hori murriztu dezaken inolako ekipamendurik gabe kalkulatu dira, adibidez, osagarririk gabe.

Erregai-kontsumoa

Homologatutako kontsumo-balioak EBk ziurtatutako laborategietan egindako edo horiek gainbegiratutako neurketatik ondorioztatzen dira, une bakoitzean indarrean dauden legeen arabera (informazio gehiago lortzeko, jo Europar Batasunaren Argitalpenen Bulegora EUR-Lex gunera: © Europar Batasuna, http://eur-lex.europa.eu/) eta aplikatzen dira adierazitako ibilgailuaren ezaugarrietarako.

Ibilgailua erositako unean ibilgailuaren jabeari emandako dokumentazioan kontsulta daitezke erregai-kontsumoaren eta CO_2 isurien balioak.

Erregai-kontsumoa eta CO_2 isuriak desberdinak dira honako hauen arabera: ibilgailu bakoitzaren ekipamendua eta osagarriak, gidatzeko modua, errepidearen egoera, trafiko-egoera, ingurumen-baldintzak, karga edo bidaiari kopuruak.

Erregai-tangaren edukiera

Aurreko trakzioa duten ibilgailuak	50 l, horietako 7 l, gutxi gorabehera, erreserban.
Trakzio osoa duten ibilgailuak	55 l, horietako 8,5 l, gutxi gorabehera, erreserban.
Propultsio hibrido entxufagarria duten ibilgailuak (PHEV)	40 l, horietako 8 l, gutxi gorabehera, erreserban.

AdBlue depositua edukiera
gutxi gorabehera 11 l[a)]
gutxi gorabehera 12 l[a)]

[a)] Hornigailuko pistolaren bidez ipinitako kantitatea txikiagoa izan daiteke. Muturreko hots-egoeretan, ipinitako kantitatea baxuagoa izan daiteke. Balioak ekipamenduaren araberakoak dira.

Goi-tentsioko bateria

Mota eta edukiera	
Ibilgailu hibrido entxufagarriak (PHEV)	Li-ioi 12,8 kWh 48V

Pisuak

Martxarako prestasuneko pisu-balioak aplikatzen dira zirkulatzeko prest dagoen ibilgailurako gidariarekin (75 kg), likido operatiboekin eta, hala badagokio, erremintekin eta ordezko gurpilarekin. Martxarako prestasuneko pisua handitu egiten da aukerako ekipamenduekin eta ondorengo osagarrien muntaketarekin; horrela, karga erabilgarri posiblea dagokion bezala murrizten da.

Karga sabaiaren gainean

Zure ibilgailuaren sabai gainean eramateko baimendutako gehienezko karga 75 kg da.

Atoiko kargak

Atoi-gailuko buru esferikoaren gainean dagoen lantzaren baimendutako gehieneko bermekarga **80 kg** da.

⚠ ADI

Ezin dira gainditu onargarriak diren gehieneko pisuetarako adierazitako balioak. Badago arriskua istripu bat eta kalteak gertatzeko!

Motorraren datuak

Gasolinazko motorra	1.4 TSI Start-Stop PHEV	
TSI motorraren potentzia kW-tan (CV) 1/min-ra	110 (150)/5.000-6.000	110 (150)/5.000-6.000
Motor elektrikoaren potentzia kW-tan (CV) 1/min-ra	85 (116)/2.600-6.500	85 (116)/2.600-6.500
TSI motorraren + motor elektrikoaren potentzia kW-tan (CV) 1/min-ra	150 (204)/5.000-6.000	180 (245)/5.000-6.000
TSI motorraren gehienezko indar-momentua (Nm 1/min-ra)	250/1.550-3.500	250/1.550-3.500
Motor elektrikoaren gehienezko indar-momentua (Nm 1/min-ra)	330/0-2.600	330/0-2.600
TSI motorraren + motor elektrikoaren gehienezko indar-momentua (Nm 1/min-ra)	350/0-3.500	400/0-3.500
Zilindro-kopurua / Zilindro-bolumena (cm^3)	4/1.395	4/1.395
Erregaia	Super 95 / Normala 91 (potentzia zertxobait galduta) ROZ	
Abiadura-kaxa	DSG	DSG
Gehienezko abiadura (km/h)	205 (V)	210 (V)
Azelerazioa 0-100 km/h (s)	7,8	7,0
Baimendutako gehienezko pisua (kg)	2.110	2.120

Gasolinazko motorrak	1.5 TSI Start-Stop		2.0 TSI Start-Stop	2.0 TSI Start-Stop
Potentzia kW (CV) 1/min-ra	110 (150)/5.000-6.000		140 (190)/4.200-6.000	140 (190)/4.180-6.000
Gehienezko indar-momentua (Nm 1/min-ra)	250/1.500-3.500		320/1.500-4.100	320/1.500-4.000
Zilindro-kopurua / Zilindro-bolumena (cm³)	4/1.498		4/1.984	4/1.984
Erregaia	Super 95 / Normala 91 (potentzia zertxobait galduta) ROZ			
Abiadura-kaxa	eskuzkoa	DSG	DSG 4Drive	DSG
Gehienezko abiadura (km/h)	204 (V)	203 (VI)	220 (V)	218 (V)
Azelerazioa 0-100 km/h (s)	8,9	8,9	7,1	7,5
Baimendutako gehienezko pisua (kg)	1.950	1.980	2.110	2.010

Gasolinazko motorrak	2.0 TSI Start-Stop	2.0 TSI Start-Stop	2.5 TSI Start-Stop
Potentzia kW (CV) 1/min-ra	180 (245)/5.000-6.500	228 (310)/5.450-6.500	287 (390)/5.700-7.000
Gehienezko indar-momentua (Nm 1/min-ra)	370/1.600-4.300	400/2.000-5.450	480/2.250-5.700
Zilindro-kopurua / Zilindro-bolumena (cm³)	4/1.984	4/1.984	5/2.480
Erregaia	Super 95 / Normala 91 (potentzia zertxobait galduta) ROZ	Super 98 / Super 95 (potentzia zertxobait galduta) ROZ	
Abiadura-kaxa	DSG	DSG 4Drive	DSG 4Drive
Gehienezko abiadura (km/h)	238 (V)	250 (V)	250 (V)
Azelerazioa 0-100 km/h (s)	6,8	4,9	4,2
Baimendutako gehienezko pisua (kg)	2.070	2.140	2.120

Diesel motorrak	2.0 TDI CR Start-Stop	
Potentzia kW (CV) 1/min-ra	110 (150)/3.250-4.200	110 (150)/3.000-4.200
Gehienezko indar-momentua (Nm 1/min-ra)	340/1.600-3.000	360/1.600-2.750
Zilindro-kopurua / Zilindro-bolumena (cm^3)	4/1.968	
Erregaia	Diesela EN 590 arauaren arabera, min. 51 CZ	
Abiadura-kaxa	eskuzkoa	DSG 4Drive
Gehienezko abiadura (km/h)	205 (V)	203 (VI)
Azelerazioa 0-100 km/h (s)	9,3	8,6
Baimendutako gehienezko pisua (kg)	2.030	2.140

Neurriak



231. irudia Neurriak

>>> 231. irudia		Formentor	Formentor 4Drive	Formentor PHEV	Formentor VZ5
A/B	Aurrealdeko/atzeko hegala (mm)	893 / 874	893 / 877	893 / 877	892 / 895
C	Bataila (mm)	2.679	2.680	2.680	2.681
D	Luzera (mm)	4.446	4.450	4.450	4.468
E/F	[a] Aurreko/atzeko bidearen zabalera (mm)	1.583 / 1.555	1.585 / 1.559	1.585 / 1.559	1.587 / 1.561
G	Zabalera (mm)	1.839	1.839	1.839	1.852
H	Altuera hutseko pisuan (mm)	1.537	1.528	1.528	1.505
	Biraren diametroa (m)	11,4	11,4	11,4	11,4

[a] Datua desberdina da hagun motaren arabera.

Aurkibide alfabetikoa

Zenbakiak eta sinboloak

4Drive ... 159
12 volteko bateria ... 355
abio lagundua ... 332
aldatzea ... 357
borneak kentzea eta jartzea ... 357
elektrolito-maila ... 357
energiaren kudeaketa ... 360
karga ... 357
karga-maila ... 360
kontrol-argiak ... 359

A

Abiadura erregulatze prediktiboa arazoak konpontzea ... 205
Abiadura-erregulagailua ... 194
erabiltzea ... 195
kontrol-argiak ... 195
Abiadura-erregulatze prediktiboa mugak ... 204
Abiadura-erregulazio prediktiboa gidatzea ... 204
Abiadura-mugagailua ... 195
erabiltzea ... 196
kontrol-argiak ... 197
seinalea pantailan ... 195
Abiadura-oharra ... 364
Abiaduraren erregulazio prediktiboa ... 203
aktibatzea ... 204
Abiaduraren kontrol moldatzailea ... 197
anomalia funtzionamenduan ... 202
erabilera ... 198
gidatze-egoera bereziak ... 200
kontrol-argia eta oharpen-argia ... 202
seinaleak pantailan ... 198
Sistemaren mugak ... 201
Abiatzen laguntzea ... 332
deskribapena ... 332
larrialdietarako kableak ... 332
Abio lagundua ... 332
Abio-sakagailua ... 160
ACC ... 197
AdBlue®
betetzeko gutxieneko kantitatea ... 325
deposituaren edukiera ... 325
informazioa ... 325
kontrol-argiak eta abisu-argiak ... 326
zamatzea ... 325
zehaztapena ... 325
Aginteak bolantean ... 114
Ahots bidezko erabilera ... 275
aktibazio hitza ... 276
Android Auto™ ... 263
bukatzea ... 276
hastea ... 276
Siri™ (Apple CarPlay™) ... 262
Airbag-sistema ... 52
aktibatzea ... 54
aurrealdeko airbagak ... 55
aurreko airbaga desaktibatzea ... 56
deskribapena ... 53
funtzionamendua ... 54
kontrol-argia ... 54
Airearen birzirkulazioa ... 144
Aireztapen estatikoa ... 147
Aireztatzea ... 140
Aldagailu automatikoa
aldatzeko espekak dituen bolantea ... 174
gidatzeko gomendioak ... 174
hautatze-agintearen posizioak ... 172
jaisteko laguntzailea ... 178
kontrol-argia ... 172
launch-control programa ... 176
tiptronic ... 174
Aldagailu-palanka
eskuzko aldagailua ... 171
Aldaketa teknikoak ... 390
Aldapan gelditzeko laguntzailea (HHC) ... 178
Aldatzeko espekak (aldagailu automatikoa) ... 174
Alfonbra txikiak ... 155
Android Auto™
baldintzak ... 262
konexioa amaitzea ... 263
konexioa ezartzea ... 262
menua ... 262
zehaztasunak ... 263
Anomalia funtzionamenduan
abiaduraren kontrol moldatzailea ... 202
atoi-gailua ... 312
beirazko sabaia ... 111
lozagia ... 177
PreCrash sistema ... 52
Aparkalekutik ateratzea
aparkatzen laguntzeko sistemaren bidez ... 238
Aparkatzea ... 222
aldagailu automatikoa ... 174
aparkatzen laguntzeko sistemarekin ... 237
zeharka, atzera martxarako laguntzailearekin ... 241
Aparkatzeko laguntza
anomalia ... 228
atzeko aparkatze-laguntza ... 231

erabiltzea ... 229
ikus Aparkatzen laguntzeko sistema ... 232
inguruaren seinalea ... 227
Plus aparkatzeko laguntza ... 227
seinale bisuala ... 230
sentsoreak eta kamera: garbitzea ... 386
Aparkatzeko sistemak
arazoak konpontzea ... 227
atzera martxarako laguntzailea (Rear View Camera) ... 239
esku-hartze automatikoa balaztan ... 226
Aparkatzen laguntzeko sistema ... 232
aparkalekutik ateratzea (lerroko tokiak bakarrik) ... 238
aparkatzeko baldintzak ... 237
deskribapena ... 233
goizegi amaitzea ... 234
lerroan aparkatzea ... 237
zeharka aparkatzea ... 237
Aplikazioak (app-ak) ... 261
Apple CarPlay
baldintzak ... 261
konexioa amaitzea ... 262
konexioa ezartzea ... 261
menua ... 261
zehaztasunak ... 262
Arau bereziak dituzten tokiak ... 295
Arazoak konpontzea
AdBlue® ... 326
DSG aldagailua ... 177
larrialdietarako laguntzailea (Emergency Assist) ... 218
Start-Stop sistema ... 171
Travel Assist ... 216
Argi bat aldatzea ... 342
Argi laburraren kontrol automatikoa ... 124
Argi luzearen laguntzailea ... 127
Argi luzearen palanka ... 126
Argiak
aginteen argiztapena ... 130
aginteen panela ... 124
argi bat aldatzea ... 342
argi laburra ... 124
argi luzea ... 124
argi luzearen laguntzailea ... 127
argi luzearen palanka ... 126
argien irismenaren erregulazioa ... 129
AUTO ... 124
barruko argiak ... 130
coming home ... 129
concerning argia ... 125
eguneko argia ... 125
eguraldi txarrerako argia ... 124
giro-argia ... 132
irakurketa-argiak ... 130
keinukarien palanka ... 126
kontrol-argiak eta abisu-argiak ... 124
leaving home ... 129
piztu eta itzaltzea ... 124
posizio-argia ... 124
soinu-seinaleak ... 125
tresnen argiztapena ... 130
Argiak itzaltzea ... 124
Argiak piztea ... 124
Argien irismen-erregulazio dinamikoa ... 129
Argien irismenaren erregulazioa ... 129
Ateak ... 102
haurrentzako segurtagailua ... 104
Ateak irekitzeko laguntzailea (Exit Assist) ... 246
Atearen heldulekua ... 103
Ateko sarraila ... 103
Ateko zilindroa ... 103
Atoi-gailua
anomalia funtzionamenduan ... 312
atoi-krokadura desblokeatze elektrikoarekin ... 316
bizikleta-euskarri bat muntatzea ... 318
geroago muntatzea ... 319
Atoi-kablea ... 311, 312
Atoi-krokadura
elektrikoki desblokeatzea ... 316
kontrol-argia ... 316
Atoia ... 309
anomalia funtzionamenduan ... 312
atoi-kablea ... 311, 312
atoi-krokadura elektrikoki desblokeatzea ... 316
atoian eramateko masak ... 314
atoiarekin gidatzea ... 315
atzeko argiak ... 311, 312
atzeko LED argiak ... 311, 312
baldintza teknikoak ... 311
faroak doitzea ... 315
geroago atoi-gailu bat muntatzea ... 319
kanpoko atzerako ispiluak ... 311
konektatzea ... 312
korronte-hargunea ... 312
krokatzea ... 312
lapurreten aurkako alarma ... 312
trakzio-ibilgailuaren eta atoiaren multzoa egonkortzea ... 316
zama bertikala akoplamenduan ... 309, 314
zamatzea ... 314
Atoian eramateko masak
atoia kargatzea ... 314
Atoiarekin gidatzea
ikusi Atoia ... 309
Atsedenean laguntzeko funtzioa ... 178
Atzeko aparkatze-laguntza ... 231

Atzeko argiak
argi bat aldatzea ... 342
Atzeko eserlekua
maletategitik tolestea urrutitik desblokeatzeko palankarekin ... 123
Atzeko eserlekuaren bizkarraldea
altxatzea ... 117
etzatea ... 117
Atzeko radarra ... 192
Atzera martxarako laguntzaile-sistema ... 239
Atzera martxarako laguntzailea ... 239
Atzera martxarako laguntzailea (Rear View) ... 239
baldintzak ... 239, 241
bistaratzea pantailan ... 240
doikuntzak ... 241
egiaztatze-zerrenda ... 239
erabilera-argibideak ... 241
konektatzea eta deskonektatzea ... 240
zeharka aparkatzea ... 241
zeharkako trafikoa ... 241
Atzerako ispiluak ... 135
anti-itsutzailea ... 136
kanpoko ispiluak doitzea ... 137
Atzerrirako bidaiak ... 160
faroak ... 129
Aurre seinalizaziorako hirukia ... 72
Aurreko airbaga desaktibatzea ... 56
Aurreko hobia
beirak garbitzeko likidoaren tanga ... 351
freno-likidoa ... 350
likido hozgarria ... 346, 348
Aurreko kamera ... 191
Aurreko kapota ... 343
Aurrez aurreko istripuak eta haien lege fisikoak 47
Auto Lock (ixte-sistema zentralizatua) ... 96
Auto Unlock ... 96
Auto-Hold ... 224
Auto-Hold funtzioa ... 224

B

Baimenak ... 273
Balazta-sistema
oharpen-argia ... 184
Balaztak ... 182
balazta-pastilla berriak ... 182
balaztatze-laguntzailea ... 184
freno-likidoa ... 350
geratze-balazta elektronikoa ... 223
serbofrenoa ... 182
Balaztatze-laguntzailea ... 184
Baldintzak Apple CarPlay-rako ... 261
Barruko ispilua
anti-itsutzailea ... 136
Beira-garbigailua ... 133
Beira-garbigailuaren ura
begiratu ... 351
betetzeko kopuruak ... 351
hornitzea ... 351
Beira-garbigarria ... 351
Beira-jasogailu elektrikoak ... 109
Beirak garbitzekoa
beira-garbigailuaren palanka ... 133
Beirazko sabaia ... 111, 112
anomalia funtzionamenduan ... 111
erosotasun-irekiera edo -itxiera ... 113
giltzapetzearen aurkako funtzioa ... 113
Bermea ... 392
Berogailu independentea
aktibatzea ... 151
deskonektatu ... 149
erabilera-argibideak ... 151
irrati-maiztasun bidezko urrutiko agintea ... 149, 150
konektatzea ... 149
kontsumitzaile elektrikoak ... 151
programatu ... 151
zehaztasunak ... 151
Berotzea ... 140
Betetzeko gaitasunak
AdBlue® depositua ... 325
beira-garbigailuaren ura ... 351
Bidaiako datuen seinalea ... 25
Bidaiaren inguruko datuak ... 25
Bidaiari-lekuaren zaintza eta atoien aurkako sistema aztertzea
aktibatzea ... 101
Biodiesela ... 324
Bira-kontagailua ... 17, 19
Biratze-norabidea
pneumatikoak ... 374
Bizikleta-euskarria
gehieneko karga ... 318
ken daitekeen atoi-krokadura muntatzea ... 318
Blokeatzea eta desblokeatzea ... 94
ixte-sistema zentralizatuaren kommutadorearekin. ... 98
ixteko zilindroan ... 103
Blokeoaren aurkako sistema ... 184
Bolantea
aginteak ... 114
aldatzeko espekak (aldagailu automatikoa) ... 174
berogailua ... 147
doitzea ... 115
Bolanteko berogailua ... 147
Bolumena
kanpoko audio-iturrietan ezartzea ... 272

Buru-euskarriak 118
desmuntatzea 120
doitzea 119
Buru-sostengua 118
Bururako 52
airbagak 55, 58, 59, 60
aktibatzea eta desaktibatzea 56
deskribapena 53
erdikoa 57

C

Coming Home 129
Concerning argia 125
Consumo medio 17
CUPRA CONNECT 253
aktibatzea 254
anomaliak 256
desaktibatzea 256
legezko xedapenak 255
CUPRA CONNECT aktibatzea 254
CUPRA CONNECTen zerbitzuak desaktibatzea 256

D

Datu teknikoak
ibilgailuaren dimentsioak 404
motorraren datuak 401
pisuak 399
zama bertikala atoiaren akoplamenduan .. 309
Datu-transferentzia 253
Datuak eramatekoa 399
Desaparkatzeko laguntzailea (RCTA) 245
Desblokeatzea eta blokeatzea 94
ateak 102
ixte-sistema zentralizatuaren kommutadorearekin. 98
urrutiko kontrolaren bidez 98
Deskonektatu
telefonoa 295
Deuseztatzea
uhalaren aurretenkagailuak 50
Diferentzialaren blokeo elektronikoa 184
Digital Cockpit 17
Direkzioa
direkzio elektromekanikoa 179
direkzioa kontrolatzeko laguntza 179
kontrol-argia 179
Direkzioa kontrolatzeko laguntza 179
Doitzea
argiak 129
aurreko eserlekuak 116
buru-euskarriak 119
eserlekuak 42
memoriadun eserlekua 121
ordua eta data 31
Drive Profile 180
DSG 172

E

e-Call 73
E-Mode 167
E-MODE funtzionatzeko modua
kontrol-argiak 168
Easy Open
zehaztasunak 107
Edari-euskarria
atzeko erdiko beso-euskarrian 249
botila-euskarria 249
edari-euskarria 249
Egiaztatze-zerrendak
Android Auto™-rako baldintzak 262
atzera martxarako laguntzailea (Rear View) 239
baldintzak Apple CarPlay-rako 261
MirrorLink®-erako baldintzak 263
Egile-eskubideak 273
Egonkortasun-kontrol elektronikoa (ESC) 184
Eguzki-babesa 138
Eguzkitarako babesa 138
Ekipaje-tokia 307
Ekipajea eramateko sistema 307
Ekipajerako sarea
maletategia 305
EKO-Aholkuak 30
Elektrolitoa 357
Elurretako kateak 369
Emergency Assist
ikus Larrialdietarako laguntzailea (Emergency Assist) 217
Energiaren kudeaketa 360
Erdiko beso-euskarria 122
Erlojuak
ordua jartzea 31
Erosotasun-irekiera
beirazko sabaia 113
Erosotasun-itxiera
beirazko sabaia 113
Erregai-kontsumoa
inertziarengatik deskonektatzea 156
zergatik handitzen da kontsumoa? 328
Erregai-mailaren adierazlea 20
kontrol-argia 20

Erregai-tangaren tapa
irekitzea eta ixtea 322
Erregai-tangaren tapoia
irekitzea eta ixtea 322
Erregaia
aurreztea 156
diesela 324
erregai-mailaren adierazlea 20
erregaia hartzea 322
gasolina 323
identifikazioa 323
Erregaia aurreztea
inertzia-modua 176
Erregaia hartzea
erregai-mailaren adierazlea 20
kontrol-argia 20
segurtasun-oharrak 321
tangaren tapa irekitzea 322
Erregaiak identifikatzea 323
Errei-aldaketarako laguntzailea (Side Assist)
argi-seinalea 220
funtzionamendua 218
gidatze-egoerak 221
kontrol-argia 219
Plus errei-aldaketa 219
sistemaren mugak 219
Errei-irteeraren abisu-sistema (Lane Assist) . 209
Erreprodukzio bolumena egokitzea 272
Erreta dauden argiak
argi bat aldatzea 342
Errodajea
balazta-pastilla berriak 182
motor berria 158
pneumatiko berriak 363
ESC
egonkortasun-kontrol elektronikoa 184
konektatzea eta deskonektatzea 186
Sport modua 186
Esekitokiak 250
Eserlekuak 116
atzeko eserlekuaren bizkarraldea 117
berogailua 145
beso-euskarriak 122
buru-euskarriak desmuntatzea 120
buru-euskarriak doitzea 119
buru-euskarriak muntatzea 120
doiketa elektrikoa 117
eskuzko doiketa 116
memoria-funtzioa 121
plaza-kopurua: 43
posizio desegokiak 44
Eserlekuetako berogailua 145
Eskuilak aldatzea 330
Eskuzko aldagailua 171
Estutzeko parea
gurpil-torlojuak 374
Euri- eta argi-sentsorea 134
Euri-sentsorea
funtzioaren kontrola 135
Eusteko zirgiloak 304
Event Data Recorder 392
Exit Assist 246

F

Faroak
argi bat aldatzea 342
atzerrirako bidaiak 129
Freno-likidoa 350
Full Link 260
aplikazioak 261
doikuntzak 261
sinboloak 261
Full-LED faroak 342
Fusibleak 338
aldatu 340
aldatzeko prestaketak 340
erretako fusibleak hautematea 340
fusibleen kutxa 339
koloreen bidez bereiztea 339

G

Gaikako murrizketa katalitikoa 325
Gailu elektrikoak 250
Garbiketa-tunel automatikoa 384
Auto-Hold funtzioa deskonektatzea 224
Garbitasuna
ibilgailua garbitzea 384
ibilgailuaren barrualdea 387
ibilgailuaren kanpoaldea 386
presio handiko garbiketa-tresnak 384
zainketa bereziak 388
Gasolina
erregaia hartzea 323
gehigarriak 323
partikula-iragazkia 327
Gasolioa
erregaia hartzea 324
Geratze-balazta elektronikoa 223
kontrol-argiak 224
Geroagoko muntaketa
atoi-gailua 319
Gerrialdeko euskarria 116
Gidarikidearen atearen larrialdietako blokeoa 103

Gidarikidearen aurreko airbaga
kontrol-argia ... 54
Gidatze seguru batean eragin negatiboa duten faktoreak ... 41
Gidatze segurua ... 41
Gidatze-laguntzailea (Travel Assist)
Ikus Travel Assist ... 212
Gidatze-modua ... 182
Gidatze-profila ... 182
Gidatze-profila hautatzea
ezaugarriak ... 180
Gidatze-profilak ... 180
hautatu profil bat ... 181
Gidatze-profilak (Drive Profile)
ikus Gidatze-profila hautatzea ... 180
Gidatzea
atoiarekin ... 315
atzerrirako bidaiak ... 129, 160
ekonomikoa ... 156
ibilgailua kargatuta dago ... 157
maletategia irekita ... 157
segurua ... 41
urez estalitako galtzadetatik igarotzea ... 158
Giltza-etengailua ... 56
Giltzak
desblokeatzea eta blokeatzea ... 98, 103
ezpata txikia ateratzea ... 92
gidariarentzako jarraibideak (kontaktu mekanikoa) ... 165
ibilgailuaren giltza ... 91
ordezko giltza ... 91
pila aldatzea ... 93
sinkronizatzea ... 93
urrutiko agintea ... 91
Giltzapetzearen aurkako funtzioa
beirazko sabaia ... 113
leihatilak ... 111
Giltzen kopiak ... 91
Giroko argiztapena ... 132
Goi-tentsioko bateria
mantentzea ... 78
ohartarazpen-errotuluak ... 77
segurtasun-jarraibideak ... 76
Goi-tentsioko bateria kargatzea
arazoak konpontzea ... 83
doikuntzak infotainment sisteman ... 85
karga programatua ... 86
karga-hargunea (korronte alternoa) ... 80
karga-kablea ... 88
karga-moduak ... 79
karga-prozesuaren adierazlea ... 82
larrialdietako desblokeatzea ... 84
Goi-tentsioko bateriaren karga-kablea ... 86
Gordetegia ... 248
Gurpil bat aldatzea ... 370
geroagoko lanak ... 375
gurpil-torlojuak ... 372
ibilgailua igotzea ... 373
Gurpil-torlojuak ... 367
askatzea ... 372
estutzeko parea ... 374
lapurreten aurkakoa ... 372
txanoak ... 371
Gurpilak
aldatzea ... 370
desmuntatzea eta muntatzea ... 374
elurretako kateak ... 369
gurpil berriak ... 364
gurpil-torlojuak ... 367
larrialdiko gurpila ... 370
trukea ... 367
Gurpilak orekatzea ... 365
Gurpiletarako giltza ... 330
Gurutzaldi-kontrola ... 194

H

Haizetako-garbigailua ... 133
eskuila altxatzea ... 330
eskuila jasotzea ... 330
euri- eta argi-sentsorea ... 134
funtzioak ... 134
zehaztasunak ... 133
zerbitzu-posizioa ... 330
Haizetako-garbigailuaren eta luneta-garbigailuaren sistemak
aldatzea ... 331
garbitasuna ... 331, 386
zerbitzu-posizioa ... 330
Haurrak garraiatzea ... 61
Haurrentzako eserlekuak
finkapen-sistemak ... 64
i-Size ... 65
ISOFIX ... 65
segurtasun-jarraibideak ... 63
segurtasun-uhalarekin finkatzea ... 70
taldekako sailkapena ... 62
Top Tether sistema ... 69
Haurrentzako segurtagailua
beira-jasogailu elektrikoak ... 109
Hautatze-agintea (aldagailu automatikoa)
posizioak ... 172
Hauts eta polenaren iragazkia ... 140
HDC
ikus Jaisteko laguntzailea (HDC) ... 178

HHC
ikus Aldapan gelditzeko laguntzailea (HHC) 178
Homologatutako ordezkoak 383
Hozte-sistema 140
begiratu likido hozgarria 348
hornitu likido hozgarria 348

I

i-Size 65
Ibilgailu barruko tresna-sorta 330
Ibilgailu barruko tresnak 330
Ibilgailua
atzealdetiko ikuspegia 7
aurrealdetiko ikuspegia. 6
Barruko bista 8
bastidore-zenbakia 399
datu bereizgarriak 399
datuak eramatekoa 399
desblokeatzea eta blokeatzea (Keyless Access) 94
igotzea 373
koadro orokorraren bista (bolantea eskuinaldean dela) 11
koadro orokorraren ikuspegia (bolantea ezkerraldean dela) 9
mailegatzea edo saltzea 255
motorraren datuak 401
Ibilgailua altxatzea 373
Ibilgailua garbitzea
barruko garbiketa 387
kanpoko garbiketa 386
presio handiko garbiketa-tresnak 384
zainketa bereziak 388
zehaztasunak 107
Ibilgailua igotzea 373
Ibilgailua jasotzea 373
Ibilgailua kargatzea
aholku orokorrak 301
atoia 314
ekipajea eramateko sistema 309
ekipajea kokatzea 301
eusteko zirgiloak 304
karga kokatzea 301
maletategia 301
objektu luzeak garraiatzeko tranpa-ohola 306
Ibilgailua kontserbatzeko produktuak 384
Ibilgailua mantentzea 384
Ibilgailua martxan jarri aurretik kontuan hartu beharreko alderdiak 41
Ibilgailua martxan jarri baino lehen 41
Ibilgailua zaintzea
eskuilen zerbitzu-posizioa 330
Ibilgailuaren dimentsioak 404
Ibilgailuaren doikuntzak 38
Ibilgailuaren giltzak 91
Ibilgailuaren kokapena 255
Ibilgailuaren pintura
mantentzea 386
Ibilgailuaren plazak 43
Ibilgailuaren salmenta 255
Ibilgailuaren soinua 166
Ibilgailuari buruzko informazioa 37
Ibilgetzaile elektronikoa 164
Ibili ibilgailua kargatuta dagoela 157
Ihes-gasak 327
Ihes-gasak arazteko sistema
AdBlue® 325
katalizatzailea 327
partikula-iragazkia 327
Ikurrak
ikus Abisu-argiak eta kontrol-argiak 13
Ikuskapen-oroigarria 32
Ikuskapen-zerbitzua 352
Ikuskapena 352, 381
Ikuspen periferikoko kamerak 193
Ikuspen periferikoko sistema (Top View Camera) 242
erabilera-argibideak 244
menuak 244
moduak 244
zehaztasunak 243
Indarreko dokumentazioa erantsita 265
Inertzia-modua 176
Infotainment 265
Android Auto™ 262
Apple CarPlay 261
datu teknikoak 274
erabiltzea 271
funtzio-botoiak 35
funtzioak exekutatzea 271
garbitzea 273
hasierako konfigurazioa 36
ibilgailuaren laguntzaileak eta doikuntzak 38
ibilgailuari buruzko informazioa 37
Interneterako sarbidea 259
Irratia modua 278
irteera menua 40
koadro orokorra eta aginteak 269
konektatzea eta deskonektatzea 271
laguntza 34
lehen erabilpenaren aurretik 265
Media modua 282
menu pertsonalizatuak 272
menu zabalgarria 272
menuak egokitzea 272
MirrorLink® 263
nabigazioa 286
pertsonalizatzea 272

segurtasun-jarraibideak ... 265
sistemaren doikuntzak ... 272
soinuaren doikuntzak ... 272
telefono interfazea ... 294
tutoriala ... 34
Wi-Fi Protected Setup (WPS) ... 259
WLAN ... 258
WLAN konexio bat partekatzea ... 258
Infotainment sistema
Infotainment ikusi ... 34
Ingurumen-aholkua
erregaia hartzea ... 321
Ingurumena
erregaia hartzea ... 321
gailu elektrikoak birziklatzea ... 394
gidatze ekologikoa ... 156
ingurumen-bateragarritasuna ... 393
Irekitzea ... 96
beirazko sabaia ... 112
kapota ... 345
leihatilak ... 109
maletategiko atea ... 105
tangaren tapa ... 322
Irekitzea eta ixtea ... 96
ateak ... 102
beirazko sabaia ... 112
irekitze eta ixte elektrikoak dituen atzeko maletategiko atea ... 105
ixte-sistema zentralizatuaren kommutadorearekin. ... 98
ixteko zilindroan ... 103
kapota ... 345
leihatilak ... 109
maletategiko atea ... 105
tangaren tapa ... 322
urrutiko kontrolaren bidez ... 98
Irrati-telefonoak ... 390
Irratia ... 278
aurresintonia-teklak ... 279
ekipamendua ... 279
hartze-mota ... 279
irrati-katea sintonizatzea ... 279
maiztasun-banda ... 279
sinboloak ... 279
TP (trafikoaren irrati-katea) ... 280
Irratia modua ... 278
Irratirako pantaila: garbitzea ... 387
ISOFIX ... 65
ISOFIX sistema ... 65
Istripuen datuak biltegiratzea ... 392
Isurpenak kontrolatzeko sistema
kontrol-argia ... 328
Ixte-sistema zentralizatua ... 96
ixte-sistema zentralizatuaren kommutadorea ... 98
Keyless Access sistema ... 94
lapurreten aurkako alarma ... 101
larrialdietako blokeoa ... 103
oharkabeko irekieraren ondoriozko autoblokeatzea ... 96
urrutiko kontroleko giltza ... 98
Ixtea ... 96
beirazko sabaia ... 112
kapota ... 345
leihatilak ... 109
maletategiko atea ... 105
Ixteko ... 96
beirazko sabaia ... 112
leihatilak ... 109
maletategiko atea ... 105
Izotz-aurkakoa ... 346

J

Jabetza egiaztatzea ... 255
Jaisteko laguntzailea ... 178
Jaisteko laguntzailea (HDC)
kontrol-argia ... 178

K

Kamera
garbitasuna ... 29
Kanpoko antena ... 390
Kanpoko argiztapena
argi bat aldatzea ... 342
Kanpoko atzerako ispiluak
atoi batekin ibiltzea ... 311
berogarriak ... 137
doikuntzak ... 137
tolestea ... 137
Kanpoko audio-iturriak
erreprodukzio bolumena egokitzea ... 272
Karga-hargunea ... 80
Karga-kablea
karga-estazioetarako (KA) ... 88
korronte-harguneetarako ... 88
Katalizatzailea ... 327
Katua ... 330
kokapen-puntuak ... 373
Keinukarien erosotasun-funtzioa ... 126
Keinukarien palanka ... 126
Keyless Access
arazoak konpontzea ... 95
ibilgailua desblokeatzea eta blokeatzea ... 94
motorra martxan jartzea ... 162
Press & Drive ... 160
Kilometro-kontagailu partziala ... 31

Kilometro-kontagailua ... 17
guztira ... 24
Klimatizagailua
atzeko aginteak ... 144
klimatizazio estatikoa ... 152
tenperatura doitzea ... 144
Klimatizazio estatikoa ... 152
aktibatzea ... 153
deskonektatu ... 152
konektatzea ... 152
programatu ... 153
Klimatizazioa ... 140
aginteak ... 142
airearen birzirkulazioa ... 144
aireztapen estatikoa ... 147
arazoak konpontzea ... 148
Koadro orokorra
abisu- eta kontrol-argietakoa ... 13
ibilgailuaren atzealdetiko ikuspegia ... 7
ibilgailuaren bista barrutik ... 8
Ibilgailuaren ikuspegia aurrealdetik ... 6
koadro orokorraren bista (bolantea eskuinaldean dela) ... 11
koadro orokorraren ikuspegia (bolantea ezkerraldean dela) ... 9
Konektibitatea
WLAN sarbide-puntua ... 258
Konponketa-lanak ... 389
Kontrol-argiak
koadro orokorra ... 13
Kontrol-argiak eta abisu-argiak
12 volteko bateria ... 359
abiadura-erregulagailua ... 195
abiadura-erregulagailua (GRA) ... 194
abiadura-mugagailua ... 197
abiaduraren kontrol moldatzailea ... 198
ABS Blokeoaren aurkako sistema ... 187
ACC ... 202
AdBlue® ... 326
airbag-sistema ... 54
airbagak ... 56
aldagailu automatikoa ... 172
argiak ... 124
atoi-krokadura ... 316
balazta-sistema ... 184
direkzio elektromekanikoa ... 179
direkzio-zutabea ... 179
E-MODE funtzionatzeko modua ... 168
erregai-erreserba ... 20
erregaia hartzea ... 20, 322
errei-aldaketarako laguntzailea (Side Assist) ... 219
ESC ... 187
ESC deskonektatuta ... 186
ESC Sport moduan ... 186
frenoa zapaltzea ... 197
geratze-balazta ... 224
goi-tentsioko bateria ... 83
goi-tentsioko sistema ... 83
igorpenen kontrola ... 328
jaisteko laguntzailea ... 178
klimatizazioa ... 148
Lane Assist ... 211, 212
motorraren kudeaketa ... 328
motorreko likido hozgarria ... 21
motorreko olioa ... 355
partikula-iragazkia ... 327, 328
pneumatikoen presioaren kontrol-sistema ... 376
propultsio-sistema ... 166
segurtasun-uhala ... 46
Start-Stop ... 169
TCS ... 187
urrutiko agintea (berogailu independentea) ... 149, 150
Korronte-harguneak ... 250
atoia ... 312
Kortesiazko ispilua ... 138

L

Lagundutako errei-aldaketa ... 214
Laguntza-sistemak
abiadura-erregulagailua ... 194
abiadura-mugagailua ... 195
abiaduraren erregulazio prediktiboa ... 203
abiaduraren kontrol moldatzailea ... 197
aldapan gelditzeko laguntzailea (HHC) ... 178
atzeko aparkatze-laguntza ... 231
atzeko radarra ... 192
aurreko kamera ... 191
aurreko radarra ... 190
Auto-Hold funtzioa ... 224
deskonektatu ... 190
errei-aldaketarako laguntzailea (Side Assist) 218
gidatze-laguntzailea (Travel Assist) ... 212
ikuspen periferikoko kamerak ... 193
ikuspen periferikoko sistema (Top View Camera) ... 242
konektatzea ... 190
larrialdi-balaztatzea (Front Assist) ... 205
larrialdietarako laguntzailea (Emergency Assist) ... 217
neke-detekzioa ... 26
oharpen orokorrak ... 189
Plus aparkatzeko laguntza ... 227
pneumatikoen presioaren kontrol-adierazlea ... 375
pneumatikoen presioaren kontrola ... 376

PreCrash sistema ... 51
segurtasun-aholkuak ... 189
sistemaren mugak ... 189
trafiko-seinaleak atzemateko sistema ... 27
ultrasoinu-sentsoreak ... 193
Lainotako atzeko argiak
kontrol-argia ... 124
Lane Assist ... 209
kontrol-argia eta oharpen-argia ... 211
kontrol-argiak ... 212
Lapurreten aurkako alarma ... 101
atoia ... 312
bidaiari-lekuaren zaintza eta atoien aurkako sistema ... 101
Lapurreten aurkako alarma-sistema ... 101
Larrialdi-argi keinukariak ... 72
Larrialdi-balaztatzearen abisua ... 72
Larrialdi-balaztatzeari laguntzeko sistema ... 190
aktibatzea eta desaktibatzea ... 208
bira-laguntzailea ... 207
desaktibatzea aldi baterako ... 209
ohartarazpenak ... 206
oinezkoak eta txirrindulariak antzematea ... 207
saiheste-laguntzailea ... 207
seinaleak pantailan ... 206
sistemaren mugak ... 207
Larrialdi-deia ... 73
Larrialdiak ... 73
bateria aldatzea ... 357
erretako fusiblea aldatzea ... 340
gurpil bat aldatzea ... 370
ibilgailu barruko tresnak ... 330
ibilgailuaren larrialdiko atoia ... 334
larrialdi-argi keinukariak ... 72
larrialdietarako kableak ... 332
zuloak konpontzeko kita ... 377
Larrialdietako eragitea
gidarikidearen atea ... 103
Larrialdietako irekitzea
gidariaren aldeko atea ... 103
maletategiko atea ... 109
Larrialdietarako dei-zerbitzua ... 73
Larrialdietarako kableak ... 332
Larrialdietarako laguntzailea (Emergency Assist) ... 217
arazoak eta irtenbideak ... 218
konektatzea eta deskonektatzea ... 217
seinaleak pantailan ... 217
Larrialdiko gurpila ... 370
Launch-control (aldagailu automatikoa) ... 176
Leaving Home ... 129
Legezko xedapenak ... 255
Leherketa-arriskua duten lekuak ... 295
Leihatila ... 109
funtzionamendu automatikoa ... 110
giltzapetzearen aurkako funtzioa ... 111
igoera/jaitsiera automatikoa ... 110
Leihatiletarako aginteak ... 109
Light Assist ... 127
Lozagia (argia) ... 177
Luneta garbitzekoa ... 133

M

Maiztasun-bandak ... 279
Maletategia ... 105, 301
atzeko maletategiko ate elektrikoaren berezitasunak ... 106
erretilua desmuntatzea eta muntatzea ... 302
handitzea ... 117
irekitze eta ixte elektrikoak ... 105
larrialdietako desblokeatzea ... 109
maletategiaren argia ... 130
maletategiaren erretilua gordetzea ... 303
maletategiko zoru aldakorra ... 303
sare-poltsa ... 305
sentsoreek kontrolatutako irekitze- eta ixte-sistemarekin (Easy Open) ... 107
Maletategia irekita dagoela zirkulatzea ... 157
Maletategiaren zorua ... 303
Maletategiko atea ... 104, 109
Maletategiko zoru aldakorra ... 303
Mantentze-tarteak ... 352
Markak ... 273
Martxari buruzko gomendioa ... 155
Martxen seinalea ... 155
Media modua ... 282
ekipamendua ... 283
sinboloak ... 283
Memoria-funtzioa ... 121
Mikrozuntza: garbitzea ... 387
MirrorLink®
baldintzak ... 263
doikuntzak ... 261
konexioa amaitzea ... 263
konexioa ezartzea ... 263
menua ... 263
zehaztasunak ... 264
Motorra
abiaraztea (kontaktu mekanikoa duen gidariarentzako seinalea) ... 165
errodajea ... 158
Start-Stop sistema ... 169
zaratak ... 162
Motorra atoian abiaraztea ... 335
zehaztasunak ... 334
Motorra aurrez berotzea ... 162

Motorra eta piztea
larrialdi-abioa ... 164
motorra aurrez berotzea ... 162
motorra gelditzea ... 163
motorra martxan jartzea ... 162
motorra martxan jartzea Press & Drive bidez ... 162
Motorraren datuak ... 401
Motorraren hobia
bateria ... 355
ireki eta ixtea ... 345
motorreko olioa ... 353
segurtasun-jarraibideak ... 343
Motorraren kapota
ireki eta ixtea ... 345
Motorraren kudeaketa ... 327
kontrol-argia ... 328
Motorraren matxura
kontrol-argia ... 328
Motorreko likido hozgarria ... 346
begiratu maila ... 348
oharpen-argia ... 21
tanga (ibilgailu hibridoak) ... 348
tenperaturaren adierazlea ... 21
zehaztapenak ... 346
Motorreko olioa
aldatzea ... 352, 354
begiratu olio-maila ... 353
hornitzea ... 353
ikuskapen-zerbitzua ... 352
kontsumoa ... 353
mantentze-tarteak ... 352
neurtzeko hagaxka ... 353
zehaztapenak ... 352
Motorreko olioaren presioa.
kontrol-argia ... 355
Mugikortasun Zerbitzua ... 383
Multimedia ... 264, 278
erreproduzitzea ... 283
gogokoak ... 283
iturria hautatzea ... 283

N

Navegación ... 286, 290
azken helmugak ... 290
erabiltzeko jokabidea ikastea ... 292
funtzioa: helmuga sartzea ... 290
funtzioak ... 288
gordetako datuak ... 287
gordetako helmugak ... 290
helmuga gogokoenak ... 290
helmugak gordetzea ... 290
helmugarako gida baterako helbidea sartzea ... 290
ibilbidea editatzea ... 292
ibilbidearen inguruko xehetasunak ... 292
kontaktu-datuak erabiltzea ... 291
mugak ... 287
nabigazio-datuak eguneratzea ... 289
nabigazio-mapa handitzea ... 287
nabigazio-mapa txikitzea ... 287
nabigazioaren lokuzioak ... 286
nabigazioaren-mapa erabiltzea ... 287
ohiko helmugak ... 290
sinboloak ... 288
trafiko-buletinak ... 291
Neguan gidatzea
atoia ... 309
beirazko sabaia ... 111
Neguko funtzionamendua
diesela ... 324
elurretako kateak ... 369
gatza kaleetan ... 135
pneumatikoak ... 368
Neguko pneumatikoak ... 368
Neke-detekzioa ... 26
Nola eraman ibilgailua atoian
atoi-barra ... 334
atoi-kablea ... 334
atoian eramatea debekatzea ... 335
atoiaren atzeko zirgiloa ... 337
atoiaren aurrealdeko zirgiloa ... 336
aurretiko urratsak ... 336
larrialdiko atoia ... 336
zehaztasunak ... 334

O

Objektu luzeak garraiatzeko tranpa-ohola ... 306
Objektu-ontzia ... 248
beste objektu-ontzi batzuk ... 250
gordetegia ... 248
ibilgailuaren barruko dokumentazioa ... 248
tiraderak ... 249
Objektu-ontziak
ikusi Objektu-ontzia ... 248
Objektuak garraiatzea ... 301
atoia ... 309
atoia kargatzea ... 314
atoiarekin gidatzea ... 315
ekipajea erametеko sistema ... 307, 309
ekipajea kokatzea ... 301
eusteko zirgiloak ... 304
karga kokatzea ... 301
objektu luzeak garraiatzeko tranpa-ohola ... 306
poltsetarako kakoak ... 306
sabaiko ekipajea eramatekoa ... 307
sare-poltsa ... 305

Oharpen-argiak
koadro orokorra ... 13
Ohartarazpen-seinale akustikoak
abisu-argiak eta kontrol-argiak ... 13
Oihalak: garbitzea ... 387
Oktanajea (gasolina) ... 323
Olioa aldatzea ... 354
Ordezko piezak ... 389
Ordua
doitzea ... 31
Osagarri originalak ... 383
Osagarriak ... 389

P

Pantaila
garbitzea ... 273
Partikula-iragazkia ... 327
Pedalak ... 43, 155
Piezak aldatzea ... 389
Pila ... 93
Pila aldatzea
ibilgailuaren giltzarena ... 93
Pisuak ... 399
Plaza-kopurua: ... 43
Pneumatikoak ... 363
abiadura-oharra ... 364
aldatzea ... 370
balio-bizitza ... 365
elurretako kateak ... 369
higadura -seinaleak ... 367
norabide bakarreko errodadura ... 364, 374
objektu arrotzak txertatuta ... 363
osagarriak ... 364
pneumatiko berriak ... 364
pneumatikoak ... 368
pneumatikoen presioa ... 365
Pneumatikoak konpontzeko sorta ... 377
Pneumatikoan puzte-presioa ... 365
Pneumatikoaren profila ... 367
Pneumatikoen higadura ... 367
Pneumatikoen konponketa ... 377
Pneumatikoen marrazkiaren sakontasuna ... 367
Pneumatikoen presioaren kontrol-sistema ... 376
Pneumatikoen presioaren kontrol-sistemak
pneumatikoen presioaren kontrol-adierazlea ... 375
Poltsetarako kakoak ... 250, 306
Posizio zuzena ... 42
gidaria ... 42
gidarikidea ... 43
Powermeter ... 22
PreCrash sistema ... 51
anomalia funtzionamenduan ... 52
Front Assist zaintza-sistema ... 51
gidatze-profila hautatzea ... 52
seinaleak pantailan ... 52
Press & Drive
abio-sakagailua ... 160
motorra martxan jartzea ... 162
Pribatutasuna ... 257
doikuntzak ... 257
Propultsio hibridoa
bateria-mailaren adierazlea ... 21
E-Mode ... 167
funtzionatzeko moduak ... 167
Hybrid modua ... 167
ibilgailuaren soinua ... 166
propultsio-sistema piztea ... 165
sistema-ezaugarrien adierazlea ... 22
Propultsio-sistema
kontrol-argiak ... 166

R

Radar-sentsorea ... 190
RCTA ... 245
Rear Traffic Alert ... 245
Rear View Camera ... 239

S

Sabaiko ekipajea eramatekoa ... 307
zeharkako barrak finkatzea ... 308
Safe ... 99, 164
Safe segurtasun-sistema ... 99
arazoak konpontzea ... 100
Sare-poltsa
maletategia ... 305
SEAT Ident ... 255
Segurtasun-ekipamenduak ... 41
Segurtasun-jarraibideak ... 265
alboetako airbagak ... 58
bururako airbagak ... 59
erdiko airbaga ... 57
haurrentzako eserlekuak erabiltzea ... 63
segurtasun-uhalak erabiltzea ... 45
uhalaren aurretenkagailuak ... 50
Segurtasun-uhala ez erabiltzeagatiko arriskuak ... 47
Segurtasun-uhala kentzea ... 48
Segurtasun-uhalak
babes-funtzioa ... 45
doitzea ... 48
helburua ... 52
kontrol-argia ... 46
lotu gabe ... 47
segurtasun-jarraibideak ... 45
sinboloak ... 46

uhalaren aurretenkagailuak mantentzea eta deusez tatzea ... 50
uhalaren banda jartzea ... 48
uhalaren biribilkagailu automatikoa, aurretenkagailua eta indar-mugagailua ... 50
Segurtasuna
gidatze segurua ... 41
haurren segurtasuna ... 61
haurrentzako eserlekuak ... 61
Seinaleak pantailan
abiadura-abisua ... 24
abiadura-mugagailua ... 195
abiaduraren kontrol moldatzailea ... 198
ateak, aurreko kapota eta maletategiaren atea irekita ... 23
Drive Profile ... 180
EKO-Aholkuak ... 30
hautatze-agintearen posizioak ... 172
kanpoko tenperatura ... 24
kilometro-kontagailua ... 24
Larrialdi-balaztatzeari laguntzeko sistema (Front Assist) ... 206
larrialdietarako laguntzailea (Emergency Assist) ... 217
oharpen- eta informazio-mezuak ... 26
ordua eta data ... 31
pneumatikoen presioaren kontrola ... 375
PreCrash sistema ... 52
trafiko-seinaleak ... 28
Travel Assist ... 213
tresnen koadroa ... 23
zerbitzu-tarteak ... 31
Service Mobility ... 383
Sistemaren doikuntzak ... 272
Soinu-seinalea
argiak ... 125
segurtasun-uhala lotu gabe ... 46
Soinuaren doikuntzak ... 272
Start-Stop ... 169
Start-Stop sistema
argiak ... 169
eskuz deskonektatzea eta konektatzea ... 171
funtzionamendua ... 169
gidariarentzako jarraibideak ... 171
motorra bera bakarrik abiaraziko da ... 169
motorra ez da itzaltzen ... 169
motorra gelditzea eta martxan jartzea ... 169
Sutea ... 73

T

Tanga betetzea ... 322
Teléfono
deitzea ... 297
deskonektatu ... 295
gogokoak ... 298
konektatzea ... 296
kontaktuak ... 298
markatze laburreko teklak ... 298
mezuak bidaltzea ... 297
telefono mugikorra parekatzea ... 296
telefono-agenda ... 298
Telefono interfazea ... 294
ekipamendua ... 294
leherketa-arriskua duten lekuak ... 295
sinboloak ... 294
Telefono mugikorrak ... 390
Tenperaturaren adierazlea
kanpokoa ... 24
motorreko likido hozgarriarena ... 21
Tiptronic (aldagailu automatikoa) ... 174
Tiraderak ... 249
Top Tether ... 69
Top Tether sistema ... 69
Top View Camera
ikusi ikuspen periferikoko sistema (Top View Camera) ... 242
TP (trafikoaren irrati-katea) ... 280
Trafiko-informazioa ... 291
Trafiko-seinaleak
bistaratzea pantailan ... 28
Trafiko-seinaleak atzemateko sistema ... 28
abiadura-abisua ... 29
bistaratzea pantailan ... 28
funtzionamendu mugatua ... 29
funtzionamendua ... 27
haizetakoaren kalteak ... 29
Trafikoaren irrati-katea
ikusi TP (trafikoaren irrati-katea) ... 280
Trakzio osoa ... 159
Trakzio-ibilgailua eta atoiaren multzoa egonkortzea ... 316
Trakzio-kontrola ... 184
Travel Assist ... 212
arazoak eta irtenbideak ... 216
konektatzea eta deskonektatzea ... 214
lagundutako errei-aldaketa ... 214
seinaleak pantailan ... 213
Tresnen koadroa ... 16
abisu-argiak eta kontrol-argiak ... 13
digitala (Digital Cockpit) ... 17
funtzio anitzeko bolantearekin erabiltzea ... 33
oharpen- eta informazio-mezuak ... 26
ordua eta data ... 31
seinaleak pantailan ... 23
sinboloak ... 13
zerbitzu-tarteen adierazlea ... 31
Tresnen koadroaren argiztapena ... 130
Tresnen koadroko pantaila ... 17, 23
Ibilgailu hibridoak ... 18

U

Uhala tenkatzea 50
Uhalaren aurretenkagailuak 50
kontrol-argia 54
Uhalaren banda jartzea 48
Uhalaren indar-mugagailua 50
Ukipen-eremuak 269
Ukipen-pantaila 269
Ultrasoinu-sentsoreak 193
Urez estalitako galtzadetatik igarotzea 158
Urrutiko agintea (berogailu independentea) 149, 150
Urrutiko kontroleko giltza
desblokeatzea eta blokeatzea 98
USB 264
USB sarrera 264

W

WLAN 258

Z

Zama bertikala atoiaren akoplamenduan 309
atoia kargatzea 314
Zaratak
balaztak 182
berogailu independentea 151
geratze-balazta 223
pneumatikoak 364
Zehaztasunak
Android Auto™ 263
Apple CarPlay 262
atoian abiaraztea 334
atoian eramatea 334
atoiarekin gidatzea 315
ikuspen periferikoko sistema (Top View Camera) 243
MirrorLink® 264
presio handiko garbiketa-ekipamenduak . . 316
Zerbitzu-tarteak 31
Zerbitzu-tarteen adierazlea 31
Zerbitzua
erabilera-baldintzak 382
ikuskapena 381
Mantentze-plan digitala 381
zerbitzu -multzoak 383
zerbitzu-lanak 381
Zerbitzuaren egiaztagiria 381
Zerbitzua menua
ibilgailuaren identifikazio-zenbakia 31
zerbitzu-tarteen adierazlea 31
Zerbitzuak linean 253
Zetano-indizea (diesel erregaia) 324
Zuloak konpontzeko kita 377
10 minutu igarotakoan egiaztatzea 379
osagaiak 378
pneumatikoa puztea 379
pneumatikoa zigilatzea 379
Zuloak konpontzekoa 377

CUPRA